

Juan Bautista Agirre

**JAUNGOIKOAREN
LEGEKO AMAR AGINTEEN
GAÑEAN
ERAKUSALDIAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Eracusaldiac*, Juan Bautista Agirre (faksimilea).
Hordago, 1978

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=330>

JAUNGOIKOAREN LEGEKO AMAR AGINTEEN GAÑEAN ERAKUSALDIAK

Don Juan Bautista Agirre Asteasuko Erretore,
eta Gipuzkoako Arziprestazko Nagusian Diputadu
Jeneralak,
Kristau aziai Meza nagusietan egiñak

Eskeintzen diezte Apaiz Euskaldunai

Clama, ne cesses, quasi tuba exalta vocem tuam,
et annuntia populo meo scelera eorum. Isaiae 58.

Iruñeko gure apaiz nagusiaren baimenarekin

BIGARREN LIBURUA

TOLOSAN:
Andres Gorosabelen moldetegian
1850garren urtean

LENENGO ITZALDI, EDO PLATIKA

*Ematen dira Jaunaren legeko
amar Aginteen berriak.*

ALABATUA

izan dedilla Aldareko Sakramentu guziz Santua, eta
Birjiña txit Santaren sortze garbia, zeña bekatu jator-
rizkoaren mantxarik gabe sortu izan zan.

Gurutze Santuaren etc.

Clama, ne cesses, quasi tuba exalta vocem tuam,
et annuntia populo meo scelera eorum. Isaiae 58.
*Otsegizu, ez ixildu: tronpeta baten eran egizu deadar,
eta aditzera eman giozkatzu nere erriari bere bekatuak,
dio Jaunak Isaiasen autik.*

Azkeneko bi Erakusaldietan itzegin da Jesus ona-
ren piztueraren gañean. Ekusi degu, Kristaua, piztu
zala Jesus egiaz, eta berriz ez iltzeko. Ekusi degu, piz-
tuera onek aditzera ematen digula gure animen piz-
tuera, bekatuaren eriotzatic graziaren bizitzara. Il zan
Jesus guri ongi naiez, eta piztu zan, piztu gindezen gu

betiko, edo bekatura beñere ez biurtzeko. Uste det, igaro dan garizuman asko bekatari piztu dirala, aditu dituen egia izugarriakin batezere gazteen artean; baña beldur naiz, zarren artean ez dirala gutxi geratu diranak bekatuan gogortuak, sorrak, eta gorrak. Oek bizi dira eren bizitza gaiztoan oatuak bezala, eta beren barrunbeak esaten die, *nora dijoazen*, baña ez due biotzik bekatuaren bideak uzteko. Bekatari urri-kalgarri oek ere Zerurako egin zituan Jaunak, eta oraindañoko utsegite guziak barkatu nai diezte, baldin bekatuaren lo astunetik esnatuta biurtzen badira beragana. Ugaria, eta samurra da barkatzeko gure Jauna dio Isaiasek: *Quoniam multus est ad ignoscendum*: eta Profeta berak esaten digu; Otsegizu, ez ixildu: tronpeta baten eran egizu deadar, eta aditzera eman giozkatzu nere erriari bere bekatuak. Profet onek diona egiteko, aditzera emango dira aurten Jaunaren lege eder garbia, eta beraren kontra egiten ditugun utsegiteak: eta garizuma alderatzen danean Birjiña txit Santa Doloretakoaren onran egingo da bederatziurrena beste urteetan bezala. Gaur emango dizkitzuet Jaunaren legeko amar aginteen berriak. Enzun arretaz.

Munduaren asieratik denbora luzean bizitu ziran gizonak letraz ezarritako lege bage. Ezaguera zuzenak, eta Adanek eta Patriarka Santuak erakusten ziezana, bear adiña, Zerurako bidean ongi ibiltzeko. Baña denboren buruan geienak aztu ziran jainko egiazkoaz, eta asi ziran Jainkoaren lekuan onratzen edozeñ gauza: batzuek eguzkia, besteak illargia; batzuek izarrak, besteak sugeak, dragoiak, porruak, tipulak: eta oen anz, edo iduriak egiten zituen arriz, zillarrez, edo zurez. Iduri oek dira *idoloak*. Miretsitzen gera onenbesteraño gizona itsutzeaz, baña miretsitzeko bide geiago degu, gure egunetan, eta gure auzoan gertatu dana gertatzeaz. Ukatu zuen Jainko egiazkoa: eta *Jainkutztat autu zuen arrazoia*. Au adoratzeko, edo Jainkutztat onratzeko bear zuen anz, iduri, edo idoloen bat: artzen due andetan, nor uste dezue? Emakume limurizikin bat, aintzakutztat Parisen ezagutua zegoana. Gizon jakintsu askoren iritzia da, euskaldunen artean etzuala idolatriak lekuri izan jende arrotzak Españan sartu ziran artean, eta ez dala arkitzen gure lekuetan idoloen arrasto, edo aztarnarik.

Idolatriaren denbora aetan ere Jakoben umeak, eta ondorengoak etzuen galdu Jainko egiazkoaren ezaguera, eta sinistea; baña nola denbora luzean bizi-tu ziran Ejipton katiberio gogorrean, eta Jainko gezur-rezkoak baizik ezagutzen etzan tokian, perill andian zeuden ikasi bear etzituen gauzak ikasteko. Urrikaldu zan Jauna aezaz: atera zituan andik, asko mirari, eta arritzeko gauza egiten zituala. Alderatu ziran Sinaiko mendiaren inguruetara: kontatu zituen Moyses, eta Aaronek, eta ogei urtetik aurrerako gizon, gerrarako gai ziranak, iritsi ziran sei eun milla, ta geiagoraño. Etziran kontatu Lebiren umeak, zeren Elizarako autuak zeuden, eta etzuan nai Jaunak gerrariakin nas-tutzea. Igo zan Moyses Sinaiko mendira: itzegin zion Jaunak, eta gogora ekarri ziozkan Israeltarren alde, batezere Ejiptotik ateratzeko, egin zituan gauza mira-garriak. Agindu zion, esan zegiela, prest arkitzen zala Israeldarrak bere jendetzat berezkiro artzeko, oek beren aldetik gorde nai bazuen egun gutxiren barrun-bean emango zien legea. Jatxi zan Moyses menditik, eta aditzera eman zien Israeldarrai Jaunak esan ziona. Oek agindu zuen, gordeko zituela Jaunaren aginteak. Biurtu zan Moyses mendira, eta esan zion Jaunari Israeldarrakin egin zuana. Orduan esan zion Jaunak:

oraindano itzezin det zurekin bakarrik, eta inork aditzen ez gaituala: laster jatxiko naiz mendi onetara odei artean, eta itzegingo det zurekin oriek aditzen duela; era onetan ez due, zure esanak ez sinisteko, aitzakiarik izango. Biur zaite beretara: esan giezu, garbi ditzeela beren soñekoak, eta egun bi oetan ezkonduak ere gorde dezeela garbitasuna, artzeko irugarren egunean emango diedan legea: mendiaren inguruan siñalatu gieztetzu muga batzuek, eta ez dira oetatik igaroko. Ala egin zuan Moysesek. Etorri zan irugarren eguna: mendiaren gaña estali zuan odei batek: asi ziran turmoiak, tximistak, eta tronpeten otsa bezala. Alderatu zan Moises mendiaren mugetara, eta Jaunak deiturik, igo zan goora. Asi zan tronpetaren otsa, eta unetik unera aziaz zijoan: aditu zan inguru guzian Jaunaren itza, eta aditzera eman zituan bere amar aginteak añ indar andiarekin, non beldurtu ziran Israeldarrak bertan illik gera zitezen: eta erregutu zioen Moyses, itzezin zezala berak, eta ez jaunak. Orra zer gisatan aditzera eman zuan Jaunak bere amar aginteen legea. Gañera ipiñi ziezten beste aginte asko, baña oek geienak beintzat, Israeldarren lege zarrari zegozkanak ziran, eta bukatu ziran Jesusen legea etorri zanean; ez ordea amar aginteak, zeren

oek agintzen duena, ezaguera zuzenak len, eta beti erakusten duana dan.

Amar Aginte, edo Mandamentuak letraz ezarri zituan Jaunak arrizko bi oletan: lenengoan zeuden Jaunaren onrari dagozkan iru aginteak, eta bigarrenean lagun urkoaren onari begiratzen diezanak, Moysesek igaro zuan Jaunarekin itzegiten mendi-gañean denbora luzetxo: aspertu zan itxedotez jendea, eta bortxaz eragin zioen Aaroni urrezko idolo bat, idisko, edo txekorraren anza zuana; onelakoak onratzen, eta adoratzeko ziran alabaña ijitoen artean. Ekusi zuanean, zer egin zuen Israeltarrak, aserratu zitzaion Moyses: puskatu zituan Jaunaren legeko bi olak, eta illerazo zituan gutxienez iru milla, eta askok dionez ogei, eta iru milla. Alaere erregutu zion Jaunari Israeltarren alde, eta iritsi zuan oen bekatuaren barkazioa, eta artu zituan amar Aginteen ol berriak.

Il zan baño lentxeago itzezin: begien aurrean ipiñi zien artu zuen legea, eta Jaunarekin egin zuen igoala. Aditzera eman ziezten Jaunak agintzen ziezten ondasun eta bendizioak; baña izugarriak dira Jaunaren legea gordetzen ez duentzat ipiñi zituan madarikatua. Ara oetatik batzuek. Madarikatua izango zera errian, eta madarikatua kanpoan. Madarikatua zure

aletegia, edo graneroa. Madarikatua sartzen, eta irte-
ten zeran toki guzian. Madarikatuak zure lurrak dakar-
zian frutuak, baita idi, bei, ta ardi-taldeak ere, eta
bidal dezala Jaunak zure gañera izurria, erkiturik buka
zaitezen artean: bete zaitezela ezkabiz, eta atzez:
jauzi zaitezela burutik, eta egunaren erdian zabiltzala
itsuen eran bidebilla. Ezkonzen bazera, lo egin dezala
bestek zure emaztearekin. Gauaz, eta egunaz beldur
izango zera, zer ekusi bear ote dezun: goizean esango
dezu: *nork* eman legikedan arratsaldea? eta arratsal-
dean esango dezu: *nork* eman legikedan goiza iristea?
(Vide Deutoren. 28)

* * *

Ekusten dezu, Kristaua, nola Jaunak eman zigun
bere amar Aginteen Legea? Ekusten dezu, zer mada-
rikazioak aditzera lenagotik eman ziezten Moysesek
Israeldarrai? Eta eztakizu amar Aginte aek berak
gorde bear ditugula guk ere? Eztakizu, au ez egitera,
gure gañera etorriko dirala Jaunaren aserre, ta mada-
rikazio guziak? eta utsa da emango neke guzia gero-
koaren aldean. Askotan gertatzen da, Jaunak emen
bekatariari ez bidaltzea bere bizitza gaiztoarekin ira-

bazi dituan nekeak; baña laster bukatzen dira emengo aurkeriak, eta amiltzen da bekataria beti-beti iraungo duen nekeetan. Oroi gaitezen, nere Kristaua, amar Aginte oek gordetzeko itza eman genduala bataioko egunean. Oroi gaitezen, Eliz Ama Santak esan zigula: Betiko bizitza doatsua nai badezu, gorde itzatzu Mandamentuak: *Si vis ad vitam ingredi serva mandata*. Egin dezagun au benaz, eta gogotik, eta emango digu Jaunak guretzat prestaturik daukan betiko bizitza. Amen.

BIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Azaltzen da Jaunaren
Legeko lenengo Agintea.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Onetarako asi naiz Jaunaren legeko amar agintek azaltzen, ispillu onetan ekusi ditzan bakoitzak bere utsegiteak. Gaurko itzaldia izango da Jaunaren legeko lenengo agintearen gañean. Enzun arretaz.

* * *

Sinaiko mendiaren gañetik aditzera eman zua-
nean Jaunak amar aginteen legea, lenengoan esan
zien Israeldarrai era onetan: Ni naiz zure Jaun Jaungoi-
koa: *Ego Dominus Deus tuus* (exodi 20): Ejiptoko
lurretik eta katiberioko etxetik zu atera zaitudana.
Nizaz landara, edo osteronzean ez dezu izan bear Jain-

korik. *Ez dezu* egingo idolorik, edo Jainko gezurrezko-
en anz, eta iduririk: *ezeta* Zeruan, lurrian, edo urtan
lurraren azpian arkitzen diran gauzen anz, edo imaji-
ñarik ere (aditzen da Jainkoa bezala onratzeko). Ez
dituzu gauz oek adoratu. *Ni naiz, ni bakarrik zure*
Jaun Jaungoikoa. Orra zer esan zien Jaunak Israeldar-
rairai lenengo agintean.

Itz oetan ez da argiro esaten lenengo agintea dala
Jaungoikoa gauza guziena gañean amatzea; baña ala
aditzera eman zien Moysesek Israeldarrai, esan zie-
nean: «Enzun ezazu Israel gure Jaun Jaungoikoa bat
bakarra da: eta amatuko dezu zure biotz guziaz, zure
anima, zure indar, eta alegin guziaz: eta gaur nik adi-
tzera eman dizudan, Aginte onen itzak gordeko dituzu
zure biotzean: kontatuko dieztezu zure umeai: gogoan
erabilliko dituzu, etxean geldirik zaudenean, bidean
zabiltzanean, lotara zoazenean, eta lotatik jeikitzean.
Ipiñiko dituzu eskuan, siñaletzat loturik: erabilliko
dituzu begi bien erdian, eta letraz ezarriko dituzu zure
etxeke atalburuan, eta ateetan» (Deuter 6). Orra zer
gisatan itzezin zien Moysesek Israeldarrai Jaunari zor
diogun ongina, ta amorioaren gañean: eta Jesu-Kristo-
k deitzen dio Aginte oni guziena artean *andiena ta*
lenena (Math. 22). Orregatik ederki esaten da dotri-

nan, Jaunaren legeko lenengo Agintea dala: *Jaungoikoa gauza guzien gañean amatzea*.

Lenengo Aginte oni guk ongi eranzuteko gauza bearra da lenengo lekuan fedeko Misterio, eta guri dagozkigun gauzak jakitea eta sinistea, ezin alabaña amatu dezakegu Jauna biotz osoz, beraren Ontasun baztergabea agertzen diguen Misterioak jakin, eta sinistu gabe. Orregatik alde onetatik utsegiten du lenengo lekuan dotrina jakiteko saiatzen ez danak. Bigarrena, fedeko Misterioak sinisteko neke pixka artu nai ez duanak, edo *Akto fedekoak*, egin bear diran denboran, egiten ez dituanak. Irugarrena fedeko gauzaren bat ukatzen duanak. Onelako asko izango dira gaurko egunean erri andietan; badira alabaña txoraska asko, gure auzoko gudarrietatik fedearen kontrako gauzak ikasi dituenak, eta *inkisizioaren* beldurra kendu dan ezkerro, nolana itzegiten duenak. Begira, Kristaua, zaude sendoro Eliz ama Santa Erromakoak erakusten dizunaren sinistean. Ama au da egiaren irozgarri, eta Koloma, eta ezin utsegin dezakezu onek erakusten dizuna sinistean. Laugarrena, utsegin diteke lenengo aginte onen kontra fedeko gauzaren bat, oartua zaudela, dudan ipintzen badezu.

Lenengo aginte oni guk ongi eranzuteko gauza bearra da bigarren lekuan Jaunagan uste, edo esperanza izatea, Jesusen eriotza bitarteko dala, eta bera- ren lagunzarekin alegiña egiten degula bear dan damua sortzeko, eta konfesatzeko, barkatuko dizkigu- la gure bekatuak, eta emango digula agindurik dau- kan betiko bizitza: gañera emango digula Zerurako bidean bear degun guzia. Uste edo esperanza au da Kristauaren gurutze, eta neke guzien gozagarria. Onek Martiriak alaitzen zituan oñaze izugarrien artean, eta onek ainbeste gazte prestu ezkutarazi ditu bakardadeetan eta paret-artean. Au da munduko itsa- so onetan animaren onzia gordetzen duan aingura. Gai onetan utsegin diteke lenengo lekuan. *Akto espe- ranzakoak* egin bear diranean, egin gabez: eta gizon jakintsuen iritzia da sarritan egin bear dirala. Bigarre- na, Jaunaren urrikaltasun, edo Misericordiaz etsitzen bada, Kainen, eta Judasen eran. Irugarren lekuan ,esperanzaren kontrako bekatua da Zeruaren ustea, bakoitzak bere aldetik bizitz onari jarraitzen ez diola: au da herejia bat, Luterok erakutsi zuana. Laugarrena, uste izatea, nolana, eta Jaunaren lagunza gabe irten ditekeala bekatutik: au ere herejia da. Bostgarrena, bekatuan irautea, eriotzako orduan bizitza ontzeko

ustearrekin. Seigarrena, bere naiez bekatuaren perillurkoetan sartzea, esaten duala batek beregan: *joango naiz, baña uste det gordeko nauala Jaunak, edo Ama Birjiñak bekatutik*. Au da zentzugabeko ustea; Jaunak alabaña laguntzen digu bekatuaren bideetatik aldegitteko; baña geren naiez aratzen bagera, ez digu bere laguntzarik emango, ez erortzeko, eta perillean era onetan sartzea bera bekatu da.

Lenengo aginte oni eranzuteko gauza bearra da irugarren lekuan Jauna biotz osoz amatzea gauza guzien gañetik, ez nolana, baizik beraren ontasun baztergabeari fedearen argiarekin begiraturik. Ezin guk ezagutu dezakegu ontasun au beregan dan eran; baña nolerebait ezagutzen degu, egin dituan, obra miragarrietatik. Obra oek batzuek dira gerenez degun argitasunarekin ezagutzen ditugunak. Ekusten dituzu Zeru eder oriek gau argi batean. Ekusten dezu, nola distiatzen duen izarrak. Ekusten dituzu lurreko loreak, arbolak, arri ederrak, urre, eta zillarrak eta diozu zeregan: *gauz oek añ onak, eta ederrak badira, zer izango da oen Egillea? Zeñ on, eta maitagarria!* Orra, nola zerez dezun argitasunarekin igerritzen dezun Jauna dala guziz on, eder, eta maitagarria, baña ezaguera onekin Jaun bera amatzea ez da asko lenengo Manda-

mentuari erantzuteko. Beste obra batzuek dira fedeak bakarrik erakusten dizkigunak, eta oen bidez ezagutzen, eta amaten degula Jaunaren ontasun neurririk, eta mugarik ez duana, egingo degu lenengo Mandamentuak eskatzen duana. Atozea, kristaua, nondik dakizu, Zerurako egin zinduala Jaunak? Nondik Adanek galdu zuala eskubide, edo deretxa au guzia bere bekatuarekin beretzat, eta guretzat? Nondik dakizu, oker au zuzentzeko gizon egin zala Trinidadeko bigarren Persona Birjiña txit Santaren Sabelean Espiritu Santuaren obraz, gurutzean eman zuala bere bizitza: irugarren egunean piztu, ta berrogeigarrenean Zerura igo zala, eta etorriko dala biziak, eta illak juzgatzeraz? Nondik dakizu, ipiñi zituala Jesus maitagarriak zazpi iturri, edo Sakramentu graziaren ur gozoa beti ematen ari, eta beñere agortzen ez diranak oen artean Konfesioko Sakramentua bataioa ezkerre egindako bekatuak barkatzeko, eta Komuniokoa gure animen janari, eta edari izateko? Gauzoen berririk ez degu fedearen argiagandik baizik: eta oen ezaguerarekin igerritzen degu, au guzia guri ongi naiez egin duan Jauna nai, ta nai ez (esan oi dan bezala) beregan dala ontasun neurri, ta mugarik ez duana: eta era onetan amatzea da lenengo aginteak eskatzen digun eran amatzea, eta

au sarritan egin bear degu, onetarako ipiñi da Akto fedekoak, esperanza, eta karidadezkoak egiteko usanz ederra. Jauna, ezin nere buruan sartu dira Akto fedekoak Elizan esaten diran eran. Atozea eztakizu dotrina? Eztakizu *Kredoa*? Sarritan esazu bada, eta onela egingo dituzu Akto fedekoak. Eztakizu *Aita gurea*? Esazu sarritan, eta egingo dituzu Akto esperanzakoak. Eztakizu *Akto Kontriziozkoa*? Esazu maiz biotzetik, eta onela egingo dituzu *akto karidadezko, eta kontriziozkoa*.

Atzenean lenengo aginte oni ongi eranzuteko, gauza bearra da Jauna onratzea, eta adoratzea gauza guzien asiera, eta iturburua bezala: eta era askotara au egiten degu, batzuetan itzez, beraren alabanzak kantatzen, eta adirazten ditugula, besteetan geren buruak, eta ondasunak eskeintzen diozkagula; baña gauza guzien artean onragarriena da Meza Santa, eskeintzen zaio alabaña bere Seme bakarra, guzian berarekin berdiña.

Jaunak nai du, bera ezezik, Birjiña txit Santa, Aingeru onak, eta Santuak ere onratzea, ez ordea Jainkoaren eran, baizik gure bitartekoak, eta Jainkoaren adiskideak bezala. Nai du gañera Jesusen, Birjiña txit Santaren, eta Santuen anz, edo imajiña ere onratzea,

ez zeren gai onekin, edo arekin egiñak diran, baizik zeren Zeruan dagoana aditzera ematen diguen.

Mandamentu onen kontra alde onetatik utsgiten da era askotara. Lenengo lekuan, baldin Meza eskeintzen bazaio gurutzeari, imajiñaren bati; Meza alabaña Jainkoari bakarrik eskeintzen zaio; eta imajiñaren baten aurrean Meza esaten danean ere, Jainkoari bakarrik au eskeintzen zaio, ez imajinari berari: era berean uste, edo esperanza ez da ipintzen imajiñan, baizik Jaungoikoagan. Bigarren lekuan gurutze, eta imajiñak onratzen badira duen gaiagatik, au da gauza debekatua. Irugarren lekuan, Mandamentu onen kontra utsegiten da, baldin Demonioaren lagunzaz baliatzen bagera bide onez ezin jakin ditzakegun gauzak jakiteko, edo gaitzen bat sendatzeko. Laugarren lekuan Mandamentu onen kontra bekatu egingo dezu Jaunaren etxe, ta itzari, gurutzeari, eta imajiñai galtzen badiezu dagoten begiramentu, edo errespetoa. Asko degu gaurko.

* * *

Orra, Kristaua, Jaunak bere lenengo Mandamentuan agintzen diguna. Amatu bear degu gure Jaun

Jaungoikoa, fedearen argiarekin beraren Ontasun baztergabeari begiratzen diogula. Amatu bear degu sarritan, eta amatu bear degu gauza guzien gañetik, esan nai det, añ biotz prestuarekin, non prest egon bear degun edozeñ neke, eta kalte irozotzeko, Jaunaren onrak ala eskatzen badu. Oitu gaitzen onetarako fede, esperanza, ta karidadezko afektoak egitera: aldegin dezagun bekatuaren bideetatik, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

IRUGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Ukitzen dira lenengo aginte, edo
Mandamentuaren kontrako bekatuak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Onetarako azkeneko aldian itz egin nizuen Jaunaren legeko lenengo agintearen gañean. Gaur ukituko ditut aginte onen kontra erraz gertatu ditezkean utsegiteak. Enzun arretarekin.

* * *

1. Begira, dotrina ikasteko, eta erakusten dituan gauzak ongi aditzeko, saiatu ote zeran? Baña nola saiatuko ziñan Jaunaren itzagandik igesi ibilli bazera? Emen itz bat gurasoai. Gurasoak, egizue alegiña, umeak eskolara bidaltzeko, ongi ikasi dezeen dotrina; bestela zerok, eta umeak biziko zerate, zeren animak

betiko galtzeko, perill andian: eta ez esan, ezin bidalduko dituzuela, zeren Elizatik urruti bizi zeraten; urrutian, eta aldean bizi diranak alabaña guziak daude beartuak, zerurako jakin bear diran gauzak ikastera, eta au egiteko biderik errazena da aurrak eskolara bidaltzea. Jauna, etxean ere erakutsi diteke dotrina; baña nola erakutsiko du ez dakianak? Eta jakin arren, erakusteko betarik, edo gogorik ez duanak? Gañera urte oro gertatzen da neke andi bat morroi berriakin. Nagusi batzuek ez dira oroitzen morroi, eta neskameai dotrina galdetzeaz, eta nola ikasiko due, ezpadakie? Elizan, eta eskolan ez due ikasiko, zeren etortzeko erarik ez duen geienak. Etxean ere nekez ikasiko due, zeren edo erakuslerik ez duen, edo mendian denborarik geiena igarotzen duen. Bitatik bat gurasoak, edo ez artu morroi, edo neskamerik, edo ikaserazo bear diezue dotrina.

2. Begira, ikasi dezun, nola molda zaitezkean zure bekatuen damu egiazkoa sortzeko. Au eztakianak, zer egingo du, iltzeko perillak artzen badu eremu batean bakarrik, edo erakuslerik bage? Onezko damu, edo kontrizioa sortzeko, itzak bederik dakizkianak zerbait egin dezake Jaunaren lagunzarekin, baña zer egingo du itzak ere ikasi ez dituanak?

3. Begira sarritan egin dituzun Akto fedekoak? Dotrina ongi dakianak sarritan egingo ditu Akto fedekoak, oarkabean ere; baña dotrinarik eztakianak ez du ezer egingo zuzen. Au bera diot esperanzaren gañean.

4. Begira, fedeko gauzaren bat ukatu dezun, dala bakarrik zaudela, dala lagun artean, egin dezagun kontu: *ez da Purgatoriorik*: au da Luteroren herejia: *argi-olatak alperrik ekarten dira*: au ere herejia da: zeren fedeko gauza da, Mezarekin batean Jaunari batek bere doaiak eskeintzea obra ona eta laudagarria dala, eta ala egin izan da Elizaren lenengo denboretatik, eta S. Karlos Borromeok dio, gorde bear dala usanz eder au, eta utzi bada, alegiña egin bear dala bere oñera biurtu dedin. Gañera, baldin edozeñ beartsuri ur pixkabat ematea obra ona bada, zer izango da Meza Santuan bakoitzak bere doaitxoak Jaunari eskeintzea? Ez duanak zer eskeñi, eskeñi begio bere biotza. Jauna, orrelako gauzen gañean ez due ezer esaten guk enzun ditugun Predikariak. Enzun esatera noana: nik ez det zer sartu besteakin, baizik nere egin-bidea da herejia ekarri dezakeen erausiak ez utzitza dagoten ateleka eman gabe. Goazen aurrera: fedeko gauzaren bat era onetan ukatzen duana gertzen da exkomiku nagusiaren azpian, eta barkazioa

iristeko salatu bearako du bere burua Obispo Jaunaren aurrean, eta ark agintzen diona egin bearako du: eta Inkisizioa jartzen bada bere oñean, Konfesoreak esango dizu zer egin bear dezun.

5. Begira, fedeko gauzaren bat, osotoro ukatu ez, baña dudan ipiñi ote dezun: *Bekatu*en barkazioa iristeko gauza bearra ote da konfesioa? Bekatu larria ote da seigarrengo lizunkerietan ibiltzea? Ote da infernuri? Gauz oek gogora etortze utsa ez da bekatu larria, baldin oartzen zeranean aienatzen badituzu, edo artarako alegiña egiten badezu; bestela izango da herejia.

6. Begira, etsi ote dezun Jaunaren urrikaltasunaz. Au da Kainen, eta Judasen bekatu txit itsusia. Jauna txit andiak, eta ezin konta al dira nere utsegiteak: atozea, eta eztakizu askoz andiagoa dala Jaunaren ontasuna? Eztakizu *nai det* esate utsarekin gauza guziak ezerezetik egin zituela? Eriak sendatu, itsuak argitu, illak piztu zituala? Etzabiltzala bada txorakeri orietan; utzi itzazu bekatuaren bideak, biur zaite biotz osoz Jaunagana, eta guzia barkatuko dizu.

7. Begira, uste izan ote dezun Zerua, zere aldetik obra onik egin, eta Mandamentuak gorde bage? Au da Luteroren herejia.

8. Begira bekatuaren bideetan bizitu zeran esaten dezula zeregan: *gaztea naiz oraiñ, azkeneko denboran utziko ditut gaiztakeri oek*. Au da uste, edo esperanza zenzugabea. Atozea, eztakizu markatuak dauz-kala Jaunak gure bizitzako mugak? urte, ta egunak? Beraz muga oek igarotzen baditugu, ez degu denbora geiago izango Job Santuak dion bezala. Laburrak dira, Jauna, dio Job Santuak; *gizonaren egunak, eta zugarde gordea dago, zenbat diran beraren bizitzako illak* (Job Cap. 14): *ipiñi diozkatzu gizonaren bizitzari zerorrek dakizkitzun mugak, eta ezin oetatik igaro diteke*.

9. Begira, bekatuak bide, eta perill urkoetara sartu zeran, edo aetan bizi zeran, esaten dezula zeregan, *uste det gordeko nauala Jaunak bekatutik*. Au ere uste, edo esperanza zenzugabea da; zeren Jaunaren mirari gabe ez da bekatutik gordeko perill urkoan jartz-en dana bere naiez; gañera perillean jarzea bera bekatu da. Atozea, zere naiez sartzen bazera karobi erazeki batean, naiko dezu gorde zaitzan Jaunak erre gabe?

10. Begira sarritan egin dituzun *karidandezko Aktoak*? Gai onetan bizitz onean diardunak, sarritan egin-go ditu, oarkabeen ere, dala Meza enzutean, dala Nere Jesu-kristo Jauna esatean: alaere onena da bera-

riaz egitea fede, esperanza, eta karidadezko Aktoak, eta au egiten degu jai-arrasaldeetan dotrina esan-ondoan, eta jai-erdietako Meza nagusietan. Gaizki bizi danak ez oi du *karidadezko aktorik* egiñ oi, mingañez zerbait esan arren, zeren biotzik ez duan bekatua, ta bekatuaren bideak osotoro uzteko.

11. Begira, Jainkoari bakarrik zor zaion onra eman diozun lurreko gauzaren bati. Au da idolatria. Adanen umeak, ujaldeen ondorengo denboretan, aztuaz joan ziran Jainko egiazkoaz, eta Jainkotsat onratzen zituen, batzuek eguzkia, ta izarrak, besteak beste edozeñ gauza, eta gauza oen anz, eta irudiak egin oi zituen urrez, zillarrez, arriz: eta oei ematen diegu idoloen izena. Ez da izan, zion Zizeronek, fede gabea bazan ere, jende añ basati, eta ezigaberik, non eta ezagutu ez duan bai dala Jainkoa, eta au aditzera ematen zuen idoloak berak; oek onratzen zituenak alabaña sinisten zuen egi au, idoloak, eta Jainko etziran gauzak onratzen bazituen ere. Aspaldi aztu ziran anziñako idoloak, Jesusen lege ederrak alabaña zabaldu zuan jainko egiazkoaren ezaguera. Alaere agertu dira denbora oetan gizon arro jakintsuen ustez puztuak, eta erausi ditue ezin esan ditezkean zenzugabekeriak. Batzuek, eren gura gaiztoak ez garaitzeagatik, eta infernuaren

beldurrez, esan digue ez dala Jainkorik: onelako zenbait izan dira gure auzoan, baita Kadizen, eta Madriden ere; baña oek dira mundu guziaren desonragarriak eta aintzakotzat autan dabiltzan. Beste batzuek gure auzoan Jainkotzat artu zuen *arrazoia*, eta aintzakotzat onratu zezeen jendeak, andetan erabilli zuen kalez kale onen idoloa; badakizue nolakoa? Arritu zaitzte Zeruak! emakume zikin-limuri bat Jainkotzat erabilli zuen era onetan. Ez da gure artean malla onetaraño igo zenzugabekeria, baña eztakit zer gertatuko zan, Jaunaren guganako ongina, eta urrikaltasunak gorde ezpagindu: Jaunaren urrikimentuari eskerrak, galdu ezpagera osotoro esan dezakegu Jeremias Profetarekin: *Misericordiae Domini quia non sumus consumpti* (Tren. 3.).

12. Begira, gurutzeari gorde diozun dagokan begiramentua? Gurutzean il zan Jesus guri onginaiez, eta atera ginduan bekatuaren mendetik. Gurutzea da Jesusen anz, eta iduria, eta beragatik onratu bear degu. Etsaiak iges egiten du gurutzeagandik, zakurrak burua autsi dion, makillagandik iges egiten duan eran; eta guk ez degu onratuko gurutze santua? Onetarako, gurutzea egitean, egin bear degu ongi. Bigarrena, ez dira egin bear gurutzeak karkau, eta toki zikiñetan.

Irugarrena, ez dezazuela artu ielsozko Santo Kristorik, zeren erraz puskatzen, eta farragarri geratzen diran. Atzenean obietan, eta oñpean dabilzan gauzetan ez ipiñi gurutzerik. Anziñatik debekatua dago au.

13. Begira, Jaunaren etxe, eta itz Santuari gorde diezun dagoten begiramentua. Ongi da, nere Kristaua, Elizako zokoetan sartu, eta erausian egotea? Ongi da Jaunaren itza adirazten danean lotan jartzea? Ongi da, arretarekin enzun ordean, ezertan ez artzea Jaunaren itza? Eztakizu, au dala, etsaiak bere taldekoai ipintzen dien, marka? Jainkoarena danak enzuten du beraren itza, dio Jesu-Kristok; argatik zuek enzuten ez dezue, zeren Jainkoarenak etzeraten: *Qui ex Deo est, verba Dei audit: propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.*

14. Begira, aztinanz, edo sorginkerietan sinistu dezun. Aztien izena ematen zate, lurpean ezkutaturik dauden, gauzak ekusten dituela esan oi dan, aek. Ez da onelako gauzak etsaiaren lagunza gabe ekusi ditzakeanik. Alaere ibilli oi dira zenbait aztien, edo sorgiñen otspena duen atso gezurtien billa, lurpeko ondasunak, edo bestela ezkutatu zaizten gauzak arkitzeko. Au da zorakeri andia, eta Obispo Jaunari, edo inkisizioari aditzera eman bear zaiona; baña nola gauz

oek gertatu oi diran ez jakiñean, ez dira gaztigatzen iñora. Kristaua, utzi itzatzu zorakeri oek.

15. Begira, zakurraren adia, edo ezkillaren ots illuna adituta, esan dezun: *laster ilko da norbait*. Nork sinistu dezake, onelako zenzugabekeriak aditzen dirala erri askotan? Zakurrak, eta ezkillak ez due ezaguerarik, eta ezin adirazi dezakee orrelako gauzarik. Gañera Jainkoak beregan gorderik daukan gauza da noiz ilko dan bakoitza.

16. Begira, gaitzen batetik zere burua gordetzeko, edo ona iristeko baliatu ote zeran artarako egokiak ez diran moduaz, ez berenez, ez Jainkoagandik, ez Elizagandik. Au da gauza debekatua, eta Obispo Jaunari, edo Inkisizioari aditzera eman bear zaiona. Onelako gauz asko ez jakiñean egiten omen dira. Ara oetatik batzuek. Urliak norbaiti gaitza kentzeko, edo arintzeko, artzen du ur bedeinkatua iru onzitatik, eta edanerazten dio. *Sandiak* ezkondu nai luke: aditu du, amorio belarraren autsakin beretuko duala nai duana, eta ematen diozka bati: zenzugabekeriak dira gauz oek. Suerte ona iristeko, bizitz onaren belarra baizik ez da arkitzen. *Urliak* uste du, etxetik irtetean atsorik arkitzen badu, ez duala egun artan gauz onik izango, eta biurtzen da etxera. Ala egiten omen zuan Tyko Braek,

gizon txit jakintsua bazan ere. *Sandiak* dio, Meza bukatzean liburua geratzen bada idikia, Elizan dauden sorgin guziak geratuko dira dauden tokian, igitu ezin ditezkeala. *Urliak* ez diozka ollakolkari ipiñi nai arraultzak bat goiti baizik, zeren uste duan, txita gutxi jaioko dirala, parez ipintzen bazaizka. *Sandiak* ardura andiarekin gordetzen du, ostiral Santuz jaio zaion arraulza, urte artan suagandik gordetzeko etxea; beste batzuek ez omen due maiean jarri nai, amairu lagun badaude an. Uzten ditut beste onelako farragarrikeri asko. Eztakit, onelako zorakeriarik usatzen dan emen, baña baliz izango litzake sorginkeria, eta bekatu. Asko da.

Orra, nere Kristaua, lenengo agintearen kontrako bekatuak. Gorde dezagun Jaunaren lege Santa leialki, eta emango digu, agindu digun, betiko bizitza. Amen.

LAUGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Azaltzen da Jaunaren
Legeko bigarren Agintea.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian aditzera eman nituan Jaunaren legeko lenengo agintearen kontra erraz gerta ditezkean bekatuak. Igaro gaitezen oraiñ bigarren aginterra. Enzun arduraz.

* * *

Sinaiko menditik aditzera eman zienean Jaunak Israeldarrai amar aginteen legea, bigarreanean esan zien: ez dezu alperrik attatuko, edo autan artuko zure Jaungoikoaren izen Santua: *Non asumes nomen Dei tui in vanum*. Dotrinan esaten degu: *bigarrena aren izen santuaz juramentu alperrik ez egitea*. Juramen-

tuaz gañera badira zenbait gauza Aginte oni dagozkanak, eta guzien gañean itzegingo det.

Ez dezu alperrik autan artuko zure Jaungoikoaren izen Santua, dio Jaunak berak: *Non asumes nomen Dei tui in vanum*. Itz oetan debekatzen zaku lenengo lekuan: Jaunaren onraren kontra zerbait esatea, edo isekak egitea: eta era berean Birjiña txit Santaren, eta Santuen onraren kontra. Bekatu oni deitzen zaio *Blasfemia*. Jaunari eskerrak euskaldunen artean ez da zabaldu *blasfemiazko* izketa itsusirik; baña zenbait aldiz gertatzen da *Jesusen* izen Santua autan ekartzea begiramentu gutxirekin, batak besteari isekaz esaten diola: *Jesus*. Emendik aurrera, edo ez dezagun attatu Jaunaren izen Santua, edo gorde degiogun dagokan begiramentua.

Debekatzen da bigarren lekuan aren izen Santuaz juramentu alperrik egitea. Juramentua, bear dan eran, eta bear dituan doaiakin egiten bada, ona da, eta besterik esatea da Wiklefen herejia. Zer doai bear ote ditu juramentuak ona izateko? Iru: oek dira, lenengoa, egiarekin egitea. Bigarrena, zintzoro edo ongi begiraturik egitea. Onetarako ekusi bear da juramentu egiteko premiarik dan, edo egitean protxurik; ez du alabaña nai Jaunak, nolainai autan erabiltzea beraren izen

Santua. Irugarrena, juramentuarekin agintzen dan gauza ona izatea. Demagun egiten dezula juramentu era onetan: Demonioak naramala, ezpadiot burua autsitzen urliari. Juramentu au gaiztoa da, zeren gauza gaiztoa dan lagun urkoari burua ausitzea, eta au agintzen dan esan-dedan juramentuan. Juramentuak eskatzen dituan, iru doai oek Jeremiasek aditzera eman zituanak berak dira: *jurabis, vivit Dominus, in veritate, in judicio, et in justitia* (c. 4.).

Juramentua izango da alperra, benikbeñ, gezurra-
ren gañean, edo gezurraren beldur, edo enurarekin
egiten bada: au berez bekatu larri, edo mortala da
guzien iritzian, zeren era onetan gezurraren testigu,
eta estalkitzat ipintzen dan Jauna. Jauna, dio batek,
Juramentu sarritan egiten det, baña gauza txikien
gañean, batzuetan egiarekin, besteetan gezurraren
gañean, baña ez det bekatu larri, edo anditzat artu.
Ori juramentu gezurrezkoa, naiz gauz andiaren, naiz
txikiaren gañean izan dedilla, berez bekatu larri, edo
mortala da, zeren gezur-estalkin ipintzen dan Jauna,
eta bidegabe andia dan au. Orregatik ardura andia
ipiñi bear dezu, oitura itsusi ori utzitzeko. Emen gogo-
an arrezazu, Kristaua, gauza bat, eta da, *Deabrua,*
Demonioa, arraioa esatea ez dala juramentu, ez dala

*juramentu, ez dala juramentu, baizik gaiztoari otsegi-
te utsa, eta bekatu beniala berez. Batzuetan gerta-
tzen da, batek esatea onelako edo alako gauza gerta-
tu dala, edo ez dala, ez nolana, baizik juramentu, eta
birauarekin, egin dezagun kontu Deabruak naramala,
ala Zerura noala, emendik mugi ez nadilla* au onela
da: gezurraren gañean egiten badu, gutxienez egingo
ditu bi bekatu larri, bata zeren gezurrezko juramentua
egiten duan, bestea, zeren birauarekin bere buruari
gaiz andia opa dion.

Juramentua izango da bigarren lekuan alperra,
egiarekin, baña premia, edo protxu bage egiten bada.
Ez da au berez bekatu larri, edo mortala, baña begira,
Kristaua: etzaitzela oitu juramentu egiaren aitzakian
erraz egitera; zeren oitura onek berekin dakar gezu-
rraren gañean egiteko perilla. *Sarritan juramentu egi-
ten duana, beteko da bekatuz, eta ez da aren etxetik
irtengo nekea,* esaten digu Espiritu Santuak (Eccli.
23).

Atzenean juramentua izango da alperra, baldin
juramentuarekin batean agertzen bada gauza gaizto-
ren bat egiteko asmoa. Demagun, esaten dezula: *ara
gurutzea, ez diot urliari utziko burua autsi gabe.* Jura-
mentu au alperra da, zeren bear duan ondasunik ez

duan, edo zeren gauza gaiztoa egiteko asmoa agertzen duan.

Badira izketa batzuek sarritan auan ekartzen diranak, egin dezagun kontu: *Nere konzienzian: nere animan, nola naizan Kristaua, nola naizan Pedro, ala fede*, eta batzuek bear bada juramentutzat artzen ditue. Enzun arretaz esatera noana. *Nere konzienzian* esatea ez da juramentu gizon jakintsu askoren iritzian, eta ez dezazuela aintzakotzat artu. *Nere animan* esatea batzuek, esan oi duen eran, ez dirudi juramentu, beste batzuetan juramentuaren antza dakar, eta juramentu dala geienak erakusten due. Orregatik etzaitezela oitu, Kristaua, nere animan esatera. *Nola naizan Kristaua, nola naizan Pedro, ala fede*, itz oek ez dira juramentu: izan ditezke itz alperrak, eta alde onetatik bekatu benialak, baña ez juramentuak diralako.

Guazen oraiñ birauen gañean itzegitera. Birauaren izenez aditzen (aditzen) degu geienetan izketa bat, zeñarekin adirazten duan batek, opa diola norbaiti gaitzen bat. Opa dan gaitza txikia bada, txikia izango da egiten dan bekatua ere, baña andia, opa bada gaitz andia. Demagun, esaten diozula señide bati: ez *aldin utziko Amak gingak jaten*. Birau txikia da au,

zeren txikia dan opa dan gaitza: baña esaten badiozu benaz, eta biotzetik: itoko al aiz, au izango da birau andia, gaitz andia da ala baña itorik geratzea. Birauen gañean itzegitea gauz egokiagoa litzake bearbada bostgarren Mandamenturako, baña ukitu oi da bigarreanean, zeren askotan juramentuarekin nastutzen dan. *Birau egitean, benaz* eta biotzetik opa bazaio lagun urkoari gaitz andia, orduan biraua izango da bekatu larria, eta konfesioan esan bear da zenbat bider, eta zenbat lagunen aurrean. Era berean esan bear da umearen, senide, edo gurasoaren kontra bota dan. Esan det, *lagun urkoari* opa bazaio gaitz andia; emendik idiai, beiai, abere, eta egaztiai birauak botatzea ez da bekatu larria, Santo Tomasek erakusten digun bezala. Alaere utzi bear da griña txar au, beste-la mingaña erraz irristatu liteke lagun urkoen kontra. Esan det gañera, *lagun urkoari opa bazaio gaitz andia*, zeren gaitz txikiaren gañean danean, txikia izan oi da biraua ere. Esan det atzenean, benaz, eta *biotzetik opa bazaio* lagun urkoari *gaitz andia*, zeren biotzetik, edo benaz botatzen ezpada biraua, orduan ez oi da izan bekatu larri, edo mortala. Baña enzun arretarekin esatera noana, zuek guraso, nagusi, etxekoandre, eta umeak. Gurasoak, sarritan, edo oituraz botatzen

badiezte birauak ume, eta mirabeai, bekatu larri, edo mortala izan oi da au, naiz biotzetik, naiz bestela bota ditezela. Nola ori, esango didazu? Zeren ematen zaten oitura itsusi au ikasteko bidea. Zerren gañera, ume, ta mirabeak, ekusirik beren buruak birauen kargapean, gogaitzen dira, eta galtzen due guraso, ta nagusiai zor diezan ongina, eta begiramentua. Era berean, umeak gurasoai birauak egitea, izan oi da bekatu larria, biotzetik egiten ez diranean ere, aditzen baditue gurasoak, edo aditzeko perilla bada. Zergatik? zerren galtzen zaten onelako itzegiteakin, dagoten onra, eta begiramentua.

Jauna, biraua ote da esatea *ai amorratua*, edo *gogaikarria*! Ez, itz oekin alabaña ez gaitzik, ez onik opa diozu lagun urkoari. Jauna, askotan esaten det *ah puzoi txarra*! Au ere ez da birau. Jauna, ta *arranoa* esatea? Ori ere ez. Atozea: *arranoa* zer da? egazti andibat, eta ori attatzea, edo *belea*, saizuria, edo sapelaitza esatea berdin da. Era berean *arraioa*, edo *oñaztarr*a esatea ezer ez da, edo da *tximista* esatea bezala: besterik litzake esango bazendu: *Tximista gaiztok puskatuko al zaitu*, orduan izango litzake birau, zeren gaitz andia opa diozun lagun urkoari. Jauna, *Deabrua*, *Demonioa galtzagorria* esatea? Ez da ori ere biraua,

baña ez da ongi autan erabiltzea *Deabruaren*, eta *Demonioaren* izena, batezere gurasoetan, zeren bereala ikasten duen umeak. Etxe batzuetan bekatu jatorrizkoa bezala izan oi da biraua, eta juramentua, igarotzen da alabaña aurrekoetatik ondorengoetara. Atzenean: *Beistegizula*, *Beistegiala ark*, askok esan oi due, batezere beterri aldean, baña nere ustean ezta-kie zer esan nai duen itz oek, eta ez dira birautzat artu bear.

Bigarren aginte onetan bertan ukitu oi dira *boto*, eta *promesak* ere. Oen izenez aditzen da agintzea zerbait Jainkoari, ez nolana, baizik agindua egiteko egin-bide, edo obligazioarekin. Baldin artzen badezu asmo oso, eta andi bat Lezora joateko, Mezaren bat ateratzeko, ez da au botoa, ez promesa, zeren asmo dezu-na egiteko egin-bide, edo obligazioa zere gañean artu ez dezun. Au bera diot, garbitasuna gordetzeko, eta ez ezkontzeko asmoagatik. Baldin egiten badezu *boto*, edo *promesa Lezora*, Aranzazura joateko, urliarekin gura dezun eran ibiltzeagatik, ez du balio *promes* onek, zeren asmo gaiztoarekin egiten dan, eta da *blasfemia* bat, zeren adirazten dan Jaunari agradatzen zaiola gauza gaiztoa. Era berean Meza ateratzea, argia ipintzea onelako, edo alako Santuren aurrean,

edo erregutzea, suerte ona izan ez dezan, edo gaitzen bat etorri dakion urliari, edo zandiari da *blasfemia*, zeren aditzera ematen dan, Jaunari agradatzen zaiola gauza gaiztoa. Asko da gaurko.

* * *

Aditu dezu, Kristaua, zer debekatzen zakun jaunaren Legeko bigarren Agintean. Ez dezazula auan artu Jaunaren izen Santua nolainai, baizik begiramentu andiarekin.

Etzaitezela oitu juramentuak erraz egitera, eta birauak botatzera. Ez beñere egin *boto*, edo promesarik zure konfessorearekin egon gabe. Bizi zaite Jaunaren beldur Santuan, onela iristeko prestatuak daukan betiko bizitza. Amen.

BOSTGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

Ukitzen dira Jaunaren Legeko bigarren Agintearen kontra gertatzen diran bekatuak.

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian itzegin nuan Jaunaren legeko bigarren agintearen gañean, eta gaur ukitu nai nituke aginte onen kontra gertatu oi diran utsegiteak. Enzun arretarekin.

* * *

1. Begira, Jaunaren, Birjiña txit Santa, eta Santuen onraren kontrako itzen batzuek esan, edo isekaren batzuek egin dituzun? Jaunaren izen Santua edo ez esan edo esazu begiramentu andiarekin. Au bera diot Birjiña txit Santaren, ta Santuen izenaren gañean.

Urrengo itz oek oraiñ ez datoz gaizki, gero utzi ditezke. Ez det ezer esan nai gerra onetan Elizako janzi, Sakramentu, gurutze, eta imajiñakin egingo ziran bidegabeaz; bada Jaunak begiratu digu urrikaltasun andiarekin: igaro da ekaitzik andiena, eta guri dagokigu Jauna onratzea oraindaño baño obeto.

2. Begira, juramentuak egin izan dituzun gezurraren gañean, edo gezurraren beldur, edo enura; edo dudarekin? Zenbat urtean izan dezun oitura au? astean, edo illean zenbat bider egin dituzun?

3. Begira izan ote dezun oitura esateko: *Nere animan* gezurraren gañean? Juramentutzat artzen zenduan, edo ez? Aurrak ez artu oitura au, eta artu duanak utzi beza.

4. Begira justiziaren aurrean egin dezun juramentu gezurrezkorik? eta emendik kalteren bat etorri zaion lagun urkoari?

5. Begira, izan ote dezun juramentuak sarritan egiteko oitura, *egiazkoak dirala* aitzakiatzat arturik? Sarritan juramentuak egin, eta beti egiarekin? Neke da. Geienetan gertatuko da juramentuak egitean zuk ez begiratzea, egiaren, edo gezurraren gañean egiten dituzun, eta au da bekatu larria. Sarritan juramentu egiten duana beteko da bekatuz, eta aren etxetik ez

da irtengo nekea, esaten digu Espiritu Santuak: *Vir multum jurans implebitur iniquitate, et nom discedet a domo illius plaga* (Eccli, 23). Gaurdanik arrezazu, juramenturik premia gabe ez egiteko asmoa, ez eta egiaren gañean ere. Nik diot, esaten digu Jesu Kristok: Nik diot, ez egin juramenturik inolaere, baizik esazue bai edo ez uts-utsik: *Ego autem dico vobis, non jurare omnino: sit autem sermo vester est, est, non on* (Math, 5).

6. Begira, izan ote dezun, juramentu diran itzak esateko oitura, egiaren, edo gezurraren gañean itzegiten dezun begiratu bage, egin dezagun kontu: *Ala Jainkoak salba nazala: emendik mugi ez nadilla, Deabruak naramala, au onela da edo ez da*. Oitura au geienak dioenez bekatu larri, edo mortala da. Oitura au uzteko neurri egokiak artu nai ezpaditu, ezin Sakramentuak artu ditzake.

7. Begira egin ote dituzun juramentu birauakin nastuak, aditzera ematen dezula gauza gaiztoaren bat egiteko asmoa, egin dezagun kontu: *Deabruak naramala, urliari ezpadiot burua ausitzen*. Bekatu larriak izan oi dira juramentu oek, naiz gauza gaiztoa egiteko asmoa izan dezala juramentugilleak, naiz ez. Alako asmorik ezpadu, juramentua izango da gezurrezkoa;

eta alako asmoa badu, izango da gauza gaizto andia-
ren gañean.

8. Begira izan ote dezun auzokoai, edo beste lagun urkoai birauak botatzeko oitura? Zenbat denboran izan dezun oitura ori? Astean edo illean zenbat bider botako zinduan gutxi gora bera? Zenbat bider biotzetik, eta zenbat bider bestela? Oitura au duenak nekez osotoro uzten due, zeren onetara saiatu nai ez duen. Santa Franziska Erromatarrak, itz alperra esaten zuan bakoitzean, mingañoarekin garbitzen zuan gela erratzarekin bezala, odola zerioneraño: eta sendagai onekin joango lirake birauak botatzeko gogoak. Azkeneko itzaldian esan nuan, idi, bei, ta abereai birauak botatzea ez dala berez bekatu larria; baña Kristauaren auan gaizki dirudi, eta utzi bear da. Esan nuan gañera, birauren bat botatzea, edo gai txikian, edo gaitz opa etzaiola, lagun urkoari, ez dala bekatu larri, edo mortala: au nola aditzen dan guraso, eta umeentzat, gero esango da.

9. Begira noizbait esan dezun lagun urkoaren kontra: *niri eman dizkidan nekeak etorriko al zaizka bera-ri ere, ez geiago, eta ez gutxiago: Amen.* Zenbat denboran bizitu zera sasoi orretan? Jakizu gaizki bizitu zerala denbora orretan guzian; eta berritu bear dituzu

bitarte orretan egindako konfesioak. Jauna, baliaki nolako txarkeriak egin zizkidan urlia orrek. Atozea, eta zerren ark gaizki egin duan, zuk ere egin bear dezu? Zergatik ark Jaunaren kontra bekatu egin duan, zuk ere egin bear dezu? Baña goazen aurrera.

10. Begira, zure gurasoari, edo gurasoen ordekoari biraurik bota diozun, eta zenbat bider? benaz, eta biotzetik, edo bestela? Eriotzaren pena ipiñi zion Jaunak onelako umeari: *Qui maledixerit Patri, vel matri morte moriatur* (Lev, 20). Jauna, bota diozkat gurasoari onenbeste birau, zeren gogaiterazo ziran bere errierta; eta gogortasunarekin, baña etziran biotzetik. Atozea, eta aditu zituan gurasoak? Eztakit aditu zituan, baña aditu zitzakean. Birau oriekin beraz utsegin zenduan, eta ez gutxi gurasoari zor diozun onra, eta begiramentuaren kontra, biotzetik bota ezpazinduan ere.

11. Begira, senarrari, edo emazteari biraurik bota diozun, eta zenbat bider?

12. Begira, izan ote dezun zure ume, eta mirabeai birauak botatzeko oitura? *Eztanda egingo al dezue. Deabruak eramango al zaitue gogaikarriok.* Zenbat denboran izan dezu oitura au? Astean, edo illean zenbat bider gertatzen zan ori? Jauna, ez niezten biotze-

tik esaten. Alaere bekatu larrian bizi oi dira onelako gurasoak, zeren ematen diezan oitura gaiztoa ikaste-ko bidea.

13. Begira, zure umeai sarritan deitzen diezun *Deabru*, edo *Demonioaren* izenarekin. *Deabrua*, edo *Demonioa* esatea *uts-utsik* ez da berez bekatu larri, edo mortala, baña gurasoak ume, eta serbitzariak sarritan otsegiten badie *Deabru*, edo *Demonioaren* izenez: *ator Demonioa, abil Deabrua, oa Demonioa*, zer ikasiko due ume, ta mirabeak? Zer ongina, eta begiramentu izango dieza oek? Erri andi batean arkitu zuen aur bat negarrez, etxerako bidea galdurik. Galdetu zioen: *Norena zera?* Eranzun zuan: *Deabrurena. Nola deritza zure Aitari? Deabrua. Zeñ da zure etxea? Deabruarena.* Orra, zer datorren gurasoen onelako oitura gaiztotik.

14. Begira, *boto*, edo *promesaren* batekin agindua egin gabe zauden zabarkeriaz. Ez dezazula egin emendik aurrera promesarik, konfesorearen baimenagabe.

15. Begira, urliarekin nai bezala ibiltzeagatik egin ote dezun *promesaren bat* Lezora, Aranzazura, edo *Herniora joateko?* Jakizu promesa oek ez duela balio, eta balio ordean, dirala bekatu txit itsusiak, *blasfemia-*

ra biurtzen diranak, zeren bekatuarekin nastutzen diran ibillerak Jaunari agradatzen balitzaizka bezala agintzen diran.

16. Begira, atera ote dituzun Mezak, eman limosna, edo Jaunari erregutu diozun urliak izan ez dezan suerte ona, edo iritsi ez dezan eraren bat. *Blasfemia-ra* biurtzen da bekatu au ere.

* * *

Ongi begira gjezu, Kristaua, bigarren aginteak debekatzen dizkigun gauz oei: eta oraindañoko utsegiteaz damutu gaitezen biotzetik. Bizi gaitezen aurre-ra Jaunaren lege Santak erakusten digun eran, eta emango digu, agindu digun, saria, edo betiko bizitza. Amen.

SEIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Jaunaren legeko irugarren
agintearen gañean.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian aditzera eman nituan bigarren agintearen kontra gertatu oi diran bekatuak, oraiñ itzegin bear det irugarren agintearen gañean. Aginte au da gure Jaun eta Jaungoikoari zor diogun onra emateko ipiñia, ez barrendik bakarrik, baita kanpotik ere. Baña nola au egiten ote zuan gizonak munduaren asieratik, Lege zarra Jaunak Israeldarrai eman artean? Au da lenengo lekuan ekusi bear deguna. Nola au bera egin bear ote zuan Lege zarraren denboran? au da bigarren lekuan ekusi bear deguna. Bi gauz oek ekusi ezkeru, errazago adituko dezue aginte au, Apostolu Santuak, eta Eliz Ama Santak erakutsi diguen bezala. Enzun arretaz.

Gure Jauna gauza guzien asiera, eta iturburua da, eta gu egin ginduan, bera ezagutzeko, amatzeko, eta berarekin batean Zeruan bizitzeko. Orregatik beragan sinistu, eta gure uste guzia ipiñi bear degu: eta amatu bear degu biotz guzitik, baña ez da asko biotzez au guzia egitea; gauza bearra da gañera kanpotik ere gure Jaun, gure Ongille, eta Aita maitagarria onratzea.

Munduaren asieratik lenengo bi milla, eta bost eun urtean etzan izan letraz ezarritako lege eta Aginterik gai onetan; baña bazuan Adanek, eta beraren umeak ere bai fedearen argia, eta argi onekin ezagutzen zuen, onratu bear zuela beren Egille, eta Jaun ona. Batzuek uste izan due, munduaren asieratik markatu zuala Jaunak *larunbata*, edo zazpigarren eguna, beraren onran igarotzeko; egun onetan alabaña utzi zion Jaunak, Zeru-lurren, eta oetan arkitzen diran gauzen egiteari, eta *eman zion egun oni bendizioa* (Genes. 2); baña geienak erakusten due ez larunbata, ez beste egun jakiñik izan zala jaitzat autua, Jaunak bere amar aginteen Legea Israeltarrai eman zien artean. Orregatik *Lege naturalean*, esan nai det, letraz ezarritako legea Jaunak eman zuan artean, onak onratzen, eta adoratzten zuen Jauna beren jaietaren neurrian, eta

jaiera onek adirazten, eta eskatzen zien eran, eta denboran.

Zer gauza egiten ote zituen orduan anima onak, Jauna onratzeko? Asko gauza, eta oen artean erregu, edo otoiz umillak. Enos Adanen illoba, *asi zan deitzen Jaunari*, dio Eskritura Santak (Genes. 4), esan nai du, asi zala erakusten Jauna onratzeko modua. Henok ibilli zan Jaunarekin, au da bizitu zan Jaunaren borondatearen bideari jarraitzen ziola, eta añ jaiera andiarekin, non ezkutatu zuan Jaunak gizonen artetik, eta agertuko da Eliasekin batean Ante-Kristoaren kontra, eta erakutsiko die gizonai Zerurako bidea: geienak sinisten due, bizirik gordea daukala Jaunak. Jauna onratzeko anima onak egin oi zuen bigarren gauza zan beren ondasunetatik eskeintzea Jaun berari, biotz eskerdun batekin, eren doai, edo ofrendak, ez zeren oen bear zan, baizik zeren bera dan on guziaren emaillea, eta nai duan, artzalleak ontartea ezagutzea, eta aitortzea. Kain, eta Abel Adanen lenengo semeak ziran, Kain nekazaria, eta Abel arzaia. Kainek eskeñi ziozkan Jaunari bere doaiak, garia, frutak, eztia, matsak, baña dirudianez biotz zimurrarekin, txarrena, eta jaiera gutxirekin, eta etzitzaizkan agradatu Jaunari. Abelek eskeñi ziozkan Jaunari ganaduen lenbiziko

ume gizenenak, eta aditzera eman zuan Jaunak agradatu zitzaizkela. Au guzia gertatu zan Kainek ere igerri zuan eran. Emendik etorri zan onen gorrotoa Abelen kontra, eta kendu zion bizitza. Job Santuagan ekusten degu sarritan eskeintzen ziozkala Jaunari doaiak, bere seme alabak bekatoren batean erori etzitezzen. Anima onak Jauna onratzeko egin oi zuen irugarren gauza zan fede bizi batekin sinistea, leku guzietan arkitzen dala jauna, eta siniste onekin azkartzea obra onak egiteko, eta bekatutik aldegitako. Zabilta nere aurrean, ta zu izango zera ona, eta birtutetsua, esan zion Jaunak Abrahami, eta ala izan zan. Jose Patriarka Jakobean Semea, bere senideak ezin begi onez ekusi zuen, zeren Aitak besteai baño onginaigeiago agertzen zion, eta saldu zuen Ejiptora, Aitak etziakiala. Añ zan eder, eta galaia, non ura ekusteagatik, leio, eta balkoietara irteten ziran damak. Joserentxeko andreari gogoak eman zion, bear etzukean gauza bat egitea: egin zuan alegiña engañatzeko Jose, baño onek aienatu zuan beregandik, esaten ziola: *Nola nik au egin dezaket nere Jaungoikoaren kontra?* Atzenean iges egin zuan etxetik, utzirik kapa etxeko andrearen atzaparretan. Ekusten dezu, Kristaua, nola munduaren asieratik, letraz ezarritako lege gabe bizi-

tu baziran ere, zeñ ederki onratu zuen anima onak Jauna? Oen artean izen andikoak izan ziran Abel, Henok, Noe, Job, Abrahan, Isaak, Jakob, Jph. Etzan orduan Elizarik; etzan jai egunik, etzan Mezarik, eta Sakramenturik. Alaere fede bizi batekin oroitzen ziran, nola begira zegoten Jauna leku guzietan, eta onratzen zuen esan dedan eran.

Baña zer gertatu zan? Zabartuaz joan ziran gurasoak, Zerurako bidea umeai erakustean: eta Adanen umeak, elkarren leian bezala, asi ziran atsegin lotsagarrien ondoren; eta ainbesteraño itsutu ziran bekatuaren bideetan, non damutu zitzaion Jaunari gizona egin izateaz. Zikinkeri oetatik garbitzeko lurra, bidaldu zituan Jaunak mundu guzia estali zuen ujolak, eta Noe, ta bere etxeakoak ez, beste guziak ito ziran, ala zarrak, nola gazteak, ala gizonak, nola emakumeak. Eun, eta ogei urtez lenago aditzera eman zuan Jaunak gertatuko zana, ezpaziran zentzutzen gizonak; baña zentzatu bearrean, iseka egiten zuen Noeren esanaz, eta beraren onzi, edo arka egiteaz. Noeren umeak ziran Jafet, Sem, eta Kam: eta oen ondorengo geienak aztu ziran Jainko egiazkoaz: erori ziran idolatريان, eta Jainkotzat onratu zituen eguzkia, izarrak, eta gogoak ematen zien edozeñ gauza; baña Sem zeritzan, Noe-

ren semearen ondorengoan artean gorde zan Jainko egiazkoaren ezaguera. Abraham, Isak, Jakob jatorri onetakoak ziran, eta txit birtutesuak, eta Jaunak agindu zuan, aen odoletik etorriko zala Munduaren Salbatzalea. Jakoben umeak denbora luzean bizitu ziran Ejipton katiberio gogorrean, eta Jainko egiazkoa eza gutzen etzuen jendeen artean: andik atera zituan Jaunak, mirari asko egiten zituala: eta len esan nuan bezala, Sinaiko menditik eman zien bere Legea, bi arrizko oletan letraz ezarria. Dakuskun orain, zer egin bear zan Lege zarraren denboran, Jauna onratzeko.

§ II.

Lege au Jaunak eman zion artean, onratu bear zuan gizonak bere Jauna, eta onratu zuen anima onak esan degun eran; baña etzan onetarako ez egun ez modu siñalatu, edo markaturik; orregatik Jaunak Israeldarrai irugarren Agintean esan zien: oroi zaitezte larunbat eguna santifikatzeaz. *Memento, ut diem Sabbati sanctifices.* «Sei egunetan bear egingo dezu, eta bukatuko dituzu zure lan guziak; baña zazpigarren egunean zure Jaun Jaungoikoaren larunbata da. Egun

onetan ez dezu lanik batere egingo: ez zuk, ez zure seme, eta alabak: ez zure morroi, eta neskameak, ez zure astoak, ez eta, zure etxapean dagoan, arrotz, edo kanpokoak ere. Sei egunetan egin zituan alabaña Jaunak Zeru-lurrak, itsasoa, eta oetan arkitzen diran gauza guziak: eta zazpigarren egunean *atseden zuan*, au da, utzi zion lan egiteari: orregatik eman zion larunbat egunari bere bendizioa, *eta santifikatu zuan*».

Zer egin bear ote zuan gizonak, Aginte au ongi gorde, eta Jauna onratzeko? Bi gauza: bata zan Jaunaren egun au *santifikatzea*, edo obra onetan igarotzea. Orregatik Juduak larunbatean biltzen ziran Sinagoan, edo eren batzarreetako etxean: egiten zituen beren erreguak, eta irakurtzen zan Eskritura Santa. Bigarren gauza zan lanean ez aritzea: eta au gordetzen zan ardura andiarekin: etzan larunbatean janik maneatzen, ez eta surik erazekitzen ere: etzan bidez ibilli bear, ezpazan txit laburra. Etzan gerra egin bear egun onetan: egia da etzala oitura au beti era batera gorde. Arkitu zuen gizon bat basoan egurra egiten: eraman zioen Moisesi, eman zegion zegokan kastigua. Moises etzan trebe izan berez gauza erabakitzeke: galdetu zion Jaunari, zer egingo zan gizon arekin, eta Jaunaren

agintez bizia kendu zizaion arrika (Num. 15). Larunbatz gañera bazituen Israeldarrak beste festak ere, batzuek Jainkoak ipiñiak, nola ziran Pazkoa, Pentekostes, eta beste zenbait: beste batzuek zituen berak autu, eta ipiñiak, baña larunbata zan guzien artean estuena. Egun onetan ezin lanik egingo zuen ez umeak, ez morroi, ta neskameak, ez eta abereak ere. Au guzia agindu zien Jaunak Israeldarrai, beren gogo, eta biotza ipiñi zezeen, ez emengo arazoetan, baizik Jaunagan. Etzuan Jaunak nai, alperkerian egotea gizona, orregatik dio: sei egunetan bear egingo dezu, eta bukatuko dituzu zure lan guziak: baña nai zuan, eta nai du, zenbait denbora artzea Jauna onratzeko, utzirik emengo kezka, lan, eta arazoak.

Orra, Kristaua, gure Salbatzalle Jesus ona etorri zan bitartean, nola anima onak onratu izan zuen Jauna. Lege *naturalean*, esan nai det, letraz ezarritako legerik bage mundua bizitu zan bitartean, etzan egun, eta denbora markaturik Jauna onratzeko, eta bakoitzak bere jaiaren neurrian egiten ziozkan bere erre-gu umillak, ematen ziozkan eskerrak, eta eskeintzen ziozkan bere doaiak. Okertu ziran Adanen umeak: aztu ziren Jainko egiazkoaz, eta bakoitzak bere gisara egin nai zuan Jainko berri bat. Jakoben umeak ziran

Jainkoak autuak Munduari Salbatzalea emateko, eta oek arkitzen ziran, len askotan esan dizuedan bezala, Ejipton: atera zituan andik, eta erakutsi zien letraz ezarritako legearekin zer, eta zer egunetan egin bear zuen Jauna onratzeko. Arrigarria da Jaunak agertu duan guganako onginei ta amorioa: ez gaitezen izan oraindaño bezala eskergabeak: onratu dezagun biotz osoz gure Egille, gure Aita, ta Ongille maitagarria, onela iristeko betiko bizi-tza. Amen.

ZAZPIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Adierazten da Jaunaren Legeko
irugarren Agintea, Eliz Ama Santak
erakusten digun eran.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian asi giñan Jaunaren legeko irugarren agintea azaltzen. Ekusi genduan orduan, onratu bear degula gure Jaun, eta Jaungoikoa ez biotzez, eta barrendik bakarrik, baita kanpotik ere. Ekusi genduan gañera, nola au egin izan zuen anima onak *lege naturalean*, au da, munduaren asieratik letraz ezarritako legea Jaunak eman artean. Ekusi genduan atzenean, nola au egin zuen lege zarraren denboran. Etorri zan Jesus Munduaren Salbatzallea, eta guri ongi naiez eman zuan gurutzean bere bizitza. Ordutanik aitu ziran lege zarreko zeremoniak, jaiak, Sakrifizio, eta doaiak, baña etzan aitu, eta ezin aitu zitekean, gure

Jauna onratzeko degun, egin-bidea. Aitu zan larunbataren jaia, baña geratu zan Jauna onratu bearra, baña zer egunetan, eta nola au egin bear zan, etzuan erabaki Jesusek, baizik utzi zuan Apostoluen, eta Elizaren eskuetan: eta oek larunbataren lekuan, autu zuen igandea; igandean alabaña asi zan munduaren obra andia: igandean piztu zan Jesus, igandean jatxi zan Espiritu Santua Apostolu Santuetara, eta igandean barreatu zuen Apostoluak Jerusalenen Jesu-Kristoren legea. Igandiaz gañera Apostoluak, eta Elizak ipiñi zituen beste jai asko, batzuek osoak, besteak jai erdiak. Etzan asko guk Jauna onratzeko, onetarako egunak siñalatzea, erakusten ezpazitzakun egun oetan egin bear deguna. Orregatik agindu zuan Elizak, enzun dedilla Meza, eta ez dedilla egin lanik premia bage, osoa bada jaia. orra zer dan Jaunaren legeko irugarren agintea, Eliz Ama Santak erakusten digun eran. Galdetzen da dotrinan: *Zein da irugarren agintea?* Erantzuten da: *jai egunak santifikatzea. Jaiak nork santifikatzen ditu? Meza osoa enzun, eta lanik premia gabe egiten ez duenak.* Gaur ekusi bear degu, lenengo lekuan, zer egin bear degun, aginte oni erantzuteko. Urrena, *Meza osoa enzun, eta lanik ez egite utsa*

asko ote dan Eliz Ama Santak gugandik nai lukeana egiteko? Enzun arretarekin.

* * *

Irugarren agintea da *jai egunak santifikatzea*. Onetarako lenengo lekuan bear dana da *Mez-oso*a enzutea. Beartuak daude au egitera, gaitzaren, eta onaren ezagueran sartu diran Kristau guziak.

Enzun bear degu bada, nere Kristaua, *Meza osoa*: emendik bere naiez, edo kulpaz utzitzen badu batek Mezaren zati, edo puska andi bat, egiten du bekatu larri, edo mortala. Baña noiz esango ote da, puska andia dala utzi dana? Ez dago onetan gauz erabakirik, baña askoren iritzia da Mezaren asieratik Epistola bukatu artekoa ez dala gauz andia, eta era berean Apaizaren Komunioaz geroztikakoa. Gertatzen da zenbait aldiz, Mez osoa enzuteko erarik ez izatea batek, baña bai puska bat. Orduan enzun bear du puska au.

Ez da asko Mez osoa nola nai enzutea, baizik enzun bear da *ongi*, au da *modestiarekin*, eta zer egiten degun oartuak gaudela. Baldin Mezako denbora igarotzen bada *erausian*, *lotan*, edo batari, ta besteari begiratuaz, nola enzungo du onelakoak ongi Meza?

Emen emakumeai itz bat. Ekusi dezue gerra onetan, nola andre arrotzak jartzen ziran gizonen alkietan, eta gizartean: gaizki da au, eta beragatik Eliz Ama Santak beti nai izan du, emakumeak bereziak egotea, ez gizartean: orregatik emakumeak sartu oi ziran Elizan berentzat Elizak markatzen zien atetik, eta ate au zaitzen zuan Diakonisa, edo serore batek: eta gizonentzako atea zaitzen zuan Eliz gizonen batek. Ekusi dezue gañera zenbait erri anditan, nola emakume batzuek apaindura andiakin indiolloak bezala estalkirik bage jartzen diran Elizan: au ere gaizki da, eta S. Paulok dionaren kontra. Egia da emengo emakumeak ez duela onenbeste zorakeria agertu, eta laudagarriak dira alde onetatik; baña beste arrotz txoraska oriek aienatu bear lirake Elizetatik.

Atzenean txit ongi dirudian gauza da bakoitzak bere *erriko Elizan* Meza nagusia enzutea, era badu. Bere erriko Elizan diot. Anziñako denboran bakoitzak bere Elizan enzun bear zuan Meza, eta Apaizak Meza asi bear zuanean, otsegiten zuan, ote zan beste Elizakorik: baldin kanpokorik bazan, bidaltzen zuen bere Elizara. Esan det gañera *bere erriko Elizan Meza nagusia* enzutea, era badu. Ezin guziak Meza nagusira etorri ditezke, zeren etxeak iñor gabe ezin dautezkean;

baña era duenak etortzea ongi dirudian gauza da; Meza nagusietan alabaña biltzen da erri bakoitzeko artaldea bere arzaiarekin Jauna alabatzera, beraren itza enzutera, eta ekusia dago zeñ ongi dirudian onelako Meza enzuteak. Gañera, Kristauen artean asko dira, edo Zerurako jakin bear diran gauzak ez dakizkienak, edo bekatuaren zingiradietatik irten nai ez duenak: onelakoentzat premiazko gauza da dotrinak, eta Jainkoaren itza enzutea, eta au iritsiko du Meza nagusietan. Baña zer gertatzen da? Premierik andiena duenak iges egingo due Meza nagusietatik, eta goiz-Meza nolerebait ekusita ezkutatuko dira zuloren batean.

Mez osoa enzutea gauza bearra da esan dedan bezala, bekatu larriaren azpian. Alaere bekatu gabe utzi diteke zenbait aldiz. Lenengo lekuan, ezin, naita ere, enzun dezakeanean. Ala gertatzen da karzeletan dauzkeenakin, eta era berean itsasoan dijoazenakin. Bigarrena, gaixo, edo ongi sendatu gabea dagoanean bat. Irugarrena, heria zaitzen daudenak, besterik ezpada au ongi egin dezakeanik. Laugarrena, aur txikiak nori utzi ez duenak. Bostgarrena, izen onean bizi dan emakume batek, Meza enzutera irtetearekin galdu bear badu bere izen ona. Seigarrena, ezpadu

soñekorik, eta lotsa andian bere burua ekusi bear badu, Meza enzutera joanda. Egia da, jende arlotea soñeko zarrakin ekusi arren, ez dala iñor miretsitzen. Zazpigarrena, kalte andi bage Meza ezin enzun badezakezu. Zorzigarrena, emakume aurregin berriak utzi dezakee Meza denbora puska batean. Birjiña txit Santak Elizara joatea utzi zuan eran. Lege zarrean emakume aur-egin berriak ezin sar zitezkean Elizan, garbiturik gera zitezzen artean. Birjiña txit Santak etzuan zer ekusirik lege onekin; sortu zuan alabaña bere Semea Espiritu Santuaren obraz, eta egin zuan bere garbitasunaren kalte bage. Alaere berrogei egun igaro zituan Elizara bage. Orregatik Kristauen legean ere emakumeak, aurra eginda, egon oi dira denbora puska batean Elizara bage. Gai onetan gorde dezakee onzat emana dagoan usanza. Bederatzigarrena, etxe urrutietan bizi diran zarrak, eta aurdun diran emakumeak, eguraldi txarretan, batez ere neguan ez daude nere ustez beartuak Mezatarra etortzera, geienetan beintzat; baña zuzen joateko gai onetan onena da Arzaiarekin, edo Konfessorearekin egotea, eta ark esaten diona egitea, ezin alabaña emendik neurtu ditezke ongi gauza guziak. Jauna, eta orduan Mezaren lekuan beartua egongo ote naiz obra onen batzuek egitera,

nola diran errosarioa esatea, liburu onak irakurtzea, Akto fedeko, esperanza, ta karidadezkoak egitera? Ez, Elizaren aginteari uts-utsik begiratzen diogula, gizon jakintsu askok erakusten diguenez; baña nola beti gauden beartuak gure Jauna onratzera onena da, Mezatara ez datorrenak obra onen batzuek egitea, edo jaiean bertan, edo beste egunetan. Ala erakusten digue gizon jakintsu zenbaitek. Goazen oraiñ *jai osoak santifikatzeko* bear dan bigarren gauza.

* * *

Nork santifikatzen ditu jaiak? Galdetzen du dotri-
nak: eta eranzuten du: *Meza osoa enzunda, lanik pre-
mia bage egiten ez duenak*. Baña lan guziak ez dira
berdiñak, ez debekatuak.

Lanak batzuek dira animaren, edo espirituaren
aldetik datozenak. Onelakoak dira irakurtzea, eskribi-
tzea, kantatzea, soñua jotzea. Gauz oetan animarena
da lanaren geiena, eta berenez ez dira debekatuak jai
egunetan ere; baña debekatzen ditu Elizak oetatik
batzuek, egin dezagun kontu: *Tribunalera deitzea,
testiguai juramentu artzea, sentenziak ematea*.

Beste lan batzuek dira, gorputzaren nekea berezkiro eskatzen duenak, nola diran *laian, edo atxurrean egitea, jostea, eunak eotzea*. Lan oei deitzen dieza *morroi, ta neskameen lanak*. Oek debekatuak daude irugarren aginte onetan, baldin ezpada gauz oetakoren bat egiteko usantza, Elizak ontzat emana. Ala ekusten da erri andietan, erretzen dala ogia, iltzen dirala arakaiak, eta ez da au debeketzen premiari begiraturik.

Badira beste lan mota batzuek, ez morroi, ta neskameenak bakarrik, baizik guziak egin oi dituenak, nola diran bidez ibiltzea, naiz oñez, naiz zaldiz, naiz gurdiz: era berean jana maneatzeta, sua piztutzea: eta ez dago debekatua gauz oek egitea Kristauen artean, Juduen artean debekatuak izan arren. Baña emen gogoan arritzatzu, Kristaua, orain esatera noan gauz oek. Lenengoa: bidez ibiltzea, naiz oñez, naiz zaldiz ez dago debekatua irugarren agintean, gizon jakintsu geienak, edo alde aldean guziak erakusten diguenez; baña gaizki dirudi premia gabe eizera, edo arranzara joatea, Meza nagusia, eta bezperak esaten diran denboran. Bigarrena, askoren iritzian idi, eta mando kargatuakin jai osoan bideari ekitea debekatua dago, baña len asitako bideari jarraitzea egin diteke zeren

bestela kalte andia izango litzakean ostatuetan geraturik egotea. Irugarrena, ekusten det, gure okin gaixoak asto kargatuakin jai osoetan ere irteten dirala alduen tokira ogi saltzera, eta ez naiz atrebitzen bekatutzat ematera, zeren ez duen bizitzeko beste modurik, eta beste aldetik ontzat emana bide dago usanzau. Debekatuak dira *nondik naiak, edo feriak*: alaere leku batzuetako premiari begiraturik ematen due Obispo Jaunak baimena, egunen batzuetan feriak egiteko. Debekatua dago gañera dendak idikiak idukitzea jai osoetan, baña ez da bekatu saltzea jateko, eta edateko bear diran gauzak; eta era berean denda itxia dagoala, egun oro bear diran gauzak, egin dezagun kontu *zapatak, galzak, galzerdiak* saltzea. Jai osoetan lan debekatuak egitea berez bekatu da, eta bekatu ez nola nai, baizik larri, edo mortala ordu bitik aurreratxolana egiten bada, askok erakusten diguenez.

Lanak, berenez debekatuak izan arren, egin ditezke batzuetan bekatu bage, lenengo lekuan: kalte andiaren perilla danean. Bigarrena, baldin asteko nekearekin beretzat, eta umeentzat bear duana ezin bildu badu batek, orduan bere Arzai, edo Konfesoaren iritziarekin lana egin dezake batek ixilik. Irugarrena, gurasoak, nagusi, edo etxeko andreak premi

estuan agintzen badizue lanen bat, egin dezakezu bekatu bage; baña badira nagusi, eta etxeko andre batzuek añ anima bageak, eta herenkoiak, non borxatzen dituen mirabeak lan debekatuak egitera. Mira-beak irten zaitezte lenbait len orrelako etxeetatik, eta onetarako erari ezpada bereala, zaute konfessorearekin, eta egizue erakutsiko dizuena. Laugarrena, erri batzuetan badira usanz ontzat artuak daudenak gai oentan, eta orduan usanzari jarritzea lan egitean ez da bekatu. Ala erri batzuetan Meza nagusi, eta bezperen denboraz landara, edo kanpora, amuarekin arranzan ibiltzea, eta era berean eizean, ez oi da gauz anditizat artu.

* * *

Meza osoa enzun, eta lanik premia gabe ez egitea asko da irugarren Mandamentuaren kontra bekatu larririk ez egiteko, geienak erakusten diguenez; ez ordea Eliz Ama Santak gugandik nai lukeana egiteko; nai du alabaña guk emengo arazoak alde bat utzirik, jai egunetan guk gure animak garbitzea, obra onetan, eta Jaunaren alabanzetan egun oek igarotzea. Orregatik ipiñi ditu bezperak, errosario, dotrina, eta beste

usanz on asko eta Eliz Ama Santak nai duana egin bearrean, jaiak igarotzen badira, animak galerazten, eta lizunkerietan: iges egiten bada jaunaren Itza enzutetik, errosario, bezpera, eta obra onetatik, zer esan diteke onela jaiak santifikatzeaz? Eta miretsiko gera Jaunak nekeren batzuek bidaltzeaz? Miretsi gaitezen beraren ontasun geiegiaz. Zentza gaitezen nozibait, eta gorde ditzakun beraren jaiak zintzoro, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

ZORTZIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Ukitzen dira, jaunaren Legeko irugaren
Agintearen kontra gertatu oi diran,
utsegite, eta bekatuak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian itzegin nizuen Jaunaren Legeko irugarren Agintearen gañean, Eliza Ama Santak adirazten digun eran. Gaur ukitu uste ditut Aginte onen kontra gertatzen diran, utsegiteak. Enzun arretaz.

* * *

Aginte oni eranzuteko lenengo lekuan bear dan gauza da Meza osoa, eta ongi enzutea.

1. Begira bada, geratu ote zeran, eta zenbat bider jai egunean Mezarik enzun bage zere kulpaz? Enzun ezin dezakezunean, ez da bekatu. Ala gertatu oi da

gaixo daudenakin, eta kalte andiarekin baizik ezin enzun dezakeenakin.

2. Begira, zenbat bider jarri zeran, Meza gabe geratzeko perillean, batzuetan garai onean etxetik irten gabez, besteetan bidean erausian geratuaz. Asko geratzen dira ostatuan, eta Meza asitakoan irte-ten dira pipa auan duela. Beste batzuek Elizaren aldeko etxeetan biltzen dira, eta egongo dira asteko elaberriak irabiatzen: besteak Eliz-atarian bertan idi, eta beien adarrak laudatzen.

3. Begira, Meza enzun gabe joan ote zeran beste erriren batera, zeregan esaten dezula: *ez naiz bearbada ara iritsiko Meza enzuteko garai onean?* Kalte andirik izango ote zenduan, Meza enzuten errian geratuta? Kalte andiaren beldurra bazan, orduan etzan bekaturik, baña gañerakoan etzaitezela orrelako perillean jarri.

4. Begira, Mezako denboran egon ote zeran modestia, ta modu onean? Edo ala egon bearrean, denbora igaro ote dezun erausian, edo begi arroak darabitzkizula batari, eta besteari begiratzen? Denbora luzean, edo laburrean? Zenbat bider?

5. Begira, zure gogoa Mezako denboran, zere naiez iduki dezun munduko zorakerietan? Denbora luzean, edo laburrean? Zenbat bider?

6. Begira, iñoiz enzun ote dezun Meza bataren erdia, eta bestearena beste erdia, zeregan esaten dezula, bi erdirekin molda diteke osoa? Ez aurrera orrelakorik egin.

7. Begira, zure ume, morroi eta neskameai eragozti ote diezun meza jaiegunetan enzutea, etxeko arazoen aitzakiarekin, eta zenbat bider?

8. Begira jai osoetan lan debekaturik egin, edo eragin ote dezun premi estu bage? Zenbat denboran, eta zenbat bider?

9. Begira, astegunean egin zintzakean lanak jaierrako utzi ote dituzun berariaz? jaierrako gurdi-maneratzeara, jaierrako abarkak jostea: jaierrako gizonaren, eta umeen soñekoak adabatzea?

10. Begira, zure morroi, eta neskameari ukatu ote diezun abarkak josteko, eta soñeko zarrak adabatzeko denbora astegun, eta jaierran? Jauna, gauz oetarako denbora eman ezkeron noiz egingo dira etxeko lanak? Noiz? Bear dan denboran, beste etxe askotan egin oi diran bezala. Gañera, zergatik ez dieztezu egiten zerorrek ume eta mirabeai lan oriek astegunetan?

Jauna, eragin ditzakee kanpoan lan oriek? Eta zerekin pagatuko due jostuna? Beretik pagatzen badu, zer soldata geratuko zaio? Naiko dezu zure arto, edo gariarekin pagatzea? zenbait etxetan seme, alaba, edo mirabe izatea baño, obe lizake idi, bei, edo asto izatea; oei alabaña gaixotzen badira, ardura onarekin begiratzen zate, tresnak urratzen bazaizte, adabatzen zaizte.

11. Begira, izan ote dezun, Meza nagusi, errosario, eta bezperetatik iges egiteko oitura lotsagarria? Bada-
kit gauz oetako bakoitzak etzaituala beartzen bekatu larriaren azpian: bada-
kit, Mez osoa enzun, eta lanik premia gabe ez egitea agintzen dizula Eliz Ama Santak; baño denbora berean ezin ukatu diteke, asko Kristau dirala jakin bear dituen gauzak ez dakizkienak, eta are geiago, jaiak alperkerian igarotzen baditue, amilduko dirala bekaturen batzuetan edo gogoz, edo itzez, edo bestela. Zer izango da bada oez, jaietan iges egiten badue Meza nagusi, errosario, bezpera, dotrina, eta obra onetatik?

12. Begira, Meza nagusi, errosario, eta bezperen denboran idukitzen dituzun gizonen batzuek edanean, jokoan, edo lasaikerietan? Emen gogora ekarri ditza-
kezu gañera Eliz Ama Santaren beste Aginteen kon-

trako bekatuak, baña ez naiz oetan geratzen, zeren Elizaren bost Aginteen gañean itzegin uste dedan geroago. Egin dezagun alegiña, oraindañoko utsegi-teen damua sortzeko: gorde ditzakun ongi, Jauna onratzeko auturik dauden egunak, onela iristeko bera-
ren bendizioak emen, eta gero betiko bizitza. Amen.

BEDERATZIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Azaltzen da Jaunaren
Legeko laugarren Agintea.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Onetarako asi nintzan Jaunaren legeko aginteak azaltzen. Oetatik lenengo irurak Jaunaren onrari dagozkanak dira, eta Jaun berak aditzera eman, eta letraz ezarri zituan arrizko ol batean. Oen gañean itze-gin degu zerbait. Iru oez gañera arrizko beste ol batean letraz ezarri zituan zazpi Aginte, lagun urkoaren onari begiratzen dioenak, eta oek ere aditzera eman zituan Sinaiko menditik. Otsegin zien Israelta-rrai: onra ezazu zure Aita, eta zure Ama, luzaro bizi zaitezten, zure Jaun Jaungoikoak emango dizun, lurra-ren gañean: *Honora Patrem tuum, et matrem tuam, ut sis langaevus super terram, quam Dominus Deus tuus dabit tibi* (Exodi 20). Itz oekin aditzen ditugu lenengo

lekuan gure sortzea zor diegun gurasoak; baña oez gañera aditu bear dira, adiñean, diñade, ta gobernuan nagusiago diranak, eta beragatik guziak onratu bear ditugu. Onratu bear ditugu fededun guzien burua, edo Aita Santua, Obispo Jaunak, eta Apaizak. Onratu bear ditugu Erregeak, ta gure Agintariak. Onratu bear ditugu gure Erakusleak, eta zarrak, bakoitzaren mallari dagokan eran. Gai au añ ugaria da, non bera utsik asko izan litekean urte guziko itzaldietarako; baña ez da gutxi izango gauzarik bearrenak ongi azaltzen baditut. Gaur azalduko det ume, eta mirabeak beren gurasoai zor diezan onra. Enzun arretarekin.

* * *

Onra ezazu zure Aita eta Ama, esaten digu Jaunak. Beraz amatu bear dituzu, Kristaua ongina, eta amorio egiazko batekin, eta ongina au agertu bear da ala itzetan, nola obretan; ongina au da alabaña gurasoa egiaz onratzeko lenengo malla bezala: au bage zer onra emango diezu gurasoai? Ongina au zor dieza, ez umeak bakarrik baita morroi, eta neskameak ere nork ematen die alabaña jana, edana, bizilekua, soldata? Baña ez ditue amatu bear orregatik bakarrik, baita

askoz geiago, zeren au dan Jaunaren agintea. Eginbide onen kontra utsegiten due ume, eta mirabeak, lenengo lekuan, ezpaditue biotzetik amatzen. Bigarrena, poztutzen badira gurasoaren gaitzaz, edo naigabetzen onaz. Irugarrena, laguntzen ezpadioe bere premietan. Morroi eta neskameak ere utsegiten due, nagusi, ta etxeko andreak amatzen ezpaditue, laugarren Aginte onek eskatzen duan eran.

Onra ezazu zure Aita eta Ama. *Honora Patrem tuum, et matrem tuam*. Mandamentu onek agintzen diguna egiteko, ez da asko gurasoak amatzea, bear da bigarren lekuan gurasoari begiramentu, edo errespeto andi bat gordetzea itzegitean, begiratzean, eta modu guzietan. Alde onetatik utsegiten due ume, eta mirabeak, lenengo lekuan, zure guraso, eta burutzat ezagutzen ezpadituzu zere obretan. Bigarrena, beren aurpegira erantzuten badieztezu desonragarriak diran itzak, nola diran: *ordia, etxeondatzallea, alperra*. Jauna, egia garbia da au guzia. Izan bedi ala; zuk alae-re ezin bere aurpegira eranzun degiokezu gurasoari orrelako gauzarik. Irugarrena, lotsatzeko eran itzegiten badiezu: eta au erraz izan diteke bekatu larria, batez ere guraso, eta ume onraonean bizi diranen artean. Laugarrena, botatzen badieztezu birauak, naiz

biotzetik bota ditzatzula, naiz ez; zeren beti galtzen diezun zor zaten begiramentu, edo errespetoa. Eriotzaren pena ipiñi zion Jaunak lege zarrean bekatu oni: *Qui matledicerit Patri suo, vel matri, morte moriatur* (Exodi 21). Bostgarrena, sarritan ipintzen badiezu bekosko, edo kopeta illuna, edo itz garratzakin naigabetzen badituzu. Illuntasun, eta errierta pixka bat ume, mirabe, eta gurasoen artean gertatzea ez oi da izan bekatu larria, baña sarritan kopeta beltz ipintzea, eta itz samiñ, eta garratzakin erkiturik idukitzea gurasoa, nork ez dakus dala gauza txit itsusia? Lotsagarria, da doakabea deitzen dio Espiritu Santuak onelako umeari: *Qui affligit Patrem, et fugat matrem, ignominiosus est, et infelix* (Prov. 19). Seigarrena, siñuz, edo bestela isekak egiten badieztezu, berak igerritzen duela, eta naigabetzeko eran. Au ere bekatu larria izan oi da. Aitari iseka egiten, eta Ama ezertan ez daukanaren begia atera dezeela beleak, dio Espiritu Santuak: *Oculum, qui subsannat Patrem, et despicit partum matris suae, effodiant eum corvi* (Prov. 3). Zazpigarrena, jotzen badituzu zure gurasoak, naiz kolpea izan andia, naiz txikia. Bekatu au beti izan oi da larria, eta Jaunak eriotzaren pena ipiñi zion lege zarrean: *Qui percusserit Patrem suum, aut matrem suam morte*

moriatur (Exodi 21). Iruñeko Apaiz nagusiaren mende-ko Elizetan, Apaiz nagusiak berak, edo onek eskua ematen dionak bakarrik barkatzen du bekatu itsusi au. Zorzigarrena, jotzeko eskua altxatze utsa ere izan oi da bekatu larria ezagueran sartutako umeetan: eta esan diran gauz oetatik ezagutu dezakee morroi, ta neskameak ere noiz utsegiten duen nagusi eta etxe-ko-andreai zor diezan begiramentu, edo errespetoa-ren kontra.

Onra ezazu zure Aita, eta Ama: *Honora Patrem tuum, et matrem tuam*. Onetarako bear dan irugarren gauza da gurasoen aginduak egitea, animaren onari, etxe-ko gobernuari, eta aziera onari dagozten gauze-tan. Egizue gurasoen agindua gauza guzietan; au da alabaña Jaunak nai duana, esaten digu S. Paulok *Obedite Parentibus per omnia; hoc enim placitum est in Domino* (Ad Colosen. C. 3). *Gauza guzietan*, dio S. Paulok; baña au aditu bear da ongi. Ez dago beartua umea, ez eta morroi, ta neskamea ere gurasoen agin-duak egitera, agintzen bazate jaunaren legeak debe-katzen duan gauza; lenago da alabaña Jaunaren esana egitea, ezen ez gizonarena. Ez dago gañera beartua umea gurasoen esana egitera *estadua*, edo bizimodua aututzean, zeren Jaungoikoak prestatzen

dion bakoitzari bere estadia, batari ezkontza, besteari beste modu bat. Gai onetan umeari dagokana da garai onean gurasoari adiraztea, zer estadu artu nai duan; eta estadu au ezkonduena bada, ez du ezkontzeko itzik eman bear gurasoen baimena gabe. Atze-nean morroi, ta neskameak ere ez daude beartuak berai dagozten gauzak egitera baizik.

* * *

Orra, Kristaua, zer agintzen dien laugarren mandamentuak ume, ta mirabeai; eta gai onetan gertatzen diran bekatuak ukituko dira urrengo itzaldian. Ea gaztea, onra itzatzu zure gurasoak, dio Jaunak; onra itzatzu, luzaro bizi zaitezen zure Jaun Jaungoikoak emango dizun lurrean, eta gero betiko bizitza doatsuan. Amen.

AMARGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Ukitzen dira, umeak, eta morroi,
ta neskameak laugarren agintearen
kontra egin oi dituen bekatuak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko itzaldian asi nintzan Jaunaren legeko laugarren Agintearen gañean itzegiten, eta aditzera eman nizuen, nola ume, eta mirabeak onratu bear dituen beren gurasoak. Gaur ukituko ditut, Aginte onen kontra egin oi dituen, bekatuak. Enzun arretaz.

* * *

1. Begira, begira biotzetik maite izan dituzun gurasoak, edo au egin bearrean opa izan diezun lenbait len mundu onetatik joatea, etxeko agintea, eta ondasu-

nak artu naiez? Zenbat denboran eresi orrekin bizitu zeran?

2. Begira poztu ote zeran gurasoaren gaitzaz, edo naigabetu osasunaz? Gurasoa dago eztulka ler egiteko zorian, eta diozu zeregan: *ah zitala! etzera ez oraingo gaitzarekin ilko.*

3. Begira, lagundu diozun bere premietan? Gurasoak, ez eman dezuen guzia bertatik umeai, bestela erraz gertatu liteke zuekin, beste guraso bati gertatua. Eman zien zuana umeai, ongi ekusi naiez. Denbora piska batean txit ongi begiratu zioen, baña aztuaz joan ziran gurasoagandik artu zituen ontarteaz, eta atzenean ukatzen zien ongi igarotzeko bear zuan guzia. Oroitzen zan gizagajoa, umeak ongi ekusteagatik egin zuan zorakeriaz, eta ekusten zuan nola arkitzen zan, beretzat bear zuana gorde gabez. Estutasun onetan joan zan adiskide bategana, eta kendu zion diru puska bat. Bere gelan noizean beiñ otsa eragiten zien diruai, aditu zezeen soñua ala suiak, nola alabak. Oek diruaren soñuarekin esnatu ziran gurasoari ongi begiratzeko, eta gobernatzan zuen-elkarren leian. Orduan gurasoak biurtu zion bere adiskideari eman zion diru guzia. Egin zuan testamentua, baña itxia, eta etzuan garrote bat besterik utzi. Testamentuan esa-

ten zuan, garrote au utzitzen zuala, zuan guzia umeai ematen zien, gurasoa zeatzeko. Il zan, joan ziran umeak kutxara, eta etzuen garrotea baizik arkitu.

4. Begira, itzegin ote diozun Aitari, edo Amari onra galtzeko eran, egin dezagun kontu: *ordia, lotsagarria, etxe ondatzallea*. Au bekatu larria da berez. Jauna: *egia esan diot*. Atozea, eta zergatik egia dan, itzegin bear diozu gurasoari modu añ itsusian?

5. Begira, lotsa andia emango dioen gauzarik eranzun diozun gurasoari? Zenbat bider, eta zenbat lagunen aurrean.

6. Begira, biraurik bota diozun gurasoari berak aditzen duala? Zenbat bider, eta zenbat lagunen aurrean? Jauna, ez diot ordea biotzetik bota. Atozea, eztakizu orrelako itzegitearekin galtzen diozula zor zaion begiramentu, edo errespetoa? Bere Aitari, edo Amari birau egiten diona il bedi, dio Jaunak lege zarrean: *Qui maledixerit Patri suo, vel matri, morte moriatur* (Exodi 21).

7. Begira, sarritan ipiñi diozun kopet illuna, edo itz garratzakin naigabe andirik eman diozun? Edo ekusi nai ezpazendu bezala begiratzun diozun? Bekatu larria da au berez. Lotsagarria, ta doakabea deitzen dio Espiritu Santuak onelako umeari. *Qui affligit*

Patrem, et fugat matrem ignominiosus est, et infelix (Prov. 19). Illuntasun, eta errierta pixka bat ume, eta gurasoen artean gertatzea ez da berez bekatu larria, baña sarritan kopeta beltz ipintzea, eta itz samiñez erkiturik idukitzea norik ez dakus, zeñ gauz itsusia dan?

8. Begira, isekaz egon zatzaizkan gurasoari, berak ekusten duala? Au ere berez bekatu larria da. Aitari iseka egiten, eta Ama ezertan ez daukanaren begia atera dezeela beleak, dio Espiritu Santuak: *Oculum, qui subsannat Patrem et despicit partum matris suae, effodiant eum corvi* (Prov. 3).

9. Begira, izan ote dezun zure Aita edo Ama jotzeko ausardia. Izugarria da bekatu au, eta eriotzaren pena ipiñi zion Jaunak lege zarrean: *Qui percuserit patrem suum, aut matrem suam, morte moriatur* (Exodi 21). Iruñeko Apaiz nagusiaren mendeko lekue-tan ez due bekatu onen barkazioa emateko eskurik berak, edo ark onetarako ipintzen dituan Konfesoreak baizik.

10. Begira, eskua altxa diozun gurasoari jotzeko asmoarekin, edo asmo gabe; beti galtzen zaio alaba-ña zor zaion begiramentua.

11. Begira, gurasoen aginduak egin dituzun ongi? edo au egin bearrean, ortzak agerturik erriertan jarri zatzaizten? Zenbat bider? Gauza txikietan zerbait egin bage utzitzea, eta anditxoetan ere zerbait zabarkeri gertatzea (kalte andiren baten perillik ez danean) ez oi da izan bekatu larria; baña begira, Kristaua, atelekatzen bazaitu gurasoak zabarkeriren bategatik, etzaitezela asi lotsagabekerietan, baizik zaude ixilik, eta aurrera egitzu aginduak arretarekin. Au da Jaunaren borondatea; eta agintzen dizu sari txit andia ala emen, nola Zeruan.

12. Begira, bizitza ateratzeko modua ikasteko ongi saiatu zeran? Au egin gabez erriak alperrez betetzen, eta malla guziak itsusten dira. Ezpada gaztea saiatzen dagokan lankintza ikastera, zer on, eta zer protxu emango du azitzen danean.

13. Begira, agindu dizunean gurasoak, etzaitezela joan arako etxe artara, zeren esanmesa giztoak zabalitzen dituzun: aldegin dezazula arako lagun gaizto aetatik, ordu onean etxera zaitezela, noizean beñ bederik konfesa zaitezela; begira, diot, egin dezun gurasoaren esana? Au egiten ezpadezu, nolakoa izango da zure aziera?

14. Begira, gurasoen borondatearen kontra, edo oen baimena bage igaro zeran ezkontzeko itzak ematera. Erraztasun onetatik kalte andiak etorri izan dira. Lenengoa gurasoen nai bagea. Emen itzegiten det guraso zintzo, ta ardurarekin umeai begiratzen die-naz; badira alabaña batzuek, umeen eskuetan uzten duenak senarra edo emaztea billatzea. Bigarren kal-tea, ezagueran ongi sartu baño len gazteak eren buruak katrabillatzea, eta gero damuturik ibiltzea gaizki dirudien erausietan. Irugarrena, ezkontzeko itzaren goixoarekin neskatxa prestu asko bear ez lira-kean gauzetan erortzea, eta geratzea galduak; ezku-taria alabaña, gura zuana egin ezkeru, ez da oroitzen ere eman zuan itzaz, eta iñoiz oroitzen bada, dio: *Pu kiratsa dakar*. Orregatik gure Jaun Errege Karlos iruga-rrenak agindu zuan lenengo lekuan, seme, eta alabak, ogei, ta bost urte izan artean, eskatu bear diezala gurasoai ezkontzeko itza emateko baimena. Bigarre-na, semeak, edo alabak, ogei ta bost urte izan arren, ezkontzeko era agertzen bazan, eskatu bear ziezala gurasoai beren iritzi, eta konsejua, eta au egin gabe ezkontzen ziranak, galdu zitzeela beren etxeetako eskabide guziak. Irugarrena, aditzera eman zien Obis-po Jaunai, nola nai zukean, ezkontzeko itzen gañeko

auziaz lekuri aek ez ematea, gurasoen baimena gabe eman baziran itzak. Ala, Erregeren aginte oek ezker, etzaio auziri lekuri ematen, ezkontzeko itzak ezpade gurasoen baimena. Etzan onenbesterekin kontentatu Karlos laugarrena, eta agindu zuan, ezkontzeko itzak eman zitezela Eskribau, eta testiguen aurrean, eta ezarri zitezela letraz, bestela etzekiela lekuri eman: baña aginte au ez da gorde izan. Aditzen dezue, gazteak, zenbat ardura eskatzen duan ezkontzeko itzak? Eta ala ere itz onen goixoarekin egiten, eta eragiten dira ainbeste bekatu?

Ea, Jaunak esaten digu: Onra ezazu zure Aita, eta Ama: egin dezagun au arretarekin, eta ixuriko ditugure gañera bere ondasunak, eta atzenean betiko bizitza. Amen.

AMAIKAGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Azaltzen dira, guraso, eta etxeetako
buruak ume, ta mirabeai
begiratzeko, dituen egin-bideak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko itzaldian ukitu nituan, umeak, morroi, eta neskameak laugarren agintearen kontra egin oi dituen, bekatuak. Bekatu oetatik asko etorri oi dira guraso, eta etxeetako buruen zabarkeritik: eta bera-gatik gauz egokia izango dala deritzat itzegitea oraiñ, oek ume, eta mirabeai begiratzeko dituen, egin-bideen gañean. Asitzera noa, eta enzun, gurasoak, arretarekin.

* * *

Gurasoa beartua arkitzen da asko gauzatara, umeai zor zaten ardurari eranzungo badio, eta lenengo lekuan beartua dago, aurraren bizitzari begiratzera sortzen danetik. Egia au ezagutzeko, ez da neke andiren bearrik: asko da onetarako basoko piztiak, eta edozeñ aberek egiten duenari begiratzea. Alaere asko gisatara utsegiten omen due zenbait gurasok eginbide onen kontra, urrengo itzaldian ekusiko degun eran.

Beartua arkitzen da gurasoa bigarren lekuan, bizitzeko bear diran gauzak zure umeari ematera, nola diran jana, edana, janzia, sendagaiak: eta au bera zor zate gutxi gora bera mirabeai ere. Begira zaiozu ollakolka bati, nola bazkatzen dituan bere txitak. Goizean goiz irteten da bere oekin bazka billa, eta ozta zerbait arkitzen du, dala arra, dala txitxarea, edo beste gauzaren bat, deitzen die berez dakian izkuntzan, eta ematen die, eta gero gordetzen ditu egopean, otz egiten badu. Au onela izan, eta alaere arkituko dira gurasoen izena duenak, eta eren umeen janaz, edanaz, janziaz ardurarik gabe bizi diranak? Batzuek alperkeriari ederretsirik, ez due lanerako biotzik, eta bizi dira bekatuan. Beste batzuek nekatzen dira, baña irabazten duena ondatzen due edanean, jokoan, edo beste

ongi ez diran gauzetan. Bebil emaztea arrastaka bate-
tik bestera, umeentzat bear danaren billan: beude
umeak negarrez goseak igaroak, gurasoa ez da estu-
tzen, eta aste batean, edo urte onetan dana izango da
bestean, eta ill arte guzian. Ai! ta zori gaiztokoak one-
lako gurasoak! Zori gaiztokoak berentzat, eta zori
gaiztokoak umeentzat, eta errientzat!

Eta zer esango det, eren gaiztakeria estali naiez
aurra emen, edo an bota, eta aren kezkarik gabe,
geratzen diran gurasoaz? Demagun, gertatzen danari
saiets guzietatik begiraturik, bai dala biderik asko
aurra ixilik ipintzeko borten etxean, edo bestela errien
kontura; eta gurasoak baduela, zerekin gastuak irozo,
edo beintzat arindu. Demagun gañera, onelako aurrak
idukitzeko, eta gobernatzeko zeuden errent, eta onda-
sunak ez dirala asko adiña onetarako. Nola gurasoak
utzi dezake aurra, berea ezpalu bezala, borten
etxean; edo errien kotura, ezpada oetan zerekin irozo
onelako aurren iñutzak, eta azierak eskatzen duana?
Jakizue bada, dioenez, leku batzuetan ainbesteraño
itsutu dirala aragiaren atsegin lizunetara, non borten
karga ezin irozo duen erriak. Begira gurasoak: len eze-
zik berriz ere neke andiak gure gañera etorriko dira,
umeen aziera onaz aztutzen bazerate: mutil zentzuga-

bez, eta emakume txorazkaz bete da mundua, eta Jaunaren aserrea gure gañera dator, garai onean zentzutzen ezpagera.

Beartua dago gurasoa irugarren lekuan, aurrari, adiñ egokiera datorrenean, bizitza ateratzeko modu egokia erakustera, aditzen da au *bakoitzaren mallari ongi dagokan eran*. Ez da lurrean, eta ez da airean piztiarik, egia au gurasoai erakusten ez dienik. Esan det bakoitzaren mallari dagokan eran. Goimallan arkitzen diranak, jakiundearen eskoletara bidaldu oi ditue semeak, eta gero batzuek dira gerrari, besteak Apaiz. Alabak, gogorik badue, izango ditue erak Erljioan beren buruak goardatzeko; baña ezpadue biotzik onetarako, bizi ditezke beren etxeetan Jaunaren beldur Santuan, ezkontzen diranaz osteronzekoak. Beste malletan arkitzen diran gurasoak erakutsi bear dieza umeai dagoten modutxo bat bizitza ateratzeko, dala nekazaritza, dala arotzia, argintza, edo beste lankintza egokiren bat. Gauz oek guziak erri bakoitzean dira premiazkoak, eta onragarria da ongi egiten dituana. Bakar bakarrik dira desonragarriak, alperrak, lapurrak, besterenarekin eraz bizi nai duenak, eta bizitza gaiztokoak. Badira Españan lege ederrak erriak garbitzeko onelako izurritik baña zer egiten degu lege onak

izatearekin, ezpadue errietako buruak egiten legean agintzen dana? Debekatua dago suertezko joko guzia: debekatuak daude trabesak: debekatua dago legeak diona baño geiago jokoan ipintzea. Debekatua dago geroko jokatzeari. Debekatua dago dirua ez beste gauzarik jokatzeari. Debekatua dago langilleak, eta alogerari bizi diranak astegunetan jokoan aritzea goizeko seietatik amabien, eta arratsaldeko ordu bietatik arratsaldeko zorrien bitartean. Debekatua dago atzenean jokoan aritzea edaria saltzen dan lekuan, eta jokalariai etxeetan leku ematea ere bai. Alaere nola ote daude erriak gaurko egunean? Nik gutxi dakit, baño berriak dira txarrak, eta sarritan aditzen degu alperrez, eta gaiztagiñez beteak daudela toki guziak. Nondik dator au? Dator, zeren gurasoak etzuen beren aldetik egin alegeña umeai erakusteko, bizitza ateratzeko modua ona. Bi gauza emen gogoan arritzatze, gurasoa. Lenengoa: eskolara aurrak bidaltzea, ikasi dezeen irakurten, eskribitzen, eta kontuak ateratzen. Au egin gabez, ez dira gero aurreratzen, artzen duen, lankintzan bear bezala. Bigarrena, artzen duen lankintza, dala argintza edo arotzia, dala arotzia, ikasi bear due ongi, bestela ez ditu iñork gogoz lanera deituko. Baña zer gertatzen da? Zerbait ikasten duenean, uste due

nagusia aberasten dala aen nekearekin, eta beren lankintzan asko ikasi lezakeen denboran iges egiten due nagusiagandik, eta geratzen dira langille moldakabeak, eta erakuslea aldean bear duenak. Orra zer datorren lankintza ongi ez ikastetik.

Beartua dago gurasoa laugarren lekuan, umeai, al duan eran, laguntzera *estadua* artu nai duenean, eta onetarako begiratu bear dio arretaz etxeari, eta era badu aurreratu bear ditu, kutiziaren ezkabidetik alde giten duala, bere ondasunak; au ez egitera, ez du izango zerekn lagundu umeai, *estadua* artu nai duenean. Asko ote dira gurasoen artean egin-bide onez oroitzen diranak? Izan litezke, baña ez dira izango gutxi duena, eta ez duena txoraketan, alfekerian, eta emendik datozen ondorenetan ondatzen duenak.

Oraindañoko egin-bide oek umeen bizitzari gorputzaren aldetik begiratzen dioe. Orain ukitu bear ditugu animari dagozkanak. Beartua dago gurasoa bostgarren lekuan, aurrari garai onean bataioa emateko, arreta egitera. Ez oi da izan gai onetan zabarkeri andirik; alaere gogoan arritzatzu, Kristaua, bi gauz oek. Lenengoa, aurgite gaiztoa danean, aurrari bataio emateko, deitu ezazue, nola au egin ongi dakiana. Gertatu da bein baño geiagotan aurrari bataio gabe

iltzea, zeren bataioa ongi ematen ziakianik deitu etzan. Bigarrena, au bera aditu bear da, gauzak ixilik egin bear diranean ere.

Beartua dago gurasoa seigarren lekuan, ume, eta mirabeai ere dotrina, eta Zerurako bidea erakustera, eta onetarako biderik errazena da eskolara bidaltzea aurrak. Jauna, Elizatik urruti arkitzen da gure etxea: ongi; eta urruti bizi dana Zerura joan diteke, arako bidea ikasi gabe? Ez Jauna esango didazu. Beraz gauza bearra, eta premiazkoa da zuk umeai erakustea dotrina, eta Zerurako bidea, dala eskolara bidalduaz, dala bestela. Negar egin liteke, ekusirik, zenbat aur diran errian eskolara etorri bear lukeenak, eta zeñ gutxi diran datozenak. Gurasoak, gurasoak, zer da au? fedegabeak baño gaiztoagoak zeratela, dio S. Paulok: *est infideli deterior*: eta ez dago Zerurako biderik, oraindañoko zabarkeriaren damuarekin aurrera ume, ta mirabeai Zerurako bidea erakusteko ardura ohea ezpadezue.

Beartua dago gurasoa zazpigarren lekuan ume, eta mirabeai Zerurako bidea erakustera, ez itzez bakarrik, bai ta obraz ere, edo bere bizitza onarekin; bestela gerta liteke txangurruari bere umeakin gertatua. Txangurrua da arrai txiki itsusi bat, zearka baizik

ez dabillena. Asi zan beñ umeai erakusten, nola ibilli bear zuen, eta esaten zien: *nere umetxoak, zabiltzate, ez zearka, baizik zuzen*. Erantzun zioen umeak: *zoaz bada, ama, aurretik, eta jarraituko dizugu*. Au bera eranzungo dioe umeak gurasoari, erakusten ezpadie obraz Zerurako bidea. Baldin gurasoa biraugillea bada: Jaunaren itzagandik igesi badabill, eta urtean beñ gogoaren kontra konfesatzen bada: baldin ordu onean etxeratzen ezpada, eta bere itzetan, eta moduetan nazkagarria bada, nola erakutsiko die onek umeai Zerurako bidea? Zer eranzungo dioe umeak, itzez zerbait erakusten asitzen bada?

Beartua dago gurasoa zortzigarren lekuan, ume, eta mirabeai eragoztera bekaturako bide, eta perilletan ibiltzea, nola dan arratsetan berandu etxeratzea, batez ere emakumeak; lagun gaiztoakin biltzea, neskatx ta mutillen batzarreak diran etxeetara joatea, ezkontzeko itzak emanik daudenak elkarrekin baka-rrik egotea. Baldin gurasoak eragozten ezpadie gazteai onelako perilletan ibiltzea, eta jartzea, bere gañean ditu, ume, eta mirabeak zabarkeri onegatik egingo dituen, bekatuak.

Beartua dago atzenean gurasoa, ume, eta mirabeai, gauza gaiztoren bat egiten duenean, bear dan

ateleka, edo kastigua ematera. Ez da asko gurasoa bera gaiztoa ez izatea, Zerurako; baizik kastigatu bear ditu ume, ta mirabeen bekatuak. Heli Lege zarreko Aita Santua, bere doai, eta bizitzari bakarrik begiratu-ta, zan gizon on bat, baña zergatik etzuan biotzik izan, kastigatzeko bere bi seme arro, kendu zion Jaunak bizia. Baña begira, gurasoa: umeak, gaztetxoak diranean, obeto eskuratzen dira beldurrarekin : zigorrak, eta atelekak zentzaten ditu, dio Espiritu Santuak: *Virga, atque correptio tribuit sapientiam* (Prov. 29). Baña aziak diranean, atelekatu bear dira modu onarekin, eta denbora egokian; bestela gerta liteke S. Paulok diona, edo umeak gogaiturik geratzea (Ad Ephes. 6, et ad colos. 3).

Orra gurasoa, nolakoak diran ume, ta mirabeai begiratzeko zere gañean dauzkatzun egin-bideak. Andiak dira guziak, eta asko. Esna zaite orain bederik, eta Jaunaren laguntzarekin egizu alegiña egin-bide oei ongi eranzuteko, eta Jaun berak emago dizu zure nekearen saria, edo betiko bizitza. Amen.

AMABIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

LAUGARREN AGINTEARI DAGOKANA

*Ukitzen dira, guraso, eta etxeetako
buruak laugarren Agintenaren kontra
egin oi dituen, asko bekatu.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Aznekeno itzaldian aditzera eman nituan, guraso, eta etxeetako buruak ume, eta mirabeai begiratzeko, dituen egin-bideak. Orain ukitu bear ditugu gai onetan egiten diran bekatuak. Enzun arretarekin, gurasoak.

* * *

1. Begira gurasoa, aurdun ez geratzeko saiatu ote zeran, dala edariz, dala beste modu itsusiakin? Nola ta zenbat bider? Bekatu itsusia da au, eta emen Iruñeko

Apaiz nagusiari dagoka au barkatzeko eskua buldarik ezpadu bekatariak.

2. Begira, berariaz aurra galtzeko alegiña egin dezun, egin dezagun kontu *karga andiak jasoaz*, geiegi nekatuaz, edo edari bizietara oituaz? Bekatu au barkatzeko eskua Iruñeko Apaiz nagusiarena da emen. Egia da, beste konfesoreak ere esku bera duela buldaren bidez.

3. Begira, berariaz ez, baña bai ezaguerarekin jarri ote zeran aurra galtzeko perill andian.

4. Begira zerekin, edo iñudearekin eratzu ote dezun aur jaioperria, edo beratxoa, itotzeko perill andian? Au da aurrak itotzeko perilla duan modu gaiztoa, eta aienatu bear da etxeetatik. Ala aditzera ematen digu Elizak, eta agintzen du, esan dakiela gurasoai, ez dezeela eratzu onelako aurra berekin, ez iñudeakin. Jauna, eta nai du bada aur gaixoa neguko otz gogorrakin seaskan idukitzea? Ala idukitzen ditue, emen baño otz andiagoak diran lekuetan, eta ez dira orregatik otzez iltzen aurrak. Jauna, oraindano nerekin eratzu ditut aurrak, baña etzat ito orregatik batere. Eta nondik dakizu, aurrera ere etzatzula gertatuko? Eztakizu, amets batean erraz azpian artu, eta itto ditekeala aurra? Ez dezu aditu, zer nai duan Elizak? Jauna,

nerre gelan ez det leku egokirik, seaska ipintzeko, baña alako eran nere oian idukitzen det aurra, non perillik ez dan kalterik berari egiteko, bien bitartean alabaña ipintzen det burkotxo bat. Balizake, zuk diozuna egia izatea, baña neke da perilla osotoro kentzea, eta onena da Elizak esaten diguna egitea. Zure zabarkeriaz aurra itotzen bada, bekatu txit andia da au, eta Iruñeko Apaiz nagusiak bakarrik du onen barkatzioa emateko eskua, buldarik ezpada.

5. Begira zure bekatua estali naiez, aurra utzi, edo boterazo dezun, iñork arkitu baño lenago, iltzeko perill andian?

6. Begira, ongi saiatu ote zeran nekeari jarraitzeko, zure umeak izan dezeen bear duen jana, edana, eta janzia? Badira guraso batzuek alper uts-utsak, eta ezergatik, nekeari jarraitzeko, esnatuko ez diranak. Negar egin dezake emazteak, beretzat, eta umeentzat bear duana ezin bilduz; badabiltzateke umeak arlote, eta erkituak; baña guraso alperra ez da azkartuko nekeari ekiteko. Onelako gurasoaren gaitza ez oi da sendatu, eta zuzen dijoa betiko su, eta garren artera. Beste batzuek nekatzen dira, baña berentzat, ez umeentzat; eta arzak, otsoak, eta piztiarik gogorrenak ere obeto begiratzen dieza eren umetxoai.

7. Begira, adiñ egokira etorri diranean, eman ote diezun zure umeai bizitza ateratzeko moduren bat, beren mallari dagokan eran. Onetarako mutillai eman bear zate, albada, eskola ona. Au egin gabez zenbat mutil, etxearen, eta erriaren onragarri izango ziranak, galtzen, edo ezerezean geratzen dira? Neskatsentzat ere txit gauza ona da eskola, era bada, ikasi dezeen dotrina, goiz-arratsetako jaiera, Sakramentuak ongi artzeko prestaera, Elizan modestiarekin egotea, eta Meza entzuteko modua. Asko da au neskatxentzat, bada eskribitzen jakitea, batzuentzat ona izan arren, geientzat kaltetsu izan liteke. Eskola onaren ondoren, ipiñi bear dira mutillak lankintzaren batean, eta oi dan baño zerbait denbora geiago igaroko badue ere, ikasi dezeela ongi. Onela erri bakoitzean izango dira lankintza guzietan maisu, ta langille onak.

8. Begira, estadia artzeko adiñ onera etorri diranean, alegiñean lagundu diezun, edo au egin bearran, sor, eta gor zere burua egin dezun? Zergatik au? Zeren saiatu etzeran umeentzako ezer biltzera, eta oraiñ uzten diezu, al duen eran, ibiltzen, zureak ezpalira bezala.

9. Begira, iduki ote dezun aurra, bataio gabe iltzeko perillean?

10. Begira erakutsi diezun dotrina, eta Zerurako bidea? edo zerez, edo bidaltzen dituzula eskolara? Badira guraso batzuek añ landugabeak, eta aberekiak, non gai onetan ardura bage bizi diran. Berak eztakie dotrina ongi, beintzat umeai erakusteko eran; beste aldetik arretarik ez due umeak eskolara bidaltzeko, nork onelako gurasoak zuzendu, eta Zerurako bidean ipiñiko ditu?

11. Begira, zure bizitza onarekin erakutsi ote diezun Zerurako bidea? Baña nola erakutsiko diezu Zerurako bidea, baldin bizi bazera Jaungoikorik, zerurik, eta infernurik ezpaliz bezala? Nola erakutsiko diezu Zerurako bidea, baldin zure autik aditzen ezpadue biraua, juramentua, eta itz loia baizik? Baldin igesi bizitu bazera Jaunaren itzagandik, eta Sakramentuetatik?

12. Begira, eragotzi ote diezun bekaturako bide, ta lagun gaiztoetara joatea? Erri bakoitzean izan oi dira etxe batzuek, non biltzen diran neskatzak, eta mutillak. Oen artean izango dira batzuek ergelak, besteak modu ez garbietara oituak, eta guziak ekusten, eta ikasten ditue ibillera gaiztoak: eta bekatu oek erortzen dira gurasoen, eta alako etxeetako buruen gañean. Jauna: nai du bada umeak kutxan gorderik

idukitzea? Ez, baña bai, neskatxak, eta mutillak elkarrekin batzarreak etxeetan ez egitea, zeren bestela bekatu asko emendik etorriko diran, dala gogoz, dala itzez, dala keñadaz. Neskatxak bildu ditezke neskatxakin, eta alaere bear due berekin andre zintzoren bat.

13. Begira, senar-emazteak etziten zeraten oian eratzotzen dituzun umeak, ikasi bear ez litukeen gauzak ikasteko perill andian?

14. Begira, guraso, eta umeak gela batean etziten zeraten, zerriak beren oian bezala?

15. Begira, neskatx, ta mutill gogortuak elkarrekin eratzotzen dituzun?

Onelako gurasoak zinzerri andiarekin mendira bota bear lirake abereen artean bizi ditezzen, eta etxeak zerritegi biurtu ez ditzeen.

16. Begira, zure alaba orri utzi ote diozkatzun onestidadeaz kanpora diran apaindurak, ezkutariakin egoteak, suerte on bat izan dezan? Atozea, gurasoa, eta uste dezu, gis orretan suerte onen bat agertuko zaiola zure alabari? Engañatzen zera. Ezkutariak, berak gaiztoak diranean ere, ez due betiko laguntzat artu nai neskatxa txoraska, eta onestidadean bizi ez danik.

17. Begira begi onen batek ekusi ditzan, bidaldu ote dituzun alabak, batzuetan Tolosara, besteetan Aranzazura, edo Lezora, besteetan inguruko festetara, esaten diezula: *Zer egiten dezue, etxean zauetela beti? Saia zaitzte, suerte ona nai badezue: alaere ez du nai duan guziak arkitzen.* Ah! guraso madarika-tuak! Bekaturako bideetara joatea eragotzi bearrean, zerorrek bidaltzen dituzu umeak perillen artera? Ato-zea, eta uste dezue, ori dala suerte ona arkitzeko bidea? Engañatzen zera: bide au alabaña, da onestidatea, modestia, bizitza ateratzeko modu ona: doai oek dituanari Jaunak emango dio dagokan suertea, edo ezkonzaz, edo bestela; beste modu limuri ori da mendiko beokentzat. Atozea, gis-orretan zai gabe utziko zinduke zure txal, txita, edo ollandak? Ez noaski. Nola bada uzten dituzu alabak era orretan, nai duen eran eta nai duen tokian ibiltzeko eskuarekin? Gertatzen da onelako neskatxakin, atez ate salgai dabiltzan, janziera, edo soñekoakin gertatzen dana. Etxean balio zuenetik galtzen due asko: batak eskeintzen die irutatik bat, besteak erdia; eta besteak ez dire eskeñirik egiten, eta dioe: *nortaki norenak, eta nola ibilliak diran.* Onenbesterekin aditu diteke, zer

gertatzen dan, edo gerta ditekean erriz erri, edo zokoz zoko dabiltzan neskatz ergelakin.

18. Begira, ezkontzeko itzak emanik, edo ustean dagoan alaba orri utzi diozun bere ezkutariarekin egoten nai duan eran, *zeregan* esaten dezula: *zaute; bada gero ere elkarrekin bizi bear dezue*. Ah guraso zori gaiztokoa! zure gañean izango dira zure alabaren bekatuak. Toki batzuetan usantza omen da, lenengo deia egiten danean, ezkutaria ardo onez betetako zatoarekin neskatz ekustera joatea: usanza txarra da au, eta dan lekutik aienatu bear da. Ezkontzeko itzak emanik daudenak elkarrekin itzegiten egotea Baionako Apaiz Pikoaren mendeko Elizetan Apaiz Pikoak bakarrik barkatzen duan bekatua da. Emen ez da onenbesteraño estutu gauza, baña guziak aitortzen due, perill andia dagoala onelako egoeran, eta bera-gatik gurasoak ez dio alabari utzi bear bakarrik itzegiten bere urliarekin.

19. Begira, morroi, edo neskame oitura gaiztoak dituanik etxean daukazun, zure umeak, bear ez diran gauz asko ikasteko, perill andian ipintzen dituzula. Badira mutil, eta neskatz asko itzegite, eta beste moduetan zikiñak, eta oek etxean artzen badira, laster etxeko gazteak ikasiko due animak galtzeko bidea.

Onelako mirabeak atelekatu bear ditu nagusiak, itzegite, keñada, edo beste modu gaiztoaren bat igerritzen zatenean, eta ateleka asko ezpada, bota bear dira etxetik. Ala erakusten du S. Karlos Borromeok. Jauna, ordea mirabe au txit beargillea da, eta kalte andia da neretzat bereala botatzea. Atozea, gurasoa, eta aitzaki orrekin galdu nai dituzu zere umeak? Aiena ezazu lenbait len etxetik, bestela zu, ta ori eramango zaitue etsaiak.

20. Begira, gaiztakeriaren bat egin duenean, atelekatu dituzun. Gaztetxoak diranean atelekaren lekuan onena izango da belarriak luzatzea, eta au asko ezpada, soñua jo bear da ezurrik ez dan lekuan. Umeak, aziak diranean, atelekatu bear dira modu onarekin: au asko ezpada, batzuetan zigorra erabilli ditekete, Espiritu Santuak esaten digun bezala (Prov. 13). Eta begira, guraso batak atelekatzen, edo kastigatzen duanean umea, ez dedilla irten bestea umearen alde: eta zerbait esan bear bada, ez umearen aurrean, baidzik bakarrik.

Ea gurasoa, aditu dituzu zere ume, eta mirabeai begiratzeko, dituzun egin bideak, eta oen kontra gertatzen diran utsegiteak. Oraindañokoaz Jaunari eskatu degiogun umilki barkazioa, eta aurrera bizi gaitezen

beraren lege Santak erakusten digun bezala, onela
iristeko betiko bizitza. Amen.

AMAIRUGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

LAUGARREN AGINTEARI DAGOKANA

*Azaltzen da, emazteak senarrari
zor dion, onginaia, eta au
gordetzeko egin bear duana.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Itzegin dizuet ume, ta mirabeak gurasoi zor die-
zan onraren gañean, eta aditzera eman ditut gai
ontan gertatu oi diran bekatuak. Era berean aditzera
eman ditut guraso, eta etxeetako buruen eginbideak,
eta oen kontra egin oi dituen utsegiteak. Orain zerbait
esan bear degu, emazteak senarrari zor dion ongi-
naiaren gañean, eta aditzera eman bear da, onginaia
au gordetzeko zer egin bear dan. Asi gaitezen berta-
tik.

Munduaren asieratik ipiñi zuan Jaunak ezkontza. Etzan orduan Sakramentu gure legekoak diran bezala, baña altxa zuan oen mallara Jesu-Kristok, eta au ukatzea da herejia. Ezkonduen bizimodua gurutze txit astun, eta samiña da berez, eta burnizkoak dira onen kateak, S. Agustiñek dionez: *Ferrea vincula Matrimonii*; baña urrezko biurtuko dirala, dio, ezkonduak elkar, dagoten bezala, amatzen badue. *Se ament, et aurea erunt*. Onginai, ta amorio au aitutzen bada, ezkonduak biziko dira, zakurra, ta katua, elkarrekin loturik, biziko lirakean bezala. Orregatik zuk, emakume ezkondua, egin bear dezu zere aldetik alegiña, gizonari zor diozun, onginai, eta amorioa ongi gordetzeko, eta au ez egitera bizi zera bekatuan.

Jauna, zer ote da bada nik onetarako egin bear dedana? Ara zer. Lenengo lekuan ezagutu bear dezu, gizona dala zure burua, batez ere etxeko gobernu, eta umeen aziera onari dagozten gauzetan. Egin zuan Jaunak emakumea gizonaren galzarbeko saietsezur bate-tik, eta onetan aditzera eman zuan, San Franzisko Salesek dionez, emakumeak egon bear duala gizonaren mendean: eta Jaunak berak Ebari esan zion Para-

disutik bota zuanean: Janerazi diozu zuk Adani sagar debekatua? Bizi bearra zera bada gizonaren mendean: *Sub viri potestate eris* (Genes. 3). S. Paulok dio, emakume ezkonduak gauza guzietan egon bear duela beren gizonen mendean, Jesu-Kristoren mendean Eliza dagoan eran (Ad Ephes. 5).

Zuk, emakume ezkondua, bigarren lekuan egin bear dezuna da arretarekin egitea emakumeari dagozkan gauzak. Emakumea egiteko denboran, esan zuan Jaunak: *ez da ongi gizona onela egotea: egin degiogun bere antzeko lagun bat. Faciamus ei adjutorium simile sibi* (Genes. 2). Beraz zuk, emakumea, lagundu bear diozu gizonari, arretarekin egiten dituzula zuri dagozkitzun gauzak, onetarako alabaña egin zinduan Jaunak. Emendik umeai, baldin badituzu, dotrina, ta Zerurako bidea erakutsi bear diezu al dezun eran, eta bidaldu bear dituzu ikasteko lekura. Baña au egin bearrean, asko aur ibiltzen omen dira batetik bestera, dotrinara, eta eskolara etorri gabe. Gañera gizonak, eta etxeoak bear duen gosari, bazkari eta aparria prestatu bear dezu. Eta nola au egingo du emazteak, ikasi ezpadu, nola ongi maneatu bear dan elzea? Ez ote dira zenbait emakume, senargai billa abiatzen, elzeari gatza ematen, artoa, ta ogia egi-

ten ikasi baño len? Ez ote dira gizon asko mundu onetatik irteten, gusto oneko elze bat progatu gabe? Au gertatu ez dedin berriz ez lizake ezkontzeko deirik egin bear, ezpadakar neskatxak agiria, nola trebe dan artoa, ta ogia egiten, eta elzea maneaten. Atzenean emakumeak etxeari, eta umeai ongi begiratu bear die gizalanetara joan gabe. Etxeetan izan oi da emakumeen diña lan, gizonen nekeetara joan gabe ere. Alaere aditzen det, badirala emakumeak, etxean egoitea baño naiago duenak gizartean atxurrean, eta laian aritzea, utzirik aurrak zai gabe, ta gosari, edo bazkaria zakurren, eta katuen kontura. Eta erri andietara igarotzen bagera, arkituko dira asko emakume, zerbait baño geiago dirala uste duenak, beranduraño jaikitzen ez diranak, ergelkeria, eta txorakeri uts biurtuak daudenak. Oek dira gizonari laguntzeko Jaunak egiñak? Enzun itzazu, emakumea, andre indartsuari Espiritu Santuak ematen diozkan alabanzak, eta jakizu, *andre indartsuaren* izena ematen diola, ez gizalanetan dabillen emakumeari, baizik etxea, eta etxekoak ongi gobernatzan dituanari. Nork arkituko du andre indartsua? dio Espiritu Santuak: *Mulierem fortem quis inveniet?* Urrutietan baizik topatzen ez diran gauzen eran, balio txit andikoa da onelako andrea: *Procul, et*

de ultimis finibus praetium ejus. Andre indartsuaren gizonak, etxea ornitzeko, etzuan ezereen billa ibilli bearrrik, zeren prest zeukan emazteak guzia. Billatu zuan lana, eta lioa, eta bere eskuz iruin zuan gogotik. Jaikitzen zan eguna baño len: prestatzen zien mirabe, eta langilleai bear zuan janaria, baita neskameai ere beren langaia. Au guzia egin ondoan, ekiten zion ardatzari: *Digiti ejus apprehenderunt fusum.* Etzan onenbesterekin kontentatzen: artzen zuan argia, begiratzten zien etxeko baster guziaz, eta ekusten zuan, non zegoan bakoitza; askotan alabaña gertatu da, gaueko illuntasunaz gazteak baliatzea gaiztakerietarako, etxeko buruen beldurrik ezpadue: *Consideravit semitas domus quae.* Laudagarriak dira doai oek, baño guzien koroa da Espiritu Santuak azkenean dakarrena, au da Jaunaren beldur Santua, Jaunaren beldur Santuan bizi dan andrea izango da, dio, laudagarria: *Mulier timens Deum ipsa laudabitur* (Prov. 31). Orra, nolako alabanzak ematen diozkan Espiritu Santuak etxea ongi gobernatzen duan andreari.

Emakume ezkonduak irugarren lekuan egin bear duana da janitzea bere mallari dagokan bezala, baño modestiarekin. Iru gisatara utsegin diteke gai onetan. Utsegin diteke benikbeñ baldin apaintzen bada bat

duan adiñari ez dagokan eran. Nork farra egingo ez du, atsoturik, eta zimurturik dagoan emakume bat apaintzen bada, emezortzi urteko neskatxa baten eran? Utsegin diteke gañera, baldin emakume ezkondua, kanpora dijoanean, geiegi apaintzen bada: aditzera ematen du alabaña, goiak utsak daudela, eta ez dala kontentatzen bati bakarrik agradatzearekin. S. Franzisko Salesek dio, apaindu ditekeala emakume ezkondua, senarrak nai duan bezala, berarekin danean; baña senarra gabe irteten bada aldare nagusiaren eran apaindua zer esango due dakustenak? esango due, S. Franzisko Salesek dionez: *noren begiai atsegin eman nai ote die urlia onek onenbeste edergarriekin?* Utsegin diteke atzenean alde onetatik, baldin emakume ezkondua etxean, eta etxe-inguruan badabill zikiña, eta goragalea emateko eran. Zoazte zenbait etxetara, eta ekusiko dezue, kanpoan añ eder, eta arro agertzen dan urlia dabillega burutsean, kolkoa salgai, mukia dariola. Zer gustorekin biziko da onelako andrearen gizona? Eta noren kulpa izango da, bestegana joaten bada? Orregatik, zu emakume ezkondua, izan zaite janzian garbia, txukuna, ez arroa; modestia da alabaña emakume baten apaindurarik ederrena.

Emakume ezkonduak egin bear duan laugarren gauza da setaren griña ilduratzea, edo ezitzeko neurri egokiak artzea; bestela laster itzaliko da, ezkonduak elkarri zor dioen onginei, ta amorioa: ez da pakerik zurekin izango eta nork, eta nola igaroko du bere bizitza guzia zu bezalako ziraua bere aldean daukala? Enzun ezazu andre setatsuaz Espiritu Santuak diona: emakume setatsurekin etxape batean bizi baño obe da, dio, estalirik ez duan edozeñ tokitan ere bakarrik bizitzea: *Melius est sedere in angulo domatis, quam cum muliere litigiosa, et in domo communi* (Prov. 21, et 25). Onelako emakumeak bizi oi dira bekatu larrian, eta konfesio gaiztoak egiten dituela, zeren setaren griña txarra ezitzeko saiatzen ez diran. Gizon batek zuan emazte txit setatsua. Egun batean ekarri zuan gizonak egazti bat, eta bere ustein zozoa zan. Emaztea asi zan kontra egiten, esaten ziola, etzala zozoa. Sortu zuen iskanbilla andia, eta emaztea geroago, eta geiago leiatzen zan, etzala zozoa. Aserratu zitzaion gizonari, alako eran, non eman zion zurra on bat, eta onela bukatu zan orduko auzia. Andik urte betera esan zon emazteak: *gaur da urte bete, zurra galanta eman zeñidala zozoaren kontuagatik*. Eranzun zion gizonak: *Emakumea, utzi gidazu pakean;* baño esan

zion emazteak: *zuk nai dezuna esazu, baña etzan iño-laere zozoa*. Altxa zan gizona maitik, eta eman zion bigarren zurra, esaten ziola: *auzi oek onela bukatzen dira*.

Emakume ezkonduak egin bear duan bostgarren gauza da iraren griña atzeratzeko, eta eskuratzeko alegiña egitea, bestela ez du iraungo ezkonzako Sakramentuak eskatzen duan onginei, ta amorioak. Onginei, ta amorio egiazkoa eramankorra da, dio S. Pablok: *Caritas patiens est: ez da asaldatzen: non irritatur*: beraz zuk emakume ezkondua, artu zenduan Sakramentuari dagokan, onginei, ta amorioa gorde nai badezu, alegiña egin bear dezu *iraren* griña atzeratzeko. Enzun ezazu zer dion Espiritu Santuak gai onetan: Ezta dio, sugearen buru baño gaiztoagorik, eta ez da emakumearen ira baño samiñ, eta garratza-gorik: *Non est ira super iram mulieris*. Lenago egingo da bat leoi, eta dragoi batekin bizitzera, ezen ez emakume irakor eta gaiztoarekin: *Commorari leoni, et draconi placebit, quam habitare cum muliere neguam* (Eccle. 25)

Atzenean, ezkonzako Sakramentuak eskatzen duan, onginei, ta amorioa gorde nai badezu, etzaitezela izan zelotia, eta ez sinistu erraz senarrarentzat

gai oni dagokan gaiztakeriarik. Emakume zelotiak aditzera ematen du, ez diola bizilagunari amorio andirik, amorio andia duanak alabaña ez dio sinisterik ematen onelako gauzari, ezin bestean baizik: aditzera ematen du gañera, bizilagunari dion amorioa ez dala txit garbia. Ala esaten digu S. Franzisko Salesek. Orain aditu dezuna egin nai ezpadezu, nork esan, zeñ gurutze samin, ta gogaikarria izango zeran, ala zeretzat, nola bizilagunarentzat? Gurutze samiña bai zeretzat: asko izango da gizona norbaitekin itzegiten egotea, auzora, edo norabait joatea; zu erkiturik egoteko. Ez dezu lo onik egingo; batzuetan zelatan ibilliko zera, eta besteetan egingo dituzu galde farragarriak. Eta gurutze añ samiña izango bazera zeretzat nolakoa izango zera gizonarentzat? Orain jarriko zera kopeta illun, eta zimurtuarekin; gero mutuaren irudia egiten dezula: gaur zaputz egingo dezu, bigar edozeñ gauza itzegingo dezu gizonaren, eta arekin itzegiten duen guzien kontra. Iru gauzak ikaraz betetzen due nere biotza, dio Eskritura Santak: oek dira batek bere erria saltzea, erritarrak altxatzea, eta norbaiti gauz itxusiren bat bidegabe egotzitzea. Eriotza bera baño ere astunagoak dira iru gauz oek: *Super mortem omnia gravia*. Baña bada laugarren bat are gaiztoagoa, eta da ema-

kume zelotia. Onelako emakumea da: biotzeko miña, eta illuntasuna: *Dolor cordis, et luctus mulier zelotypa*: berekin darabil misto bat iñori ere barkatzen ez diona: *Flagellum linguae monibus communicans* (Eccle. 26). Asko degu.

Ekusten dezu, emakume ezkondua, zer egin bear dezun, ezkonduak elkarri zor dioen ongina, eta amorioa gordetzeko? Ongi begira ezazu, nola, eta zenbat bider gai onetan utsegin dezun, eta zenbat bekatu egin, eta eragin dituzun: eska zaiozu Jaunari oraindañokoen barkazioa, eta aurrera bizi zaitte zere bizilagunarekin pakean, eta Jaunaren beldur santuan, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

AMALAU GARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

LAUGARREN AGINTEARI DAGOKANA

*Azaltzen da, senarrak emazteari
zor dion, onginaia, eta au
gordetzeko, egin bear duana.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko itzaldian aditzera eman nuan emazteak senarrari zor dion onginaia, ta amorioa, eta au gordetzeko zer egin bear duan. Orain bidezko gauza da adiraztea, senarrak emazteari zor dion, onginaia, eta zer egin bear duan itzali ez dedin au. Enzun senarrak arre-tarekin.

* * *

Egin zuan Jaunak emakumea, biotzaren urrena gizonak zedukan saietsezur batetik, dio S. Franzisko Salesek, eta ekusi zuan bezala esan zuan Adanek: *Au nere ezurretatik bat eta nere aragiaren puska, edo zatia da* (Genes. 2). Orregatik utziko ditu gizonak bere Aita, eta Ama eta biziko da bere emaztearekin. Emendik agirian dago, beartua dagoala gizona, amatzera bere emaztea. Gizonak, dio S. Pablok, maite izan itzatzue zeren emazteak, Jesu-Kristok bere Eliza maite duan bezala: *Viri, diligite uxores vestras, sicut Chetus Ecclesiam* (Ad Ephes. 5). Onginai, eta amorio au itzali ez dedin, egin bear du gizonak bere aldetik alegiña, bestela ezkontza izango da gurutze txit samiña, eta ezin irozo ditekeana.

Jauna, eta zer ote da nik orretarako egin bear dedana? Entzun, zer egin bear dezun. Benikbeñ eza-gutu bear dezu, emaztea ez dala zure neskamea, baidzik betiko laguna, eta aintzakotzat iduki bear dezu. Laguna ematen dizut, ez neskamea: maite izan ezazu Jesu-Kristok bere Eliza maite duan eran, esan zizun Eliz Ama Santak paramendu ziñanean. Atozea, gizona, era onetan, eta zure betiko lagunari bezala begiratzen ote diozu zure emazteari? Milla losentxa len, baña azal prinza zimurtzen, eta ortzak erortzen asi zaizkanean,

ez daukazu ezertan, eta aditzera ematen dezu, ez dezula amatu beñere ongina, eta amorio garbiarekin, baizik basoko abereak bezala, edo gutxiago.

Zuk, gizon ekzondua, bigarren lekuan egin bear dezuna da, ez eragozte emazteari sarritan konfesatzea, Jauanren itza enzutea, irakurtzen edo beste gauz onetan, zerbait denbora igarotzea, etxearen kalte bage egiten baditu gauz oek. S. Franzisko Salesek dio, nai izan bear lukeela gizonak, jaiera, edo debozio andikoak izatea emazteak; zerren alakoak ezpadira, utsegite andietan erortzeko perilla duen. *Zori onekoa andre onaren gizona*, dio Espiritu Santuak (Eccles. 26). Zori onekoa, zeren umeak ongi azitzera saiatuko dan, baldin baditu. Zori onekoa, zeren etxeari, eta etxeko gauzai arreta onarekin begiratuko dien, eta alde onetatik kezkarik gabe bizi ditekean gizona. Zori onekoa atzenean, zeren emaztearen erregu, ta obra onakgatik iritsiko dituan Zerurako lagunzak, bekatutik aldegitiko eta bizitza ona egiteko. Ala Santa Monikak iritsi zuan senarra Kristau egitea, eta bere Seme Agustin Zerurako bidera ekartzea. Alaere badira gizon batzuek añ landugabeak, edo zuek esan oi dezuen bezala baso lana ere artu bageak, non ezin eraman duen, emazteak denbora apur batzuek ere obra one-

tan igarotzea, etxearen kalte bage au egiten duenean ere. Diot *etxearen kalte gabe danean ere*; zeren etxea, eta umeak nolainai utzirik, denbora luzeak igarotzen baditu Elizan: goiz jaikita nai dituan obra onak egin litzakeala, goiza igarotzen badu ezer egin gabe, orduan ez da au jaiera, edo debozioa, baizik alperkeria, eta jaietaren aitzakian eraz bizitea.

Gizonak irugarren lekuan opa bear dio bere emazteari dagokan jana, edana, janzia, eta benaz egin bear du alegiña onetarako. Gizona da etxeko burua, eta bere gañ artu zuan eginbide au. *Ezpadu batek bereen, batez ere etxokoan ardurarik, ukatu du emandako itza, eta fedegabea baño ere gaiztoagoa da*, dio S. Pablok (1 ad Thim. 5). Alaere arkituko dira munduan asko gizon eginbide onez oroitzen ez diranak. Batzuek ezkontzen dira aragizko atsegin loiakgatik bakarrik eta gero? emaztea,ta umeak dijoazela larrera. Orregatik ekusten dira ainbeste ume, eta emakume erriz erri eskean, eta on lizake ezpaliz zerbait geiago. Zergatik ez ote zate onelakoai eragozten ezkontza? Beste batzuek nekatzen dira, eta irabazten due berak, eta emazteak bear duen adiña, baño ondatzen due edanean. Badira beste batzuek irabaziz, edo bestela zerekin bizi duenak, baño etxean bear dana ateratzeko

guziz zimurak, eta zekenak. Urrikgarriak dira onelako gizonen emazteak; zeren beti ibilli bear duen etxean bear danaren billa. Egiten ditue zorrak, eta oek estaltzeko baliatzen dira artoaz, gariak, edo alduenaz ixilka, eta zer besterik egingo due salgai jartzen ezpada? Leoiak, arzak, eta otsoak ere opa dieza beren emeai bizitzeko bear dana; eta oek baño ere gogorra-goak dira zenbait gizon zeken. Atzenean badira beste batzuek, etxean bear dana irabazi lezakeenak, baño irabazten ez duenak, zerren alper utsak diran. Onelakoen miñanza ezkonza baño len ezagutuko baliz, eragotzi bear lirake deiak; zeren erri ta etxeentzat kalte andiak datozen onelakoetatik. Orregatik etzate ezkontzako Sakramenturik ematen zenbait lekutan.

Gizonak laugarren lekuan egin bear duan gauza da ordu oenan etxeratzea, albadu. Ez du beti elzeen artean egon bear marisa egiñik; gogaizio andia da alabaña emakumeentzat onelako gizonakin beti bizitzea: eta askoz naiago due, gizonak dagoten denboran lagun artera joatea, ezen ez emakumeen zelatan egoatea. Baña sarritan berandu etxeratzen bada gizona, eta bearbada zagi egiña: etxeratzen danean sortzen badu iskanbilla, edo jartzen bada sukaldean lerdea

dariola, zer gustorekin biziko da onelako gizonaren emaztea?

Gizonak bostgarren lekuan egin bear duan gauza da, Jaunaren itzagandik, obra on, eta Sakramentueta-
tik igesi ez ibiltzea. Ez det esan nai gauz oetatik bakoit-
zak beartzen zaituala bekatu larriaren azpian, baña
nola erakutsiko diezu etxekoai Zerurako bidea obra
onetatik igesi zabiltzala? Gai onetan alde guzietatik
datoz berri txarrak; dioe alabaña zerbait dirala uste
duenetatik geienak lotsatzen dirala Sakramentuak
artzera etortzeaz, eta alde aldean emakumeetan
bakarrik geratu dala Erlijioko gauzetarako gogo piska.
Eta miretsiko gera datozkigun nekeak etortzeaz?
Ekaitz guziak, turmoiak, tximistak, arria, ta ludarda-
rrak ez dira gu zentzatzeko diña zertan geratuko ote
gera?

Gizonak seigarren lekuan egin bear duan gauza da
bere bizilagunarekin ez izatea mukerra, garratza,
gozakaitza. Onelako gizonen emazteak sinistu deza-
kee, ezkondu zirala edo aranza beltzarekin, edo gaz-
tañondoren batekin, eta bizi bearrak dirala egun argi-
alegererik ekusi bage. Ez da ongi gizonak beti jostallu
izatea; ez due izan bear garratzak, S. Pablok esaten
dien bezala: *Nolite esse amari*.

Gizonak zazpigarren lekuan ez dio eman bear emazteari, zeloak artzeko biderik, dala usai txarreko emakumeakin itzegiñaz, dala adiskidetasun gaiztoak artuaz. Eriotzaren pena ipiñi zuan Jaunak lege zarrean bere emazteaz kanpora besterekin erortzen danaren kontra, eta au bera agindua dago Españako legeetan. Erri batzuetan gerrak indar gabe iduki ditu lege oek, baña Jaunari eskerrak, uste izan dezakegu, gauzak biurtuko dirala leneko modu onetara. Ez due inguru oetako gizonak zer egin andirik eman oi gai onetan. Alaere usterik gutxiena danean an, edo emen agertu oi dira gizon ollakoiak. Oek ezertan ez oi due iduki etxeke ogi ederra, eta kanpoan gogotik jango due arto urdindua ere.

Gizonak zortzigarren lekuan ez du izan bear zelotia, eta ez du sinistu bear gauza gaiztorik gai onetan emaztearentzat bide txit andirik ezpada. Badira gizon batzuek añ idurikorrak, non iduripen gaiztoak artzen dituen, ekusten badue, emaztea norbaitekin itzegiten, edo farraz dagoala. Onenbeste esku bear ezpadu, sarrezazu zorro batean, eta erabiltzu zerekin, edo bestela gorde ezazu kutxa batean. Utzi itzatzu gizona zorakeri oriek: ez ibilli zelatan, esaten dizu Espiritu Santuak, eragin ez degiozun len gogora etzaion gauz

okerren bat: *Non zeles mulierem sinus tui, ne ostendat super te malitiam doctrinae nequan* (Eccle. 9).

Atzenean gizonak ez dio eragin bear emazteari Jaunaren legeak debekatzen duan gauzarik, dala garbitasunaren, dala beste aginteren baten kontra. Jauna, ez da emaztea nerea? Bai. Zergatik bada egin ez dezaket emaztearekin gura dedana? Egin dezakezu Jaunak debekatzen ez dizuna, ez ordea besterik. Zure gorputza zurea da, baña ez gauza gaiztoetarako. Etxean bonbillan badaukazu ardo, edo edari onik, zurea da, eta edan dezakezu, baña ez orditzeko eran. Gertatzen da beñ baño geiagotan, emakume bat, ezkondu artean, Jaunaren beldur Santuan, eta garbitasunean bizitzea: suerteak eman zion gizon bat abere-rik zikiñena baño zikiñagoa, eta onek eragiten diozka ezin izendatu ditezkean bekatu itsusiak. Españako legeak agintzen due, onelako bekatari zikin batzuei ken dakiela bizia; erre, eta auts biurtu ditezela. Gomez gizon jakintsuak dio, berak ekusi zuala Talaberran, onelako gizon zikin bati kastigu au ematen. Enzun ezazu orain gizon ezkondua, Judas Patriarkaren bi semeri gertatua: zarrena zan Her, eta ezkondu zan Tamar zeritzan dama batekin, eta Jaunak kendu zion bizia, zeren gaiztoa zan beraren begietan. Ez du Eskri-

tura Santak esaten, zer bekatu zan gizon ezkondu onek egin zuana, baña askoren iritzia da bekatu zikin-nazkagarriren bat izango zala. Bigarren semea zan Onan, eta ezkondu zuan Aitak Thamarrekin berarekin orduan usanza zan bezala; baña oni ere bereala kendu zion Jaunak bizia. Zergatik ote? Zerren egin zituan gauz itsusiak (Genes. 38). Gai onetan kezka, edo beldurren batzuek dituenak, beude aditzen zaioken batekin; au egin bagez alabaña batzuek bekatu ez diran gauzak ere bekatutzat artzen ditue, edo enura, eta kezkarekin egiten ditue, eta beragatik galdetu gabez utsegiten due Jaunaren aurrean.

Orra, nere Kristauak, zer egin bear duan gizon ezkonduak, artu zuan Sakramentuak eskatzen duan, ongina, eta amorioa gordetzeko. Zuek bada, ezkonduak, begira ondo nola eta zenbat bider utsegin dezuen alde onetatik, eta egizue alegiña Jaunarekin pakeak egiteko. Barka giozkatzue elkarri oraindañoko utsegiteak, eta bizi zaitezte Jaunaren beldur santuan, eta onela iritsiko dezue, beti-beti iraungo duan Zeru-ko gloria. Amen.

*Laugarren agintek badu beste itzaldi askotarako
gaia,
baña bukatutzat uzten det, geiegi luzatu ez nadin.*

AMABOSTGAREN ITZALDI, EDO PLATIKA

JAUNAREN LEGEKO BOSTGARREN AGINTEARI DAGOKANA

*Azaltzen da bostgarren Agintea,
eta adirazten da au ez autsitzeko
egin bear deguna.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko itzaldietan aditzera eman ditut Jaunaren legeko laugarren Agintearen kontra egin oi diran bekatuak. Igaro gaitezen orain bostgarren Agintera. Au argiro zuen begien aurrean ipintzeko, azalduko ditut Agintearen itzak, eta urrena aditzera emango det, zer egin bear degun Aginte bera gordetzeko. Enzun Kristaua, arretarekin.

Gizonak ditu iru bizitzamota, gorputzarena bata, animarena bestea, eta irugarrena da onra, eta izen onarekin ezagutzen duen lekuetan bizitzea; gizonen artean alabaña onra, eta izen ona galtzea eriotzaren pare da, baña onen gañean ez degu emen itzegingo. Lenengo bizitza da, esan dan eran, *gorputzarena*, eta au bide gabe kentzea, ta kentzeko bideak ipintzea da bekatu txit itsusia. Orregatik, amar Aginteen legea eman zan baño lenago, esan zion Jaunak Noeri: gizonaren odola ixurtzen duan edozeñen odola ixuriko da: *Quicumque effuderit humanum sanguinem, fundetur sanguis illius* (Genes. 9). Geroago eman zuan amar Aginteen legea Synaiko mendian, eta esan zien Israel-darrai: *Non occides*, esan nai du: Ez dezu iñor ilko. Au da bostgarren Agintea. Itz oetan etzaku debekatzen idi, bei, ardi, eta gizonaz osterontzeko gauzak iltzea, eta debekatu lekuan, Jaunak berak eman digu gauz oek jateko eskua, eta bidenabar iltzeko ere bai. Beraz itz oek: *Ez dezu iñor ilko* debekatzen due *gizona bide gabe iltzea*, eta iltzeko bidea prestatzen duen gauzak egitea ere bai, nola diran *jotzea*, *eritzea*, *puzoia ematea*. Esan det Aginte onetan ez dala debekatzen idi, bei, ardi, eta gizona ez, beste gauzak iltzea. Ala erakusten digu S. Agustiñek, eta sinisten degu guziok.

Alaere ez da ongi bizitza duen beste gauzakin ere gogortasun andia agertzea, eta gizon jakintsu askoren iritzian da bekatu beniala. Ez da gañera debekatzen gerra zuzen, eta bidezkoan etsaiak iltzea, eta au bera aditzen da gaiztagiñaz, baldin artarako eskua duenak ematen badieza eriotzaren pena.

Gizonaren bigarren bizitza da animari dagokana. Bizitz au da animako graziaren doai miragarria. Espiritu Santuak animan ixurtzen du doai au bataioan, eta Konfesioko Sakramentua ongi artzen degunean. Doai au animan geratzen da, eta ez du andik aldegiten bekatu larriren batean erortzen ezpada. Ala erakusten digu gure fede santak. Doai onek piztutzen du bekatuan illa arkitzen dan anima, eta aienatzen ditu onen bekatu larri guziak. Elurra bezala txurituak geratuko dira zuen bekatuak, grana bezeñ gorriak balira ere, esaten digu Isaias Profetak: *Si fuerint peccata vestra ut coccinum, quasi nix dealbabuntur* (Isai. 1) Doai onek anima edertzen; eta apaintzen du era miragarrian, eta deitzen dio Jesusek eztaietako janziera: *Vestem nuptialem* (Math. 22). Doai onek egiten du gizona Jainkoaren. Seme, eta Zeruaren jabegai, eta onekin iltzen danari emango dio Jaunak betiko bizitza doatsua. Aditzen dezu, Kristaua, zer dan animaren bizi-

tza? Bizitz au galeraztea lagun urkoari sarritan, eta era askotara gertatzen da, batzuetan bidaltzen dirala aur gixoak beste mundura bataio bage, besteetan ematen zaiola lagun urkoari bekaturako bidea. Onelakoak iltzen ditue, Jesusek bere bizitzaren kostuz erosi zituan animak, eta autsitzen due Jaunaren legeko bostgarren Agintea. Era onetan animak iltzea bekatu txit itsusia da, eta gorputzaren bizitza kentzea baño andiagoa. Ez du munduak gaurko egunean ezertan artzen bekatu au, eta izurriaren eran zabaldu da toki guzietan; esan diteke gaitz au egin dala itsaskor, eta nekez sendatu ditekean bezalakoa. Dakuskun oraiñ, zer egin bear degun bostgarren agintea gordetzeko.

* * *

Zer ote da aginte au gordetzeko guk egin bear deguna? Lenengo gauza da gure gogo, eta biotzetan sendoro ezartzea bi aginte oek: *Amatuko dezu zure Jaun Jaungoikoa zure biotz guziaz, zure anima, zure indar,* eta alegin guziaz. Au da aginte guzien artean andiena, eta lenena, dio Jesu-Kristok, eta onetara biur-tzen dira gañerako guziak; zerren gisa onetan Jauna maite duenak leialkiro egingo ditu beraren agindu

guziak; orregatik esan zuan S. Pablok ongina, ta amorio au dala Aginte guzien *betetasuna* (Ad Rom. 13). Bigarren Agintea da: *Amatuko dezu zure lagun urkoa zere burua bezala*. Aginte onetara biurtzen dira lagun urkoaren onari dagozkan zazpi aginteak. Era onetan maite duanak bere lagun urkoa, onratuko ditu bere gurasoak: ez dio gaitzik egingo lagun urkoari: ez dio bekaturako biderik emango, eta ematen badio, ez dio ongina, baizik gorroto. Era berean, ez dio kalterik egingo beste ondasunetan, ez eta bere onra, eta izen onean ere. Orra nola lagun urkoaren onari dagozkan Aginte guziak biurtzen diran bat bakarrera, eta au da: *amatzea lagun urkoa geren buruak bezala*. San Juan Ebanjelista bere azkeneko urteetan Efeson bizi zan: adiñ andia zuan, eta bere ikasleak Kataberan eramaten zuen Elizara. Bere ITZALDI, EDO Platika guzietan etzien itz oek baizik esaten: Nere semetxoak, maite izan ezazue elkar: *Filioli, diligite alterutrum*. Aspertu ziran ikasleak, beti gauza bat adituaz, eta esan zioen: *Maisua*, zergatik beti gauz au esaten digu? Eranzun zien: *zerren Jaunaren Agintea dan*, eta au *ongi egiten bada*, *bera bakarrik asko dan*. Era onetan aditzera eman zien S. Joanek, elkar biotzetik amatzen badegu, gordeko ditugula gañerako Aginte guziak.

Bostgarren Agintea gordetzeko guk egin bear degun, bigarren gauza da biotzetik amatzea gure etsaiak ere, bestela erraz autsiko degu bostgarren Agintea, gogoaz bederik. Eskriba, eta Fariseoak erakusten zuen lagun urkoaren izenez etzerala aditzen etsaiak, eta beragatik gorrotatu bear ditugula oek, eta au ontzat eman ezkeru, ezerezera biurtzen zan bostgarren agintea. Baña Jesus onak itzaldi luze batean esan zien Juduai: Enzun dezue zuek, erausi izan dala; amatuko dezu zure lagun urkoa, eta gorrotatuko dezu zure etsaia: *Audistis, quia dictum est: diliges proximum tuum, et odio habebis inimicum tuum*, baña nik esaten dizuet: maite izan itzatzue zuen etsaiak: *Ego autem dico vobis: diligite inimicos vestros* (Math. 5). Emendik atera ezazu, Kristaua, aginte oni eranzuteko, ez dala asko gorrotorik ez idukitzea, eta onginaiairen irudipenak egitea, baizik egiaz, eta biotzetik amatu bear ditugula gure etsaiak, alako eran, non ala bear izatera, gure etsaiakgatik emango gendukean bizitza ere. Ala erakutsi zigun Jesus onak, guri onginaiez bizitza emateko zegoan denboran. *Aginte berri bat uzten dizuet, esan zien elkar amatu dezazuela, nik amatu zaituztedan eran*. Esaten bazien bezala: Nik amatu zaituet, artean nere etsaiak ziñatenean: amatu zai-

tuet, ez nere onagatik, baizik zuei betiko bizitza eman naiez: amatu zaituet alako onginai, eta amorioarekin, non prestaturik nagoan dedan odol guzia zuekgatik, eta etsai guziakgatik ixurtzeko, eta gurutzean nere bizitza emateko. Esan bezala, egin zuan Jesus onak au guzia (Joan. 13).

Bostgarren agintea gordetzeko guk egin bear degun irugarren gauza da, gure etsaiari ere aldan ongia egitea, eta aekgatik erregutzea. Ala erakusten digu Jesusek (Math. 5). Au egiten ezpadegu, ez degu gordeko bostgarren Agintea, eta ez gera Aita Zerukoaren ume egiazkoak izango. Aita barkagiezu, ez dakie alabaña zer egiten duen, esan zion Jesusek gurutzean zegoala.

Laugarren lekuan egin bear deguna da gure etsaiari barkatzea, egin dizkigun, txarkeri, ta bidegabeak, ez nolana, baizik biotz osoz; eta au agertu bear degu obretan. Au erakutsi zigun gure Erakusle on Jesus maitagarriak, ala Aitagurean, nola gurutzean. Au ez egitera, aditzera ematen degu, aspertuak gaudela Jesusen legearekin.

Atzenean lagun urkoaren onaz ez degu illundurik, eta naigabez jarri bear, eta nekeren bat datorkionean ez degu atsegiñik artu bear: au guzia da alabaña enbi-

dia esaten zaien griña zitalaren umea, eta onegandik etorri zan Kainek bere anaia Abeli bizia kentzea. Abel, Adanen bigarren semea, zan arzaia; Jaunari eskeñi ziozkan bere doaiak biotz prestu, ta garbiarekin, eta bereala aditzera eman zuan Jaunak, agradatu zitzaizkela. Kain Adanen seme nagusia, zan nekazaria: eskeñi ziozkan Jaunari bere doaiak; baña dirudianeaz biotz zimurrarekin, eta txarrenetik, eta etziran izan Jaunaren gogokoak. Enbidiaren suarekin erretzen jarri zan Kain eta kendu zion bizia bere senide onari. Asko degu gaurko.

Aditu dezu, Kristaua, zer agintzen zakun Jaunaren legeko bostgarren Mandamentuan. Aditu dezu gañera, aginte au gordetzeko, zer egin bear degun. Esan dedana Jesusek berak erakutsi digu itzez, eta obraz. Egin dezagun bada gure Erakusle maitagarri onek añ ederki erakutsia, eta emango digu agintzen digun betiko bizitza. Amen.

AMASEIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

JAUNAREN LEGEKO BOSTGARREN AGINTEARI DAGOKANA

*Ukitzen dira, gizonak
gorputzaren aldetik duan,
bizitzaren kontra gertatu
oi diran, bekatuak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian asi nintzan Jaunaren legeko bostgarren agintearen gañean itzegiten. Aginte onetan Jaunak dio: Ez dezu iñor ilko: *Non occides*, eta dotrinan esaten degu: Bostgarrena iñor ez iltzea: eta azaldu nituan itz oek. Au egiñ ondoan bereala aditzera eman nuan, zer egin bearrak geran bostgarren Agintea gor-

detzeko. Esan genduan orduan, bi bizitza dituala gizonak, gorputzarena bata, eta animarena bestea: eta gaur ukitu uste ditut, gorputzaren aldetik duan, bizitzaren kontra gertatu oi diran, bekatuak. Enzun arre-tarekin.

* * *

1. Begira, Kristaua, benaz, edo ziñez amatu ote dituzun zure lagun urkoak, oen artean zure etsaiak? Au agintzen digu Jaunak, esaten digunean: *amatuko dezu zure lagun urkoa zere burua bezala*: eta Jesusek dio gañera: *Nik esaten dizuet: maite izan itzazue zuen etsaiak* (Math. 5). S. Joanek beste aldetik esaten digu: bekatuan illa dagoala, bere lagun urkoa amaten ez duana: *Qui non diligit, manet in morte* (Joan. 5).

2. Begira, opa izan ote diozun zure etsai orri Zerua, eta arako bidean on izango duan guzia, dala osasuna, dala onra, eta beste edozeñ ondasun? Au opa ezpadiozu, ez da zugaran lagun urkoetarako ongini, eta amorio egiazkorik, eta bizi zera bekatu larrian: *Qui non diligit manet in morte*.

3. Begira sarritan egin ote dituzun lagun urkoetarako ongini, eta amoriozko Aktoak? S. Pedrok esaten

digu, elkarrekin bizi gaitzela beti ongina, eta amorioan: *Mutuum in vobismet ipsis charitatem continuam habentes* (1 Petri 4). Orregatik erakutsi digue gizon jakintsuak, lagun urkoetarako ongina, ta amorio onek irauteko, sarritan berritu bear dala, karidadezko *Aktoak* egiñaz. Eta ona zergatik au erakusten dan goiz arratsetako jaieran. Egia da bizitz onean diardunak sarritan berritzen duala ongina au Aita gurea, eta Santa Maria esatean, baita beste denbora askotan ere.

4. Begira, zure biotza prest egon ote dan, zure etsaiari on egiteko, zere kalte andi bage dezakezuenen? Au agintzen digu Jesus onak esaten digula. Nik esaten dizuet, egin degiezuela aldezuen ongia gorrotatu zaituenai ere: *Befefacite his qui oderunt vos* (Math. 5). Eta S. Juanek dio: ez ditzakula amatu lagun urkoak itz utsakin, baizik obraz (1 Joan. 3). Sasoi onetan bizi bear du Kristauak, Santo Tomasekin guziak erakusten diguen bezala; bestela ez da egiten konfesio onik. Sasoi onelakoan bizitu ote zera, Kristaua?

5. Begira, prest egon ote dan zure biotza, etsaiari barkatzeko egin dizkitzun txarkeri, ta bidegabeak, eta benaz, edo ziñez barkatu ote diozkitzun? Au egiten ezpadegu, nola esaten diogu gure Aita Zerukoari:

*Barka zaizkigutzu gure zorrak, guk gure zorduani barkatzen dieztegun bezala? Barkatzen ezpadiezue zuek lagun urkoai, ez dizkitzue zuei ere barkatuko Aita Zerukoak zeren bekatuak, esaten digu Jesu-Kristok. Erri batean norbaiti txarkeri, ta bidegaberen batzuek egin bide ziozkan besteren batek, eta txit sumindua geratu zan. Geroztik diosala ere etzion gogotik egiten. Gaixotu zan, eta arturik Sakramentuak, il zan. Lurrari emateko aurrean, asi zan Apaiza kantatzen *Parce mihi*, Jauna barka gidazu. Aldarean zegoan Santo Kristoak eranzun zuan; ez, ez diot barkatuko, zeren orrek barkatu ez dion etsaiari: *Non parcam*. Zenbaiti esango ote die Jesusek eriotzako orduan?*

6. Ukitu ditugu, etsaiari zor diogun ongina, eta amorioa izan bagez, egiñ oi diran bekatuak. Oraiñ ukitu bear ditugu etsaia gorrotatuaz egiten diranak; baña lenago gogoan arritzatzu esatera noan gauz oek. Lenengoa lagun urkoari opa izatea gorputzaren gaitza, ez aren gaitzagatik, baizik bekatua, ta bekatuaren bideak utzi ditzan, ez da au bekatu zerren aren animako onari begiratzen zaien, eta au andiagoa dan gorputzaren osasuna baño. Bigarrena: hereje edo erreñua, ta fedea galdu nai duanari zentzatu nai ezpadu, opa izatea eriotza, ez aren gaitzagatik, baizik erreñua, eta

fedea galdu ez dezan, ez da bekatu. Irugarrena, batek bere buruari eriotza opa izatea, bekaturik geiago ez egiteagatik, ez da bekatu; baña ez da emengo neke piska, eta naigabe apurrakgatik asi bear eriotzari deitzen, eta prest egon bear degu emengo nekeak, Jau-nak nai duan bitartean, igarotzeko. Laugarrena, len-bait len Jaunaren edertasun neurririk ez duana, ekusi naiez, bizitz onetatik irten nai izatea, ez da bekatu. Ala egarri andiarekin nai izan due Santu askok, oen artean Dabidek: eta S. Pablok. Begira orain, Kristaua, gorro-toaren puzoia biotzean gordea ote daukazun zure aide, auzo, edo beste lagun urkoren baten kontra? Zenbat denboran? Utzi etzazu osotoro, Zerura nai badezu. Lagun urkoa gorrotatzen duana, gizon-erallea da, dio S. Juanek: *Omnis, qui odit fratrem suum, homicida est* (Joan 5).

7. Begira gaitzik opa izan diozun, esaten dezula: *niri eman dizkidan egunak berari ere etorriko al zaizka. Amen.* Bai, Jauna. Atozea, eta andiak ote ziran zuri eman zizkitzun neke, et naigabeak? Bai, Jauna, andiak eta asko. Beraz gorroto andian, eta bekatu larrian bizitu zera. Jauna: ez diot nik, niri berak egin didan adiña gaitz baizik opa izan. Baliaki nolako mentua dan. Kristaua, zure lagun urko orrek bekatu egin du zuri naiga-

be oriek ematean, eta zuk ere bai beste ainbeste opa izatean. Eztakizu gaitzari gaitzarekin eranzutea bekatu dala? Jesus onak amatu zituan bere etsaiak, oen artean gurutzean illerazo zuenak ere bai: eta agintzen digu, elkar maite izan dezagula, berak gu maite izan gaituan eran.

8. Begira, lagun urkoaren gaitzaz poztu ote zeran, zeregan esaten dezula: *Jainkoak barka degidala, ondo egin zaio*. Bekatu mortala da au, gaitz, edo kalte andiaz poztutzen bazera. Au bera diot, lagun urkoaren onaz naigabetzen bazera. Baña begira, Kristaua, etsaiaren, aide edo auzoaren berri onak aditzean, asi liteke esnatzen zure barrunbean illuntasun, eta naigabea, eta era berean poza, lagun urkoarentzat berri gaiztoren bat datorrenean. Au ez da bekatu, oartzen zeranean altxatzen badezu Jaunagana biotza, esaten diozula: *Jauna, opa diot urliari Zerua, eta arako bidean on izango duan guzia*. Baña gorrotoan dagoanak ez du onelako alegiñarik egiten, eta uura bezala edaten ditu gorrotoaren bekatuak.

9. Begira, prest bizitu ote zeran, era datorrenean, aldezun txarkeria lagun urkoari egiteko? Onelako asko izan oi dira errietako Jauntxoan, errenteroen, eta beste zenbaiten artean. Ez nik gorrotorik, esango due,

baña biotzean ezkutatua daukee, txingarra auspean egon oi dan eran: Esan dezala azeriak milla bider: ez *nik geiago ollorik*; baña era datorkionean egingo du bere lana. Eta ona askorekin gertatzen dana gorrotoaren gañean.

10. Begira, zure etsaiaren tatxak agertu dituzun, edo gustoz aditzen egon zeran? Tatxak andiak, edo txikiak ziran? Tatxak agertze onek aditzera ematen du, ez dala itzali gorrotoaren sua. Onelakoentzat ez da alako txerrebet-soñurik, nola dan lagun urkoaren tatxak esatea, ta aditzea. Jauna ordea gauza barrea-tuak, eta gure artean jakiñak ziran. Demagun, ala zira-la, alaere bekatu larria da, tatxa aek etsaiagan arki-tzeaz atsegin artzen bada.

11. Begira, len diosala egiten diezunai, ukatu die-zun gorrotoan zauden ezkerok? edo aek diosala eginda, eranzun bage utzi dituzun? edo muzinka egin diezun? Zenbat bider?

12. Begira, zure etsaiaren kontra bota dituzun birauren batzuek? Zenbat bider benaz, edo ziñez, zen-bat bider bestela? Batzuek ez ditue ezertan artzen birauak, egin dezagun kontu: *Demonioak eramango al au: ez al aiz bizirik etxerako*; baña etsaiaren kontra esaten diranean, bekatu larriak izan oi dira, eta nola-

nai bota ditezela, oitura desegiteko alegiña egin bear da.

13. Begira, etsaiaren kontra Mezak atera, edo argi erazekiak ipiñi dituzun Santuren baten aurrean, edo Jaunari erregutu diozun? Gorrotoaz gañera bada onetan beste bekatu itsusi bat, eta da obrazko blasfemia, aditzera ematen da alabaña, agradatzen zaiola Jaunari Mezak, argi, ta erreguak berari eskeintzea fin gaiztorako.

14. Begira, ibilli ote zeran borroka edo makilka, zere buruari, eta lagun urkoari kalte andia egiteko perillan? Zenbat bider?

15. Begira, zere erausi edo edanak ematen dizkitzun irudipenakin galerazo ote dezun lagun arteko pakea? Zenbat bider, eta zenbat lagunekin?

16. Begira, edarietara oitu zeran, osasuna galtzeko perillarekin? Edanean igaro zeran ezaguera galtzeraño? Zenbat bider?

17. Begira, aur jaioperriak zerekin, edo iñudearekin eratzu ote dituzun itotzeko perillarekin? Baña gai onen gañean itzegin nizuen laugarren Agintean.

18. Begira, zere buruari opa izan diozun eriotza, zeren etxeko, edo kanpokoak naigaberen bat eman dizuen? *Badu bada Jaunak, esan dezu nere diña leku:*

urari emango diot nere burua, esaten due batzuek. Esaera oek benaz, edo ziñez esango balira, bekatu larriak izango lirake, zeren gaitzik andiena era onetan batek bere buruari nai dion Jaunaren borondatearen kontra. Utzi bear dira onelako txorakeriak, eta igaro bear ditugu emengo gurutze, ta samintasunak Jaunaren izenean, eta gure bekatuen zorrak ateratzeko: gauza bearra da au, Jaunak agintzen dizkigun betiko ondasunak iristeko, S. Pablok esaten digun bezala (Ad Hebr. c. 10).

Orra, Kristaua, gizonak gorputzaren aldetik duan, bizitzaren kontra gertatzen diran, edo erraz gerta ditezkean utsegiteak. Oroi gaitezen, zer erakutsi digun Jesus onak gai onetan ala itzez, nola obraz: oroi gaitezen testamentuan bezala utzi zigula Aginte au: *elkar amatzea*, berak gu amatu gaituan bezala: *Ut diligatis invicem sicut dilexi vos*. Egin dezagu au, eta emango digu, agindurik daukan, saria. Amen.

AMAZAZPIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

JAUNAREN LEGEKO BOSTGARREN AGINTEARI DAGOKANA

*Ukitzen dira, gizonak animaren
aldetik duan, bizitzaren kontra egiñ
oi diran utsegite, eta bekatuak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Jaunaren legeko bostgarren agintea izanda azke-
neko bi itzaldien gaia. Aditzera eman dizuet Aginte
onek esaten diguna, eta zer egin bear degun Aginte
bera gordetzeko. Aditzera eman dizuet gañera, bi bizi-
tza dituala gizonak, bata gorputzarena; eta onen kon-
tra egiten diran bekatuak ukitu nituan leneko egu-
nean. Beste bizitza da animarena. Au da animako gra-

ziaren doai miragarria. Doai bat bekatu larri guziak aienatzen dituana, eguzkiak gauaren illuntasunak aienatzen dituan eran. Doai bat anima edertzen, eta apaintzen duana, ezin guk ongi aditzera eman gentzakean eran, eta Jesu-Kristok berak deitzen dio eztaietako soñekoa edo janziera: *Vestem nuptialem*. Apaindu-ra au guri eman naiez, Zerutik lurrera jatxi izan zan Trinitadeko bigarren Persona, gizon egin zan, eta gurutzean eman zuan bere bizitza. Ainbeste kosta zitzaion Jesus onari gizonak animaren aldetik duan bizitza! Au onela izan! eta alaere ezer balio ezpalu bezala begiratzen zaio animako bizitzari? Au onela izan, eta billatzen dira ainbeste bide, lagun urkoen animak iltzeko? ez dirudi beste gauzari, ezpada elkar artu duela Luziferrek, gizonak, eta emakumeak, Jesusi ainbeste kosta zitzaion, animako bizitza galerazteko lagun urko guziaz. Nai dezu, Kristaua, ekusi, zer utsegite, eta bekatu egin oi diran lagun urkoaren animako bizitzaren kontra? Enzun arretarekin.

1. Begira lenengo lekuan, aurra galtzeko perillean jarri zeran zere gaiztakeriaz? Au da aurrari denbora, ta kolpe batean bi bizitza kendu nai izatea, gorputzarena bata, eta animarena bestea. Ote da emen aurren one-lako erallerik? Ez det sinisten.

2. Begira, aurra galduta, edo galdu gabe, utzi dezun bataio gabe munduaren beldurrez, edo zerren denbora gutxikoa dan? Au da gogortasun izugarria. Jauna, egun gutxi izan zezakean. Atozea, ta animarekin bazegoan? eztakigu, noiz Jaunak aurrari ematen dion anima. Batzuek dioe, aurrak sortzen danean bertan artzen duala anima; besteak dioe geroxeago au gertatzen dala: besteak berrogeigarren egunean, mutilla bada, eta larogeigarrenean, neskatxa danean. Orregatik batzuen iritzia da, aurra galtzen danean, bataiatu bear dala, denbora gutxikoa izan arren, bataioko itzak esaten dirala gis-onetan: *Bataiorako gai bazera, nik bataiatzen zaitut zu Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean*. Itz oek esateko denboran bota bear zaio ura. Beñ baño geiagotan aditzera eman det au, baño alaere era bada, onena da dakianari deitzea, bestela gerta liteke Bonaparteren bataioak baño geiago balio ez izatea.

3. Lagun urkoaren animari bizitza kentzen zaio beste gisa batera ere. Nola uste dezue? Ematen zaio-la bekaturako bidea, oña, edo lagunza, baita gure egin bideai eranzuteko zabarkeriaz ere. Era onetan lagun urkoaren anima iltzea, edo iltzeko bidea prestatzea da

eskandaloa esaten zaion bekatu izugarria. Eta au nola gertatzen dan ezagutzeko.

Begira, izan ote dezun aragizko itzak esateko oitura lotsagarria? Zenbat denboran, egunean, edo astean zenbat bider? Oitura au duanak anima asko ilko zituan, eta beartua dago oek aleginean bide zuzenean ipintzera, bizitza berri on bat egiten duala, eta osotoro uzten duala oitura lotsagarri au. Badira gizonetzkoak, eta badira emakumeak ere añ nazkagarriak gai onetan, non zerrietegietan iduki bear lirakean, eta ederki izango litzake, zerriai lepoan ipiñi oi zaten apaindura ipintzea. Españako legeak agindua daukee, onelako au lasaidunai azoteak ematea, eta erritik botatzea. Eta baldin beti zerbait izan bada munduan, zer izango etzan gerrako denboran? Aditu det, gerrariak erri batzuetan neskatzai nai duena aditzera emateko, paperetan erdarazko itzak euskeraz ipiñi dituela, eta neskatzak ere saiatu dirala erdarara, eta eiaka dijoazela gerrarien eskolara. Ez da basoetan oterik oei su emateko?

4. Begira, izan dezun oitura lagun urkoari keñada, edo beste modu itsusiak egiteko, batzuetan mutillak mutillai, eta besteetan neskatzak neskatzai?

5. Begira, onestidadear ez dagokan bezala, egon, edo ibilli ote zeran etxean, edo kanpoan lagun urkoari bekaturako bidea emateko perill andian? Au gerta diteke lenengo lekuan, mutillak igeri ibilliaz leku agiritan, edo jendea dabillen tokietan. Bigarren lekuan, emakumeak gobada jotzeko, jartzen dirala era lotsagarrian bear bada mutillen aurrean: era berean ginga, edo gerezi gañetan gañean jartzen dirala gaizki dirudian eran, mutillak begira daudela. Zer esango det goiko tokiak estalki bage erakusteaz? egia da, gure errietan ez dala lasakeri txit andirik ekusten; baña alaere noizean beñ agertu oi dira moda farragarri batzuek. Ez da denbora asko ekusten zirala emakumeen bular-inguruan ustai andi batzuek. oekin utsune andia geratzen zan, eta au betetzeko bear bide zuen gaitzeru bat zatar. Beste batzuek ipintzen omen ditue gorontza txit motxak, zertako? goiak zinzilika ipintzeko. Besteak ipintzen omen ditue lepokoak, baña orratzik bage eta guzia estaltzen ez duela. Ez det esan nai gauz oek guziak dirala bekatu larriak, baña malla txikia dirudianetik andiagora erraz igarotzen da.

6. Begira, urliaren, eta sandiaren ixil-mandatuak egin dituzun, dakizula aen artean gauz onik ez dala. Badira zar doakabe batzuek elze zarra dirudienak:

elze zarra sukaldeko zokoan egongo da denborarik geiengan: alaere ederki serbitzen du, etxe batetik bestera sua eramán bear danean; eta au bera gertatzen da zenbait atsorekin: serbitzen due mandatutxoak egiteko gazteai.

7. Begira, urliari laudatu ote diozkatzun bere ibille-ra giaztoak, esaten diozula: orain da zure denbora: *txorakeri andia da amamen artean lizuntzen egotea: ederki egiten dezunore ona igarotzean. Ah! losentxari madarikatua!* Deabruaren eskola-maisua, eta bekaturako zuzia.

8. Begira, lagundu ote diozun norbaiti gauza gaiztoan, egin dezagun kontu lapurrerian edo beste bekaturen batean? Onelako gauz asko gertatu da denbora oetan.

9. Begira iñori eman diozun orditzeko biderik? Ekusten dezunore auzo, aide, edo adiskidea on dan adiña, edo geiago kargatua, eta asitzen zatzaizka berriro edateko bidea ematen, esaten diozula: *Urlia, pitxerditxo bat ardo edan bear degu elkarrekin. Itz gozoa dek ori, erantzuten dio besteak. Asitzen dira edaten, eta geratzen da, bata erdi-ukitua, eta bestea zagi egiña. Noren kulpa da au? Zurea, zeren zuk eda-*

teko bidea eman diozun, dakizula nola zegoan ordurako.

10. Begira, orduaz kanpora ardoa, edo edari txuria saldu dezun, dakizula urliak, edo sandiak gaua igarotzeko duela nonbait jokoan, eta gaiztakerian?

11. Begira orditzeko perill andian, edo zorian daudenai ematen ote diozun ardoa, edo edari txuria? Zenbat bider? Jauna, eta nola biziko gera, salgai daukagun edaria ematen ezpadiogu bere diruarekin datorrenari? Atozea, eta bizi nai dezu lagun urkoaren animaren kostuz? Eztakizu, anima ori kosta zitzaiola Jesu-Kristori bere bizitza gurutze batean ematea? Eta zuk aña erraz kendu nai diozu Jesusi ainbeste kostako anima? Jauna, eta nor bizi urliarekin, ukatuko balitzai, eskatzen duan, edaria? Nor bizi urliarekin diozu? Atozea, ilko ote zaitu? Ez det uste, Jauna; baña andiak izango lirake aren espa, eta erausiak. Jakizu bada ez dala ori asko, zuk lagun urkoari orditzen laguntzeko.

12. Begira zure etxean izan oi diran neskatz, eta mutillen billerak, edo batzarreak jokatzeko, eta denbora atsegiñ onean igarotzeko aitzakiarekin? Batzarre oek kendu bear dira, zerren len, edo gero bekatu asko ekarriko duen, kentzen ezpadira. Ez da gauza jakiña-gorik au baño: zoaz munduaren edozeñ aldetara, zoaz

Franziara, zoaz Italiara, zoaz Nafarroara, Gaztelara, eta noranai, eta toki guzietan esango dizue, arren eta emeen bilkuiak, edo batzarreak ez duela ondoren onik ekarten. Jauna, ordea gure etxera datozenak ongi bedeikatua bezalakoak dira. Ongi: beragatik etzate utzi bear elkarrekiko billera oriek egiten, zerren asieran ogi bedeikatua zana, laster galduko dan edo katuraren batek mutxikatuko duan, perilletik kentzen ezpada. Orra, Kristaua, nola lagun urkoaren anima sarritan iltzen dan, ematen zaiola bekaturako bidea, oña, edo laguntza. Bada animak iltzeko beste modu bat, eta da gure eginbideai erantzuteko zabarkeria. Orregatik begiraldi bat eman bear diegu, alde onetatik gertatzen diran, animen eriotzai ere.

13. Begira zer alegiña egiñ dezun gaizki bizi dan lagun urko ori bide onean sarrerazteko? Egiñ dezakezula, ez egitea alegiña, da zabarkeri bat, lagun urkoaren anima iltzen duana, eta len illa badago eriotzaren azaparretan uzten duana. Jauna, eta zer egiñ bear da bada onelako gauzaren bat gertatzen danean? Jesu-Kristok erakusten diguna. Lenengo lekuan itzegiozu berari bakarrik, dio Jesu-Kristok: *Corripe eum inter te, et ipsum solum*. Au asko ezpada, itzezin gionu baten, edo biren aurrean: *Si te non audierit, adhibe tecum*

adhuc unum, vel duos. Atzenean asko ezpada bigarren atelega au ere, orduan aditzera eman gionzu bekatariaren gañean agintea duanari: *Quod si non audierit eos, dic Ecclesiae* (Math. 18). Jauna, ni ez naiz egokia, urliarekin ori egiteko. Bakarrik itzegiten badiot, edo isekaz asiko zat, edo aserratuko zaio nere kontra. Iñoren aurrean itzegiten badiot, esango du nere kontra edozeñ gauza. Atozea, eta ezin balia zaitezke orretarako egokia danen batez? Egizu bada ori. Baña begira, baldin Konfesoreaz baliatzen bazera, itzezin gionzu konfesioaz kanpora. Alegiña gai onetan egitea guziaz dagote, baña batez ere guraso, nagusi, ta etxeokandrei, Alkate, Konfesore, eta animen kargudunai.

14. Begira erriko agintearekin, edo karguarekin egon zeran bitartean alegiñean eragotzi dituzun, bekaturako bidea dakarten jokoak, etxeetako egoera debekatuak, lapurrerian dabilzanen ibillerak. Era berean erriko ondasunak iru, edo lauren artean partitzea, beste berdin arzeokoak duenak, dagotena artu gabe geratzen dirala: onelako modu itsusiak edo ontzat eman, eragotzi litzakeela, eragozteko alegiña egin ez duen kargudunak, beren gañ ditue kalte oek guziak, ala animakoak ,nola beste ondasunetakoak. Baña uste dezue onelako kargu dunak oker oek zuzen-

tzeko biotzik izango duela? Ez sinistu orrelako gauzarik. Sinisten det nik, dio predikari andi batek, lenago-koak sulizean, edo infernuan daudela, eta oraingo zabarrak ere ara joango dirala.

15. Begira, guraso, edo etxeko burua, izan ote dezu bear dan arreta, eragozteko ume, eta mirabeai bekaturako bide, ta perilletara joatea? Au egin ezpa-dezu, zu zera anima orien erallea.

16. Begira, ezkontzeko itzak emanik dauden zure ume, edo mirabeai utzi diezun ezkutariarekin beren erara egoten, adituari ez aditu, eta ekusiari ez ekusi egiten diozula? Baña onen gañean itzegin nuan laugarren Agintean, baita guraosen bizitza onaren gañean ere.

17. Begira, zabarra izan ote zeran, zure guraso, eta aurrekoai Meza, argiolata, eta obra onakin laguntzeko, lenbait len Zerura joan zitezen? Ala izan baze-ra, zu zera basoko piztia guziak baño gogorragoa, eta esker gaiztoagokoa, eta kendu, edo eragotzi diezu betiko bizitza doatsua iristea iritsi bear zuen bezeñ laster. Asko degu.

Aditu dezu, nere Kristaua, zenbat gisatara gertatzen dan lagun urkoen animak iltzea, batez ere eskandaloa deritzan bekatuarekin. Ala ere, zerorrek daku-

tsu, ez duala munduak ezertan artzen animak era onetan iltzea. Nork sinistu lezake au, ezpaliz guziok ekusten degun gauza? Kentzen zaizka Jesu-Kristori bere bizitzaren kostuz erosi zituan animak, eta saltzen zaizka Luziferri. Betiko bizitza doatsurako Jaunak egin, eta ederki prestatu zituan animak, erbestetzen dira Zerutik, eta betiraunde guzirako amilderazten dira betiko su, eta garren artean eta bekatu izugarri au ez da ezertan artzen? Ai! dio Jesusek! munduaren zori gaiztokoa *eskandaloogatik!* Ai! eskandaloa ematen duanaren doakabea! Obe zukean errotarri bat lepotik zuala itsasoan ondatu baliz, ezen ez era onetan animak iltzea. Zer egin al dezakegu bekatu izugarri oen barkamentua Jaunagandik iristeko? Zer ezpada Dabid Santuarekin Jaunagana biotz osoarekin biurtzea eta damuz otsegitea: Nere Jaungoikoa! andia da, eta andia neurri, ta mugarik bage zure Urrikimentua: urrikaldu zaite nizaz, zure urrikimentuaren anditasunari dagokan eran: *Secundum magnam Misericordiam tuam.* Ez da asko au, bekatu onen barkazioa irsiteko, bear da gañera animetan egin ditugun kalteak desegitea alegiñean baña desegingo dira, ezpadakigu noraño zabaldu diran kalteak? Zuk bati eman diozu bekaturako bidea, ark erakutsi die bide gaiztoa amarri,

amarrak millari, eta oek au bera egiten ari dira, eta eztakizu noiz bukatu dan zuk erakutsi zenduan bide okerra. Gañera, zugatik bekatuan erori ziranetatik asko galdu ziran bear bada betiko, eta deadar egiten due zure kontra su-lize, edo infernutik, nola kalte oek desegingo dituzu? Ez da erraz, baña Dabid Santuak erakutsi zigun, zer onetarako egin bear degun, eta da bizitza berri-onarekin irabaztea Jainkoarentzat al ditugun animak. Jauna, esaten zion, barka gizkidatzu, nere lagun urkoak nigatik egin dituen bekatuak: nik erakutsiko dieztet bekatariak zure aginteak, eta zuga-na biurtuko dira gaiztoak: *Docebo iniquos vias tuas, et impii ad te convertentur*. Egin dezagun au guziok, onela iristeko gure utsegiteen barkazioa, eta betiko Zerua. Amen.

EMEZORTZIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

JAUNAREN LEGEKO SEIGARREN, ETA BEDERATZIGARREN AGINTEAI DAGOTENA

*Adirazten da lenengo lekuan,
zer debekatzen duen Aginte oek.
Bigarrena, zer agintzen duen.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Onetarako itzegin dizuet len Jaunaren legeko lenengo bost aginteen gañean. Igaro gaitzen oraiñ seigarren, eta bederatzigarren agintei begiraldi bat ematera. Ekusi bear degu lenengo lekuan, zer debekatzen: urrena zer agintzen diguen. Asi gaitzen bertatik.

Adan eta Eba gure lenbiziko gurasoak, egiñ zituan Jaunak Zerurako. Au da gure siniste onak erakusten diguna, eta abere biurtu ez diranak aitortzen duena. Apaindu zituan Jaunak doai andiakin, eta oen artean bat zan *Zuzentasuna, edo justizia* orijinala deritzana. Doai bat gizonaren gura, eta griña guziak ezaguera zuzenaren, eta borondatearen mendean zeduzkana, eta borondatea Jaunaren naiarekin bat egitea. Etziran orduan lotsagabetzen gizonaren, eta emakumearen gura eta griñak: etziran asaldatzen borondatearen kontra, eta prest zeuden onen aginduak egiteko. Gizonak oraiñ bezala, bazuan jateko gura; baña etzan asaldatuko, eta salokerian ibilliko, baizik ezaguera onak erakusten zion noiz jan bear zan. Au bera gertatzen zan beste gura guziakin. Zeñ gozo, eta doatsua gizonaren orduko bizitza! Baña zer gertatu zan? Ai! gauza negargarria! Etsai galgarriaren losentxakin jan zuan Ebak, Jaunak debekatu zien sagar baten fruta. Gaitz erdi izango zan berak bakarrik jatea, baña jane-razo zion Adani ere, eta autsi zuan Jaunaren Agintea. Era onetan galdu zuen Jaunaren adiskidetasuna: eta len eritasun, gaitz, eta eriotzarik ekusi gabe bizi zite-

keana, geratu zan gaitz guzien azpian. Galdu zuan Zuzentasun, edo justizia originala, eta bereala gizonaren gura, eta griñak asi ziran gerra ematen, bata alde batetik, bestea bestetik. Geroztik ez da pakerik munduan.

Beste gura eta griñen artean bat da txit zatar, eta lotsagarria, au da aragizko atsegiñen gura loia. Adan bekatuan erori artean, gura au-ere etzan lotsagabetzten, baña erori zan bezala, igerri zuan beregan len igerri etzuana. Lotsatu zan, eta al zuan eran estali zan piko, edo beste arbolaren baten ostoakin; eta au bera egin zuan Ebak ere. Orregatik dio Eskritura Santak: onraz betea egon zan bitartean, etzuala ezagutu gizonak bere ona, eta biurtu zala abere edo astoen anzeko: *Comparatus est jumentis, et similis factus est illis*. Eta esan diteke, abere, eta zentzugabeko animalia guziak baño zentzugabeago egiñ zala gizona gai onetan. Gura nazkagarri au geroztik gerora geiago zabalduaz joan zan munduan: Noeren denborarako osotoro zikindu eta usteldu ziran Adanen umeak, eta dirudiane, etzitzaten barkatzen abereai ere. Damutu zitzaion Jaunari gizona egiñ izanaz. Aditzera eman zion Noeri, zer gertatuko zan, ezpazan mundua zentzutzen; eta onetarako eman zion eun, eta ogei urte-

ren epea. Etzuen gaiztoak sinistu nai Noeren esanik, eta oi dan bezala, iseka egiten zioen Patriarkari. Asizan au, Jaunak esan zion eran, ujaldeak zetozeneko onzi, edo arka egiten, eta alaere etzan mundua zuzentzen. Bete ziran epeak; asi ziran euri jasa izugarriak: Noe sartu zan prestaturik zeukan arkan, eta kanpotik itxi zuan Jaunak au. Igoaz zijoazen urak, eta iges egiñ naiko zuen bekatari doakabeak mendien erpiñetara, baña alperrik; zerren altxatuaz zijoan uura, eta etzan nora iges egiñ. Estutasun onetan biurtu ote ziran bekatariak Jaunagana? Ezetz dioe, baña sinits diteke batzuek, edo batzuek Jaunaren lagunzarekin sortuko zuela onezko damu, edo kontrizioa. Igo ziran urak mendi guziak baño amabost besoz gorago. Onela bukatu zan mundu zikiña bere urdakeriakin: zarrak, eta gazteak, gizon, eta emakumeak, guziak ito ziran: eta bakarrik Noe bere emaztearekin, iru seme, eta iru errañarekin geratu zan bizirik. Oetatik bete zan berriz mundua gizon, eta emakumez. Obeak izan ote ziran oek? Geienak aztu ziran Jainko egiazkoaz, Abraham, eta bere ume, eta aideak ez besteak; eta oetatik ere, aragizko atsegin zikiñetan ainbesteraño usteldu ziran, erri asko, non eziñ guzia emendik esan ditekean. Sodomán, Gomorran, eta beste erri batzuetan añ naz-

kagarriak ziran gai oentan, non gizonak emakumeakin beren buruak zikintzez nagaturik, elkarrekin egiten zituen ezin aitatu ditezkean urdakeriak. Eta au bera gertatzen zan S. Pablok dionez emakumeakin ere. Aserratu zitzaion Jaunari bekatari lotsagarri oen kontra, eta auts biurtu zituan oek, eta erriak sufre eraze-kizko euri jasakin, Lot, bere emaztea, eta bi alaba ez beste guziak.

Abrahamen odoletik jaiotzekoa zan munduaren Salbatzallea, eta aren etxean iraun zuan Jainko egiazkoaren ezaguerak, eta etzan onelako urdakerien usanza itsusirik aditu; baña denbora luzean bizitu ziran Ejipton katiberio gogorrean: Ejipton etzuen Jainko egiazkoaren ezaguerarik, eta ekusia dago nola bizi zitezkean orain ukitzen degun gaiean: eta Israeltarrak ere nai, ta naiez ikasiko zituen zenbait usanza gaizto. Andik atera zituan Jaunak, gauz arrigarri asko egiten zituala, eta Sinaiko menditik eman zien bere amar Agintean legea, len esan genduan eran. Seigarren agintean esan zien: *Non maecharebis*: ez dezu aragizko bekatuak egingo.

Zer ote da itz oentan Jaunak debekutzen diguna? Lenengo lekuan ezkonduakin bekatu egitea, eta au Juduak, eta herejeak berak ere aitortzen due.

Debekatzen digu bigarren lekuan ezkongaiakin ere au bera. Izan dira herejeak egia au ukatu duenak, baña S. Ambrosiok, eta S. Agustiñek dioe, aitatu diran legeko itzetan debekatzen dirala ezkonzaz kanpora, edo landara artzen diran atsegin loi guziak. Au eza-guera zuzenak berak erakusten duan gauza da, eta aintzakotzat ezagutua izan da munduaren asieratik, eta iñoiz eriotzaren pena ipiñi zitzaion onelako bekatariari. S. Pablok dio, ez duela Zeruko Erreñua izango, aragizko atsegiñ zikiñetan dabiltzanak *Neque fornicarii regnum Dei posidebunt.*

Debekatzen du irugarren lekuan atsegiñ lotsagarriak artzea gizonak gizonakin, emakumeak emakumeakin, abereakin, edo bakoitzak bere buruarekin, len esan ditugun, kastiguak aditzera ematen duen bezala. Ala erakusten digu gure sinistreak, eta S. Pablok ere bai: *Neque adulteri, neque molles, neque masculorum concubitores, Regnum Dei posidebunt.*

Debekatzen du laugarren lekuan atsegiñ loiaren perilla dakarten itzak esatea, keñada, eta ukitze lotsagarriak egitea: itz batean debekatzen dira ekustea, aditzea, jolastea ta bekatuaren perilla dakarren modu guzia.

Onenbesterekin, eta gutxiagorekin ere edozeñek igerri dezake gogo utsez egiten diran bekatuak ere debekatzen dirala seigarren aginte onetan; nola alabaña ez da debekatua izango gauza baten gura, edo egiñ-naia, egitea gaiztoa bada? Baña gizona añ itsua da emengo izan, edo ondasun, eta korputzari dagozkan atsegiñ lizunen gaiean non erraz uste izan leza-kean, biotzetik kanpora agertzen ez diran naikundeak ez dirala bekatu. Orregatik ipiñi zituan Jaunak bederatzigarren, eta amargarren Aginteak. Bederatzigarre-nean debekatzen du argiro lagun urkoaen bizilaguna kutiziatzea: *Non concupisces domum proximi tui, nec desiderabis uxorem eius*. Baña era berean debekatzen ditu Jaunak seigarren Agintearen kontrako naikunde guziak. Au onela izan eta alaere izan dira Juduak, eta izan dira herejeak barrenen igarotzen diran nai, edo deseorik gaiztoenak ere ezertan ez zeuzkeenak. Orregatik esan zien Jesu-Kristok: aditu dezue, zarrai esan zitzatela: ez dezu *aragizko bekatuak egingo*; baña nik esaten dizuet: emakumeari naikunde lizunez begiratzeko dionak bekatu egiten du bere *biotzean* (Math. 5). Orra, nere Kristaua, zer debekatzen digun Jaunak seigarren, eta bederatzigarren aginteetan.

Eta zer ote da agintzen diguna? Garbitasun, edo kastidatea bakoitzak bere bizimodu, edo estadian gordetzea arreta andiarekin. Iru gisatan da garbitasun au: ezkonduena, alargunena, eta donzellena. Ezkonduena da bizi lagunaz osteronzean besterekin, ez gogoz, ez itzez, ez bestela atsegiñ loiai leku ematea; eta bere bizi lagunarekin ere Jaunak nai duan eran. Onela bizitu izan dira Santu asko. *Alargunen* garbitasun, edo kastidatea da aragiaren atsegiñ guziak, ala debekatuak, nola debekatu gabeak utzirik garbiro bizitzea. Ala bizitu dira asko Santu, eta Santa. *Donzella* da aragiaren atsegiñik dastatu, edo progradu gabe, eta progatzeko asmorik gabe bizitzea. Donzellen bizimodua berez garaiena da, fedea erakusten digun bezala; baña ezta guzientzat egokia. Orregatik bizimodu, edo estaduaren aukera ez da egiñ bear nolana, baizik Jaunari eskatu bear zaio bear dan argitasuna onetarako.

Garbitasun edo kastidatea da birtute bat jaunaren txit gogokoa. Au gordetzeko asko gizon, eta emakume igaro ditue neke, eta gurutze izugarriak. Jose anziñakoa, Jakob Patriarkaren semea, bere anaiak

saldu zuen Ejiptora. Zan guziz eder, eta galaia. Era askotara bekatura kuturtu nai izan zuan bere etxeko andreak, baña garaitu zituan andre gaiztoaren losentxak, eta atzenean kapa beraren atzaparretan utzirik, iges egiñ zuan etxetik. Zer egiñ zuan emakume lotsagabe ark? Barreatu zuan, bortxatu nai izan zuala Josek, eta sartu zuen preso: baña denboraz atera zuen andik, eta izan zan Ejiptoko Erregeren lenengo gizona. Susana andre prestuak, Jaunaren lege garbia ez autsi-tzeagatik, autu zuan bere bizitza ematea. Eziñ konta al donzellak au bera egiñ due. Garbitasuna beste birtuteen artean da lili, edo lirio zuri ederraren anzekoa. Onek gizona egiten du Aingeruen anzeko: eta S. Juan Krisostomok dio, ipintzen duala Aingeruen gañetik. Aingeruak ez dira ezkontzen, egia da: Aiñgeruak ez dira loitzen aragiaren atsegin lotsagarriakin: baña ez da au miretsitzeko gauza; Aingeruak alabaña ez due gorputzik; ez ditu asaldatzen apainduren, eta aurpegien edertasunak, ez itzegite, eta kanta gozoak; baña, gizona eta emakumea gorputz ustelkor, eta gura gaiztoz beteakin bat egiñak arkitzen dira: edozeñ gauzak gaitzerako esnatzen ditu. Orregatik gizonak garbitasuna gordetzea askoz miragarriagoa da Aingeruak gordetzea baño.

Birtute au txit minberaa da, eta erraz galtzen zaio bere distiadura ederra. Kristalik ederrena illuntzen da asnas utsarekin, eta Amerikan bada belar bat *lotsatia* deritzana, ederra da, baña asko da eskuarekin, edo beste edozeñ gauzarekin ukitzea, duan edertasuna galtzeko, eta malaskaturik geratzeko. Nai dezu zuk, Kristaua, garbitasunaren birtute ederra iritsi? Aldegizu bada beraren kontrako perilletatik. Baldin utzi nai ezpadituzu lagun gaiztoak, neskaxen, eta mutillen batzarreak, jolas, ibillera, eta itzegite lotsagarriak, nola gordeko dezu garbitasuna? Gorde itzatzu begiak, belarri, ta eskuak garbitasuna galerazo dezakeen gauzetatik. Izan zaiozu Birjiña txit Santari jaiera andi bat, eta sarritan, ta prestaera onarekin arritzatzu Sakramentuak. Onela iritsi dezakezu garbitasuna, eta gero betiko bizitza doatsua. Amen.

EMEZORTZIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

BAÑA SEIGARREN ETA BEDERATZIGARREN AGINTEEN GAÑEAN BIGARRENA

*Ukitzen dira, bi Aginte oen kontra
gertatu oi diran bekatuak, ez andienak,
baizik munduak ezertan
artzen ez dituanak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian aditzera eman nuan, seigarren, eta bederatzeigarren Aginteak zer *debekutzen agintzen* diguen. Gaur ukituko ditut, bi Aginte oen kontra gertatu oi diran bekatuak. S. Paulok etzuan nai aragizko lizunkeriak izendatzerik, eta Santo Thomas Billa-nuebak ez omen zuan ukitzen bere sermoietan beka-

tu mota au; guziz itsaskorra da alabaña, eta erraz zikindu litzake aditze utsak ere enzuleen gogo eta biotzak. Orregatik ez ditut nik ukituko itsusienak, baizik munduak ezertan artzen ez dituanak. Asi gaitezen bertatik.

* * *

1. Begira, Kristaua, lenengo lekuan izan ote dezun gogorazio gaiztoai leku emateko oitura? Noizdanik, eta egunean, edo astean zenbat bider egon oi ziñan atsegiñ artzen? Gai onetan batzuek dira jakinezak, eta beldurtiegiak, eta uste due, garbitasun, edo kastedearen kontra datozkien gogorazio guziak bekatu dirala, eta ekusirik eren buruak alde guzietatik gogorazio itsusien artean burutik jauzteko zorian ibilli oi dira. Naiz bakarrik daudela, naiz norbaitekin itzegiten jarri ditezela, naiz zerbiat artu, edo ukitu dezeela, iduritzen zate gauza debekaturen bat egiten ari dirala; eta beldur onek beronek geiago, eta geiago asaldatzen ditu. Beste batzuek dira lasaiegiak edo obrazko bekatuak baizik ezertan artzen ez dituenak. Enzun ezazu, Kristaua, esatera noana, etsaiak engañatu etzaitzan gai onetan. Lenengoa gogora etorri dedilla

asma al ditekean gauzarik itsusiena, naiz ezkonduarekin, naiz ezkongaiarekin, naiz Santo Kristoarekin, edo Ama Birjiñarekin berarekin, ez da au bekatu, ez da bekatu, oartuta borondateak leku eman degion artean. Bigarrena: oartzen zera, zure gogoan dabillega gauz itsusiren bat, eta bearbada asi dala etxeari su ematen: onela oarturik diozu: *ola, gauza gaiztoa da au: Birjiña txit Santa, zure sortze garbiaren izenean gorde nazazu bekatutik.* Era berean estutasunean bereala esaten dezu zeregan: *Jesus Maria Jose:* eta egiten dezu alegiñ aldatzeko pensamentua beste gauzetara, edo ekiten diozu lanari gogotik; orduan ez dezu bekatu batere gogorazio orietan, eta bekatuaren lekuan neke ori izan liteke Zerurako irabazi; baña begira, gauz oek egin bear dira muziñik gabe, zeren beldur geiegiz asitzen bazera muzinka, eta esan oi dan bezala *itsusiak egiten;* askoz geiago nekatuko zaitu etsaiak, eta ipiñiko zaitu zorotzeko zorian. Irugarrena, gogora etortzen zaizkitzu gogorazio gaiztoak, batzuetan onelako denboran artu zinduan atsegiñak, eta oartua zaudela poztutzen zera: besteetan gogoratzten zatzu, izango dezula, edo izan zentzakeala era atsegin debekatuatarako, eta deseatzten dezu denbora, eta era ura lenbait len etortzea: beste batzuetan

gogoratzen zaizkitzu garbitasunaren kontrako gauzak, eta ez dezu deseatzten gauza gaiztorik, baña zaude goisatzen lilluraturik. Era onetan egiten dira bekatu larriak, zeren oartuta ere saiatu etzeran gogorazio oriek aienatzeko.

2. Begira, gaizki bizitu ziñan urte aetan sarritan joaten ote ziñan festetara, eztaietara, edo neskatxa mutillen batzarreetara, eta azal-printz oneko guziakin atsegin artu naia izan oi zenduan? Gertatzen da one-lakoakin denda eder bat ekusten dabillenaekin gertatu oi dana, edo ekusten duan gauz eder guziaren zalea etortzea.

3. Begira, urliarekin, edo sandiarekin egon ote zeran gogorazio gaiztoai leku ematen diezula, edo beintzat perill andian. Au erraz gertatzen da ezkontz-itzetan sartuak daudenakiñ, gazte elkarganako itsuturik bizi diranakiñ, eta era berean neskatx txoraska eta mutill arroak bakarrik erausian luzaro badaude. Askok ez ditue ezertan artzen bekatu oek, eta kezkarik bage konfesioan utziko ditue aitortu gabe, eta biurtuko dira leneko egoeretara. Juduak, eta hereje batzuek etzitu-ent bekatutzat artzen biotzean igarotzen diran gura lizun, eta atsegiñ gaiztoak, baña Jesu-Kristok argiro debekatu zituan, esaten zuala: *Nik diot, atsegiñaren*

naikundez emakumeari begiratzen dionak, bekatu egiten du, eta egin du bere biotzean: *jam maechatus est in corde suo* (Math. 5).

4. Begira, zure begiak erabilli ote dituzun zuretzat bekaturako bidea dakarten gauzak ekusten, dala bakarrik zaudenean, dala senide, edo auzokoakin jolasen zabiltzanean? zenbat bider mutillakin? eta zenbat bider neskatxakin? Espiritu Santuak esaten digu, gure leioetatik igotzen dala animaren eriotza: *Ascendit mors per fenestras* (Jerem. 9). Ala gertatu da oraindaño, eta ala gertatuko da aurrera ere.

5. Begira, berariaz, eta luzaro egon ote zeran emakume apainduai begira lilluraturik, batez ere goiak salgai ipintzen baditue? Era onetan dagoana, biotza-ren aldetik eroria dago, zerren bere naiez atsegin txarrai leku emateko perill andian dagoan. Dabidek bere jauregiko gañean zebillela, ekusi zuan Uriasen emaztea: zabartu zan begiak kentzean, eta erori zan. Orre-gatik esaten digu Espiritu Santuak: Emakume apainduagandik ken begiak: apartazeko. *Averte faciem tuam a muliere compta* (Eccle. 9). Atozea, eper-zakurra eperrari begira egon oi dan eran bazaude, emakume apainduai begiratzen, zer nai dezu gerta dakizun?

Era berean, zer gertatuko zaio emakumeari, gizonz-koai txoraturik begira dagoala?

6. Begira ibilli ote zeran zelatan bekaturako bidea ekarriko dizuen gauzak ekusi naiez? Zenbat bider? Badira zenbait, ala gizon, nola emakume, guzia jakin, eta ekusi nai duenak eta zer etorri alditeke emendik? atsegin gaiztoen gogoia esnatzea, eta poztutzea ekuste lotsagarriakin. Au gertaditeke era askotara, eta ez da guzia esan bearrik.

7. Begira, abereak elkarganatuak dabiltzanean, egon ote zeran premia gabe begira, gogorazio gaizto-ai leku emateko perillean? Gurasoak, ez bidaldu gazteak onelako perilletara: oen irudimendua, edo imajinazioa beraa dago, argizagiaren eran, eta ekusten dituen gauz itsusien irudi, anz edo imajiñak an ezarriak geratzen zaizte. Emendik bizi diran denboran sarritan animaren begien aurrean jartzea gaztetxoak zirala ekusitako gauz itsusiak.

8. Begira, izan ote dezun itz loi desonestoak aditzen egoteko oitura, zeregan poztutzen, eta goixatzen zerala, edo beintzat artarako perill andian? Badira zenbait zar gai onetan eskolamaisu andiak, Demonioak bere ordeko lurtean ipiñiak: oek gazteen aurrean kontaktzen ditue ipui itsusiak, alako gatz, eta piperra-

rekin, non gazteak egon oi diran aua zabalduarik zar
madarikatuaren erakutsaldiak entzuten. Zer etorri al
diteke emendik? Gazteen animak zikintzea, eta jakiñ
bear ez lirakean gauzak ikastea, eta bear bada egitea.
Gazte doai onetako batek erabaki zuan, mundu galdu
au utzirik Erlijioko bizimoduari jarraitzea. Artara irtete-
ko zegoan bezperan bildu zan lagun batzuekin, eta oi
dana, aetako batzuek aritu ziran izketa ez garbiak
esaten. Biurtu zan gure gaztea etxera. Arratsean lotan
asaldatu zuan, aditu zituan gauzen oroipenak: esna-
tzen da, eta leku ematen dio atsegin gaiztoari, eta
berealala artzen du loak. Lotan zegoala eman zion eztu-
lak añ gogorki, non eten zitzaion bularreko zañ bat,
eta geratu zan illa. Agertu zitzaion Konfesariari suz
inguratua, eta bi Demonio ari zitzaizkan tronpeta gori-
tuakin belarrietan soñua jotzen, zerren egon zan itz
loiak aditzen. Aditzen dezu, gaztea, nola galtzen diran
animak itz desonestoak aditzen egotearekin? Eta zu
alaere pozik zaude onelako itzak enzuten? Jauna, eta
zer nai du egitea, ustekabean arkitzen banaiz, onela-
ko gauzak itzegiten dituenen artean? Aldegiñ, aldegiñ,
aldegiñ. Eziñ aldegiñ badezu, ipintzu kopeta beltz,
ezagutu dedin etzatzula agradatzen onelako itzegite
zikiñik.

9. Begira, izan ote dezun ipui zikiñ, eta itz desonestoak esateko oitura, begiratu gabe gazteen, edo zarren, ezkonduen, edo ezkongaien, mutillen, edo neskatxen aurrean esaten dituzun? Onelako oitura duenak dira zapo puzoitsuen anzekoak. Oek dabiltzan lekuan uzten due lerre zikiñ puzoiez bete bat; eta era berean itz desonestoak esateko oitura duenak. Artu bedi etxe batean onelako morroi, edo neskame bat: laster etxeko gazteak zikinduko dira: ekarri bitez au urdea duen langilleak, eta eziñ bidalduko det emakume, ezeta mutill gazterik ere lanera, anima galtzeko perill andian ipiñi nai ezpadira. Eta gai onetan beti izan bada zerbait munduan, zer etzan gertatuko gerra onetan? Gerrariak etziakien itzegiten aragien izenaren gatzagabe, ainbesteraño, non oetako batek esan zidan: *Jauna, miretsitzen da gure itzegiteaz? jakin beza bada, onelako erreñu, edo Probinzian, emakumeak ere gure eran aitatzen dituela aragiaren izenak.* Nork esan, zer kalte emendik etorriko diran animetara? Españako legeak agintzen du, ez dezala iñork ere esan, ez kantatu itz desonestorik, ez gauaz, ez egunaz kaleetan, plazetan, eta bideetan, eun azote, eta urte betean deserriturik bizitzeko penaren azpian (leg. 5 título 10 lib. 8 Novae Recop.). Lege onek diona egingo

baliz, gutxituko lirake mingañ zikiñak; baña au egingo ezpada ere zergatik onelakoentzat egingo ezta erri bakoitzean zerritegi andi bat? Zergatik an idukiko ez dira otea, eta ura ere jogabea bakarrik ematen zate-la? Gurasoak, ez etxean artu mirabe, eta langille mingañ zikiña duanik.

10. Begira, izan dezun urliari, sandiari, eta berendiari losentxak esateko oitura, atsegin txarretarako sasoian jarri ditezen?

11. Begira, urliari, edo sandiari gaitzerako deia daramaten itz labañoak esan diozkatzun, zertan dagoan jakin naiez? Jauna, ez nuan ni gauza gaiztorik egiteko asmorik. Demagun, ala dala: eta lagun urkoari bekatuaren puzoia prestatzea, ez da bekatu izugarria? Ai dio Jesu-Kristok, au egiten duanaren zori gaiztokoa?

12. Begira, urliari, edo sandiari bekatuako bidea eman diozun, ez itz lotsagarriakin, baizik gañtxurituakin, aditzera ematen diozula zure gogo gaiztoa? Onelako itzak perill andiagoa ekarri oi due aziera onekoan artean, beste itz lotsagarriak baño.

13. Begira, laudatu ote dezun zere burua, zure anzeko lagunaren artean, gauz anditzat esaten dituzula onekiñ, edo arekiñ egindako bekatuak. Onela itzegiten duanak egiten ditu iru bekatu: bat, zerren poztu-

tzen dan gauza gaiztoan: bestea, zerren enzuten dau-deani erakusten dien bekaturako bidea: eta irugarrena, zeren galtzen dion lagun urkoari bere izen ona, nor dan esaten badu.

14. Begira, laudatu ote dezun arako gazte zoro ura, zerren, esan oi dan bezala unore onean bizi dan, batarekin, eta bestearekin jolasten, eta bekatu askotan erortzen dala. Onelako laudatzalleak etsaiaren ordekoak dira, eta gazteetan kalte andiak egingo ditue.

15. Begira, izan ote dezun batarekin, eta bestearekin musuka, eta laztanka ibiltzeko erraztasuna, batzuetan ezkonduakin, besteetan ezkongaiakin? Zenbat denboran? illean zenbat bider? Askok ezditue ezertan artzen gauz oek, eta konfesatzen dira bizitza ontzeko asmo oso gabe. Jauna, ez nituan bekatutzat artzen gauz oek. Ala diozu, baña esan zadazu, etzizun zere barrenak esaten: *etzala ongi era orretan Kristaua ibiltzea?* Bai, ala esango zizun, eta lotsatuko ziñan, agertu baliz an zure gurasoa.

16. Begira, gisa orretan ibilli ote zeran zu mutilla mutillakin, edo zu neskatxa neskatxakin? Jauna, eta ori ere bekatu da? Askotan andiagoa, zeren lotsa gutxiagorekin egiten, eta esaten diran, egin, eta esan

bear ez lirakean gauzak. Onelako gauzak erraz gerta ditezke gazteen bilduerak diran etxeetan, festetan, eta eztaietan, begira ezpadago lotsa, eta beldur ona eman dezakeanen bat.

17. Begira, izan ote dezun, arkizen dituzun emakumei keñada lotsagarriak egiteko oitura? Zenbat urtean iraun dizu oitura orrek? Astean, edo illean zenbat bider gertatuko ziran modu itsusi oriek? Badira batzuek añ griña txarrekoak gai onetan, non oña ezin jaso duenean ere agertuko duen eren gura gaiztoa. Esana dago: *Anz azturak obiraño.*

18. Begira, egiñ ote dezun ukiera lotsagarririk, dala mutillakin, dala neskatxakin, dala zere buruarekin? Zenbat bider?

19. Begira, oian zurekin etziten dan aurraz baliatu ote zeran gauza debekatuetarako?

20. Begira, abere, edo animaliak izan ote dan eskuz, edo bestela modu itsusiren bat? Uzten ditut, zingiradi onetan arkitu oi diran, gañerako bekatu nazkagarriak.

Ekusten dezu, Kristaua, zenbat gisatara utsegiten dan garbitasunaren kontra, munduak ezertan artzen ez dituan bekatuakin? Ea bada birtute eder au iristeko bizi zaite ernai, aldegizu lagun gaiztoetatik, sarritan

arrizatzu Sakramentuak, ea Birjiña txit Santari izan
giozu jaiera andi bat. Onela gorde dezakezu kastida-
dearen edertasuna, eta Jaunaren lege Santa, eta iritsi-
ko dezu, berak agintzen dizun, betiko bizitza. Amen.

OGEIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

JAUNAREN LEGEKO ZAZPIGARREN, ETA AMARGARREN AGINTEEN GAÑEAN

*Adirazten da zer debekatzen,
eta zer agintzen duen.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian ukitu ziran seigarren, eta bedera-
tzigarren aginteen kontra gertatu oi diran bekatu,
munduak ezertan artzen ez dituanak. Igaro gaitzen
oraiñ zazpiagarren, eta amargarren aginteetara.

Jaunaren legeko aginteen artean azkeneko zaz-
piak biurtzen dira batera, eta au da amatzea lagun
urkoa geren buruak bezala. Aginte au zazpien sustraia
bezala da, eta sustrai au gordetzen duanak, gordeko

ditu guziak, S. Paulok dionez: lagun urkoa biotzetik maite duanak alabaña opa dio Zerua, eta arako bidean bear, eta on izango duan guzia: eta ez dio ezertan ere kalterik egingo; eta egiten badio, adirazten du, ez duala amatzen biotzetik lagun urkoa.

Lagun urkoen artean lenengo mallan ipiñi zituan Jaunak gurasoak, eta esan zuan: *Onra ezazu zure Aita, eta Ama, luzaro bizi zaitezen zure Jaun, eta Jaungoikoa emango dizun lurraren gañean.* Lagun urkoaren ondasunen artean andiena, eta geiago nai duana da bizitza, eta Jaunak esaten digu bostgarren agintean: *Ez iñor ill: Non occides.* Lagun urkoaren beste ondasuna da garbitasun, edo kastidadearen apaindura ederra, eta ezkondua bada, bere bizilagunarekin pakean bizitzea: orregatik seigarren agintean debekatzen ditu aragiaren lizunkeri guziak, eta bederatzigarrenean besteren bizilagunaganako naikunde gaiztoak. Emendik igerri dezakezu, Kristaua, lagun urkoari ongi nai dionak ez diola atsegin lizunetarako biderik emango, eta aren bizilagunari ez diola gerrarik emango. Igerri dezakezu gañera, munduan gai onetan usatzen diran losentxak dirala egiaz gorroto andiak. Lagun urkoak, emen bizi dan bitartean, gauz asko bear ditu jateko, edateko, eta beste premiak estaltzeko: eta oetan

kalte egiten dionak ez du egiaz amaten. Orregatik zazpigarren Agintean esaten digu Jaunak: *Non furtum facies*: ez dezu ezer ostuko. Ekusten dezu, Kristaua, zeñ neurri ederrak artu dituan Jaunak, guk elkar amatzeko, eta lagun urkoari kalterik ez egiteko? Jaunaren Aginte oek gordeko balira ardura onarekin, bakoitza bizi liteke bere pakean duan zatiarekin; baña Adanen umeak aztu dira beren Jaun onaren Legeaz, eta bete da mundua gaiztagiñez. Gaurko itzaldiaren gaia izango da Jaunaren legeko zazpigarren agintea amargarrenarekin batean. Aditzera emango det, zer debekatzeko, eta zer agintzen zakun bi aginte oetan. Enzun, Kristaua, arreta onarekin.

* * *

Zazpigarren agintean esaten digu Jaunak: Ez dezu ezer ostuko: *Non furtum facies*. Au egiñ oi da geiengentan ixilka, eta orregatik esaten da lapurreta; baña egiten bada jabeak ekusten duala, eta beraren borondatearen kontra, orduan bekatu itsusiagoa da, edo obeto esateko bekatu bi dira, bata, zeren artzen dan besteren gauza jabeak nai ez duala, ta *bestea*, zeren begira badago, bortxatzen dan edo indarrez eragozteko,

edo lotsaz ixilik uzteko. *Iru gisatara* gertatzen da ostutzea, dotrinak dionez. Lenengo lekuan; artzen, edo kentzen dala besteren gauza jabearen borondatearen kontra. Bigarren lekuan, *idukiaz* besteren gauza jabeari biurtu gabe: egin dezagun kontu erriari, auzo, edo beste lagun urkoari zor zaiona eman gabez. One-lako zabarkeriak gertatu oi omen dira lenengo mallako andikien artean ere, eta joaten dira beste mundura oetako batzuek, zorrai erantzun gabe. Aginduko dioe jabegaiari, paga ditzala, eta onek egingo du aurrekoak egin zuana, eta artzekoduanak botako diezte birauak birauen gaiñ. Orra zer datorren zorrai ez erantzutetik. Irugarren lekuan gertatzen da ostutzea asmo, edo gogo utsez. Artzen dezu asmoa, urliaren, edo sandiaren gauzaren bat ostutzeko, baña ez dezu ostu: alaere autsi dezu zazpigarren agintea, *asmoz edo gogoz*. Ez dago erabakia, zenbat gai bear dan bekatu larrira iristeko; baña emen erakusten danetz lau erreal ostutzea izango da bekatu larria: eta gutxiago ere asko adiña izan diteke, baldin gauzaren jabeari kalte andia badatorkio. Badira zenbait, lapurrerian bizi diranak; eta ostutzen duen gauza bakoitza andia ez izan arren, bizi dira bekatu larrian, zeren prest arki-

tzen diran era onetan bizitzeko, eta gai andira gutxika bederik igarotzeko.

Zazpigarren aginteak debekatzen du bigarren lekuan gauzen saldura, goieneko prezioa baño geiagoan, eta era berean erostura beenekoa baño gutxiagoan. Baldin legeak ipiñia badauka ongi gauzaren baten prezioa, gorde bear da au; eta au bera aditzen da, kandelan markatu bada prezioa. Baldin ezpadu gauzak prezio jakiñik, saldu eta erosi bear dira gauzak, dabillen prezioan, eta au izan oi da iru mallatan, nola diran *beenekoa*, *bitartekoa*, eta *goienekoa*, eta ez da oetatik irten bear gauzak saltzean, eta ez erostean. Onetan egiten dira beartsuakin gauz oker aso, zerren beren premiak estutzen, eta beartzen dituan, danean dala gauza ematera, edo artzera. Jauna, eta atez ate dabiltzan janzeria usatuakin, edo denda zokotan autsak, eta sitsak ukiturik zeuden gaiakin, zer prezio eskeñi diteke? Geienen iritzia da, onelako gauzak galtzen duela atez ate erabiltzearekin irutatik bat. Baña begira, artoa, garia, eta beste onelako gauzak, erraz eroslea izan oi duenak, artu bear dira dabillen prezioan gizon jakintsu askoren iritzian. Demagun, urlia arkitzen dala langilleentzat otordua ipiñibearrean, artzen du zakuan artoa, edo garia, eta badijoa

bakallaua, sardiña, eta olioaren billa; zergatik onela-koaren arto, edo gariari etzaio eman bear dabillen prezioa?

Zazpigarren aginteak debekatzen du irugarren lekuan neurri, eta pisuan tranpa egitea. *Neurrian*, egin dezagun kontu *txikitzen badira, ongi betetzen ezpadi-ra*, beatza potoan sartzen bada, apar andia altxeraz-ten bada, edo neurria garbitu gabe tortikaz, edo liaz betea badago. Era berean tranpak egiten dira pisuan, egin dezagun kontu: baldin alde batera errazago erortzeko eran ipintzen bada: beatzarekin poliki ukitzen bada: ogi erregabea erretzat, tabakoa, illea edo garia urez iztatzen bada. Gauz oek tranpa itsusiak dira Jau-naren begietan: *Abominatio est apud Dominum pondus, et pondus: statera dolosa non est bona* (Prov. 20): eta onela gaizki eramana biurtu bear da, Konfeso-reak bakoitzari erakutsiko dion eran.

Zazpigarren aginteak debekatzen du laugarren lekuan, gauza mota bat beste mota txarrago batekin nastutzea, eta saltzea, nasketarik ezpaliz bezala. Nas-tuko baliz mota obearekin, egin dezagun kontu Este-llako ardoa Peraltakoarekin, orduan ez du erosleak kalterik, Estellakotzat ematen badioe; baña nastutzea Peraltako ardoa sagardoarekin: beste edozeñ ardo

urarekin: *aguardienta* ur, piper, edo beste gauzakin: ogia garagar, edo zikirioarekin, oek dira tranpa debekatuak, baña denbora oetan usatu omen diranak.

Zazpigarren aginteak debekatzen du bostgarren lekuan gauza tatxa duna, tatxarik ezpalu bezala saltzea: egin dezagun kontu: urliak nai luke idi-uztarri bat, bearrerako azkarra, eta gogotsua, eta zuk ematen diozkatzu idi ustel bi, gezurrez betetzen dezula. Sandiak billatzen du ezna bei on bat, umeai eta etxe-koai, eznea bederik emateko: eta zuk ezneduna baliz bezala saltzen diozu, eznerik batere, edo gutxi duana, au bera egiten due beste batzuek, gaitzen bat duan idi, edo beia saltzen duala, alako gauzarik ezpaliz bezala. Tranpa oek debekatuak dira, eta geiegi eraman dana, ta kalteak ondu bear zaizka erosleari.

Zazpigarren, eta amargarren aginteak debekatzen due seigarren lekuan, *usura* esaten zaion bekatu itsusia, au da *epetan gauza emateagatik*, ematen dan baño zerbait geiago kentzea, dala dirutan, dala garian, artoan, edo ganaduetan. Ezaguera zuzenak berak erakusten du, *epetan gauza emateagatik* ezin kendu ditekeala ezer, eta Jesu-Kristok argiro esaten digu, *epetan gauza ematen dezuenean*, emazue geiago artzeko uste gabe: *Mutuum date, nihil inde speran-*

tes. Ala sinisten, eta erakusten due Katolikoak. Emen-dik atera ezazu, Kristaua, nolakoa egongo dan mundua gaurko egunean, bada dioenez ez due askok dirurik, gari, arto, idi, ta beirik epetan ematen, eman dan baño geiago artzeko usterik ez dala.

Atzenean zazpigarren, eta amargarren Aginteak debekatzen digue besteren izan, edo ondasunen kutizia. Bide onez gauza bat nai izatea, ez da bekatu; baña bai bidegabe, eta modu gaiztoz nai izatea. Dakuskun oraiñ, zer agintzen zakun bi Aginte oetan.

* * *

Bi aginte oek, beste gauz askoren artean, agintzen digue, besteren gauza biur dakiola jabeari. Ez dago bestela Zerurako biderik, eta au egiteo biotzik ezpada, eziñ artu diteke Sakramenturik. Onelako bati aginduzion Aita Kalataiudek, biur zitzala gaizki eramanak, eta zijoala gero absoluzioa artzera. Asko bide zan zorzuana; alaere bildu zuan, ta joan zan absoluzioaren eske; eta esan zion Konfessoreari: Aita emen dakart zizku onetan: ez det biotzik nere eskuz ateratzeko, *atera begit berorrek*. Orra nolako nekeak diran gaizki artua, edo idukia jabeari biurtzeko. Agintzen digue

bigarren lekuan, izan gaitezela lagun urkoakin urrika-
ritsuak; bestela elkortzen, eta gogortzen da biotza.
Itsasten zate emengo gauzai olagarroa aitzari itsasten
zaion eran eta ez du biurtu bear duana biurtuko. Atze-
nean ipiñi bear degu biotza ez emengo gauzetan, bai-
zik Jaunagan, eta ez digu ukatuko bear deguna. Ez ibi-
lli kezketan jateko, edateko, eta janitzeko bear
dezuenaren gañean, esaten digu Jesu-Kristok. Begira
airean dabilzan egaztai. Ez due oek ereiten, eta ale-
tegieta ezer biltzen; eta alaere zuen Aita Zerukoak
bazkatzen ditu guziak. Begira kanpoetan jaiotzen
diran lili, edo liriioai: ez due oek eren buruak apaintze-
ko ardatzean egiten, eta alaere Salomon bere jakiu-
nde guziarekin etzan oek bezala apaindu. Eta gaur bai,
ta bigar ez diran, edo surtara botatzen diran belarrai
onela begiratzen badie Aita Zerukoak, zenbatez obeto
begiratuko dizue zuei? Utzi bada kezka oriek; ez ibilli
galdeka: *zer jan, eta zer edango degu, eta zerekin
estaliko gera?* Galde oek fedegabeak egiten ditue:
badaki zuen Aita Zerukoak gauz oen bear zeratela.
Billa ezazue lenengo lekuan Zeruko Erreñua: gorde
itzatzue ongi Jaunaren Aginteak, eta emango dizue
bear dezuen guzia, egiten dezuela zeren aldetik, egin
bear dana: *Et haec omnia adjicientur vobis* (Math. 6,

et Luc. 12). Egin dezagun bada, nere Kristauak alegi-
ña gure gauzak zuzentzeko; billa dezagun gure Aita
Zerukoa, eta emango digu emen bear deguna, eta
gero betiko bizitza. Amen.

OGEI TA BATGARREN ITZALDI EDO PLATIKA

JAUNAREN LEGEKO ZAZPIGARREN, ETA AMARGARREN AGINTEEN GAÑEAN

*Ukitzen dira gertatu oi diran,
lapurreta batzuek.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko ITZALDI EDO PLATIKAN aditzera eman nuan, zer debekatzen, eta zer agintzen zakun Jaunaren legeko zazpi garren, eta amargarren Aginteetan. Gaur ukituko ditut Aginte oen kontra gertatu oi diran zenbait lapurreta. Asi gaitezen bertatik.

* * *

1. Begira lagun urkoaren gauzetatik ezer ostu dezun? Gai andira igaro zeran, edo artarako asmoa zenduan. Au bekatu larria da, eta biurtu bear da ostu dana. Batzuek urteetan bizi dira lapurretan, beartusak dirala aitzakiatzat arturik, emendik artuko ditue artoburuak, andik balak; emendik azak, andik beste gauzaren batzuek. Onelakoak gaizki konfesatzen dira: oek ekin bear dioe lanari gogotik, eta au asko ezpada, irten bitez Jaunaren izenean eskatzera. Ez da au desonra, baña bai lapurreta, eta alperkeria.

2. Begira, ostu ote diezun gurasoai, artoa, garia, edo dirua? zenbat, eta zertako?

3. Begira, batean, eta bestean zorrak dauzkatzula, eta atera zintzakeala, bizitu zeran arretarik gabe? Au lapurretan bizitzea bezala da.

4. Begira ordañaren aitzakian geratu ote dituzun, edo artu besteren ardia, bildotsa, olloa, edo arraultzak, zeregan esaten dezula, beste orrenbeste, eta geiago galdu zaku guri? eta nork orrek baizik eramango zuan? Atozea, eta orrenbesterekin besteren gauza artzen dezu? Biur zaiozu jabeari bere gauza.

5. Begira, erriaren sisetan zer ekusirik daukazu? egin dezagun kontu urliari, edo sandiari zor zitzaiona

besteri ematen zaiola? Au egin badezu, eman bear diozu zeretik artzeko dunari.

6. Begira askori zegokan karga, zuzuen bakoitzari bota diozun? edo au egin bearrean, batari arindu, eta besteari egotzi diozun? Beartua zaude egindako kalteak desegitera.

7. Begira, erriaren gauzetan izan dituzun nekeak kargatu diozkatzun, zere aua neurri dezula, eta begiratu gabe nork jaso bear zituan?

8. Begira erriaren onari dagozkan gauzetan, mutuaren eran egon zeran, itzegiñ bear dana itzegiñ gabe, eta kalterik emendik etorri dan? Beiñ baño geiagotan gertatzen da au, naiz errietako, naiz Apaizen batzarretan ere; batzuetan kontra egiteko aurpegirik izan gabez, besteetan, zerren gauza oker joatean protxu izan lezakean batek. Gertatzen da onetan lepoan atzgura diran bi mandorekin ekusten dana. Saiatzen dira atzgura kentzera, baña eziñ iritsi dira lepora muturrarekin. Alderatzen zaizka elkarri: atzegiten dio batak besteari nai duan eran, eta arindurik beren nekea, asitzen dira pozez saltoka. Anziñako esaera da: mandoak atzegiten dio mandoari: *Mulus mulum fricat.*

9. Begira, ume, eta mirabeai eragiñ dieztetzun lapurretaren batzuek, edo zuk agindu gabe egin ditue-nean, ontzat eman dituzun?

10. Begira, ostutako gauzak gorde diozkatzun nor-baiti? edo erosi, edo saldu dituzun?

11. Begira, nagusi, edo etxekoandreaki zerbait ostu diozun, eta gutxika gai andira igaro zeran?

12. Begira zerbait saltzera bidaldu zaituenean, sisatu dezun saldu dezuna? Jauna, ez det bada sisatu-ko, jateko ezpadit ezer ematen etxeko andreak?

13. Begira, ostu diozun nagusi, edo etxekoandrea-ri zerbait, esaten dezula: *Nere nekeak soldataz gañe-ra balio du au baño askoz geiago*. Gaizki egin dezu, eta onela gaizki eramana biurtu bear dezu. Jauna, etxe artara *joan nintzanean, ez genduan siñalatu sol-data*. Atozea, eta ez dizu eman zure mallako mirabeai eman oi zatena? Bai Jauna, *beenekoa bederik*. Beraz ez dezu biderik ezer ostutzeko aitzaki oekin. Jauna, *beste nere mallakoak baño nik lan geiago, eta obeto egiten det*. Ez da ori-ere asko, nagusiari ezer ostutze-ko; bearbada nagusiak usteko du soldata andiegia eman dizula, eta izan zitzakeala zu ez bezelakoak gutxiagoan. *Jauna* (ara irugurren apukoa) Jauna, siña-latu genduan soldata; *baña txikia*. Atozea, eta etziñan

soldata orretan geratu? Zer zabiltza bada exezio oriekin? Galde bekio zure nagusiari, eta esango digu, urrikaltasunez artu zinduala: etzuala zure bearrik, eta nolana etzizula bortxarik egin, zere naiez geratu ziñala. Ez bai oek kentzeko billa ezazu beste etxe bat, edo garbiro erabaki bedi bear dezun soldata. Ebanjelioko gurasoak eraman zituan goizetik langille batzuek, agintzen ziela saria, zenbatezkoarekin. Geroago eraman zituan beste batzuek. Bukatu zan lana; eman zien lenengoai beren saria, eta beste ainbeste eman zien azkenekoai ere. Lenengoetako bat, besteak baño lotsagabeagoa, asi zan erausian, zerren egun guzian lanean ariturik, berandu joan ziranai baño geiago eman etzizaion. Nagusiak esan zion: adiskidea, ez dizut bidegaberik batere egiten, agindua emanda: arrezazu zurea, eta zoaz. *Tolle quod tuum est, et vade*. Begira zuk mirabe edo langillea, arretarekin egiten dituzun dagozkitzun lanak?

14. Begira zuk, mirabea, etxean egin diran kalteren batzuek, eragotzi zintzakeala, eragozteko alegiñarik egin gabe, utzi dituzun? Batzuetan mirabea zabarkeri onegatik geratzen da beartua, kalte oek beretik zuzentzera. Asko degu gaurko.

Egin beza bakoitzak alegiña, bere utsegiteak desegiteko, eta Jaunarekin ongi jartzeko. Bizi gaitezen Jaun beraren beldur Santuan, eta onela iritsiko degu betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI TA BIGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

JAUNAREN LEGEKO ZAZPIGARREN; ETA AMARGARREN AGINTEN GAÑEAN

*Ukitzen dira, gauzak saltze,
eta erostean egin oi diran bekatuak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko itzaldian ukitu ziran zazpigarren, eta amargarren Aginteen kontra gertatu oi diran zenbait lapurreta. Gaur ukituko dira, gauzak saltze, eta erostean egin oi diran bekatuak. Enzun arreta onarekin.

* * *

Gauzen saltze, eta erostean gorde bear dira gauza berai dagozten balio edo prezioak. Prezioa bata da legeak, edo artarako eskua duenak ipiñia, eta deitzen zaio *tasa*. Au gorde bear da, bear bezala ipiñia danean, ezpadira gauzak aldatu. Prezio onen anzekoa da kandelan agintzen dana, baña ez da tranparik egin bear. Egin dezagun kontu: gauza nai duenak, elkar arturik erabakitzen badue onenbeste edo ainbeste baizik ez eskeintzea: kandelan edo almonedan gauzak ematen badira ixilka, agertu ez ditezen kontra egin lezakeenak, oek dira tranpa debekatuak. Bigarren balio edo prezioa da, gauza saltzen, eta erosten diran tokietan dabillena, eta izan oi ditu iru malla, *beenekoa*, *bitartekoa* eta *goienekoa*. Gauzen prezio oek gorde bear dira: saltzalleak ez du goieneko prezioetik igaro bear, eta erosleak ez du beenekoa baño gutxiago eman bear. Onetan ere gertatu oi dira tranpa itsusiak. Lenengoa da, saltzalleak elkar artzea, gauza ez emateko goien-goieneko prezioan baizik; eta au debekatua dago. Bigarren tranpa da, erosleak elkar artzea, gauzen prezioa beerazteko; onetarako batzuek asiko dira gauza saltzen merke, eta barreatuko due, andik, eta emendik, Naparroatik, Arabatik, eta itsasotik datorrela ugari artoa, garia, baba: eta onela gezurrez mer-

katzen diranean, berak erosi, eta gordeko ditue, irabazi andia uste daneko. Onelako sartzalle, ta erosleak dira errietako sitsa. Orain.

1. Begira, Kristaua, gauzen saltzean, eskatu ote dezun goieneko balio edo prezioa baño geiago, ematen badizue artzeko asmoarekin? Bekatu da au, eta geiegi artu dezuna biurtu bear dezu.

2. Begira guza garestiaago saltzeagatik, gezurrezko juramentuak egin dituzun: *ala Zerura noala, neroni ere onenbeste kostat. Egin dezu bekatu larria, eta orrela geiegi atera dezuna, biurtu bear dezu.*

3. Begira, gauzak erostean eman diozun saltzallari beeneko balioa bederik? Ezpadiozu eman, eranzun bear diozu gutxiegi eman diozunarekin. Onetan beartsuakin egin oi dira erostura gaiztoak, zerren beren premi estuetan gauzak saltzen dituen nolana.

4. Begira neurritz eman dituzun gauzetan tranparik egin dezun? Tranpa egin diteke neurrian, lenengo lekuan, ipintzen badituzu bi neurri, bata andiagoa, bestea txikiagoa, bata artzeko, eta bestea emateko. Anziñakoa bide da tranpa au, bada Jaunak lege zarrean esaten zien Israeltarrai: ez idtuzu zakuan idukiko neurri asko, edo desberdiñak, andiagoa eta txikiagoa: *Non habebis in sacculo diversa pondera,*

majus, eta minus: eta ez da zure etxean izango lakari andiagoa, eta txikiagoa: *Nec erit in domo tua modius major, et minor* (Deuteron. 25). Bigarrena, betetzen bada aparrez, edo beatzak sartuaz. Irugarrena, liaz, eta tortikaz betea badago.

5. Begira, tranparik egin dezun pisuan. Gertatzen da au lenengo lekuan, ipintzen bada pisua nai dan alderonz erraz etzitzen dala. Bigarrena denbora egokian beatzarekin poliki ukitzen dala. Irugarrena, ogi erregabea erretzat ematen dala. Baldiñ ongi erretzeagatik pisuan ontzen bada librako onza, zertako dira tranpa txar oek? Laugarrena, urez iztatzen bada saldu bear dan garia, tabako, edo illea. Modu itsusiak dirade oek, eta onela eramaten dana biurtu bear da. Nazkatzan duan gauza da au Jaunaren begietan, esaten digu Eskritura Santak: *Abominatio est apud Dominum pondus, et pondus: statera dolosa non est bona* (Prov. 20).

6. Begira, tranparik egin dezun, saltzen dezula gauza bat bestearen lekuan, katua erbitzat esan oi dan eran, egin dezagun kontu ardi zarraren puska arikitat, kakau txikiarekin egindako txokolatea Karakas-koarekin egiña bezala.

7. Begira, gauz ona txarrarekin nasturik onaren eran saldu dezun? Gertatzen da au lenengo lekuan, Karakasko kakauari botatzen zaiola urra, artearen ezkurra, eta kakau txikia: azukrearen lekuan eztia, eta artiriña. Bigarrena, ardo andiari sagardo gozoa. Irugarrena, bataiatzen dala ardoa urarekin. Laugarrena, garia garagarrarekin, edo artoarekin. Bostgarrena, edari biziakin egiten omen diran nasketak ezin esan ditezke. Leku batean joan omen zan norbait edari biziaren eske arratsean, eta barrundik erantzun zioen: *oraintxe etorri da; baña ez degu maneatu*, eta biurtu zan etxera edari gabe. Onelako nasketak uzten dirala kastigu gabe, zer tranpak ez dira egingo errietan?

8. Begira, idi, bei, eta beste edozeñ abere tatxadun saldu dezun tatxarik ezpalu bezala? Onetan gertatu oi diran bekatuak ezagutzeko, enzun ezazu esatera noana. Lenengoa: saltzen badezu gauza tatxaduna, tatxarik ezpalu bezala, egiten dezu bekatu, eta biurtu bear dezu geiegi artu dezuna, eta gañera kalterik etorri bazaio erosleari, au ere ondu bear diozu. Bigarrena: galdetzen badizu erosleak tatxarik daukan saldu nai diozun gauzak, aitortu bear diozkatzu tatxak, bestela ez du balio igualak geienen iritzian: eta zer izango da galdetzen badu, ote duan *onelako*

tatxa? Alaere ez dira bearbada tatxak ongi aitortzen, eta etorri oi dira asko kalte, eta auzi. Galdetzen dizu erosleak, zenbat urte ditu bei onek? nabill alabaña umeak ta esnea ongi eman ditzakean bei baten billa. Zuk kentzen diozkatzu beiari bi, edo iru urte, eta saltzen diozu bei zarra gaztetzat. Ezdu balio igual onek; biurtu bear dezu gaizki eramana, eta kalteak ere bai. Galdetzen dizu besteak, eznetsuak diran saldu nai dituzun beiak? Erantzuten diozu: *ea jaten eman giezu ongi, eta emango dizue nai dezun eznea*. Badaramaizki erosleak beiak; ematen die jaten ongi, eta ekusten du, ez duela eznerik, edo txit gutxi duela. Ez du balio igoal onek. Galdetzen dizu, *eztulik, edo beste gaitzik duen?* Erantzuten diozu: *arbia, edo belarra bustia, edo inzez betea emanda, iñoiz eztulen bat, edo beste aditu diegu, baña gañerakoan ez*. Eta gero? Erosleak ekusten du, eztanda egin nai duela, eztulka. Ez du balio igoalak, eta erosleari biurtu bear zaio bere dirua, ta gañera kalteak. Galdetzen dizu besteak: *izuak ote dira, edo jotzerako griñarik badue?* Erantzuten diozu: *arrotzak ekustean, zerbait bizkortzen dira, baña etxe-koakin ez du ezer*. Eta gero? Arrotzak ezezik etxe-koak ere adarka bukatu nai ditue. Ez due balio igoalak, eta biurtu bear dezu artu dezuna, eta ondu kalteak. Gal-

detzen dizu beste batek: *idi oriek gogotsuak ote dira lanerako?* Erantzuten diozu: Eskuieko au ezda geiegi urratzen: *deritza ederko*; alaere eztenaren ukituak eragiten dio lana; beste au da *arreo*: balio du *España guzia*: *premiak salerazoko dit*. Eta gero? Erosleak ez *ederkori* ez *arreori* ezin eragin dio lanik, zeren ustelak diran. Zenbat onelako tranpa igaroko dira munduan? Saldura, ta erostura gauza bearrak dira; baña aitzaki onekin ederretsitzen bazaio ibilliari, jokoari, edanari, ez da gauza onik ekusiko onela dabiltzanetan. Atze-nean baldin zuk naspilletan ez ibiltzeagatik esaten badiozu erosleari: *ona nere idi, edo beiak: artu nai badituzu onenbestean arritzazu feriako eran: eta ez gero nere ondoren ibilli, asko ibilli oi diran bezala*. Au ontzat ematen due, geiegi eskatzen ezpada. Eztakit, onena ez ote dan modu au egungo egunean. Asko degu gaurko.

Utzi itzatzu, Kristaua, gauzak saltze, eta erostean oraiñ egiten omen diran tranpak. Obe dezu zere gutxiarekin pakean, eta garbiro bizi, eta gero zure saria izango da ugaria; izango da alabaña beti-betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI, IRUGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

JAUNAREN LEGEKO ZAZPIGARREN, ETA AMARGARREN AGINTEEN GAÑEAN

*Ukitzen dira, gauzak epetan ematena,
egn oi diran usura, edo bekatu itsusiak.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko iru itzaldiak izan dira Jaunaren legeko zazpigarren, eta amargarren agintearen gañean. Zer-bait aditzera eman da, baña ez premiaren neurrian, eta beste gauza askoren artean, ukitukizun daude, gauzak epetan ematean gertatu oi diran usura, edo bekatu itsusiak. Oen gañean bada izango da gaurko itzaldia. Enzun arretarekin.

Zer ote da *Usura* esaten diogun bekatu itsusia? Da epetan gauza ematea, eta ematen dana baño geiago kentzea, zerren epetan ematen dan. Au gerta diteke dirua, garia, artoa, idiak, edo beiak epetan ematen diranean. Juduak ontzat ematen due usuren irabazia, arrotzai gauza ematen badieza epetan, ez ordea heren legekoen artean. Orregatik ardura andiarekin egin bear dira igoalak Juduakin. Herejeak ere ontzat ematen ditue usurak, dirua, edo beste gauzarik epetan ematen bazate aberatsai, eta beren ondasunak ugaritzeko diru-eske dabilzanai, baña ez beartsuai ematen zatenean. Katolikoak ez due ontzat ematen, epetan dirua, edo beste gauzarik artzen duanari geiago kentzea, ez gutxi, eta ez asko, ez aberatsari, ez beartsuari. Gutxi da au: bekatutzat ematen due Katoliko guziak, geiagoren ustearekin epetan gauza ematea ere: zerren ala erakusten digun Jesus onak. Epetan gauza ematen dezuenean eman ezazue geiagoren uste gabe, esaten digu Jesusek: *Muttum date, nihil inde sperantes* (Luc. 6. Alaere, nork uste izan zezakean, Judu, eta herejeak baño ere modu itsusiagoak egingo zituela Katolikoak? Etzan sinisteko gauza,

baña dirudianez, ala gertatu da denbora doakabe oetan. Eta ez ote dezu au bera egiñ zuk ere, aditzen zauden Kristaua? Goazen ekustera.

1. Begira urliari, sandiari, edo errien bati epetan eman diozun dirua, egin dezagun kontu urte beteko, edo biko, euneko seian, amarrean, edo geiagoan. Au usura garbia da. Omen dira sei illabeteko lau, sei, edo geiago onza prestatu dituenak, erdia geiago biurtzeko kargarekin, lau onzakogatik sei. Irabazi ugaria sei illabetean ateratzeko. Omen dira erriai premi estuetan dirua eman diezanak, euneko sei, edo zorzian. Berez usura da, eta aintzakotzat ematen due herejeak ere, prestatzeaz gañera eman dan baño geiago artzeko bide legezkorik ezpada. Joan diran denboretan bezala badijoaz gauzak, ollo bat epetan ematen duanak, erraz ipiñiko du astean iru arraulza pagatzeko karga nortaki alabaña ollo batek zenbat on ekarri lezakean? Jauna nik eman dedan diru arekin atera nezakean, eskatu dedana ezezik, askoz geiago ere. Atozea, eta artarako zendukan diru ori? Ez, Jauna, asko dira alabaña ugari eskeintzen duenak, eta gutxi agindua ematen duenak. Beraz ezin alde onetatik, emana baño geiago, artu dezakezu. Baña demagun, diru ura irabazirako zendukala; Ote zenduan era onik, irabazi garbi

eta legezkoa ateratzeko? jakizu onelako era gutxi izan oi dala. Onelako erak izan oi ziran denbora batean Madriden, Bilbaon, Donostian, eta beste komerzioko erri andietan; baña gañerako errietan irabazian dirua ipintzeko era on gutxi izan oi da, zensoaz kanpora. Itz batera biur dezagun guzia: dirua epetan emateagatik ezer kentzea, ez da zillegi, eta besterik esatea da gure lege garbiaren kontra. Baldin, epetan gauza emateaz gañera, bada zerbait geiago eskatzeko legezko bideren bat, ori ongi begiratuta gizon jakintsuakin itzegin bear da.

2. Begira urliari eman diozun epetan artoa, S. Juan-astean egiten, edo egingo duan prezioan, dakizula, denbora artan prezio andia, eta oraiñ baño andia-goa egin oi duala. Igoal au berez usura da. Jauna, ez nuan nik artorik saltzeko asmorik S. Juan alderaño. Ongi: ori egia bada, orduko prezioa eskatu dezakezu, baña beeratu bear dezu zerbait mermakgatik, eta gordetzeko nekeagatik. Jauna, dio besteak, egia aitortu nai det; ez nuan asmorik S. Juan artean artoa gordetzeko, baña prezio andiaren zaleak eskaerazo zidan gerokoa. Usura da bada au, eta biurtu bear dezu geiegi artua.

3. Begira, epetan eman ote dituzun artoak urtean egiten duan preziorik andiengan? Usura txit itsusia da au; ta alaere gertatu izan omen dira onelako saldura zikiñak.

4. Begira, ereiteko garia epetan eman dezun, gero egingo duan preziorik andiengan? Au ere usura da. Jauna, gari ura gordetzeko asmoan neukan S. Juan alderaño, eta kalte egiten zitzatan azaroko prezioan ematearekin. Egia ote da au? Egia bada, eska dezakezu S. Joan-asteko prezioa, baña atera bear dituzu prezio onetatik mermak, eta gordetzeko nekeak.

5. Begira, gari irindua epetan eman dezunean, lakaz gañera egotzi diozun prezioan beste kargaren bat artzalleari, zerren epetan eman diozun? Usura, eta lapurreta da au. Jauna, era onetan ezin bizi naiteke errotan. Ezin bizi zaitezke? Irten zaite bada errota orretatik, bestela, zai, ta iriñ usuraz kargaturik ondutuko zera su eta garren lize izugarrian.

6. Begira, dirua, edo beste gauzarik epetan eman dezun *usuren* usurakin? Zer ote dira usuren usurak? Ara zer. Urliak sandiari ematen diozka laureun ezkutu urte beteko epearekin, euneko ogei, ta bosten irabaziarekin, edo berbera dana laur eun ezkutugatik bost eun ezkutu biurtzeko kargarekin. Ona lenengo usura,

eta au justiziaren aurrean beldur gabe eskatzeko, egiten due papera, urliak sandiari eman diozkala bost eun ezkutu urte beteko epearekin. Igarotzen da urtea: sandiak ez ditu pagatu bost eun ezkutuak. Egiten dio bigarren papera, esaten duala sandiak, artu dituala urliagandik, urte beteko epearekin, *sei eun, eta ogei ta bost ezkutu*. Igoal onetan laureun ezkutu dira pres-tatuak: eun dira lenengo urteko usurak, eta beste eun, eta ogei ta bost *usuren usurak*. Era onetan usuragille batek irintsi dezake edozeñ erri, eta bere lapurreta, eta irabazi lotsagarriakin amilduko da Luziferren alde-ra.

7. Begira, idi, edo beiak eman ote dituzun epetan, usuraz kargatzen dezula eroslea. Ara nola au gertatzen omen dan. Zuk daukazu idi, edo bei uztarri bat: eun, eta berrogei, ta amar ezkutu balio duana, goi-eneko prezioa ematen zaiola. Badatorkizu urlia, eta eskatzen dizu urte beteko epearekin. Asitzen zera igoala egiten, eta diozu: epetan nere idiak eraman nai ditua-nak, eman bearko ditu denbora betetzen danean, eun, eta larogei ezkutu. Ona lenego usura, zerren *epetan emateagatik* geiago nai dan. Igarotzen da urtea: idi, edo beien erosleak ez du pagatzen agindua, eta idi-jabeak eskatzen dio, pagaburua egin dezan artean

eman bearoko diola urtean *euneko amar*, eta gañera urtean onenbeste, edo ainbeste anega-gari iru dukatean anega. Ezin sinistu det emen gertatzen dirala onelako modu itsusiak, baña asko berri txar aditu dira azkeneko denbora oetan, eta beldur naiz, zer edo zer gertatuko zala.

8. Begira, *erdira* esaten dan moduan ipiñi ote dituzun beiak? Onetan ere egiten omen dira tranpak beiñ baño geiagotan. Batzuek ipintzen omen ditue era onetan: lenengo lekuan ematen zate beiai balioa. Bigarrena: artzalleak agintzen du ongitxo gobernaturko dituela. Irugarrena: oñaren, eta oñak umeetan emango dituan irabaziak erdi bana. Laugarrena: baldin oñak irabazi bearrean galtzen badu, edo iltzen bada, edo ostutzen badue, orduan beien jabeak nai du oña, edo balioa osatzea. Igoal au, dirudianez, okerra da: zerren oñak egiten duan irabaziaren erdia beretzat nai duan ezkerro jabeak, era berean irozo bear du kaltearen erdia ere.

Baña batzuek zuzenago egiten due erdirako igoal au, erdiratzen dituela irabaziak, eta kalteak, izan ditezela oek umeetan, edo izan ditezela oñean. Jauna: era orretan neuzkan bi bei: il ziran edo ostu zituen, eta erdibana irozo genduan kaltea. Baña aen umeetan

geratu zan oña berritzeko diña, eta nik nai nukean ala egitea. Ongi: baña ori, ume orien erdia ez da zurea, eta beragatik ondu, edo pagatu bear diozu beiak dauzkanari, bestela ez dira izango erdirako beiak, eta irabazien laurdena baizik eziñ artuko dezu. Gai onetan igoal zikiñik ez egiteko, galde giezu, nere Kristaua, gizon zintzo, eta adituai.

9. Begira, irabazian ipiñi dezun dirua merkatariren bategan, euneko seian. Au ontzat eman oi due, batezere itsasoaren aldeko errietan, zerren irabazien erak, eta denbora berean guzia galtzeko perillak sarritan gertatzen diran; baña erri txikietan, eta irabazi txikiak baizik, izan ez oi diran lekuetan, erraz gertatuko dira usurak onela dirua irabazirako ematen dala. Zuk, bekatu onetan ez erortzeko, gogoan arrezazu esatera noana. Lenengo gauza: Ez degiozula irabaziaren aitzakian dirurik eman, irabazirako ez, baizik bere zor, edo tranpak estaltzeko diru-billa dabillinari. Bigarrena, usuretan, eta beste saldu, eta erosi ez garbietan bizi danari ez *eman* ez *eman* dirurik: onelakoak askotan euneko eun ere aginduko dizue, eta lagunduko diezu eren bekatuetan, ematen badiezu dirua. Irugarrena: etzaitzela gauz oetan urduritua izan, baizik galde zaiezu gizon adituai, zer bekatu gabe egin dezakezun.

Usuren bekatua zeñ itsusi, ta lotsagarria dan eza-gutu nai badezu, Kristaua, begira ezazu, zer penak ipiñi dituan Elizak beraren kontra, eta nolako kastiguak bidaldu oi dituan Jaunak Usuragilleen gañera. Lenengo pena: izen gaizto, eta belzez markatua gertzea. Bigarrena, ezin artu dezake *ordena* nagusirik, eta Elizako errentarik. Irugarrena, eziñ artu dezake Komunio Santua, ez eta beste Sakramenturik ere. Laugarrena, eziñ eman dagikeo Eliz lurrik, eta ematen diona geratzen da exkomikatua. Bostgarrena, eziñ egiñ dezake testamenturik. Pena oek dira, usuragillea aintzakotzat ezagutua daneko; baña nola gutxi diran bekatu itsusi au gaiñ-txuritzen, edo aitzakiaren batekin edertzen ez duenak, pena oen kezka andi gabe beste Kristauen artean nasturik dabilta; baña Jaunak noizean beñ egin oi dituan kastiguak ongi adirazten due, zeñ izugarria dan bekatu au. Ara kastigu oetatik bi.

Ez da denbora txit asko, oraiñ esatera noana Españan gertatu zala. Nekazari batek zeukan morroi bat, eta onek, bere soldatak ardura andiarekin gordeaz,

egiñ zuan bere gordairutxo. Itsatsi zitzaion kutiziaren miñanza, eta asi zan igoal, edo tratu zikiñetan. Batzuetan berrogei ematen zituan berrogei, ta bost, edo sei biurtzeko kargarekin; besteetan uzta-aurrean ematen zien nekazariai dirua, erosten ziela merketxo garagarra, ta garia. Onela bizi zan usuren irabazi zikiñetan. Alaere S. Franziskuaren irugarren ordenako soñekoa zerabillen, eta noizean beñ konfesatzen, eta komulgatzen zan. Egun batean komulgatu zan; begira zegoan anima on bat, eta ekusi zuan tximu itsusi bat, zebilkiola belarri batetik bestera. Itzegiñ zion anima onek modu onean, eta esan zion: *utzi ote zuan bekaturen bat konfesatu gabe?* Eranzun zion doakabe ark: *Badakit, nere gauza guzien berri badakizula.* Jakizu, galdua nagoala, eta *ez dala sendagairik neretzat.* Nere animak supre usaia dakar. Irabaziak, eta kutiziak galdu naue betiko, eta nere burua urkatzeko *naikunde andiakin nago.* Igerri zan asmo oekin zebillela: ipiñi zuen gela itxian, eta egiñ etzezan, aditzera eman zuan zorakeri izugarria, ipiñi ziozkeen zai, edo begira-leak; baña alperrik. Oek oarkabe zeudela, itxeki zan soka batetik, eta arkitu zuen zinzilika zegoala. Berea-la ebaki zioen soka, eta artean bizi zan. Ogei, ta lau ordu bezala eman ziozkan Jaunak, biur zediñ beraga-

na. Denbora onetan egiñ zuen alegin guzia Apaizak, eta Erljioso jakintsuak doakabe ura Zerurako bidean ipintzeko, baña ill zan bere gogortasunean. Aditzera eman zitzaion apaiz nagusi, edo Obispo Jaunari, zer gertatu zan, eta onen agintez sartu zuen zingiradi batean. Askotan andik sortzen bide ziran turmoi, tximista, eta ekaitzak, eta atzenean erre omen zituen doakabe aren ezurrak, eta onela aitu ziran ekaitzak. Onela aditzera eman zuan Jaunak, zeñ bekatu itsusia dan usura.

Bigarren kastigua izugarriagoa da, eta kontatzen omen du Zesareok. Usurero bat gaixotu, eta iltzeko zegoala, deitu zioen Eskribauari. Etorri zan au: eta konfesari, ta etxeakoak ere eriaren aldean zeudela, esan zion Eskribauak: ea esazu zer nai dezun. Eriak esan zion: *Diot nik, eta ipintzu*. «Lenengo lekuan, uzten diet nere anima Demonioai. Arri egiñak bezala geratu ziran an zeuden guziak. Jesus! Jesus, zioen: gaitzaren indarrarekin burutik jauzi da. Eriak dio: Ez nago, ez, burutik jauzia, badakit zer esaten dedan; ipintzu bada: *Lenengo lekuan*, uzten diet nere anima Demonioai; eraman dezeela infernuko penen artera, bada nere bekatuai begiraturik ez det gauz oberik uste. Emen ziran aditzen zeudenen negarrak, eta

adiak: emen alegin guziak eriarri adirazteko, zer ontasunarekin artzen dituan Jaunak beregana biurtzen diran bekatariak. Baña alperrik. Ea, esan zien, utzi dezagun ori, eta zoaz aurrera. *Bigarren lekuan* uzten diet Demonioai nere emaztearen anima; bada niri nere igoal gaiztoak eragozteko alegiña egiñ bearrean, poztutzen zan, bere arrotasun, eta zorakerietarako dirua izateagatik. Irugarren lekuan: agintzen det, nerekin batean jatxi ditezela infernura nere umeak, bada ondasun geiagorekin geratzeagatik lagundu didee nere tranpetan. Emen berriro negarrez, eta ai! izugarriakin deadar egiten zuen etxeko guziak, eta konfesoreari zitzaion, bere bekatuen damuz biur zedin Jaunagana. Eranzun zion eriak: *Aita, itxedon beza pis-kabat*. Ipintzu zuk Eskribaua, laugarren lekuan agintzen det, nere konfesoera ere jatxi dedilla nerekin, egon gaitzen biok mai batean; bada emengo erakgatik ixilik utzi dit usuren gañean, eta eman dit nere bekatuen barkazio, edo absoluzioa irabazi gaiztoak jabeai biurtu gabe. Ea, goazen guziok irabazi degun tokira. Itz oek esan zituan bezala, sartzen da etxe artan Demonioen talde bat: itsasten dieza eriarri, emazteari, umeai, eta konfesoreari, eta berekin eraman zituen betiko. Gertakunza guziz izugarria! Nere

Kristaua, baña sinisten det, eta sinistu dezake edoze-
ñek, eziñ konta al anima irabazien bixkarekin amil-
duaz dijoazela betiko su, eta garren osiñean. Ai! eta
ez ote dira emen bertan ere bat baño geiago igoal
gaiztoak, eta usurak egiten dituenak? Ez ote dira gaiz-
ki eramana jabeari biurtzeko biotzik ez duenak? Ai! ta
zeñ gauza negargarria, Zerurako Jaunak egindako
anima ezerez bategatik betiko galtzea! Zentza gaite-
zen, nere Kristaua: biur gaitezen gure Aita onagana,
onela iristeko, prestatu digun betiko bizitza. Amen».

OGEI TA LAUGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Azaltzen da Jaunaren
Legeko zozrtzigarren Agintea.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Leneko itzaldi batzuek izan dira Jaunaren Legeko zazpigarren, eta amargarren aginteen gañean. Igaro gaitezen oraiñ zortzigarren Agintera. Ez dago betiko bizitza iristeko biderik gure lagun urkoa amatzen ez degula. Orregatik agintzen digu Jaunak maite izan dezagula geren buruak bezala: *Et proximum tuum sicut te ipsum*. Era onetan bere lagun urkoa amatu nai duanak onratu bear ditu gurasoak, eta au agintzen digu laugarren aginteak. Ez dio kalterik egingo lagun urkoari bere bizitzan, eta bizitzari dagozkan gauzetan: eta au agintzen zaku bostgarren agintean. Lagun urkoak gorputzaren bizitzat gañera badu beste bat askoz balio andiagokoa, eta da animarena, eta debe-

katzen zaku bostgarren Agintean bizitz onetan kalterik txikiena ere egitea gure lagun urkoari. Era berean egiaz amatzen duanak lagun urkoa, ez dio garbitasunaren kontrako biderik prestatuko, eta ezkondua bada ez dio gerrarik emango. Eta au agintzen zaku seigarren ta bederatzigarren aginteetan. Emen bizitzeko gauz askoren bear gera; eta lagun urkoa amatzen duanak, opa bear dio on guzia, eta ez dio kalterik egingo bere izan, edo ondasunetan, eta au agintzen zaku zazpigarren, eta amargarren Aginteetan. Atzenez badu lagun urkoak beste ondasun bat prezio txit andikoa, et da *onra*, eta izen ona, eta ez diogu alde onetatik ere kalterik egin bear, amatu nai badegu. Orregatik zorzigarren Agintean debekatzen zaku lagun urkoari bere onra, eta izen onean kalte egitea. Zortzigarrena *falso testimoniorik ez altxatzea, eta gezurrik ez esatea*, dio dotrinako liburutxoak. Gaur aditzera eman nai dizuet, lenengo lekuan: zer debekatzen digun Aginte onek. Urrena, zer agintzen digun. Enzun arreta onarekin, nere Kristaua; enzun, aurrera lagun urkoaren onra, eta izen onari begiramentu andia gordetzeko asmoarekin.

Zorzigarren Agintean esaten zaku: *falso testimoniorik ez altxatzea, ta gezurrik ez esatea.*

Aginte onetan debekatzen zaku lenengo lekuan bide gabe *duda* gaiztoai leku ematea. *Duda*, edo *enura* da ez da sinistea osotoro gauza gaiztoa lagun urkoaren kontra, baizik zabuan bezala geratzea: *ote da, ez ote da*. Onetarako bide andia danean ez da bekatu. Ezpada bear adiña bide, orduan izan oi da bekatu *beniala*, gizon jakintsu askok, edo geienak erakusten diguenez. Baña *duda*, bidegabe, eta gauza txit itsusiaren gañean bada, orduan izango da bekatu larria, egin dezagun kontu; *dudan jartzen bazera: urlia ote da Judua, edo herejea.*

Aginte onek debekatzen du bigarren lekuan *bide gabe lagun urkoaren kontra sospetxa gaiztoak egitea*. *Sospetxa*, gauza gaiztoaren gañean egiten ezpada, ez da bekatu: eta gauza gaiztoa izan arren, *txikia* bada, *sospetxa* ere izango da *txikia*. Baña zer aditzen da *sospetxaren* izenez? Ara zer. Demagun: gogoratzen zatzula, urliak, edo sandiak egin duala gauza gaizto larri bat: zure adimentua zabuan dabill: *ala ote da? ez ote da?* balanza batzuetan etziten da *baietzera*, bes-teetan *ezetzera*: atzenean geratzen da balanza

makurtua baietzera, baña ez osotoro, *baizik zerbait*. Au da sospetxa. Bear adiña bide danean, ez da bekatu: gauza txikiaren gañean danean, bekatu beniala da; baña gauza larri txit itsusiaren gañean sospetxa bidegabe egitea izan oi da bekatu larria.

Aginte onek debekatzen du irugarren lekuan, *juizio gaiztoak egitea* lagun urkoaren kontra. Zer aditzen ote da juizioaren izenez? juizioa ez da, lagun urkoaren kontra gauz itsusiren bat gogora etortea, edo gogotik ezin kendurik ibiltzea: egin dezagun kontu: *urlia aurdun da, sandia lapurra da*: gogorazio oek ez dira juizioak sinistea eman artean. Demagun, zure adimentua, gauz oek gogoratzean, balantzan bezala jartzen dala, eta atzenean baiezkora osotoro etziten dala, eta sinisten duala *urlia aurdun*, eta *sandia lapurra dala*. Au da *juizioa*. Juizioa ez da beti gaiztoa, gauza gaiztoaren gañean izan arren, baldin artarako bear adiña bide bada. Demagun, urliak ez duala artosororik, eta artoa izateko modurik ez diruz, ez bestela; ekusten dezu au, eta badakizu gañera, zerri galanta azitzen duala, eta diozu zeregan: etzaio asko kostatzen urteko urdaia. Ekusten dezu, sandia gau, ta egun dabilella mutillen billa, eta diozu: *abill abill*, ez *aiz onean geratuko*: juizio oek gauza gaiztoaren gañean dira, eta

alaere ez dira gaiztoak, zerren artarako bide andia dan. Biderik gabe eta gauz andiaren gañean juizio gaiztoa egitea berez bekatu larria da; baña zerbait ezaguera gai onetan izan dezazun, aditu arretaz esatera noana.

Batzuek juizio gaiztoetan dira txit errazak, eta lasaiak. Lasaiak benikbeñ izan oi dira gaizki bizi diranak, zerren uste duen, berak bezala besteak ere dabiltzala. Lasaiak izan oi dira urrena lagun urkoaren kontra gorrotoan daudenak. Asko da oenzat iduripen bat, osotoro sinisteko, etsaiak egin duala onelako, edo alako bekatu, edo gaiztakeria: ainbesteraño itsutzen ditu gorrotoaren lañoak, non juramentu egingo lukeen *ala dala*. Baña lagun urkoa biotzetik amatzen duanak nekez sinisten du, arentzat gauza gaiztoa; eta zerbait gertatuta ere alegiñean edertuko du. Lasaiak izan oi dira atzenean, azti-zaña, edo igerrimentuaren doaia duela uste duenak. *Begira zañak niri eman ezker*o, esan oi due.

Beste batzuek beldurtiegiak izan oi dira gai onetan, eta uste due, bizitasunarekin lagun urkoaren kontra gogoratzen zaizten gauza gaizto guziak juizioak dirala, eta bekatu andietan erortzen dirala. Enzun bada itz bi gauz onen gañean. Lenengo lekuan: gau-

zarik gaiztoen, et itsusienagogora etorri arren, ez da au juizioa, eta ez da bekatu, lekurik ematen ezpazaio.

Bigarrena: askotan gertatzen da borondateak nai ez izatea alako gogoraziorik, eta alaere gogorazioak aldegin nai ez izatea, eta aldegin bearrean, setaz bezala barrunbean esatea: *Ala da, bai ala da*. Alaere gogorazio oek ez dira bekatu larriak bizitz onean diarden animetan; zerren borondateak sinisterik eman nai ez dien. Irugarrena: juizio gaiztoa ez da bekatu larria, baldiñ alde guzietara begiraturik, gaia, edo sinisten dan gauza andia ezpada. Ala gerrari lasai bat neska-zurrian, eta bekatuaren bideetan dabillela sinistea, ez oi da izan juizio gaizto andia, zerren era onetako *urliak* desonratzat ez dauzkeen bekatu oek. Laugarrena: juizioa gaiztoa izan arren, ez da bekatu larria, ezagutzen ez dezunen baten kontra egin badezu. Ekusten dezu emakume bat illunzean kale ezkutu batean; ez dezu ezagutzen, eta ez dezu biderik gauza gaizto andirik sinisteko; alaere diozu: *usakume onen bat izango da ori*. Juizio au ez da bekatu larria, zerren emakume ura ezagutzen ez dezun, eta gauza jakiña da askoren artean asko dirala bide gaiztoetan dabil-tzanak.

Zortzigarren aginteak debekatzen digu laugarren lekuan lagun urkoari egotzitzea ez duan tatxa, edo egin ez duan gauza gaiztoaren bat, dala Juezaren aurrean, dala bestela: eta oni esaten diogu *testimonio falsoa* altxatzea. Da bekatu larria badatorkio emendik lagun urkoari kalte andia bere onra, izen on, edo beste ondasunetan: eta kalte oek desegiteko alegiña egin gabe ez dago barkaziorik. Onela mingaiñ madarikatua infernua bera baño ere gaiztoagoa da, Eskritura Santak dion eran: *Utilis potius infernus, quam illa* (Eccle. 28 v. 25): infernuak alabaña ez dio kalterik egiten oben, edo kulparik ez duanari, baño mingaiñ gaiztoak norinai, kulparik ez duanari ere barkatu gabe, batez ere gorrotoaren suak ukitua badago. Onelako bat gai-xotu zan: egin zan alegiña, Zerurako bidean jarri zedin; baño alperrik. atera zuan mingaña: bereala puztu zitzaion auan eziñ kabitu zitzaion eran, eta ala il zan.

Zorzigarren aginteak debekatzen digu bostgarren lekuan lagun urkoaren tatxa egiazkoak ere baño ixilik daudenak, edo barreatu gabeak agertzea. Au ere bekatu larria da, lagun urkoari emendik badatorkio kalte andirik bere onra, izen on, edo beste ondasunetan. Baña nork aintzakotzat ezagutzen ditu bekatu

oek? Jauna dio batek, esan det nik lagun urkoaren tatxa, edo utsegite andi bat baña bati bakarrik, eta ixilik idukitzeko itzarekin. Bati bakarrik. Eta eztakizu, lagun urkoaren izen, edo onra gutxitzen, eta beztuzten dezula era orretan? ixilik idukitzeko itzarekin? Atozea, eta zuk ixilik gorde ezin badezu, nai dezu beste ark iñori ez esatea? Era onetan aste batean sukaldez sukalde zabalduko da lagun urkoaren tatxa, ixilik gordetzeko itzaren azpian. Obe luke utsegiteren bat gertatu zaionak, baldin bestek badaki arzaiajana joanda esatea: *Jauna au gertatu zat: eztaki batek bai-zik, baña* onek norbaiti esan degion baño len, onena izango da, berorrek pulpitutik *dana dan bezala esatea, eta erregutu dezeela nigatik*. Era onetan batetan jakingo luke erri guziak, eta ez lirake egingo erausia-kin egin oi diran bekatuak. Jauna, dio besteak: egia da, nik esan dedala urliaren tatxa, edo utsegite anditxo bat; baña ez da nik altxa, edo asmatua. Atozea, eta ez dezu ekusten, ori dala bestek lagun urkoari egin zion zauria berritzea, eta sendagaia ipiñi bearrean, gaiztoago ipintzea? Jauna, dio urliak: nik esana egia da. Atozea eta eztakizu, ez dala esan bear egia guzia? Zuk, eta nik egin ditugun oker guziak agertuko balira, nolakoak geratuko giñake? Jauna, nik gauz ura

esan orduko, barreatua izango zan, aditu nuan alabaña bi edo iru lagun en aurrean. Atozea, eta zerren an arkitzen ziran bi, edo iru, orrenbesterekin barreatutzat eman nai dezu lagun urkoaren utsegitea? Gauza bat errian barreatua dala esateko, jakin bear due geienak, edo beintzat ainbestek, non uste izan ditekean, laster zabalduko dala errian.

Zortzigarren aginteak debekatzen digu seigarren lekuan, lagun urkoaren utegite, eta tatxak borondatez aditzen egotea, esateko bidea ematea, eragotzi bear lukeenak ez eragozte. Batzuek poz andiarekin egon oi dira lagun urkoaren oker, eta tatxak aditzen, zerren beren gogokoa ez duen urlia, edo zeren gorrotoan dagoan arekin. Ez da oentzat txerrebeta, eta soñu añ gozorik, nola dan lagun urkoaren kontrako gauzak aditzea. Beste batzuek ez daude gorrotoan, eta ez dira poztutzen aditzen dituen erausiakin. Zer egin bear due oek? Eragozteko eskurik ez duenak, aurpegi illuna ipintzea onena izan oi da. Aurpegi illunak desegiten ditu mingaiñ gaiztoen erausiak, iparrak euria bezala, dio Espiritu Santuak: *Ventus aquilo dissipat pluvias, et facies tristis linguam detrahentem* (Prov. 25). Baña ez da asko au guraso, ta eragozteko eskua duentzat: oek eragotzi bear dieza beren mendekoai

lagun urkoen onra, eta izen ona beztutzea; bestela, beartuak egongo dira kalteak desegitera. Nork esan, zenbat kalte alde onetatik datozen? Iru eriotza egiten ditu batean onela gaizki itzegiten duanak: iltzen du bere anima: iltzen du aditzen dagoanarena, eta iltzen lagun urkoaren izen ona; eta au bera egiten du eragozti bear duanak eragozten ezpadu. Orregatik ez da erraz erabakitzea, zer dan gaiztoago, edo lagun urkoaren kontra gaizki itzegitea, edo aditzen egotea, esan zuan S. Bernardok: *Non facile dixerim* (lib. 2 de consid. ad Eug.).

Zorzigarren Aginteak debekatzen digu zazpigarren lekuan agertzea, ixilik gordetzeko itzaren azpian, esan zakun gauza. Au da gauza bat jentillak ere eza-gutu duena, oen artean Senekak. Erre, jo, edo ill nazu, dio onek; baña ez det agertuko ixilik gorde bear dana: *Ure, caede, occide: non prodam*. Baña egungo egunean ez da onenbeste estutasunen bearrik gauzarik ixillen, eta larrienak ere esateko.

Zorzigarren aginteak debekatzen digu gañera, lagun urkoari bere aurpegira esatea, dagokan begiramentu, edo onra kentzen, edo gutxitzen dioen gauzak; egin dezagun kontu gurasoari: *alperra, buru gaiz-*

tokoa, etxe, eta umeen galgarria. Au geienetan izan oi da bekatu larria.

Zortzigarren Aginteak debekatzen digu bederatzigarren lekuan, lagun urkoari aurpegira ematea bakarrik, edo iñoren aurrean lotsatzeko gauzaren bat edo berea, edo aurrekoena: eta askotan, edo geienetan izan oi da bekatu larria. Batzuetan gerta diteke onelako gauzak esatea, ez aurpegira, baña bai dagokanari esango zaion lekuan ,eta au da aurpegira esatea bezala. Badira gañera asko, edozeñ gauza esatera, eta aditzera oituak daudenak: oek elkarri eranzun oi diozkee, edozeñ gauza, berenez lotsagarriak; eta alaere ez oi ditue ezertan artu. Gizon jakintsuen iritzian gutxitan omen dira bekatu larriak oen arteko eranzukiak gorrotorik ezpada.

Zorzigarren Aginteak debekatzen digu amargarren lekuan, lagun urkoen arteko pake, eta adiskidetasun ona galerazo dezakeen erausi, eta iskindeak erabiltzea. Au berez da bekatu txit larri, eta itsusia, eta Espiritu Santuak dio: *madarikatua izango dala onelako mingaiñ gaiztoa, zeren pakean zeuden asko asaldatuko dituan: Susurro, et bilinguis maledictus erit, multos enim turbabit pacem habentes* (Eccle. 28). Au erraz gerta diteke, etxeetan gertatzen diran gauzak

mirabeak kontatzen baditue auzoetan: eta era berean leku ematen bazate etxez etxe, eta sukaldez sukalde ibilli oi diran zenbait atso ipui zaleri. Oek dira gorrotoaren, eta aserrearen sua erazekitzen duen aspoak. Onelako batez baliatu zan Demonioa, pakean bizi ziran, senar emazte batzuek gorrotoan ipintzeko. Etzuan logratu au berak, egiñ al guzia egin bazuan ere; baña atso madarikatuak laster egin zuan guzia. Artu bear zuan saria, eta zer sari eman ziola uste dezue? Artu zuan bizkarrean, eta gorputz, eta anima eramán zuan betiko su, ta garren artera.

Atzenean zortzigarren Aginteak debekatzen du gezurra. Edozeñek daki, zeñ itsusi, eta lotsagarria dan gezurra esateko griña, eta lagun urkoaren kalte andia dakarrenean, bekatu larria dala. Alaere gauz egokia lizake emen azaltzea nola, eta zenbat gisatara maneitzen dan gezurra animen kalte andiarekin; baña geiegi luzatuko nintzake. Ukitu dezagun orain, zer agintzen digun zortzigarren Aginteak.

* * *

Zer ote da au? Itz bitara biurtu nai det au. Lenengo da *amatzea gure lagun urkoa* geren buruak beza-

la. Amatzen badegu lagun urkoa biotzetik, ez degu beraren onra, eta izen ona beztuko, eta ez gera ozka, eta aginka beraren kontra ariko; baña biotzetik amatzen ezpadegu, erraz autsiko degu zortzigarren Agintea. Lagun urkoa ziñez, edo benaz amatzen duanak, alegiñean edertzen, edo beintzat estaltzen ditu aren okerrak, eta egiten du Apeles pintore trebeak Errege Antigonorekin egin zuana. Errege onek agindu zion Apelesi, egin zezala beraren anz, edo pintura bat. Estutasun andian ekusi zan Apeles; zerren Errege begi batetik okerra zan. ezipazuan pintatzen zan eran, gaizki pintatuko zuan, eta pintatzen bazuan begi okerrarekin, aurpegira emango zitzaion bere tatxa. Zer egin zuan Apelesek, pintatu zuan ez aurkez aurke, baizik zear aldera begiratzen zuala. Onela begi okerra geratu zan ezkutuan, eta Erregeren iduria irten zan Txit ederra. Au egiten du askotan lagun urkoaganako ongini, eta amorio egiazkoa duanak. Ezkututzen du, al badu, alde okerra, eta agertzen du denbora egokian, alde ederra. Bigarren lekuan Aginte onek agintzen diguna da gutxi itzegitea, premiaz kanpora; bestela irristatuko da mingaña lagun urkoen kontra berotzen danean. Itz asko duanak kalte egingo dio bere animari, dio Espiritu Santuak: *Qui multis utitur verbism lae-*

det animam suam (Eccle. 20). Era onetan bizi gaitezke Jaunaren lege Santak eskatzen digun eran, eta iritsi dezakegu betiko zori ona. Amen.

OGEI, TA BOSTGARREN ITZALDI, EDO PLATIKA

*Ukitzen dira, Jaunaren
legeko zortzigarren
Agintearen kontra gertatu oi diran,
bekatuetatik batzuek.*

ALABATUA ETC.

*Clama etc.
Otsegizu etc.*

Azkeneko aldian itzegin nizuen Jaunaren legeko zortzigarren agintearen gañean: gaur ukitu bear ditugu, aginte beraren kontra gertatu oi diran, bekatuak. Asi gaitzen bertatik.

* * *

1. Begira lenengo lekuan, lagun urkoaren, batez ere etsaiaren kontra, *duda*, edo sospetxai borondatez leku eman diezun? Zenbat bider? Aditzen da bear adiña bidegabe, eta gauza gaizto larriren baten

gañean. Gauza txit itsusia ezpada, ez da duda, eta sospetxa ere bekatu larria, gizon jakintsuak dioenez; alaere lagun urkoa biotzetik amaten duanak, aienatu bear ditu alegiñean gogorazio oek.

2. Begira izan ote dezun, zure lagun urkoaren kontra juizio gaiztoak egiteko oitura, astean, edo illean zenbat bider? Gauza gaiztoa, ta larria izan arren, ez da juizio gaiztoa, sinisteko bear adiña bide bada. Alaere oitu zaite, Kristaua, lagun urkoen utsegiteai urrikaltasunez begiratzera.

3. Begira, izan ote dezun etsaiaren kontra edozeñ gauza sinisteko oitura, zañak ala esaten dizula aitzakiatzat arturik?

4. Begira, zeregan sinistu ote dezun, arako atso-gaixo-arlote ura sorgiña dala, aurrak itotzen, idi, bei, ta ardiak iltzeko zorian ipiñi dituala? zenbat bider? Atozea, zergatik zar-arlotea dan sorgiña da? Eta gazte-eder, eta apaindua baliz ez da sorgiña? Jakizu bada, kalte geiago datorrela orrelako gazteetatik atso arloteetatik baño. Euskaldun-erri batean Franziaiko mugan, atso bat joan zan konfesatzera, eta esan zion Konfesariari: *Aita*, izan ote diteke neretzat barkaziorik? Konfesariak eranzun zion: *Zergatik egiten didazu galde ori?* Jauna, diot au, zerren sorgiña naizan. Sorgi-

ña? Bai Jauna: alaere egin dituzun bekatu guziak bar-
katuko dizkitzu Jaunak, ongi damaturik beregana biur-
tzen bazera: ez du alabaña nai bekataria galtzea, bai-
zik beragana biurtzea. Atozea, sorgiñ izna zeran bitar-
tean, ito dezu aurrik? Ez Jauna. Egin dezu kalterik
beietan eta ardietan? Ez, Jauna. Egin dituzu ukendu,
edo gauz itsusiren batzuek Sakramentuakin? Egin
dituzue bilduera, edo batzarre gaiztoak artarako etsai
galgarriak siñalatu dizuen lekuan? Belaunikatu zerate
beraren aurrean, eta onratu dezue Jainkotzat? Ez,
Jauna. Atozea; nola diozu bada, sorgiña zerala? Jauna,
egun batean aserratu nintzan nere suiarekin, eta esan
zidan *Sorgiña*. Sorgiña? *Bai*, sorgiña; zerren irurogei
urte ezkeroko atso guziak *sorgiñ dira*. Orra, nola nai-
zan sorgiña, zerren irurogei urte baño geiago ditudan.
Orra nolako sorgiñak izan oi diran gure errietan. Tiko
Brahe gizon jakintsua zan: alaere aur denboran sozi-
ñen gañean aditu zituan ipuiyakin geratu zan atsoak
topatzeko beldur andi batekin. Goizean etxetik irte-
tean topatzen bazuan atsoren bat, lasterka biurtzen
zan etxera, gauza gaiztoaren bat gerta zekion beldu-
rrez. Kristaua, emendik aurrera ez sinistu emengo
atso gaixoak sorginza zale dirala: jakizu, naiago lukee-
la txokolate ona, edo bizkorgarri *piskabat*.

5. Begira, egotzi ote diozun lagun urkoari ez duan tatxa, edo egin ez duan oker andiren bat, egin dezagun kontu, *ezkontzeko itzarekin galdu zinduala*, esku zikiñak dituala, ukalondoa jasotzean *trebea dala*? Au egin badezu, beartua zaude galdu diozun onra biurtzera.

6. Begira ezkontzeko itza eman diozunarekin ez ezkontzeagatik egotzi ote diozkatzun, ez dituan tatxak, edo agertu ixilik egon bear lukeenak? Beartua zaude onra biurtzera; bestela ez dago barkaziorik. Batzuek eskola-maisu andiak dira, neskatz zoroak ezkontzeko itzaren goixoarekin engañatzeko: eta gero? zoaz aek arrapatzera. *Pu*, esango due: *kiratza dakar*.

7. Begira izan ote dezun lagun urkoaren utsegite txikiak andi, eta andiak andiago egiteko oitura? Onelako bekatuetan erraz erortzen dira gorrotan bizi diranak.

8. Begira, lagun urkoaren obra onak ezin ukatu ditzakezunean alde gaiztora bota dituzun? Egin dezagun kontu, urlia sarritan konfesatzen da, aldegiten du lagun gaiztoetatik: ezin ukatu dezakezu au, eta diozu: *Bai, ori orrela da, baña zoaz jakitera, zer darabilen orrek: iduripen utsak dira oriek*. Onelakoak obra onen

biotz, edo animari utsiki egiten dioe, besterik ezin duenean.

9. Begira, lagun urkoaren tatxa, eta utsegite isillik daudenak, *bati bakarrik, eta isilik gordetzeko itzaren azpian, agertu diozkatzun?* Era onetan isilik gordetzeko itzarekin zabaldu oi dira lagun urkoaren utegiteak: sukalde guzietan badakie, baña isilik idukitzeko itzarekin.

10. Begira, lagun urkoaren okerrak barreatu ote dituzun, esaten dezula zeregan: *ez dira nik egotzi, edo asmatu diozkadanak.* Atozea, Kristaua, bestek gaizki egin badu, lagun urkoaren onra, eta izen ona beztuzten duala, zuk ori bera egin nai dezu? Zerren bestek makillaz lenengo kolpea eman dion, zuk bigarrena eman nai diozu? Eta au gerta diteke Jesusen Legean bizi diranen artean?

11. Begira, lagun urkoaren tatxak, eta utsegiteak nolana esan dituzun, barreatuak bezala, zerren bi edo iruren aurrean aditu dituzun? Demagun, barreatuak dirala: eta eztakizu, utsegite oriek lagun urkoari gertatzeaz atsegin artzen badezu, ori dala bekatu larria? Gañera, eztakizu, bi edo iruren aurrean gauza bat aditzea ez dala asko barreatutzat emateko?

12. Begira, iñoiz asi zeran lagun urkoaren kontra erausian, eta utzi dezun bukaera onekin: *baña nagan isilik, arritu etzaiztezten*. Besteak esango du: *Nik agertuko banu dakidan guzia*. Ah! mingaiñ madarika-tua! Esazu dakizuna, eta ez dezu ainbeste kalte egingo, nola egiten dezun itzerdi oriekin.

13. Begira urrikaltasunaren idurian agertu dezun lagun urkoaren utsegite andiren bat, diozula: *naigabe andi batekin esango dizuet gauza bat*. Zer gertatzen da bada, dioe besteak. *Urlia gaixoa* erori omen da trampan: *neskatx on bat zan*, baña... Orra atzenean zertan geratu dira aren ibillerak: urrikalgarria da. Ato-zea, zer urrikaltasun da ori, baldin gertatu zaiona agertu, eta bere onra beztutzen badiozu?

14. Begira izan ote dezun Erlijioso, edo Apaizen kontra nolana itzegiteko oitura itsusia? Begira emen-dik aurrera gai onetan edo itzegizu ongi, edo zaude isilik. Au ongi egiteko gogoan arritzatzu ukitzera noan gauz oek. Lenengoa: munduaren alde guzietan jenderik basatien, eta abereen anzekoen artean ere onratu dituela begiramentu andiarekin beren Apaizak: oek dira alabaña Jainkoari zor diozkagun doaiak eskeintze-ko autu, ta ipiñiak, eta oek gabe ezin iraun dezakee erreñuak. Eta egia au ezagutu, eta aitortu bazuen

fedegabeak berak, zer esango degu Jesu-Kristoren legeko Apaizaz? Oek eskeintzen dioe Jaunari doai guzien artean andiena, edo beraren seme bakar Jesus Jainko, ta gizon egiazkoa; oek due gure bekatuak barkatzeko esku miragarria, naiz izan onak, naiz ez. Etzien Jaunak eman Aingeruai, etzion eman bere Ama maitagarriari ere onenbeste esku. Eta eman zien Apaizai gure onari begiraturik. Bigarrena: ez da gizon bertutetsurik izan, Apaizak onratu ez dituanik. Aingeruak berak onratzen ditue, San Juani gertatu zitzaion bezala. Onra ezazu zure jaungoikoa zure anima guziaz, eta onraitzatu Apaizak, esaten digu Jaunak. *Honora Deum ex tota anima tua, et honorifica Sacerdotes* (Eccle. 7). Irugarrena, beti izan dira, eta izango ere dira Apaizen artean ere eren honra, eta leku goiari begiratzen ez diezanak; baña nondik dator au? Dator au, zerren gerok alegin guzia egiten degun gure aide, edo adiskidea sartu dedin apaizen mallan, Elizak nai dituan doaiak izan ez arren. Zerren gañera munduko mintegia landare okerrez betea dagoan, eta killagai gutxi dan. Zerren atzenean, landare oek nolerebait moldatzeko, Elizak ipiñirik dauzkan modu ederrak egin nai ez diran. Eta au onela bada, dan bezala, zer aurpegirekin itzegin dezakegu gai onetan? Zer da zer

miretsi, utsegiteren batzuek iñoiz geratzen badira? Eta zerren batzuek okerrak irteten badira (alakoa dago alabaña zuen mintegia) guzien kontra erausi bear da? Kristaua, ez ikasi munduan geiegi zabaldu dan, oitura itsusi au; jakizu, oitura oni ederetsi dioenak, izan oi dirala herejeak, Kristau gaiztoak, eta Eliz Ama Santaren onra oinpean darabiltenak: eta berengan ekusi oi ditue kastigu izugarriak.

15. Begira, urliarekin egindako utsegiteak kontatu ote diozkatzun lagun bati gauz andi bat egin bazendu bezala? Au da lagun urkoari kentzea bi bizitza, animarena bata, eta bestea bere onra, eta izen onarena. Noiz kalte oek desegingo ditu onelako bekatari nazkagarriak?

16. Begira, ixilik gordetzeko itzaren azpian bestek esan dizkitzun gauza larri-onrakoak, agertu dituzun? Zer gauza, eta zenbat bider? Askorentzat, ixilik gauzaren bat gorde bear dala esatea, da zabal dezeela esatea bezala. Ozta esaten zate gauz ixilla, eztanda egingo ezpadue, kontatu bear dieza eren adiskideai. Ala gertatu izan da oraindano, eta mundua ez dijoa obetuaz. Erroman izan zan anziñako denboran bilkui,edo batzarre bat Senadua izendatzen zana. An biltzen ziran gizon andi, ta jakintsuak gauz andien erabakitze-

ko. Papyrio Pretextato, artean gaztetxea zala, bere aitarekin joan zan batzarre artara: eta etxera biurtu zan bezala, asi zitzaion ama galdeka. Atozea, ene seme. Zer gauzaren gañean itzezin da gaurko batzarrean? Dirudianez etzan gauz txikia izango, bada denbora luzea igaro dezue. Semeak baziakian zeñ gauz estua zan batzarre artan igarotzen zana ixilik gordezea, eta etzan trebe ezer agertzeko amari. Orduan are geiago zaletu zan ama itzezin zana jakiteko. Ekin zion semeari ala losentxaz, nola erreguz; baña ixilik zegoan au. Atzenean ainbesteraño leiatu zitzaion ama, non esan zion: Ama, esango diot zer itzezin dan, baña ixilik gorde bear du. Bai, nere seme, bai: ixilik idukiko det *esaten didazun guzia*. Jakin beza bada, *leia txit andia izan dala*, on izango ote dan senar batek bi, edo iru emazte izatea, edo kontra emazte batek bi edo iru senar izatea? Gezurrira zan au baña baliatu zion semeari, amagandik zekusan gurutze gogaikarritik iges egiteko. Esan zion amak: *eta zer erabaki da? Ez da, andrea, ezer erabaki baizik* bigar erabakitzeko utzi due. Amak ixilik egon lekuan, bereala bidaldu zituan mandatariak Erroman ziran goi-mallako andre guzie-tara, esaten ziela (baña hura ez agertzeko itzaren azpian) zer erabaki bear zan bigaramonean Senado-

ren salan, eta ongi izango zala ara joatea andre andiki guziak. Bigaramonean bildu ziran Senadoreak, eta orra non agertzen dan andre-talde bat deadarrez esaten duela: *Onea izango da, Jaunak, erabakitzea*, emazte bakoitzak izan ditzala *bi, edo iru senar*. Arriturik geratu ziran salako Jaunak: elkarri begiratuta, esan zuen: *erotu zate emakume oei, zer gertatzen da?* Orduan esan zien Papiriok, zer igaro zitzaion amarekin, eta zer esan zion, ango gauzarik ez agertzeagatik: eta lotsaturik beren etxeetara, biurtu ziran andreak.

Ez da gatz gutxiagoko ipuia Mydas Erregearen bizargillearekin gertatua. Mydasek omen zituan belarri txit andiak; baña txit poliki illearekin estaltzen bide zituan, eta gauz onen berririk etzuan iñork. Bizargilleak ekusi ziozkan bizarra kentzeko denboran. Oartu zan Errege, eta eriotzaren pena ipiñi zion, iñori esaten bazion belarrien kontua. Irten zan Barbero, edo bizargillea Erregeren etxetik. Gogoratzen zitzaion belarrien kontua, eta ler egiteko zorian zebillen esan naiez; baña eriotzaren penak izutzen zuan. Ainbesteraño atzenean estutu zuan esan nai onek, non ler egingo ezpazuan, irten zan erritik kanpora, eta soro batean egin zuan zulo andi bat; sartu zuan an burua, eta aspertu zan artean aritu zan esaten: *Mydasek asta*

belarriak ditu: Mydasek asta belarriak ditu. Esatez aunatu zanean, estali zuan zuloa; baña zer gertatu zan? Jaio ziran, dionez kañaberak, eta aizeak batetik bestera zerabiltzanean, otsegiten zuen Barberoak lurpean estalirik utzi zuan berria: *Midasek asta belarriak ditu: Mydasek asta belarriak ditu.* Era onetan lurpean ezkutatu zan berria barreatu zan alde guzietan. Eta ona zer geratzen dan isilik idukitzeko itzaren azpian esan oi diran gauzakin.

17. Begira, lagun urkoari, bere mallan zor zaion onra galdu ote diozun, esaten diozkatzula bere aurpegira itz desonragarriak, bakarrik, edo iñoren aurrean? Zenbat bider? Batzuek gala egiten due edozeñ gauza aurpegira esateaz, eta ez dira oroitzen, au dala bekatu itsusiagoa, bestela esatea baño.

18. Begira, norbaiti bere aurpegira esan diozkatzun, lotsatan utziko duen gauzak, edo aurrekoenak, edo berena? Zer gauza, eta zenbat bider? iñoren aurrean, edo bakarrik? Au ere bekatu itsusia da, eta barkazioa eskatu bear du onelako mingaiñ gaiztoa duanak.

19. Begira etxeko, eta auzoetako pakea galerazo dezun, zere erausiakin? Onelakoak Luziferren marka berekin darabill, eta Espiritu Santuak dio: madarika-

tua dala onelakoa, zerren pakean bizi ziran asko nas-tuko dituan: *Multos enim turbabit pacem habentes.*

20. Begira, aditzen egon ote zeran gustoz lagun urkoaren onra, eta izen ona gutxitzen, illuntzen, edo beztutzen duen gauzak? Asko dira, etsaiaren kontra gaizki itzegiteko oña ematen, edo beste gisaren batean laguntzen duenak: atsegin artzen due, lagun urkoaren izenari utsiki egiteaz, eta norbaitek eragotzi nai badu gisa onetan itzegitea, jarriko dira gustoko ezurrari ozka dauskion zakurra bezala, edo orzak erra-kusten ditela. Eragozteko eskurik ez duenentzat onena da kopeta beltz ipintzea edo aldegitia. Aurpegi illunak atzeratzen ditu mingain gaiztoak, iparrak euria atzeratzen duan eran, dio Espiritu Santuak: *Ventus aquilo dissipat pluvias, et facies tristis linguam detrahentem* (Prov. 25).

21. Begira, zure ume, eta serbitzariai utzi diezun besteren utsegite, eta tatxak kontatzen? Zenbat bider? Beartua zaude emendik lagun urkoari etorri zaion kaltea, dala bere izen onean, dala beste gauze-tan, desegitera.

22. Begira, gezurra esateko oitura lotsagarria izan dezun? Badira zenbait ustekabeen baizik egia-rik esaten ez duenak; badira lagun urkoari bere zorakeri, eta

ibillera gaiztoak laudatzen diozkeenak; *Ederki egiten dezu: orain da zure denbora*. Zer esango det lagun urkoa engañatzeko egiten diran laudario itsusiaz? Baña asko da.

* * *

Orra nere Kristauak, Jaunaren legeko amar agintek. Azaldu dira al dan eran, eta argiro aditzera eman dira aginte bakoitzean Jaunak debekatzen, eta agintzen dizkigun gauzak. Oek gorde bear ditugu guziok betiko bizitza iritsi nai badegu. Andiak, eta txikiak, aberatsak, eta beartsuak, ez due zori ona iristeko beste biderik. Ala esan zigun Eliz Ama Santak bataio-ko egunean: *Si vis ad vitam ingredi serva mandala*. Au onela izan, eta alaere Adanen umeak bizi dira ekutn dan eran? Begira ezperen adiñ eta malla guzietara, zer ekusiko dezu? Ai! ekusiko dezu, gutxi dirala Jesusen lege eder-garbiaz lotsatzen ez diranak. Aittu dira Kristauak, eta amar aginteen bidetik ibilli nai duenak. Batzuek atsegin lotsagarrien lokatzetatik irten nai ez due, eta besteak emengo izan, edo ondasunen ondoren erkiturik dabilta, eta ez dira lotsatzen besterenari atzaparra egotzitzeaz. Batzuek erriz erri dabilta

gerrarien ondoren, esanmesa andiak ipintzen dirala, besteak... Baña utzi ditzakun gauz oek. Biur gaitezen, nere Kristauak, gure Aita onagana: besoak zabaldurik dago, seme ondatzallea artu zuan eran artzeko; Nigana biotz osoz biurtzen zeraten unean bertan aztuko naiz, dio, zuen eskergabekeri guziaz. Goazen bada beragana, gorde ditzakun beraren aginteak, eta emango digu, beti-beti iraungo duan bizona. Amen.

**GURE BEKATUAK
KENTZEN DITUAN,
BILDOTS JESUS MAITAGARRIA
PASKOETAN ONGI ARTZEKO
ERAKUSALDIAK**

IRU ZATI, EDO PARTETAN

LENENGOAN IPIÑI DIRA, LENBIZIKO KOMUNIORAKO
PRESTATZEN DAUDEN AURRENTZAKOAK.

BIGARRENEAN IPIÑIKO DIRA,
LENBIZIKO KOMUNIOA EGIN ZUEN GAZTEENTZAKO-
AK.

IRUGARRENEAN ITZEGINGO DA,
ADIÑEAN AURRERATUAK DAUDEN KRISTAUAKIN.

BIGARREN ZATI, EDO PARTEA

*Adolescens juxta viam suam, etiam cum senuerit,
non recedet ab ea. Prov. 22.*

GAZTEENTZAKO ERAKUSALDIAK: ASITZEKO ITZAURREA

Pazkoa loratutik urrengo igandean.

Beti gaitzerontz makurtuak izan dira, eta dira Adanen umeak, eta beti munduan gertatu dira asko bekatu; baña gaurko egunean, dirudianez, gañez egin du gaiztakeriak gerraren aitzakian; ez da alabaña erioztzen, lapurreta, eta ibillera lotsagarrien otsa besterik aditzen, eta esan diteke Jeremiasekin: galtzez galdua dago mundua, eta ez da alaere beregana biurtu, eta Zerurako bidea artu nai duanik: *Desolatione desolata est omnis terra, et nullus est qui recogitet corde* (c. 12). Zer egin al dezaket, aro, edo sasoi añ txarrean arkitzen badira Kristaurik geyenak? Nere asmoa da, benikbeñ bekatuaren bideetan itsuturik, eta oatuak bezala dauden zarrai gutxi itzegitea, eta Jaunari erre-gutzea, argi-ditzala, ekusi dezeen beren betiko galera-ren perill izugarria. Urrena leneko urteetan bezala, lenbiziko komunioa egin bear duen, aurrai Zerurako

bidea alik, ongiena erakustea. Atsegin andiarekin ekusi det, aurrak, irakurtzen ez dakienak ere, ikasi duela lenengo Partean ipiñi dedan guzia, eta ederki prestatu dirala lenbiziko komuniorako: eta oraindano aurrakin egin dedana, egingo det aurrera ere. Onetarako letraz ezarriak ipiñi dira lenengo Partean aurrentzako Erakusaldiak. Irugarren lekuan Abendurano jardun uste det igandeetan, lenbiziko komunioa nerekin egin zuen, gazteakin: zeren uzten bazate beren erara, aztuko zate len ikasia: esnatuko zaizte gaitzerako gura txarrak, eta erraz gaitzoronz kolakatuko dira. Onela lenbiziko Komunioarekin ipiñi zan mintegi ederra bekatuen sasiz, eta aranzaz beteko da, eta landarerik geyenak okerrak irtengo dira. Abendurano Erakusaldiak izango dira lenbiziko Komuniorako erakutsi zitzaizten gauzen gañean, baña ugarituko dira batzuetan, zeren gazteen adiñari ala dagokan. Abenduaren ondoren egingo da Bederatziurren bat Birjiña txit Santa gure bekatuak gatik naigabez betearen onran. Bederatziurren onetan egingo degu gure bekatuen examina, eta ondoren fedearen argiarekin gogora ekarriko degu gure bekatuen damua sortzeko bide egokiren bat. Onela ederki presta ditezke gazteak konfesio onak egiteko, eta Zerurako bideari gogotik

ekiteko. Ea gazteak, atozte Jaunaren Itza enzutera biotz umill, eta mansoarekin, eta Jaun berak naroro ixuriko ditu zuen biotzetan bere ondasun, eta bendizioak. Amen.

LENENGO ERAKUSALDIA

Goizeko jayeraren gañean.

Lenbiziko Komuniorako erakutsi zitzatzun zuri, gaztea, goizeko jayera, edo debozioa, baña ez dezu igerri bearbada, zeñ ederra, eta balio andikoa dan: emendik erraz gerta zitekean, zabartzea zu, edo nolainai utzitzea jayera au. Au gerta ez dakizun emendik aurrera, aditzera gaur eman nai dizut, nolako jayera dan au, eta zer ondasunak ekarri ditzakean. Enzun, gaztea arretaz.

Nolakoa dan goizeko jayera ezagutzeko, asko dezu gaztea, begiratzea astiz, edo betaro, zer egiten dezun jayera onetan. Lenengo lekuan egiten dezuna da Jauna adoratzeta. Gure Juan, eta Jaungoikoa da gure, eta gauza guzien asiera, eta iturburua, eta bere nai utsez gordetzen digu eman zigun izatea. Beraren Letart, Probidentzia, edo nai onetatik zinzilika bezala gaude. Orregatik ezuguera onekin adonatu bear degu. Ala agintzen ere digu bere lenengo Aginte, edo Mandamentuan. *Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies.*

Goizeko jayeran egiten dezun, bigarren gauza da, Jaunari, egin dizkigun, ontarte, edo mesede guzien eskerrak ematea. Mesedea artzen duanak zor diozka gutxienez bere ongillari eskerrak, eta gogoan iduki bear du egin dion mesedea. Ongi; eta izanik guk degun guzia, Jaunaren esku Ongilleak emana, nolako eskerrak ez diozkagu zor? Orregatik esaten digu S. Paulok: Izan zaitezte esker onekoak: *Grati estote* (1.^a ad Thesalo. 5). Guziaren eskerrak eman giozkatzue Jaunari. *Gracias agite in omnibus* (ibidem).

Goizeko jayeran egiten dan irugarren gauza da Jaunari eskeintzea egun guziko itz, pensamentu, eta lanak, eta oek ongi egiteko lagunza, eta grazia berari eskatzea. Etzerate zerenak, baizik Jesu-Kristorenak, esaten digu S. Paulok: *Non estis vestri*. Jesu-Kristorenak, zeren Jaungoikoa dan bezanbat ezerezetik egin ginduan. Jesu-Kristorenak gañera zeren Jaungoikogizona danez bere odolaren kostuz erosi, eta Zerurako bidean ipiñi ginduan. Ongi: eta Jesu-Kristorenak bagera alde guzietara, norentzat izan bear due gure itz, pensamentu, eta obrak? Orregatik esaten digu S. Paulok: *naiz jan*, naiz edan? naiz beste gauzaren bat egin dezazuela, guzia egizue *jaunaren izenean*, (1.^a ad Corint. 12). Baña añ ezerezak gera, non gogorazio on

bat ere egiteko gai edo gauza ez geran Espiritu Santuaren lagunza gabe. Ala dio S. Paulok: *Nemo potest dicere Dominus Jesus, nisi in Spiritu Sancto* (1.^a ad Corint. 12). Orregatik goizeko jayeran eskeintzen zaizka Jaunari egun guziko itz, pensamentu, eta lanak, eta eskatzen zayo oek ongi egiteko lagunza, eta grazia.

Goizeko jayeran egiten dan laugarren gauza da gau-etik goizerañoko examiña: eta orabat egin diteke azkeneko konfesiotik oraindañokoa. Eskatzen zayo Espiritu Santuari argia, egindako utsegiteak ezagutzeko, eta lagunza oen damu egiazkoa sortzeko, esaten zayola gisa onetan: Aloz, o Espiritu Santua, atoz bear-tsuen gurasoa, atoz doayen emallea: argiezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugiezasu nere biotza, oen damu egiazkoa sortzeko. Ondoren iru gauza gogora ekartzen dira. Lenengoa: bartdanik, edo azkeneko Konfesiotik Mandamenturen bat autsi dezun, edo ez. Bigarrena: arako Aginte, edo Mandamentu geyagotan autsi oi dezun ura, gorde dezun, edo ez. Au da gauza bat asko laguntzen duana leneko bekatuetara biurtu etzaitezen. Irugarrena: gogora ekarri bear dezu, orrako zure griña txar nagusi, edo indartsuen ori ezitzeko, eta eskuratzeko sayatu zeran, edo ez. Adanen ume guziak ditugu gaitzerako griñak:

baña oen artean bat izango da nagusi, eta etxeko agintari: eta griña nagusi au ezagutzeko, eta ezitzeko alegiña egiten ezpada, eren oñean egongo dira gure utsegiteak, zeren sustraya ateratzeko, edo beinzat ilduratzeko alegiñarik egiten ez degun.

Iru gauz oek gogora ekarri ondoan, artzen da asmo osoa Mandamenturik ez autsitzeko, batezere arako sarritan autsi izan degun ura: eta gañera ezitzeko, eta eskuratzeko gure griña txar nagusia. Asmo oni ongi eranzuteko artu ditzakezu bitartekotzat Birjiña txit Santa, Aingeru Begirale, edo Guardakoa: S. Jose, eta zure izeneko Santua.

Goizeko jayeraren bukaeran egiten dira fede, esperanza, karidade, eta onezko damu, edo kontriziozko afektoak. Gaitzaren, eta onaren ezagueran sartzan danetik artu bear du Kristauak Zerurako bidea fede, esperanza, eta karidadearen bidez. Gañera sarritan egin bear du au bera: eta egin-bide oni erraz eranzuten dio goizeko jayera ongi egitera oitutzen danak.

Ekusten dezu, gaztea, nolakoa dan erakutsi zitzazun goizeko jayera? Ekusten dezu, zer ondasunak etorri ditezkean emendik? Jayera onekin adoratzan dezu zure Jauna: ematen diozkatzu eskerrak, egin diz-

kitzun ontarte, eta mesede guziakgatik: eskeintzen diozkatzu zure itz, pensamentu, eta lanak, eta eskatzen diozu oek ongi egiteko lagunza: egiten dezu zure examiña-pixka, eta bizitza ontzeko asmoa, eta bukaerari egiten dituzu fede, esperanza, eta karidadezko afektoak. Gauz oek fedea duenen artean dira ondasun txit andiak. Oitu zaite bada, gaztea, goizeko jayera arretaz egitera, eta asko lagunduko dizu, bekatutik aldegitiko, eta iristeko betiko bizitza, Amen.

BIGARREN ERAKUSALDIA

*Ematen dira Mezako sakrifizio
izugarriaren berriak, eta adirazten da,
zeñ, galdua dagoan asko
Kristauren sinistea gai onetan.*

Lenbiziko Komunioaren prestaeran erakutsi zitzaizun, gaztea, Mezaren entzun-bide erraza. Baña zabartu zera bearbada, orduan erakutsi zitzatzuna arretaz egiteko, eta beiñ baño geyagotan egon zera Mezatan modestia, eta begiramentu gutxirekin. Au gerta ez dakizun aurrera ere, eman nai dizkitzut gaur Mezako sakrifizio izugarriaren berriak. Ondoren ukituko det, zeñ galdua dagoan asko Kristauren sinistea gai onetan. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Gure Jaungoikoa da gauza guzien Asiera, eta iturburua, eta on guziaren Emallea, eta aintzakotzat eza gutzen degula agertzeko, eskeñi bear diozkagu geren

doayak. Munduaren asieratik egin zuen au gure lenbiko gurasoak, eta ezaguera oneko oen umeak. Lege zarrean siñalatuak zeuden txit sakrifizio asko Jaunaren onran, eta Salomonek, bukatu zuanean Jerusalengo Eliza, eskeñi ziozkan Jaunari beste sakrifizioen artean ogei, ta bi milla zekor, eta eun, eta ogei milla arii. Eskeñi ziozkala, diot, ez nolanai, baizik iltzen zirala Legeak agintzen zuan eran. (Lib. 2.^o Paralip. c. 7.^o). Anziñako sakrifizio oen artean, izan zan bat, Melkisedek zeritzan Salengo Erregek eskeñi zuana orain esango dedan denboran. Abraham irten zan beiñ gerrara bere illoba Loten alde: garaitu zituan bost Errege; irten zitzayon bidera Melkisedek Salengo Errege, eta Apaiza, eta Jaunari eskerrak emateko, eskeñi zion Jaun berari, ogi ta ardoaren sakrifizioa, eta au izan zen Mezaren anz, eta iduria. Sakrifizio oek guziak aditzera ematen zuen, Jesusek gurutzean igaro bear zuan eriotza, eta beragatik aitu bearrak ziran iltzen zanean Jesus.

Etorri zan Munduaren Salbatzallea. Ostegun Santu arratsean arkitzen zan gugatik bere bizitza emateko bezperan, eta ekusten zuan bukatzen zirala laster leneko sakrifizio guziak, eta beraren Lege berriak eskatzen zuala sakrifizioren bat. Orregatik arrats

artan bertan, leneko sakrifizio guzien lekuan ipiñi zuan Mezako sakrifizioa. Berak esan zuan lenengo Meza, eta eman zien Apostoluai, eta oen ondorengo Apaiz guziaz, Mezako sakrifizioa eskeintzeko, eskua. Me oraiñ egin dedana, egizue zuek ere nizaz oroitzen zeratela, esan zien: *Hoc facile in meam commemorationem* (1.^a ad Corint. c. 11). Urrutitik begiratu zion Dabidek Jesus onari, sakrifizio au eskeintzen ari zala, eta esan zuan: zu zera betiko Apaiza, Melkisedeken anzerak sakrifizioa Aita Betikoari eskeintzen diozuna: ark alabaña eskeñi zion Jaunari ogi, eta ardoaren doaya: *Tu es Sacerdos in aeternum secundum ordinem Melchisedec* (Psalm. 109).

Mezako Sakrifizioa, nondiknai begira dakiola, da Misterio guziz izugarria. Au ezagutzeko, begira Kri-siaua, nor dan sakrifizio au eskeintzen duana? Nori, eta zer eskeintzen zayon? Zer aditzera ematen digun Sakrifizio onek? Nor dala, uste dezu Sakrifizio au eskeintzen duana? Meza esaten duan Apaizak eskeintzen du, egia da, eta au bearbada izango da bekatuz betea: baña onek Sakrifizio au egiten duanean, itzegiten du Jesusen izenean, eta esaten ditu, Jesusek ostegun santu arratsean esan zituan, itzak berak. Orregatik Mezemalle Nagusia, eta Sakrifizio au eskeintzen

duan Apaiz lenena da Jesus bera. Nori eskeintzen zayo Sakrifizio au? Eskeintzen zayo Jainkoari bakarrik; bestela izango lizake Jainkoari zor zayon onra Jainko ez danari ematea, eta *idolatria* esaten zayon bekatu itsusia. Zer eskeintzen zayo Jaunari Sakrifizio onetan? Eskeintzen zayo Jesus bera Jaungoiko, eta gizon egiazkoa. Au da Jaunaren bildots gugatik gurutzean il zana bera. Eta zer aditzera ematen ote du Sakrifizio onek? Aditzera ematen digu Jesusen gurutzeko eriotza. Oza Apaizak esaten ditu Konsagrazioko itzak, Jesusen gorputza jartzen da ostian, eta odola jartzen da kalizan, eta aditzera ematen da, nola odola berezi zan gorputzetik, eta il zan Jesus. Eziñ il diteke Jesus: piztu zan alabaña beiñere ez iltzeko, eta alaere konsagrazioko itzak ezpata baten eran berezitzen due odola gorputzagandik, dio S. Zirilok: *Gladio verborum sanguis separatur a corpore*. Emendik Meza esaten dan aldiguizietan nolerebait berritzen da Jesusen gurutzeko eriotza. Ostia konsagratuan Jesusen gorputza ezezik beraren odola, anima, eta Jesus guzia an daude, ez ordea konsagrazioko itzen indarrez, baizik zeren gorputz bizia jartzen dan, eta gorputz biziak berekin daramazkian odola, eta anima ere. Begira orain, Kristaua, zeñ Misterio izugarria dan Mezako Sakrifizioa. Ainge-

ruak arriturik daude Mezako denboran, dio S. Juan Kry-
sostomok: *Stupent Angeli*. Sagarako denboran jatxi-
tzen dira Zeruko Aingeru, eta Serafiñak beren Jaun,
eta Erregea adoratzera. Ala esaten digue S. Ambro-
siok, eta S. Zirilok: eta jartzen dira batzuek auspez,
bezteak Apaizari laguntzen. Ala ekusi zituan S. Euty-
miok.

Sakrifizio izugarri au eskeintzen zayo Jaunari,
bebenikbein, eman al ditekean onrarik andien, eta
garayena berari emateko. Munduaren lenengo denbo-
retatik eskeñi zitzaizkan Jaunari doai, ofrenda, eta
Sakrifizioak; baña doai oek aide batetik Jaunak berak
emanak ziran, eta bestetik Jaunaren Anditasunari
begiraturik, etziran bera onratzeko diña. Orregatik
ipiñi zuan Jesusek Sakrifizio bat, non eskeintzen zayon
Jaunari beraren diñako doai bat, au da Jesus bera
Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, Aitarekin guzian berdi-
ña. Eskeintzen zayo urrea, egin dizkigun ontarte, eta
mesedeen eskerrak emateko. Eskeintzen zayo iruga-
rren lekuan, beraren aserrea palakatzeko, eta gure,
eta lagun urkoen bekatuen barkazioa iristeko. Eskein-
tzen zayo laugarren lekuan, gure, eta Purgatorioko
animen bekatuen zorrak ateratzeko: eta atzenean
bekatutik aldegitiko, eta bizitza onean irauteko bear

ditugun, lagunza ugariak iristeko. Orra Kristaua Meza-ko sakrifizio izugarriari dagozkan berriak. Dakuskun oraiñ, zeñ galdua omen dagoan Kristau askoren fedea gai onetan.

§ II.

Izanik Mezako sakrifizioa esan dan bezala, Misterio aña andi, eta miragarria: eta izanik adirazi ditudan gauz oek gure siniste, eta fedea erakustea dizkigunak, ala ere dirudi, Kristau askok sinisten ez dituela egia oek, edo beintzat obretan agertzen ez duela Misterio oni dagokan siniste, edo fedea. Au ezagutzeko, begira Kristaua, zer gertatzen dan Mezaren aurretik, eta zer gero.

Zer gertatzen ote da Mezaren aurretik? Batzuek ez dira etxetik irteten mugonean, eta ala irten bearrean, ibilliko dira etxeko arazoetan Meza utsegiteko perillean. Besteak bidean egongo dira asteko eleak, eta beleak irabiatzen. Batzuek Eliz-inguruko etxeetan geratzen dira berri biltzen Mezaren arduragabe; besteak aizearen kontrako sendagaya artzen. Batzuek zimiterioan bertan pipa artzen asiko dira; besteak

arreo ta ederkoren alabanzak esaten ariko dira Meza asia izan arren. Zer esango det ostatuetan Meza nagusiko denboran iskanbillan egoteaz?

Baña goazen aurrera. Baldin Mezaurrean au gertatzen bada, zer modestia, zer jayera, edo deboziorekin enzungo due onelakoak Meza Santa? Sar zaite, Kristaua, Eliza batzuetan, zer ekusiko dezu? Ekusiko dezu, gizonak geratzen dirala korupe, eta zokoetan, eta Arzayak Platika asitzen badu, onelakoak egongo dira erausian, aldean daudenak arriturik uzten dituela. Zer marka due oek? Demonioaren marka, Jesu-Kristok dienez: *Vos ex Patre Diabolo estis*. Ekusiko dezu, gizonak, eta emakumeak, mutillak, eta neskatxak nastuak arkitzen dirala Mezatan. Anziñako denboran gizonak sartzen ziran ate batetik, eta emakumeak bestetik Elizara, eta bereziak zeuden: baña oraiñ leku batzuetan, batezere erri andietan, guzia da naspilla. Ekusiko dezu, erri batzuetan emakumeak lotsa gutxirekin Mezatan daudela gorputz utsean, indiolloak dirudiela, eta bearbada batzuek esertzen dirala gizonen alkietan. Ez da au San Paulok erakusten diguna, dionean, emakumeak estalkiarekin egon bear duala (1.^a ad Corint. 11). Badira zenbat estalki txit sareak, edo lasayak darabiltzkienak, eta au ere ez da ongi. Ekusiko

dituzu zenbait gizon galtzak belaunetan lotu gabe, eta *txupa* edo *amilla* soñean sartugabe Mezatara datoze-
la. Ez lirake Obispo Jaun baten aurrera atrebituko era onetan, eta atrebitzen dira Errege guzien Erregeren aurrera? Ekusiko dituzu gizon lo daudenak Mezaren erdian, eta platican. Ekusiko dezu, Meza bukatzen dan bezala, asitzen dirala emakumeak ixilmadatuak elkarri egiten, eta bearbada Aldareari atzea emanik. Esan zadazu oraiñ, Kristaua, zer siniste, edo federekin datoz onelakoak Mezako sakrifizio izugarrira? Ay! gauza samiña da, baña egia, onelakoak edo galdu duela fedea, edo galtzeko perillean daudela.

Zuek, gazteak aldegizue onelako lagun gaiztoetatik: oitu zaitzte, mugonean etortzera, gogora ekartzten dezuela, zertara zatozten: eta gero egizue lenbiko Komunioaren prestaeran erakutsi zitzatzuena. Onela ondasun andiak aterako dituzue Mezako sakrifiziotik, eta uste izan dezakezue iristea betiko bizitza doatsua. Amen.

IRUGARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten da, Ienbiziko Komunioaren
prestaeran emen aurrai erakusten zuten
Mezaren enzun-bide erraz, eta ondasunduna.*

Azkeneko Erakusaldian aditzera eman nizkitzuen, gazteak, Mezako sakrifizio izugarriaren berriak, eta ondoren ukitu nuan, zeñ galdua dagoan asko Kristauren sinistea gai onetan. Uste det, arkitzen zeratela, ekusten diran, modu itsusietatik aldegitiko asmo osoarekin, eta jakin nai zendukeela Meza enzuteko bide, eta modu bat, zuentzat erraza, eta ondasun geyago ekarriko duana.

Meza enzuteko modua dakarten liburuak asko dira izkuntza bakoitzean. Batzuek Mezan egiten, eta esaten diran gauzen berriak ematen ditue, besteak Meza guzia, edo geyena ipintzen due, eta guziak dakartzie gauz ederrak; baña ez deritzat guretzat txit egokiak dirala modu oek; gure artean alabaña batzuek irakurtzen ez dakie, eta besteak on gutxi aterako due Meza-ren enzun-bidea ezpada txit erraza. Zuentzat, gazteak, modurik errazena, eta ondasun geyago ekarriko

duana, da lenbiziko komunioaren prestaeran erakutsi zitzatzuena. Au ezagutu dezazuen, aditzera eman nai dizkitzuet modu onek dakartzian gauzak: eta emendik aterako degu, zeñ erraza dan, eta zeñ ugariak izan ditezkean modu onek ekarri ditzakean ondasunak.

§ I.

Zu gaztea, etorriko zera Elizara mugonean: oroi zaite, Misterio txit uzugarria dala Mezako sakrifizioa; berritzen da alabaña nolerebait Jesusen gurutzeko eriotza, eta eskeintzen zayo Aita betikoari, eskeñi ditezkean doairik andiena eta onragarriena. Sar zaite Elizan, eta adoraezazu Aldareko Sakramentuara dagoan gure Jaun Andia. Meza enzun dezakezu lenbiziko Komunioaren liburutik, ala nai badezu, eta enzun dezakezu liburu gabe, erakutsi zitzatzun moduaz baliatzen zerala. Ara modu onek dakartzian gauzak.

Lenengoa da, enzutera zoazen Meza Jaunari eskeintzea, esaten diozula: *Trinidad guzi; Santa, Aita, ta Semea, eta Espirilu Santua, Jaungoiko* bat bakarra, eta iru Persona zerana! Adoratzen zaitut umiltasun, eta errespeto guziarekin. Eskintzen dizut,

enzutera noan, Mez au: lenengo lekuan, zuri gauza guzien asiera, eta iturburuari bezala onrarik andiena emateko. Bigarrena, egin dizkidatzun ontarte, eta mesede guzien esker zure diñakoak emateko. Irugarrena, nere, eta lagun urko bizien bekatuen barkazioa iristeko. Laugarrena, Purgatorioko animen alde. Azkenean, eskeintzen dizut Jesus Jaungoiko, eta gizon egiazkoaren ofrenda au, eman degidazun, Zerurako bidean bear, eta on izango dedan guzia, batezere bekatutik aldegitoko, eta bizitz onean irauteko doaya. Ez da itz oen bearrik ere, Jaunari Meza eskintzeko, asko da al dezun bezala biotz onarekin eskeintzea.

Lenbiziko Komuniorako erakutsi zitzatzun, Meza-ren enzun-bideak dakarren bigarren gauza da, Sagararaño Jesusek gugatik igaro zituan neke-oñazeak, eta gurutzeko eriotza gogoan erabiltzea. Emendik ezagutuko degu, zeñ gauz itsusia dan gure Jaunaren kontra altxatzea, eta bekatu egitea; bada neke aek guziak igaro zituan gure bekatuakgatik: eta ezaguturik au, ez gera damuz, eta negarrez desegingo? Ezagutuko degu gañera, nola guganako ongina, eta amorio geyegiz igaro zituan ainbeste neke, eta atzenean gurutzeko eriotza. Ala dio S. Paulok: *Propter nimiam charitatem*. Eta ainbesteraño amatu gaituan gure

Jauna ez degu amatuko? Era onetan txit ederki enzun dezakezu Meza Sagararaño, naiz jakin, naiz ez irakurtzen; zeren ez da Kristaua añ jakiñezik, non Jesusen neke-oñazeen, eta eriotzaren berri ez dakianik, eta oek gogoan erabili ditzake soseguz, eta esnatu diteke bekatuen damua, eta Jaungoikoaganako amorioa sortzeko. Eta emen gogoan arrezazu, Kristaua, orain esatera noana: ez da Pasioko pauso guziak igaro-bearrik, baizik gera zaitezke biotza obeto ukitzen dizun pausoren batean, eta andik igaro zaitezke gurutzeko eriotzara. Goazen oraiñ Sagarako denboran, eta ondoren egin dezakezuna ekustera.

Sagarako denboran onena da isilik gogoan erabilteza orduan gertatzen dan Misterio izugarria. Au da lenbiziko Komuniorako prastaeran erakutsi zitzatzun irugarren gauza Mezaren enzun bidean. Ozta Apaizak esaten ditu Konsagrazioko itzak, len ogi zana biurtzen da Jesu-Kriztoren gorputz, eta len ardo zana Jesu-Kristoren odol: eta Konsagrazioko itzak ezpata baten eran nolerebait berezitzen due gorputza odolagandik, eta odola gorputzagandik, eta guziz ederki adirazten due Jesusen gurutzeko eriotza. Ala esaten digu S. Zirilok: *gladio verborum sanguis separatur a corpore*. Egia da ostia Konsagratuan daudela odola, eta anima ere,

baña ez itzen indarrez, baizik gorputz biziari dagozkio-
nak diralako. Au bera gertatzen da ardoa konsagra-
tzen danean ere: itzen indarrez odola bakarrik jartzen
da kalizan, eta gorputza, ta anima jartzen badira, ori
da zeren odolarekin bat egiñak dauden. Sagarako
denboran jatxitzen dira Zeruko Aingeruak, eta auspez
jarririk adoratzten due Sakramentura etorri dan gure
Jaun Andia. Sagararen urrena esan degiokezu Jesus
onari: «Ongi etorria izan zaitzezela, nere Jesus maita-
garria. Adoratzten zaitut nere Jaungoikoa Errege
guzien Erregea eta Munduaren Salbatzallea! Bedeika
zaitzeela Zeruko Aingeruak eta doatsu guziak: bedei-
ka zaitzeela anima on guziak, eta kanta dezeela Eliza
goziarekin: *Bedeikatua Jaunaren izenean etorri zaku-
na!* Au da Mezaren enzun bidean erakusten dan laugar-
ren gauza».

Sagararen ondoren, egiñik alik ongiena gure agur
umiliak Jesus maitagarriari, egitzu fede, esperanza,
eta karidadezko afektoak, ager zayozu, bera zure bio-
tzean artzeko, nai bero, eta egarri andi bat, eta au da
gogozko Komunioa, edo espirituala izendatzen dana.
Ematen diozkatzu eskerrak, zeren Meza Santuan
gugana etorri nai izan duan: eskatzen diozu bere ben-
dizioa, eta bukatzen danean Meza, bazoazke zere

egin-bideai erantzutera. Orra gaztea, Mezaren enzunbidean erakutsi zitzatzun guzia.

Atozea oraiñ, Kristaua, asma diteke Meza enzuteko modu errazagorik? Modu au naiz jakintsuentzat naiz ez jakiñentzat egokia da. Gañera ez det uste, beste modutara modu onekin adiña ondasun, eta ontarte Mezatik atera dezakegula. Meza da Jesusen neke-oñazeen, eta gurutzeko eriotzaren anz, eta iduria: Mezan nolerebait berritzen dan Jesusen eriotza: eta, zer ondasunak atera ez ditzakegu Mysterio au gogoan ongi erabiltzen badegu? Ea bada gazteak, balia zaitetze erakutsi zatzuen modu ederraz: bizi zaitetze Jaunaren beldur Santuan, eta berak emango dizue betiko bizona doatsua. Amen.

LAUGARREN ERAKUSALDIA

1. Adirazten da, lenengo lekuan, zer asmatu zuan Jesusen guganako ongina, eta amorioak, gurekin bizitzeko, eta bere ondasun guziak guri emateko?

2. Adirazten da bigarren lekuan, zeñ gauza miragarriak egiten dituan onetarako.

3. Atzenean, zer gertatu, eta gertatzen zayon gurekin. Emendik aterako degu, zeñ gauza bearra dan, gazteai erakustea, gure bekatuak kentzen dituan, Bildots Jesus maitagarria ongi artzeko prestaera.

Zer da, nere Kristauak, gaurko egunean alde guzietatik datorkigun berri negargarri au, esaten diguna: *Aituaz dijoaz Kristauak: aldegin due alde aldean guziak* beren Salbatzaileagandik, eta galdu dira. *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt.* Batzuek adoratzen due emengo izan, edo ondasunen idoloa, eta oitu dira al duena ostutzera erriai, auzoai, eta norinai: Besteak ederretsi dieza atsegin lotsagarriai ainbesteraño, non bekatuaren izurria alde guzietan zabaltzen duen. Besteak ezertan ez omen dauzkee Eliz Ama Santaren Aginteak, oen artzan Pazkoe-

tan bederik gure Jaun andia artzea agintzen diguna. Esan zadazue, nere Kristaubak, ez dituzue askotan aditzen onelako berriak? Ezin sinistu det nik, onenbesteraño galdu dirala Euskaldunak, eta are gutxiago erri onetakoak, zeren ekusten dedan, asko dirala Jaunaren Itza enzutera datozenak, eta ez gutxi Sakramentuak sarritan artzen dituenak, batez ere emakumeak, eta errietako karguetan nastutzen ez diranak. Alaere, gauza bearra da alegiña egitea, aurrak, gazteak, eta Kristau onak bekatuaren ujoletatik gordetzeko. Orregatik, len esan nuan eran, nere asmoa da aurten gazteakin jardutea. Lenengo Erakusaldietan zerbai itze-gingo det Aldareko Sakramentu guziz miragarriaren gañean. Gero, Konfesioko Sakramentua izango da denbora luzean itzegiteko gaya, eta ondoren zerbait ukituko det, Komunio-aurreko unean gorde bear dan, modu ederraren gañean. Ona Abenduraño nere egitekoa. Garizuma sartu baño len asiko da, Birjiña txit Santa, gure bekatuakgatik naigabez betearen onran Bederatziurren bat, ez nolana, baizik ongi konfesatzeko bear dan prestaera guzia egiten dala. Gaur aditzera eman nai dizuet, lenengo lekuan: zer asmatu zuan Jesusen guganako ongina, eta amorioak gurekin bizi-tzeko, eta bere ondasun guziak guri emateko. Urrena

zeñ gauza miragarriak egiten dituan onetarako. Atze-
nean, zer gertatu, ta gertatzen zayon gurekin. Asi gai-
tezen bertatik.

§ I.

Gure Salbatzalle Jesus maitagarria, etsayaren mendetik gu ateratzeko, eta Zerurako bidean ipintze-
ko, jatxi zan Zerutik lurrera, eta egin zan gizon Birjiña
txit Santaren Sabelean. Bizitu zan gizonen artean ogei
ta amairu urteren denboran, erakusten zuala itzez eta
obraz Zerurako bidea. Etzion iñori ere ontarte, eta
mesedea baizik egin. Sendatu zituan eriak, argitu
itsuak, eta piztu illak.

Alaere Juduak etzuen ezagutu nai izan beren Sal-
batzalletzat, eta bizia kentzeko eraren billa zebiltzan.
Beste aldetik bere gañean artua zedukan, gizonak
bere bekatuarekin Jaunari egin zion, bidegabekeriari
eranzutea bere eriotzarekin, eta gizona Zerurako
bidean ipintzea.

Alderatu zan gugatik bere bizitza emateko denbo-
ra. Ekusten zuan, utzirik mundu au joan bear zuala
bere Aitagana. Ekusten zuan, nola bere adiskide, eta

serbitzariak geratuko ziran ume zurtzen eran, eta etsai izugarrien artean, eta etzuan nai au gertatzea. Gañez egin zion guganako onginei eta amorio geyegiak, eta erabaki zuan, bere Aitagana joatea, eta denbora berean gurekin bizitzea, ipintzen zuala Aldareko Sakramentu guziz miragarria. Berak esan zuan lenengo Meza, eta eman zien Apostolui, eta oen ondorengo Apaizai, au bera egiteko, eskua. Eta gisa onetan Zeruan duan bere jarlekua utzigabe, geratu zan Aldareko Sakramentuan, eta mundua mundu dan artean gure artean egongo da. Orra, esan zien Apostolui: zuekin nago, eta zuekin egongo ere naiz munduaren bukaeraraño: *Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consummationem saeculi* (Math. 28).

Zertako era onetan geratu nai izan zuan gure Jesus onak Aldareko Sakramentuan? Gurekin bizitzeko, eta Zerurako bidean guri laguntzeko. Au da bera- ren atsegin andia: bere adiskide, eta anima onakin egotea: *Deliciae meae esse cum filiis hominum* (Prov. 8).

Zertako geyago? Anima onai eman al guzia emateko, esan nai det, emateko bere gorputza, bere odola, bere anima, eta itz batean guzia esateko, bera dan guzia, Jaungoiko eta gizon egiazkoa. Arritzen da

S. Agustin, Jesusen gudanako ongina geyegi oni begiraturik, eta dio: «Izanik gure Jaungoikoa Guzieldun, edo Omnipotentea, ezin geyago eman zezakean: izanik guziz jakintsua, etzuan jakin zer geyago eman: eta izanik guziz aberatsa, etzuan izan zer geyago eman».

Nere Kristaua: au onela izan, eta guk utzi degu Jesus, eta esan degu obraz. Ez det Jaun au serbituko? *Dixisti non serviam?* Baña goazen aurrera, eta dakus-kun, zeñ gauza miragarriak egiten dituan gurekin bizi-tzeko, eta guri bere ondasunak emateko.

§ II.

Gauza miragarri oen artean lenengoa da, Apaizak konsagrazioko itzak esaten dituan unean bertan jar-tzea Sakramentuan Jesus Jaungoiko, eta gizon egiaz-koa, naiz izan Apaiza ona, naiz gaiztoa, naiz Katolikoa, naiz herejea. *Au da nere gorputza*, esan zuan Jesusek ogiaren gañean, eta esan zuan bezala len ogi zana biurtu zan beraren gorputz. Nik orain egin dedana, egizue zuek ere, nizaz oroitzen zeratela, esan zien gero Apostolui, eta oetan ondorengo Apaiz guziaz. Jesusek emandako esku onekin Apaizak esaten ditu

Jesus beraren itzak, eta bereala jartzen da Sakramentuan. Gauz arrigarria! Mezemallea izan diteke ona, eta izan diteke gaistoa, Judasen eran. Eta alaere gizon gaisto baten otsera jartzen da Jesus Sakramentuan? eta jartzen da onelako gizonak nai duan denboran, nai duan lekuan, eta zenbat bider nai duan ainbeste aldiz? Arritu zaitezte Zeruak, arritu Zeruko Aingeruak, eta lurreko anima onak! Josue pelean ari zan beñ Amorreoen kontra. Izutu ziran Amorreok, eta asi ziran igesi. Beldurtu zan Josue, illundu zekion etsaya osotoro desegin baño len. Altxa zuan biotza Jaunagana, eta agindu zion eguzkiari, zegoala geldirik: *Sol contra Gabaon ne movearis* (Josue c.10). Eguzkia Josueren otsera geratu zan, eta izan zuan denbora bere etsayak urratzeko. Baña zer da au Aldareko Sakramentuan gertatzen danaren aldean? Ezer ez bezala da au; Josueren otsera alabaña beiñ bakarrik geratu zan eguzkia; baña Apaizaren otsera jatxitzen da Jesus Eguzkiaren egillea egun oro, eta egunean asko aldiz. Josue zan Jaunaren adiskide andia, baña beiñ baño geyagotan gerta diteke, Apaiza Jaunaren adiskidea ez izatea. Eta alaere jartzen da Jesus Sakramentuan onelako gizonaren otsera?

Aldareko Sakramentuan gertatzen dan bigarren gauza miragarria da ezin konta al Elizetan egun oro jartzea, eta egotea Jesus Zeruko bere jarlekua utzi gabe. Igo zan Jesus Zerura, eta an dago eserita bere Aitaren eskuean: eta ango bere eser-lekua utzi gabe, jartzen da Sakramentuan ezin konta al lekutan. Nola au gertatzen dan, ez da erraz itzez adiraztea, baña fedearen argiarekin iristen degu, au, ta geyago egin dezakeala Jaunak, eta osotoro sinistu bear degu, dio Trentoko Konzilioak (Ses. 13 c. 1^o). Ostegun santu arratsean jarri zan Jesus Sakramentuan, mayean zuan lekua utzi gabe, eta oraiñ ere jartzen da Konsagrazio-ko itzak esaten diranean, ala ostian, nola kalizan, baña Zeruko bere jarlekua ez du utzitzen.

Sakramentu orretan gertatzen dan, irugarren gauza miragarria da, Konsagrazioko itzak esaten diranean, len ogi zana biurtzea Jesu-Kristoren gorputz, eta len ardo zana odol. Deitu zuen beiñ Jesus Kana zeritzan Galileako erri batean eztayetara. Aitu zan ardoa bazkaria bukatu baño len. Aditzera eman zion Amak, zer gertatzen zan, eta ura biurtu zuan ardo. Eta orduan au egin bazuan, zer da zer miretsi ogia bere gorputz, eta ardoa odol biurtzeaz?

Aldareko Sakramentuan gertatzen dan laugarren gauza miragarria da, konsagrazioko itzak esan ezkeror, ez geratzea Sakramentuan ogi, eta ardorik, baña bai ogi-ardoen anz, eta iduriak, nola diran. usaya, kolorea, gusto, eta indarra. Demagun Eliz onen pareteak erortzen dirala lurrera, eta alaere airean daudela tellatuak. Zer esango genduke? Zer, ezpada mirari, edo milagro andi bat gertatu dala? Tellatuak alabaña ezin dautezke airean irozgarri gabe, mirari andi bat Jaunak egiten ez duala. Ez da gutxiago gertatzen Sakramentuan ogi-ardoen anz, edo *Accidenteaquin*. Oen irozgarri, edo pareteak bezala dira ogiaren, eta ardoren izate, eta mamia: eta ez dago Sakramentuan ogi, ta ardorik. Alaere geratzen dira ogiaren, eta ardoaren usaya, kolorea, gustoa, biribiltasuna, eta indarra. Sakramentua agirian dagoanean, ogia ekusten dala dirudi; baña fedea erakusten digu, ekusten dana ez dala ogia, baizik ogiaren anza, eta anz onekin ezkutatua dagoala Jesus.

Aldareko Sakramentuan gertatzen dan bostgarren gauza miragarria da, ogiaren, eta ardoaren anz, eta iduriak ainbeste indar izatea, nola izango lukeen ogi-ardoak egiaz an arkitzen balira. Demagun, kaliz andi batean konsagratzen dirala Malagako ardotik pitxer

bi: Konsagrazioko itzen ondoren ez da an egongo ardorik, baña bai ardoaren anz, eta iduria, eta iduri oek izango lukee ardoak adiña indar.

Aldareko Sakramentuan gertatzen dan seigarren gauza miragarria da, ostia batek duan bezeñ toki txikian jartzea, eta egotea Jesus Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, eta zenbat diran ostiak, beste ainbestetan au bera gertatzea. Ez du iristen gizonaren adimentuak, nola gertazen dan au, baña fedea erakusten digu, ala gertatzen dala, eta asko da au guk sinisteko itsu-itsuan. Ezpagendu sinistu bear gure adimentuak iristen duana baizik, txit gauza gutxi sinistuko ginduke.

Aldareko Sakramentuan gertatzen dan zazpigarren gauza miragarria da, ostia erdiratzen, eta puskatzen danean, ez puskatzea Jesu-Kristoren gorputza, eta puskatu ordean osorik arkitzea puskarik txikian ere.

Atzenean Jesus ona bizirik, eta Zeruan dituan doai, eta edertasun guziarekin jartzen da Sakramentuan, eta alaere illaren eran arkitzen da, bere edertasuna, eta doayak ezkututzen dituala ogiaren, eta ardoaren iduriakin, odei batekin bezala. S. Juan Ebanjelistak Profetaren begiakin begiratu zion Jesusi Sakramen-

tuan, eta dio, ekusi zuala bildots illaren eran: *Vidi agnum stantem tanquam occisum* (Apoc. 5.^o). Zergatik ezkututzen ote ditu Jesusek era onetan bere edertasuna, eta doayak? Dijoazkion anima onak beren biotzetan artzera; bestela alabaña ikaratuko lirake, eta ez lizake iñor trebe izango beraren mayean jartzeko. Ekusten dezu, Kristaua, zeñ gauza miragarriak egin, eta egiten dituan Jesus onak gurekin bizitzeagatik, eta guri bere ondasun guziak, eta bera dan guzia eman nayeaz? Nai onekin esan zuan beiñ: *ezpadezue gizonaren semearen gorputza jaten, eta odola edaten, ez dezue iritsiko betiko bizitza doatsua: Nisi manducaveritis carnem filij hominis, et biberitis ejus sanguinem, non habebitis vitam in vobis* (Joan. 6). Alaere zer gertatu eta zer gertatzen zayo gure Jesus maitagarriari gurekin? Au da oraiñ ukitu bear deguna.

§ III.

Elizaren lenengo denboretan etzan aginte bearrik izan, Kristauak sarritan, eta jayera andiarekin Jesus maitagarria artzeko. Baziakien, zer esan zuan Jesusek: baziakien, Jesus zala bizitzaren arbola, Paradisukoa

baño, askoz miragarriagoa, eta arbola onetatik janaz, graziaren bizitza ugarituko zala, eta bizi zitezkeala animaren aldetik ill gabe. Nere gorputza egiaz da janaria, eta nere odola edaria, dio Jesusek berak: *Caro mea vere est cibus, et sanguis meus vere est polus*: ogi au jaten duana biziko da beti: *vivet in aeternum* (Joan. 6). Baziakien, Aldareko Sakramentuan jartzen zala Jesus, guri betiko bizitza, eta bera dan guzia emateko. Eta asko zan au maiz, eta gose andiarekin Zeruko janari au artzeko. Egun oro, edo Meza enzuten zuen aldi guzietan artzen zuen Kristauak Sakramentu au, S. Lukasek aditzera ematen digunez (Acta Apost. c. 2).

Baña jayera, eta debozio au oztutzen asi zan, eta zabartuaz zijoazen Kristauak Komunioko Sakramentua artzean. Orregatik agindu zuan Elizak, komulga zitezela Kristau guziak urtean iru bider bederik, au da Pazkoa loratuan, Mayatzekoan, eta eguerri.

Aginte onekin ere etziran anziñako jayerara biurtu Kristauak, geyenak beintzat, eta biurtu bearrean, aurrera zijoazen beren zabarkerian, eta bekatuaren bideetan, eta agindu bear izan zuan Elizak, komulga zitezela Kristau guziak, gutxienez urtean beñ, Pazkoa loratuan, eta aginte oni erantzuten ez dioenai debeka-

tu dakiela Elizan sartzea, eta iltzen diranean, ukatu dakiela Eliz-lurra. Agindu zuan gañera, iduki zitezela *herejiaren suspitxemalletzat: De haeresi suspecti*. Leku batzuetan Pazkoako komunioa egiñ ez duenai signalatzen die Obispo Jaunak denbora, presta ditezen ongi, eta artu dezeen Jesus ona biotz garbiarekin: eta Iruñeko Obispo Jaunaren mendeko Elizetan agindua dago, lenengo lekuan, Pazkoako amabost egunak igarotzean, aditzera eman dedilla Elizatik, nor diran komulgatu gabeak. Bigarrena, Pazkoa denboratik urrengo amabost egunetan ere, Elizak agindua egiñ ez duenak geratzen dirala exkomikatuak, eta eskomiku au ezin kendu dezakeala Obispo Jaunak baizik. Iru-garrena, *Korpus* egunerako animen kargudunak bidal ditzeela Elizarekikoa egiñ duenen agiriak.

Eta Eliz Ama Santaren alegiñ oekin guziakin zentzatu ote gera? Izanda denbora bat, zeñean Kristauak, elkarren leyan bazala, Jesus maitagarria artu nai zuen: denbora bat, zeñean Jaunaren itza entzuteko, eta Sakramentuak artzeko egarri andia erakusten zuen. Baña igaro ziran zori oneko denbora aek, eta aditzen degunez, geyenak aztu dira beren Aita onaz. Batzuek urte guzian ez due Sakramenturik artzen, eta orduan munduaren beldurrez. Zer prestaerarekin jarriko dira

oek Jaunaren mayan? Besteak noizean beñ Sakramentuak artu arren, ez due biotzik bekatua, eta bekatuaren bideak osotoro utzitzeko, eta emendik dator Kristaurik geyenak Konfesio, ta Komunio gaiztoak egitea. Badira beste Batzuek Pazkoetako Konfesio, eta Komuniotik igesi dabiltzanak, exkomikuen beldurrik ez dan denbora oetan. Ez da iñor bortxatu bear, Sakramentuak gogoaren kontra artzera, esango due onelako Kristau doakabeak. Beraz ez da iñor beartu bear jai egunetan Meza, eta Jaunaren itza entzutera. Beraz guraso batek ez ditu estutu bear lagun gaiztoetatik aldegitiko, eta ordu onean etxeratzeko, eta bakoitzari utzi bear zayo bere erara, nai duana egiten; eta, zer izango lizake orduan gaztediaz? Guraso on batek estutzen du semea, joan dedin eskolara, eta ikasi dezan Kristauak jakin bear duana Zerurako: agintzen dio, aldegin dezala lagun gaiztoetatik, eta aginduak egiñ nai ezpaditu, ematen dio dagokan kastigua. Jaungoikoak berak agintzen digu beardan denboran konfesatu, eta komulgatu gaitezela, eta beraren agindua egiñ nai ez duana bidaltzen du betiko su, eta garren artera. Era berean Eliz Ama Santak estutzen ditu bere umeak Jaunaren mayera joateko prestaera ederrarekin, eta gogotik: ematen die denbora presta ditezen,

eta alaere egiten ezpadue agindua, exkomikatzen ditu. Orregatik, len esan degun eran itzegiten duenak, dira zentzugabeak, Jainkoaren, eta Elizaren beldurgabe bizi nai lukeenak.

Orra, Kristaua, zer gertatzen zayon gurekin gure Jesus onari. Jesus da Aita betikoaren Seme bakarra, eta Jaungoiko egiazkoa. Jesus da, gu Zerurako bidean ipintzeko, Zerutik lurrera jatxi, gizon egiñ, eta gurtzean bizitza eman zuana. Jesus da, gu ume zurtzen eran ez uzteagatik asmatu zuana Aldareko Sakramentuan geratzea, gurekin bizitzeko, guri emateko bere ondasun guziak, eta bera dan guzia eta gau, ta egun guri itxedoten dago. Zenbat gauza miragarri egiten ditu guri ongi nayerz? Eta alaere gurekiñ gertatzen zayo oraiñ aditu deguna? O gure eskergabekeriaren izugarria!

Zer ote da gaistakerien ujolak desegiteko, edo beintzat gutxitzeko egin bear dana? Arreta andiarekin gazteai erakustea, gure bekatuak kentzen dituan, Bildots Jesus maitagarria ongi, eta sarritan artzeko prestaera. Ea, gazte maiteak, zuen onagatik egingo det nik alegiña lan oni jarraitzeko; eta zuek zeren aldetik etzaitzeltela zabartu zuen Jesus ona ongi artzeko, prestaera ikastean: zoazte maiz Sakramentu miraga-

rri au artzera, eta zuek beraren lagunzarekin garaitu-
ko dituzue etsai guziak, eta emango dizue betiko bizi-
tza, eta beñere aituko ez dan pakea. Amen.

BOSTGARREN ERAKUSALDIA

*Agertzen da Komunio
gaiztoaren itsustasuna.*

Azkeneko Erakusaldian aditu zenduan, Kristaua, Jesusen gudanako ongina, eta amorioak zer asmatu zuan gurekin, eta gure artean bizitzeko, eta guri emateko bere ondasun guztiak, eta bera dan guzia. Au izan zan, Zeruko bere jarlekua utzi gabe, denbora berean jartzea, eta egotea Aldareko Sakramentuan. Aditu zenduan gañera, gauza zeñ miragarriak egiten dituan onetarako, eta zer gertatu, eta gertatzen zayon gurekin. Ay! Kristaurik geyenak berandutik berandura baizik ez dira Jesusen mayera joaten, eta orduan ere gogoaren kontra, eta bekatuaren bideak uzteko biotzik gabe. Oek egiten due Komunio gaiztoaren bekatu itsusia. Beste asko omen dira Pazkoako denboran ere Konfesio, eta Komunioaren Agintea ezertan ez daukeenak, eta herejeen sospetxa ematen due. Oekin ez det orain itzegin nai, baizik oitu ditezen gazteak Jaun Andia prestaera onarekin artzera, aditzera eman nai

diet alik ongiena Komunio gaiztoaren itsustasuna. Enzun, Kristaua, arreta andiarekin.

§ I.

Edozeñ bekatu larri, edo mortal da eskergabekeri txit itsusia; bekataria alabaña altxatzen da Jaunaren kontra, eta itzez ezpada, obraz beintzat dio: ez det Jaun au serbituko. Espa au agertzen digu Jaunak Jeremiasen autik: *Dixisti: Non serviam*. Alaere bekatu larri, edo mortal guziak ez dira berdinak, baizik batzuek besteak baño itsusiagoak dira. Eta nolakoa izango ote da Komunio gaiztoa? Au nolerebait igerritzeko, begiraldi bat eman bear diogu Judasen bekatuari.

Judas zan gizon bat Jesus onak auts-artetik onra andietara altxa zuana. Artu.zuan bere ikasleen artean: bere mayean iduki zuan denbora luzean, eta atzenean egin zuan bere Apostolu, eta Elizako kar-gudun andi. Nola erantzun ote zien Judasek onra, eta mesede oei guziai? Txit gaizki; bada saldu zuan bere Maisu, ta ongille Andia ogei, ta amar dirutan, eta ipiñi zuan Judu gogorren atzaparretan. Judasen bekatu au arteraño gertatu ziran bekatu guzieren artean itsusiena zan diru-

dianez, eta lenengo lekua dagoka gaiztakerien artean, dio S. Leonek: *Obtinet in facinore principatum* (Serm. de Passione Chti). Añ itsusia iritzi zion Judas berak ere, non urkatu zuan bere burua. Ipintzu orain, Kristaua; ipintzu Judasen bekatu onen aldean Komunio gaiztoen bekatua, Zeñ ote da itsusiagoa? Askoz, eta askoz itsusiagoa da Komunio gaiztoa; Judasek alabaña beiñ bakarrik saldu zuan Jesus, baña, zuk bekataria, saldu dezu sarritan, edo Komunio gaiztoa egin dezun aldi guzietan. Judasek saldu zuan Jesus ogei, ta amar dirutan; baña zuk saldu dezu atsegin lotsagarri bategatik, edo obeto esateko ezerezean. Judasek saldu zuan Jesus, argatik bizitza eman etzuan denboran; baña zuk saldu dezu, zugatik gurutzean bizitza eman ezkerro. Judasek etziakian, Jesus zala Jaungoiko, ta gizon egiazkoa; baña zuk aurtasunetik dakizu, eta sinisten dezu, Jesus dala Aita Betikoaren Seme bakarra, Trinitadeko bigarren Persona, eta Jaungoiko egiazkoa. Alaere izan dezu ausardia, bekatuz loitua zaudela beraren mayean jartzeko, eta zure barrunbe zikiñean sartzeko. Nork eztakuz, Judasen bekatua baño askoz itsusiagoa izan dala zurea? baña guazen aurreraxea-go, eta begira degiogun Juduak Jesus illeraztean egin zuen bekatuari.

Juduak beren odolekoa zuen Jesus, eta ainbeste mirari, eta ontarte egin baziezen ere, etzuen ezagutu nai izan beren Salbatzalletzat, eta aintzakotzat ezagutu bearrean illerazo zuen gurutzean. Izugarria zan Juduen eskergabekeria au; baña ongi begiratzen badezu, Kristaua, izugarriagoa da zure Komunio gaiztoen eskergabekeria. Juduak lotu zuen Jesus Getsemaniko baratzen: eraman zuen Jerusalem, eta erabilli zuen kalez kale, ela etxez etxe, txarkeri, eta bidegabe andiak egiten ziozkeela. Atozea, eta zuk ez dezu zere ortzen artean artu Jesus bera, eta loturik sartu infernuko dragoyaren lizean, edo bekatuz zikindua zendukan barrunbe orretan? *Loturik* diot, zeren ipiñi dezun, egiñ nai zizkitzun, ontarte, eta mesedeak eziñ egiñ ditzakean eran.

Juduak azotez urratu, eta aranzaz koroatu zuen Jesus, eta ez diozu zuk ere au bera egiñ Komunio gaizto bakoitzarekin? Agertu zitzayon beiñ Jesus D.^a Santxa Karrillori zauriz betea, eta odola zeriola, eta esanzion: *Orra zertako diran Komunio gaiztoak*. Juduak nayago izan zuen Jesus baño Barrabas, eta deadar egiten zuen: ill bedi Jesus; eta zuk nayago izan dezu, zure biotzean bizitzea Satanas, ezen ez Jesus. Juduak beren gañean artu zuen Jesusen odola, eta eriotza:

eta arreizkero badarraite Jaunaren madarikazioa. Eta zuk zere barrunbean sartu dezu odol ura bera, dakizula, zeñ izugarriak diran Komunio gaiztoak berekin dakartzian madarikazioak. Juduak illerazo zuen Jesus, baña etziakien ongi, Jesus zala Aita betikoaren Semea, eta agindurik zegoan Salbatzallea. Au aditzera eman zuan Jesusek berak, gurutzetik esan zionean Aitari: *Aita, barkagiezu, ez dakie alabaña, zer egiten duen* (Luc. 23). Eta S. Paulok dio, etzuela Juduak gurutzean illeraziko Jesus, nor zan ezagutu balue; *Si enim cognovissent, nunquam Dominum crucifixissent* (1.^a ad Corint. 11). Baña zuk, Kristaua, guziaren berri dakizula, komunio gaiztoak egin dituzu, eta bakoitzean zugan danez illerazi dezu, S. Paulok dionez. Beraz Juduen bekatua baño askoz itsusiagoa da Komunio gaiztoaren bekatua. Orregatik esan zuan S. Agustiñek, biguñagoak izan zirala Juduak: *Milius peccaverunt Judaei.*

Komunio gaiztoaren itsustasunaren gañean esan dan piska au ez da gutxi, nere Kristaua, aditzera eman dan gauza bakoitzari ongi begiratzen bazayo; baña alaere ez da iristen S. Paulok gai onetan dionera. Apostolu Santu onen iritzian, batayoa ezkerro bekatu egiten duanak, beregan danez berriro gurutzean ipin-

tzen du Jesus, eta kentzen dio bizia. Diot *beregan danez*; zeren piztu zan Jesus beiñere ez iltzeko, eta eziñ berriz il diteke. Alaere batayoaz geroz bekatu egiten duanak, il nai du bere alegiñean eziñ il ditekeana. *Rursum crucifigentes sibimetipssis filium Dei*. Eta edozeñ bekatu larri, edo mortalegatik au badio Apostolu Santuak, zer esango ez du Komunio gaiztoaz? Dio benikbeñ, Jesusen gorputza, eta odola gaizki artzen dituanak, bizitza kentzeko alegiña egiteaz gañera, ekiten diela beraren gorputz, eta odolari, eta oben, edo kulpadun egiten dala oen kontrako bidegabe izugarri batekiñ. *Quicumque manducaverit panem hunc, vel biberit calicem Domini indigne, reus erit corporis, et sanguinis Domini* (1.^a ad Corint. 11). Itz oek aditzera ematen digue Komunio gaiztoaren itsustasuna alako eran, non bekataririk andiena ere arriturik gera ditekean.

Demagun, Aita batek bere semeari dion amorioa-gatik, igarotzen dituala neke txit andiak, eta atzenean semeak egiñ dituan gaiztakeri batzuen barkazioa iristeko, ematen duala urkamendian bere bizitza. Aditzen du semeak au guzia, eta bere gaiztakerien damuz bere burua desegin bearrean, alako amorruan jartzen da bere Aitaren kontra, non illa ezpalego berak illko

lukean. Laster egiten du hura dagoan obira; ateratzen du: erabiltzen du ostikopean: askatzen du ganibetaz gorputza, eta jaten diozka errayak. Esan zadazu, Kristaua: asma diteke eskergabekeri, ta gogortasun andiagorik? Jakizu bada, komunio gaiztoa egiñ dezun bakoitzean beste onenbeste egiñ dezula zure Aita on Jesus maitagarriarekiñ. Guri ongi nayez, eta gure bekatuen barkazioa iristeko, eman zuan gurutzean bere bizitza, S. Pablok dion bezala: *Propter nimiam charitatem*. Aditu dezu au, eta sinistu: eta zere bekatuen gañean negar egiñ bearrean, berriro gurutzean ipiñi nai izan dezu, eta zere alegiñean ipiñi ere dezu, dio S. Paulok. Baña ekusirik, beñ il zala, eta eziñ berriz il ditekeala, alako amorrua artu dezu beraren kontra, non ozka ekiñ diezun beraren gorputz, eta odolari, eta sartu dituzu zere barrunbe zikiñean. Arritu zaitetze Zeruak, eta desegiñ Zeruko atea, ekusirik eskergabekeri, eta bidegabe añ itsusia, esan dezakegu Jeremiasekin: *Obstupiscite Caeli, et portae ejus desolamini*. Ez da onetan geratzen San Pablo, baizik dio gañera, komunio Santua gaizki artzen duanak, jaten, eta edaten duala bere betiko galera: *Qui enim manducat, et bibit indigne, judicium sibi manducat, et bibit*. (1.^a ad Corint. 11). Ala gertatu zan Judasekin eta ala ger-

tatzen da egun oro beste askorekiñ. Sinisturik nago, erri bakoitzean noizean beiñ gertatzen dirala kastigu izugarriak Komunio gaiztoakgatik. Oetatik bat izan oi da Jaunak bere eskutik utzitzea bekatari eskergabea. Beste zenbait aldiz, Ostia Santua ezkutatu izan zayo Komunioko denboran bekatariari. Ala gertatzen zitza-yola, esan zidan neroni onelako bekatari batek.

Orra, Kristaua, zeñ bekatu itsusia dan Komunio gaiztoa. Emendik atera ezazu, gaztea, nolako ardura, eta arretarekin ikasi, eta egiñ bear degun Jesus maita-garria gure biotzetan ongi artzeko prestaera. Saya zaite, gaztea, neke piska onetara iritsi dezazun Jesus onak zuretzat prestaturik daukan, betiko bizitza. Amen.

SEIGARREN ERAKUSALDIA

1. *Ematen dira Konfesioko Sakramentuaren berriak.*
2. *Urrena aditzera emango dira Sakramentu onek dakartzian ondasunak. Emendik aterako degu, zeñ gauza bearra dan, Sakramentu oni dagozkan gauzak gazteai ongi erakustea.*

Azkeneko bi Erakusaldietan itzegiñ dizut, Kristaua, Aldareko Sakramentu guziz miragarriaren gañean. Sakramentu au ongi artzeko prestaerak eskatzen du, beste gauz askoren artean, gure animak garbitzea Konfesioko Sakramentuarekiñ. Orregatik Konfesiorearen gañean itzegiñ uste det betaz, eta naroro. Gaur aditzera emango ditut, lenengo lekuan, Konfesioko Sakramentuaren berriak. Urrena Sakramentu onek dakartzian ondasunak. Enzun arretarekiñ.

§ I.

Gure Salbatzalle Jesus maitagarriak ipiñi zuan lenengo lekuan batayoko Sakramentua, eta onek bar-

katzen digu bekatu jatorrizko, edo orijinala, arako gure lenengo gurasoetatik datorkigun bekatu ura. Batayoan bertan Espiritu Santuak apaintzen du anima graziaren soñeko ederrarekin, eta ematen diozka fede, esperanza, eta karidadearen birtuteak, eta gañera bere doayak. Atzenean markatzen du Jesu-Kristoren artaldeko markarekiñ, beraren gudari, edo gerrari izan dediñ. Ekusten zuan Jesus onak, etsai trebe, eta leyatua zituala Kristauak bere kontra, nola diran Demonioa, mundua, eta aragia, eta oek garaitzeko sendotu nai izan zuan beste Sakramentu batekiñ, eta au da *Konfirmazioa*.

Gu nor izatera, etzan Konfesioko Sakramentuaren bearrik, zeren batayo, eta Konfirmazioan eman zizkigun grazia, birtute, eta doayakiñ, eta Komunioko Sakramentuaren janari, eta edari miragarriarekin garaitu gintzakean animaren etsayak, eta gorde gentzakean graziaren bizitza. Baña ekusi zuan Jesus onak, zeñ makurtuak geunden gaitzerontz, eta banakaren batzuek ez, beste guziak eroriko zirala bekatuan, eta galduko zuela graziaren soñeko ederra. Urrikaldu zan guzaz, eta Zerura igotzeko zegoan denboran, sartu zan Apostoluak kouden tokira, eta itzegin zien era onetan: «Nere Aitak ni bidaldu ninduan eran, nik ere

bidaltzen zaituet zuek: asnasarekiñ aizeman zuan Apostoluen alderonz, eta esan zien: Arrezazue Espiritu Santua: *Accipite Spiritum Sanctum*: Zuek barkatzen dieztezuenen bekatuak barkatuak izango dira, eta bertatik barkatzen zaizte: *Quorum remisseritis peccata, remiltuntur eis*. Eta zuek barkatugabe uzten dieztezuenenak, barkatugabe geratuko dira: Et quorum retinueritis retenta sunt (Joan. 20)». Itz oetan utzi zion Jesusek bere Elizari Konfesioko Sakramentua: eman zion bekatuak barkatzeko esku miragarria, ez norinai, baizik Apostoluai, ta oen ondorengo Apaizai. Au da fedeak erakusten, eta guziok sinisten degun egia, eta besterik esatea da herejia.

Sakramentu au ipiñi zuan Jesu-Kristok batayoa ezkerro egiñdako bekatuak barkatzeko: arterañokoak alabaña barkatzen ditu batayoa. Bekatuak batzuek dira eriozkoak, edo *mortalak*, besteak *benialak*. Bekatu eriozko, edo mortala, da esatea, egitea, edo nai izatea zerbait Jaunaren legearen kontra gauza larri, edo pisuan. Bekatu beniala da esatea, egitea, edo nai izatea zerbait Jaunaren Legearen kontra gauza ariñ, edo txikiren batean, edo da bekatu eriozko, edo mortalean erortzeko prestaera, eta bidea: eta Konfesioko Sakra-

mentuak badu indarra bekatu oek barkatzeko, esan al baño andiagoak, eta itsusiagoak balira ere.

Bekatu benialak batzuetan arkitzen dira bekatu eriozko, edo mortalakiñ batean, eta orduan ez dira bekatu benialak barkatzen, Konfesioko Sakramentuarekin, edo onezko damu, edo kontrizio osoarekin baik. Beste batzuetan bekatu benialak arkitzen dira berak utsik, edo mortal gabe, zeren Jaunaren grazian dagoala bat, erortzen dan bekatu benialen batzuetan. Bekatu benial oen barkazioa iritsi diteke bi gisatara. Iritsi diteke benikbeñ Konfesioko Sakramentuarekin, bear dan damuarekin aitortzen dirala. Iritsi diteke gañera bekatu benialen barkazioa Konfesioko Sakramentuaz kanpora, Elizak artako ipiñirik dauzkan errege, eta gauz onakiñ. Gauz oek ipintzen ditue, batzuek geyago, besteak gutxiago, eta dotrinako gure liburu-txoak dakartzianak dira bederatzi. Lenengoa *Meza entzutea*: bigarrena *Komulgatzea*: irugarrena *Konfesiio jenerala* edo *Ni bekataria*; laugarrena *Obispoaren benedizioa*: bostgarrena *ur bedeikatua*: seigarrena *ogi bedeikatua*; zazpigarrena; *Aita gurea esatea*: zortzigarrena *Sermoya entzutea*; bederatzigarrena *Jaunari barkazio eskatuaz bularra jotzea*. Bederatzi oez gañera dakartzie batzuek *limosna*, eta urte oro Aita San-

tuak bedeikatu oi dituan *Agnus*, edo bildotsaren argizagizko iduriak.

Baña gai onetan engañatu etzaitezzen, Kristaua, gogoan arrezazu esatera noana. Lenengoa: bekatu benialak ere ez dira barkatzen, biotzean sortzen ezpada oen damua, edo damuaren indarra duan mugidaren bat. Demagun Meza entzutean, komulgatzean, ur bedeikatua artzean, esnatzen dala zugar Jaungoikoaganako amorioaren sua, eta alako sasoyan jartzen dala zure biotza, non gogorako balitzaizkizu egiñ dituzun bekatu benialak, gorrotoz begiratuko zeñiekeen. Jaungoikoaganako amorio onek barkatuko dizkitzu zure bekatu benialak, edo guziak, edo beintzat gorrotoz begiratuko zeñiekeen aek. Demagun gañera, *Ni bekataria* esaten, edo sermoya enzutean, alako eran damutzen zatzula, Jaunaren kontra egin dituzun bekatuaz, non gorrotoz begiratuko zeñiekeen bekatu benialai ere, oez oroitu ezker. Au asko izango lizake, bekatu benialen barkazioa iristeko, baña ez nolana, baizik zure biotzeko sasoyaren neurrian. Bigarrena, esan diran bederatzi gauzak ez due berenez indarririk bekatu benialak barkatzeko, baña egokiak dira Jaungoikoaganako amorioa, edo bekatuen damua sortzeko, eta orra zergatik ipintzen diran, bekatu benialak

barkatzeko diran gauzen artean. Irugarrena, oitu zaite, Kristaua, fede bizi: eta jayera andiarekin gauz oek egitera. Atzenean, oitura txit ederra da fede, esperanza, karidade, eta onezko damua sarritan sortzea, alegiñean zabaltzen dala damua bekatu guzieta-
ra. Baña biur gaitezen Konfesioko Sakramentura, eta dakuskun, zer ondasunak berekiñ dakartzian.

§ II.

Lenengoa da bekatu-rik andienak ere barkatzea, ez beiñ bakarrik, baizik bekataria beardan prestaerarekin dijoan guzian. Izan ziran hereje batzuek, zenbait bekatu itsusi eziñ Elizak barka ditzakeala, zeraustenak. Izan dira beste batzuek, beiñ bakarrik barka ditzakeala esan diguenak, baña fedeko gauza da, Konfesioko Sakramentuak beiñ, ta berriz, eta askotan barkatzen diola bekatariari edozeñ bekatu, ongi prestatua bada-
go.

Bigarren ona da barkatzea bekatu-ai zegoten betiko pena, aldatzen duala geyenetan, emen, edo Purgatorioan denboraz igaro, eta bukatuko dan nekean. Gerta diteke bekatari bat biurtzea Jaunagana biotz añ

prestatuarekin, eta damu añ biziarekin, non iritsi lezakean bekatuen, eta oei dagoten pena guziaren barkazioa ere. Ala uste degu, iritsi zuela Santa Maria Magdalenak, eta S. Pedrok. Baña gutxitan gertatuko da, bekataria damu añ andi, ta prestuarekin Jaunagana biurtzea. Gañera bekataria bekatuen erortzen dan unean bertan, geratzen da Zerutik erbestetua betiko, baña Konfesio onak barkatzen dio pena au.

Irugarren ondasuna da, animari biurtzea bekatuarekin galdu zuan, graziaren soñeko ederra, eta onekin batean birtute, eta doai asko. Ongi konfesatzen dan bekatariarekin egiten du Aita Zerukoak Ebanjelioko seme ondatzallearekin egiñ zuana. Eman zion pakezko musua: agindu zuan, eman zekiola len zuan janziera ederra: *Stolam primam*. Agindu zuan gañera, ekarri zegioela karidadearen eraztuna, baita Zerurako bidean ongi ibiltzeko, oñetako ederrak ere. Au bera egiten du bekatariarekin, ongi konfesatzen danean. Añ ederra uzten du graziaren apaindura onek bekatariaren anima, non eziñ adirazi dezakean gizonaren mingañak. Bildu bedi kristalezko onzi eder batean eguzkiak, izarrak, berjeretako loreak, urre, zillar, perla, eta diamanteak duen edertasun guzia. Ipiñi bedi gero onzi au eguzkitan, zeñ eder emango luke?

Jakizu bada, Kristaua, edertasun au guzia ezer ez dala, grazian dagoan animaren aldean.

Konfesioko Sakramentuak dakarren laugarren ondasuna da, berriro egitea bekataria *Jaungoikoaren ume, edo seme, ta adiskide: Jesu-Kristoren senide: Espiritu Santuaren bizileku, edo Eliza, ta Zeruairen jabegai*. Jaungoikoaren Seme; ez izatez, baizik zeren aintzakotzat artzen dan Jaunak. Ekusi ezazue, noraño-ko ongina, eta amorioa guganonz agertu duan Jaunak, bada eman digu bere semeen izena ezezik, izatea ere; dio S. Juanek: *Ut filij Dei nominemur, et simus*. (c. 3) Jaungoikoaren adiskide. Au aditzera eman zien Apostoluai Jesu-Kristok, esan zienean: *Emendik aurrea ez dizuet esango nere serbitzariak, baizik nere adiskideak* (Joan. 5). Egiten du gañera Jesu-Kristoren senide; Aita baten umeak alabaña senide dira eta Jesu-Kristo da gure Aita Zerukoaren Semea, izatez, edo naturalezaz, eta Aitarekin guzian berdiña. Orregatik S. Pablarekin esan dezakegu, Jesu-Kristo dala gure Senide nagusia (Ad Rom. 8). Atzenean egiten du bekataria Espiritu Santuaren bizileku, eta Eliza: ala esaten digu S. Pablok. Eztakizue, dio; eztakizue, zuen gorputz oriek dirala Espiritu Santuaren Eliza? *An nescitis, quoniam membra vestra templum sunt Spiritus Sancti?*

(1.^a ad Corint. 6). Espiritu Sanutak edertzen, eta apaintzen du Jaunagana biurtzen dan anima bere doayakin: geratzen da beragan bere Elizan bezala; eta giatzen du Zerurako bidean. Emendik atera ezazu, Kristaua, zeñ gauz itsusia dan Espiritu Santuaren Eliz ori bekatuz zikintzea, zuk zikindu dezun eran. Atozea, izango zenduke ausardia, Aldareko Sakramentua dagoan onzia loyez betetzeko? Eta ori gertatu balitzatzu, etzenduke oraiñ negar egingo? Eta eztakizu, zure gorputz ori, Jaunaren grazian zeundenean, zala onzi eder bat, non arkitzen zan Espiritu Santua bere Elizan bezala? Eta alaere izan dezu ausardia, gorputz ori bekatuz loitzeko? Len esan det, Konfesioko Sakramentuak egiten duala bekataria *Jaungoikoaren Seme*; eta au asko da ezagutzeko, denbora berean egiten duala Zeruaren jabegai, edo heredero, S. Paulok esaten digun bezala (Ad Rom. c. 8).

Konfesioko Sakramentuak badakartzi beste ondatsun asko ere; baña geyegi luzatuko nintzake, guziak adirazi bear banitu gaur. Bakarrik ukitu nai det, Sakramentu onek askotan ekarri oi duan animako pake, eta sosegu gozo bat, Trentoko Konzilioak esaten digun bezala (Ses. 14 cap. 3 de Paenit). Espiritu Santuaren frutuen artean bigarrena da *Pakea*, eta zazpigarrena

Espirituko gozoa, edo atsegin garbi bat, munduak eza-gutzen ez duana. Gizonaren biotza asaldatzen due bere gura, eta griña txarren bagak: ekiten dio gaur gura batek, bigar besteak: eta oek ukatuaz, eziaz, ilduratuaz, ez bestela, datorkio animari barrengo pakea, eta onetarako laguntzen dio Konfesioko Sakramentuak.

Ekusten dezu, Kristaua, nolako ondasunak dakartzian berekiñ Konfesioko Sakramentuak? Eta ez da gauza negargarria Kristaurik geyenak ondasun oek guziak galtzea? Batzuek, zeren igesi dabiltzan Sakramentu onetatik, besteak zeren beren aldetik egin bear lukeen prestaera egiten ez duen. Ea gazteak, au gerta ez dediñ zuekin ere, jarraitu degiogun asi degun lanari gogotik: zuek artuko dituzue era onetan Sakramentuen ondasunak ugari, eta gero betiko bizitza doatsua. Amen.

ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

*Azkeneko Konfesiotik oraindañoko
examinaren gañean.*

Azkeneko aldian itzezin nuan Konfesioko Sakramentuak berekin dakartzian ondasun andien gañean. Baña ondasun oek eskatzen due gure aldetik konfesio ona. Konfesio on bat egiteko bear dira bost gauza. Lenengoa *examiña*. Biarrena *dolorea*, edo egindako utsegiteen damua. Irugarrena, bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Laugarrena *konfesioa*. Bostgarrena *satisfakzioa*. Bost gauz oek dotri-nako liburutxoak biurtzen ditu irutara, eta oek dira: *biotzeko damua, aozko konfesioa, eta obrazko satisfakzioa*; baña iru oetan sartuak daude len esan diran bostak; examina alabaña sartzan da *Konfesioan*, eta bizitza ontzeko asmoa egiazko damuan.

Konfesio ona egiteko bear dan lenengo gauza da examina, au da egindako utsegite, edo bekatuak gogora ekartzea. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak (ses. 14 c. 5). Baldin bekatariak arretarik ipintzen ezpadu, egin dituan bekatuak gogora ekartzeko, nola

aitortu, edo konfesatuko ditu? Nola esango du, zenbat bider utsegin duan gogoz, edo pensamentuz? zenbat bider itzez, zenbat bider obraz, eta zer Mandamenturen kontra?

Batzuetan examina egiten da azkeneko konfesiotik oraindano; beste batzuetan aurtasunetik, bestetan geroagotik. Gaur itz egingo det azkeneko konfesiotik oraindanoako examinaren gañean, eta aditzera emango det, nola au egin dezakezun, lenbiziko komunioaren prestaeran ikasi zeuduan moduaz baliatzen zerala. Asi gaitzen.

§ I.

Jarri zaite Jaunaren aurrean, au da fedearen argiarekin gogora ekartzu, begira dagokizula, leku guzietan arkitzen dan, Jaun Andia, eta ekusten dituala argiro, egin dituzun, bekatu guziak: Ni nerau naiz, dio gauz orien Juez, eta testigu: *Ego sum Judex, et testis* (Jeremiae 29). Adoraezazu begira dagokizun Jaun au. Eman giozkatzu eskerrak egiñ dizkitzun mesede guziakgatik, eta batezere zeren itxedon dizun bekatutik irteteko, eta beragana biurtzeko. Eskazayozu Espiritu San-

tuari bere lagunza, esaten diozula: *Atoz o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doaien emallea*: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza oen damu egiazkoa sortzeko, eta konfesatzeko. Begira ezazu, zenbat denbora dan, azkena konfesatu ziñala: bekatu larri, edo mortalen bat aztu ote zitzatzun, eta emandako penitentzia leyalki egiñ zenduan, edo ez. Examinarako sarrera au emen ikasten due aurrak lenbiziko Komuniorako, eta uste det, gazteak sayatuko zirala len ikasi zuena berriro ikasteko. Zarrak biotz onarekiñ jarri bitez Jaunaren aurrean, eta alik ongiena egiñ bezee beren examina.

Egiñik era onetan examiñarako asiera, animaren begien aurrean ipiñi itzatzu Jaunaren legeko amar Aginte, edo Mandamentuek, eta Eliz Ama Santaren bostak. Begira ispillu onetan, nola, eta zenbat bider utsegiñ dezun Mandamentu bakoitzean. Asko dira txit zabarrak ispillu oni begiratzeko, eta emendik dator, onelakoak ez esatea zenbat bider utsegiñ duen gogoz, edo pensamentuz, zenbat bider itzez, eta zenbat bider obraz. Galdetzen dio Konfesoreak: *Zenbat bider egiñ dezu bekatu ori?* eta nola sayatu ez dan zenbatezkoa billatzera, erantzuten du: *frankotan, edo makiña bat*

aldiz. Badira beste batzuek, askotan autsi duen Mandamentu ari begiratu nai ez dioenak, zeren ark agertzen diezten beren bekatu itsusiak. Edanean igarotzeko oitura duanak, adiskidetasun gaiztoetan bizi danak, erriari, auzoari, edo beste lagun urkoari kalteak egiñ diozkanak, ez dio Mandamentuen ispilluari begiratuko gogoz, eta betaro, bekatu oek argiro agertzen dituan aldetik. Gertatzen da onelakoakin Apaiz baten serbitzariarekin gertatu omen zana. Bi ispillu bide zituana Apaizak; bata gauzak ziran eran erakusten zituana, eta bestea ez ziran bezala, baizik zimurturak, eta mantxak estaliz edertzen zituana. Serbitzaria adiñean aurreratua zegoan: begiratu zion lenengo ispilluari, eta ekusi zuan bere burua zimurturaz betea, ortzak erdi-ustelduak, eta birrazala zabaldua. Bereala aldegiñ zuan ispillu argandik muzinka, eta etzion beñere kendu, ez autsik, ez amamarik. Begiratu zion gero bigarren ispilluari: onek erakusten zion bere aurpegia ogei urte zituanean baño ederragoa, eta onengana artu zuan bere jayera. Sarritan garbitzen zuan, eta euliak zikindu etzezeen, misaz estalirik idukitzen zuan. Au bera egiten due bekatari batzuek Mandamentuen ispilluarekin. Agertzen diezte Mandamentu onek, edo ark beren bekatu itsusiak, eta ez due gogo-

rik izpilluari alde artatik begiratzeko. Eta begiratu gabe arreta onarekin, nola ezagutuko ditugu gure pekatuak?

Examina ongi egiteko gauza bearra da, Mandamentu bakoitzean nola, eta zenbat bider utsegin degun begiratzea, baña ez da asko au, baizik begiratu bear diegu beste gauz askori ere. Au ongi ezagutu dezazun, Kristaua, enzun esatera noana. Zuri gertatu zatzu, seigarren Mandamentuaren kontrako bekatu batzuek egitea, eta gogora ekartzen dezu, zenbat bider, eta nola au gertatu zatzun: esan nai det, zenbat bider gogoz, edo pensamentuz, zenbat bider itzez, eta zenbat bider bestela. Etzaitzela onetan geratu: zoaz aurreraxeago, eta begira, bekatu oriek ote duen sayetsen batetik beste Mandamenturen baten kontra man-txa, edo nabarduraren bat, nola dan bekatu oriek iza-tea *ezkonduarekin, aidearekin, beste estadutakoare-kin.*

Zuri gertatu zatzu lagun urkoari bekatuako bidea ematea: ez da asko gogora ekartzea, nola, eta zenbat bider au egin dezun, baizik begiratu bear dezu, zenbat lagun urkori aldi bakoitzean bekatuako bidea eman diezun; ez da alabaña berdiñ anima bat iltzea, edo iltzeko bidea ipintzea, eta lau, zortzi, edo amar iltzea.

Zuk artu zenduan bekaturen batean erortzeko oitura, egiñ dezagun kontu birauak, lagun urkoari egiteko, gurasoaren aginduak ez egiteko, *gauz andietan ere: edanean igarotzeko: zere buruarekin, edo beste-ekin ukiera itsusiak egiteko, edo itz loi aragizkoak esateko*. Konfesoreak eman zizkitzun sendagai ego-kiak, oitura gaizto ori garaitzeko; baña etzera sayatu oitura gaiztoa uztera, eta erori zera berriz eta berriz. Ez da asko gogora ekartzea zenbat bider azkeneko konfesiotik oraiñdaño erori zeran, baizik gañera begiratu bear dezu, oitura garaitzeko neurriak artu dituzun edo ez; zeren onetan zabarra izan bazera, zabarkeri au beste bekatuaz gañerako bekatua dan. Zu, Kristaua, erortzen zera Mandamenturen baten kontra bekatuetan, eta oek datoz sustrai gaistoren bat, edo atera, edo atzeratu gabez. Ez da asko sustrai onegandik jayo diran bekatuak gogora ekartzea, baizik begiratu bear dezu, zeñ dan bekatu orien sustraia, eta au edo atera, edo zapuzturik utzi bear dezu, bestela beti botaaz joango da bekatuaren alsuma berriak. Gertatzen da onetan illurrarekin, eta meloi-belarrarekin gertatzen dana. Badijoa nekazaria sorora: ekusten ditu illurraren ostoak, eta atxurrarekin, edo itayarekin eba-kitzen ditu. Badijoa sagastira, eta au bera egiten du

meloi-belarrarekin: baña andik laster ala belar batak, nola bestea botako ditue ostu berriak, zeren sustraya utzi zan, len zegoan eran. Urlia sarritan erortzen da birauetan, eta seigarrengo bekatuetan, eta oen sustraya da edariz erazekitzea bere buruari. Sandia maiz erortzen da aragiaren atsegiñ lotsagarrietan, eta oen sustraya da ezkondu bear, bear, eta bear itsu batean bizitzea. Berendia era berean erortzen da seigarrengo jolas itsusietan, eta bekatu oen sustraya da arako etxe artara joatea jai egunetan, edo dagoan etxean, edo auzoan adiskidetasun gaiztoa idukitzea. Urlia oitu da gauzen saltze, eta erostean tranpak egitera, erriari, eta lagun urkoai eta kezka gabe sartzen da usura, eta igoal, edo tratu zikiñetan: bekatu oen sustraya da biotza kutiziari itsatsia egotea. Sandiak nekeari ongi jarraitzen diola, eta eziñ iroso ditzakean gastuetatik alde giten duala, bildu lezake beretzat, eta etxekoentzat bear duana: baña ederretsi dio alperkeriari, batera eta bestera ibiltzeari. Emendik datoz asko bekatu, nola diran, etxekoen negarra, zorrai ez erantzutea, janean, eta edanean bizitza igarotzea. Bekatu oen sustraya da alperkeria. Oze guziak, esamiña ongi egiteko, begiratu bear dieza, ez agirian dauden bekatuak bakarrik, baita oen sustraia ere.

Atzenean gurasoak, errietako kargudunak, eta batzarreetan, sartzen diranak begiratu bear due, nola eranzun diezan beren egiñbideai.

Orra, Kristaua, nola egiñ dezakezun azkeneko konfesiotik oraindañoko examina. Erraz egiten da au, sarritan, eta arretarekin konfesatzen danak. Etxe bat maiz garbitzen bada, erraz iunziarekin igarotzen da; baña denbora luzean uzten bada garbitu gabe, betetzen da amamaz, armiarmaz, eta autsez: eta nekez garbitzen da ongi. Bizi gaitezen, nere Kristaua, Jesu-sen Lege Santak erakusten digun eran, eta emango digu agindu digun betiko bizitza. Amen.

ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

Konfesioak berritzearen gañean.

Konfesio ona egiteko bear dan, lenengo gauza da examiña: au da egindako utsegite, edo bekatuak gogora ekartzea. Batzuetan examiña egiten da azkeneko konfesiotik oraindano, eta onen gañean izan zan azkeneko Erakusaldia. Beste batzuetan egiten da aurtasunetik, eta besteetan geroagotik, konfesioak berritzeko. Examiña au egiteko inodua erakusten du lenbiziko Komunioaren liburuak, eta emen ikasten due aurak. Orregatik ez naiz geratuko modu onen gañean itz egiten. Gaurko Erakusaldia izango da Konfesioak berritzearen gañean. Au izan diteke batzuentzat *kaltesua*, besteentzat *txit ona*, eta askorentzat *txit premiazkoa*, Zerurako bidean jartzeko: eta ona gaur nik aditzera eman nai dizuedan guzia. Enzun, Kristaua, arreta andiarekin.

§ I.

Konfesioak berritzea, edo ber-bera dana konfesio *jenerala* egitea izan ditekete, eta izan oi da batzuentzat kaltetsua. Nor ote dira oek? Oek dira, len prestaera onarekiñ konfesioak berriturik, bizitza onari jarraitu dioenak, batezere berenez beldurriak badira. Onelakoak garizuma, eta Misio bakoitzean, leku ematen bazate, berotu, ta nastuko ditue beren, eta konfesarrien buruak, eta jarriko dira zentzua galtzeko perill andian. *Jauna, esango due, eztakit, konfesio jeneralean nere bekatuak ongi esan, edo ongi aditzera eman nituan, edo ez: eztakit, onelako, edo alako bekatu esan nuan edo ez.* Atozea etziñan prestatu alegiñean konfesio ona egiteko? Etzinduan esan zeregan arkitu zinduan bekatuak? Etziñan poz andi batekiñ geratu? Bai, Jauna. Zer zabilta bada zere barren guzia erretzen, eta quixkaltzen? *Jauna, eta ezpanituan ongi esan nere bekatuak, zertan nago ni?* Demagun, utsegiñ zenduala, zerbait esatean: alaere zure bekatuak barkatuak geratu ziran, zeren zeregan ezagutzen zinduan eran esan zinduan. Oraiñ eztakizu utsegin zenduan, edo ez, eta ez dezu zer ibilli gauza zarrak irabiatzen. Zuk egiñ bear dezuna da itsu itsuan Konfesorearen esanera jartzea: eta au egiñ nai ezpadezu, zere kalte andian izango dezu seta ori. Ill bat agertu omen zitza-

yon bere adiskide bati. Adiskidea zan txit beldurtia animako gauzetan, eta bide andi gabe ibilli oi zan kez-kaz betea. Bereala asi zitzayon illari bere beldur, eta kez-kak esaten, baña etzion itz oek besterik eranzun: *Galde zayezu jakintsuai, eta egizu aen esana.* Itz batean: *Utzi seta, eta umilki egiñ Konfessoriaren esana.*

§ II.

Konfesioak berritzea beste askorentzat da gauza txit ona. Lenengo lekuan, bizimodu, edo kargu peril andikoren bat artu bear duanarentzat, dala Apaizen, dala ezkonduen bizimodua. Bigarrena, bizitza berri on bat jayera andiarekin artu nai duanarentzat, batezere len askotan bekatu larrietan erori bada. Ala erakusten du S. Franzisko Salesek. Irugarrena, errietako karguetan jardun duanarentzat, batezere erriaren ondasunak eskutartean erabilli badira. Obe litzake ikazkintzan bizitza igarotzea, ezen ez erri batzuetan kargudun izatea, esaten diran gauzak egiak badira. Laugarrena, aserreturik, edo auzitan bizitu diranarentzat. Bostgarrena, onginei, eta amorio gutxi elkarri izan dioen ezkon-

duak. Onelakoak bekatu askotan erortzeko perill andia due, ongina, ta amorioaren gozagarria aitutzen bada, eta gozagarri au ugaritzeko ona da konfesioak berritzea. Seigarrena, ona da konfesio jenerala len beñere egiñ ez duanarentzat, bere ustean zintzoro bizitu baliz ere. Dakuskun oraiñ norentzat dan premiazko gauza konfesioak berritzea.

§ III.

Konfesioak berritzea da premiazko gauza bekatu larri, edo mortalen bat lotsaz konfesatu gabe utzi duanarentzat. Oen anzekoak dira, gauz itsusiren batzuek egiten dituenak, bekatu eriozko, edo mortalak izango dirala, edo izango ote diran barrenak esaten diela.

Konfesioak berritzea premiazko gauza da bigarren lekuan, baldiñ sayaiu ezpada bat, Kristauari dagozkan gauzak jakiteko. Au bera aditu bear da, ezpadu batek arretarik bere karguaren egin-bideak ezagutzeko. Onelako asko arkituko da guraso, eta errietako kargudunen artean.

Konfesioak berritzea premiazkoa da irugarren lekuan, baldiñ bekaturako bide, eta perill urkoan bizi-

tu bada bat, eta utzi zezakeala, uzteko biotzik izan ezpadu. Gazteak, Zerurako bidea utzirik, gaitzerantz kolokatzan asitzen diranean, eotzen ditue bekatuaren sareak berentzat, eta beste askorentzat: eta oek uzteko biotzik ez dan bitartean, egiñ oi dira konfesio gaiztoak: eta noizbait zentzatzan badina, berritu bear ditue konfesioak bizitza gaiztoan asi ziranetik.

Konfesioak berritzea premiazko gauza da laugarren lekuan, baldiñ batek bekatuan erortzeko oitura izan badu, eta konfesatu ondoan, ura garaitzeko neurri egokiak artu nai izan ezpaditu. Onelakoak izan oi dira biraugilleak, juramentuak nolana, naiz egiaren, naiz gezurraren gañean egiten dituenak: gurasoai edozeñ lotsagabekeria erantzuten diezanak: edanean maiz igarotzen diranak: edari bizietara itsuturik, artoa, oieo zapiak, soñekorik onenak, gorputza, eta anima saltzen dituenak: itz loi desonestoak esateko, keñada lotsagarriak, ukiera zikiñak egiteko oituran bizi diranak. Oek egiñ oi ditue konfesio gaiztoak, zeren oitura oek uzteko biotzik ez duen. Orregatik esan zuan Jeremiasek: Oitutzen bazerate gaiztakerietara, onduko zerate Etiopiako beltzak bere larrua aldatzen, eta katamotzak bere nabardurak, edo mantxak uzten dituanen: esan nai du Profetak andia dala oitura

gaiztoaren indarra, eta nekez utzitzen dala: *Si Aethiops mutare potest pellem suam, aut pardus varietates suas, et vos poteritis bene facere, dum didiceritis malum* (Jerem. 13). Garaitu diteke oitura gaiztoa, Jau-naren laguntzarekiñ neurri egokiak artzen dirala, baña ez oi da garaitu, zeren biotzik ez dan neurri oek artze-ko, eta bakoitza bere oitura gaiztoakiñ dijoa obira, eta betiko su, ta garren artera. Esana dago: *anz, azturak obiraño*. Jauna, esango dezu: *Ni denbora batean* bizitu nintzan gaizki: bekaturako bide, eta oitura gaiztoetan igaro nituan onenbeste denbora. Ezagutu nuan nere anima galtzeko perill andian arkitzen nintzala: eraba-ki nuan bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegi-tea: egiñ nuan Konfesio jenerala, eta denbora puska batean iraun nuan bizitza onean baña gero lagun gaiz-toen losentxakiñ, eta nere griña txarren leyarekiñ biurtu nintzan leneko gaiztakerietara, eta bizitu naiz len baña ere gaizkiago; baña konfesio on batekiñ jarri nai nuke Zerurako bidean. Onetarako jakiñ nai nuke, noizdanik berritu bear ditudan konfesioak, edo aurtasunetik, edo len egiñ nuan konfesio jeneraletik? Gai onetan gizon jakintsuen iritzia da, etzaudela beartua konfesioak berritzera aurtasunetik, eta asko izango dala len egiñ zenduan konfesio jeneraletik oraindaño-

koak berritzea, zeren konfesio jeneral ark onaren markak dituan. Besterik esan bearko lizake, konfesio jeneralaren ondoren sayatu ezpaziña bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta oitura gaiztoak uzteko.

Konfesioak berritzea premiazko gauza da bostgarren lekuan, baldiñ denbora luzean bizitu bada bat lagun urkoaren kontra gorrotoan, edo gorrotoaren siñaleak agertzen diozkala; gaiztoak izan dira alabaña denbora orretako konfesioak. *Ez nik gorrotorik* esango du, baña beti egonda prest, etsayari txarkeria egiteko era datorrenean, azeria olloa atxitzeko prest egon dan bezala. Onelako gauzak beiñ baño geyagotan ekusten dira alde, auzo, eta errenteroen artean, noizbait txarkeriaren bat egiñ badie aideak, edo auzoak. Etxe batzuetan aurrekoetatik ondorengoetara igaro oi da gorrotoa, bekatu jatorrizko, edo orijinalaren eran. *Ez nik gorrotorik*, baña opa izan dio len, eta opa dio oraiñ, eman degiola Jaunak *ordaña*, esaten duala beregan: *Niri eman dizkidan egunak eman degiozkala Jaunak berari ere: ez geyago, ta ez gutxiago, Amen, Amen. Ez nik gorrotorik*, baña postutzen da etsayaren kaltea aditzean, eta illuntasunez betetzen da, arentzako berri onak aditzen baditu. *Ez nik gorrotorik*; baña etsa-

yari, edo ukatzen, edo muzinka egiten diozu diosala, kopetarekiñ, sudurren: eta mokoaren erabiltzearekiñ adirazten dezula barrengo erra gaiztoa.

Konfesioak berritzea premiazko gauza da seigarren lekuan, baldiñ besteren gauza jabeari biurtzeko, zorrai erantzuteko, eta erriari, edo lagun urkoai egiñdako kalteak desegiteko arretarik gabe bizitu bada bat; besteren gauzak alabaña, eta era berean artzekoak eta egiñ zaizkan kalteak deadar egiten due Jaunaren aurrean. Batzuek esaten due: *testamentuan aginduko det bear dana*. Atozea, zuk egiñ zentzakeala, ez dituzu oker oriek zuzendu, eta uste dezu, zure ondorengoak obeto zuzenduko dituala? Engañatzen zera, eta gai onetan esan nitzake neronek dakizkidan zenbait gauza; eta jakizu infernura zoazela testamentuarekiñ, edo testamentu gabe. Gañera beartua zaude, lenbaitlen gauz oriek zuzentzera utzigabe gerorako.

Atzenean Konfesioak berritzea premiazko gauza da, baldiñ bizitu bada bat, bere estadu, edo karguaren egin-bideai erantzuteko zabarkeri andian: *dala Erretoa, dala Alkatea, dala Errejidorea, Bolsero, Diputadu, edo beste Erriko batzarreelan* sartzen dana.

Orra, Kristaua, norentzat dan kaltetsua, norentzat txit ona, eta norentzat premiazko gauza Konfesioak

berritzea. Jaunaren aurrean ongi begira degiogun gure bizitzari, zuzendu ditzakun egin ditugun okerrak, eta bizi gaitean Jaunaren beldur santuan, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

*Adirazten da, Konfesioak berritzea,
edo Konfesio jenerala ez dala,
askok uste duen bezeñ, neke andiko gauza.
Urrena, ongi egiten danean,
ekarri oi dituan ondasunak.*

Konfesio ona egiteko bear dan, lenengo gauza da examiña: au da egindako utsegite, eta bekatuak gogora ekartzea. Batzuetan examina egiten da azkeneko konfesiotik, eta onen gañean itzegin det lenago. Beste batzuetan egiten da aurtasunetik, edo geroagotik, konfesioak berritzeko premia eskatzen duan eran, eta onetarako modua erakusten du lenbiziko Komunioaren liburuak, eta are obeto igerriko du au premia duanak, Konfesorearekin lenago gai onen gañean itzegiten duala. Azkeneko Erakusaldian ekusi genduan, nola Konfesioak berritzea izan ditekean batzuentzat kaltetsua, beste batzuentzat txit ona, eta bestentzat premiazkoa, Zerurako bidean jartzeko. Oen artean izan oi dira batzuek añ jakiñezak, eta lan-

dugabeak, non uste duen, konfesioak berritzea, edo konfesio jenerala egitea dala gauz añ gaitza, edo neke andikoa, non aditze utsak ere izutzen dituan. Emendik dator, onelakoak bekatuan oatuak, eta Zeruaz etsiak bezala bizitzea. Au da etsayaren sarea, eta orregatik bekatari oentzat itzegin nai det gaurko Erakusaldi onetan. Aditzera emango det, konfesioak berritzea, edo konfesio jenerala ez dala, askok uste duen bezeñ neke andiko gauza. Aditzera emango ditut urrena, ongi egiten danean, ekarri oi dituan ondasunak. Enzun bekataria, arretarekin.

§ I.

Nor oroituko da bere denboran egin dituan bekatu guziaz? Eta nork esan guziak? Ez da au nere buruarentzat egindako lana. Onela itz egiten due bekatari batzuek, baña osotoro engañatzen dira. Au zuk argiro ezagutzeko, Kristaua, asko dezu begiratzea, zertara zauden beartua gai onetan.

Zure bekatuen artean asko, eta geyenak dira *benialak*. Ona da oek ere aitortzea edo konfesatzea, baña ez da premiazko gauza, Trentoko Konzilioak era-

kusten digun bezala: zeren benialen barkazioa Konfesioaz kanpora, beste era askotara iritsi ditekian. Eta era onetan asko arintzen da Konfesioak berritzeko nekea.

Bekatu larri, edo eriozkoak alegiñean gogora ekarri bear dituzu, eta zere biotzean arkitzen dituzun eran aitortu, edo esan bear dituzu. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak (ses. 14 cap. 5 de Paenit). Emendik atera ezazu, Kristaua, Konfesioak berritzea, edo Konfesio jenerala egitea askoz errazago dala, bekatuaz oroitzeiko bururik ez daukeela dioen orientzat besteentzat baño, zeren gauza txit nabarben, eta andiak ez, beste guziak aztu zaizten. Atera ezazu gañera, ezpazera ongi oroitzen, zer gertatu zitzatzun, baño zerbait izan zala gai onetan, edo artan, asko dezula au esatea.

Bekatu larri, edo mortalak aitortu bear dira beren *zenbatezkoarekin alegiñean*; esan nai det, ez dala asko esatea: *egiñ det bekatu onelako Mandamenturen kontra*, baizik esan bear da *egiñ det bekatu Mandamentu onen kontra*: onenbeste bider gogo, edo pensamentu utsez, onenbeste bider obraz, gisa onetan, edo artan: onetarako gauza bearra da zenbatezko au aldan eran gogora ekartzea. Demagun, eziñ oroitu zera-

la, onelako bekatu egiñ zenduan, edo ez, eta zabuan bezala zaudela *egिñ nuan, ez nuan*: esazu au, eta asko da. Demagun gañera, etzerala ongi oroitzen, onelako, edo alako bekatu egiñ zenduan, edo ez, baña etziña-goa zaudela bayetzkora: esazu au, eta asko da. Ezagutzen badezu examinan, Mandamentu baten kontra egiñ dituzula onenbeste, edo ainbeste bekatu, egin dezagun kontu *zortzi juramentu gezurrezko*, zortziak esaitzu, ez banaka baizik batean, baña zenbat ezagutu dituzun ainbeste, ez geyago, eta ez gutxiago. Ezagutzen ezpadezu, zenbat diran Mandamenturen baten kontra egindako bekatuak, baña bai *gutxi gora bera*, esaitzu *gutxi gora bera* onekin, eta asko da au.

Askotan gertatzen da, bekataria ez oroitzea, zenbat bider erori dan Mandamenturen batean, zeren denbora luzean bizitu zan gaizki Mandamentu aren kontra, eta nola oroituko da, zenbat bider erori zan gogoz, edo pensamentuz, zenbat bider itzez, zenbat bider obraz, zenbat bider zabarkeriaz, eta zenbat bider jakiñ bear ziran gauzak jakiñgabez? Neke da onelakoak *zenbatezkoa* ezagutzea *gutxi gora berarekiñ* ere. Asko engañatzen dira onetan: aztutzen dira bearrenaz, edo egindako bekatuen damu egiazkoa sortzeaz; gau, ta egun ari dira *zenbatezkoa* billatzen:

berotzen ditue buruak, eta jartzen dira zentzua galtze-ko perill andian. Felipe bigarrenaren jauregiko zaldun batek artu zuan asmoa bere konfesioak berritzeko: igaro zituan amabost egun examina egiten: alegin guziarekin aritu zan kontu ateratzen, zenbat bider utsegin zuan Mandamentu bakoitzean, baña alperrik. Egin zuan bere konfesioa; baña nola esan etzuan, zenbat bider erori zan Mandamentu bakoitzean, alako kezka, eta illuntasunak inguratu zuen, non bularretik sartu zion bere buruari ganibeta, eta il zan; baña izan zuan denbora ezagutzeko bere utsegitea, eta sosegaturik il zan. Orra, zer dan zenbatezkoaren billa geyegi batek bere burua nekatzea. Badira beste batzuek gai onetan neke andirik ez duenak, eta zer esaten duen ongi begiratugabe, eunka, eta millaka bekatuak botatzen dituenak. Galdetu zion Aita Kalatayudek bati: *Zenbat juramentu gezurrezko egin dituzu? Eranzun zion: Zortzi milia, eta lareun? Zenbat birau bota dituzu? Bederalzi milla, eta bost eun.* Nork sinistuko die onelako bekatariari, examiña ongi egiñ, eta onela eranzuten duela? Emendik ateraezazu, Kristaua, ez dezula zere burua geyegi estutu bear, zeren bekatu larrien *zenbatezkoa* eziñ arkitu dezun: eta ez dezula nolanai esan bear: *Onenbeste, edo ainbeste milla.* Jauna,

esango didazu: *Nola bada bear bezala, eta bear adiña examiña egingo du denbora luzean gaizki zizitu danak*, zenbat bider erori dan eziñ gogora bazayo? Ara nola. Lenengo lekuan: begira ongi, zenbat urtean gutxi gorabera gaizki bizitu zeran? Bigarrena: denbora orretan astean, edo illean bataz beste zenbat bider erortzen ziñan obraz, zenbat bider itzez, eta pensamentuz? Irugarrena: denbora orretan igaro ote ziran illa beteren batzuek bekatura gabe, zeren erarik izan etzan, edo zeren bizitza ontzeko asmo-erdiren batzuek izan zinduan. Laugarrena, seigarren Mandamentuaren kontrako bekatuetan, begira, aideakiñ, ezkonduakiñ, beste estadutakorekiñ ezer gertatu dan, eta zenbat bider, bekatu oek alabaña berezi bear dira besteetatik. Era onetan egiñ dezakezu examiña, zenbategoaren ondoren burua galdu gabe.

Jauna, dio oraiñ urliak: ni oroitzen naiz, noizbait Mandamentu batean gaizki bizitu nintzala, baña eziñ gogora zat, zenbat denboran iraun zuan nere bizitza gaiztoak. Atozea, eta etzera oroitzen, denbora ori luzea, edo laburra izan zan? Oroitzen naiz, Jauna, igaro nuala denbora puskaren bat bizitza gaiztoan, baña eziñ esan dezaket geyago. Atozea, eta oroitzen zera, orduan egindako bekatuaz? Oroitzen naiz, Jauna,

egiñ nituala denbora artan onelako, edo alako bekatu zenbait aldiz, baña ez naiz oroitzen zenbat bider. Jauna, esango du sandiak. Onenbeste urte dira, egiñ nuala nik konfesio jenerala: esan nituan ordurañoko nere oitura gaiztoak, eta sayatu naiz bizitza onari jarraitzera: baña askotan gertatzen zat, sermoyak aditu ondoan kezka etortzea: *onelako, edo alako bekatu* esan *ote nuan?* Atozea, eta etzinduan esan astean, edo illean gertatu zitzaizkitzun gauzak? Eta ez dezu ekusten, bekatu aetan sartua zegoala ori ere? Utgiezu bada kezka oriei. Besterik lizake, gogorako balitzatzu; esan zinduan oitura gaiztoetan sartu etzan, bekatu nabarbenen bat. Ta ala baliz ere, Konfesio jenerala egiñ zenduanetik urte asko igaro badira, esanzat utzi dezakezu. Jauna, esango du berendiak: nik egiñ nuan Konfesio jenerala, aurtasunetik asita oraiñ lau urterañokoa, nere, eta konfesorearen ustean ongi: baña sermoi, edo dotrinak aditzen ditudanean, gogoratzen zat, *nik egiñ nuan onelako* gaiztakeria, eta eztakit konfesio *jeneralean esan nuan, edo ez*. Ez oroitzea esan zenduan, edo ez, ez da asko, gauza zarrak irabiatzen ibiltzeko: eta eman dezakezu esanzat: eta askori debekatu bar zate osotoro lena berriz, eta

berriz lena erabiltzea. Atozea, nola oroituko zera, zer; eta nola esan zenduan oraiñ iru, edo lau urte?

Ekusten dezu, bekataria, konfesioak berritzea, edo Konfesio jenerala egitea, ez dala askok uste duen bezeñ neke andia? Ekusten dezu, buru gutxi daukanak errazago egiñ dezakeala, zeren egindako bekatuen erdiak, edo geyago osotoro aztu zaizkan? Utzi itzatzu bada aitzakiak, eta egizu, Zerurako bazera, nai, ta nai ez egiñ bearrean zaudena. Ukitu ditzakun oraiñ konfesioak berritzeak, ongi egiten danean, dakartzian ondasunak.

§ II.

Ondasun oen artean lenengoa da ezagutzea bekatariak, zeñ eskergabea izan dan bere Jaun, eta Aita onarentzat. Ekusten du, egiñ zuala Aita onek Zerurako, eta Adanen bekatuarekiñ galdu zuala arako esku guzia. Ekusten du, utsegite au desegiteko, Aita Zerukoak bidaldu zuala lurrera bere seme bakarra; seme au egiñ zala gizon, eta bere bizitzaren kostuz irabazi zuala guretzat Zerurako eskua. Ekusten du, Aita onen kontra egiñ dituala ainbeste eskergabekeri itsusi.

Emendik argiro ezagutzen du, nor, eta nolakoa izan dan bere Jaunarentzat. Konfesio bakoitzean ere nole-rebait ezagutzen zuan au; baña askoz obeto konfesio jeneralean; zeren begien aurrean jartzen zaizkan bere denbora guzian egiñ dituan bekatu itsusi guziak. Orduan arriturik geratzen da, eta dio: *Hau guzia egiñ nik! eta alaere itxedon dit nere Aita onak, Zerurako bidean jarri nadin! O Ontasun, eta urrikimentu paregabea!*

Bigarren ondasuna da, bizitza ontzeko, eta aurre-ra bekaturik ez egiteko, asmo sendoak artzea. Gertatzen da Konfesioak berritzen dituan bekatariarekin, gazte jokalaria batekin Erreñu onetan gertatu zana. Etxe aberats bateko semeak ederretsi zion jokoari. Jokatu oi zuan txartelez, mayean dirurik ipiñi gabe. Aitak geyegi nai zion, eta galduaren txartelak zetoze-nean, bereala ematen zuan dirua. Egun batean galdu zituan semeak amabi milla dukat, eta irabazleak bidaldu zion Aitari txartela, eta onek esan zuan: *Amabi milla dukat galdu ditu nere semeak? Ez ditut pagatuko, bera ezpadator, eta kontatzen ezpadu dirua.* Joan zan semea, eta esan zion Aitari, bere onra zijoakiola, galdu zuana pagatzean. Aitak erakarri zituan ogei, ta lau diruzorro, bost eun dukatekoa

bakoitza. Zabaldu zuan dirua mai baten gañean, eta arriturik geratu zan semea. *Au guzia jokatu det nik?* esan zuan. Erantzun zion Aitak: *Bai ene seme, eta laster gera gisa onetan hospitalean.* Orduan esan zuan semeak: *emen betiko bukatzen dira neretzat kartak: ez geyago jokorik.* Eta nola esan, ala egiñ zuan. Au bera gertatzen da bekatariarekiñ, prestaera onarekin konfesio jenerala egiten duanean. Len etzan izutzen, bere bizitzari azaletik begiratzen zionean; baña konfesio jeneralean ekusten ditu bere bekatu guziak pilla batean bilduak, eta arriturik dio: *Non zebillen nere burua, onenbeste bekatu itsusi egiñ nituanean? Ez geyago bekatuak, ez, Jaunaren lagunzarekin.*

Irugarren ondasuna da, bekataria askotan gertzea barrengo alaitasun, eta poz andi batekiñ; uzten du alabaña lertzeko zorian zedukan, bekatuen karga astuna. Ala zion batek konfesio jenerala egiñ ondoan. «Deritzat, zion, neregandik bota dedala karga bat eziñ irozo nuana, eta lertzeko zorian nendukana. Berrogei, ta amar urteren denbora luzean munduak eman dizkidan atsegiñ guziak utsa dira, oraiñ neregandian daukadan, atsegiñ, eta gozotasunaren aldean».

Atzenean Aita Zerukoak berriro artzen du onelako bekataria bere semetzat, apaintzen du bere semeari

dagozkan soñeko, eta doai ederrakiñ, Ebanjelioko seme ondatzallea bezala, eta Zeruko Aingeruak egiten due festa andi bat. Au guzia aditzera emana utzi zuan Jesu-Kristok berak.

Aditzen dezu au guzia, konfesioak berritzeko premian zauden, bekataria? Etzaitezela bada izan sorra, eta gorra: zoaz zere Aita onagana, txit ongi, eta gozotoro artuko zaitu: aztuko da zure eskergabekeriaz, eta zu nor bazera, emango dizu betiko bizitza. Amen.

AMARGARREN ERAKUSALDIA

1. *Adirazten da, lenengo lekuan, Konfesio ona egiteko, zeñ gauza bearra dan bekatuen damua.*
2. *Zer doai, edo Kondizio eskatzen dituan damu onek?*

Itzegin dizut, Kristaua, Konfesio ona egiteko bear dan lenengo gauzaren, edo examinaren gañean. Bigarrena da egindako utsegite, edo bekatuen damua, eta au izango da urrengo iru Erakusaldietarako gaya. Gaur aditzera emango dizut, konfesio ona egiteko zeñ gauza bearra dan bekatuen damua. Urrena, zer doai, edo kondizio eskatzen dituan damu onek. Enzun arre-tarekin.

§ I.

Gizonak bekatuari biotzean leku ematen dionean, utzitzen du bere Jaun, eta Jaungoikoa, eta ipintzen du biotza emengo gauza debekatuetan: eta Jaunari egiten dion bidegabearen barkazioa iristeko, gauza bea-

rra da kentzea biotza emengo gauza debekatuetik, eta ipintzea dagokan lekuan, edo Jaunagan. Orregatik esaten digu berak: Biur zaitezte nigana: *Convertimini ad me* (Joel c. 2.) Añ gauza bearra da biotzaren alde-tik au, non gizon jakintsu askoren iritzian Jaungoikoak eziñ barka dezakean b bekatua, kentzen ezpadu bekatariak biotza bekatutik, eta ipintzen ezpadu Jaunagan.

Munduaren lenengo denboretan etzan konfesioko Sakramenturik, eta onezko damu, edo kontrizio osoarekin bazik etzan arkitzen bekatariarentzat barkaziorik. Zer gertatu zan? Amilka joan zan gizona bekatuaren bideetan, ainbesterañ, non damutu zitzayon Jaunari gizona egin zualako, eta Noe, eta bere etxeakoak ez, beste guziak osotoro bukatu zituan, bidaltzen zituala mundu guzia estali zuen ujolak. Lege zarrean ere etzan konfesioko Sakramenturik, konfesiorekin, edo iduri bat bazan ere, eta etzan bekatuen barkaziorik onezko damu edo kontrizio osoa gabe. Denbora onetan etzan len baño askoz ohea izan mundua. Etorri zan Jesus, eta guziaren berri ongi ziakianak bezala, ipiñi zuan Konfesioko Sakramentua, bekatu guziak barkatzeko indarrez betea. Sakramentu onekiñ alde batetik erraztu zuan bekatuen barkazioa, zeren onezko damu, edo kontrizio osoa baño zerbait gutxia-

gorekin barkatzen dituan; eta bestetik utzi zuan sendagai txit andia bekatutik aldegiteko, Nork eztakus alabaña, bekataria atzeratzen dala bekatu egiteko, dakusanean, edo ez duala barkaziorik izango, edo aitortu ta agertu bearko dituala bekatuak ezkutatu, eta itsusienak ere?

Esan det, onezko damu, edo kontrizio osoa baño zerbait gutxiagorekin barkatzen dituala bekatuak konfesioko Sakramentuak. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. (ses. 14 cap. 4 de Paenit.): ez ordea damurik gabe. Au da fedeko gauza (Vide Trident. ibidem). Beraz, Kristaia, Konfessio ona egiteko, eta bekatuen barkazioa iristeko gauza guziz bearra da bekatuen damua. Baña zer doai, edo kondizioak eskatzen ote ditu damu onek? Auzi andiak ditue Theologoak gai onetan, eta utzirik oek berentzat, aditzera emango ditut, konfesorako damuak guzien iritzian gutxienez eskatzen dituan doai, edo kondizioak.

§ II.

Doai, edo kondizio oek dira lau. Lenengoa da *Zerutikakoa*, edo *Sobrenaturala* izatea. Askotan bekariak

sortzen du bere bekatuen damua, bere ibillera, eta bizitza lotsagarriak ekarri diozkan, emengo kalteakgatik. Badabill urlia poz andiarekin bekatuaren bideetan, eta uste du, iritsiko duala *era onen bat*. Kuturtzen da, Jaunaren lege Santak debekatzen diozkan asko gauzatarra: agertzen da bekatua, eta geratzen da onra, eta era guziak galdurik; eta gau, ta egun negarra ugari egiten du. Sandiak ederretsi dio alperkeriari: eta atzanean geratu da tranpaz baizik eziñ ezer billatu duala, baña denbora gutxian iraun dezake tranpa utsak. Nai-gabe andiarekin dago, ekusirik bere burua ezergabe, eta iñork ere ezer eman nai ez diola. Onelako damuak emengo neke, eta kalteetatik jayotzen dira, eta ez dira asko konfesio ona egiteko. Alaere emengo nekeak lagundu dezakee, altxatzeko biotza Jaunagana, eta prestatzeko, bear dan damura igo dediñ. Ebanjelioko seme ondatzallea, Aitak emandako ondasunak aitu, eta goseak erkitua, ta txerri zai bere burua ekusi zuan artean, etzan zentzatu; baña neke oekiñ, eta Jau-nak bidaldu ziozkan gogargiak, oroitu zan bere Aita onaz, eta biurtu zan beragana. Eta zer aditzen ote da *Damu Zerutikako*, edo *Sobrenaturalaren* izenez? Aditzen da *Damu bat*, Espiritu Santuaren lagunz, edo graziarekin baizik eziñ sortu ditekeana. Ala erakusten

digu Trentoko Konzilioak (Ses. 14 cap. 4). Bekatua da lize bat, nondik eziñ irten gaitzkean, bidaltzen ezpadigu Espiritu Santuak Zeruko graziaren lagunza. Izan dedilla bekataria Salomon baño jakinsuagoa, eta Sanson baño ere indartsuagoa. Ez da irtengo berez bekatutik. Baña zer diot irtengo ez dala? Ez du irteteko pensamentu bat ere egingo; ez gera alabaña gai Jesus esateko ere, bear bezala beintzat, ezpadigu bidaltzen Espiritu Santuak bere lagunza, dio S. Pablok: *Nemo potest dicere Dominus Jesus, nisi in Spiritu Sancto* (1.^a ad corint. 12). Aditzen da gañera *damu Zerutikako*, edo *sobrenaturalaren* izenez, damu bat biotzean sortzen dana fedea erakusten digun bideren bategatik. Ta alaere izan degu ausardia, Jaunaren kontra bekatu egiteko, damua noiznai, eta nolainai sortzen baliz bezala? Zenbat dijoaz beste mundura damuaren iduri utsarekiñ? Zenbat Jesus bat ere esan gabe?

Konfesio ona egiteko bear dan damuaren bigarren doai, edo kondizioa da *barrendik*, edo *biotzetik jayoa* izatea. Ez da asko auaz esatea: *Damu det, Jauna, damu det*: ez da asko bularrari kolpe andiak ematea ere, baizik biotz osoz damutu bear zayo bekatariari, Jaunaren kontra egin dituan bekatuaz. *Biur zaitzte nigana biotz guzitik*: urra itzatzue zuen biotzak, ez

soñekoak: egizue biotz berri bat, esaten digu Jaunak Joel, eta Ezekiel Profetaren autik (Joel c. 2. et Ezechiel 18).

Konfesio ona egiteko bear dan damuaren irugarren doaya da, *bekatu larri, edo mortal guzietara zabaltzen dana izatea*. Berez ez da premiazko gauza, damu au bekatu benialetara zabaltzea, baña Sakramentuaren ondasunak naroro, edo ugari artzeko, ala egiñ bear degu alegiñean. Gañera bekatu benialak baizik aitortzen ezpadira, orduan gauza bearra da oen guzien, edo oetatik baten damua sortzea, bestela ez da egingo Konfesio ona. Ez da asko bekatu larri, edo mortal batzuen damua, baizik bear da guziena: Jaunak alabaña agintzen digu, biur gaitezela beragana biotz guzitik, eta egiñ dezagula biotz berri bana: eta bekatu larri guzien damua sortzen ezpada, ez da bekataria biurtzen Jaunagana biotz guzitik, baizik erdizka, edo laurdenka, eta ez du egiten biotz berria, baizik erdia zarra, eta erdia berria, edo obeto esateko guzia gertzen da zarra. Emendik dator, bekatari asko bear dan damurik gabe konfesatzea, zeren bekatu larri, edo mortal guzien damu egiazkorik sortzen ez duen. Ala gertatzen da edarian, eta alperkerian biotza ipiñi due-nakin. Ala gazte ergel, bekatuaren sareetan katrabilla-

turik bizi diranakin. Ala gertatzen da izketa loyak esateko, eta keñada lotsagarriak egiteko oitura zarra duenakiñ.

Konfesio ona egiteko bear dan, damuaren laugarren doaya da kalte, eta gaitz guzien gañetikakoa izatea: esan nai det, alako eran, eta añ benaz damutu bear zayo bekatariari, Jaunari egiñ diozkan bidegabeaz, non nayago lukean, edozeñ kalte, eta gaitz gertatu balitzayo, ezen ez bekatuan erortzea. Era onetan prest arkitzen zan S. Paulo Jesus maitagarriaganako ongi nai, eta amorioa ez uzteko. Gerta diteke, emengo neke, eta kalteak dakarden nai gabe, eta damua aziagoa, eta nabarbenagoa izatea bekatuena baño. Jakob Patriarkak, Jose bere seme maitearen ill berria eman zioenean, naigabez puskatu zituan soñekoak. Santa Paula, bere umeren bat iltzen zitzayonean, ainbesteraño naigabetzen zan, non S. Jeronimok dionez, iltzeko zorian jartzen zan. Etzan añ azia, eta agiria Jakobek, eta S. Paulak zuen bekatuen damua, baña bai balio, eta prezio andiagokoa; zeren alako eran damuturik zeuden Jaunaren kontra-egitiñ zituen utsegitiaz, non prest arkitzen ziran umeak, eta gauza guziak galtzeko Jauna ez galtzeagatik. Ezkutu lodi bat onza erdi bat urre baño andiagoa da, baña onz-erdi

urreak askoz geyago balio du. Diot au etzabiltzaten zeren buruak nastutzen gai onetan. Asko degu gaurko.

Aditu dezu, Kristaua, zer, eta nolako doayak eskatzen dituan, konfesio ona egiteko beardan damuak: eta au gutxienez. Saya zaite bada damu egiazkoa sortzera sarritan, eta batezere Konfesatzeko prestatzen zeranean: egiñ dezagun guziok alegiña gure Jaunaren Lege Santa gordetzeko, eta iristeko betiko bizitza. Amen

AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

1. *Adirazten da lenengo lekuan, zer dan beldurrezko damu edo Atrizioa.*
2. *Urrena, nola au sortu dezakegun gure biotzetan.*

Konfesio ona egiteko bear dan bigarren gauza da, egindako utsegite, edo bekatuen damua. Eskatzen ditu damu onek lau doai. Lenengoa da *Zerutikakoa*, edo *Sobrenaturala izatea*. Bigarrena, *barrendik*, edo *biotzetik jayoa izatea*. Irugarrena, bekatu larri, edo mortal *guzietara zabaltzen dana*. Laugarrena, *kalte, eta gaitz guzien gañetikakoa izatea*: esan nai det, alako eran, eta añ benaz damutu bear zayola bekataritari, Jaunari egin diozkan bidegabeaz, non nayago lukean, edozeñ kalte, eta gaitz gertatu balitzayo, ezen ez bekatuan erortzea.

Lau doai oek dituan damu au da bi gisatara. Bata da *beldurrezkoa*, eta *berekoya*, eta deritza *Atrizioa*, eta onen gañean izango da gaurko Erakusaldia. Aditzero emango det, lenengo lekuan: *zer dan beldurrezko damua*, edo *Atrizioa* esaten diogun au? Urrena,

nola au sortu dezakegun gure biotzetan. Enzun, Kristaua, arreta andiarekin.

§ I.

Zer ote da beldurrezko damua, edo Atrizioa esaten diogun au? Au da damu bat biotzean sortzen dana, lenengo lekuan, zeren gauza guziz itsusia dan, Zerurako egiñ, eta bere semearen odol preziotsuaren kostuz erosi ginduan Jaunaren kontra altxatzea, eta bekatu egitea. Bigarrena, zeren bekatu larria egitean, galdu degun Jaunaren grazia, eta Zerurako esku, eta deretxa guzia. Irugarrena, zeren bekatu larri bakoitzarekin irabazi ditugun betiko su, eta garrak, edo infernuko penak. Laugarrena, zeren Jaunak guganako urrikimentuaz deitzen digun bekatutik irteteko, eta eskeintzen digun gure eskergabekeria guzien barkazioa, Jesusen eriotza, eta merezimentuak bitarteko dirala. Gauz oetatik edozeñ gogora ekarririk, sortzen dan damua da *beldurrezkoa*, eta *berekoya*, eta deitzen zayo *Atrizioa*. Beldurrezko damua da au, zeren sortu oi dan betiko bizitza galtzeko, eta betiko su, eta garren artean erortzeko beldurrez. Gañera *Atrizioa*

deritzan damu au da *berekoya*, zeren biotzak sortzen duanean, bere on, eta egitekoari bakarrik begiratzen dion. Damu onek uts-utsik, ez dio bekatariari emango graziaren apaindura ederra, baña prestatzen du, au iristeko, Konfesioko Sakramentuarekin batean, dio Trentoko Konzilioak (ses. 14 cap. 4 de Paenit.) Onena da, konfesorako prestatzen geranean, ongi gogora ekartzea ala beldurrezko, nola onezko damuaren bideak, eta benaz damutzea, gure Aita onaren kontra egiñ ditugun bekatuaz.

Badirudi, onenbesterekin igerri bear lukeala Kristauak, zer gisatan molda ditekean Atrizioa deritzan damu au biotzean sortzeko; baña uste det geyenakiñ gertatzen dala, nekazari baten semeari gertatzen zayona, Aitak soro-lanak egiteko modua erakusten dionean. *Etxaurreko soro andi au maneatu bear dezu garia ereiteko, esaten dio semeari. Lenengo lana da larrak, eta zorkotzak kentzea, eta soroaren ertzak ederki atxurrarekin garbitzea: gero layatu, eta aretu bear da. Atzenean sasoi onean ereiñ bear da azia: baña azia botatzen da aretu baño lentxeago.* Aditzen du semeak au guzia; baña nola lan oek egitera oitua ez dagoan, eztaki nola ekiñgo dion lanari. Artzen du Aitak berekiñ: eramaten du sorora, eta arida Aitarekin

batean lanean; eta len eziñ ongi aditu zuana, gero erraz aditzen, eta egiten du. Au bera, edo onen anze-ko gauza bat egiñ bear da zurekin, Kristaua, ikasi dezazun, nola molda zaitezkean beldurrezko damu, edo Atrizioa sortzeko. Atoz nerekin.

§ II.

Egin dezu, Kristaua, zure bekatuen examina? Sortu nai dezu oen *beldurrezko damu, edo Atrizioa?* Ipiñi itzazu bada animaren begien aurrean, damu oni dagozkan bide egokiak, fedeak erakusten dizkigun eran, eta oek ukitu dira asieran. Damu bide oen artean lenengo lekuan aitatzen du Trentoko Konzilioak bekatuaren itsustasuna (ses. 14 cap. 4 de Paenit.) ez ordea zerez dezun argitasunarekin igerritzen dezu-na, baizik fedeak erakusten dizuna, egiñ dezagun kontu *zeren gauza guziz itsusia dan, Zerurako egiñ eta bere Semearen odol preziotsuaren kostuz erosi ginduan Jaunaren kontra altxatzea, eta bekatu egitea.* Egin det bekatu, esan dezakezu Jaunaren aurrean: *Peccavi.* Egin det bekatu eziñ konta al bider, ni Zerurako egiñ, eta bere Semearen odol preziotsuarekin

erosi ninduan Jaunaren kontra: *Peccavi*. Esan det, itzez ezpada, obraz: ez det jaun au serbituko: au da Jaun onek Jeremiasen autik gure kontra agertzen duan espadasun andia. Autsi dezu, dio, nere Legearen uzta-
rria, urratu dituzu nere Aginteen edeak, eta esan dezu: ez det Jaun au serbituko: *Confregisti jugum meum, rupisti vincula mea, et dixisti non serviam* (Jerem. 2.^o). Nere anima, ez da au eskergabekeria guziz itsusia? Luzifer, Jaunaren grazian zegoan bitartean, eguzkia baño ederragoa zan; baño leku eman zion antuste, eta soberbiaren bekatuari, eta bereala amildu zan betiko su, eta garren artera; eta nork ezan, zeñ itsusi, eta nazkagarria geratu zan? Santa Katalina Senakoari agertu zion Jaunak Deabruaren itsustasuna, eta ainbesteraño izutu zan, non esan oi zuan, naiyago zuala oñ utsetan, eta ikatz erazekiz ezarritako bidean munduaren bukaeraraño ibilli, ezen ez berriz Demonioa ekusi. Eta nondik datorkio Demonioari onenbeste itsustasun? Egiñ zuan bekatu artatik. Eta antuste, eta soberbiaren bekatu batek au egiñ bazuan Aingeru añ ederragan, zer egiño ez due zuan, Kristaua, ainbeste bekatuk? Zeñ itsusi, eta nazkagarria etzera egongo Jaunaren begietan?

Peccavi: Egin det bekatu, esan dezakezu: eta galdu det Jaunaren grazia, eta Zerurako esku guzia. Au da Atrizioa sortzeko bigarren bidea, fedea baka- rrik erakusten diguna; fedeaz kanpora alabaña ez da animako graziaren, eta Zeruko bizitza doatsuaren berririk. Galdu det bai benikbeñ Jaunaren grazia. Ay! eta baziñaki, nere anima, zeñ andia dan graziaren doai au! *Si scires donum Dei?* Zuretzat doai au irabaz- teko, etorri bear izan zuan lurrera Trinidadeko biga- rren Personak, eta kosta zitzayon bere bizitza ematea. Doai onek animan sartzen dan unean bertan, ayena- tzen ditu bekatu guziak; piztutzen du bekatuan illa zegoan anima, eta apaintzen du Zeruko birtute, eta doayakin. Orregatik deitzen dio Jesu-Kristok eztayeta- ko soñekoa: *Vestem nuptiatem*. Eta doai au galdu dezu añ erraz? Doai onek gizona egiten du Jangoikoa- ren Seme, eta adiskide, Jesu-Kristoren Senide, Espiritu Santuaren jaureki, eta Zeruaeren jabegai. Eta doai au galdu dezu bekatuaren atsegiñ apur bategatik? *Pecca- vi*: egiñ det bekatu, eta galdu det gañera betiko bizi- tza doatsua: galdu ditut betiko atsegin-kontentuak, eta itz batean galdu det nere Jaungoikoa. Au egiñ dezu nere anima, eta etzera damuz, eta negarrez desegingo? *Peccavi*: egin det bekatu, eta zer irabazi

det? Zer atera dezue, orain lotsatzen zaituen bekatu orietatik, esaten digu S. Paulok? *Quem ergo fructum habuistis in illis, in quibus nunc erubescitis?* Zer? betiko su, eta garrak: betiko pena, eta oñazeak baizik? (Eta oek dira, Kristaua, Atrizioa sortzeko irugarren bidea.) Jatxi zaite bada, nere anima, gogorazioz, edo pensamentuz oñaze aen toki izugarri, gero jatxi etzaitez betiko. Zer dala uste dezu toki ura? Ura da Demonioaren, eta bere serbitzarien lize izugarri bat, non betikotasun guzian egon bearrak diran oñazez lertzen. Ura da beti sutan dagoan labe ikaragarri bat, beñere itzaliko ez dana: eta bekatariak berak izango dira ango egurra, eta ikatza. Ura da sufre erazekiz irakiten dagoan ainzira, edo putzu bat, non Satanas, Ante-Kristoa, eta bekatuaren erakusleak egon bearrak diran betiraunde guzian. Ura da neke, eta pena guziak onaren kutsurik gabe diran lekua. Au guzia, eta geyago aditzera eman digu Eskritura Santan. Ara amiltzen dira biraugilleak, eta umeak ongi azitzeko arretarik ez duenak. Ara amiltzen dira, edanari, eta alperkeriari ederretsirik, etxeaz, zorraz, eta beste egin bidez azturik bizi diranak. Ara amiltzen dira, lagun urkoai bekatuako bidea ematen diezenak, dala itzez, dala ezkonzaren ustearekin, dala bestela. Ara amiltzen

dira, bekaturako bideak, etxeak, eta lagun gaiztoak, ibillera lotsagarriak utzi nai ez dituenak. Ara amiltzen dira irabazi debekatuetan, eta besteren gauza biurtu naigabe bizi diranak. An daude oñazez lertzen, adiaz eta orroaz.

Gaitz-erdi lizake, noizbait bukatu bearrak balira neke oek: baña ez dira beñere bukatuko. Joango dira urteak urteen ondoren, eta etzate puskarik txikiena ere kenduko. Galde Luziferri, galde Kaini, galde an arkitzen diran guziaz. Luzifer munduaren asieratik andago, eta asieran daude aren oñazeak. Sei milla urte badira Kain ara jatxi zala, eta ez dira batere arindu aren nekeak. Milloika joango dira urteak, eta ez dira gutxituko. Ezagutuko due au an dauden, eta egongo diranak: Oroituko dira, nola beste asko, bearbada bekatari andiagoak, Zerura joan zirala, zeren garai onean zentzatu, eta biurtu ziran Jaunagana, eta ay! esango du doakabeak: *ni emen, eta beliko! betiko, betiko!* *Betiko* au izango da ar bat, animari ozka bezala beti ariko zayona, eta beñere ilko ez dana. Kendu naiko du beregandik, baña eziñ duala ekusirik, asiko da birauka bere gurasoen, eta lagunena kontra. Gutxi da au: madarikatuko ditu Zeruko Santuak, Aingeruak, eta Birjiña txit Santa bera. Madarikatuko du atzenean

Jaungoikoa ere. Bukatu naiko du bere burua eta otsegingo die aitz, eta mendiai: amildu zaitezte nere gañera, eta ler nazazue: *Cadite super nos*: baña alperrik, zeren iges egingo duan eriotzak aetatik, dio S. Juanek: *Mors fugiet ab eis* (Apoc. 6). Ekusten dezu, nere anima, zer irabazi dezu zure bizitza lotsagarriarekin? Eta au guzia ezagaturik ez ote zera zure Jaunagana biurtuko?

Peccavi: egiñ det bekatu nere Aita guziz urrikaritsu, edo Miserikordiatsuaren kontra! Begira, nere anima, arreta onarekin, nolako urrikaltasuna dan zure Aita onena, eta nola deitzen dizun beregana. Au da atrizioa sortzeko laugarren bidea. Eroiri zan Adan bekatuan: galdu zuan Jaunaren grazia, ala guretzat, nola beretzat: eta ainbesteraño urrikaldu zan guzaz Jauna, non eman zuan bere Seme bakarra, gu Zerurako bidean ipintzeko: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret* (Joan 3). Egiñ zuan Dabidek bekatu, eta beragana biurtu zan bezala, barkatu zion. Magdalenak bere ergelkeri, ta janziera arroakin eman zuan asko bide bekatuako. Joan zan Jesusen oñetara, eta barkatu zion guzia. Ebanjelioko Seme ondatzallearekin au bera egiñ zuan. Biurtu zion, galdu zuan graziaren apaindura ederra, eta egiñ zuan festa

andi bat. Ez du mingañik Dabidek Jaunaren urrikimentu, edo Miserikordia alabatzeko. Batzuetan dio, Jaunaren Miserikordiaz betea dagoala lur guzia: *Misericordia Domini plena est terra*. Besteetan esaten digu, Zeru guzien erpiña baño gorago igotzen dala Miserikordia onen anditasuna: *Magnificata est super Coelos Misericordia tua*. Jaunaren Miserikordiak kantatuko ditut betikotasun guzian: *Misericordias Domini in aeternum cantabo* (Psalm. 32, 56 et 88). Jaunaren Miserikordiaren anditasun au ezagutzeko asko dezu, nere anima, zurekin egiñ duanari begiratze utsa. Zenbat bider bidaldu zintzakean betiko su, eta garren artera? Zenbat bidaldu ditu ara zuk baño bekatu gutxiago egiñ zuenak, eta bearbada zure lagun batzuetan bekatuan izan ziranak? Eta zuri itxedon dizu, eta arkitzen zera zere utsegiteak zuzentzeko eran. Nondik zuri onenbeste ontarte, eta mesede? Jaunaren Miserikordiari eskerrak, galdu ez geranean, esan dezakezu Jeremiasekin: *Misericordiae Domini, quia non sumus consumpti* (Tren. 3). Ta au guzia gutxi baliz bezala, besoak zabaldurik deitzen dizu, eta zure eskergabekeria guzien barkazioa eskeintzen dizu. Ez det nai, dio, bekataria galtzea, baizik nigana biurtzea, eta nere grazian bizitzea: *Nolo mortem impij, sed ut*

convertatur, et vivat. Bekataria nigana biurtzen dan unetik aztuko naiz egiñ dizkidan eskergabekeria guziaz (Ezech. 18 et 33). Nere anima, ez dezu ekusten nolakoa dan zure Aitaren urrikimentu, edo Misericordia? Ez dezu aditzen, nola deitzen dizun? Zoaz bada beragana, eta esan zayozu: O nere Aita maitagarria! zeñ andiak diran zure Misericordiak! eta zeñ izugarriak nere eskergabekeriak! Zu zera nere Ongille eziñ andiagoa. Zu zera nere zori ona, eta doatasuna! Zu zera niri ongi naye zere Seme bakarra lurrera bidaldu zenduana. Zu zera beraren eriotza, eta merezime-rituak bitarteko dirala, bekatuak barkatzen dituzuna konfesio onaren bidez. Zu zera Zeruko graziaren, eta doayen Emallea. Sinistu det au guzia zuk esan, eta Eliz Ama Santak erakutsirik, eta Zugana nator Zure Urrikimentu, edo Misericordiaren uste, edo esperanza osoarekin. Ai nere Ongille Andia! Zure kontra altxa ni ainbeste bider! Zure kontra egiñ nik ainbeste bekatu! Il banintz lenago! Artzen det asmo osoa, ez geyago bekatu-rik egiteko, bekatuaren bideetatik aldegitoko, eta konfesatzeko.

Orra, Kristaua, zerdan, eta nola sortu dezakegun gure biotzetan beldurrezko damu, edo *Atrizioa*. Sasoi onetara datorrenean biotza, esan dezakezu zeregan:

Nere anima, eta zuretzat, izanik zu añ eskergabea; zuretzat añ ona, eta maitagarria izan bada zure Aita Zerukoa, zer ontasun, edo maitagarritasuna izango da beregan? Eta beregan duan maitagarritasun oni begiraturik sortzen dezun damua izango da *onezkoa*, edo *Kontrizioa*. Saya gaitezen, Kristaua, gure bekatuen damu egiazkoa sortzera eta bizitza berri on bat egitera, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

AMABIGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da, lenengo lekuan, zer dan onezko damu, edo Kontrizioa, eta nolako doayak eskatzen dituan?

Urrena, zeñ miragarria dan damu onen indarra bekatuak ayenatzeko?

Atzenean, nola sortu dezakegun gure biotzetan onezko damu, edo kontrizio osoa?

Konfesio ona egiteko bear dan bigarren gauza da egindako utsegite, edo bekatuen damua, eta da bi gisatara. Bata da beldurrezkoa, eta *berekoya*, eta deritza *Atrizioa*. Onen gañean izan zan azkeneko Erakusaldia. Bestea da *Onezko damu* edo *kontrizioa*, eta onen gañean itzegin nai dizut gaur, Kristaua. Aditzera emango dizut lenengo lekuan: zer dan onezko damu, edo Kontrizio osoa, eta nolako doayak eskatzen dituan? Urrena, zeñ miragarria dan damu onen indarra bekatuak ayenatzeko? Atzenean, nola sortu dezakegun gure biotzetan onezko damu, edo Kontrizio osoa? Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Onezko damu, edo kontrizioa da damu bat biotzean sortzen dana, *zeren, Ontasun eta Maitagarritasun baztergabea dan*, Jaunaren kontra bekatu egin degun. Deitzen zayo *Onezkoa*, zeren damu au sortzeko bidea dan ez beldurra, baizik Jaunaren Ontasun, eta Maitagarritasun bazterrik, eta neurririk ez duana.

Onezko damu, edo kontrizio osoak eskatzen ditu sei doai, bekatuak ayenatzeko. Lenengoa da *Zerutikakoa, edo Sobrenaturala izatea. Zerutikakoa*, zeren Espiritu Santuaren lagunz, eta graziarekin sortu bear dan. Zerutikakoa gañera, zeren jayo bear duan fedea erakusten digun damubidetik, eta au da, Santo Tomasen iritzian, *Jaunaren Ontasun, eta Maitagarritasun bastergabea*. Ez degu guk ezagutzen Jaunaren Ontasuna beregan dan eran, baña ezagutu dezakegu egin dituan obra miragarrietan ispillu batean bezala. Oba oek batzuek dira, gizonak berez duan argitasunarekin ezagutu ditzakeanak, eta argitasun berarekin igerri dezake, zeñ On, eta Maitagarria izango dan gauz oen Egillea. Ekusten dituzu Zeru eder oriek gau argi batean. Ekusten dituzu Eguzkia, eta izarrak. Ekusten dituzu lurrean loreak, arbolak, abere edo ganaduak,

urre, ta zillarra. Nork egin zituan gauz oek, diozu Isaias Profetarekin: *Quis creavit haec?* Eta zerez dezun argitasunak erantzuten dizu, gauz oek guziak egiñ zituala Jaunak. Orduan diozu zeregan: *Gauz oek añ onak, eta ederrak badira, zeñ ona, eta ederra, edo maitagarria izango da oen Egillea? Nai, ta ez guziz ona, ederra, ta maitagarria. Eta Ontasun onen kontra egindet nik bekatu ainbeste bider? Damudet biotz guzitik,* Ona nola zerez dezun ezaguerarekin igerritzen dezun, guziz On, eta maitagarria dala Jauna, zeren ala aditzera ematen diguen ekusten ditugun gauzak berak. Ontazun gisa onetan ezagutuari begiraturik sortzen dan damua *onezkoa edo kontrizioa* da, ez ordea *Zerutikakoa*, eta fedearen ezagueratik datorrena, baizik gerenez degun argitasunagandik jayotzen dana: ona da damu au, eta lagun dezake bear dan damura igotzeko; baña ez da gai, edo gauza bekatua ayenatzeko biotzetik, ez eta Konfesio ona egiteko ere.

Beste obra batzuek dira, gerenez degun argitasunarekin ezin ezagutu ditzakegunak, eta fedearen argiak bakarrik erakusten dituanak. Onelakoak dira: *Jaunak egiñ ginduala betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izateko: Adanen bekatuarekin galdu genduala Jaunaren grazia, eta Zerurako esku*

guzia: Utsegite au zuzentzeko, jatxi zala Zerutik Trinidadeko bigarren Persona, egiñ zala gizon: itz batean gure Erospen edo Redenzioari, eta Sakramentuai dagozten Misterioak. Obra oen berririk eztaki gizonak, berez duan argitasunarekin, Platon, Aristoteles, eta Zizeron baño jakintsuago baliz ere; baño Misterio oek ezagutzen ditu fedearen argiarekin, eta emendik ateratzen du Zeñ On, eta Maitagarria izango dan beregan, guri Ongi nayez Misterio miragarri oek egin dituan Jauna: eta fedearen argiarekin ezagutzen dan Ontasun baztergabe au da Onezko edo Kontrizio osoaren bidea.

Onezko damu, edo kontrizio osoak eskatzen duan bigarren doaya da barrendik, edo biotzetik jayoa izatea. Irugarrena, bekatu larri, edo mortal guzietara zabaltzen dana. Laugarrena, kalte, eta gaitz guzien gañetikakoa izatea, esan nai det, alako eran, eta añ benaz damutu bear zayola bekatariari Jaunaren Ontasun baztergabearen kontra egiñ dituan bekatuaz, non nayago lukean edozeñ kalte, eta gaitz gertatu, eta gertatzen balitzayo, ezen ez Jaunaren Ontasun miragarriaren kontra bekatu egitea, Bostgarrena doaya da aurrera bekatuak ez egiteko, eta egiñak konfesatzeko, asmoa. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak.

Alperrik negar egingo du bekatariak, eta alperrik kolpe andiak emango diozka bularrari, ez du bekatua-
ren barkaziorik iritsiko, ezpadu aurrera bekatu-
rik ez egiteko, eta egiñak konfesatzeko asmorik. Seigarren
doai, edo kondizioa: batzuen iritzian onezko damu,
edo kontrizio osoak eskatzen du aurretik, edo denbo-
ra berean *akto karidadezkoa*: baña geyenak erakus-
ten due, onezko damu, edo kontrizio osoa bera dala
akto karidadezkoa, edo berekin daramala Jaungoikoa-
ganako onginei, eta amorioa; eta dana dala gauz onen
gañean, onezko damu, edo kontrizioa sortzen bada,
doktrinak erakusten duan eran, berekin du Jaungoiko-
ganako amorioa, eta au aditzera ematen due itz oek:
Eta zergatik amatzen zaitudan gauza guzien gañetik.
Orra nolako doai, edo kondizioak eskatzen dituan
onezko damu, edo kontrizio osoak. Dakuskun oraiñ,
zeñ miragarria dan damu onen indarra, bekatuak aye-
natzeko.

§ II.

Onezko damu, edo kontrizioa, egindako bekatuak
konfesatzeko asmoarekin, añ prestua, eta indar andi-

koa da bekatuaren kontra, non, biotzean sortzen dan
unean bertan, ayenatzen dituan bekatu mortal guziak,
Trentoko Konzilioak erakusten digun bezala (ses. 14
cap. 4 de Paenit.). Demagun Indietako bazter batetik
etortzen zakula balsamo bat illak piztutzen, eta gaitz
guziak ayenatzen dituana. Esangidazu, Kristaua, ez
lizake miragarria izango balsamo au? Jakizu bada, bal-
samo au baño askoz miragarriagoa dala onezko
damu, edo kontrizio osoaren balsamoa. Damu onek
ayenatzen ditu animako gaitz guziak, eta piztutzen
ditu illak, baita bekatuan ustelduak zeuden bekatariak
ere. Zer geyago? Apaintzen du anima graziaren jan-
ziera ederrarekin: birtute, eta doayez betetzen du: eta
egiten du Jainkoaren seme, eta Zeruaren jabegai. Au
guzia aditzera ematen digu bekatari askorekin gerta-
tu danak. Egin zuan Dabidek bekatu, ez nolana, bai-
zik Uriasen emaztearekin, eta illerazo zuan Urias. Nat-
han Profetak Jaunaren agintez begien aurrean ipiñi
zion Dabidi bere bekatu itsusia: ezagutu zuan Erregek
bere gaizki egiña, eta esan zuan: egin det bekatu:
Peccavi Domino. Alako damuarekin esan zuan au, non
bereala barkatu zion Jaunak (2.º Reg. c. 12). Au bera
gertatu zan Santa Maria Magdalenarekin. Santa Maria
Magdalena zan Lazaro, eta Martaren senidea. Il

zitzaizten gurasoak, eta bakoitzak artu zuan gurasoen ondasunetatik zegokana, eta Magdalenak beste ondasunen artean artu zuan Magdalako etxe, edo gaztelua. Zan berez bizia, txit ederra, eta bere griña nagusia zuan bere burua apaintzea, eta gero ezkutari asko bera ekustera, eta losentxatzera joatea. Egin zuen Lazarok, eta Martak alegiña, Magdalena modestiaren muga barrunbean idukitzeko: baña alperrik. Aspertu zan senideen atelekaz, eta joan zan Magdalako gaztelura. Ez da gogora ekarri besterik, zer bizimodu izango zan, Magdalenak bere gaiñ, esan oi dan bezala, eta bere erara jarririk, egingo zuana. Apaindurak, ergelkeria, jolasa, eta bere anzeko buruakin egotea, eta ibiltzea zan aren atsegin guzia, eta laster zabaldu zan inguruan esanmesa, eta usai txarra. Jesus zebillen Betsaidan, eta Magdalena bizi zan lekutik ez urruti bekatariari Zerurako bidea erakusten. Joan zan Magdalena ere Jesus aditzera, ez noaski bizitza berri-ona artzeko asmoarekin, baizik Jesusez esaten ziran gauza miragarriak obeto jakiñ naye. Ozta aditu zuan Jesus, ezagutu zuan bere bizitza gaiztoa: eta itz bakoitzak arpoi baten eran igaro zion biotza. Itzegin nai zukean Jesusekin: aditu zuan, bazkaldu bear zuala Simon Fari-seoaren etxean goimallako gizon askorekin. Etzan

egun egokia Jesusekin itzegiteko: baña ainbesteraño estutzen zuan bere bekatuen oroipenak, non erabaki zuan Jesusengana joatea, munduak egingo zituan erausi, eta isekai begiratu gabe. Sartzen da bazkal tokian: eta bazkaldar guziak begira zeudela, jartzen da Jesusen oñetan: umantzen ditu negarrez, eta gañera, leku aetan usatzen zan eran, ganzutu zituan balsamoz. Arriturik zegoan Fariseoa, eta beregan zion: Profeta baliz gizon au, jakingo luke, nor, ta nolakoa dan oñak malkoz garbitzen diozkan emakume au, eta ez lioke alderatzen ere utziko. Ezagutu zuan Jesusek Fariseoak gogoan zerabillen guzia: aditzera eman zion, beste asko gorputzeko gaitzak sendatzeko zetozkion bezala, emakume ura animako gaitzak sendatu nayezer torri zitzayola, ez nolainai, baizik Jaungoikoaganako ongina, eta amorioz betea: eta beragatik barkatzen zitzaizkala asko bekatu: *Quoniam dilexit multum*. Biurtzen da Magdalenagana, eta esaten dio: Barkatuak daude zure bekatuak: *Remittuntur tibi peccata*. Zoaz pakean (Luc. 7). Ekusten dezu, Kristaua, zeñ miragarria dan onezko damu, edo Kontrizioak, bekatuak aye-natzeko, duan indarra?

Baña ez du egia au, Ebanjelioko seme ondatzallearen ipui gozoan bezeñ ederki, Eskritura Santak aditze-

ra ematen. Fariseoak erausi asko egiten zituen Jesu-
sen kontra, eta oen artean bat zan, zeren biguiñegia
zan bekatariarekin, eta beiñ baño geyagotan berakin
jaten ekusi zan. Orregatik aditzera eman nai izan zien,
zeñ andia zan Aita Zerukoak beragana biurtzen dan
bekatariarekin duan ontasuna, eta onetarako esan
zien seme ondatzallearen ipuya. Aita batek zituan bi
seme, eta gazteenak eskatu zion etxetik zegokana:
eta Aitak bereala eman zion. Gure seme ergela joan
zan urrutietara, eta zuan guzia ondatu zuan emaku-
me-zurrian. Leku aetan sartu zan gosete andi bat, eta
gure gazte ergela arkitzen zan ezer gabe. Jarri zan
etxe batean morroi, baño nagusi añ prestuezarekin,
non ipiñi zuan txerri zai. Goseak igaroa bizi zan, eta
pozik jango zitukean, zerriak jaten zituen azakirtenak
ere; baño etzizozkan iñork ematen. Ekusirik era onetan
bere burua, esan zuan beregan: *Zenbat langillek nere*
aitaren etxean naroro, edo ugari jaten due ogia?
Abundant panibus? Ta ni emen arkitzen naiz goseak
erkitua, eta illtzeko zorian: *Ego autem hic fame pereoo.*
Zer egiñ al dezaket? Zer, ezpada nere Aitagana joa-
tea. Joango naiz bada, eta esango diot: Aita, egin det
bekatu Zeruaren aurrean, eta zure kontra: ez naiz
zure semearen izena, eta onra izateko diña; baño ar

nazazu zure langilleen artean bederik. Au gogoan igarota, abiatzen da Aitaganonz. Urrutitik ekusi zuan Aitak, nola beraganonz abiatu zan semea: urrikaldu zan: irten zitzayon bidera, eta semeak bere zentzuga-bekeria aitortu baño ere lenago eman zion laztan estubat, eta artu zuan bere etxean. Asi zan semea bere bekatua aitortzen; baño Aitak, igaroaz aztua zegoanaren eran, agindu zuan, ekarri zegioela len zuan, eta semeari zegokan soñeko ederra, au da graziaren janziera: eman zegioela *eraztuna*, au da karidadearen birtutea: ekarri zegiozkeela oñetako berriak: oek dira Zerurako bidean ongi ibiltzeko laguntzak. Illerazu zuan zekor gizen bat: deitu zituan auzoak, eta soñulariak, eta egiñ zuan fest andi bat: zeren zion: il zan nere seme au, eta piztu da: galdu zan, eta arkitu da: *Mortuus erat, et revixit. perierat, et inventus est* (Luc. 15). Orra Jesu-Kristok berak Fariseoai esan zien ipui gozoa. Ipui, edo parabola onek adirazten digu Aita Zerukoaren ontasun baztergabea. Adirazten digu gañera, onezko damu, edo kontrizio osoak ayenatzen dituala bekatuak konfesioa baño ere lenago, seme ondatzallearekin gertatu zan bezala: egia da, beti geratzen dala beartua bekataria, bere bekatuak aitortzera, edo konfesatzera. Emendik atera ezazu, Kris-

taua, zeñ andi, ta miragarria dan onezko damu, edo kontrizioaren indarra. Goazen oraiñ ekustera, nola sortu dezakegun gure biotzetan onezko damu au.

§ III.

Egiñ dezu, Kristaua, zure bekatuen examina? Eta sortu nai dezu onezko damu, edo kontrizio osoa? Damu au sortzeko bidea da Jaunaren ontasun, eta maitagarritasun baztergabea, fedearen argiarekin ontasun oni, eta beraren kontra egindako bekatuai begiratzen diegula. Jarri zaite bada Jaunaren aurrean, eta saya zaite era onetan.

Egiñ det bekatu, esan dezakezu, eziñ konta al bider nere Jaunaren kontra: *Peccavi*. Nor dala uste dezu, nere anima, zuk bekatu egitean utzi dezun Jaun au? Fedeak erakusten dizu, Jaun au dala zu ezer eze-tik atera, eta Zerurako egiñ zinduana. Fedeak erakusten dizu, Adanen bekatuarekin galdu zenduala Jaunaren grazia, eta Zerurako esku guzia. Fedeak erakusten dizu, zure Aita Zerukoa ainbesteraño guzaz urrikaldu zala, era onetan gu galduak ekusirik, non gu Zerurako bidean ipintzeko, bidaldu izan zuan lurrera bere Seme

barkarra. Ala esaten digu S. Juanek: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret* (Joan. 3). Fedeak erakusten dizu, Trinidadeko bigarren Persona, Aita betikoaren Seme bakarra, eta Jaungoiko egiazkoa gizon egin zala Birjiña txit Santaren Sabelean Espiritu Santuaren obraz, eta graziaz. Eman zuan gugatik gurutzean bere bizitza, eta irabazi zuan guretzat Jaunaren grazia, eta Zerurako zuzen, edo eskua. Au egiñ ondoan piztu, eta igo zan Zerura. Amatu ninduan, eta eman zuan nigatik bere burua, dio S. Pablok: *Dilexit me, et tradidit semetipsum pro me* (Ad Galat, c. 2). Fedeak erakusten dizu, Jaun onek, biurtzen bada bera-gana bekataria biotz osoz, gozotoro artzen duala, len ekusi degun bezala: *Ez det nai dio, bekataria galtzea, baizik nigana biurtzea, eta nere grazian bizitzea* (Ezech. 33). *Nigana biurtzen dan unean bertan aztuko naiz egiñ dizkidan eskergabekeri guziaz* (Ezech. 18). Fedeak erakusten dizu, guri graziaren doai, eta janziera ederra emateko, ipiñi zituala zazpi iturri edo Sakramentu, graziaren ur gozoa beti ematen ari, eta beñere agortzen ez diranak, oen artean batayokoa, bekatu jatorrizko, edo orijinala barkatzeko. Sakramentu onekin barkatu zizun lenengo gurasoetatik datorkigun bekatua: apaindu zinduan graziaren soñeko ederrare-

kin: egiñ zinduan bere Elizaren ume, eta ipiñi zaitu betiko bizitza iristeko eraz betea. Nondik zuri onen-beste ontarte, edo mesede? Zenbat utzi ditu Jaunak batayorik, eta federik ez duen bazterretan? Zenbat batayo gabe iltzen dira batayoa duen errietan ere? Eta zu bizi zera batayoko Sakramentua arturik Jesu-Kristoren legean. Ekusi zuan Jesus onak, graziaren soko ederrarekin batayoan apaindua geratu baziñan ere, arkitzen ziñala gaitzerako makurtua, eta eroriko ziñala bekatuan: eta ipiñi zuan beste Sakramentu bat, illak piztutzen dituana: au da Konfesioko Sakramentua. Fedeak erakusten dizu, utzi zigula beste Sakramentu bat, *Komuniokoa* deritzana. Gugatik bere bizitza gurutzean emateko zegoan bezperan gañez egiñ zion guganako onginei, eta amorioak, eta ipiñi zuan Sakramentu miragarri au, gurekiñ bizitzeko, eta guri emateko bere gorputza, bere odola, eta bera dan guzia. Izanik gure Jaungoikoa guzialduna, edo Omnipotentea, alaere eman duan baño geyago eziñ eman zezakean: izanik guziz jakintsua, etzuan jakiñ, zer geyago guri eman: eta izanik guziz aberatsa, etzuan izan zer geyago eman, dio S. Agustiñek. Esan zadazu oraiñ, nere anima: au guzia guri ongi nayez egiñ duan Jaun au zeñ On, eta maitagarria izango da beregan? Eta nork ama-

tuko ez du Jaun au? Baña ay! Jaun au amatu bearrean, altxa gera ainbeste bider beraren kontra, eta itzez ezpada, obraz esan degu: ez det Jaun au serbituko: *Dixisti: non serviam*. Au da Jaunak berak Jeremiasen autik agertzen duan espa andia. Nere anima! Au egiñ guk Aita añ On, eta Maitagarriaren kontra, eta ez gera damuz, eta negarrez beragana biurtuko? O Ontasun neurrik, mugarik, eta bazterriz ez dezuna! Zeñ berandu ezagutu zaitudan! Amatzen zaitut zure Ontasun orri begiraturik: eta amatzen ditut zure izenean nere lagun urko guziak. Damu det: O Ontasun miragarria, zu ofendituaz! Il banintz, eta iltzen banintz bekatu egiñ baño len! Artzen det asmo osoa, ez geyago bekatu egiteko, bekatuaren bideetatik aldegitteko, eta konfesatzeko.

Orra, nere Kristaua, zer gisatan sortu gentzakean onezko damu, edo kontrizio osoa, Oitu gaitezen fede, esperanza, karidade, eta kontriziozko afektoak egitera, eta Sakramentuak prestaera onarekin artzera, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

Adirazten da Konfesio ona egiteko bear dan irugarren gauza, eta zer doai, edo kondizioak onek eskatzen dituan

Konfesio on bat egiteko bear dan bigarren gauza, edo egindako utsegite, ta bekatuen damua izan da azkeneko iru Erakusaldien gaya. Orain alik ongiena itzegin bear degu, Konfesio ona egiteko bear dan, irugarren gauzaren gañean, eta au da *bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa*. Gaur aditzera emango det, benik beñ: zeñ gauza bearra dan asmo au konfesio ona egiteko. Urrena, nolako doayak eskatzen dituan. Enzun, Kristaua, arreta onarekin.

§ I.

Konfesio ona egiteko ez da asko nola nai bekatuen gañean negar egitea, eta damutzea; baizik gauza bearra da *bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egite-*

ko asmoa. Au aditzera ematen digu Jaunak Isayas, eta Ezekiel Profetaren autik. Garbi zaitezte bekatuen loyetatik, eta ez galdu garbitasun au bekatu berriakin, esaten digu Isayas Profetak: *Lavamini, mundi estote: ayena itzatzue zuen gogorazio gaistoak, utzi itzatzue gaiztakeriak, eta ikasi ezazue obra onak egiten*. Era onetan elurra bezala zurituak geratuko dira zuen bekatuak, grana bezeñ gorriak balira ere: *Quasi nix dealbabuntur* (Isaiae 1.^o).

Orra nola itzegiten digun Isayasek. Gaiztoari damutzen bazayo egindako bekatu guziaz, eta gordezten baditu osoro nere aginteak, aztuko naiz egiñ dizkidan eskergabekeri guziaz, dio Jaunak Ezekielen autik: *Omnium iniquitatum ejus non recordabor* (c. 18). Itz oetan argiro Jaunak esaten digu ikasi dezagula obra onak egiten, eta osoro gordetzen baditugu beraren aginteak, aztuko dala gure eskergabekeri guziaz, eta aditzera ematen digu, bekatuen barkaziorako gutxienez ber dala, bizitza ontzeko, edo aurrera bekatuak ez egiteko asmoa. Orregatik Florenziako, eta Trentoko Konzilioak erakusten digue, Konfesio ona egiteko, gauza bearra dala egindako utsegiteen damua, aurrera bekatuak ez egiteko asmoarekin: *Cum proposito non peccandi de caetero* (Concil. Flo-

rentin. in instructione Armenorum, et Trident. Ses. 14 cap. 4). Ekusi dezagun oraiñ, nolako doai, edo kondizioak eskatzen dituan asmo onek.

§ II.

Lenengo doai, edo kondizioa da *asmo osoa*, edo biotz guzitik jayoa izatea. Au aditzera ematen digu Jaunak, esaten digunean, *biur gaitezela beragana biotz osoz: In toto corde* (Joel 2^o) Orregatik ez da asko asmo erdi, edo laurdena; ez da asko esatea: *nai nuke: al banu: utziko balit pakean, ez nioke nik biderik emango*. Era onetan itzegiten duanak ez du bekatua uzteko asmo osorik, baizik nainukezko utsa. Asmo osoa duanak beregan osotoro erabakitzen du betiko utzitzea bekatua, edo ezergatik bekatuari lekurik ez ematea, ez eta bizitza, eta eriotzagatik ere. Asmo au ederki agertu zuan S. Paulok, galdetzen ziola bere buruari: Nork, edo zerk galeraziko digu Jesus maitagarria amatzea, eta serbitzea? *Quis nos separabit a charitate Chti?* Galeraziko ote dit barrengo kezka, edo estutasunen batek? *An angustia?* Galeraziko ote dit goseak, eta gauza guzien gabeak? *An fumes, an nudi-*

tas? Galeraziko ote dit perril andiren batean nere burua ekusteak? *An periculum?* Galeraziko ote dit *Demonioak*, eta munduak prestatu ditzakeen gurutze, eta naigabeak? *An persecutio?* Galeraziko ote dit nere lepoan ezpata ekusteak? *An gladius?* Zer diola, uste dezu, S. Pablok? Ez dio *nai nuke*: ez dio *al banu*, edo *utziko balit pakean*; baizik biotz alai, eta prestu batekin dio: *certus sum*: erabaki det, ez eriotzagatik, ez bizitzagatik utzitzea nere Jesus maitagarria. *Neque mors, neque vita*. Ona zeñ ederki agertzen duan S. Pablok konfesio onak eskatzen duan asmo osoa. Esan gidazu oraiñ, Kristaua, onelako asmo osoarekin ote gatoz Konfesioko Sakramentura? Beldur naiz, geyenai biotzak esango diela, ezetz. Batzuek alabaña auzoaren, aide, edo adiskidearen beldurrez, besteak zerbaiten uste, edo esperanza, edo urliarekikoa ez galtzeagatik kuturtzen dira Jaunaren lege Santa autsitzera erraz.

Konfesio ona egiteko bear dan asmoaren bigarren doaya da bekatu guzietara, larri, edo mortaletara beintzat zabaltzen dana izatea. Florenziako, eta Trentoko Konzilioak esaten digue, konfesio ona egiteko bear dala egindako bekatuen damua aurrera bekatu-rik ez egiteko asmoarekin: eta eziñ dateke au, asmoa

zabaltzen ezpada bekatu guzietara, larrietara bederik. Eta emen dago bekatari askorentzat aldapa gogorra, batezere oitura gaiztoen batekin arkitzen badira, edo guraren batean itsutuak badaude. Urlia da gurasoa, eta beartua dago umeai Zerurako bidea erakustera, ala itzez, nola bizitza onarekin: baña oitua dago berandu etxeratzeraz, Sakramentuetatik iges egitera: ezagutzen du zer egiñ bear lukean bere egin-bideari erantzuteko, baña ez du biotzik onetarako: au bera gertatzen zayo, alperkeriari ederretsita emaztea, eta umeak ezergabe dauzkanari. Ezagutzen du, lanari ongi jarraitu ezker, etxea bere mallan ongi igaroko lizakeala; baña ez du biotzik lanari jarraitzeko. Sandiak anziñatik du oitura gaiztoa edanean igarotzeko, itz loi desonestoak esateko, keñada lotsagarriak egiteko: badaki oitura oek utzi bear dirala, konfesio ona egiteko, baña aldapa andia da au, eta ez da trebe onik ekiten. Berendia bizitu da lagun urkoaganako gorrotoan: utzi bear da au, eta Kristauari dagokan eran prest egon bear du lagun urkoari on egiteko, eta ez dio gorrotoaren siñalerik erakutsi bear: baña arkitzen du beregan atzerapen andi bat, etsayari on egiteko, eta diosala modu onean egiteko. Urliak ekiñ diozka erriari, edo beste lagun urkoari kalteak: Sandiak an, ta

emen egiñ ditu zorrak, eta bakoitzak nai du berea: baña ez du arretarik, ez kalteak desegiteko, ez zorrai erantzuteko. Esangidazu, Kristaua: onelako bekataria sortuko ote du, aurrera gai oetan bekaturik ez egiteko asmo osoa? Ez dezazula esan, nik gogorkiro itzegiten dedala: baizik esazu zere biotzean deritzazuna. Au bera diot, gazte ergel lagun gaiztoakin ibiltzera oitu diranaz: eta au bera ezkon-gurari leku geyegi emanik, jolas, eta ibillera ez garbietara oitu diranaz.

Konfesio ona egiteko bear dan asmoaren irugarren doaia da eragillea izatea. Doai au da beste bien agiria bezala. Esan dezake bekataria, artu duala asmo osoa, bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmo osoa: esan dezake, osotoro erabaki duala, beti-betiko utzitzea bekata: baña asmo au, ezpada eragillea, ez da izango iduripen utsa baizik. Eta zer ote da asmo eragille au? Asmo bat, bekataria esnatzen, eta azkartzen duana, aurrera bekaturik ez egiteko, neurri egokiak artzera. Alperrik bekataria negar andiakin esango du, artzen duala asmo osoa, aurrera bekaturik beñere ez egiteko, ez du asmoaren irudi utsa baizik izango, baldiñ esnatzen ezpada, onetarako neurri egokiak artzeko. Demagun, zure etxeak dituala soro onak, eta iñaurkiñak ere ugari, baña urru-

titxo. Zuk ala nai izatera, izango zenduke artoa, eta garia, etxerako ezezik, saltzeko ere; baña ederretsi zeñion edanari, ibilliari, alperkeriari, eta galdu dira lurrak. Ez dezu, urterako bear dezun artoaren laurdenik izaten, eta ibilli oi zera auzoetan arto billa; baña ez dizue eman nai, zeren pagatzen ez dakizun. Jartzen zera lurrai begira: ekusten dezu, nola dauden larrez, aranzaz eta belar gaiztoz estaliak, eta negarrez diozu: *ah soroak, soroak, nere zabarkeriaz galdu zerate; baña laster ekusiko zaituetza beste gisatan emen igerotzen diranak, eta laster emango dituzue artoa, eta garia ugari.* Baldiñ au guzia esan ondoan, ezpazera esnatzen lanari gogotik ekiteko, iñaurkiñak ekartzeko, eta lurrak ongi maneatzeko, zer esango da zure asmo, eta negarraz? Esango da, asmo, eta negar anzuak zirala, edo irudipen utsak, zeren azkartu etzeran artoa, eta garia izateko neurri egokiak artzera. Au bera esango da bada bekatariak, baldiñ bere asmo, eta negar guzien ondoren artzen ezpaditu, aurrera bekatuak ez egiteko, neurri egokiak. Gerta diteke, asmo oso, eta eragilleak artuta ere, bekataria bekatuaren batean irristatzea, ez asmo oso, eta eragillearen gabez, baizik askotan izan oi diran ustekabeko perill

andiak, eta tentazio estuak. Ala gertatu zitzayon S. Pedrori.

Jauna, esango didazu: eta zer nurri dira, *asmo oso*, eta *eragilleak* eskatzen dituanak? Neurri oen artean bearrenak dira oek: lenengoa da bekaturako bide, eta perill urkoak beti-betiko utzitzea. Bigarrena, utzitzea era berean besteri bekaturako bidea ematen dioen, izketa, eta modu gaizto guziak. Irugarrena, lagun urkoari bere onran, izen onean, edo beste ondasunetan egindako kalteak desegitea, eta gauza bere jabeari biurtzea lenbait len. Laugarrena, bekaturen batean erortzeko oitura izan bada, au eskuratzeko, eta ezitzeko benaz sayatzea, eta argaltasunez irristatzea gertatzen bada, lenbait len altxatzeko alegiña egitea, Sakramentuen sendagayak artuaz, edo bestela. Bostgarrena, bakoitzaren estadu, bizimodu, eta karguari dagozkan, egin-bideai arretaz eranzutea. Seigarrena, ezagutzea ez gerala gauza, edo gai, Jaunaren grazia, edo lagunzagabe neurri oek artzeko, ez eta Jesus bat esateko ere, eta grazi au kontuz billatzea, dala Jaun berari umilki eskatuaz, eta sarritan Sakramentuak artuaz, dala Birjiña txit Santa bekatarien Ama gozoa, bitarteko ipiñiaz. Orra, Kristaua, aurrera bekaturik ez

egiteko *asmo oso, eta eragilleak* eskatzen dituan neurriak.

Begira oraiñ, konfesatzera datozenen artean asko ote diran, neurri oek artzen dituenak; eta artzen ezpeditue, zer asmorekin konfesatuko dira? Ez due izango *asmo oso, eta eragillerik*; eta guzia izango da iduripen utsa. Ez gaitezen izan añ arduragabeak animako gauzetan: oraiñdañoko utsegiteen damuarekin artu ditza-kun, aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak, eta onela iritsi dezakegu betiko bizitza. Amen.

AMALUGARREN ERAKUSALDIA

*Begiratzen da arretarekin, bizitza ontzeko,
eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo oso,
eta eragillearekin konfesatzen ote geran.*

Konfesio on bat egiteko bear dan irugarren gauza da, bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Iru doai eskatzen ditu asmo onek. Lenengoa da *osoa*, edo *biotz guzitik jayoa* izatea. Asmo au duanak beregan erabakitzen du benaz aurrera bekaturik ez egitea ezergatik, ez eriotzagatik, ez bizitzagatik. Bigarren doaia da bekatu guzietara, larri, edo mortaletara beintzat zabaltzen dana izatea. Irugarrena eragillea izatea. Asmo eragillearen izenez aditzen da asmo bat, bekataria esnatzen, eta azkartzen duana bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera. Neurri oek ukitu nituan azkeneko Erakusaldian. Neurri oek dira agiria bezala, igerritze-ko, bekataria asmo oso, eta *eragillearekin* konfesatu dan, edo ez. Orregatik neurri oei begiratuaz, ekusi bear degu gaur, nere Kristaua, bizitza ontzeko, eta

aurrera bekaturik ez egiteko, asmo oso, eta eragillea-
rekin konfesatzen ote geran. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Zuk, Kristaua, esaten diozu Konfesariari, baita Jaungoikoari berari ere, arkitzen zerala bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo osoarekin. Ongi: baña asmo au ez da begiz ekusten, eta izan diteke benazkoa, eta izan diteke iduripen utsa. Nai dezu jakiñ, bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko zure asmoa *osoa eta eragillea* izan dan, edo ez? Asko dezu onetarako ongi begiratzea, asmo onek eskatzen dituan neurriai. Atoz bada oei begiraldi bat ematera.

Neurri oen artean lenengoa da bekaturako bide, eta perill urkoak beti-betiko utzitzea. Eztago bizitza ontzeko asmo osorik, neurri au artu ditekeala, artzen ezpada. Orregatik Teologoak erakusten due S. Karlos Borromeorekin bekaturako bide, eta perill urkoak utzi bear dirala absoluzioa baño len, gutxitan gertatzen dan estutasunen bat gertatzen ezpada: eta Espiritu Santuak esaten digu: *perilla nai duana perillean buka-*

tuko da (Ecclesiastici 3). Zuretzat, nere Kristaua, bekaturako bide; eta perill urkoa izan da etxean, edo auzoan dezun urlia ori: era berean arako etxe artara joatea, edo zauden tokian bizitzea, eta orrako lagun zentzugabe oriekin ibiltzea. Zuretzat bekaturako bide, eta perill urkoa izan da, ezkontzaren uste, edo usayari zarraizkala, ergelkerian ibiltzea. Atozea, eta utzi dituzu perill oek? Jauna, ez det izan biotzik osotoro uzteko: beraz zure negarrak, zure asmo, eta itzak iduripen uts biurtu dira.

Bigarren neurria da lagun urkoari bekaturako bidea ematen dioen izketa, eta modu gaizto guziak betiko utzitzea. Onelako. bekataria da animen erallea, eta Jesusek bere bizitzaren kostuz erosi zituan animak ipintzen ditu Satanasen atzaparretan. Orregatik dio Jesusek: zori gaiztokoa dala onelako bekataria: *Vae homini illi per quem scandalum venit* (Math. 18). Onelako bekataria beartua dago bi gauzatara. Lenengoa da, bekaturako bidea ematen duen izketa, eta modu itsusiak utzitzea: eta emanik len beñ, eta berriz itza, uzteko modu oek, utzi ezpaditu, absoluzioa artu baño len egiñ beardu agindu zuana. Bigarrena da, alegiñean desegitea animetan egiñ dituan kalteak. Kalte oek deadar egiten due Jaunaren aurrean; eta alegi-

ñean desegiñ bear ditu bekatariak, eta ez da erraz; zeren eztaki noraño iritsi, eta iritsiko diran kalteak. Demagun, eman diela bekaturako bidea amar, edo ogei laguni. Ogi oek euni, eunak millari, eta millak eun millari: eta oek ere zabalduaz dijoaz bekatuaren sua: orregatik bekaturako bidea ematen duanak, eztaki norañoko kalteak egiñ, ta egingo dituan animetan. Gañera, bearbada anima oetatik asko il ziran, eta arkitzen dira infernuan. Nola bada desegingo ditu kalte oek? Ez du onetarako beste biderik, ezpada bizitz on batekin Zerurako irabaztea al duan adiña anima. Au da Dabidek artu zuan bidea. Bere bekatuarekin ipiñi zituan esanmesa andiak: biurtu zan Jaunagana, eta egindako kalteak desegiteko, Jauna esaten zion Jaungoikoari: erakutsiko diet gaiztoai zure Lege Santa, eta biurtuko dira zugana: *Docebo iniquos vias tuas, et impij ad te convertentur*. Zuk bekataria, asko bider eman diezu lagun urkoai bekaturako bidea, batzuetan itz loi desonestoakin, besteetan keñada lotsagarriakin; batzuetan aen gogoko berri jakin nayeiz, besteetan, gazte jakinezai erakusten diezula bekaturako modua. Nork esan, noraño igaroko ziran animetako kalteak? eta nork ezagutu, noraño zabalduko diran kalte oek? Bearbada asko zure erakuste gaiztoakin

amildu dira betiko su, eta garren artera, eta deadarka daude zure kontra. Beartua zeunden, eta zaude utzizera betiko, lagun urkoari bekaturako bidea ematen dioen izketa, eta modu gaiztoak: beartua zaude, egiñ dituzun kalteak desegitera, bizitz on batekin bederik. Baña egiñ dezu au? Ez noazki. Beraz, bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko zure asmoak ez dira izan iduri utsa besterik.

Irugarren neurria da, lagun urkoari bere onran, izen onean, edo beste ondasunetan egindako kalteak desegitea, eta gauza bere jabeari biurtzea lenbaitlen. Añ gauza bearra da au, non S. Karlos Borromeok dienez, etzayo bekatariari absoluziorik eman bear, kalte oek desegin, eta gauza bere jabeari biurtu artean, baldin len agindu bazitzayon au, eta egiñ ezpadu zabarkeriaz. Zuk, Kristaia, lagun urkoari kalte egiñ diozu bere onran, aurpegira ematen diozkatzula utsegiteren batzuek, edo bereak, edo aurrekoenak: kalte egiñ diozu gañera bere izen onean, edo faman, ez dituan tatxak egotziaz, dituanak aziaz, eta barreatugabe zeudenak agertuaz. Zu izan zera lagun urkoarentzat añ prestuez, eta madarikatua, non eragiñ zeñion bekatua, gauz anditzat zere lagunai esan izan diezun: gutxi zan anima galera; kendu diozu era onetan bere

izen ona, edo fama: Zuk egiñ diozkatzu kalteak lagun urkoari neurrian, pisuan, prezioan, eta eman bear zenduan edariaren lekuan saldu dezu erdia uura, edo sagardoa: zuk kezka andigabe egiñ dituzu zorrak leku askotan: ala nai izatera, ken zintzakean zor oek, edo guziak, edo geyenak; baño ez dezu arretarik ipiñi nai izan. Beartua zaude kalteak, eta tranpak desegitera, eta zorrai erantzutera, ez nolana, baizik absoluzioa artu baño len gauzak zuzentzen dituzula al dezun eran. Diot au, zeren geroko uzten badira, etzera azkartuko bear dana egiteko. Baña oraindañoko zure asmoak nolakoak izango ziran? Ez asmo oso, eta eragilleak, zeren esnatu etzeran kalte, eta tranpak desegiteko, zorrai alegiñean erantzuteko, zere artu-emanak garbitzeko, eta lagun urkoarekin naspillarik ez izateko.

Bizitza ontzeko, eta aurrera bekatuik ez egiteko laugarren neurria da, bekatoren batean erortzeko oitura izan bada, au eskuratzeko, eta garaitzeko benaz sayatzea. Miñanze au perill andikoa da, eta ezpadio bekatariak benaz ekiten oitura gaiztoa uzteko moduari, ez da sendatuko. Ala gertatzen da birauak egiteko, alperkeriarako, edanerako, itz loi desonestoak esateko, keñada lotsagarriak egiteko oitura zarra

duenakin. Orregatik esan zuan Jeremiasek: *Etiopiako beltzak bere larrua aldatzen, eta katamotzak bere mantxak, edo nabardurak uzten dituanean, onduko zerate zuek ere, gaiztakeriara oitutzen bazerate* (cap. 13). Aditzera eman nai digu txit nekez uzten dirala oitura gaiztoak. Alaere garaitu ditzake bekatariak, sayatzen bada benaz, eta leyalki egiten baditu Konfesoareak agintzen diozkan gauzak. Atozea, bekataria: era onetan sayatu zera? Artu dituzu arretarekin Konfesoareak agindu dizkitzun sendagayak? Ez, Jauna: beraz zure asmoak ez dira izan oso, eta eragilleak, baizik iduripen utsak. Gazteak, begira oitura gaiztoetan ez erortzearekin, batezere edanerako, alperkeria, eta itz desonestoak esateko oituran. Erraz artzen dira oitura gaiztoak, baña nekez uzten dira, edo beñere ez: gazteak, gazte denboran artzen duan bidea ezoi du utzi zartzen danean ere, dio Espiritu Santuak: *Adolescens juxta viam suam; etiam cum senuerit, non recedet ab ea* (Prov. 22). Irristadaren bat gertatzen bazatzue, altxa zaitetze lenbait len Konfesioko Sakramentuarekin; onela ez da sortuko bekatuako oitura.

Bizitza ontzeko, eta aurrera bekatuak ez egiteko bostgarren neurria da bakoitzak bere estadu, bizimodu, eta karguari dagozkan, egin-bideai ongi begira-

tzea, eta erantzuteko ardura ona artzea. Au egiten ezpada, ez du bekatariak bizitza ontzeko asmo oso, eta eragillerik, gañerako mandamentuetan utsegiterik ezpalu ere. Eta omen, emen dago guraso, eta errieta-ko kargudun askoren betiko galera.

Bizitza ontzeko, eta aurrera bekatu-rik ez egiteko seigarren neurria da ez gerengan, bazik Jaunaren lagunz, eta grazian ipintzea gure uste, edo esperanza, eta grazia au billatzea Jaunari umilki eskatuaz, sarritan Sakramentuak artuaz, Birjiña txit Santa bitarteko ipiñiaz. Begira, gazteak, ez utzi goiz-arratsetako jayera, eta Sakramentuak prestaera onarekin eta sarritan artzea: bestela zuen adiña txit erraz kolokatzen da gaitzeron, eta amilka dijoa bekatuaren bideetan.

Orra, Kristaua, bizitza ontzeko, eta aurrera bekatu-rik ez egiteko *asmo oso, eta eragilleak* eskatzen dituan neurriak, eta emendik erraz ezagutu dezakegu, nolako asmoarekin konfesatu izan geran. Ezaguera onekiñ zuzen ditzakun oraindañoko utsegiteak, eta aurrera bizi gaitezen Jaunaren beldur Santuan, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

*Itzegiten da bekaturako bide,
eta perill urkoen gañean.*

Konfesio ona egiteko bear dan irugarren gauza da, bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Iru doai, edo kondizio eskatzen ditu asmo onek, eta dira: *asmo osoa, bekatu guzietara, larrieta-
ra beintzat, zabaltzen dana, eta eragillea izatea. Asmo
eragillearen izenez* aditzen degu asmo bat, bekataria esnatzen, eta azkartzen duana, aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera, Neurri oen artean lene-
na da bekaturako bide, eta perill urkoak utzitzea. Gai onen gañean esan nuan zerbait azkeneko bi Erakusal-
dietan; baña askok bekaturako bide, eta perill urkoak ez ditue aintzakotzat artzen, bekatu txit itsusiak ger-
tatzten ezpadira, eta aurrera dijoaz konfesio gaiztoe-
tan, bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo oso, eta eragillea sortu gabez. Orregatik gaur itzegiñ nai dizuet bekaturako bide, eta perill urkoen gañean, ezagutu dezan bakoitzak, onelako perillean

arkitzen dan, edo ez, eta artu dituan bizitza onaren neurri egokiak. Enzun arretaz, Kristaua.

§ I.

Mundu au guzia, ongi begirutzen bazayo, ekusiko da bekaturako bidez, eta sarek betea. Zoaz lagun artera, zoaz bakardadera, zoaz noranai, guzia perillez betea dago, dio Leonek: *Plena omnia periculis, plena laqueis*. Geyenak, edo beintzat asko bekaturen baten sarean atxituak dauzka etsayak, eta alaere kezkarik gabe bizi dira, zeren igerritzen ez duen, nola dauden, edo zeren saretik irten nai ez duen. Orregatik gauza bearra da Kristauari adiraztea, zer, eta zenbat gisatarra dan bekaturako bide, eta perilla.

Bekaturako bide, edo perillaren izenez aditzen da artarako bidea ematen duan edozeñ gauza: eta emen gogoan arritzatzu bi gauza. Lenengoa: *bekatuaren izenez* ez dezu aditu bear obrazkoa bakarrik, baizik *gogoz* edo pensamentuz, itzez, eskuz, eta edozeñ gisatan egiten dana. Emendik atera dezakezu, gazte ergelak gaitzeronz kolokatzen asitzen diranetik zentza ditezen artean, bizi oi dirala bekaturako sareak eotzen

dabilitzan leku guzietan, ala berentzat, nola beste askorentzat. Ez dira bearbada erortzen azkeneko bekatuan; baña gañerakoaz ez due ardura andirik. Bigarrena: bekaturako bide, eta perilla izan diteke, ez seigarren Mandamentuan bakarrik, baita beste Mandamentuetan ere. Ala batzuentzat edaria saltzen dan tokira joatea izan oi da orditzeko, edo etxekoai naigabe andiak emateko bide, eta perill andia; beste batzuentzat jokoa; batzuentzat saldu-erosia; besteentzat alperkeria: eta besteentzat beren estadu, eta bizi-moduan dituen eginbideaz azturik bizitzea. Orra, nola edozeñ Mandamentutan arkitu ditekean bekaturako bide, eta perilla.

Bide, eta perill au bata da *urrutikoa*, eta deitzen zayo onela, zeren beregandik urruti daukan bekatua, eta gutxitan amilderazo oi duan artan. Ekusten dezu gizon, edo emakume bat ongi janzia: ekuste au uts-utsik, edo beste salsagarrigabe, bekaturako bide, edo perrill *urrutikoa* da, eta etzaude onelako perilletatik igesegitera beartua; bestela irten bearrak giñake mundu onetatik, S. Pablok zion bezala (1.^a ad Corint. 5).

Bekaturako beste bide, eta perilla da *bitartekoa*, au da ezosotoro *urrutikoa*, eta ez *urkoa*, baizik bien

artekoa. Demagun, urlia urte beteren barrunbean erori dala sandiarekin eskuka jolas itsusietan lau, edo bost bider, eta bizi dirala etxe batean biak, edo elkar erraz topatu dezakeen tokian. Edozeñek dakus perill au ez dala osotoro *urrutikoa*, eta beste aldetik ez dirudi guziz urkoa, zeren gutxitan erori dan. Bekaturako bide, eta perill bitarteko oek batzuetan kalte geyago dakarde, perrill *argiro urkoak diranak baño*: zeren oei adiña ardura, eta arretarekin begiratzen etzaten, eta laster azitzen, eta perrill urko biurtzen dira. Zer egiñ bear da onelako bekatariarekin? Gizon jakintsu batek dio, lenengo aldian eman dagikeola absoluzioa, baldin bekaturoko bidea uzteko itza benaz ematen badu; baño urrengoan etzayola eman bear, ezpadu bekaturoko perilla utzi, edo bizitza obetu.

Irugarren bekaturoko bide, edo perilla da *urkoa*. Deitzen zayo *urkoa*, zeren bide edo perill onetan jartzan dana, edo dagoana sarritan erori oi dan, edo beintzat erortzeko perill andia dan, sayets guzietara begiratu ezker. Demagun jai egunetan biltzen dirala an, edo emen mutillak, eta neskatxak. Aritzen dira denbora puska batean jokoan, baño ondoren, edo bitartean izan oi dira izketa loyak, keñada lotsagarriak, edo beste jolas gaiztoak. Onelako bilgui, edo

batzarreetara joatea da bekaturako bide, eta perill urkoa. Onelako etxeetan gertatzen dana bera gerta ditekete, festara, triskara, eta lagun gaiztoetara joatearekin. Itz batean: alde guzietara begiraturik, bekatuan erortzeko perill andia badezu, orduan zuretzat izango da *bekaturako bide urkoa*.

Bekaturako *bide, eta perill urkoa* batzuetan da *borondatearen kontrakoa*, esan nai det, naita ere eziñ batek utzi dezakeana, beinzat kalte andigabe. Sartzen due bat karzelan, gerra onetan askotan gertatu dan eran, gizon edo emakume gaiztoen artean: sarritan eragiten diozkee bekatu-mota asko. Bekaturako bide, eta perill au urkoa, baña borondatearen *kontrakoa* da, zeren naita ere, eziñ onela dagoanak aldekiñ deza-kean. Arkitzen da bestea bere gurasoen etxean, eta etxapean du bekaturako bide, eta perill urkoa: alde guzietara begiraturik ez bera, ez beste urlia irten ditekete etxetik, onran, edo beste ondasunetan kalte andiak etortzen ez dirala. Bekaturako bide, edo perill urko au ere da *borondatearen kontrakoa*, zeren kalte andigabe eziñ utzi dezakean, utzi nai izan arren, esandan bekatariak. Galdetu oi da, zer egiñ ditekete onelako bekatariarekin, konfesatzera datorrenean? Batzuek erantzuten due, absolbitu diteketeala lenbiziko konfe-

saldian, baldiñ damuaren, eta bizitza ontzeko asmo osoaren siñale onak agertzen baditu, eta prest arkitzen bada bear diran sendagayak artzeko. Artzen du era onetan absoluzioa, baña ez du obetzen bizitza, eta ez du sendagayak artzeko arretarik ipiñi. Orduan etzayo absoluziorik eman bear, bekaturako bidea utzi gabe. Beste batzuek S. Karlos Borromeorekin erakusten due, lenbiko konfesaldian ere etzayola absoluziorik eman bear, komuniorako estutasun andiren bat ezpada.

Bekaturako beste bide, edo perill urkoa da *borondatezkoa*. Deitzen zayo onela, zeren ala nai izatera, kalte andi gabe utzi dezakean bekataria: eta onelakoak izan oi dira geyenak. Gerta diteke, gauza bat gaiztoa ez izatea, eta alaere urliarentzat, edo sandiarentzat bekaturako bide, eta perill urkoa izatea. Ezkonza, eta errietako karguak berenez onak dira, baña askorentzat izan oi dira bekatuan bizitzeko perill urkoa. Orregatik aldegiñ bear degu guretzat perill aundia dakarten gauzetatik.

Bekaturako bide, eta perilla urkoa izateko, ez da gauza bearra sarritan bekatuan erortzea, era, eta denbora egokia danean erortzen bada bat. Urtean beiñ da iñuteria, eta urtean beiñ izan oi dira errietako festak;

eta alaere denbora oek askorentzat dira bekaturako bide, eta perill urkoak. Gañera gerta diteke bekaturako bide, eta perilla izan diteke norbaitentzat urkoa artean bekatuan erori ezpaliz ere, baldiñ sayets, edo alde guzietara begiratuta, perill andia bada. Jose anziñakoa, Jakob Patriarkaren semea, etzan etxeoandria-ekin bekatuan beñere erori, baña zegoan etxean bizitzea, izan zitekean bekaturako bide, eta perill urkoa, zeren orpoz orpo zerraikion etxeoandrea bekatu eragiteko. Orregatik aren atzaparretan utzi zuan kapa, eta iges egiñ zuan etxetik. Au bera egiñ ber due serbitzariak, naiz mutillak, naiz neskatzak, dauden etxean bekaturako bide, eta perill andia badue. Galdetu oi da, bekaturako bide, eta perill urkoan arkitzen bada bat, eta kalte andigabe utzi lezakeala utzi gabe badijoa konfesatzera, absolbitu ditekean, lenengo aldian bederik? Bayetz dioe, eriotzako orduan, baña nola orduan ere? Bekaturako bidea esanmesagabe eziñ bota badite bereala. Baña gauza barreatua danean, aurrena kendu, edo bota bearda bekaturako bidea, eta gero da Sakramentuak ematea. Onelako estutasunaz landara, edo kanpora, etzayo absoluziorik eman bear, bekaturako bide, edo perilla utzi, edo bota dediñ artean, S. Karlos Borromeok dionez.

Bekaturako bide, eta perill urkoan dagoanak konfesioan aitortu beardu, zer perillean arkitzen dan. Egizu kontu, zuretzat arako festa aetara joatea, triskan, edo danza-sartzalle ibiltzea izan dala jolas itsusietarako bidea, eta oraingo konfesaldian erori zerala zenbait aldiz jolas oetan. Jolas oek konfesatzeaz gañera esan bear dezu, Jauna: *neretzat festa artara joatea, triskan ibiltzea, edo urliarekin aua zabaldurik bakarrik egotea izan da bekaturako bidea*. Era onetan Konfeso-reak igerriko du, nondik, eta nola datorren zure gaitza, eta ipiñiko dizu sendagaia bear dan tokian: ezagutuko du gañera, nolakoak izan diran leneko konfesioak. Baña zer gertatzen da askotan: ezkututzen du bekatarriak bere zauriaren sustraya; sendagayak ipintzen zaizka azaletik; geratzen da bere oñean sustraia, edo bekaturako bidea, eta ez da sendatzen eria.

Orra, Kristaua, zer, eta zenbat gisatara dan bekaturako bide, eta perilla, eta emendik erraz ezagutu dezakezu, artarako bide, eta perill andian zauden, edo ez. Ezpazera arkitzen onelako perillean, bizi zaite ernai, aurrera ere kate onelakoan zere burua ez ipintzeko; bestela erraz engañatuko zera; ala gertatu zitzayon Dabidi. Baña bekaturako bide, eta perill urkoetan nastua bazaude, ez dago konfesio onik bide oek

uzteko biotzik ezpadezu. Urra itzatzu bada kate oriek,
solve vincula: arrezazu bizimodu on bat, eta onela iri-
tsi dezakezu oraindañoko utsegiteen barkazioa, eta
gero betiko bizi-tza. Amen.

AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

*Ukitzen dira, bekaturako bide,
eta perillak ez uzteko,
bekatariak billatu oi dituan aitzakiak.*

Konfesio ona egiteko bear dan irugarren gauza da, bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Iru doai, edo kondizio eskatzen ditu asmo onek, eta dira: *asmo osoa, bekatu guzietara, larrieta-ra beintzat, zabaltzen dana, eta eragillea izatea*. Asmo eragillearen izenez aditzen degu asmo bat bekataria esnatzen, eta azkartzen duana, aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera. Neurri oen artean lene-na da bekaturako bide, eta perill urkoak utzitzea. Gai onen gañean izan zan azkeneko Erakusaldi guzia; alaere beldur naiz, izango dirala bekatari batzuek, bekaturako bide, eta perillak ez uzteagatik, aitzakia-ren batzuek billatuko dituenak, eta geratuko dirala betiko beren animak galtzeko zorian. Au gerta ez dakien bada, aditzera eman nai diet, zeñ uts, eta farragarriak izan oi diran aitzaki oek. Enzun arretare-kin.

§ II.

Bekatariak, bekatuaren bideak ez uzteko, asmatu oi dituan aitzakien artean bat da esatea: *Jauna* eziñ ni etxetik irten niteke, eta ez det eskurik urlia etxetik botatzeko, edo ari etxeko sarrera eragozteko. Aitzakia au ez da asko bekatuaren bidean bizitzeko. Atozea, eziñ igesegin dezakezu urliarekiko egoera orietatik? *Jauna*, ez beti. Atozea, eta eziñ deadar egiñ dezakezu? Au asko ezpada, esan zayozu urlia orri, aditzera emango diozula gertatzen dana guraso, edo zure buru danari; eta alaere utzi nai ezpadizu pakean, esan zayozu zure guraso, nagusi edo buruari, zer igarotzen zatzun. *Jauna*, gurasoari edo nere buru danari, esaten badiot, aserratuko zayo, eta etorri litezke ondoren gaiztoak. Aditzera eman giozu bada arzayari, edo zere konfessoreari, bear diran neurriak artu ditzan: baña egizu au konfesioaz kanpora; zeren konfesiotek duan berriaz eziñ baliatu diteke konfessorea bekatariaren baimena gabe; eta baimen au izan arren, perill andiko gauza da konfessorearentzat.

Bigarren aitzakia: joango naiz etxe artara, edo arako lagun gaizto aetara: joango naiz Lezora, edo Erniora, baña ez det bekaturik egingo; lenago lepoa emango nuke. Atozea, ezagutzen dezu, zuretzat etxe artara joatea, lagun oriekiñ ibiltzea dala bekaturako bidea, eta diozu: *joango naiz, baña ez det bekaturik egingo?* Jakizu bada, joatea bera dala bekatu, zeren artarako perillean zere nayez jarriko zeran. Demagun, zuretzat jai arratsetan ostatura, edo edari bizia saltzen dan tokira joatea dala orditzeko, eta beste bekatu askotarako bide, eta perill urkoa: alaere bazoaz, zeregan esaten dezula: *joango naiz*, baña ez naiz ordituko. Demagun gañera, aitu dirala edariak, eta biuritzen zerala etxera edaririk dastatugabe. Alaere zuk bekatu egiñ dezu ara joatearekin, ordi baziña bezala, zeren zere nayez artarako perillean jarri zeran. Etzabilzala bada, Kristaua, aitzakiak billatzen, bekaturako bide, eta perillak uzteko; aldegizu lenbait len; bestela gertatuko zatzu mitxirrika, edo ingumari gertatu oi zayona. Badabill inguma argiaren inguruan *ariñ ariñ*: begiratzen dio eta zenbateta geyago begiratzen dion, anbat geyago lilluratzen, eta txoratzen du argiaren edertasunak. Alderatzen zayo beiñ, ta berriz, eta erre-tzen diozka egoen, eta zankoen erzak, baña ez da

zentsatzen. Atzenean ainbesteraño alderatzen zayo, non osotoro erretzen, eta illik geratzen dan. Ay! aditzen zauden, inguma, inguma! Bazabiltza bekatuaren bide, eta perill orietan: erretzen, eta kiskaltzen dira zure gura txarrak, baña etzera zentsatzen, eta atzenean illik geratuko zera bekatuan, edo gogoz, edo bestela. Au gerta ez dakizun, aldegin, aldegin perilletik.

Irugarren aitzakia: ez da, Jauna, gure artean *unore ona igarotzea beste gauza gaiztorik gertatzen*. Ongi. Atozea, eta ez dira izan izketa desonestoak? Bai, Jauna. Ez oi dira gertatu keñada itsusiak, musu lastanak? Bai Jauna; eta egia esan bear badet, orrela unore ona igarotzeagatik bildu oi gera. Atozea, eta ori da unore ona? Ori da atsegiñ debekatuetan ibiltzea: eta Konfesio ona egiñ nai badezu, aldegin bear dezu orrelako bide, eta perilletatik.

Laugarren aitzakia: joango naiz etxe artara, non izan dedan askotan bekatuan erortzeko argaltasuna; baña erregutuko diot Ama Birjiñari, gorde nazala bekatutik, eta uste det, lagunduko didala. Engañatzen zera. Birjiña txit Santa da bekatarien Ama, eta bitartekoa, ez ordea bekatuaren bide, eta perilletara joateko: baizik bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegite-

ko. Atozea, zere nayeaz sartzen bazera karobi erazeki batean, esaten dezula zeregan: *erregutu diot Ama Birjiñari, eta gordeko nau*: uste dezu gordeko zaituala karobiko su, eta garren artean, batere erretzen etzerala? Ez dezu ekusten, au dala zentzugabekeri andibat?

Bostgarren aitzakia: Jauna, al banu utziko nuke nik bekaturako bide au: *eta pakean utziko balit, ez nioke nik biderik emango, baña zertan nago ni arekikoa galtzen badet?* Atozea, bekatarari itsu, eta urrikalgarria, eztakizu, anima bat bakarra dezula? Eta ori galtzen badezu, guzia galtzen dezula, eta betiko? *Zure eskuak, edo oñak ematen badizu bekaturako bidea, ebaki ezazu, eta bota zeregandik, esaten dizu Jesu-Kristok.* (Mat. 18, et Marc: 9): au da, zure esku oñak bezeñ gauza bearra baliz ere zuri bekaturako bidea ematen dizun ori kenezazu zeregandik, edo aldegi zu. Ala egin zuen Jose anziñakoak, eta Susana andre pres-tuak. Jose zan Jakoberen seme txiki maitea: senideak ezin begi onez ekusi zuen, Aitak ainbeste nai ziolako, eta isilik saldu zuen Ejiptora. Ekusi zuan nagusiak, Joseren eskuetan gauza guziak zijoazela ongi, eta guzia utzi zuan beraren kontura. Zan Jose, Eskritura Santak dion bezala, aurpegi ederrekoa, eta txiki gala-

ya. Llilluratu, eta txoratu zuan etxekoandrea Joserren edertasunak, eta asi zan gaitzerako bideak ematen; baña alperrik. Nere nagusiak, esan zion; zu ez beste gauza guziak nere eskuetan utsi ditu, eta nola nik eskergabekeri añ itsusia egin dezaket nere ongillearen eta Jaungoikoaren kontra? Alaere egun oro, eta era zuan guzian leyatzen zitzayon andre gaiztoa Jose garbiari, nai zukeana eragiteko: eta egun batean eldu zion kapatik, eta kuturtu nai zuan bekaturako. Ekusirik bere burua estusasun onetan, iges egin zuan Josek etxetik, utzirik kapa etxekoandrearen atzaparretan. Alako gorrotoan jarri zan andre lotsagabea Joserren kontra, non asmatu zion, bortxatu nai izan zuala, eta karzelan ipiñi zuen. Baña jakiñik Erregek Joserren jakiunde, eta doai ederrak, atera zuan karzelatik, eta egin zuan bere ordeko Ejipto guzian (Genes. 39). Susanarekin gertatua ekusi dezagun orain. Susana andre txit ederra, ezkondua zegoan Joazin zeritzan gizon aberats batekin Babilonian. Susana zan Jaunaren beldur santuan azia, eta birtutetsua, eta aintzakotzat zedukeen guziak. Susanaren etxean biltzen ziran Israeltarren Juezak, gertatzen ziran auziak erabakitze- ra. Etxearen atzean zegoan baratza, eta askotan ibilli oi zan an Susana. Urte artako bi Alkate, edo Juezak

ziran gizon adinean aurreratua, bada zarren izena ematen die Eskriturak, baña dirudianez beren oituretan ziran zar berdeak. Ekusten zuen Susana baratzan, eta gutxika itsutu ziran arganako gura gaiztoan, eta asi ziran ura bakarrik atxitzeko eraren billa. Ezkutatu ziran baratzako zokoren batean: eta Susanak, leku aetan usanza zan bezala, artu zuan urtan bere burua garbitzeko asmoa. Bidaldu zituan serbitzariak etxera, eta itxi zuen oek baratzako atea. Irteten dira orduan agure madarikatuak zokotik, eta asitzen zaizka Jaunak debekatzen duana eragin nayer: eta *ezpadezu nai*, esan zioen; guk esango degu, gazte batekin arkitu zaitugula bekatuan. Estutasun andian arkitzen zan Susana: aek nai zuena egiten bazuan, eriotzaren pena ipiña zeukan Legeak; eta ezpazien gusto ematen, egoztziko zioen, egin etzuan bekatua, eta illeraziko zuen, egin bazuan bezala. Eman zuan suspirio andi bat, eta esan zuan: alde guzietatik ez det estusasuna baizik ekusten: *Angustiae sunt mihi undique*: baña nere Jaungoikoaren begietan, eta kontra bekatu egitea baño obe det, zuek nai dezuena egingabe, zuen atzaparretan erortzea. Au esanda, egin zuan deadar, aditu zezeen etxean. Asi ziran zar madarikatuak ere deadarka: bildu ziran iskanbillara asko gizon, eta emakume:

eta zar gaiztoak esan zuen, nola arkitu zuen Susana gazte batekin bekatuan. Legeak agintzen zuan ken zekiola bizia arika, bekatu au egiten zuanari, eta bereala erabaki zuen Juez salatzalleak, egin zedilla Susanarekin Legeak ziona. Bazerameen andre prestu ura egin etzuan bekatuagatik bizitza kentzera. Ekusi zuan Daniel Profetak, zer gertatzen zan, eta artean gaztetxo bazan ere, Jaunak aditzera eman zion, zer igaro zan: otsegin zuan, gezurra zala, Susanaren kontra salatzalleak erausi zuena: biur zitezela an zijoazena irten ziran lekura, eta berriro ekusi, eta erabaki bear zala auzi ura. Biurtzen dira Susanaren etxera: berezitzen ditu Danielek zar berdeak bata besteagandik: egiten diezte zenbait galde, eta arkitzen ditu gezurretan. Asi ziran guziak deadarka Juez gaizto bien kontra, eta Susanarekin egin nai zuena, berai egin ziezana, edo Legeak agintzen zuan bezala arika bukatu zituen: (Danielis 13). Ekusten dezu, Kristaua, ez dezu la ezer egiten esatearekin: *al banu utziko nuke bekatuako bide au, eta pakean utziko balit, ez nioke nik bekatuako biderik emango?* Utzi bear dira bada aitzaki farragarri oek, eta aldegin bekatuako bidetik.

Seigarren aitzakia: *Urliaren etxera joaten naiz, baña ez gauza gaiztorik egitera: eta biderik gabe*

erausian daude asko. Atozea, eta ez ote dira gertatzen beiñ baño geyagotan izketa ez garbiak, eta jolas gaiztoak? Bai, Jauna; eta zer da zer miretsi esanmesak izateaz? Baña demagun, ez dala orrelako gauzarik gertatzen: nolakoa izan da len zure bizimodua, eta izen, edo fama? Ez txit ona, Jauna. Eta zer nai dezu, munduak esatea, ekusten bazaitue sarritan gauaz, eta egunaz ez orduetan an zerala? Ekusten badezu, sarritan sartzen dala azeria etxe batean, zer esango dezu zuk? S. Pablok esaten digu, utzi bear ditugula, gauza gaiztoak ezezik, gaiztoen anza duenak ere (1.^a ad Thesal, c. 5). Jauna, bestiak ere joaten dira nai duen etxera: egoten dira, eta ez orregatik esanmesarik izaten. Ori gerta ditekete, zeren aek gai orretan len kiratsik zabaldu ez duen, eta zuk bai, edo zeren aek izan litza-keen beren egitekoak, eta zuk ez; eta nolanai egon ditezela bestiak, zuk egin bear dezu Jesu-Kristoren lege Santak agintzen dizuna.

Zazpigarren aitzakia: *zer esango due etxe artatik irteten banaiz, edo ara joaten ezpanaiz?* Zer esan bear due? Bitatik bat, edo eztakie, zu gaizki bizi zerala, edo badakie. Ezpadakie, ez da ezer esateko biderik. Milla modu izan oi da alabaña etxe bat utzita bestera igaro-

tzeko. Baña baldin badakie, poztuko dira, bide zuzenean sartu zerala ekustean.

Zortzigarren aitzakia: *Jauna, esango diot urliari, utzi dezala bizitza gaiztoa, bukatu dirala gure ibillera, eta jostaketak, egin dezala konfesio on bat.* Atozea, eta aitzaki orrekin bizi nai dezu bekatuan? Uste dezu, orrenbesterekin zentzatuko dala urlia? Demagun, otsoak ardiren bat erabilli duala itotzeko zorian. Andik geroxeago badijoa otsoa ardiaganonz, eta ardiak, ige-segin lekuan, itxedoten, eta esaten dio: otso Jauna, etzaitezela izan oraindano bezeñ ardikoya, arrezazu bizimodu on bat. Atozea, uste dezu, orrenbesterekin onduko dala otsoa? Ondu bearrean, egotziko diozka atzaparrak ardi txoroari, eta egingo du arzaz gura duana.

Orra, Kristaua, bekatuak ez uzteagatik, asmatu, eta billatu oi diran, aitzakietatik batzuek. Zer dator emendik? Bekatuan bizitza igarotzea, Sakramentuak gaizki artzea, eta atzenean betiko su, eta garren artean erortzea. Zuk, Kristaua, aldegiu bekatuak perilletatik, eta arrezazu Kristauari dagokan bizimodu garbi bat, onela iristeko betiko Zerua. Amen.

AMAZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

1. *Ematen dira Konfesio ona egiteko bear dan laugarren gauzaren, edo bekatuak aitortu bearraren berriak.*
2. *Adirazten da, nolako modua gorde bear lizakean Konfesioaren aurretik, eta konfesioko denboran.*

Konfesio ona egiteko bear dan irugarren gauza da bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Asmo onen gañean naroro, edo ugari itzegin det. Laugarrena da *Konfesioa, au da bekatuak* aitortzea, edo esatea barkatzeko eskua duan Apaizari, eta onen gañean izango da gaurko Erakusaldia. Lenengo lekuan aditzera emango ditut, Konfesioaren, edo bekatuak aitortzeko degun, eginbidearen berriak. Aditzera emango det urrena, nolako modua gorde bear lizakean konfesioaren aurretik, eta konfesioko denboran. Enzun arretaz, Kristaua.

Fedeko gauza da, gure Salbatzalle Jesus maitagarriak utzi ziola bere Elizari beste Sakramentuen artean *Konfesioa*, edo *Penitentzia* deritzana, batayoa ezkerro egindako bekatuak barkatzeko. Zerura igo zan baño lentxeago sartu zan Jesus Apostoluak zeuden tokira, eta esan zien: Arrezazue Espiritu Santua: *Accipite Spiritum Sanctum*: zuek barkatzen dieztezuenen bekatuak barkatuak izango dira, eta oraiñ bertatik barkatzen zaizte: *Quorum remisseritis peccaa, remiltuntur eis: eta zuek barkatugabe uzten dieztezuenenak, barkatugabe geratuko dira: Et quorum retinueritis retenta sunt* (Joan 20). Itz oetan eman zien Apostolui, Obispo Jaunai, eta oen ondorengo Apaizai bekatuak barkatzeko eskua. Au sinisten ez duana ez da Katolikoa, baizik herejea, eta bere gañean du Elizaren eskomikua: *Anathema sit* (Trident. ses. 14, cap. 1.^o et can. 1.^o et 3.^o de Paenit). Emanik era onetan Apostolui, eta ondorengo Apaizai bekatuak barkatzeko eskua, agirian dago, bekatariak agertu, eta aitortu bear diozkala sendatzeko eskua duanari bere zauri, edo bekatuak. Emendik Eliz Ama Santak erakusten du, eta Katoliko guziok sinisten degu, bekatuak aitortzea, edo konfesatzea gauza bearra dala, barkazioa iristeko, eta

bestarik esaten duana eskomikatua arkitzen da: *Anathema sit* (Trident. cit. ses. can. 6 et 7^o).

Esan det, gauza bearra dala bekatuak aitortzea, edo konfesatzea, oen barkazioa iristeko: baña au aditu bear dezue bekatu larri, edo mortalentzat, zerren benialak aitortzea, ona bada ere, ez da premiazko gauza, Trentoko Konzilioak esaten digun bezala. Eta mortalak izan arren, barkatuko ditu Jaunak onezko damu, edo kontrizio osoarekin, eta konfesatzeko asmoarekin. Esan det gañera, aitortu, edo konfesatu bear zaizkala bekatuak barkatzeko eskua duan Apaizari. Anziñako denboran eriotzako perillean, eta Apaiz gabe arkitzen zanak norinai esaten ziozkan bere bekatuak, Españako legeak aditzera ematen digueenez, eta au bera egin oi zuen itsasoan zebiltzanak, perill andiren batean ekusten ziranean: baña konfesio au etzan Sakramentu, eta egiten zan Sakramentuaren naia erakusteko, eta Jaunagandik iristeko onezko damu, edo kontrizio osoa. Orduan usanza au zan: baña oraiñ ez lizake ongi Apaiz ez danari bekatuak aitortzea, edo konfesatzea, estutasunik andienez, zeren Luterok beste herejia askoren artean erakutsi zuan bat gai oni dagokana, esaten zuala, edozeñek, naiz gizonak, naiz emakumeak, duala konfesioak

aditzeko eskua: eta estutasunean Apaiz ez danari bekatuak konfesatzen badiozka batek, nolerebait adirazten du, Luteroren eskolakoa dala, Aita Santu Benedikto amalaugarrenak dion bezala. Luteroren herejia baño lenago etzan ezeren perillik estutasunean norinai bekatuak esatean, baño geroztik bai: orregatik eriotzako perillean Apaizgabe dagoanak egin beza alegiña, sortzeko onezko damu, edo kontrizio osoa Apaizari bere bekatuak aitortzeko nayarekin, eta ez degiozkala konfesatu Apaiz ez danari. Bi gisatara egin izan da konfesioa Elizaren asieratik. Egin izan da benikbeñ oraiñ bezala, bakoitzak isilik belarrira esaten diozkala Apaizari bere bekatuak, eta au da modurik egokiena, edozeñek ezagutu dezakean eran. Egiñ izan zan gañera konfesioa Elizan zeuden Apaiz, Diakono, eta Kristau guzien aurrean, eta guziak aditzen zuela: baño lenago isilik esaten zitzaizkan Obispo Jaunak ipiñirik zeukan, Konfesoreari bekatu guziak, eta onek batzuetan agintzen zion bekatariari, beste penitenziaz gañera, egin zezala bere bekatuen aitormen, edo konfesioa Eliza guziaren aurrean. Baña gertatu zan Konstantinoplan, Nektario ango Obispo zegoan denboran, emakume batek guzien aurrean esatea bekatu itsusi bat, agertzen zuala, bekatuan lagun izan zuana.

Emendik etorri ziran esanmesa andiak, eta utzi zan gutxika konfesio agiri au: baña naiz bata, naiz bestea, naiz biak ziran onak.

Elizaren lenengo denboretan ez degu arkitzen Eliza beraren aginterik konfesioaren gañean. Zergatik au? Zeren denbora aetako Kristauak etzuen agintebearrik Sakramentuak sarritan artzeko. Añ jayera andia zuen Sakramentuetara, non Meza enzuten zue-nean, guziak komulgatzen ziran; eta ekusia dago, ezin au egin zezakeela konfesio gabe bekatu larri, edo mortalen bat zuanak, S. Pablok dionez: *Probet autem se ipsum homo* (Trident ses. 13 cap. 7 de Euchar). Onela joan ziran zazpieun, eta geyago urte. Asi ziran Kristauak anziñako jayera ederra utzitzen, eta agindu zuan Elizak, urtean iru aldiz bederik artu zezeela Komunioko Sakramentua, au da Pazkoa loratuan, Mayatzekoan, eta eguerriz: eta Aginte bera aditu zan konfesorako ere. Alaere etziran Kristaurik geyenak zentzatu, eta agindu zuan berriz Elizak, gaitzaren, eta onaren ezagueran sartutako Kristau guziak aitortu degiozkeela beren bekatu guziak urtean beñ bederik barkatzeko eskua duan Apaizari.

Gaitzarekin onaren ezaguera ez dator guzietan berdiñ: baña geyenak asi oi dira ona, eta gaitza eza-

gutzen zazpi urteetatik aurrera. Orregatik aurrak bidaldu bear dira konfesatzera zazpi urte baditue, eta gutxixeago izan arren, oitura ona da bidaltzea, S. Karlos Borromeok dion bezala. Konfesioa egin bear zayo, ez norinai, baizik barkatzeko eskua duan Apaizari. Len egin bear zitzayon Arzayari, edo onek siñalaten zuanari: baña gero Elizak eman zion bakoitzari eskua, urte oro konfesio au egiteko Obispo Jaunak konfesioak aditzeko ipintzen duan, edozeñ Apaizekin: baña kanpoan konfesatzen diranak ekarri bear due agiria. Elizak siñalatu zuan urte oroko Komunioaren denbora, baña ez konfesioarena. Orregatik asko gizon jakintsuk dioe, konfesorako urtea aditzen dala urte berritik urte berriraño; baña Iruñeko Apaiz nagusiaren mendeko Elizetan garizuman egin bear da konfesio au. Elizak konfesatzeko, eta komulgatzeko ipiñirik daukan Aginte oni erantzuten ez dion Kristauari, debekatu bear zayo Elizan sartzea, eta iltzen danean etzayo eman bear Eliz-lurrik: eta emen badu eskomikuaren pena ere. Pazkoatik illa beteren barrunbean konfesatzen, eta komulgatzen ezpada.

Elizaren aginteaz gañera bada beste bat, Jesu-Kristorena; Jesu-Kristok alabaña utzi zuan Konfesioko Sakramentua bekatuaren eriotzatik animak pistutze-

ko, eta bekatuan zauriak sendatzeko: eta nai du artzea premia degunean bederik. Orregatik urtean beingo konfesioaz gañera, Kristaua beartua dago konfesatzera eriotzako perillean; Komunioko Sakramentua artu nai, edo bear duanean, baldin bekatuan badago; eta atzenean griña txarren bat ezin garaitu badu Konfesioko Sakramentuaren lagunzagabe. Ala gertatzen da askorekin: garizuman konfesatzen dira, eta urte guzian, edo denbora luzean Sakramentuak artzeko arretarik ez due ipintzen, eta frenurik gabe dabiltzan zaldiñoak bezala eyaka dijoaz bekatuaren bideetan.

Orra, Kristaua, gure bekatuak aitortzeko, edo konfesatzeko, Kristau guziok degun egin-bidearen berriak. Dakuskun oraiñ, nolako modua gorde bear lizakean konfesioaren aurretik, eta konfesioko denboran.

§ II.

Konfesatzera joan nai dezu? etzoazela konfesioaren idurian munduko gauzen billa. Batzuek joan oi omen dira bizilagunaren kontrako espadasunak ager-

tzera, jakin dezan konfesareak nolako gizon, edo emaztearekin bizi diran. Kristaua, ez oitu era onetan konfesatzera: esaitzu zure bekatuak, eta ez nastu besterenak. Beste batzuek joaten dira Konfesioaren aitzakian limosnaren bat ateratzera. Oekgatik esan diteke Dabidek beste gauzatarako ziona: Konfesatuko zatzu, ontarte, eta mesedeak egiten diozkatzun bitartean: *Confitebitur tibi, dum benefeceris ei*. S. Felipe Neriri joan omen zitzayon beñ emakume bat konfesatzeko idurian, Santuaren bitartekotasunez iristeko S. Jeronimoren ordenako Erlijiosoak egun oro Erroman eman oi zuen ogia. Santuak Zeruko argiarekin ezagutu zuan, zertara zijoan emakumea, eta bidaldu zuan, konfesatzeko lekurik emangabe, esaten ziola: *ez dago emen ogirik zuretzat*. Omen dira gañera konfesatzera joaten diranak, Konfesorea bitarteko dala iristeko *suerte ona*. Konjuratzallea dagoan toki, edo errira bilduko dira gaizkinakin egiaz, edo gezurrez daudenak: eta au bera gertatuko da, jakiten bada, Erretore, edo Konfesoreren bat dala ezkonzagillea. Jauna, iñoiz joan naiz konfesatzera, Jaunarekin pakeak eginda, iristeko premia dedan, edo on nukean gauzaren bat: gaizki egiña ote da au ere? Ez; Konfesio, ta Komunio onak alabaña asko laguntzen due bear deguna Jaunagandik iristeko;

baña gaizki egingo zenduke, Konfesioa aitzakiatzat artzea.

Konfesatzera zoazenean jarri zaite belauniko. Gizonak ez due jarri bear ezpatarekin, ezeta emakumeak ere soñeko arro, eta geyegiakin. Ez dirudi ongi atskeriak, ezeta arrotasunak ere, eta are gutxiago goyak estaligabe konfesiara joateak. Orregatik Inozenzio, eta Klemente amaikagarrenak agindu zuen, ez dakiela Konfesio, ta Komuniorako lekurik eman bularrak, eta sorbalda estaligabe dijoazenai, eta estalkiak izan ditezela tapituak. Doña Santxa Karrillo joan zan konfesatzera Juan de Abila beneragarriarekin, baña alako janzierarekin, non esan zion Konfesoreak: *infernu usaya dakar berorrek*. Itz oek arpoi baten gisa igaro zuen Doña Santxaren biotza; biurtu zan etxera, utzi zituan soñeko arroen erakeriak, eta izan zan modestia, onestidade, eta birtutearen ispillua. Ez da ibilli bear besteri txanda kendu nayez; baña zarrai, eta eri daudenai leku egitea ongi dirudian gauza da. Ez dezu jarri bear besteren bekatuak aditzeko moduan, bestela erraz gerta liteke salokeri au bekatu andia izatea. Ustekabean aditzen badezu konfesatzen dagoanaren bekatua, ixilik gorde bear dezu bekatu larriaren azpian, Konfesore baten eran. Konfesioa asitzeko

aurrean batzuek esaten due *Akto Kontriziozkoa*, eta ongi egiten due; besteak esaten due *Ni bekataria* guzia, ta ondo egiten due oek ere, zeren au izan dan Españako usanza; besteak *Ni bekataria* esaten due erdiraño asieran, eta beste erdia absoluzioko denboran: au ere ongi egiten da, eta au da S. Karlos Borromeok erakusten duan modua; baña zuentzat errazago izango da esatea *Akto Kontriziozkoa*, edo *Ni bekataria osotoro*. Batzuek Konfesioa asi baño len ematen omen ditue egun onak, eta, galdetzen bide due: *Zer dio? Ongitxo dago?* Gaizki egiña da au; zeren konfesioari dagokana baizik ukitu bear ez dan orduan. Besteak, konfesatzeko jartzen diranean, esaten omen due *Abe Maria Purissima*; gauz ona da au; baña era berean ona izango lizake esatea Letania. Onena da Elizak erakutsia daukan moduari ez erantsitzea ezer; bestela batak esango du: *Abe Maria*, besteak *bizi bedi Jesus*, besteak beste gauzarik.

Konfesioko denboran utzi bear dira itz, eta ipui alperrak: itz loi edo desonestoak, eta besteren izen ona, edo fama galtzen duenak. Itz alperrak dira esatea: *Akusatzen naiz, nere Jaungoikoa ez dedala amatu*. Alperra da au, dio S. Franzisko Salesek, ez da alabaña aditzera ematen bekatark batere, eta era

berean alperra da esatea: *Akusatzen naiz eriotzako orduan Deabruak akusatuko nauan guziaz*. Urrena utzi bear dira itz loi, edo aragizkoak. Badira batzuek añ landugabe, eta basatiak, añ aberekiak, non eztakien seigarrengo bekatuak konfesatzen, aragien izen lotsagarriak aitatugabe. Atzenean utzi bear dira besteren izen ona, edo fama gutxitzen duen itzak. Batzuek agertzen ditue bekatuan lagun izan dituenak, besteak esaten ditue senarraren, edo emaztearen utsegiteak premiarik gabe, eta au guzia gaizki egiña da. Asko degu gaurko.

Balia gaitezen, nere Kristaua, Jesus onak gure animak sendatzeko utzi digun Sakramentu onezaz. Oitu gaitezen, modu eder batean eta sarritan artzera. Onela garaituko ditugu gure griña txarrak, eta iritsi dezakegu betiko bizitza. Amen.

EMEZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Konfesio onan eskatzen
dituan doayak.*

Konfesio ona egiteko bear dan laugarren gauza da Konfesioa, au da bekatuak esatea, edo aitortzea barkatzeko eskua duan Apaizari. Azkeneko aldian aditzera eman nuan, bekatuak aitortzeko, edo konfesatzeko Kristau guziok degun egin-bide, edo obligazioa. Aditzera eman nuan urrena, nolako modua gorde bear lizakean Konfesioaren aurretik, eta konfesioko denboran. Gaur ukituko ditut konfesio onak eskatzen dituan doai, edo kondiziak. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Konfesio onak, eskatzen dituan doai, edo kondizioak asko dira, baña guziak biurtzen dira irutara. Oek dira *umilla*, *egiazkoa*, eta *osoa* izatea.

Konfesio *umilla*, au da umiltasun, eta lotsa eder batekin bekatuak aitortzea. Umiltasun, eta lotsa au jayotzen da ezagutzetik, zer, eta noren kontra egin degun. Gisa onetan Ebanjelioko Seme ondatzalleak aitortu zion bere Aita Zerukoari bere gaizki egiña: *Aita*, esan zion, *egin* det bakatu zure kontra, ez naiz ni zure Seme izendatzeko diña: baña amazazu zure serbitzarien artean bederik. Au bera aditzera eman zigun Jesu-Kristok Fariseo, eta bekatari publikanoaren ipui, edo parabolari. (*Publikanoaren* izena ematen zitzayon Juduen artean guzien auan, eta iritzian bekataritzat ezagutua zegoan, edozeñi). Sartu ziran Elizan Fariseoa, eta publikanoa. Fariseoa arrotasun andiarekin joan zan Elizan gora, eta asi zan Jaunari eskerrak ematen, esaten ziola: *eskerrak, Jauna: zeren egin ez nazun besteen, eta arako publikano aren anzekoa: astean bi egunetan barautzen naiz, eta ditudan gauza guzien amarrena ematen det*. Ekusten dezu, nolako arrotasunarekin agertu zan Fariseoa Jaunaren aurrean? Etzan ara joan bere bekatuak aitortzera, baizik obra onak esatera. Gisa onetan dijoaz batzuek konfesatzera, ez bekatuak, baizik obra onak. Publikanoa geratu zan bean, eta begiraturik bere bekatuak, etzan atrebitzen altxatzera begiak lurretik. Bularrari kolpe andiak ema-

naz, esaten zion Jaunari: *Nere Jaungoikoa, urrikaldu zaitte bekatari onezaz*. Ona, nolako umiltasunarekin eskatzen zion publikanoak Jaunari bere bekatuen bar-kazioa. Orregatik dio Jesu-Kristok, oni barkatu ziozka-la Jaunak bere bekatuak, baña Fariseoari ez (Luc. 18). Esan det, konfesio *umilla* dala *umiltasun*, eta *lotsa eder batekin bekatuak* aitortzea. Bada lotsa bat, dio Espiritu Santuak, gaiztoa, eta berekin bekatua daka-rrena. Lotsa onek eragozten du bekatua aitortzea aitortu bear danean, eta billatzen ditu bekatuaren edergarriak. Bada beste lotsa bat onra, eta edertasu-na berekin dakarrena: *Konfusio adduzens gloriam, et gratiam*. Lotsa onek ez du eragozten bekatua aitor-tzea, aitortu bear danean, baizik esan erazten dio, begira ezperen Magdalenari Jesusen oñetan. Ekusi zuan, zeñ eskergabea izan zan bere Jaunarentzat: lotsatu zan, bere bekatuai begiraturik, eta lotsa onek, etzion pakerik eman Jesusen oñetan jarri zan artean.

Konfesio onaren bigarren *doai, edo kondizioa da egiazkoa izatea*. Zer ote da *konfesioa egiazkoa izatea*? Da examina ongi eginda, arkitzen ditugun bekatu larri, edo mortalak, arkitzen ditugun eran, eta adiña aitor-tzea. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak (Ses. 14 cap. 5 de Paeniten.) Onetarako ez dituzu esan bear

zeregan ezagutzen dituzun baño gutxiago, edo geyago. Batzuek, eziñ oroitu badira, zenbat bekatu egin dituen, dioe berengan: *ez det bada dan baño gutxiago esan bear, izan bitez zortzi geyago*. Oek pisagarritzat bezala. Onzako urrea baliz bakoitza, ez lirake añ erraz pisagarritzat botako. Konfesioa egiazkoa izateko, ez dezu edertu bear zure bekatua, besteri oben, edo kulpa egozten diozula. Badira bekatari batzuek beren utsegite, eta bekatuen kulpa besteri egozten dioenak. Birauak egin ditue? esango due, emazteak, edo senarrak, edo auzoak artara beartu dituala. Au bera gertatzen da zenbait aldiz seigarrenko utsegiteetan. Ez da au ongi egiña: bakoitzak aitortu beza bekatua besteri oben, edo kulpa egotzi gabe. Atzenean ez ditugu esan bear premia gabe besteren bekatuak. Zertako esan bear ditu gizonak emaztearenak eta emazteak gizonarenak? Zertako gurasoak umearenak, eta umeak gurasoarenak? Esan bitza bakoitzak bereak. Baña Adan, eta Ebaren umeak izan gu! Adanek bere bekatua egotzi zion Ebari, eta Ebak sugeari, edo Deabruari.

Konfesio onaren *irugarren doaia* da *osoa* izatea. Ez da asko Mandamentu batean egindako utsegiteak esatea baizik esan bear dira mandamentu guzien kon-

tra egin diranak. Ez da asko gogoz, edo pensamentuzkoak aitortzea, baizik aitortu bear dituzu itzez, eta obraz egin dituzunak ere. Era berean aitortu bear dituzu zure bizimodu, estadu eta karguaren egin-bide, edo obligazioen kontra egin dituzunak, dala zabarke-ritz, dala bestela. Karlos bostgarrena, edo *Carlos quinto*, eizera irten zan aldiren batean sartu zan Eliza batean. Prestatu zan konfesatzeko. Deitu zion Eliz artako arzayari, eta konfesatu zan: baña etzitzayon gogora ezer esatea Errege zan aldetik izan zitzakean utsegiteen gañean. Konfesoreak esan zion: *Esan dituzu Karlosen bekatuak: esaitzu orain Erregerenak*. Añ ongi erori zitzayon Erregeri Konfesorearen esan au, non gero onra andietara altxa izan zuan.

Batzuetan gertatzen da lagun urkoari bekaturako bidea ematea, orduan esan bear da, zenbat laguni, eta zenbat bider. Baldin gurasoak umeari, edo umeak gurasoari birauak botatzeko, edo beste bekaturen baterako bidea eman badio, esan bear da, zenbat bider au gertatu dan. Baldin seigarren Mandamentuan utsegiteren bat gertatu bada, orduan begiratu bear da, zer estadutakoarekin gertatu dan: aidea bada, zer aidetasun duan. Bekaturen bat geratu bazatzu konfesatu gabe, zeren examinako denboran gogora etza-

tzun, edo zeren konfesioan aztu zatzun, ez da orregatik gaiztoa izango konfesioa, baldin arretarekin egin badezu examina; baña beartua zaude konfesatzera gero aztutako bekatu ura. Lotsaz, edo gaiztakeriaz konfesatu gabe uzten bada bekatu larri, edo mortalen bat, edo aintzakotzat bekatariak zedukana, orduan gaiztoa izango da konfesioa, eta berritu bear dira onela egindako konfesio guziak, garbiri esaten dala, nola lotsaz konfesatu gabe utzi zuan onelako bekatu, eta arreizkero zenbat bider konfesatu, eta komulgatu dan, eta zer bekatu Mandamentu bakoitzean gertatu zaizkan.

Orra, Kristaia, konfesio onak eskatzen dituan doai edo kondizioak. Baldin guk bear dan eran aitortzen baditugu gure bekatuak, leyala, eta zuzena da gure Aita ona, barkatzeko gure utsegiteak, eta garbitzeko gure animak bekatuen loyetatik, dio San Juanek: *Si confiteamur peccata nostra, fidelis est, et justus, ut remittat nobis peccata* (1.^a Joan 1.^o). Bizi gaitzen aurrera zintzoro, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

EMERETZIGARREN ERAKUSALDIA

*Nola askotan gertatzen dan lotsaz
konfesatu gabe bekatuak utzitzea.*

Konfesio ona egiteko bear da laugarren gauza da *konfesioa*, au da bekatuak aitortzea, edo esatea bar-katzeko eskua duan Apaizari. Konfesio onak eskatzen dituan *doai edo kondizioak* biur ditezke irutara, eta oek dira: *umilla, egiazkoa, eta osoa izatea*. Oen gañean izan zan azkeneko Erakusaldia. Askotan gerta-tzen da, konfesioak doai oek ez izatea, eta bekataria gaizki konfesatzea: baña geyenetan. au gertatzen da, lotsaz konfesatu gabe uzten dirala bekatuak. Orrega-tik gaur ekusi bear degu., nola gertatu oi dan au. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

1. Zuk gaztea, aur denboran artu zenduan *Dea-brua, Demonioa, arrayoa* esateko oitura: uste zen-

duan, bekatu larri, edo mortala zala izen oek esatea, eta lotsaz konfesatu gabe utzi dezu gai onetan gertatu zatzuna. Egin dituzu konfesio gaiztoak. Askotan esan det leku onetatik, ez dala bekatu larri edo mortala *Deabrua*, *Demonioa*, *arrayoa* esate utsa, baña zenbait ez datoz Jaunaren Itza enzutera, edo datozenean ere ez due arretaz enzuten. Emendik uste due batzuek, bekatu mortala dala *Deabrua*, *Demonioa*, *arrayoa* esatea, eta berez ala ez izan arren, egiten due *bekatu mortala*, zeren aintzakotzat daukeen gauza esaten duen. Beste batzuek uste due *Deabrua* esatea ez dala *bekatu mortala*, baña bai *Demonioa* ta *arrayoa* esatea. Uste onetan daudela esaten due *Demonioa*, edo *arrayoa*: eta egiten due *bekatu larri* edo *mortala*, zeren aintzakotzat daukan gauza dan. Orra zer datorren erakusten dana ongi ez enzutetik. Enzun ezazu, Kristaua, gaur bederik ongi esatera noana. Lenengoa: *Deabruari* eta *Demonioari* otsegittea, gauz itsusia da Kristauaren auan; uzten du alabaña Jesusen, eta Birjiña txit Santaren izen Santua, eta auan darabill Jesusen, eta gure animen etsaya: orregatik ayenatu bear da oitura au Kristauen artetik. Bigarrena: *Deabrua*, *Demonioa*, *Satanas* esatea guzia bat da, eta iru izen oekin aditzen da etsai galgarria:

eta iñoiz gertatzen bazatzu, Kristaua, ustekabeen, edo bestela *Deabrua*, edo *Demonioa* esatea, ez dezazula bekatu *mortalizat* artu, baña aurrerakoan utzi ezazu usanza txar au. Irugarrena: *Arrayoa* esatea berez ez da *tximista* esatea baño geyago, eta geyen geyenez izango da bekatu beniala itz alperra bezala. Besterik izango lizake *arrayoaren* izenaz gañera biraura igaroko baziña, esaten dezula: *arrayoak zaramazkiala*: orduan bekatu mortala izango lizake, ez *arrayoaren* izen utsagatik, baizik zeren lagun urkoari opa diozun gaitz andia.

2. Zuk askotan esan diezu lagunai ay arranoa! Uste zenduan, zala bekatu txit andia, eta lotsaz ez dezu konfesatu: konfesio gaiztoak egin dituzu, zeren *bekatu anditzat zendukan gauza* utzi dezun konfesatu gabe. *Arranoa*, *saizuria*, eta *sapelaitza* dira sarraiski billa mendietan, eta aitzetan; ibilli oi diran egaztitar batzuek, eta oek izendatzea ez da bekatu. Atozea, *txepetxa*, *zozoa*, *birigarroa*, *onza* esatea bekatu da? Ez, Jauna, esango dezu. Era berean bada ez da bekatu esatea: *Arranoa*, *saizuria*, *sapelaitza*; baña zuk zere txorakeriaz bekatu anditzat iduki, eta egin dezu. Utzi bear dituzu bada onelako uste farragarriak.

3. Zuk, gaztetxoia ziñala, esaten zenien lagunai *ay apoa!* eta uste zenduan, egiten zenduala bekatu txit itsusia, eta oraindano lotsaz utzi dezu konfesatu gabe. Bekatu mortalak egin dituzu *apoa* esatearekin, zeren aintzakotzat zendukan, eta zure konfesioak gaiztoak izan dira, zeren lotsaz konfesatu gabe utzi izan dezun bekatu anditzat zendukan gauza. Orra zer kalteak datozen, edo Jaunaren Itza ongi aditugabez, edo Konfessoreari galdetu gabez onelako gauzak bekatu diran, edo ez. *Apoa* edo *zapo* esatea ezer ez da. *Suangilla, sugea, muskerra, sagua, arratoia* esatea ezer ez dan bezala; baña ezer ezarekin eragiten diezte batzuetan etsaiak gaztetxoai bekatu andiak.

4. Zuk, adiñean sartuaz zinjoazen bezala, igerri zenduan, esnatzen zirala zukan gaitzerako asko gura, eta idurimendu, edo imajinazioa betetzen zala gogorazio itsusiz. Etziran gauz oek bekatu, zeregandik aye-natzeko alegiña egiten bazenduan; baña zuk etziñakian gauz oen berririk: uste zenduan bekatu txit andiak zirala, eta etziñan atrebitzen konfesatzera. Onela egin dituzu konfesio gaiztoak, zeren bekatu anditzat zenduzkan gauzak aitortu, edo konfesatu ez dituzun. Etzitzatzun orrelako gauzarik gertatuko, galdetu baziñuka Konfessoreari, gauz oriek bekatu ziran

edo ez. Beste onenbeste, edo geyago gertatzen da beñ baño geyagotan ezkonduakin, galdetu gabez zenbait gauza konfesoari.

5. Zuk aur denboran zere kideako batekin egin zinduan eskuz, edo bestela gaiztakeri batzuek, Askotan gogora zatzu, *esango ote ditut?* baña lotsaz utzi dituzu konfesatu gabe, esaten dezula zeregan: *Txikia nintzan orduan*. Atozea, eta zenbat urte izango zinduan, gauz oriek egin zinduanean? Jauna izango nituan *zazpi, zortzi*, edo geyago. Atozea, eta etzinateen ezkutatzen? Bai, Jauna. Beldur naiz bada, gaiztoak izan ote diran zure konfesioak:

6. Zuk zortzi, amar, edo amabi urte zinduan denboran egin zinduan gaiztakeri batzuek zere bu ruarekin, edo lagun baten batekin. Konfesoariak galderen batekin ukitu zaitu zaurian, eta aitortu diozkatzu orduko gaiztakeriak, baña zere burua edertu nayezen esan dezun: *bost, edo sei urte baizik etzenduala orduan*. Au da bekatua osotoro ukatzea bezala; konfesoariak alabaña usteko du, gaiztakeri aek gertatu zirela, gaitzaren, eta onaren ezaguerarik etzenduan denboran.

7. Zuk egin zinduan ukiera lotsagarriak, batzuetan zere buruarekin, besteetan zure lagun baten batekin: alaere etzinduan aitortu, Konfesoariak bere galdeare-

kin esnatu zinduan artean, eta orduan esan zenduan: *Ez niakian, Jauna, gauz oek bekatu zirala: baniakian gizonak emakumearekin, eta emakumeak alako ibille-
rak egitea bekatu zala, baña bakoitzak bere buruare-
kin, mutillak mutillarekin, eta neskatxak neskatxare-
kin egitea ez neukan bekatutzat. Atozea, ez ote zizun
zure barrunbeak esaten: ez da gauz ona izango onela
ibilizea? Ez ote zinduan izaten zere kezka modu itsu-
si oriek gogoratzean, batezere konfesioko egunetan?
Beldur naiz bayetz, eta lotsa ziñala, Konfessoreari gar-
biro esateko. Aurrerako enzun esatera noana. Gizonak
gizonarekin eta emakumeak emakumearekin atsegin
lotsagarriak artzea bekatu itsusiagoa da gizonak ema-
kumearekin atsegin bera artzea baño. Sodomatarrak
ainbesteraño itsutu ziran atsegin zikiñen gurarekin,
non etzeukeen ezertan emakumeakikoa, eta oitu ziran
gizonak gizonakin ezin esan ditezkean gauza nazka-
garriak egitera eta dirudianeaz au bera gertatu zan
emakumeakin ere. Aserratu zitzayon Jaunari: bidaldu
zuan sufre erazekizko euri izugarri bat, eta auts biur-
tu zituan ala gizonak, nola emakumeak. Bizirik geratu
ziran Lot, bere emaztea, eta bi alaba, zeren Aingeruak
erri artatik atera zituan, su, eta garren jasak asi ziran
baño lentxeago. (Genes. 19). Emendik ateraezazu,*

Kristaua, zeñ gauza gaizto, eta nazkagarria dan Jaunaren begietan gizonezkoak gizonezkoakin, eta emakumeak emakumeakin modu itsusietan ibiltzea.

8. Zuk, Kristaua, egin zenduan bekatu itsusi bat urliarekin: etorri ziñan konfesatzera, eta esan zenduan bekatua gogoz, edo pensamentu utsez egindakoa bezala. Au da bekatua edertzea, eta ez aitortzea zere biotzean arkitzen dezun eran.

9. Zuk, gaztea, askotan utzi dituzu bekatuak konfesatu gabe, zeren konfesoreak bere galdeekin asmatu ez dizkitzun. Au da zorakeri bat, dotrina dakien artean ezin gerta ditekeana: guziok dakigu alabaña, beartuak gaudela gure bekatuak aitortzera examinan arkitu ditugun bezala, naiz konfesoreak galdetu, naiz ez. Mutill batek ostu omen zuan anzume bat: konfesoreak galdetu zion, *arkumerik ostu zuan?* Eranzun zuan, *ez Jauna*, eta etzuan ezer esan anzumearen gañean. Gero omen zion: arkumearen lekuan anzu-me esan balit, galdua ninduan. Batzuek aitortuko due egin duen bekatua, baña ez bekatuaren nabardura, edo mantxak, galdetzen ezpaditu konfesoreak: nabardura, edo mantxa oek dira: *ezkonduarekin, aidearekin, edo beste estadutakoarekin bekatu egitea.*

10. Zu ezkondu zihan, eta suerteak eman zizun abererik zikiñena baño zikiñagoa dan bizilagun bat. Beldur, eta kezka andian bizi zera, onelako, edo alako modu itsusi bekatu ote diran, baño lotsa zera Konfeso-reari galdetzeko, eta aurrera zoaz zere modu itsusietan, zeregan diozula: *ezkonduen artean ez dago bekatu-rik: gizonarena da emaztea, eta emaztearena gizona*. Au da zure barrengo kezka, eta beldurra nolere-bait arindu nai izatea. *Gizonarena da emaztea*, diozu, ala da; ez ordea Jaunak debekatzen dituan modu itsusiak egiteko. Zurea da, kutxan daukazun, *bizkorgarria*, baño ez orditzeko, bazik premia dezunean, eta poliki-txo edateko. Ezkonduen artean ez dago bekatu-rik diozu. Engañatzen zera. Sararen lenbiziko zazpi gizonak ezkonduak ziran: alaere Sararen gelara sartzean, zazpiak urkatu zituan Demonioak, zeren asmo garbiarekin ezkondu etziran. Judas Patriarkak ezkondu zuan bere seme nagusi *Her* zeritzana Tamarrekin: eta seme oni Jaunak kendu zion bizia, zeren gaiztoa zan beraren begietan. Ez digu Eskriturak esaten, zer gaiztakeria zan *Herrek* egiten zuana, baño gizon jakintsu askoren iritzia da egiten zituala modu itsusiak aurdun geratu etzedin emaztea. Orregatik urkatu zuan Demonioak. Patriarkak ezkondu zuan bere bigarren seme, *Onan*

zeritzana, Tamarrekin berarekin; eta au ere urkatu zuan Demonioak anayaren eran, zeren onek ere egiten zituan gauz itsusiak (Vide-Menochium). Ekusten dezu, nola ezkonduen artean ere bekatu dirala zenbait gauza?

11. Zu, gaztea, ekusirik elkarganatuak abereak, askotan egon zera begira, gogorazio loyetan atsegin artzen zenduala; eta bearbada egin ere dituzu modu itsusiak; baña lotsatu zera gauz oek aitortzeko, edo konfesatzeko. Oraindañoko utsegiteak zuzendu itzatzu konfesio on batekin: eta emendik aurrera ken begiak bekaturako bidea dakarten gauzetatik. Eta zuek gurasoak, ez bidaldu gazteak onelako perilletara.

12. Zu, gaztea Tolosara, Donostiara, edo beste lekuetara sarritan joan zera, eta jayera geyegi artu diozu edari goixo, edo bizkor ari: batzuetan jarri zatzu begietan lausoa, eta ondoren geratu zera arko *mau* egiten duan gauzatxo arekin; baña lotsatu zera konfesatzeko, eta egin dituzu konfesio gaiztoak.

§ II.

Orra zenbat gisatara gertatzen dan konfesio gaiztoak egitea lotsaz. Begira, Kristaua, zure anima gaixotari, eta zuzendu itzazu oraindaño okerrak konfesio on batekin. Aurrera bizi zaite Jaunaren beldur Santuan, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

OGEIGARREN ERAKUSALDIA

- 1. Adirazten da, nolako iduripenak gogora ekartzen diozkan etsayak bekatariari, bear bezala aitortu ez ditzan bere bekatuak.*
- 2. Nolako ondorenak emendik etorri oi zaizkan bekatariari.*

Azkeneko aldian ekusi genduan, nola askotan gertatzen dan, bekatariak lotsaz konfesatugabe utzitzea bekatuak: emendik Konfesio, eta Komunio gaiztoak: emendik betiko su, eta garren artean erortzeko zorian gau, ta egun arkitzea. Alaere alako iduripenak etsayak gogora ekartzen diozka bekatariari, non atrebitzen ez dan bere utsegiteak garbiro aitortzera. Orregatik iduripen oek izango dira gaurko Erakusaldiaren gaya. Aditzera emango det, lenengo lekuan, nolakoak izan oi diran iduripen oek. Urrena, nolako ondorenak emendik etorri oi zaizkan bekatariari. Enzun arretaz.

Lotsaz bekatuak konfesatugabe, bizi danean bekataria, etsayak beretua dauka, eta egiten du alegiña, iges egin ez degion Konfesio onaren bidez. Onetarako gogora ekartzen diozka asko iduripen, eta oetatik bat da oraiñ ukitzera noana.: *Bekatu oek aitortzen badiozkat Konfesoreari, absoluziorik gabe bidalduko nau.* Bitatik bat: edo ongi prestatua zaude, edo ez? Ongi prestatua bazaude, pozik emango dizu absoluzioa. Baña ongi prestatua ezpazaude, zerorrek ere ez dezu artu naiko, artarako prestatu, eta sasoi onean jarri zaitzen artean: eta prestaera au nola egin bear dezun, erakutsiko dizu Konfesoreak. Badira zenbait añ basatiak, non absoluzio, ta Komunioa bereala artu nai duen, artarako prestatuak ezpadaude ere. Ez da erraz sinistea, nolako gauzak gertu diran gai onetan, eta guzia dator, Sakramentuak eskatzen duen prestaeraren berri ez jakitetik, Jauna eta zer esango due, komulgatzen ezpanaiz? Ezer ez, zeren bakoitzak bere buruarekin zer egiñik asko badu, zuk egiten dezun begiratu gabe ere: eta oartuko balira ere, ez due ezer esango, zeren dakien, Konfesio, ta Komunio onaren prestaerak eskatzen duala denbora, eta sosegu pixka bat.

Bigarren idurripena: *Nork esango diozka Konfesoreari bekatu añ itsusi, eta nazkagarriak? Ez du bestek*

egin onelako bekatuak. Au da zorakeri andi bat. Ato-zea, Santo Kristoren bat, edo Aldareko Sakramentua oñpean erabili dezu? Norbaiti berariaz puzoya janari, edo edarian eman diozu? Ez det uste, baña au guzia gertatu balitzatu ere, jakizu, ori, ta geyago egin izan dala munduan. Ez det ezer esan nai seigarren Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean, zeren erraz zikindu litezkean aitatze utsarekin ere zuen gogo, eta biotzak. Utzi itzatzu bada, Kristaua, iduripen farragarri oriek.

Irugarren iduripena: *Zer esan, edo igaroko luke Konfesoreak beregan, esango baniozke bekatu oek?* Bitatik bat: edo bizitza ontzeko asmoarekin zaude, edo ez? Asmo au gabe ekusten bazaitu, esango du beregan: bekatari onek aitortu ditu lotsaz konfesatu gabe zeuzkan bekatuak ere, eta au siñale ona da; baña ez du biotzak bekatua, eta bekatuaren bideak uzteko; alaitu bear da, erabaki dezan bekatutik aldegitea, eta bizitz onari jarraitzea, eta eman bear zayo zerbait denbora, presta dedin ongi. Baña ekusten badu, prest arkitzen zerala, bekatutik aldegiteko, eta umilki agertzen dituzula zure zauri, edo bekatuak, zer, uste dezu, beregan esango duala Konfesoreak? Esango du, *gerrari, edo soldadu ona zerala, leneko pelean*

gaizki irten bazera ere. Demagun, gudari, edo soldadu bat, etsayakin pelean dabillega, geratzen dala zauriz betea. Deitzen dio sendatzalleari, eta esaten dio: ona beso au zinzilika, eta burua zuloz betea: ona izterra bala biz igaroa: egin beza sendatzeko alegiña, naiz erreaz, eta naiz ebakiaz, bestela ezin sendatu ditekeena. Atozea, zer esango du sendatzalleak beregan? Esango du, biotz andiko gerraria dala. Au bera esango du zuzaz Konfesoreak, ekusten duanean, umulki aitor-tzen dituzula zure bekatuak, eta prest arkitzen zerala sendagayak artzeko, eta etsayaren kontra pelezteko.

Laugarren iduripena, *izutuko lizake Konfesorea, bekatu añ itsusiak nigandik adituko balitu. Izutuko lizake? Zergatik? Atozea, ez da bera ere bekataria? Ez ditu zuk bezala bere utsegiteak, edo Mandamentu orretan, edo besteren batean, eta bearbada zuk baño adiagoak? Ni ere bekataria naiz, zu bezala, zion S. Agustiñek: *Peccator sum, sicut et tu*. Isutuko lizake, diozu. Nola izutuko da, bekatu oriek baño andiagoak irakurtzen baditu Eskritura Santan? Nai dezu jakin, zerk izutu oi duan Konfesorea? Izutzen du ekustek, biotzik ez duala bekatariak bekatuaren bideak uzteko, eta bere griña txarrak ukatzeko.*

Bostgarren iduripena: *nik ez nukean nai alako gauzarik egitea; bortxaz izan zan*. Au izan oi da geyetan beintzat, bekatu garbiro ez aitortzea, baizik gañtxuritzea. Atozea, etziñan arekin egon oi pozik bakarrik, eta ergelkerian? Etzenduan igerritzen, gis orretan egotea zala zer, edo zer gertatzeko perilla? Atozea, eta egin zenduan deadar, edo iges egiteko alegiña? Beldur naiz, edergarri utsa dala zuk diozun guzia. Ipuyetako Gobernari bati joan zitzayon beñ emakume bat iskanbilla andian, esaten ziola: Jauna, erri onetara natorrela arkitu det gizon lotsagabe bat; asi zat gaizki diran moduetan, eta atzenean bortxatu nau. Non da gizon ori, esan zion Gobernariak? Jauna, eranzun zion. oraiñ sartzen da errian. Eramaten due Gobernariaren aurrera: aitortzen du bere bekatua, baña ez bortxa. Agindu zuan Gobernariak, eman zegiozkala emakumeari amar dukat, edo ez dakit geyago baziran ere. Artu zituan emakumeak diruak, eta joan zan andik. Gizona an zegoan negarrez, eta zin: aitortzen det nere bekatua, baña biok nai genduan. Orduan esan zion Gobernariak: *oa atxituta, ken zayok ere dirua*. Joan zan lasterka emakumearen ondoren: atxituta egin zuan alegiña dirua kentzeko, baña alperrik, zeren emakumeak ozka, eta atzaparka

gorde zuan Gobernariak eman ziona. Berrito deadarka joan ziran Gobernariaren aurrera: Jauna, deadar egi- ten zuan emakumeak: *leneko gaiztakeria gutxi baliz bezala, berrito ekin dit berorrek eman erazo dion dirua kendu nabez, orra.nolako gaiztagiña dan au. Atozea, esan zion Gobernariak, eta kendu dizu dirua? Ez Jauna, eranzun zion; kendu? Ona naiz ni, orrela nolanai dirua uzteko.* Orduan Gobernadoreak agindu zion emakumeari, biur zegiola gizonari eman zion dirua, eta esan zion: *Zer? Dirua gordetzeko gai zera, eta etziñan gai zere burua gordetzeko? Zoaz emendik ordu gaiztoan, gezurtia.*

Seigarren iduripena: *Eztago neretzat Zerurik: ezdago barkaziorik. Zergatik ez? Eztago zuretzat bar- kaziorik, utzi nai ezpadituzu bekatua, eta bekatuaren bideak. Eztago barkaziorik, ezpadezu biotzik zure griña txarrak ezitzeko. Eztago barkaziorik, lagun urko- aganako gorrotoa, eta gorrotoaren siñaleak utzi nai ezpadituzu. Eztago atzenean barkaziorik, aitortu, edo konfesatu nai ezpadituzu zure bekatuak; baña baldin zuk au guzia egin nai badezu, jakizu guziz urrikaritsua dala gure Aita Zerukoa, eta besoak zabaldurik dagoa- la zuri guzia barkatzeko. Egin zuan bekatu S, Pedrok: egin zuan bekatu Santa Maria Magdalenak, eta eman*

zer esan bere janziara, eta ergelkeriak. Ala ere biurtu ziran Jaunagana, eta dira orain guziok dakigun bezala, Santu andiak. Zergatik bada zu ere etzera biurtuko zere Aita onagana? Begira, guziz negarriak dira iduripen oek bekatariari ekarri oi dikeen ondorenak. Goazen ezperen oei begiraldi bat ematera.

§ II.

Lenengo ondorena izan oi da egunetik egunera azitzea, eta ugaritzea lotsa, eta gero konfesaldi bakoitzean geratzen da bekataria lotsa, edo beldurraren korapillo au ezin eten duala. Esan nai luke bere bekatua, eta bearbada asmo onekin dijoa konfesatzera, baña esateko denbora datorrenean, ez du biotzik. Gertatzen zayo onelako bekatariari, Isayas Profetak ama batzuez diona: etorri ziran, dio, semeak jayotzeko zorira, baña etziran jayo, zeren indarrik etzuan amak: *Venerunt filij usque ad partum, el virtus non est pariendi* (cap. 37).

Bigarren ondorena: dabillen toki guzian, lotsaz konfesatugabe daukan bekatua bekatariari gogora

etortzea, eta ar gogaikarri baten eran ozka aritzea. Badator Elizara, badijoa lagun artera, edo festara eta an izango du bere arra. Onela bizi da egun on bat ekusi gabe. Alperrik farra egingo du lagun artean: alperrik jolasak billatuko ditu errian, edo kanpoan, atsegin-kontentu guziak izango dira azalekoak, eta biotza beti egongo da illuntasun izugarri batean, konfesio on batekin bekatua ayenatu dezan artean. Esan diteke, asi dala onelako bekataria infernuko samintasunak bere barrunbean dastatzen, eta gustatzen.

Irugarren ondorena: beti gerorako utzitzea konfesio ona, eta *gero ura* beñere ez etortzea. Ala gertatu zitzayon Españako erri batean dama bati. Geratu zan amagabe. Asi zitzayon ezkutari bat sarritan itzegiten, eta milla losentxa egiten. Denboren buruan kuturtu zuan Jaunak debekatzen duana egitera. Sarritan konfesatzen zan, baña etzan atrebitzen gertatu zitzayona esatera. Iru urte joan ziran gisa onetan. Gertatu zan denbora artan Misionari jakintsu bat erri artara joatea. Asi zan Jaunaren Itza adirazten txit ederki, eta bazijon beti-betiro enzutera dama. Arpoi baten eran igarotzen zion Jaunaren Itzak biotza, eta etxera biurtzen zanean, ezin ase zan negarrez. *Betiko zere burua galdu naiko dezu, zion beregan: etzenduan lotsarik*

*bekatu egiteko, eta lotsa zera aitortzeko, edo konfesar-
tzeko? Baldin lotsa bazera, bati zere bekatua esateko,
zoaz beste bategana. Orra non dezun Misionaria: ordu
erdi batean irten zaitezke neke oetatik. Egun batean
ainbesteraño ukitu zion Jaunaren Itzak biotza, non
osotoro erabaki zuan aitortzea bere bekatua, eta kon-
fesio on bat egitea. Jarri zan gaixo bezala, eta deitu
zion Misionariari. Aditu zion onek bere konfesioa, eta
ekusirik, damu andiarekin esan zituala bere bekatuak,
eman zion absoluzioa, eta biurtu zan bere etxera.
Konfesioko denboran Misionariaren laguna urruti baña
begira omen zegoan eriari: eta ekusi omen zuan, oya-
ren basterretik agertzen zala atzapar beltz itsusi bat,
eta estutzen zuala eria eztarrian alako eran, non itoko
zuala zirudian. Esan zion Misionariari, zer ekusi zuan.
Biurtzen da au eriaren etxera, eta gauza negargarria!
Iltzan eria Misionaria ara zaneko. Ez da gogora ekar-
tzea besterik, nolako naigabearekin geratuko zan Kon-
fesorea. Joan zan Sakramentuaren aurrera: asi zan
Jaunari erregutzen bekatari aren animagatik. Aditzen
ditu kateen otsak, eta adia izugarriak: andik laster
agertzen zayo emakumea bera, sua, ta garra dariola.
*Ni naiz, osan zion, zurekin konfesatu naizan emakume
ura. Atozea esan zion, Misionariak: etzera ongi konfe-**

satu? Ez, eranzun zion: zeren osotoro esan ez ditudan nere bekatuak. Asi nintzan txikienetatik, uzten nituala andienak azkenerako, eta geroagota andiago zan nere lotsa. Etsayak gogora ekarri zidan, zuri nere bekatuak esatearekin geyago galduko nuala nere izen, edo faman, beste edozeñi esanda baño: orduan osasuna nuala, eta gero gaixotzen nintzanean, esango nituala egindako bekatu guziak. Onela utzi nuan nere bekatua aitortu, edo konfesatu gabe. Zu nere etxetik irten ziñan bezala, geratu nintzan itz gabe, eta andik laster illa. Atozea, esan zion Misionariak, *eta zerk oraiñ naigaberik andiena ematen dizu?* Eranzun zion emakume doakabeak: Nere naigaberik andiena da oroitzea, nola Jaunak bidaldu zinduan urrutietatik nere anima Zerurako bidean ipintzera, eta galdu dedala era añ ederra. Au esan ondoan, egin zuan adi, edo ay izugarri bat, eta ondatu zan betiko su, eta garren artean.

Aditzen dezu, bekataria nolako ondorenak ekarri oi dituen etsayaren iduripenak? Eta alaere ez ote dezu, orain bederik, garaituko zure beldur, eta lotsa anima galgarri ori? Begira zure anima gaixoari, eta etzaitzela lotsatu egia esateko, dio Espiritu Santuak: *Pro anima tua ne confundaris dicere verum* (Ecclesias-

tici 4.^o). Zoaz lenbait len nai dezun Konfessoreagana, eta esan zayozu: Jauna onenbeste denbora da gaizki bizi naizala, bekatuak lotsaz konfesatu gabez, batezere onelako Mandamenturen kontra egindakoak. Gertatu zitzatan onelako bekatu itsusi garbitasun, edo kastedearen kontra, eta ez nintzan atrebitu orduan aitortzera, eta geroz ezin konta al bekatu egin ditut. Au esan ezkerro, erraz egingo dezu gañerako guzia Konfessorearen lagunzarekin. Arrezazu bitartekotzat Birjiña txit Santa Doloreetakoa, zure Aingeru begirale, edo guardakoa, eta S. Franzisko Xabier. Onela irten zaitzke bekatuaren osin orretatik, eta iritsi dezakezu betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI, TA BATGARREN ERAKUSALDIA

*Konfesio onak eskatzen duan,
bostgarren gauzaren gañean.*

Konfesio ona egiteko bear diran, lenengo lau gauzen gañean luzaro itz egindet. Goazen orain bostgarrenaren gañean zerbait esatera, au da *satisfakzioa*, edo konfesoreak emandako penitenzia leyalki egitea. Gaur aditzera emango det, lenengo lekuan, zeñ gauza bearra dan Zerurako gure bekatuai dagoten penitenzia egitea. Urrena nola au egia dezakegun erraz. Enzun arretarekin, Kristaua.

§ I.

Guk bekatuari biotzean leku eman diogun bakoitzean, utzi degu gure Jauna, eta biurtu gera emengo iduripen, eta zorakerietara: eta bidegabe guziz itsusia da Jaunari era onetan egiten dioguna. Jakizu, eta ekusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala zuk zure Jaun,

eta Jaungoikoa utzi izan dezun eran utzitzea, esaten digu Jeremiasek. *Scito, et vide: quia malum et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum* (cap. 2). Jaunari bekatuarekin egiten diogun bidegabe oni deritza *obena*, edo *kulpa*, eta barkatzen du onezko damu, edo kontrizio osoarekin.

Ozta bekataria bekatu larri, edo mortalari leku ematen dio bere biotzean, galtzen du Jaunaren grazia, eta adiskidetasuna, eta geratzen da Zerutik erbestetua betiko. *Ez da zori onekoen erri doatsu artan sartuko bekatz loitua dagoanik*, dio S. Juanek (Apoc. 21). Pena au barkatzen dio Jaunak bekataria konfesio ona egiten duan unean bertan, artzen du bere seme, eta adiskidetzat, eta berriro egiten du Zeruaren jabegai.

Bekatu larri, edo mortala egiten duanak, Zerutik erbestetua geratzeaz gañera, irabazten ditu betiko su, eta garrak, eta an egon bearra da betikotasun guzian. Au da egia bat gure fede Santak erakusten, eta Katoliko guziok sinisten deguna. Biur bedi bekataria bere Jaunagana konfesio onarekin, eta añ da ona gure Jauna, non barkatuko diozkan betiko neke guziak. Gerta diteke biurtzea bekataria Jaunagana biotz añ prestu, eta damu añ andiarekin, non iritsi lezakean bekatuari, dagokan pena guziaren barkazioa. Ala uste

degu iritsi zuala S. Pedrok, eta Santa Maria Magdale-
nak. Baña bekatari gutxi izango dira damu añ andiare-
kin Jaunagana biurtzen diranak. Orregatik barkatzen
dio Jaunak ongi konfesatzen dan bekatariari betiko
pena, eta aldatzen dio edo emen, edo purgatorioan
igaro bearko dituan neke, eta penetan; baña neke, eta
pena oek ez dira betikoak, baizik denboraz bukatuko
diranak. Ala sinisten due Katoliko guziak. Egiten du
onetan Jaunak, Munduko Erregeak eriotzaren pena
irabazi duenen batzuekin iñoiz egin oi duena, au da
barkatzea eriotzaren pena, eta urte batzuetarako
bidaltzea gazteluren batera. Neke eta pena oek neur-
tzen ditu Jaunak bekatuen itsustasunari, eta bekata-
riaren damu, eta negarrai ongi begiraturik. Adanek
autsi zuan Jaunaren Agintea, sagar debekatua jaten
zuala. Biurtu zan Jaunagana, eta barkatu zion egin
zion bidegabea, baita betiko su, eta garren artean
egon bearra ere; baña igaro bear izan zituan bedera-
tzi eun, eta ogei, ta amar urteko neke, eta naigabe
andi, eta luzeak. Dabidi ere barkatu zion Jaunak bere
bekatu itsusia, baña ondoren ekusi zituan neke, eta
pena txit samiñak. Dionisio Kartujarrak, eta Beda
Beneragarriak dioe, zenbait bekatari bidaldu dituala
Jaunak Purgatoriora azken-kontuetako egun andiraño.

Eta eskribitzen da, pena au bera eman ziola Aita Santu Inozentzio irugarrenari, Elizaren onagatik neke andiak igaro zituan Aita Santua izan bazan ere. Zer geyago? S. Bizente Ferrerrek, esaten du, anima bati Jaunak eman ziola urte beteko Purgatorioa bekatu benial bategatik. Emendik erraz igerri dezakegu, nolako bekaturen zorrarekin egongo geran Jaunaren aurrean, bekatu larri, edo mortalen barkazioa konfesio onarekin iritsi arren. Alde batetik, zeren gutxi diran, bekatu barkatuai dagozten, emengo nekeak barkatzeko diña damutzen diranak, eta beste aldetik zeren bekatu benialen damu egiazkoa sortzeko arretarik ez duen ipintzen Kristaurik geyenak, eta nola egunetik egunera aziaz dijoan oen pilla, nork esan, norañokoa izango dan oei dagoten pena? Beldur naiz, Kristau asko egon bearrak dirala Purgatorioan azkeneko kontuen egun andiraño. Bekaturen kutsu, erdoi, edo zor oek ateragabe ez dago Zeruan sartzerik, gure fede Santak erakusten digun bezala. Orregatik gauza guziz bearra da Zerurako, gure bekatuai dagoten penitentzia egitea.

Egia au bera beste alde batetik ere ezagutu dezakegu. Bekataria, Adanen umea bezala, gaitzerako makurtua dago; eta gaitzari jarraituaz geratzen da onerako nagia, narra; eta gaitzerako zaletua, eta gose

andi batekin. Konfesio onarekin barkatzen zaizka bekatuak: baña etzayo kentzen osotoro gaitzerako gose, eta amorrua. Gañera bekatuaren bideetan dabilenak, dabillen lekuetan prestatzen ditu gaiztakerietarako sareak, egiten ditu adiskide, ta lagun bere anzekoak: eta Zerura nai badu, ukatu bear ditu bere griña, eta gura txarrak, eta aldegin bear du lagun, eta adiskide gaiztoetatik, eta onetarako artu bear ditu sendagai egokiak, aurrera erori ez dedin bekatuan. Orregatik bi penitenzi mota eman oi ditu Elizak. Bata da, egindako bekatuen zorrai erantzuteko ipintzen dana, eta oni deitzen zayo *kittagarria*, zeren dan bekataria Jaunarekin *kitto* gera dedin. Onelako penitenziak izan oi dira *Aldareak bisitatzea, Errosario batzuek esatea, induljenziak irabaztea*. Beste penitenzia da, bekatuaren zauriak sendatzeko, oitura gaiztoak desegiteko, eta aurrera bekatuak ez egiteko ipintzen dana, eta deitzen zayo *sendagarria*. Onelako penitenziak dira: *goiz arratsetako jayera onenbeste denboran egitea, egun oro S. Ignazioren liburutik zerbait irakurtzea, illean beñ onenbeste denboran konfesatzea, eta beste oen anzeko asko*. Sendagarri egokiak artzen ezpadira alabaña amilka joango da bekataria bere gura, eta oitura gaiztoak nai duen bidetik.

Orregatik penitentzia mota oek, edo sendagarriak, beti ipintzen dira, bekatariek indulgentzia, eta jubileoren bat irabazteko era, eta asmoa balu ere, zeren indulgentzia, edo barkazioak kentzen due leneko bekatuen zorra, edo guzia, edo zerbait, baña ez oitura gaiztoak, eta bekatuak perillak. Emendik atera dezakegu, Konfesoarea beartua dagoala ematera bekatuari penitentziak, ala leneko bekatuen zorrai erantzuteko, nola oitura gaiztoak, eta bekatuak perillak utzierazteko. Ezpalu bekatariak onelako premiarik, ez luke Konfesoareak penitentziak ipiñi bearrik. Ines Enperadorearen emaztea joan zan Erromara jubilea irabaztera: S. Pedro Damianorekin egin zuan bere bizitza guziko konfesioa, eta Santuak, begiraturik bekatariaren jayera, eta debozioari, eta bizitza onari, eman zion absolutioa penitentziarik batere emangabe. Ala esaten digu Aita Santu Benedikto amalaugarrenak. Baña gutxitan gerta diteke Konfesoareak ezagutzea, bekatariak ez duala penitentziaren bearrik, eta eman bear dio, artu al badezake. Diot au, zeren beñ baño geyagotan gertatzen da, bekataria arkitzea azkeneko asnasetan, eta penitentziarik ezin artu, eta egin dezakean eran, eta orduan etzayo ematen. Goazen oraiñ ekustera, nola egin dezakegun erraz gure bekatuen penitentzia.

§ II.

Gure bekatuen penitenzia guk ongi egiteko, lenengo gauza da, konfesoreak ipintzen dizkigun penitenziak leyalki egitea. Baldin konfesatzera bazatoz, ematen dizkitzuen penitenziak egiteko asmo gabe, etzera ongi konfesatuko; baldin ematen dizuen penitenzia egiteko asmoa badezu, gero piskaren bat uztea izango da bekatu beniala. Aztu bazatzu, galde konfesoreari, zer egingo dezun, baña galdetzeko erarik ezpadezu, ekartzu gogora, zer penitenziak ematen dizkitzuen, konfesaldi artan zinduan bezelako bekatuakgatik, eta egizu beste ainbeste. Ala erakusten due gizon jakintsu batzuek.

Konfesoreak ipintzen dizkiguen penitenziak izan oi dira gure bekatuai dagoztenak baño, askoz ariñagoak. Orregatik guk bigarren lekuan egin bear degun gauza da ontzat, edo Jaunaren izenean artzea emengo gurutze, eta samintasunak. Jayotzen danetik inguratzen due gizona gurutze, eta samintasunak, eta berekin ditu ill arte guzian, batzuetan lagun urkoetatik, bes-teetan gure griña txarren aldetik. Orregatik zion Job

Santuak: gerra utsa da gizonaren lurreko bizitza: *Militia est vita hominis super terram* (Job. c. 7). Gurutze oek, bear bezela igarotzen baditugu, dira Zerurako irabaziak, eta gutxitzen due bekatuen zorra. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak, eta eskomiku nagusiarekin debekatzen du besterik esatea: *Anathema sit*.

Gure bekatuen zor, eta arrastoak kentzeko, guk egin bear degun irugarren gauza da gure estadu, eta bizimoduan ditugun lan, eta neke guziak eskeintzea, eta egitea Jaunaren izen, eta onran, eta gure bekatuen zorrak ateratzeko. Gisa onetan egiten dan lan bakoitzarekin gutxitzen da bekatuen zorra, eta aurretatzen da anima Zerurako bidean. Atzenean arreta ipintzen bada Buldaren induljenzia, edo barkazioak irabazteko, asko arinduko dira gure bekatuakgatik egin bear gindukean penitenziak, eta nekeak.

Nere Kristaua, ez gaitezen izan zabarrak gure egiteko andi onetan. Jaunak prestatu ditu gauzak añ ederki gure onerako, non erraz atera ditzakegun gure bekatuen zorrak, ardura onarekin bizi nai badegu. Saya gaitezen bada au egitera, onela iristeko gure bekatuen zorrak ateratzea, eta gero betiko bizitza. Amen.

OGEI, TA BIGARREN ERAKUSALDIA

*Elizak anziñako denboran bekatariak
ipiñi oi ziezten, penitenzien gañean.*

Ekusi genduan azkeneko aldian, zeñ gauza bearra dan Zerurako gure bekatuai dagoten penitenzia egi-tea, edo ber-bera dana satisfakzioa. Ekusi genduan gañera, nola au egin dezakegun erraz. Alaere nagiak gera, Zerurako egin bear ditugun gauzetan, eta txit minberaak *penitenziaren* izena duen nekeetarako. Emendik dator bekatariak erraz bekatua biurtzea, eta amiltzea betiko su, eta garren artean. Ez ote gera noizbait esnatuko, animako gure egiteko andiari benaz jarraitzeko? Onetarako gaur itzegin nai dizut, Kristaua, Elizak anziñako denboran bekatariak ipiñi oi ziezten, penitenzien gañean. Emendik aterako degu, zeñ gauza lotsagarria dan gai onetan guk degun zabarkeria. Euzun kontuz, edo arretaz.

Elizaren lenengo denboretan oraiñ bezala gutxi gora bera bekatariak ipiñi oi zitzaizten penitentiak. Bekatu isillak ipintzen zitzaizten penitencia isillak; baña zenbait bekatu barreari penitencia agiriak, eta au bera egin bear da, eta egiten da oraiñ ere, Trentoko Konzilioak erakusten digun bezala (Sesione 24 cap. 8 de Reform). Altxa zan Elizaren kontra ekaitz izugarri bat: eta asko Kristau eriotzaren beldurrez erori ziran idolatrian. Baziran hereje batzuek, onelako bekatariak barkaziorik ematen etzietzanak, damuz, eta negarrez eskatzen bazuen ere. Baña Eliz Ama Santak etzuan beñere ontzat eman gogortasun au, Ama urrikaritsuak bezala, etzien ukatu nai, bekatariak andienai ere, barkazioaren uste, edo esperanza, baña denbora berean etzuan nai barkazioaren erraztasunak geitu, edo ugaritu zitzan bekatuak. Orregatik ipiñi zuan bekatariak penitencia eragiteko, eta atzenean barkazioa emateko modua. Siñalatu zituan penitentiarako denbora, eta mallak: siñalatu zituen Obispo Jaunak bekatu-mota bakoitzarentzat penitentiak, edo egin bear zituen gauzak. Lau malla ziran bekatariak igaro bear zituanak. Lenengoa *Negartiena*. Malla onetatik asitzen ziran bekatariak Obispo Jaunaren baimenarekin peni-

tenzia egiten. Jartzen ziran Elizako ateetan kanpoko aldetik, zaku bat janzirik, buru motzean, gizonezkoak baziran. Negarrez erregutzen ziezan Elizan sartzen ziranai, urrikaldu zitezela aezaz, baña berak ezin sar zitezkean Elizan. Onela egon bear zuen denbora siñalatu bete artean. Bigarren malla zan *Enzunleena*, Elizako ateaz barrendik. Oek enzuten zuen Jaunaren itza, eta botatzen zituen Elizatik, sermoya bukatzen zanean. Gisa onetan zeuden, denbora erabakia igaro zedin artean. Irugarren malla zan *auspez zeudenena*. Malla onetako bekatariak egon oi ziran *auspez*: askotan etortzen zitzairen Apaizak, buru gañean eskuak ipintzera, eta otoiz, edo orazioren batzuek esatera: agintzen zitzaizten barauak, eta beste obra onak, eta botatzen zituen Elizatik ofrendarako. Laugarren malla zan *Meza enzuten zuenena*. Lenengo iru malletan denbora siñalatu ongi betetzen zuenai utzitzen zitzairen Meza enzuten, baña ez Janaren mayean jartzen, ez eta ofrendarik egiten ere, penitenziako urteak bete artean, eriotzako perill andirik ezpazan. Debekatzen zitzairen ezkonza, zaldiz ibiltzea, eta festetara joatea. Bukaturik ongi agindurik zeuden gauzak, ematen zitzairen barkazioa, eta Komunio Santua; eta gero leneko bekatuetara biurtzen baziran, etzitzaten Sakra-

menturik geyago ematen eriotzako orduaz kanpora, Aita Santu Inozenzio lenengoak esaten digun bezala. Orra, zer mallak igaro bear zituen bekatariak, barkazioa iristeko. Eta nolakoak ote ziran ipiñi oi zitzaizten penitenziak? Au ongiena ezagutuko degu, Mandamentu bakoitzaren kontrako bekatuai ipintzen zitzaiztenai begiraturik.

Lenengo Mandamentua da *Jaungoikoa gauza guzieren gaiñean amatzea*, eta debekatzen du, eskuz egindako idolo, edo Jaungoiko gezurrezkoak. Eriotzaren pena ipiñi zuan Jaunak bere Lege zarrean bekatu onentzat (Exodi 21): eta Elizak onenbestrañoko penarik ipiñi ezpadu ere, eman izan diezte onelako bekatariai penitentzia luze, eta samiñak. San Basiliok agindu zuan, onelako bekatariak zeudela Elizako ateetan negartien mallan beren bizitza guzian, eta eriotzako perillaz kanpora etzekiela eman Sakramenturik (can. 73). Ez da oraiñ leku ozian idolorik; baña idoloen ordean adoratzen dira emengo izanak, eta aragizko anz, eta iduriak. Nolako penitentzia ipiñi bear lizake bekatu onegatik?

Bigarren Aginte, edo Mandamentua da *aren izen Santuaz juramentu alperrik ez egitea*. Juramenta gezurraren gañean egitea gauz itsusia da Jaunaren

begietan, zeren gezurraren estalki bezala ipintzen dan Jauna eta S. Basiliok siñalatu zion amaika urteko penitentzia (can. 64). Gezurrezko juramentu bati amaika urteko penitentzia bazegokan, zenbat urtetakoa ipiñiko zitzayon sarritan juramentuak nolana egiten dituanari? Eta alaere penitentzia garratza dala uste dezu, illean beñ konfesatzea, eta goiz oro mihia denbora puska batean lurrean arrastatzea?

Irugarren Mandamentua da *festak, edo jai egunak santifikatzea*. Lege zarrean Jaunaren egun, edo jai andia zan larunbata, eta autsitzen zuanari Jaunak ipiñi zion eriotzaren pena: *Morte moriatur* (Numer. 15). Arkitu zuen gizon bat larunbatean egurra egiten: eraman zuen Moysesegana, eta illerazo zuan arrika. Jesusen legea ez da añ gogorra: alaere jayak autsitzen zituanari ipiñi oi zitzaizkan penitentzia samiñak. Ara oetatik batzuek. Iru igandetan Elizaratzen etzanari, erritik kanpoan ezpazan, debekatzen zion Españako Konzilio batek Elizan sartzea, eta Sakramentuak artzea (Concil. Illiberitanum c. 21, et Sardic. c. 14). Onela eskomikatua geratzen zan, Obispoak Elizan sartzeko, eta Sakramentuak artzeko baimena eman zegion artean. Bigarrena: Elizako ateetan, edo aurrean triskan ibilli zanari iru urteko penitentzia (S.

Carol ex Paenitentiali Rom.) Irugarrena: Meza, edo bezperak esaten ziran denboran premia gabe Elizan itzegiten zuanari amar egunetan ur, eta ogi barautzea (S. Carolus ex Buchardo). Laugarrena: igandean lan debekaturen bat egiten zuanari iru egunetan ur, eta ogi barautzea (S. Carol).

Laugarren Mandamentua da Aita eta Ama onratzea. Lege zarrean gurasoa jotzen duanari ipintzen zaio eriotzaren pena: *morte moriatur* (Exodi 21): baña lege berrian Elizak eman oi zien onelako seme gaiztoai zazpi urteko penitentzia (S. Carol). Bidegaberen bat gurasoari egiten zionari ipiñi oi zitzayon iru urteko penitentzia (S. Carolus). Gurasoaren kontra birau egiten duanari Lege zarrak ipintzen dio eriotzaren pena (Exodi 21); baña pena au ez da ipiñi Lege berrian: alaere eman oi zitzayon onelako bekatariari berrogei egunez ur, eta ogi barautzeko penitentzia. (S. Carolus).

Bostgarren Mandamentua da ez *iñor illzea*. Eriotza egiten zuanari Lege zarrak ipiñi zion eriotzaren pena (Deuter 19); baña Elizak ez du onelako penarik beñere ipintzen. Alaere S. Gregorio Nysakoak ipiñi zion ogei, ta zazpi urteko penitentzia (Can 10): beste batzuek nai zuen, onelako bekatariak bere bizitza guzia Elizako ateetan igarotzea (S. Carolus). Aurdun

ez geratzeko, edariak ematen dituanari ipintzen zitzayon, eriotza egiten zuanari ipintzen zitzayon penitentzia bera. Lagun urkoarekin gorrotoan zegoanari agintzen zitzayon ur, eta ogi barautzea, pakeak etsayarekin osotoro egiñ artean (S. Carolus). Goazen seigarren mandamentura.

Mandamentu au da *aragizko bekaturik ez egitea*.

Era askotara utsegiten da mandamentu onen kontra, eta orregatik asko dira, Obispo Jaunak gai onetan ipiñi izan dituen penitenziak. Ara oetatik zenbait.

1. Donzellaren bateganako gura gaiztoari leku eman diona, bego urte betean penitentzia egiten (S. Carol).

2. Bekaturako asmo gabe itz desonestoak esaten, edo begiratze lotsagarriak egiten dituanak, igaro bitza ogei egun penitentzia egiten (S. Carol). Felipe bigarrenek penitentzia gogorragoa ipiñi zuan onelakoentzat, bada agindu zuan, itz desonestoak esaten, edo kanta zikiñak kantatzen dituenai eman dakiztela eun azote eta bota ditezela erritik (Novissima Recop. leg. 5 lib. 8 tit. 10). Penitentzia gogorra da au, batezere denbora oetarako, baña edozeñek sinistu dezake, mingañ zikin gutxiago izango lizakeala errietan, lege onek diona egingo balitz.

3. Irugarrena: gizonezkoai agradatzeagatik ukenduz bere burua edertzen duana, iduki bedi penitentzia egiten iru urtez (S. Carolus).

4. Eskuz bere burua zikintzen duanak igaro bitza penitentzia egiten, lenengoan amar egun, urrengoan ogei, gero ogei ta amar, eta atzenean eun egun (S. Carolus).

5. Ezkongaya ezkongayarekin obrazko bekatuan erori bada, igaro bitza zazpi urte penitentzia egiten. Ala dio S. Basiliok (Can. 59).

6. Seigarren mandamentua autsitzeko estalkiñari ematen zitzayon bizitza guziko penitentzia, eta eriotzako orduaz kanpora ukatzen zitzaizkan Sakramentuak (Concil. Illiberitan. cap 12). Españan onelako estalkiñak erabiltzen dira asto gañean kalez kale, borreroak azotatzen dituala, eta eraman oi due siñaletzat tontor farragarri bat.

7. Zazpigarrena: aideak elkarrekin erortzen baziran, eriotzaren pena zuen lege zarrean: baña lege berrian ez du Elizak onelako penitenziarik ipiñi: alaere leku batzuetan igaro bear zituen amabost urte penitenziako malletan (S. Carolus).

8. Zortzigarrena: ezkonduak autsitzin bazuen elkarri zor dioen leyaltasuna, lege zarrean arrika iltzen

zituen: lege berrian Elizak ez du onenbesteko penarik ematen, baña S. Basiliok siñalatu ziezten amabost urte penitenziarako.

9. Bederatzigarrena: gizonezkoak gizonezkoakin zenbait bekatu nazkagarri egitea emakumeekin erortzea baño itsusiagoa da Jaunaren begietan, eta era berean emakumeak emakumeekin egitea itsusiago da gizonezkoakikoa baño. Onelako bekatuakgatik auts biurtu zituan Jaunak Sodoma, Gomorra, eta beste erri batzuek, eta Lot, bere emaztea, eta bi alaba ez, beste gizon, eta emakume guziak bukatu ziran su, eta garren artean. Españako Konzilio batek agindu zuan, onelako bekatari zikiñak zeudela bizitza guzian penitentzia egiten, eta etzekiela eman komuniorik eriotzako orduan ere (Concilium Illiberitanum c. 21). Españako legeak erretzen, eta auts biurtzen ditue onelako gizon, eta emakume nazkagarriak (Vide Antonium Gomez).

10. Amargarren penitentzia: gizonak bere emaztea bortxatzen badu asko bekatu itsusi egiteko, Elizak ipiñiak dauzka penitentzia luze, eta samiñak, baña Españako legeak samiñagoa, bada ematen dio eriotzaren pena. Ala ekusi zuala, dio Antonio Gomezek Españako erri batean (Vide eumdem ad legem 80 Tauri).

11. Amaikagarren penitentzia: abereakin zikintzen bada norbait, amabost urte igaro bear ditu, S. Basiliok dionez, penitentiako malletan, baña gogorragoa da onelako bekatariantzat Jaunak lege zarrean dakarren pena, au da eriotzarena. Españan bizia kentzeaz gañera erretzen dira abereakin batean. Ote da emen gis onetako bekatari nazkagarririk?

Zazpigarren aginte, edo mandamentua da ez *ostutzea*. Ara bekatu onetan erortzen ziranai ipiñi oi zitzaizten penitentzia batzuek. Lenengoa: litxarreriak egiten dituana iduki bedi urte betean penitentzia egiten. Bigarrena: usurak egiten dituana, edo epetan gauza emateagatik eman baño geyago daramana, egon bedi iru urtez penitentiako malletan, eta lenengo urtea ur, eta ogi barautzen dala. Irugarren penitentzia: besteren gauza bide gaiztoz nai duana, edo ondatsunen kutiziarekin itsutua dagoana, igaro bitza iru urte penitentzia egiten. Laugarrena: Elizako ofrendak ezkututzen, edo sisatzen dituanak atera bitza berrogei barau ur, eta ogi. Bostgarrena: amarrenak sisatzen, edo egiten ez dituanak eman beza lau bider geyago, eta atera bitza gañera ogei barau ur, eta ogi. Seigarrena: pisu, edo neurrian ostutzen duanak, atera bitza ogei barau ur, eta ogi.

Zortzigarren Mandamentua da: *testimonio falsorik ez altxatzea, eta gezurrik ez esatea*. Mandamentu onen kontrako bekatuentzat ipiñi oi ziran penitentzia batzuek ukituko ditut. Lenengoa: lagun urkoari egotzi badiozu tatxaren bat ez duana, edo gezur au egia dala esan badezu, amabost urteko penitentzia dezu. Bigarrena: lagun urkoaren kontra itzegiteko griña txarra duanak, gezurra esaten badu, atera bitza zazpi baraur, eta ogi. Uzten ditut beste penitentzia asko, geyegi luzatu ez nadin.

Aditzen dezu, Kristaua, nolako penitenziak eman oi ziran denbora batean? Zer dira oraiñ ematen diranak anziñakoen aldean? Ezer ez. Eta alaere gogo gaiztoarekin artuko ditugu ematen zaizkigun penitenziak, izanik oek añ arinak? Ea, egin ditzakun oek gogoz, eta leyalkiro; eta oez gañera geren neke, eta obra onakin saya gaitezen gure bekatuen zorrak ateratzera, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI, TA IRUGARREN ERAKUSALDIA

*Konfesioaren ondorengo
prestaeraren gañean.*

Aritu gera gazteak, Konfesio onak eskatzen dituan gauzen gañean itzegiten. Konfesioa egiñ ondoan, era bada, gauz ederra da, Jaun Andia artzeko biotza pres-tatzen zerbait denbora igarotzea. Au nola egin dite-kean, erakutsi zitzatzun, gaztea, lenbiziko Komuniora-ko: baña zahartu, eta aztu zera bearbada orduan ikasi zenduanaz, eta beragatik berritu nai dizut orduan era-kutsi zitzazuna. Enzun arretaz.

§ I.

Konfesioaren ondoren jartzen zera leku egoki batean: asitzen dezu, Jaun andia artzeko prestaera, edo liburutik, edo bestela, eta lenengo lekuan ematen diozkatzu Jaunari eskerrak era onetan.

«Nere Jaungoiko, eta Aita guziz maitagarria! Zure Seme Jesusek utzi zuan Konfesioko Sakramentua, gure animak sendatzeko. Sakramentu au ongi prestatu rik artzen duanari barkatzen diozkatzu bekatuak, Jesusen eriotza, eta merezimentuak bitarteko dirala, eta uste det, au bera egin dezula nerekin ere, Apaizak barkazioa, edo absoluzioa eman didanean iO ontasun, eta urrikimentu paregabea! Milla esker, Jauna, mesede berri onegatik».

Emanik eskerrak era onetan, edo al dezun modurik onenean, berri tu itzatzu batayoko egunean emandako itzak, esaten dezula gis onetan.

«Ez naiz, Jauna, eskerrak ematearekin kontentatzen: berri tu nai ditut batayoko egunean eman nizkitzun itzak. Gaurdanik utzi nai det, eta uzten det Satanasekin batean uzten ditut beraren lagun, eta langilleak, edo mundu galdua, eta aragiaren, eta nere gura txarren naikuntzak: au da Zeruaren, eta gizonen aurrean batayoko egunean Zuri eman nizun itza, eta au bera ematen dizut gaur ere betiko: *Abrenuntio*.

»Gaurdanik betiko utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasekin obrak, edo bekatuak, eta bekaturako bideak. Zoazte nigandik urrutira adiskidetasun gaizto-

ak, etxe animagalgarriak, eta lagun dongeen bilkuy, edo batzarreak. Au da batayoko egunean eman nizun bigarren itza, eta au bera berriro ematen dizut gaur ere: *Abrenuntio*.

»Gaurdanik betiko utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasen arrotasun, eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean, eta beste gastuetan, dala atsegin, eta jolasetan. Au da batayoko egunean nik eman nizun irugarren itza: eta au bera berriro ematen dizut benaz, eta biotz guzitik: *Abrenuntio*. Lagun zaikizkit arren, eta indazu zure lagunz ugaria, agindu dizudana leyalki egiteko.

»Arritu zaite, Jaungoiko gizon Jesus maitagarria zugana etortzeko dagoala oroiturik. *Eta oraiñ nere anima*, esan dezakezu: *Nor* da gaur zugana etortzeko dagoana? Gauz arrigarria! Errege guzien erregea, Aita Santu guzien Aita Santua, Trinitadeko bigarren Persona gugatik gizon egin zana, eta gurutzean bizitza eman zuana bera. Au guzia gutxi bazan bezala, guri ongi nayer jarri nai izan zuan Aldareko Sakramentuan, eta jartzen da konsagrazioko itzak Apaizak esaten dituanean: eta gaur Sakramentu miragarri onetan zure biotzera etorri nai du zuri bere ondasunak, eta bera dan guzia emateko. Nere anima, nondik zuri

onenbeste mesede, eta ondasun? Arritzen, eta izutzen naiz, nere Jesus ona, Zu nere biotzera etortzeko zaudela gogoratzean; ez da alabaña nere biotz eskergabe au Zure diñako tokia; baña izutzen ere naiz denbora berean zure itz oek aditzean: *Ezpadezue gizonaren semearen gorputza jaten, eta odola edaten, ez dezue iritsiko beliko bizitza doatsua.*

»Zer egin al dezaket bada onenbeste beldurren artean, nere Jesus ona? Aitortzen det, ez naizala ni, Zu nere biotzera etortzeko diña: eta Zuk alaere nigana etorri nai? Egin bedi, nere animaren jabe maitagarria, egin bedi zuk nai dezuna, baña egizu lenago Erregeak, etxeren batera dijoazenean, egin oi duena. Aurretik bidaltzen ditue oek, etxea apaintzeko bear diran gauzak. Bidal itzatu bada zuk ere, Errege guzien Erregea, nere animako etxe arlote onetara, Zu ongi artzeko bear diran apaindurak, edo Zeruko grazia, doai, eta birtuteak. Esazu itz bat, eta egiña geratuko da guzia. Atoz, nere Salbatzalea, egin zaite nere animaren jabe. Atoz, Jainkoaren bildots, bekatuak kentzen dituzuna, senda ezazu nere anima bekatuen zauriz betea. Atoz Zeruko su animen berotzalea: zure amoriozko garrarekin ayena itzatzu nigandik bekatuaren kutsuak, eta onerako epeldasunak.

»Prestaturik era onetan biotza, Jaun Andia artzeko esan dezakezu: *Sinisten det*, Jesus maitagarria, Sakraiuentu orretan zaudela egiaz: *Au da nere gorputza* esan zenduan zuk Sakramentu miragarri ori egin zenduan arratsean, eta nork ez du sinistuko Zuk esandako gauza? Adoratzen zaitut, nere Jaungoikoa, nere Errege, eta Salbatzallea».

Orra, gaztea, lenbiziko Komuniorako erakutsi zitzatzun Komunio aurreko prestaera ederra. Era dezunean egizu arretarekin, eta oitura onak ekarriko dizkitzu animako ondasun andiak, eta azkenean betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI, TA LAUGARREN ERAKUSALDIA

*Nola, lenbiziko Komuniorako,
berritu zituen emen gazteak,
batayoko egunean emandako itzak:
eta nola eranzun diegun itz oei,
ala gazteak nola zarrak.*

Batayoko itzak berritzea da oitura, edo usanza txit ederra, eta egin diteke asko denboratan, egin dezagun kontu Konfesio, ta Komunioko egunetan, urtearen asieran, batayoaren urte betean. Emen, lenbiziko Komunioa nerekin egin duen aurrai berrituerazo dieztet Komunioa egiteko unean; baña oetatik batzuek aztuko ziran orduan Jaunari emandako itzaz. Orregatik gaur ekusi bear degu, lenengo lekuan: nola berritu zinduan, Kristaua, lenbiziko Komunioa egin zenduanean, batayoko egunean emandako itzak. Urrena, nola eranzun diegun itz oei, ala gazteak nola zarrak.

Zuri, gaztea, lenbiziko Komunioa egiteko zeunden unean bertan galdetu nizun: Prest arkitzen zera batayoko egunean eman zinduan itzak berritzeko, eta gordetzeko? Galde au egin zitzatzun, zeren batayoko egunean emandako itzai eranzuteko biotzik ez duanak ezin artu dezake Komunio Santua. Zer eranzun zenduan zuk? Bai, Jauna, eranzun zenduan, Jesu-Kristoren graziarekin batean. Jesusek bere eriotzarekin guretzat irabazi zituan, beraren Lege Santa gordetzeko bear ditugun Zeruko laguntza, eta grazia: oek gabe alabaña ez gera Jesus bat esateko ere gai, edo gauza. Ala esaten digu S. Pablok.

Galdetu zitzatzun urrena: *Abrenuntias Sathanae?* Esan nai det: gaurdanik betiko uzten dezu Satanas, eta Satanasekin batean beraren lagun, eta langilleak, zeñak diran mundu galdua, edo munduan bizi diran gaiztoak, eta aragiaren gura txarrak? Elizaren asieran gure Lege Santa artzen zuenak, geyenak ziran jentillak, eta oek adoratzten zituen idoloak, edo oetan Satanas: eta gure Legea artuberriak ziran bitartean, perill andian zeuden leneko idoloak adoratzeko. Orregatik etzien Elizak batayorik ematen, idoloak, eta Satanas beti-betiko utzi nai ezpazituen. Ez da oraiñ idolorik,

baña idoloen lekuan badira asko gauza Jainko baño geyago onratzen diranak. Zer gauza ote dira oek? Oek dira emengo onrak, goi-mallak: oek dira emengo izan, edo ondasunak: oek dira bazter guzietan zabaldurik bizi diran, Satanasen lagun, eta langille gaiztoak. Oek dira atzenean aragizko anz, edo irudiak, eta oek Jau-naren tokian onratzen ditue askok. Oek utzi nai ez dituanari etzayo eman bear ez batayorik, ez komunio-rik, eta lenbiziko komunioa egiñ zenduanean galdetu zitzatzun, uzten zinduan betiko: *Abrenuntias Sathanae?* Zer eranzun zenduan?: *Bai, Jauna* esan zenduan: beti-betiko uzten ditut: *Abrenuntio*.

«Galdetu zitzatzun berriz, *Et omnibus operibus ejus?* Esan nai det: gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen lan, eta obra guziak, nola diran bekatua, eta bekatuaren bideak? Satanasegandik asiera izan zuan bekatuak Zeruan: Satanasek prestatu zien gure lenbiziko gurasoai bekatuako bidea Paradisuan: eta arreizkero lan oni darraikio mundu guzian ala berez, nola bere langilleen bidez: eta oek prestatzen dituen bideetatik aldegin nai ez duanak ezin artu dezake Komuniorik. Zer eranzun zenduan zuk, gaztea, Komunioa artzeko zeunden unean? *Bai, Jauna*, esan zen-

duan, *beti-betiko uzten ditut* Satanasen lan, eta obrak, edo bekatua, ta bekatuaren bideak: *Abrenuntio*.

»Galdetu zitzatzun atzenez: *Et omnibus pompis ejus?* Esan nai det: gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen arrotasun, eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean, eta beste gastuetan, dala atsegin, eta jolasetan? Eranzun zenduan: *Bai Jauna, beti-betiko uzten ditut: Abrenuntio*. Onela berritu zinduan batayoko itzak, eta oek eman ondoan, ez bestela, eman zitzatzun lenbiziko Komunioa. Begira oraiñ, nola eranzun diegun itz oei».

§ II.

Egun andi artan agindu zenduan benik beñ, utziko zinduala betiko, eta esan zenduan, bertatik uzten zinduala Satanas, eta beraren lagun, eta langilleak, zeñak diran mundu galdua, edo munduan bizi diran gaiztoak, eta aragiaren gura txarrak. Baña egin ote dezu orduan agindu zenduana? Aldegin ote dezu lagun gaiztoetatik? Sayatu ote zera zure griña txarrak eskuratzeko, edo ezitzeko? Eta geren buruai gañera

ere ongi begiratzen badiegu, zer eranzun ote dezakegu gai onetan?

Esan zenduan gañera, gaztea, lenbiziko Komunioaren egunean, uzten zinduala Satanasen lan eta obra guziak, nola diran bekatua, eta bekatuaren bideak: *Abrenuntio*. Baña egin dezun orduan agindu zenduana? Zuretzat arako etxe artara joatea zan bekatuako bidea; an alabaña bildu oi ziran neskatxak, eta mutilak, eta gertatzen ziran itzegite loyak, keñada itsusiak, edo gauza loisagarriagoak. Era berean zuretzat urliarekiko adiskidetasuna, eta arekin ibiltzea, edo egotea izan da jolas gaiztoetarako perill andia, eta alaere ez dezun aldegin perill onetatik. Orra, gaztea, nola eranzun diozun lenbiziko Komunioaren egunean eman zenduan bigarren itzari. Au diot gazte batzuekin itz egiten dedala, eta zer esango degu, zartu, edo zartzeko urteetan arkitzen diran askoren gañean itzegiten badegu? Oek ere batayoko egunean betiko utzi zituen bekatua, eta bekatuaren bideak, esaten zuela: *Abrenuntio*; baña bizi dira bekatuaren bideetan, eta zentzatu nai ez due: galdu ditue, eta galtzen ari dira asko anima, eta dirudi Satanasekin bat egin dirala Jesu-Kristoren kontra gerra egiteko. Baña ez gaitezen geratu gai onetan geyegi: goazen aurrera.

Zuk gaztea, lenbiziko Komunioa egin zenduanean, esan zenduan, beti-betiko uzten zinduala Satanasen arrotasun, eta zorakeriak: *Abrenuntio*. Au bera esan genduan guziok batayoko egunean. Nola eranzun diogu itz oni?

Gaztea, oroi zaite sarritan, lenbiziko Komunioa egin zenduan egun andiaz, eta orduan eman zinduan itzaz: eta baldin etsayak, edo zure gura txarrak zerbait lilluratu, edo txoratu bazaitue, biur zaite zere Aita onagana, eta egizu egun artan berari agindu ziñukana. Atzenean guziok gogora ekarri dezagun, zer itz eman ginduan batayoko egunean, eta bizi gaitezen Jesusen lege garbiak erakusten digun bezala, onela iristeko guretzat prestaturik daukan betiko bizitza. Amen.

OGEI, TA BOSTGARREN ERAKUSALDIA

Komunio ondoko eskerren gañean.

Lenbiziko Komunioa egiteko, erakutsi zitzatzun, gaztea, nola Komunio ondoan eman bear diozkatzu Jaun Andiarri eskerrak. Aztu ote zatzu orduan ikasi zenduana? Irakurtzen badakizu, Komunioko liburutik eman zintzakean esker umillak ederki; baña ezpadakizu irakurtzen, eta aztu bazatzu ikasi zenduan modu ederra, saya zaite berriro ikastera, eta au gogoz, eta benaz egin dezazun, itzegin nai dizut gaur, lenbiziko Komuniorako erakutsi zitzatzun moduaren gañean: eta ondoren ukituko det, zeñ lotsagarria dan Kristau askoren zabarkeria gai onetan. Enzun arretarekin.

§ I.

Zure Jaun Andia artu ondoan jartzen zera leku egoki batean, eta diozu zeregan: «Artu dezu, nere anima, Komunio Santua, Aingeruen ogia, eta Zeruko

mana? Esna zaite bada, eta fedearen begiakin begira, *Nor dan Komunioan etorri zatzuna? Norgana, eta zertako etorri dan?*

»*Nor ote da* ogi pixka baten idurian etorri zaizun au? Au da zu ezerezetik egin zinduan Jauna bera, eta egin zinduana bera ezagutzeko, amatzeko, eta betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izateko. Au da, ekusirik zu Adanen bekatuarekin galdua, gizon egin zana, eta gurutzeko eriotzarekin Zerurako grazia, eta lagunzak emateko, Sakramentuak ipiñi zituana, oen artean Komunioko Sakramentua. Gauz arrigarria! Izan zu zeran bezeñ eskergabea, eta ezereza, eta alaere zugana etorri da, Zuganako ongina, eta amorioz beterik? Zertako etorri dala, uste dezu? Etorri da zure janari, eta edari izateko, eta zuri bere ondasunak, eta bera dan guzia emateko.

»Miretsi zaite zugana era onetan Jaun Andia etortzeaz. Nondik nere anima, nondik zuri onenbeste ondasun, eta mesede? Arriturik geratu zan Salomon, zeren berak egin zuan Eliz ederrean bizitzera Jauna etorri zitzayon. Arriturik geratu zan Santa Isabel, zeren ekustera, edo bisitatzera joan zitzayon Jainkoaren Ama. Arritzen da Eliz Ama Santa, zeren Trinitadeko bigarren Persona gizon egin, eta bizitu zan Birjina

txit Santaren Sabelean. Nere anima! Eta Jaun Andi ura bera zugana etorri bada, eta zerekin badaukazu, etzera miretsiko? Jesus ona! zer da gizona, eta zer naiz ni, zu era onetan nizaz oroitzeko?

»*Egitzu fede, esperanza, eta karidadezko afektioak, eta adora ezazu:* O Jesus ona! nere animaren Erosle, edo Redentore maitagarria! Sinisten det, Zu egiaz arkitzen zerala Aldareko Sakramentuan eta Sakramentu orietan nigana etorri zerala. Sinisten det, zu ongi artzen zaituanari ematen diozula Zeruko grazia, eta ongi bizitzeko lagunzak: eta gañera agintzen diozula betiko bizitza: eta beragatik zugan zugan ipintzen det nere uste guzia, zeren Zu zeran Jaungoiko Guzialdun, edo guzia dezakezuna, eta zere itzetan guziz Leyala. O! Ontasun guziz miragarria! Amaten zaitut biotz guzitik, eta zure izenean amaten ditut nere lagun urko guziak, eta oen artean nere etsayak. Adoratzen zaitut nere Jaungoikoa, nere Errege, ta Salbatzallea.

»*Eman giozkatzu eskerrak.* Nai nuke nik, nere Jesus ona, egin dizkidatzun mesede guziai, eta orain nigana etortzean egin didazun oni eranzutea; bana aitortzen det, ez naizala gauza, eta gai, onetarako ezezik, milla bider gutxiagorako ere. Geyena nik egin

dezakedana da esker umillak ematea. Milla esker bada, nere Ongille Andia. Alabatu, eta bedeikatu zaitzeela, Zeruan, eta lurrean diran gauza guziak. Bedeika zaitzeela Zeruko eguzkiak, eta izarrak: lurreko loreak, belarrak, eta itsasoko arrayak. Bedeika zaitzeela, lurrean bizi diran, anima on guziak. Bedeika zaitzeela Zeruko Kerubin jakintsuak, Serafin Jaunaren amorez erazekiak, eta Aingeru doatsu guziak. Bedeika zaitzala zure Ama maitagarri, Aingeruen, eta Santu guzien Erregiñak.

»*Egin giozkatzu zure eskari, eta erregu umillak.* Zer uste ez dezaket gaur zugandik, nere Salbatzallea? etxe batean sartzen badira lurreko Erregeak, ez oi dira andik irteten, etxekoai mesederen batzuek egin gabe. Ta izanik zu Errege guzien Erregea; zer ez du Zugandik uste izan bear nere anima beartsu onek? Bera dan guzia eman duanak zer ukatu al dezake? Indazu bada, nere Jesus ona, emendik aurrera bekatutik aldegitoko, eta grazian irauteko doaya. Indazu nere griña txarrak, batezere arako geyena nekatzen nauan ura ezitzeko, eta garaitzeko zure lagunza ugaria. Oroi zaitte nere aide, eta ongilleaz, baita nere etsayaz ere, ala bizi az, nola illaz. Gorde ezazu zure Eliza Santa bere etsai

guzietatik, baita gure Jaun Erregea ere bere etxeko guziakin.

- »Jesusen anima birtutez bete nazazu:
- »Jesusen biotza amorez erre nazazu:
- »Jesusen gorputza salba nazazu:
- »Jesusen odola Zeruko amorioz zora nazazu:
- »Jesusen biotzeko ura garbi nazazu:
- »Jesusen izerdia, graziaren bizitzaz bete nazazu:

zu:

- »Jesusen Pasioa indartsu egin nazazu:
- »O Jesus ona adi nazazu:
- »Zure ilagen artean gorde nazazu:
- »Zugandik aldegiten ez arren utzi:
- »Etsai galgarriagandik gorde nazazu:
- »Nere eriotzako orduan dei nazazu:
- »Zeregana eraman nazazu:
- »Zere aldean ipiñi nazazu:
- »Zure Santu eta Aingeruakin alaba zaitzadan
- »Sekula guzian. Amen».

Orra, gaztea, lenbiziko Komunioa egiteko, erakutsi zitzatzun modua, Jesus onari Komunio ondoan eskerak emateko. Dakuskun orain, zeñ lotsagarria dan Kristau askoren zabarkeria gai onetan.

§ II.

Komunioko Sakramentuan gugana dator Errege guzien Erregea: eta alaere asko dira Sakramentua artuta bereala, edo laster Elizatik igesegiten duenak, begiragabe *Nor dan etorri zatena*. Etorriko baliz zure etxera lurreko Errege, edo Andikiren bat, eta irtengo baziña bereala etxetik agur, edo ongiatorririk egin gabe, zer esango luke Errege, edo gizon andi ark? Aserraturik zure kontra, bereala aldegingo luke zugandik, edo zure etxetik, eta munduko Erregeak aserraturiko balira, esan dedan txarkeri, ta bidegabea zugandik ekustean, zer gertatu ez da, baldin Jaun Andia artu ondoan ezpadiozu agur bat egiten, eta igesi bazoaz Elizatik? Onelako bati argi erazekiakin, eta txintxerria joaz jarraitu zion arzai batek: Jauna, nora dijoa orrela, esan zion Elizatik irten zanak Arzayari. Onek eranzun zion: Jauna norabait dijoanean, badakizu nola lagutzen zayon argi erazekiakin, eta txintxerria jotzen dan: zuk orain artu dezu Jaun Andia, eta bereala irten zera Elizatik. Orregatik nator argiak, eta txintxerria joaz. Ezagutuzuan urliak bere utsegitea, eta zentzatu zan

gerorako. Au bera egin bear lizake gaurko egunean asko Kristaurekin.

Komunioko Sakramentuan gugana dator Jesus ona gurekin bizitzera, eta bere ondasunak ematera: eta alaere asko dira eskerrik batere ematen ez dioenak eta ezer eskatzen dioenak. Sinitsditeke au gertatzen zayola gurekin gure Aita, ta Ongille Andi oni?

Ea nere Kristauak, ez gaitezen izan gure Jesus onarekin añ eskergabeak, eta zuek gazteak balia zaitetze, Jaunari eskerrak emateko, lenbiziko Komuniorako erakutsi zitzatzuen moduaz, onela iristeko Zeruko lagunz ugariak, eta atzenean betiko bizitza doatsua. Amen.

BIRJIÑA TXIT SANTA GURE BEKATUAKGATIK NAIGABEZ BETEARI BEDERATZIURRENA

KONFESIO ONAREN PRESTAERA GAZTEAI ERAGITEKO

*Scrutemur vias nostras, et quaeramus, et revertamur ad
Dominum. Jerem. 2.^o*

Gazteak: berriro aditzera eman dizkitzuet, lenengo Komuniorako erakutsi zitzaizkitzuen gauzak. Uste det, erakusaldi oekin argiro ekusi duela zuetatik batzuek, nola Konfesio gaiztoak egin dituen, edo bizitza ontzeko asmo osoa sortu gabez, edo zeren askotan lotsaz konfesatu gabe utzi dituen bekaturen batzuek. Uste det gañera, gazteak ezezik zenbait zarrek ere ezagutu duela, era askotara konfesio gaiztoak egin dituela, eta konfesio on bat egiteko prestatu bearrean daudela. Prestaera au ongi egin dezeen gazteak, eta oekin batean zarrak, egingo degu, asieratik esan nuan bezala, Birjiña txit Santa Doloreetako-

aren onran Bederatziurren bat; eta asiko da onelako egun, eta denboran.

IRAKURLEARI

Bederatziurren au egin izan det urte batzuetan garizumako arratsaldeetan gis-onetan.

1. Ipintzen zan Birjiña txit Santa Doloreetakoa Aldare nagusian.

2. Bederatziurrenera etortzeko jayera zuenak ugari ekarri oi zituen kandelak; erazekitzen ziran bederatziurrena asitzean, eta bukatzen zanean, egun oro artzen zuan bakoitzak bere kandela.

3. Platika bukatzean Arzaya, edo beste Apaizen bat jartzen zan Aldare-aurrean *Sobrepelliz, estola, eta kaparekin.*

4. Korutik kantatzen zan *Miserere.*

5. Au bukatzen zanean, Aldareaurreko Apaizak esaten zuan: *Ora pro nobis Virgo dolorosisima: Koruak: Ut digni efficiamur pronissionibus Chti: Apaizak Oremus: Deus in cujus Passione &*

Era onetan ederki irteten zan Bederatziurren au, eta beti ongi irtengo lizake Donostian, Hernanin, Tolo-

san, eta edozeñ erri andietan, zeren erritarrak erraz joan ditezkean Elizara, naiz goizean, naiz arratsaldean, egun jarraituetan: baña ez da onelako erarik erri txikietan, eta Elizatik urruti etxeak dituen aetan. Orregatik aurten asmoa artu det egiteko Bederatziurren au igandeetan Meza nagusian bertan, asitzen nai zala garizuma baño len.

BEDERATZIURREN ONEN LENENGO EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

*Scrutemur vias nostras: et quaeramus, et revertamur ad
Dominum. Trenor 3.^o*

*Birjiña txit Santa, gugatik neke, eta naigabez betea!
Zu zera bizitza ondu nai duen bekatari guzien bitar-
teko, eta Ama gozoa. Nai onekin zugana nator gaur,
eta eskeintzen dizut Bederatziurren au zure neke,
eta naigabeen izenean. Nik eskatzen dizudan ontar-
te, eta mesedea da, iritsi degidazula zure Seme Jau-
nagandik, konfesio on bat egiteko, aurrera bekatutik
aldegiteko, eta nere egunak ongi bukatzeko grazia. O
Ama guziz beraa! Zu zera nere bizitza: zu nere atse-
gin-kontentua, eta esperanza. Ez arren ukatu, gaur
eskatzen dizudan mesede au, ez arren Ama maitaga-
rria,*

* * *

Aspaldi da, nere Kristaua, bederatziurren onen uste, edo esperanzak eman nizkitzula, gisa onetan ongi presta zindezen konfesio on bat egiteko. Noizbait etorri da lan oni ekiteko denbora egokia, Birjiña txit Santaren lagunzarekin, eta gaur degu asiera.

Bi gauza eskatzen ditu konfesio onaren prestae-rak: bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartzea, eta au egin diteke edo azkeneko konfesiotik, edo konfesio gaiztoak asi ziran denboratik, eta gai onen gañean luzaro itzegin det. Bigarrena da, gure bekatuakin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea, egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekatuak ez egiteko asmo osoarekin; baña ez dira gure biotzak Jaunagana bear dan eran biurtzen, fedearen argiarekin gogora ekartzen ezpadira damubide egokiren batzuek, len betaro aditzera eman dedan bezala. Bi gauz oek itz gutxian adirazi zitan Jeremiasek, esan zuanean: Begira degiegun gure bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitezen beragana. *Et quaeramus, et revertamur ad Dominum*. Asierako itz oek geyenak beste itzaldi edo Platiketan ere ipiñiko dira, zeren argitasun andia ematen duen ezagutze-ko, zer egin nai dan Bederatziurren onetan. *Au egitea*

izango da Bederatziurren onetako gure lan andia. Gaurko examina izango da Konfesio, eta Komunio gaiztoen, eta lenengo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Urrena fedearen argiarekin begiratu degu: Nork, eta zeñ egiteko, edo fin andirako egin gaituan: Bigarrena: zeñ gauza bearra dan egiteko oni ziñez, edo benaz jarraitzea. Emendik erraz aterako degu gure utsegite, eta eskergabekerien ezaguerara, eta oen damua sortzeko bidea. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Begira degiegun gure bide, eta ibillerai, esaten digu Jeremiasek: *Scrutemur vias nostras*: au da examina egitea, eta gaurkoa da Konfesio, eta Komunio gaiztoen, eta lenengo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Oek ongi esagutzeko, eskatu degiogun Espiritu Santuari bere laguntza esaten diogula.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emallea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu, nere biotza,

oen gañean damutzeko eta aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitako, eta konfesatzeko.

1. Begira orain, Kristaua, zenbat urte dituzun.

2. Begira, zenbat urte zinduan, lennego Konfesioa egin zenduanean, eta zenbat lenbiziko Komunioa egi-tean?

3. Begira urtean beñ, edo zenbat bider konfesatzen ziñan lenbiziko Komunioraño?

4. Begira lenbiziko Komunioa egin zenduanetik oraindaño, urtean zenbat bider gutxi gora bera konfesatu, eta komulgatu zeran?

5. Begira konfesio gaiztoak egin dituzun, eta noiz-danik? Au. gertatu oi da askotan bizitza ontzeko asmo osoa sotugabez, edo bekaturako bide edo perill andiak utzigabez; eta ez gutxitan lotsaz konfesatuga-be uzten dirala bekatu larriren batzuek.

6. Begira, arreizkero urtean zenbat bider konfesatu, eta komulgatu zeran? Eta konfesatzen ziñanean, ezagutzen zenduan, gaizki konfesatzen ziñala?

7. Begira, emandako penitenziak, egin bage uzten zinduan? Zenbat bider, eta zer penitenziak ziran oek!

8. Begira lenengo Aginte, edo Mandamentuan, dotrina ikasteko ongi sayatu zeran, eta Jainkoaren Itza entzuteko ardura onekoa izan zeran?

9. Begira, Akto fede, esperanza, eta karidadezko-ak sarritan egin dituzun?

Asko dira galde oek gazteentzako. Zarrentzat geyago ipiñi litezke; baña premian daudenak, beude Konfessorearekin, eta onek erakutsiko die bear dan guzia. Dakuskun oraiñ, *Nork, eta zeñ egiteko, edo fiñ andirako egin gaituan: eta zeñ gauza bearra dan egiteko oni ziñez, edo benaz jarraitzea.*

§ II.

Begiraturik Zeru eder oriei, eguzkiari, illargiari, izarra, lurrari, eta emengo gauza guziaz, galdetzen du Isayas Profetak: nork egin ditu gauz oek? *Quis creavit haec?* (c. 40). Fedeak erakusten digu, Jaunak egiñak dirala gauz oek guziak munduaren asieratik: eta fedeak erakutsiko ezpalu ere, gauzak berak, Dabidek dionez, nolerebait deadar egiten due: Jaunak egin gaitu, ez gerok geren buruak: *Ipse fecit nos, et non ipsi nos* (Psalm. 99). Eta gañerako gauza guziak Jaunak egin bazituan, nork egiñak izango gera gu? Fedeak erakusten digu, Jaunak egin zuala lenbiziko gizona, eta berak egiñak dirala aren ondorengo guziak

ere (Genes. 1, et Act. 19). Gizona egin baño len pres-
tatu zituan berarentzat, eraz bizitzeko bear zituan
gauza guziak. Egin zuan munduko etxe eder galant
au, eta ornitu zuan, gizonak bear dituan gauza guziaz.
Egin zuan Paradisuko berjera ederra, non nekerik
gabe bizi zitekean eraz betea. Egin zuan gañera Para-
disuko arbolen artean bat, *bizitzarena* Eskritura San-
tak deitzen diona. Arbola onen frutarekin bizi zitekean
gizona eritasun, zartze, eta eriotzaren beldur gabe.
Zer geyago? Emengo egunak betetzen zituaneke,
egin zuan Jaunak gizonarentzat Zeruko erri ori, eta ara
eramango zuan eriotzaren atzaparretan erori gabe.

Baña, zertako egin ote zuan Jaunak gizona? Zerta-
ko egiñak gera gu? Egin ote zuan gizona, emengo
onra, eta goimallen ondoren bizitzeko? Ez, onra billa
gabe zan mundu guziko Jaun, eta Errege. Egin ote
zuan emengo izan, edo ondasunen ondoren gau, ta
egun erkiturik bizitzeko? Ez: eta onetarako egin
lekuan, lenago prestatu zituan, gizonak bearko zituan
gauzak, eta egin zuen guzien jabe, dio Dabidek: *Et
constituisti eum super opera manuum tuarum* (Psalm.
8). Gerta diteke gizona, bekatuan erori zan ezkerro,
arkitzea premiaren batean: baña ori izango da zeren
bere aldetik egin bear zuana egin ez duan; edo zeren

neke au gabe galduko lukean Zerurako bidea. Au era-
kusten digu Jesu-Kristok, dionean: Ez kezketan ibilli
jan-edanerako, eta janzitzeko bear dezuaren
gañean: *Nolite solliciti esse*. Begira airean dabiltzan
egaztai: ez due ereiten ezer, ez eta biltzen ere alete-
gira, eta alaere zuen Aita Zerukoak bazkatzen ditu,
edo ematen die bear duen adiña janari. Begira kanpo-
etan jayotzen diran lili, edo lirioai: ez dira nekatzen
soñerako bear duenaren billa, eta ez due onetarako
ardatzean egiten. Alaere etzan oek bezeñ ederki
apaindu Salomon bera ere, zituan jakiunde, eta onda-
sun guziakin. Eta gaur bai, eta bigar ez dan, edo sur-
tara botatzen dan belarra onela apaiatzen badu Jau-
nak, zenbatez obeto zuek bear dezuen guziaz oroitu-
ko da? Ez bada kezketan ibilli, esaten dezuela, zer jan,
eta zer edango degu, eta zerekin estaliko gera? Galde
oek egiten ditue federik ez duenak. Badaki zuen Aita
Zerukoak gauz oen bear zeratela. Billaezazue lenengo
lekuan Zeruko Erreñua, edo betiko bizitza, eta eman-
go zatzue bear dezuen guzia: *Haec omnia adjicientur
vobis* (Math. 6.^o et Luc. 12). Etzuan beraz Jaunak egin
gizona, emengo izan, edo ondasunen ondoren bere
burua aunatzeko, eta desegiteko. Egin ote zuan ara-
giaren atsegin lotsagarrietan bere egunak igarotzeko?

Are gutxiago: ez dira onelakoak Zeruan sartuko, dio S. Pablok (Ad Ephes. 5): eta bekatu onegatik Mundu guzia estali zuen ujaldeak: bidaldu zituan Jaunak, eta Noe, ta bere etxekoak ez gañerako gizon, eta emakume guziak bukatu zituan.

Zertako egin ote zuan bada Jaunak gizona Egin zuan bera ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko, eta betikotasun guzian Jaun berarekin Zeruan bizitzeko. Au da egia bat gure siniste, edo fedeak erakusten, eta guziok sinisten deguna. Egia bat, gure emengo gurutzetxe, eta samintasunak arintzen, eta gozaten dituana. Egia onek alaitu zituan ezin konta al Martiri Jesu-Kristogatik ainbeste oñaze, eta eriotza igarotzeko. Egia onek igeseragin zien mundu galdu onen perilletatik ainbeste gazteri. Oetatik asko bizitu ziran eremuetan, eta arkaitzen zuloetan ezkutaturik, belarren sustrayak baizik jaten etzuela: beste asko gorde ziran paretartetan, utzirik munduak eskeintzen ziezten onrak, era, eta ondasunak. Beraz, nere Kristaua, gure egiteko, eta fin andia da ezagutzea, amatzea, serbitzea gure Jauna, eta irabaztea gisa onetan betiko zori ona, eta bizitza doatsua. Au da gure egiteko bakarra, eta gañerakoak, andienak ere, aurren arazoak bezala dira.

Baña goazen aurrera, eta dakuskun, zeñ gauza bearra dan gure egiteko andi oni benaz jarraitzea.

§ III.

Gure egiteko andia, esan dan bezala, da gure Aita Zerukoa ezagutzea, amatzea, serbitzea, eta onela irabaztea betiko bizitza. Beraz gauza bearra da, nere Kristaua, egiteko oni benaz jarraitzea. Au aditzera ematen digu Jesu-Kristok dionean: zori onekoak justiziaren gose, eta egarri diranak, edo berbera dana, Jaunaren Legea ongi baño obeto gorde nai duenak. *Beati, qui esuriunt, et sitiunt justitiam*. Egiteko onetan ongi jardutean dago gure zori ona, eta gutxi esan nai du gañerakoetan oker irteteak. Lazaro beartsua egon oizan aberatsaren ateetan goseak igaroa, eta zauriz betea: alaere zori onekoa izan zan, zeren benaz amatzten, eta serbitzen zuan Jauna. Il zan, eta Jaunak eraman zuan betiko atsegin kontentuen artera. Baña beste gauza guziak guk nai degun bezala irtengo balira ere, utsa, edo ezerez lizake au, baldin animaren egitekoan benaz ari nai ezpadegu. Demagun, iristen dituzula munduak eman ditzakean onra guziak, izan,

edo ondasunak: baita zure begiak, belarriak, eskuak, eta gorputzak eskatzen dituen atsegin guziak ere: zer protxu izango dezu, galtzen badezu zure anima, esaten dizu Jesu-Kristok? *Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur?*. (Math. 16).

Egia au txit argiro ekusten degu Salomonegan. Errege jakintsu au asi zan zabartzen Jaunaren legeak agintzen ziozkan gauzetan, eta bere zori ona arkitu nai izan zuan emengo atsegin kontentuetan. Gogoak eman zion eguzkiaren azpian dauden gauza guziak ezagutzea: eta neke andien ondoren esan zuan: utsa, edo ezer etzala au guzia. Asi zan jauregi ederrak egiten, berjerak, loreak eta arbolak ipintzen: eta ekusi zuan gauz oek len bezeñ utsa uzten zuela biotza. Asi zan aberatstasunak biltzen, eta ainbeste bildu zituan, non aren denboran zillarra ezertan etzeukeen Jerusalemendarrak, baña ondasunetan etzuan kezkak besterik arkitu. Erakarri zituan bere jauregira soñulari, eta kantariak ugari, eta oekin ere gertatu zitzayon beste gauzakin gertatua. Atzenean gogoak eman zion atsegin lotsagarrien gurari eskatzen zuan guzia ematea. Inguuruko Erregeen alabak, eta gañera beste asko artu zituan emaztetzat, eta oen artean ez gutxi idoloak

adoratzen zituenak. Era onetan izan zituan Salomonek, gura zuan bezala, mundu onetako onrak, izanak, eta atsegin-mota guziak. Nork izango, eta dastatuko ditu nik adiña atsegin, dio berak: Kis delizijs a ffluet ut ego? Eta zer protxu atera zuan, baldin galdu bazuan bere anima? Eztakigu egiaz biurtu zan, edo ez Jaunagana: guk dakiguna da, berak esan zuala: Utsaren utsa, eta ezer ez dirala munduko gauzak: *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas* (Eccles. c. 1. et 12, et 3 Reg. C. 11).

Aditzen dezu, Kristaua, zeñ gauza bearra dan gure animaren egitekoari zirez, edo benaz jarraitzea? Egiteko au da gure Aita ona ezagutzea, amatzea, serbitzea, eta onela irabaztea betiko zori ona, eta bizitza doatsua. Eta alaere bizitu gera egiteko onez aztuak? Bizitu gera, zertako egin ginduan gure Aita Zerukoak begiratu gabe? Non da gure siniste, edo fedea? Non gure zenzua? Ez ote gera gure Aita onagana biurtuko? Aita au da añ Ona, eta maitagarria, eta ainbesterañkoa beraren edertasuna, non bera ekuste utsa asko dan Aingeru, eta anima on guziak betiko doatsu egiteko. Zer geyago? Doatsuak Jauna ekustean duen atsegin-kontentuaren txingar bat asko lizake, S. Agustiñek dionez, infernuan dauden guzien oñaze, eta saminta-

sunak arintzeko, eta gozatzeko. Eta ontasun, eta edertasun baztergabe ura amatzeko, eta serbitzeko, ez ote gera oraiñ bederik esnatuko? Ea, Kristaua, gaurdanik asi gaitzen gure Ait ona serbitzen, eta amaten, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

BEDERATZIURREN ONEN BIGARREN EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

Scrutemur vias nostras &.

Birjiña txit Santa & Lendabiziko Platika bezala.

Bederatziurren au asi degu, nere Kristaua, Konfesio onaren prestaera ongi egiteko. Bi gauza eskatzen ditu prestaera onek; bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartzea, eta au egin diteke, edo azkene-ko konfesiotik, edo konfesio gaiztoak asi ziran denboratik, eta gai onen gañera luzaro itzegin det len. Bigarrena da, gure bekatuakin galdu degun, Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea, egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekatu-rik ez egiteko asmo osoarekin; baña ez dira gure biotzak Jaunagana, bear dan eran biurtzen, fedearen argiarekin gogora ekartzen ezpadira damubide egokiren batzuek. Bi gauz oek itz gutxian adirazi zituan Jeremiasek, esan zuanean: Begira degiegun gure bide, eta

ibillera: *Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitezen beragana: *Et quaeramus, et revertamur ad Dominum*. Onetarako lenengo egunean examina egin genduan Konfesio, eta Komunio gaiztoen, eta Jaunaren Legeko lenengo Aginte, edo Mandamentuaren kontrato bekatuen gañean: eta ondoren fedearen argiarekin begiratu genduan, *Nork, eta zeñ egiteko, edo fin andirako egin gaituan*: eta zeñ gauza bearra dan egiteko oni ziñez, edo benaz jarraitzea. Gaurko examina izango da Jaunaren legeko bigarren Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Urrena begiratuko degu: *Nola egin, eta nolako doayakin ornitu, eta apaindu zuan Jaunak gizona*. Bigarrena: zer gertatu zan. Emendik erraz ezagutuko degu, zeñ gauza gaiztoa dan guk gure Jaunaren kontra bekatu egitea, eta atera dezakegu gure bekatuen damua sortzeko bidea. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Begira degiogun gure bide, eta ibilierai, esaten digu Jeremiasek: *Scrutemur vias nostras*: au da examina egitea, eta gaurkoa da Jaunaren Legeko bigarren

Mandamentuaren kontrako bekaturen gañean. Oek ongi ezagutzeko, eskatu degiogun Espiritu Santuari bere lagunza esaten diogula.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz bearsuen gurasoa, atoz doayen emaillea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza, oen gañean damutzeko, eta aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik, aldegiteko, eta konfesatzeko. Zoaz orain, Kristaua, Jaunaren legeko bigarren Mandamentura.

1. Begira Jaungoikoaren, Birjiña txit Santaren, edo Santuen onraren kontrako itzen batzuek esan dituzun? edo Santuen kontra isekaren batzuek egin dituzun? Bekatu au da blasfemia esaten dioguna. S. Gregoriok dio, bost urteko mutiltxo bat etsayak eraman zuala betiko su, eta garren artera, zeren *blasfemiak* esaten ikasi zuan, eta ez omen zituan bost urte baizik. Jaunari eskerrak ez da euskaldunen artean esaten *blasfemia* dan itzik; baña askotan gerta diteke *Jaungoikoaren, eta Jesusen* izen Santua begiramentu gutxirekin aitatzea, eta ez da orrelako oitura txarrik artu bear: bada Jaunak esaten digu: Ez dezu autan artuko alperrik zure Jaungoikoaren izen Santua: *Non asumes nomen Dei tui in vanum.*

2. Begira, Konfesio gaiztoak berritu nai dituzun denbora artatik oraindano, juramenturik egin ote dezun gezurraren, edo ongi ez dakizun gauzaren gañean? zenbat bider?

3. Begira, izan ote dezun juramentuak sarritan egiteko oitura, egiaren gañean egiten dituzula aitzakiaztat arturik? Oitura au txit itsusia, eta bekatu askoren sustraya da, eta ayenatu bear da Kristauen etxeetatik. *Juramentua sarritan egiten duana beteko da bekatuz, eta ez da aren etxetik irtengo neke, eta naigabea*, dio Espiritu Santuak. Ez da sinisteko gauza, sarritan juramentuak egiten dituanak egiaren gañean egiten dituala. Orregatik beartua dago, oitura au utzitzera.

4. Begira, izan ote dezun oitura juramentu diran itzak esateko begiratugabe, egiaren, edo gezurraren gañean esaten dituzun: egin dezagun kontu: *Ala Jainkoak salba nazala: emendik mugi ez nadilla, Deabruak naramala, au onela ezpada*. Oitura au duana bekatu larri, edo mortalean bizi da geyenak dioenez, eta uzteko neurri egokiak artu nai ezpaditu, ezin Sakramenturik artu dezake.

5. Begira, esan ote dezun: *nere animan au, edo ura onela da? Zenbat bider?* Oitura, edo usanza txarra

da au, eta gizon jakintsu askoren iritzian juramentu, eta utzi bear da (Vide Suarezium, ac Salmanticenses).

6. Begira, esan ote dezun nere konzienzian au onela, edo ala da. Geyenak erakusten due ez dala esaera au juramentu, eta ez da aintzakotzat esan bear, baña onena da ez artzea oitura au. Esatea *nola naizan Kristaua, nola naizan Pedro, edo Maria, nola emen ekusten nazun, edo emen nagoan*, ez da juramentu. Diot au, zeren askotan gazteak juramentutzat artzen dituen ala ez diranak.

7. Begira, birauarekin nastutzen dan juramenturik gezurraren gañean egin dezun: egin dezagun kontu: *Deabruak naramala, emendik mugi ez nadilla, onda nadilla, au onela ezpada*. Zenbat bider egiaren, eta zenbat bider gezurraren gañean?

8. Begira, biraurik egin diozun lagun urkoari? Zenbat bider biotzetik, eta zenbat bider bestela? Biraua da esatea itzen batzuek, adirazten dala, lagun urkoari opa diogula gaitzen bat, egin dezagun kontu: *itoko al aiz: deabruak eramango al zaizu: arrayo gaiztok puskatuko al zaitu*. Oitura txit itsusia da au, eta utzi nai ez duenak, bizi oi dira bekatu larrian, eta ezin Sakramenturik artu dezakee batezere gurasoak, zeren

berengan danez umeai, eta etxeokoi oitura erakusten diezan, birauak biotzetik botako ezpalitue ere.

9. Begira, zere gurasoari, edo gurasoaren lekuan daukazu nari biraurik bota diozun? zenbat bider? Gurasoak aditzen zuala, edo bestela. Eriotzaren pena zuan bekatu onek lege zarrean: *Qui maledixerit Patri, vel matri, morte moriatur* (Levit 20).

10. Begira, zure etsayaren kontra esan ote dezun: *niri eman dizkidan naigabeak etorriko al zaizka berari ere, ez geiago, eta ez gutxiago. Amen.* Zenbat bider esan dezu au? eta zenbat denboran bizitu zera sasoi gaizto orretan? Jakizu, denbora orretan guzian bizitu zerala bekatu larri, edo mortalean, baldin ark zuri emandako naigabeak andiak baziran. Jauna, ez diot nik berak eman dizkidan neke, eta naigabeak baizik opa izan. Atozea, eta zerren ark gaizki egin duan, zuk ere egin bear dezu? Ez dakizu debekatzen duala au Jesu-Kristok?

11. Begira, idiai, beiai, edo gizonari ez, beste gauzai bota dieztetzun birauak? Ez da au bekatu larri, edo mortala, jabeaganonaz nastutzen ezpada gorrotoa; baña izkunza txarra da, eta ez due Kristauak ikasi bear.

12. Begira, esan ote dezun askotan *Deabrua*, *Demonioa*, *Arrayoa*. Ez da au bekatu larri, edo mortala, askotan esan dizuedan bezala. *Deabrua*, *Demonioa*, *Satanas*, guzia bat da, baña batzuek uste due *Demonioa* esatea bekatu mortala dala. Engañatzen dira. *Arrayoa* esatea ez da bekatu, *tximista* esatea ez dan bezala. Era berean *galzagorria*, *madarikatua*, *puzoya* esatea berez ezer ez da. Gazteak, askotan esan dizuet, eta oraiñ diot berriro: etzaitezteela oitu *Deabrua*, *Demonioa.*, *arrayoa* esatera, baña gertatzen bazatzue iñoiz, edo berriz esatea, ez dezazuela bekatu anditzat artu.

13. Begira, promesarik eginda, agindua leyalki egin dezun? Bi gauza emen gogoan arritzatzu, Kristaua. Lenengoa: gauzaren bat egiteko asmorik andiena ere ez dala promesa. Bigarrena: ez egin promesarik zere Konfesorearen baimena gabe.

14. Begira, urliarekin itzegiteko, edo ibillera izateagatik, egin dezun *promesa* Lezora, edo beste lekuren batera joateko? Oek ez dira *promesak*, baizik bekatu itsusi *blasfemiara* biurtzen diranak, zeren gauza gaiztoa Jaunari agradatzen zayola aditzera ematen dan.

15. Begira, atera ote dituzun Mezak, egin limosnak, edo erreguren batzuek, edo Santuen aurrean ipiñi argi erazekiak, lagun urkoari gaitz, edo kalteren bat etorri dakion, egin dezagun kontu: *urliaren ezkonza galdu dedin*, edo sandiak iritsi ez dezan onelako, edo alako era. Blasfemiara biurtzen dan bekatua da au ere.

Galde oek asko adiña badira gazteentzat. Gurasoak, eta zarrak beude Konfesorearekin, eta onek erakutsiko die bear dana. Ekusi dezagun oraiñ: *Nola egin, eta nolako doayakin ornitu, eta apaindu zuan Jaunak gizona*: Bigarrena, *zer gertatu zan*.

§ II.

Aditu zenduan, Kristaua, lenengo egunean, nork, eta zeñ egiteko goi, eta andirako egin zinduan: eta zeñ gauza bearra dan egiteko oni ziñez, edo benaz jarraitzea. Oraiñ jakin nai dezu, nola egin, eta nolako doayakin ornitu, eta apaindu zuan Jaunak gizona? Enzun bada kontuz esatera noana.

Eztakigu noiz egin zituan Jaunak Aingeruak, edo mundua baño lentxeago, S. Basiliok, eta S. Gregorio

Nazianzenok uste duen bezala, edo mundua egin zuan denboran bertan, geyenak erakusten diguenez. Guk dakiguna da, Jaunak egin zituala denboraz, ez betiraundetik: eta aetatik asko antuste, edo arrotasunez altxa zirala Luziferrekin batean Jaunaren kontra, eta bat batetan, edo ezertako lekurik gabe bota zituala Jaunak betiko su, eta garren artera. Oek dira gizonaren etsai izugarriak. Sei milla urte oetan beti ari dira, nondik galduko duen gizona, eta nondik amilderazoko duen *infernuan*.

Aingeruen ondoren egin nai izan zuan Jaunak gizona: eta ederki prestatu zituan, onek bearko zituan, gauza guziak. Asi zanean gauzak egiten, lenengo egunean egin zituan Zeruak, eta lurra, Illunpean zegoan guzia, etzan alabaña artean eguzkirik. Esan zuan Jaunak: *egin bedi argia*, eta bereala agertu zan egiña. Bigarren egunean egin zuan begien aurrean dauka-gun Zeru au. Irugarren egunean bildu zituan leku batera, lurraren gañean zabalduak arkitzen ziran urak eta eman zien *itsasoen izena*.

Agindu zion lurrari, eman zitzala loreak, belarrak, arbolak, eta bereala agertu ziran oek: eta dirudianez, irugarren egun onetan egin zuan Paradisuko leku, edo berjera miragarria ere. Laugarren egunean egin zituan

eguzkia, illargia, eta izarrak. Bostgarren egunean egin zituan arrayak, egaztiak, abere, edo ganadu mota guzia. Prestaturik era onetan gizonarentzako gauza guziak, seigarren egunean esan zuan Jaunak: *Egin dezagun gizona gure anzera*. Lur pixka batekin moldatu zuan lenengo gizonaren gorputza: ezer ezetik egin zuan anima, eta eman zion gorputzari: agertu zan egiña: lenbiziko gizona, eta eman zion izena: *Adan*. Gizon au egin zuan Jaunak, ondoren jayoko ziran gizon guzien buru, eta lenengo guraso izateko, eta bear zuan onetarako bere anzeko lagun bat, eta au eman zion era onetan. Kendu zion Adani, lo zegoala, sayets-ezur bat: onekin moldatu zuan lenengo emakumearen gorputza; ezer ezetik egin zuan anima, eta eman zion au gorputzari, eta agertu zan egiña lenengo emakumea. Esnatu zan Adan: ekusi zuan Jaunak bere lagun-tzat prestatu zion emakumea, eta esan zuan: *Au da nere ezurretako ezurra, eta nere aragiaren zati, edo puska*. Orra nola egin zituan Jaunak gure lenbiziko gurasoak. Adanek ipiñi zion emazteari izena *Eba*. Bi bakar oetatik eta oen umeetatik jayo dira oraindaño izan diran gizon, eta emakume guziak, eta era berean bi bakar oen jatorria izango dira emendik aurrera jayo-

ko diranak ere. Ala esaten digu Jaunak Eskritura Santan.

Adan, eta Eba etzituan Jaunak ipiñi munduan nolainai, baizik doai miragarriz ornitu, eta bete zituan. Arkitzen ziran Paradisuko berjera ederrean, eta etzuen jateko, eta edateko bear zuenaren kezkarik, zeren an bertan zegoan guzia. Etzuen gañera soñekoak egiteko gai ederren billa nekatu bearrik, zeren orduan bearrik etzuen. Janziak zeuden animaren aldetik graziaren, eta *Zuzentausun orijinala* deritzan doayarekin, etzitzaten gaitzik gogoratzen, soñekorik gabe egon arren: etzuen eritasun, eta eriotzaren beldurrik; zeren Paradisuaren erdian zeukeen arbola bat *bizitzarena* zeritzana, eta onen fruta jaten zuela, biziko ziran eritasunik gabe, eta emengo denborak betetzean bizirik joango ziran Zerura. Esan det, animaren aldetik janziak zeudela *Zuzentasun, edo justizia orijinalaren* doayarekin. Au zan doai bat, irudimendu, edo imajinaziori eragozten ziona, gogorazio gaiztoakin gizona, eta emakumea asaldatzea. Doai bat gizonaren gura guziak zeduzkana ezaguera zuzenaren, eta borondatearen mendean: eta borondatea prest arkitzen zan Jaunak nai zuana egiteko. Etziran orduan gizonaren gurak lotsagabetzen, edo asaldatzen borondatearen

kontra; baizik zeuden morroi umill batzuen eran prest etxeko nagusiak, edo borondateak agintzen ziena egiteko. Gizonak orain bezala, bazuan orduan ere jateko, eta edateko gura: baña etzuan burua altxatzen borondatearen kontra: baizik premia, zanean, ezagutzen zuan au adimentuak, eta borondateak agintzen zuan, zer, eta zenbat jan, edo edan bear zan, eta utzitzen zion gogoari bear zana egiten. Jateko, eta edateko guraren gañean diodana aditu bear da gañerako gura guzientzat ere. Gisa onetan Adan, eta Eba ziran munduan izan diran Erregiñarik andienak: ziran alabaña beren buruen, edo gura guzien Jaunak: eta munduko erregeak arkitzen dira eren gura txarren azpian. Ziran gañera mundu guziko Jaunak, eta Paradisuko arbola baten fruta ez, beste gauza guziak berentzat zituen. Orregatik zion Dabidek: Jauna, onraz bete zenduan gizona, eta ipiñi zenduan zure eskuetako obra guzien gañean: *Gloria, et honore coronasti eum, et constituisti eum super opera manuum tuarum* (Psalm. 8). Esan det *Paradisuko arbola baten fruta ez, beste gauza guziak berentzat zituela*: zeren debekatu zien arbola baten fruta: eta aginte au autsitzetik etorri ziran, eta datoz ezin esan al adiña ondoren negargarri. Dakuskun zer gertatu zan.

§ III.

Paradisuko arbolen artean bazan bat *onaren eta gaitzaren jakiundekoa* Eskriturak deitzen diona. Izen au ematen zayo, zeren aren fruta janda, ikasi zuen Adanek, eta Ebak, zer ondasunak galdu, eta zer kalteak beren gañera ekarri zituen. Debekatu zien Jaunak aren fruta jatea: *Ez jan* esan zion Adani: *Ne comedas:* zeren jaten badezu, ilko zera. *Morte morieris.* Ilko zera gorputzaren aldetik, eta era berean ilko dira zure ume, eta ondorengo guziak ere. Ilko zera animaren aldetik ere, eta zure jatorrikoak beren sortzetik egongo dira bekatuz loituak, eta animan illak. Ekusten zuan Luziferrek, nola onraz, eta zori onez bete zituan Jaunak Adan, eta Eba, eta enbidiaren suak erretzen, eta erkitzen zuan, eta asi zan aek, eta gu galtzeko bideak billatzen. Bazebillen Eba Paradisuan, ango lore, eta arbola ederrak ekusten: sartzen da Luzifer suge baten barrunbean, eta esaten dio Ebari. *Zergatik debekatu dizue Jaunak Paradisuko arbola guzietatik jatea?* Eranzun zion Ebak: Paradisuao arbolen frutatik jaten degu; baña agindu digu Jaunak, Paradisuaren

erdian dagoan arbola baten fruta ez dezagula jan, ezeta ukitu ere, ill ez gaitezen. Esan zion Luziferrek: Etzerate ez ilko orregatik: badaki Jaunak, andik jaten dezuen unean bertan idikiko dirala zuen begiak; eta izango zeratela Jainko batzuen eran, ona, eta gaitza ezagutzen dezuenak. Agradatu zitzaizkan losentx oek Ebari, eta Paradisuaren erdira joanik, jartzen da sagar debekatuari begira. Ekusten du, sagar eder, eta elduz betea: *Pulebrum oculis, aspectuque delectabile*. Ken zaite ortik Eba, ken zaite; bestela galduko dezu zere burua, eta mundu guzia;baña etzan perilletik kendu, eta kendu bearrean, artu zuan, eta jan sagarra. Gaitz erdi izango zan onetan geratu baliz; baña eraman zion Adani, eta jan zuan onek ere. Onela galdu zituen Adanek eta Ebak beren buruak, eta mundu guzia; bekatu ura alabaña jatorriz igarotzen da oen ume guzietara, eta guziak sortzen dira bekatu arekin loituak. Ozta Adanek autsi zuan Jaunaren Agintea, an zan Adanen ondoren Jauna bera. Ezkutatu zan Adan arbola artean: soñekorik gabe arkitzen ziran, eta lotsaz nolerebait estali ziran arbolen ostoakin. Au izan zan munduan lenengo janziera. *Adan*, otsegin zion Jaunak, *non zera?* Eranzun zion Adanek: *aditu det, Jauna, zure otsa, eta nola soñekorik gabe nengoan, lotsalu, eta ezkutatu*

naiz. Atozea eta nork, edo zerk aditzera eman dizu, soñekorik gabe arkitzen ziñala, debekatu nizun sagarra jateak baizik? esan zion Jaunak. Jauna, eranzun zion Adanek: *laguntzat zuk eman didazun andreak ekarri dit sagarra eta jan det.* Biurtzen da Jauna Ebaganana, eta esaten dio: *zergatik egin dezu ori?* Eranzun zion Ebak: *sugeak engañatu nau, eta jan det.* Orduan esan zion sugeari, edo sugeagan Luziferri: Madarika-tua izango zera: nik gerra bizia ipiñiko det zure, eta andre baten artean: andre ark bere semearen bidez zapalduko du zure burua: *Inimicitias ponam inter te, et mulierem... ipsa conteret caput tuum.* Itz oetan aditzera eman zuan Jaunak, bidalduko zuala denboraz bere Salbatzallea, eta onek zapalduko zuala etsai galgarriaren burua.

Etzuan Adanek bekatuan erori zan artean jana eta edanaren kezkarik, zeren Paradisuan zuan bear zuen guzia nekerik gabe; baña bekatuarekin galdu zuan era au; eta betiko bota zituan Paradisutik, eta esan zion Adani: *zure aurpegiko izerdiarekin jango dezu ogia.*

Etzuan Adanek soñekoen billa bearrik, len esan dedan bezala, baña bekatuan erori ezkerro bai: eta Jaunak eman zien abere, edo ganaduen larruz eginda-

ko zamarra bana. Janzieraren polita Mundu guziko Errege, eta Erregiña batentzat.

Etzuen Adanek, eta Ebak eriotzaren beldurrik Jau-naren Agintea autsi zuen artean: zeren bizitzaren arbolaren frutarekin biziko ziran gaixotu, eta zartu ere gabe; baña fruta artatik jateko era, eta bide guziak kendu ziezten Jaunak, botatzen zituala Paradisutik. *Autsa zera, esan zion Adani, eta auts biurtuko zera.* Emendik etorri dira Adanen umeentzat ainbeste gaitz, edo eritasun, eta atzenean ill bearra.

Len gizonaren gura guziak pakean zeuden, baña bekatuarekin galdu zuen zuzentasun, edo justizia ori-ginalaren doaya, eta griña guziak asi ziran gaitzeronz, eta geroztik mundua darabilte gerra bizian. Gaur asal-datzen da antuste, edo soberbia, gero kutizia: gaur atsegin lotsagarrietarako griña, bigar beste bat: eta ez dioe pakearik eman nai anima gaixoari. Orregatik esan zuan Dabidek: Onraz betea zegoanean, etzuan ezagutu bere ona; *Homo, cum in honore esset, non intellexit:* ipiñi zuan bere burua zentzurik ez duen astoen pare, eta egin zan aen anzeko: *Comparai us est jumentis insipientibus et similis factus est illis* (Psalm. 48).

Len Adan mundu guziko Errege zan, eta abere, ta ganadu guziak beraren mendean zeuden: asko da au ezagutzeko gogora ekartzea, nola joan zitzaizkan, zegoten izena ipiñi zegien. Baña bekatuan erortzearekin galdu zuan bere agintea, eta geratu zan guziok ekusten degun eran.

Atzenean sagar baten jatearekin galdu zuan Jau-naren grazia, eta adiskidetasuna, eta Zerurako esku guzia, eta galdu ez beretzat bakarrik, baita guretzat ere. Geratu zan bekatuaren loyean ondatua, eta andik irteteko biderik gabe, eta era berean Adanen umeak. Ay Adan! zeñ samiña izan zan zuretzat, eta zeñ samiña dan guretzat zure sagar-mokadu ura.

Orra, nere Kristaua, nola egin ta nolako doayez bete zuan Jaunak gizona, eta orra zer gertatu zan. Alaere añ urrikaritsua, eta ona izan zan gure Aita Zerukoa, non utsegite au desegiteko, eta gu Zerurako bidean ipintzeko, bidaldu zuan lurrera bere Seme bakarra: eta Semeak eman zuan gurutzean bere bizitza. Eta ezaguturik au guzia, ez gera beragana biurtuko? Eta ez degu Aita maitagarri au amatuko? Egin dezagun au biotz prestu batekin, eta emango digu betiko bizitza doatsua. Amen.

BEDERATZIURREN ONEN IRUGARREN EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

Scrutemur vias nostras &.

Birjiña txit Santa &. Lendabiziko Platikan bezala.

Konfesio onaren prestaera da Bederatziurren onetan billatzen deguna. Bi gauza eskatzen ditu prestaera onek: bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartzea, eta au egin diteke edo azkeneko konfesiotik, edo konfesio gaiztoak asi ziran denboratik: eta bigarren examina-modu oni geyago begiratuko diogu egun oetan lenengoari baño. Konfesio onaren prestaerak eskatzen duan, bigarren gauza da, gure bekatuakin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea, egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo osoarekin: baño ez dira gure biotzak Jaunagana bear dan eran biurtzen, fedearen argiarekin gogora ekartzen ezpadira damubide egokiren batzuek. Bi gauz oek itz gutxian adirazi

zituari Jeremiasek, esan zuanean: begira degiegun gure bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras* eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitzen beragana: *Et quaeramus, et revertamur ad Dominum*. Onetarako bigarren egunean examina egin genduan Jaunaren Legeko bigarren Aginte, edo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean: eta ondoren fedearen argiarekin begiratu genduan, *Nola egin, eta nolako doayakin ornitu, eta apuindu zuan Jaunak gizona, eta zer gertatu zan*. Gaurko examina izango da Jaunaren Legeko irugarren Aginte, edo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Urrena begiratuko degu, lenengo lekuan, nola Jaunak gizon galdua Zerurako bidean ipintzeko, agindu zuan bidaltzea bere Salbatzallea, eta nolako eresi, edo ansiarekin eskatzen zuen anima onak onen etorrera. Bigarrena, denborak bete zira-nean, zer gure alde egin zuan Trinitate guziz Santak. Emendik erraz ezagutuko degu alde batetik Jaunaren Ontasun baztergabea, eta bestetik gure eskergabeke-rien itsustasuna. Asi gaitzen.

§ I.

Begira degiegun gure bide, eta ibillerai, esaten digu Jeremiasek: *Scrutemur vias nostras*: au da examina egitea, eta gaurkoa degu Jaunaren legeko irugarren Aginte, edo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Oek ongi ezagutzeko, eskatu degiogun Espiritu Santuari bere lagunza, esaten diogula:

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emallea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza, oen gañean damutzeko eta aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegiteko, eta konfesatzeko. Zoaz oraiñ Jaunaren Legeko irugarren Aginte, edo Mandamentura.

1. Irugarren Aginte, edo Mandamentuak dio: *festak, edo jai egunak santifikatzea. Festak nork santifikatzen ditu? Meza osoa enzunda, lanik premia gabe egiten ez duanak.* Mandamentu onetara biurtzen dira Elizaren gañerako Aginteak ere. Begira bada, nola, eta zenbat bider utsegin dezun, irugarren Aginte oni dagozkan gauzetan, gaizki konfesatzen asi ziñanetik.

2. Begira, denbora artatik oraindano zenbat bider geratu zeran Mezarik enzun gabe, enzun bear zan egunetan, eta enzun zentzakeala? Ezin enzun deza-

keanak ez du onetan bekaturik; baña gauz ona da orduan obra onen batzuek egitea Mezaren lekuan.

3. Begira, Meza enzun gabe geratzeko perillean jarri ote zeran, dala mugonean etxetik irten gabez, dala bidean erausian egonaz? Zenbat bider? Asko Eliz atarian egoten dira izketan, eta Meza asia izan arren, arretarik ez due ipinizen, Elizan sartzeko.

4. Begira, Meza enzun gabe joan ote zeran beste erriren batera, barrenak esaten dizula: *etzerala ara joango Meza enzuteko denboran*. Jauna, beartua nengoan joatera, eta errian Meza enzuten geratu baninz kalte andia etorriko zitzayen gurasoai. Kalte andia etortzeko perilla danean, ez da bekatu kanpora joatea, Meza utsegingo baliz ere; baña gutxitan, izan oi dira kalte andien perillak, errian Meza enzun arren.

5. Begira Meza enzun izan dezun modestiarekin, eta zertan zauden oartua zaudela? Jauna, batzuetan Mezako denboran inguratzen, eta nekatzen naue gogorazio gaiztoak: bekatu ote da au? Ez, baldin arretarekin sayatzen bazera, zeregandik ayenatzeko gogorazio oriek. Lenbiziko Komunioko liburuak asko lagunduko dizu Meza ongi enzuten. Jauna, batzuetan Meza enzun det, jokorako kartak nerekin ditudala. Ez da au ere bekatu, baldin gañerakoan arretaz enzuten

badezu; baña ez dirudi ongi jokorako kartakin Mezatarra joatea.

6. Begira, bizitu ote zeran, Meza nagusi, Errosario, bezpera, eta Jaunaren Itzagandik igesi zere alperkeriaz. Ez det esan nai, gauz oetako bakoitza utzitzea dala berez bekatu larri, edo mortala; baña gauz oetan ardurarik ez duana, batezere gaztea, laster bekatuz beteko da.

7. Begira, enzungabe utzi ote dezun Mezaren parte, edo puskaren bat? Zer, eta zenbat bider. Epistola bukatu artekoa, eta era berean Apaiza Komulgatzen danetik Mezaren bukaerañokoa utzitzea ez da bekatu larria askoren iritzian, baldin gañerakoa enzuten bada ongi.

8. Begira, jai osoetan lan debekaturik, egin ote dezun premia estu gabe: zer lan, zenbat denboran, zenbat bider?.

9. Begira, astegunean egin zintzakean lanak igandean, edo jai osoan egiteko asmoarekin utzi dituzun? Jauna, ez dit etxeakoandreak utzi nai, astegun, eta jai erdietan nere abarka, eta soñeko zarrak adabatzen, eta zer nai du, nik egitea? Era badezu, zoaz beste etxeren batera: eta ezpada onetarako erarik, egon zaite Konfessorearekin. Nagusi, ta etxeakoandreak,

etzaitetzela izan, añ gogorak morroi, eta neskameakin.

10. Begira, aragirik jan dezun, jatea debekatua dagoan egunetan? edo Buldarekin jan ditekeanean, otordu batean jan dezun aragia, eta arraya? Aragia jan arren, ez da debekatzen olio-gauzak jatea otordu artan, baizik debekatzen dana da aragia, eta arraya otordu batean jatea.

11. Begira, urte oroko konfesio, ta komunioa egin-gabe geratu zeran gaiztakeriaz, edo nagitasunez. Badira zenbait guraso, zazpi, zortzi, eta bederatzi urte dituen aurak bidaltzen ez dituenak ez Meza enzutera, ez konfesatzera, eta berak etortzen ote dira? Asko dira galde oek gazteentzat: baña zarrak, guraso, nagusi, eta etxeakoandreak gogora ekarri bear ditue beste asko gauza. Goazen orain ekustera, nola Jaunak gizon galdua Zerurako bidean ipintzeko, agindu zuan bidaltzea bere Salbatzallea, eta nolako eresi edo ansiarekin eskatzen zuen anima onak onen etorrera. Urrena denborak bete ziranean, zer gure alde egin zuan Trinitade guziz Santak.

Aditu zenduan, Kristaua, azkeneko aldian, nola gure lenbiziko gurasoak autsi zuen Paradisuan Jaunaren Aginte, edo Mandamentua, jaten zuela ango arbo-la baten fruta debekatua. Aditu zenduan gañera zeñ era negargarrian geratu ziran Adan, eta Eba, eta aekin batean gu guziok. Bota zituan Jaunak betiko Paradisu-tik, eta geratu ziran jana, edana, eta janzia beren nekearekin billatu bearrean, eta eriotzaren mendean. Galdu zuen *Zuzentasun*, edo *justizia orijinalaren* doai miragarria. Doai onekin gizonaren gura guziak pake gozo batean zeuden; baña au galdu zuen bezala, altxa ziran guziak, eta geroztik beti gerran daude ala boron-datearen kontra, nola eren artean. Emendik dator oek ezi nai dituanaren nekeak. Emendik etxeetan, errietan, eta Erreñuetan aserreak, eta gerrak. Galdu zuen Jaunaren grazia, eta adiskidetasuna, eta Zerurako eskubide guzia ala, berentzat, nola guretzat, leneko egunean esan nuan eran. Itxi ziran Zeruko ateak, eta zabaldu zuan *infernuak* bere eztarritzar izugarria. Zer egin al zezakean gizonak bekatuaren mendetik ateratzeko bere burua; eta bere umeak? Ezer ez, zeren Jaunaren lagunza gabe ez gurera gai, edo gauza *Jesus* bat esateko ere bear bezala: Ala esaten digu S. Pau-

lok, eta Adanek bere bekatuarekin galdu zuan Zeruko laguntzak artzeko bidea. Nork bada aterako zuan gizon galdua bekatuaren osiñetik? Aingeruren batek? Baña gizonak sagar bat jateko atsegiñagatik utzi zuan bere Aita ona, eta bidegabe onen itsustasuna añ andia zan, non neurri guziak igarotzen zituan, edo beintzat gizonaren, eta Aingeruen alegin guziak ezer etziran bekatu onen barkazioa iristeko. Nork bada neke izugarri onetatik aterako zituan gure lenengo gurasoak, eta aekin batean gu? Nork Jaunaren Ontasun baztergabeak baizik? Aserratua zegoan Jauna gizonaren esker-gabekeriarekin? baña ekusten zuan, Luziferrek Jaun beraren gorrotoz, eta gizonaren onrak eziñ ekusiz, janerazo ziela bere gezurrakin sagar debekatua, eta utzi zituala bekatuz beteak, eta betiko su, eta garren artera amiltzeko zorian, eta etzuan nai Luzifer berearekin irtetea, eta esan zion sugeari, eta sugeagan Luziferri: Madarikatua izango zera: nik gerra bizia ipiñiko det zurekin andre baten artean: andre ark bere semearen bidez zapalduko du zure burua: *Inimicitias ponam inter te, et mulierem... ipsa conteret caput tuum.* Itz oetan agindu zuan Aita Zerukoak bidaltzea munduaren Salbatzallea, edo bere Seme bakarra, gizon galdua Zeruko bidean ipintzeko. Semeak bere

gañean artu zuan gure Erospen, edo Redenzioko Obra Andia, eta Espiritu Santuak bere doayakin gure animak edertzea, eta apaintzea. Baña au guzia Jaunaren ontasunak gure alde asmatu bazuan ere, denbora luzeak joan bearrak ziran gauza miragarri oek gertatu ordurako: eta gaizki zeuden gure lenbiziko gurasoak, eta gisa berean gaizki egon bearrak ziran oen umeak, baldin Jaunak prestatzen espazien bekatutik irteteko, eta bizitz ona egiteko bideren bat. Egin zuan au ere Jaunaren ontasunak. Begiratu zien Salbatzalleak denboraz gure alde igaroko zituan neke-oñazeai, eta gurutzeko eriotzari, eta erabaki zuan gizonari ematea bekatutik irteteko, eta bizitz onari jarraitzeko, bear diran Zeruko indar, eta laguntzak. Era onetan Salbatzallea etorri baño len biur zitekean bekataria Jaunagana, eta bizi zitekean beraren adiskidetasunean, Adan, Eba, Noe, Abraham, eta beste asko bizitu ziran bezala. Baña Salbatzallea etorri, eta Zerura igo zan artean etziran idiki Zeruko ateak, ez Adanentzat, ez beraren umeentzat, eta Jaunaren grazian iltzen ziran animak geratzen ziran Abrahamen linboan, Salbatzalleari itxedoten. Orra, nola Jaunaren Ontasunak prestatu zion gizon galduari Zerurako bidea.

Bazetozen, eta bazijoazen mendeak edo denborak mendeen ondoren: eta oska zegozkan Jaunari Patriarkak, Profetak, eta anima onak, bidal zezala aginduzuan Salbatzallea. Esna ezazu, Jauna, esaten zion Dabidek, zure esku guzieldun ori, eta atoz: *Excita potentiam tuam, et veni* (Psalm. 79). Bidal ezazue, Zeruak, deadar egiten zuan Isayasek: bidal ezazue aspaldi ansia andiarekin itxedoten gauden inz gozoa; eta eman bezee odehyak agindua dagoan justua: *Rorate Caeli desuper, et nubes pluant justum*. (c. 45). Beste batzuetan deitzen zioen Salbatzalleari berari, eta erregutzen zioen, zetorrela arren lenbaitlen. Erregu oek Eliz Ama Santak ipiñi zituan zazpi kantatxotan: eta kantatzen ditu eguerriren aurreko egunetan.

Lenengoan otsegiten dio Salbatzalleari era onetan: *O Sapientia!* O Aita Betikoaren Jakiundeia! Aitaren adimentutik betiraundean sortu, edo jayo ziñana eta betikotasunetik betikotasuneraño gauza guziak argiro ekusten, eta sendoro, baña denbora berean gozotoro prestatzen dituzuna: atoz, betiko bizitzaren bide ederra guri erakustera: *Veni ad docendum nos viam prudentiae*.

Bigarren kantan esaten dio: *O Adonai!* edo nere Jauna! Israeltarren giaria! Moisesi lar erazekiaren

garrean agertu zintzaizkana, eta Sinaiko mendian Legea eman zeniona: atoz zure beso indartsu ori zabaldurik: atoz, gure Erospen, edo Redenzioko obra andia egitera: *Veni ad redimendum nos in brachio extento.*

Irugarren kantan esaten dio: *O radix Jese!* edo Jeseren sustray, edo erroa! Dabiden odoleko alsuma ederra! Zu zera, jende guziaz Zerurako bidea erakusteko zauden siñalea: *Qui stas in signum populorum.* Arriturik geratuko dira, zu ekustean, Erregeak: eta jende guziak gurtuko zaizkitzu, edo adoratuko zaitue, ta eskeñiko diskitzue beren otoiz, eta erregu umillak. Atoz, bekatuaren, eta etsayaren mendetik gu ateratzera: ez arren luzapenik artu: *Veni ad liberandum nos: jam noli tardare.*

Laugarren kantatxoan esaten dio: *O Clavis David!* et szeptrum domus Israel? O Dabiden giltza, eta Israelko etxearen urrezko zigorra! Jesus da, Zeruko ateak munduari idiki, edo zabaldu ziozkan giltza, Dabiden odoletik jayoa: orregatik deitzen zayo *Dabiden giltza.* Jesus da gañera bere Elizan, edo fedunen bilkuyan Errege guzien Errege, guzien buru, eta Apaiz nagusia, eta berregatik esku, eta aginte guzia duana: orregatik izendatzen da Israelko etxearen zigorra, ez nolana,

bazik Erregeai dagotena: *Sceptrum*. Esaten dio bada Elizak: O Dabiden giltza! eta Elizaren urrezko zigorra! Zu zera etxe onetako atea idikitzen dituzuna, eta ez ditu iñork ere itxitzen: Zuk itxitzen dituzu, eta ez ditu iñork ere idikitzen: atoz, eta atera ezazu bekatuaren lizean lotua, eta eriotzaren gau illunean datzana: *Veni, et educ vinctum de domo carceris, sedentem in tenebris, et umbra mortis*.

Bostgarren kantatxoan dio: *O Oriens!* O Aitaren betiko argiagandik jayotzen zeran argitasuna! O birtute guzien eguzkia! atoz, eta argi itzatzu eriotzaren gau illunean dautzanak: *Veni, et illumina sedentes in tenebris, et umbra mortis*.

Seigarren kantan, esaten dio: *O Rex gentium!* O jende guzien Erregea! egarri andiarekin guziak ekusi nai zaituena. Israeltarrakin, eta beste jende guziakin Eliza bat egiten dezun eskiñarri miragarria! Atoz, atera ezazu bekatuaren mendetik, lur pixka batekin moldatu zenduan gizona: *Veni, et salva hominem, quem de limo formasti*.

Azkeneko kantan esaten dio: *O Emmanuel!* Izen au ematen dio Isayas Profetak Salbatzalleari, eta esan nai du: *Jaungoikoa gurekin*. O Manuel! gure Errege, eta lege-emaillea; jende guzien uste, eta esperanza,

ta Salbatzallea! *Expectatio gentium, et Salvator earum*: atoz, gure Jaun, eta Jaungoikoa, bekatutik, eta animaren eriotzatik gu ateratzera: *Veni ad salvandum nos, Domine Deus noster!*

Orra nola oska egon zitzaizkan Jaunari Patriarkak, Profetak, eta anima onak, etorri zedin lenbait len gizon galdua Zerurako bidean ipintzera. Erregu oekin urrikaldu zan Jauna guzaz: eta lau milla urte, edo geyagoren buruan erabaki zuan munduaren Salbatzallea bertatik bidaltzea. Dakuskun oraiñ, zer gure alde egin zuan Trinitade guziz Santak.

§ III.

Aita Zerukoak, gure Erospen, edo Redenzioko obra andia asitzeko, bidaldu zion Birjiña txit Santari S. Gabriel Aingerua, eta aditzera eman zion, argan Espiritu Santuaren obraz gertatuko zan, Misterio arrigarria: eta orra, zer gisatan Aita betikoaren ontasun baztergabeak prestatu zuan gugatik bere Seme bakarra emateko bidea. *Ainbesteraño maite izan ginduan, dio S. Juanek, non eman zuan bere Seme bakarra.*

Eta zer egin etzuan Trinidadeko bigarren Personak gure alde? Bere gañera artu zuan gizon galdua Zerurako bidean ipintzeko egiteko andia. Ozta Birjiña txit Santak eman zuan bere baimena, egin zan gizon beraren Sabelean Espiritu Santuaren obraz. Gauz arrigarria! Trinidadeko bigarren Persona Jaungoiko egiazkoa aragiz janzia! Obra onen anditasuna ezin aditzera eman dezakeala gizonaren mingañak, dioe Elizako guraso batzuek, eta betiraundetik oraiñ daño egin dan gauzarik andiena dala, esaten digue besteak. Agertu zan mundura: ogei ta amairu urte igaro zituan gizonen artean Zerurako bidea erakusten, ala itzez, nola obraz. Sendatu zituan eriak, piztu illak: eta etzion iñori ontarte, eta mesedea baizik egin. Alaere etzuan munduak ezagutu nai izan bere Salbatzalletzat. Atzenean guganako onginei, eta amorio geyegiz, dio S. Paulok, eman zuan gurutzean bere bizitza: *Propter nimiam charitatem*. Bere eriotzarekin garaitu zuan, gizona bekatuan amilderazo zuan etsai galgarria, egin zuan gizon galdua Zerurako bidean ipintzeko bear zana, edo Jaunaren aserreak eskatzen zuana. Ipiñi zituan zazpi Sakramentu, edo zazpi iturri graziaren ur gozoa gure animetan ixurtzeko, oen artean Aldareko Sakramentu guziz miragarria, gurekin eta gure artean bizi-

tzeko, eta bere ondasun guziak guri emateko. Prestaturik era onetan gauza guziak, piztuta berrogei garren egunean biurtu zan bere Aitagana, eta orduan idiki ziran Adanen umeentzat, ainbeste milla urtez itxiak egon ziran Zeruko atea. Berekin eraman zituan Adanegandik orduraño izan ziran anima on guziak. Ekusten dezu, Kristaua, zer gure alde egin zuan Trinidadeko bigarren Personak?

Eta au guzia asko ezpaliz bezala, jatxi zan Zerutik irugarren Persona, edo Espiritu Santua ere, Jesusek egin zuan obra andia bukatzera. Bete zituan Apostoluak bere doayez: edertzen, eta apaitzen ditu animak Sakramentuetan: alaitzen ditu Zerurako bidean gogotik ibiltzeko, eta geratu da Elizan, jakin bear diran gauza guziak erakusteko. Orra, zer gure alde egin, eta egiten duan Trinidadeko irugarren Personak ere.

Aditu dezu, nere Kristaua, nola Jaunak, gizon galdua Zerurako bidean ipintzeko, agindu zuan bidaltzea bere Salbatzallea, eta nolako eresi, edo ansiarekin eskatzen zuen anima onak onen etorrera. Aditu dezu, denborak bete ziranean, zer gure alde egin zuan Trinidadetik Santak. Atozea oraiñ, eta au guzia guri ongi nayez egin badu Jaunak, zer Ontasuna izango da beregan? eta zeñ eskergabekeria itsusia izango da,

Ontasun baztergabe onen kontra egin ditigun adiña bekatu egitea: Noizbait, noizbait zentza gaitezen, eta biur gaitezen beragana, Jeremiasek esaten digun bezala: *Revertamur ad Dominum*. Bizi gaitezen beraren lege garbiak erakusten digun eran, eta emango digu ainbeste kostarik prestatu digun betiko bizitza. Amen.

BEDERATZIURREN ONEN LAUGARREN EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

Scrutemur vias nostras &.

Birjiña txit Santa &. Lendabiziko Platikan bezala.

Konfesio onaren prestaera da bederatzi-urren onetako gure egiteko andia. Bi gauza eskatzen ditu prestaera onek. Bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartzea, eta au egin diteke, edo azkeneko konfesiotik, edo konfesio gaiztoak asi ziran denboratik: eta bigarren examina-modu au egiñaz joango gera, konfesio gaistoak berritu nai dituenai nekea arintzeko. Konfesio onaren prestaerak eskatzen duan bigarren gauza da, gure bekatuakin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo osoarekin; baña ez dira gure biotzak Jaunagana bear dan eran biurtzen, fedearen argiarekin gogora ekartzen ezpadira damubide egokiren

batzuek. Bi gauz oek itz gutxian adirazi zituan Jeremiasek, esan zuanean: begira degiegun gure bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitezen beragana: *Et quaeramus, et revertamur ad Dominum*. Onetarako azkene-ko aldian examina izan zan Jaunaren Legeko irugarren Aginte, edo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Urrena, begiratu genduan, lenengo lekuan, nola Jaunak gizon galdua Zerurako bidean ipintzeko, agindu zuan bidaltzea bere Salbatzallea, eta nolako eresi, edo ansiarekin eskatzen zuen anima onak onen etorrera. Ondoren ekusi genduan, denborak bete zira-anean zer gure alde egin zuan Trinitade guziz Santak. Gaurko examina izango da Jaunaren Legeko laugarren Aginte, edo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Urrena al degun ongiena begiratuko degu, zeñ gauz itsusia dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoaren kontra bekatu egitea. Emendik aterako degu, gure Aita onagana damuz, eta negarrez biurtzeko bidea. Enzun arreta andiarekin.

§ I.

Begira degiogun gure bide, eta ibillerai esaten digu Jeremiasek: *Scrutemur vias nostras*. Esan nai du Jeremiasek, ongi gogora ekarri ditzakula gure utsegite, eta bekatuak. Onetarako eskatu degiogun Espiritu Santuari bere laguntza esaten diogula.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emaillea, argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugiezazu nere biotza, oen gañean damutzeko, eta aurrera bekatutik eta bekatuaren bideetatik aldegiteko, eta konfesatzeko. Zoaz oraiñ Jaunaren Legeko laugarren Mandamentura.

1. Mandamentu onetan esaten digu Jaunak: *Onra ezazu zure Aita, eta Ama, luzaro bizi zaitezzen zure Jaun Jaungoikoak emango dizun lurraren gañean*. Itz oetan Jaunak agintzen dizu bizitza luzea beste ondakin batean, baldin onratzen badituzu gurasoak. Aditzen da Zerurako laguntza emango dizuen neurrian. Gurasoak bear bezala onratzeko, amatu bear dituzu biotzetik: gorde bear diezu begiramentu, edo errespeto andi bat modu guzietan, eta atzenean egin bear dituzu gurasoen aginduak, animaren onari, etxe-ko gobernuari, eta aziera onari dagozkan gauzetan.

2. Begira bada, egiaz, eta biotzetik amatu dituzun gurasoak: edo au egin bearrean opa izan ote diezun iltzea?

3. Begira, poztu ote zeran gurasoaren gaitzaz, edo naigabetu ote zeran beraren osasunaz?

4. Begira lagundu diezun beren premietan?

5. Begira itzegin ote diozun Aitari, edo Amari onra galtzeko eran, nola dan esatea: Alperra, etxeondalza-
llea, ordia? Au berez bekatu larri, edo mortala da, egia baliz ere.

6. Begira, lots andia emateko diña dan gauzaren bat eranzun ote diozun gurasoari? Zer, zenbat bider? Bakarrik, edo iñoren aurrean?

7. Begira biraurik bota diozun Aitari, edo Amari, berak aditzen duela? Iñork aditzen zuala, edo bestela, eta zenbat bider? Bekatu au txit itsusia da, eta erio-
tzaren pena ipiñi zion Jaunak lege zarrean:

*Qui maledixerit Patri suo, vel matri, morte moria-
tur* (Exod. 21). Jauna, ez diet ordea biotzetik birau egin. Atozea, eta eztakizu, orrelako itzakin, berak adi-
tzen baditue, galtzen zatela zor zaten onra?

8. Begira, sarritan ipiñi diezun bekosko illuna? edo itz garratzakin naigabe andirik eman diezun, eta zen-
bat bider? edo ekusi nai ezpazindu bezala begiratzen

diezun? Lotsagarria, eta doakabea dala onelako umea, dio Espiritu Santuak: *Qui affligit Patrem, et fugat matrem, ignominiosus est, et infelix* (Prov. 19). Illuntasun, eta errierta pixka bat umeen, eta gurasoen artean gertatzea, ez da bekatu larria, baña sarritan kopeta beltz ipintzea gurasoari, eta itz samin, eta garratzakin erkiturik idukitzea, au da gauza txit itsusia.

9. Begira, señuka, edo bestela iseka egin diozun gurasoari, berak ekusten duala, eta naigabetzeko eran? Au bekatu larria izan oi da askotan, batezere gurasoak badira begiramentu, edo errespeto andia eskatzen duenak. Aitari iseka egiten eta Ama ezertan ez daukanaren begia atera dezeela beleak, dio Espiritu Santuak: *Oculum, qui subsannat Patrem, et despicit partum matris suae, effodiant eum corvi* (Prov. 3).

10. Begira, iñoiz izan ote dezun gurasoa jotzeko ausardia? Izugarria da bekatu au, eta eriotzaren pena ipiñi zion Jaunak Lege zarrean: *Qui percusserit Patrem suum, aut matrem suam, morte moriatur* (Exodi 21): eta Iruñeko Apaizpiko, edo Nagusiaren mendeko Elizetan ez du bekatu onen barkazioa emateko eskurik, Apaiz nagusiak berak, edo ark onetarako eskua ematen dionak baizik.

11. Begira, eskua altxa diozun gurasoari. Bekatu larri, edo mortala izan oi da au ezagueran ongi sartu diranetan, naiz jotzeko asmoa izan, naiz ez, zeren eskua jasotzeak asko gutxitzen duan gurasoari zor zayon onra, eta begiramentua.

12. Begira gurasoen aginduak leyalki egin dituzun, edo au egin bearrean, ortzak agerturik egin diezun erriertan? Zenbat bider, eta nolako gauzetan?

13. Begira, agindu dizunean gurasoak, etzoazela arako usai gaiztoko etxe artara, aldegin dezazula arako lagun gaizto aetatik, ordu onean etxera zaitzezela, sarritan edo noizean beñ konfesa zaitzezela; begira diot, egin dezun gurasoak agindu dizuna? Zenbat bider egin gabe utzi dezun, eta nolako gauzetan?

14. Begira, bizitza ateratzeko modua ikastera, ongi sayatu zeran? Au egin gabez, erriak betetzen dira alperrez, eta buru gaiztoz.

15. Begira gurasoen baimenagabe igaro zeran ezkontzeko itzak ematera? Emendik etorri oi dira kalte andiak, eta oetatik bat izaten da asko neskatxa engañatuak, eta galduak geratzea ezkontzeko itzaren bixkarekin. Ezkutariak egin zuan gura zuana, eta gero etzayo eman zuan itzari eranzuterik gogoratzen ere. Bearbada esango du: *Pu, kiratsa dakar*. Begira, neska-

txak, zenbat eta geyago mutilletara zoazten, eta aekin jolasteko gura agertzen dezuen, anbat gutxiago naiko zaitueza ezkonzarako. Asko da examinarik. Morroi, eta neskameak esan diran gauzetatik igerri dezakee nola utsegin duen laugarren Mandamentuan. Gurasoak, nagusi etxeoandreak, errietako kargudunak, itz batean egin bide bereziren batzuek dituenak, begiratu bear due, nola, eta zenbat bider utsegin duen. Dakuskun oraiñ al degun eran, zeñ gauz itsusia dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoaren kontra bekatu egitea.

§ II.

Bekatua da esatea, egitea, edo nai izatea zerbait Jaunaren legearen kontra. Batzuetan da beniala, edo ariña, nola dan itz alper bat. Bekatu onek ez du galezazten Jaunaren adiskidetasuna, baña gutxika prestatuaz dijoa artarako bidea. Gauza txikiak ezertan artzen ez dituana, gutxika eroriko da andietan. Ala aditzera ematen digu Espiritu Santuak; *Qui spernit modica, paulatim decidet* (Eccli. 19). Beste askotan bekatua da *larria*, *eriozkoa*, edo *mortala*. Au da esa-

tea, egitea, edo nai izatea zerbait Jaunaren legearen kontra gauza larri, edo andian. Bekatu onen itsustasuna nolerebait ezagutzeko, egin bear degu alegiña, nere Kristaua. Diot nolerebait ezagutzeko, zeren bekatuaren itsustasuna bera dan eran ezagutzea gizonaren, eta Aingeruen adimentuak ere ezin iritsi deza-kean gauza dan. Enzun bada arretarekin esatera noana.

Zer dala, uste dezu bekatu larri edo mortala? Da bekataria bere Jaunaren kontra altxatzea, eta obraz esatea: *Ez det Jaun au serbituko*. Au da Jaunak berak Jeremiasen autik aditzera ematen digun espa samiña. Autsi dezu, esaten digu, nere legearen uztarria: *Confregisti, jugum meum*: eten dituzu nere Aginteen edeak: *Rupisti vincula mea*: esan dezu: ez det Jaun au serbituko: *Dixisti non serviam* (Jerem. 2). Eta ez da gauza txit itsusia gu era onetan Jaunaren kontra altxatzea? Eta *Nor ote* da Jaun au? Au da arako Jaun andi ura, zeñaren aurrean gauza guziak, eta oen artean munduko Erregeak ezer ez diran, dio Isaiasek: *Quasi nihilum, et inane* (cap. 40). Jaun au da Zerulurrak, eta gauza guziak ezerezetik egin zituan Jaungoiko Guzialduna, eta izan degu Jaun onen kontra altxatzeko ausardia? *Adversum Dominatorem caeli elevatus es?*

(Daniel. 5). Jaun au da, zu ezerezetik egin zinduana, bera ezagutzeko, amatzeko, eta berarekin Zeruan doatsu izateko. Jaun au da, ekusirik gu Adanen bekatuarekin galduak, bidaldu zuana bere seme bakarra, gu Zerurako bidean ipintzera. Ainbesteraño maite izan ginduan, non eman izan zuan bere seme bakarra, dio S. Juanek: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret* (c. 3). Zer etzuan egiñ Seme onek gure onerako? Egin zan gizon Birjiña txit Santaren sabelean Espiritu Santuaren obraz: ogei, ta amairu urte igaro zituan Zerurako bidea erakusten ala itzez, nola obraz, eta atzenean gurutzean eman zuan bere bizitza. Ipiñi zituan Sakramentuak, oen artean batayoa bekatu jatorrizkoa, edo orijinala barkatzeko: Konfesiokoa batayoa ezkeru egindako bekatuak barkatzeko. Zer geyago? Ipiñi zuan Aldareko Sakramentu guziz miragarria, gurekin, eta gure artean bizitzeko, eta guri emateko eman al guzia; ematen digu alabaña bere gorputza, bere odola, bere Jainkotasuna, itz batean bera dan guzia. Baña etzan gure Jauna onenbesterekin ere kontentatu: bere Semea ezezik Espiritu Santua ere bidaldu zuan lurrera. Bete zituan Apostoluak bere doayakin: apaintzen ditu animak graziaren soñeko ederrarekin, eta doai onekin egiten gaitu Jaungoikoa-

ren Seme, eta Zeruari jabetgai. Atozea, Kristaua: zeñ gauz itsusia ezta bada izango Jaun onen kontra altxatzea, eta esatea: ez det Jaun au serbituko? *Dixisti: non serviam?*

Zer dala, uste dezu, bekatu larri, edo mortala? da ezin geyagorano ona, eta maitagarria dan zure Aita Zerukoa ezertan ez idukitzea, eta Satanasen aldera igarotzea. Jesus onak Juduetatik ekusi zituan bidegabe guzien artean bearbada itsusiena izan zan, Juduak nayago izatea, Barrabas gizon gaiztagin andia bizi-tzea, ezen ez Jesus. Eta zer izango da, utzirik zure Aita Zerukoa Satanasegana igarotzea?

Bekatu larri, edo mortala da kolpe batean iru erio-tza egitea. Bekatariak bekatu larriari leen ematen dion unean iltzen du benik beñ bere anima. Ala esaten digu Ezekiel Profetak: *Anima, quae pecaverit, ipsa morietur* (c. 18). Begira arako gizon, edo emakume ari: zeñ ederki janzia dabill! Alaere nola bekatuan bizi dan, illa, eta bear bada usteldua dago animaren alde-tik. Badu oroipena, badu adimentua, eta borondatea, eta bekatuan dagoan bitartean ez da gai, edo, gauza Zerurako irabazirik txikiena ere egiteko. Iltzen ditu gañera, animak bere denbora guzian egin dituan obra onak. Izan bitez norbaiten nekeak martiri guzientak

baño andiagoak. Izan bitez beraren obra onak Aposto-
luen, eta Birjiña txit Santarenak adiña: alaere bekatu
larri bati biotzean leku emate utsa asko izango lizake
obra on oek guziak illak geratzeko. Ala aditzera ema-
ten digu Ezekiel Profetak (c. 33). Atzenean bekatariak
bekatu larria egiten duanean, beregan danez berriro
iltzen du Jesus gurutzean. Ala dio S. Paulok: *Rursum
crucifigentes sibimetipsis filium Dei* (Heb. 6). Eta au
da bidegabe bat Juduena baño askoz itsusiagoa;
Juduak alabaña uste zuen, gizon utsa zala Jesus; eta
guk badakigu dala Jaungoiko egiazkoa: eta guri ongi
nayez ill bazan beñ, piztu zala beñere ez iltzeko. Eta
eziñ il ditekeana ere il nai du bekatariak? Amorruaren
izugarria!

Eta nor da bere Jaunaren kontra ausardi au era-
kusten duan bekataria? Nor zera zu, gizona, galdetzen
digu S. Pablok: *O homo, tu quis es?* Zer, lurreko auts
piska baizik? *Terra, et cinis*. Atzo etziñan ezer, eta
gaur dezun izatea Jaunak emana dezu Zerurako iraba-
ziak egiteko. Nor zera zu, gizona? *Tu quis es?* Nor, edo
zer, loyez beterikako onzi bat besterik? onzi onek azal-
minz, edo prinz politarekin estalia dagoan bitartean ez
du nazkatzen, baña autsitzen danean, ekusten da,
gorputzaren aldetik guzia dala ustelkeria, eta arra, Job

Santuak dion bezala: *Putredo, et vermis*. Eta alaere altxa gera Jaunaren kontra? *Adversum Dominatorem Caeli elevatus es?* (Dan 5): esan dezu: ez det Jaun au serbituko? *Dixisti: non, serviam?*

Eta zergatik era onetan altxa zera, Kristaua, zere Aita onaren kontra? Zer gaitz egin dizut, dio berak. *Quid feci tibi?* Gauz arritzekoa! Ontarte, eta mesedea mesedearen gañean egin dizu, eta alaere altxa zera beraren kontra? Utzi dezu zure Ongille andia aurkeri, edo atsegin lotsagarri bategatik? Orregatik espa andiarekin dio: Zeren pare ipiñi, eta zerekin berdindu nazue? *¿Cui comparastis me?* Esan zadazu orain, Kristaua, ez da gauza guziz itsusia era onetan gure Aita ona utzitzea?

Ez ote dezu oraiñ ere bekatuaren itsustasun au ezagutzen? Begira ezazu bada, esan degun guzia gutxi bada, zer galtzen, eta zer irabazten dezun bekatu larria egitean. Galtzen dezu zure Jaun, eta Jangoikoa: eta galdu ezkerro Jaungoikoa guzia dago galdua. Galtzen dezu beraren grazia, alako soñeko eder ura, zeñarekin apaindu zinduan Espiritu Santuak batayoko egunean, eta egin zinduan Aita betikoaren ume, Jesu Kristoren señide, eta Trinitade guziz Santaren jauregi,

eta Zeruarien jabeagai. Galtzen dezu betiko bizitza doatsua.

Eta, zer irabazi dezu, orain lotsaz betetzen zaituen bekatu oriekin, dio S. Paulok: *quem ergo fructum habuistis in illis, in quibus nunc erubescitis?* (Rom. 6). Ay! irabazi dituzu betiko su, eta garrak, eta aen artean egon bearra zera betiraunde guzian. Joango dira urteak urteen ondoren, eunka, ta millaka, eta beti asieran egongo dira zure nekeak. Sei milla urte gutxienez badira ara zala Luzifer bere lagunakin, eta eren oñean arkitzen dira aren oñazeak. Beste sei milla badira an dagoala Kain, eta au bera gertatzen zayo. Lau milla urte badira Sodomatarrak erretzen daudela infernuan. Zer bekatu zan oek egiten zuena? mutillak mutillakin, eta neskatxak neskatxakin egiten zituen ukiera itsusiak: eta ez dira arintzen eta ez dira arinduko beñere aen nekeak betikotasun guzian. Atozea oraiñ: izanik gure Jauna eziñ geyagoraño ona, neke, ta oñaze betikoak ematen baditu bekatu larri bakoitzagatik: zeñ gauz itsusia izango ez da gu gure Jaunaren kontra altxatzea, eta bekatu egitea?

Au onela izan, eta alaere añ erraz, eta ainbeste bider egin degu bekatu gure Aitonaren kontra? Zer egin al dezakegu, nere Kristaua? Zer ezpada Jeremia-

sek esaten diguna? edo gure Jaunagana biurtzea?
Revertamur ad Dominum. Zer, ezpada bizitza berri on
bat egitea? egin dezagun au, eta emango digu Jaunak
betiko bizitza doatsua. Amen.

BEDERATZIURREN ONEN BOSTGARREN EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

Scrutemur vias nostras &.

Birjiña txit Santa &. Lendabiziko Platikan bezala.

Konfesio onaren prestaera da Bederatziurren onetako gure lana. Bi gauza eskatzen ditu prestaera onek: bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartzea, eta au egin diteke, edo azkeneko konfesiotik, edo konfesio gaiztoak asi ziran denboratik. Konfesio gaiztoak egin dituanak berritu bear ditu oek, gogora ekartzen duala urtean zenbat bider gutxi gora bera konfesatu, eta komulgatu dan denbora orretan, eta nola, ta zenbat bider utsegin duan Mandamentu bakoitzean. Konfesio onaren prestaerak eskatzen duan bigarren gauza da, gure bekatuakin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekatuarekin ez egiteko asmo osoarekin; baña ez dira gure biotzak Jaunagana bear dan eran biurtzen, fedearen argiarekin

gogora ekartzen ezpadira damubide egokiren batzuek. Bi gauz oek itz gutxian adirazi zituan Jeremiasek, esan zuanean: begira degiegun gure bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitezen beragana: *Et quaeramus, et revertamur ad Dominum*. Onetarako azkene-ko aldian examina egin genduan Jaunaren legeko laugarren Aginte, edo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean, eta ondoren begiratu genduan, zeñ gauz itsusia dan guk gure Jaun, eta Jaungoikoaren kontra bekatu egitea. Gaurko examina izango da Jaunaren Legeko bostgarren Agintearen kontrako bekatuen gañean, gorputzaren bizitzari dagozkan aldetik. Urrena zerbait itz egingo det eriotzaren gañean. Enzun arretarekin.

§ I.

Begira degiegun gure bide, eta ibillerai, esaten digu Jeremiasek. *Scrutemur vias nostras*: au da examina egitea. Eskatu degiogun onetarako Espiritu Santuari bere laguntza, esaten diogula: Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emaillea:

argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza, oen gañean damutzeko, eta aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta konfesatzeko. Zoaz oraiñ, Kristaua, bostgarren Mandamentura.

1. Mandamentu onetan Jaunak esaten digu: ez dezu iñor ilko: *Non occides*, eta dotrinan esaten digu: *Bostgarrena ez iñor iltzea*. Mandamentu onetan ez digu debekatzen Jaunak idiak, beyak, eta gizonaz kanpora diran, beste gauzak iltzea; baña idi, bei, eta abereakin ere gogortasun geyegi erakustea ez da ongi dirudian gauza, eta bekatu benialtzat eman oi da. Ez digu gañera Jaunak debekatzen gizona iltzea ere, artarako eskua, eta bidea danean. Ala iltzen dira etsayak gerra zuzen, edo bidezkoan, guzien onari begiraturik. Era berean illerazten dira gaiztagiñak bekatu gabe. Aditzen da au gorputzaren bizitzari bakarrik begiratzen diogula. Gizonak ditu bi bizitza, gorputzarena bata, animarena bestea, eta gaur gogora ekarri bear dira gorputzaren bizitzaren kontra gertatu oi diran bekatuak.

2. Begira bada lenengo lekuan: benaz, eta biotzetik amatu dituzun lagun urko guziak? Au egiten ez

duana illa datza animaren aldetik, dio S. Juanek: *Qui non diligit, manet in morte* (c. 5).

3. Begira, sarritan egin dituzun lagun urkoetarako ongi nai, eta amoriozko *afektoak*. Onetara oitutzen ezpada Kristaua, erraz itzaliko zayo lagun urkoetarako ongi naya, eta biderik txikienarekin ere eroriko da gorrotoan. Bizitz onean diardun Kristauak oarkabeen ere sarritan amatzen ditu lagun urkoak, dala *Aita gurea* edo *Santa Maria* esatean, dala beste erreguetan; baña gaizki bizi dana erraz zabartzen da gauz oetan. Orregatik goiz-arratsetako jayeran erakusten zate gazteai gai onetan egin bear deguna.

4. Begira, opa izan ote diezun zure etsyai ere Zerua, eta arako bidean on izango duen guzia?

5. Begira, prest egon ot dan zure biotza, etsyai ere on egiteko, zure bear danean, eta kalte andigabe dezakezunean. *Maite izan itzazue zuen etsyak, eta on egin giezue gorrotatu zaituenai ere*, esaten digu Jesu-Kristok (Math. 5). Orregatik goiz-arratsetako jayeran erakusten zate gazteai etsyak amatzeko -modua.

6. Begira, zure biotza prest egon ote dan etsyari barkatzeko egin dizkitzun txarkeri, ta bidegabeak, eta barkatu diozkitzun biotzetik? Au erakutsi zigun Jesus onak Aita gurearen erregu ederrean; eta esaten digu:

Barkatzen espadiezue zuek lagun urkoai, ez dizkitzue zuei ere barkatuko zeren bekatuak Aita Zerukoak (Mat. 6).

7. Begira, bizitu ote zeran zure alde edo auzoari apendu nayez, zeren txarkeri andi bat egin zizula, uste dezun? Zenbat denboran orrela bizitu zera?

8. Begira, etsayaren kontra gorrotorik ez daukazu-la esan arren, prest egon ote dan zure biotza, era datorrenean al duen txarkeria egitea. Onelakoak dira otsoa ardiarentzat, eta azeria olloentzat dana. Egizu alegiña oei galerazteko ardi, eta olloetarako griña: ez diezu galeraziko osotoro, eta era danean, lasterka joango dira, bata ardien, eta bestea olloen ondoren. Bi nekazari bizitu ziran elkarganako ongina, eta amorio gabe, eta beti auzitan. Ill ziran, eta biak ipiñi zituen obi batean. An ere etzuen, elkar ongi artzen, eta bien buru-ezurak borroka zebiltzan, alako eran, non Elizan aditzen ziran elkarri ematen ziozkeen golpeak.

9. Begira, zure etsayari gaitzik opa izan diozun, esaten dezula: *Niri eman dizkidan egunak etorriko al zaizka berari ere. Amen.* Au bekatu larria da, ark zuri emandako naigabeak andiak diranean. Jauna, baliaki, nolako nekeak eman dizkidan urliak: diranak dirala neke oek, nere Kristaua, ezin zuk beste ainbeste opa

izan degiokezu. Atozea, eztakizu, Jesu-Kristok Aita gurean erakusten dizuna? eztakizu, on egin, eta opa bear diegula gorrotatu gaituenai ere? Eta au egiten ez duana gaizki konfesatzen dala?

10. Begira, lagun urkoaren gaitzaz poztu ote zeran, esaten dezula: *Jainkoak barka degidala, ondo egin zayo?* Au bekatu larria da, baldin gaitz andiaz poztu bazera. Bekatu au ura bezala edan oi due gorrotoan bizi diranak: ez da onelakoarentzat soñu añ gozorik, nola dan etsaiaren tatxak, kalteak, eta okerrak aditzea. Jauna: gauz aek barreatuak, edo beintzat gure artean jakiñak ziran. Ongi, eta eztakizu, lagun urkoaren tatxa, kalte, eta okerraz eziñ poztu zaitezkeala, barreatuak izan arren?

11. Begira, zure etsaiaren onaz naigabetu ote zeran, eta zenbat bider? Norinai gogora etorri dagikeo zerbait, etsaiaren onaren berriak aditzean, baña biotza jasotzen badu Jaunagana, esaten dio!a: *Jauna, urlia oni opa diot Zerua, eta arako bidean on izango duan guzia*, orduan ez dago bekaturik.

12. Begira, izan ote dezun lagun urkoari birauak botatzeko oiturarik? zenbat denboran? astean, edo illean zenbat bider? biotzetik, edo bestela?

13. Begira, len diosala egiten zenien etsaiak ukatu diezun aserratu zikan ezkerok? edo oek diosala eginda, eranzun gabe utzi dituzun? edo muzinka egin diezun? Modu oek adirazten due zure barrunbean daukazun erra, edo otin gaiztoa.

14. Begira, zere buruari opa izan diozun eriotza, zeren naigabe, edo gurutzeren batzuek ekusi bear izan dituzun? Zeruko bizitza doatsuaren egarriarekin, lenbait len ara nai izatea ez da bekatu. Nai nuke lurrezko nere etxe au desegiña ekustea, eta Jesusekin egotea zion S. Pablok: *Cupio disolvi, et esse cum Chto*. Baña gutxik due onelako gose, ta egarria Jesusekin Zeruan bizitzeko; eta gertatu oi dana da, emengo nekeekin estutzea barrunbea, eta opa izatea batek bere buruari eriotza: eta au da gauza debekatua. Orregatik prest egon bear degu, emengo nekeak Jau-naren izenean, berak nai duan bitartean, ontzat artze-ko.

15. Begira, ibilli ote zeran borroka, edo makilka, zere buruari, edo besteri kalte andia egiteko eran?

16. Begira, jan, edo edan dezun kalte andia zere buruari egiteko, edo ezaguera galtzeko perillarekin? Askok da au gazteentzat. Zarrak egon bitez konfeso-

rearekin, eta erakutsiko die onek bear dan guzia. Goazen oraiñ eriotzaren gañean zerbait esatera.

§ II.

Oroi zaite zure azkenkiaz, edo geroeneko ekuski-zunaz, eta ez dezu beñere bekaturik egingo, esaten digu Espiritu Santuak: *demorare novissima tua, et in aeternum non peccabis*. Geroeneko ekuskizun oen artean lenengoa da eriotza, eta oni dagozkan egia zenbait enzun, Kristaua.

Bagabiltza, nere Kristaua, munduko deserri onetan gerokoaz aztuak: baña fedeko gauza da il bearrak generala. Erabakia dago gizonarentzat beñ iltzea, dio S. Pablok: *Statutum est hominibus semel mori* (Ad Heb. 9). Bizi zitekean gizona, bera nor izatera, eritasun, eta eriotzaren kezka, eta beldur bage: ipiñi zuan alahaña Jaunak Paradisuan bizitzaren arbola, eta onen fruta jaten zuala, etzan beñere gaixotuko, ez ilko. Baña Adan, eta Ebak autsi zuen Jaunaren Agintea: bota zituan bereala Jaunak Paradisutik, eta berak, eta beren ume guziak geratu ziran ezin konta al gaitzen, eta eriotzaren azpian. *Autsa zera, eta auts biurtuko*

zera, esan zion Jaunak Adani (Genes. 3). Orregatik deitzen dio S. Pablok eriotzari bekatuaren saria (Ad Rom. 6). Beraz, nere Kristaua, gure siniste, edo fedeak erakusten digunez il bearra zera zu, eta il bearrak guziok, eta utzi bear ditugu laster emengo aurkeriak. Eta gure sinistek erakutsiko ezpaligu ere egia au, aditu eta ekusi degunak berak aditzera ematen digun gauza da au. Non dira Adan, eta Eba gure lenbiziko gurasoak? Il ziran. Non dira ondorengo Patriarkak? Il ziran. Non dira munduaren asieratik oraiñ eun urteraño izan diran Errege, gizon andi, ta jakintsuak? Il ziran. Non dira lege zarreko Apaiz nagusiak? Non S. Pedrogandik oraindañoko Aita Santuak, Obispo, eta Apaizak? Oraiñ bizi diranaz osteronzeko guziak il ziran: Non dira munduaren asieratik oraiñ berreun urteraño izan diran gizon, eta emakumeak? Izan ziran, eta ez dira: il ziran guziak. Beraz il bearrak gera guziok, ala zarrak, nola gazteak, aberatsak, eta beartsuak. Eta alaere bizi gera egia au guri dagokiguna ezpaliz bezala?

Il bearra zera, Kristaua, baña noiz? Ez dakizu. Asko iltzen dira aur-denboran: asko gaste dirala, eta adiñik onenean, eta beste asko zartu ezkeru. Guk dakiguna da, ipiñi diozkala Jaunak bakoitzaren bizitzari bere mugak, eta ezin oetatik igaro gaitzkeala. Jauna; *labu-*

*rrak dira gizonaren egunak ipiñi... diozkatzu ezin iga-
roko diran mugak, dio Job Santuak (c. 14). Guk daki-
guna da, eriotzak atxitu oi duala gizona usterik gutxie-
narekin dagoanean, eta askotan denbora gaiztoan, au
da prestaera gabe dagoanean. Ala aditzera ematen
digu Espiritu Santuak (Ecclesiastes cap. 9). Ala gerta-
tu zitzayon Ebanjelioko aberatsari, eta egun oro gerta-
tzen zate beste askori.*

Il bearra zera, baña non? Ori eztakizu. Batzuek iltzen dira beren etxe, eta oyan, besteak itsasoan; batzuek errian, besteak erbestean: batzuek gerran, besteak pakezko denboran. Baña non ilko geran ez jakitea da gutxiena esan nai duan gauza. Non nai il gaitzela, zori onekoak izango gera prestaera onarekin arkitzen bagera.

Il bearrak gera, baña nola ilko ote gera? Eztakigu ori ere. Batzuek iltzen dira, arturik Sakramentuak, besteak Sakramentu gabe: batzuek Jaunaren grazian; geyenak bekatuan. Judas Patriarkaren bi seme il ziran eren buruakin atsegin lizunean ari zirala. Sararen zazpi senar Demonioak urkatu zituan aren gelara sartzeko denboran, zeren asmo garbiarekin ezkondu etziran. Ez da denbora asko, Florenzian gizon, eta emakume bat bekatu egiten zeuden denboran illotzak utzi

dituela. Bederatzi urteko mutiltxo bat il zan erri batean, eta jatxi zan betiko su, eta garren artera, zeren ukiera itsusi bat egin zuan bere arrebatxo batekin, eta il zan. Au onela izan, eta gabiltza añ ardura gutxirekin!

Il bearrak gera beraz, nere Kristaua, eta eztakigu, *noiz, non*, eta *nola* ilko geran, baña badakizkigu bi gauza guretzat izugarriak. Oek dira, *beñ bakarrik* il bearra, eta *txit garratz eta samiña izatea eriotza bekatariarentzat*. Il bearrak, eta bein bakarrik? au da gauza bat gau, ta egun kezka betetik iduki bear gidukeana: ongi, edo gaizki iltzean dago alabaña gure betiko edo zori ona, edo zori gaiztoa. Zori onekoa izango da Jaunaren grazian iltzen dana, zeren betiraunde guzian biziko dan betiko bizitza doatsuan, baña zori gaiztokoa gaizki iltzen dana, zeren betikotasun guzian egongo dan Zerutik erbestetua, eta infernuko su, eta garren artean. Beraz gure betiko zori ona, edo gaiztoa eriotzako une, edo pauso ura ongi, edo gaizki ematean dago, eta au beñ bakarrik egin bear dan gauza da. Bitan, edo irutan egin bear baliz, lenengoan pausoa utsegin arren, bigarren, edo irugarren aldian zuzendu liteke lenengo utsegite, eta okerra: baña beñ bakarrik emango da pauso ura, eta beñ onetan utse-

giten bada betiko utsegingo da. Eta alaere emengo arazo, eta ezerezean biotza ipiñirik bizi gera kezkarik bage? Eta Kristaurik geyenak beren urteak igarotzen ditue bekatuan? Nola ongi emango due oek azkeneko pauso ura, sayatu ezpadira beñere orduan egin beardana ikastera? Eun millatik ozta bat ongi iltzen da bizitza gaiztoan dirau-enetatik, esan zuan S. Jeronimok. Gertatzen da bekatariakin gai onetan bidez zijoan batekin gertatu omen zana. Bazijoan au bere bidean, eta aditu zuan atzetik lasterka zetorrenen baten oñotsa. Begiratzen du, zer ote dan, eta ekusten du, nola darkion aberetzar izugarri bat adar bakoitza. Bereala asi zan lasterka alegin guziaz, baña adar bakoitza zerraikion, inguru guziak orroaz izutzen zituala. Arkitzen du lize-zulo bat, eta saltatzen da ara. Lizearen sayets batetik zabaldurik zeuzkan adarrak lertxun batek: eldu, edo itsatsi zien oei, eta geratu zan zinzilika. Onela zegoala, begiratzen du goronz, eta ekusten du adar bakoitza, lizearen goiko erzean berari itxedoten. Begiratzen du beronz, eta ekusten du dragoitzar bat, begietatik sua dariola, eta autzarra zabaldurik irintsitzeko zinzilika zegoana. Begiratzen dio lertxunari, eta ekusten du, sustrayak ebakitzen ari zaizkala *kirra*, *kirra* bi sagu, bata zuria, eta bestea belza. Perill

andian zegoan zinzilika zegoana. Alaere añ txoroa, eta ezereza izan zan, non ardurarik gabe zegoan, lertxunaren orrietatik erortzen ziran, tanta, edo txirrista goixo batzuek auaz artzen zituala. Asma diteke zenzugabekeri andiagorik? Eta nor ote da bidez zijoan gizon txoraiska au? Nor gu baizik? Jayo giñanetik bidez goaz betiraunde, edo eternidadera. Zer aditzera ematen du adarbakoitzak? Eriotza, iltzea alabaña beñ bakarrik egiten dan gauza da, eta orregatik adarbakoitzaren izenez aditzen da eriotza, Zer aditzera ematen du aua zabaldurik zegoan dragoitzarrak? Betikotasuna, edo eternidadea; onek irintsitzen ditu iltzen diran guziak, eta ez du onera bidaltzen iñor ere. Zer lizeak adirazten digu? mundu au, eta lizearen sayetseko lertxunak aditzera ematen du gure emengo bizitza, zenbait aldiz berekin izan oi dituan, atsegin-apurrakin. Zer bi saguak? Eguna, eta gaua, eta oek beti ari dira *kirra, kirra* gure bizitzaren sustraya ebakitzen. Alaere Ililluraturik gaude emengo atsegin-apurrakin, eriotzaz aztuak. Gizonen umeak, deadar egiten digu Dabidek: *Filij hominum*: zergatik maite dezue utsa, eta billatzen dituzue iduripen besterik ez diran gauzak? *Ut quid diligitis vanitatem, et quaeritis rrendacium?* (Psal. 4.)

Eriotzaren gañean dakigun beste egia izugarria da, txit garratz, eta samina dala bekatariarentzat. Ozta igerritzen du bekatariak iltzera dijoala, bereala asaldatzen due bere bekatuak, eta esan dezake Dabidek ziona: *ezin konta al bekatuk inguratu naue: atxitu naue nere gaiztakeriak*: (Psalm. 39). Ekusiko du, asko bekatu egin, eta eragin dituela, eta asko anima galdu dituala, bearbada betiko. Ekusiko du Jaunaren Itzagandik, eta Sakramentuetatik igesi ibilli dala, edo gaizki artzen zituala. Begiratuko dio gerokoari, eta ekusiko du, laster joan bear duala Jaunari bizitza guziko kontuak ematera. Eta bere bizitza gaiztoak esaten dio, nola irten ditekean. Zer egingo du bekatariak estutasun onetan? Damuz, eta negarrez biurtu liteke bere Jaunagana; baña añ izutua, añ motela, eta ezer ez biurtua utzi du bereala ill bearrak, non ezertako ez dagoan. Orregatik esaten digu Espiritu Santuak: O eriotza! zeñ samiña dan zure oroipena emengo gauzetan biotza daukanarentzat: *O mors! quam amara est memoria tua homini pacem habenti in substantijs suis* (Eccli. 41). Estutasun onetan bere barrunbeak esango dio Moisesek Israeltarrai esan ziena: Non dira zuen Jaungoikoak, edo Jaungoikoaren lekuan amatu dituzuenak? *Ubi sunt Dij eorum?* Non dira etxeak, lurrak,

basoak? Non dira adiskideak? Beto, eta atera zaitzee-
la estura orretatik: *Surgant, et opitulentur vobis, et in
necesitate vos protegant* (Deutero. 32). Orra, zeñ
garratz, eta samiña dan bekatariarentzat eriotza.

Zer ote da oraiñ, nere Kristaua, guk egin bear
deguna? Zer, ezpada Jaunak ematen digun denboraz
baliatzea, gure bizitza zuzentzeko, eta aurrera Jauna
benaz serbitzeko? Au guk egiten badegu, berak lagun-
duko digu azkeneko gure orduan. Justua noiz nai, eta
nolanai datorrela eriotza, joango da betiko atsegin,
eta kontentuen artera, esaten digu Espiritu Santuak:
justus si morte praeoccupatus fuerit, in refrigerio erit
(Sapien. 4). Ala gerta dedilla zuekin, eta nerekin.
Amen.

BEDERATZIURREN ONEN SEIGARREN EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

Scrutemur vias nostras &

Birjiña txit Santa &. Lendabiziko Platikan bezala.

Konfesio onaren prestaera da Bederatziurren onetako gure egiteko andia. Bi gauza eskatzen ditu prestaera onek. Bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartea, eta au egin diteke edo azkeneko konfesiotik, edo konfesio gaiztoak asi ziran denboratik: konfesio gaiztoak egin dituanak alabaña berritu bear ditu oek, eta ezin ongi berritu ditezke, andik onera egindako bekatuak gogora ekartzen ez dirala al dan eran. Bigarrena da, gure bekatuakin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea, egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo osoarekin: baña ez dira gure biotzak Jaunagana biurtzen bear dan eran, fedearen argiarekin gogora ekarten ezpadira damubide egokiren

batzuek. Bi gauz oek itz gutxian adirazi zituan Jeremiasek, esan zuanean: begira degiegun gure bide, eta ibillerai: *Scruternaur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitezen beragana: *Et quaeramus, et revertamur ad Dominum*. Onetarako azkene-ko aldian examina egin genduan Jaunaren legeko bostgarren Agintearen kontrako bekatuen gañean, gurputzaren bizitzari begiratzen dioen aldetik, eta ondoren itzegin nuan eriotzaren gañean. Gaurko examina izango da Mandamentu beraren kontrako bekatuen gañean, animaren bizitzari oek begiratzen dioen aldetik. Urrena ukituko det, zeñ izugarria izango dan bekatariarentzat ill ondoko kontuak ematea, edo *bakoitzaren juizioa esaten zayona*. Enzun arreta andiarekin.

§ I.

Begira degiegun gure bide, eta ibillerai, esaten digu Jeremiasek: *Scrutemur vias nostras*. Eskatu degiogun onetarako Espiritu Santuari bere lagunza, esaten diogula:

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emaillea, argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza, oen gañean damutzeko, eta aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta konfesatzeko. Zoaz oraiñ, Kristaua, Jaunaren legeko bostgarren aginte, edo mandamentura.

1. Mandamentu onetan Jaunak esaten digu: ez dezu iñor ilko: *Non occides*: eta dotrinan esaten degu; Bostgarrena ez iñor iltzea. Mandamentu onetan ez digu debekutzen Jaunak idiak, beyak, eta gizonaz kanpora diran, beste gauzak iltzea; baña idi, bei, eta abereakin ere gogortasun geyegi erakustea, ez da ongi dirudian gauza, eta bekatu benialtzat eman oi da. Ez digu gañera Jaunak debekutzen gizona iltzea ere, artarako eskua, eta bidea danean. Ala iltzen dira etsayak gerra zuzen, eta bidezkoan, guzien onari begiraturik. Era berean illerazten dira gaiztagiñak bekatu gabe. Aditzen da au guzia gorputzaren bizitzari bakarrik begiratzen diogula. Gizonak ditu bi bizitza: gorputzarena bata, animarena bestea. Gorputzaren bizitza dago anima gorputzarekin bat egiña, edo unitua egoitean. Animaren bizitza da graziaren doai miragarria. Doai au ixurtzen du Espiritu Santuak animan batayo,

eta konfesio onarekin, eta ugaritzen du beste Sakramentuakin. Doai onek piztutzen ditu bekatuan illak zeuden animak, eta edertzen, ta apaintzen ditu era miragarrian: orregatik deitzen dio Jesusek: *eztayetako janziera: Vestem nuptialem* (Math. 22). Doai onek egi-ten du gizona Jainkoaren seme, ta Zeruairen jabegai, edo heredero, eta bere denboran emango dio betiko bizitza. Bizitza au galerazten da, lenengo lekuan bata-yoko Sakramentua gabe uzten dirala aurrak. Bigarrena Zerura laster joan litezkean animak uzten dirala Purgategiko su, eta garren artean, aekgatik atera bear lirakean Mezak atera gabez, edo egin bear lirakean beste obra onak egin bagez. Aditzen da artara bear-tuak daudenak Atzenean animaren bizitza galerazten due, bekaturako bidea, oña, edo lagunza ematen due-nak; bekatuak alabaña iltzen du anima. Begira bada oraiñ, Kristaua, nola, eta zenbat bider utsegin dezun bostgarren Mandamentuaren kontra, animaren bizi-tzari dagozkan gauzetan.

2. Begira, zerbait gertatu ote zatzun aurraren batayoari, eta Purgategiko animai dagozten gauzetan. Gazteai ez diet gai onetan ezer geyago esan nai: eta zarrak egon ditezke Konfesorearekin.

3. Begira, lagun urkoren bati eman ote diozun bekaturako bidea, edo itzez, edo keñuz, edo bestela? Zenbat bider, zenbati, eta oek aideak, edo ezkonduak ziran? Au da *eskandaloa* izendatzen dan bekatua. Gauz izugarria da batek bere anima betiko galdunai izatea; baña berea galtzea gutxi baliz bezala, lagun urkoenak ere galdu nai izatea, au da Satanaseri alde-
ra igarotzea, eta Jesu-Kristori gerra egitea. Orregatik dio Jesusek. Ay! munduaren zorigaiztokoa eskandalo-
akgatik: Ay! eskandaloa ematen duanaren doakabea! (Math. 18).

4. Begira, izan ote dezun itz desonestoak esateko, eta keñada lotsagarriak egiteko oitura itsusia? Zenbat denboran, eta astean, edo illean gutxi gora bera zen-
bat bider? Badira batzuek añ zikiñak itzegitean, non zein gazterik bidaldu ditequan aek dauden tokira. Gurasoak onelako morroi, edo neskame bat asko da etxeko gazte guziak galtzeko. Ez artu onelako morroi, edo neskamerik etxean, eta artu ezkerro jakiten bade-
zue, zer oitura duen, artu bear diran neurriak ondu ditezen, eta au egin nai ezpadue, bota bear dira etxe-
tik. Era berean ezda ekarri bear au zikiña, edo modu itsusiak egiteko oitura duan langillerik.

5. Begira, mutillak mutillakin, edo neskatxakin egin dituzuen itzegite, edo modu itsusiren batzuek? Zenbat bider, eta nolako lagunakin, esan nai det aideakin, edo atzeakin.

6. Begira, lagun urkoari bekaturako bidea emateko eran egon, edo ibilli ote zeran etxean, edo kanpoan. Au erraz gerta diteke igeri dabiltzala mutillak, nork nai ekusi ditzakean lekuan, edo emakumeak, gobada jotzeko jartzen badira gizonezkoen aurrean onestida-deak debekatzen duan moduan: era berean, baldin emakumeak badabilta ginga gañetan, mutillak, edo gizonak bean daudela.

7. Begira, urliaren, edo sandiaren ixilmandatuak egin dituzun, dakizula aen artean ez dala gauz onik? edo iduki dituzun zere etxean ixilik nai duen eran?

8. Begira lagundu ote diozun iñori gauza gaiztoren batean, egin dezagun kontu etxeko seme, edo alabari artoa, edo garia ateratzen, edo saltzen? Badira batzuek, batari, eta besteari kezkarik gabe erosten diezanak artoa, eta garia, batezere aetan artzekorik badue, dakiela etxetik, edo auzoko sorotik, edo amarenetik ostu duela.

9. Begira eman ote diozun iñori orditzeko biderik?

10. Begira, orditzeko perill, edo zorian daudenai eman ote diezun edaria? Asko da au gazteentzat. Zarrak egon ditezke Konfesorearekin, eta onek erakutsiko die zer, eta nola egin bear duen. Goazen orain ekustera, zeñ izugarria izango dan bekatariarentzat illondoko kontuak ematea, edo *bakoitzaren juizioa esaten zayona*.

§ II.

Erabakia dago gizonarentzat beñ iltzea, eta kontuak ematea, dio S. Pablok: *Statutum est hominibus semel mori, et post hoc iudicium* (Ad Heb. 9). Egia au sinisten degu Katoliko guziok, baña gutxi dira ongi begiratzen duenak, zeñ izugarria izango dan bekatariarentzat ordu ura. Zuk, nere Kristaua, idiki itzatzu animaren begiak, eta fedearen argiarekin begiraldi bat eman zayozu orduan gertatuko danari, eta erraz ezagutuko dezu, guziz izugarria izango dala illondoko kontu ematea.

Usterik gutxiena degunean etorriko da arako egun ikaragarri ura, zeñean igaroko geran denboratik betiraunde, edo eternidadera. Orduan utziko dezu gorputz

ori arren bazkatzat: utziko dituzu betiko emengo jolas, atsegin, adiskidetasun, eta gauza guziak: eta irtengo da zure anima bakarrik. Arkituko da bakardade izugarri batean. Begiratuko dezu alde guzietara, eta ez dezu ekusiko, ez adiskide, ez laguntzallerik batere. Jarriko da Jesus bere jarlekuan. Alde batean egongo da zure aingeru begirale, edo guardakoa: eta bestean zure etsaya, eta sarrera onelakoa bada, zer izango da gañerakoa?

Asiko da etsaya zu salatzen, eta gure esaeran, deadar egingo du: bekatari au oitu zan birau eta juramentuak egitera nolana: ez du gurasoen agindurik egin, eta bildu izan da lagun gaiztoakin, eta egin ditu ezin konta al bekatu. Onen begiak bazkatzen ziran bekaturako perilla dakarten gauzetan: onen belarriak prest zeuden itz loyak enzuteko. Onen mingaña izan da txit zikiña, eta eragin ditu asko bekatu. Aurtasunetik izan da atsegin lotsagarrietara makurtua. Alperrak izan dira onentzat zure Sakramentuak, zure itz Santua, eta zuk munduaren alde ixuri zenduan odola. Jaun guziz zuzena: nerea izan da oraindño bekatari au, eta nerea izan dedilla betikotasun guzian. S. Bizente Ferrer-ek dio, gazte bat, artean bizi zala, eraman zuala Jaunak kontuetara. Asi zitzayon etsaya aurpegi-

ra ematen bere bekatu guziak, eta ainbesteraño izutu zan, non beregana biurtuta ondoren bizitu zan negar ugari egiten zuala.

Estutasun onetan norganonz itzuliko zera? Aingeru guardakoagana? Baña au bera izango da zure bigarren salatzallea. Egin det nik, esango du Aingeru guardakoak; egin det nik ainbeste alegiña galerazteko bekatari oni bekaturoko bide, etxe, eta lagunetara joatea, baña ez du aditu nere esanik. Asko gauz on gogora ekarri diozkat, nola diran, Jauna, zure itz Santua enzutea, Sakramentuak sarritan artzea, lagun onakin ibiltzea; baña enzun gor egin dio guziari. Zure ontasun, eta urrikimentuaz baliatu da, zure lege Santa geyago, eta geyago autsitzeko. Altxa zaite, Jauna, eta eman zayozu dagokan saria. *Exeat condemnatus*. Zure Aingeruagandik au aditzean, nola geratuko zera? Ezagutuko dezu, egia dala esan duan guzia, eta edertu nai arren, zure barrunbeak berak, edo ezaguerak deadar egingo du, ala dala Aingeruak zure kontra aditzera eman duana.

Nork esan, eta nork ezagutu ere nola arkituko dan zure anima gaixoa, salaketa oen artean dakusanean bere burua? Eta zer izango da asitzen danean Jauna bera zure bizitz, eta barrenko zoko guziaz begiratzen?

Jaun au da Jesus Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, mundu guziari kontuak artzeko, eta dagokan saria emateko bere Aitak esku guzia eman ziona. Jaun au da neurri, ta bazterrik ez duan jakiundea, gauza guziak diran adiña, eta diran eran argiro ekusten dituana, eta bera-gatik eziñ engañatu ditekeana. Jaun au da guziz zuzena, eta beraren aurrean ez due balioko ezer, ez ondasunak, ez jakiundeak, ez bitartekoak: ta bakoitzari begien aurrean ipiñiko diozka bere bizitza guziko utsegiteak. Ala aditzera ematen digu Jaunak berak Ezekielen autik, esaten digula: Juzgatuko zaitut zure bizitzari dagokan eran, eta begien aurrean ipiñiko dizkitzut zure bekatu itsusi-nazkagarri guziak: *Et ponam contra te omnes abominationes tuas* (Ezechi. c. 7). Eta Sofoniasen autik dio berriz: begiratuko diet Jerusalengo, edo animaren zoko guziaz argiak; au da nere jakiundearekin. *Scrutabor Jerusalem in lucernis* (c. 1). Era onetan ekusiko ditu gogoz, itzez, eta obraz egin dituzun bekatuak. Ekusiko ditu zere lagunai eragin dieztezun gaiztakeriak. Ekusiko ditu lotsaz aitortu gabe dauzkatzun oriek. Ekusiko ditu zabarkeriaz, edo egin bear zenduana egin gabez gertatu zaizkitzun utsegiteak: eta guziak ipiñiko dizkitzu begien aurrean. *Ponam contra te omnes abominationes tuas.*

Begiraturik gisa onetan zure bizitza guziari, itzegingo dizu Juez zuzen-aserrearen eran. Oraindaño isilik egon naiz, esango dizu, Isayasen autik aditzera emana daukan bezala: *Tacui*: baña etorri da itzegiteko ordua: itzegingo det neke, eta oñazeak estura andien artean daukeen baten eran: *Sicut parturiens loquar* (Isaiae 42). Nik egin zindudan ezerezetik, ni ezagutzeko, serbitzeko, eta betikotasun guzian nerekin batean Zeruan bizitzeko. Nik zuretzat egin nuan munduko etxe eder-galant au, baita bizitzeko bear zinduan gauza guziak ere. Nik egin nuan Paradisuko berjera ederra, non bizi zindezkean nekerik gabe, eta eritasun, eta eriotzaren kezkarik gabe. Nik zuretzat prestatu nituan Zeru eder oriek, eta ekusirik zu Adanen bekatuarekin galdua, jatxi nintzan Zerutik, egin nintzan gizon, eta gurutzean eman nuan nere bizitza. Begira zayezu eskergabea, nere eskuai, oñai, eta sayetsari, eta oetan ekusten dituzun siñale oek aditzera ematen dizue, nolako neke, ta oñazeak igaro ditudan zuri ongi nayez. Nik ipiñi nituan zazpi Sakramentu, zuri graziaren, eta birtuteen apaindura ederra emateko, eta geratu nintzan Aldareko Sakramentuan, zuri emateko nere gorputza, nere odola, eta nerau naizan guzia. Esan zadazu, eskergabea, zer geyago

egin bear nuan zugatik, eta ez det egin? *Quid ultra debui facere, et non feci?* Eta nola eranzun diezu ontarte, eta mesede oei guziai? Urratu dezu nere Legearen uztarria: eten dituzu nere aginteen edeak, eta esan dezu ausardi andiarekin, ez nazula serbituko: *Dixisti non serviam*. Eta zerori añ eskergabea izatea gutxi baliz bezala, zenbat anima amilderazo dituzu bekatuan? Zenbat galdu betiko?

Nola arkituko zera, eta gera, nere Kristaua, ateleka, eta kargu oek Jesusen autik aditzean? Zer egingo dezu estutasun onetan? Begiratuko dezu alde guzieta-
ra, zuzaz urrikaldutzen danik agertzen ote dan? Baña nor urrikalduko da zuzaz? Ez da urrikalduko Aingeru guardakoa, zeren beraren alegiñak ezertan artu ez dituzun. Ez da urrikalduko Birjiña txit Santa ere, zeren denbora zanean, baliatu nai izan etzenduan beraren lagunzaz, bekatuaren bide, eta lagun gaiztoetatik aldegiteko. Begiratuko ote diozu zure Jesus onari? Baña ay! leoi aserre baten eran zure kontra egongo da Jesus, eta nork izango du berari begiratzeko ausardia? Getsemaniko baratzan *Ni naiz* esan zien, zuek billatzen dezuen Jesus Juduai: eta lurrera erori ziran korde-rik gabe. Nork bada bere aurpegira begiratuko dio, aserrerik andienean bekatariaren kontra dagoanean?

Ikaratzen zuan Job Santua aserre onek, eta esaten zion Jaunari: Nork eman legikedan, Jauna, infernua ezkutaturik egotea zure aserrea igaro dediñ artean? Beraz, nere Kristaua, ez dezu ordu artan iñondik ere lagunzarik izango, eta Zure Jaun aserratuaren aurrean egongo zera ezertako kemenik gabe, eta dagokizun saria artzeko zai.

Zuk, eskergabea, esango dizu: zuk ez dezu baliatu nai izan nere Urrikimentu, eta Ontasunaz: eta oraiñ alde-aldetik zure gañera eroriko da nere aserrea: *Nunc de propinquo effundam iram meam super te* (Ezech. c. 7). Ez dituzu nai izan, nik zuretzat prestatu nituan ontarte, eta bendizioak, eta beti-betiko iges egingo due zugandik: *Noluit benedictionem, et elongabitur ab eo*: nayago izan dezu madarikazioa, eta zure gañera etorriko da beti: *Dilexit maledictionem, et veniet ei*: soñekoaren eran janziko dezu madarikazioa: ura bezala sartuko da zure barrunbean, eta olioaren gisa zure ezurretan: (Psalm. 108). Zuk ez dezu gorde nai izan nere Legea, eta egin dezu zure etsai galgarririk, edo Satanasek nai zuana. Zoaz bada berarekin, madarikatua: zoaz betiko su, eta garren artera: *In ignem aeternum*. Orduan itsatsiko zayo anima doaka-

beari Satanaz, eta eramango du berekin betiko neke, eta oñazeen artera.

Ekusten, edo aditzen dezu, Kristaua, zeñ izugarria izango dan illondoko kontuen ematea beka tariarentzat? Sinisten degu au: eta alaere bizitu gera gerokoz aztuak, eta utzirik gure Ait Ona, eta beraren Aginteak autsitzen ditugula kezkarik gabe? Ez ote gera oraiñ bederik zentzatuko? Eta zer ote da guk egin bear deguna, illondoko kontuetan ongi irteteko? Ez dago onetarako beste biderik, ezpada oraiñ konfesio on batekin Jaunagana biurtzea, bekaturako bideak, etxeak, eta lagunak betiko utzitzea, eta bizitza berri on bati jarraitzea. Onela urrikalduko da guzaz gure Ait Ona: barkatuko dizkigu gure utsegiteak, eta emango digu betiko bizitza. Amen.

BEDERATZIURREN ONEN ZAZPIGARREN EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

Scrutemur vias nostras &.

Birjiña txit Santa &. Lendabiziko Platikan bezala.

Konfesio onaren prestaera da Bederatziurren onetako gure lan andia. Bi gauza eskatzen ditu prestaera onek. Bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartzea, eta au egin diteke edo azkeneko konfesiotik, edo konfesio gaiztoak asi ziran denboratik: konfesio gaiztoak egin dituanak alabaña berritu bear ditu oek, eta ezin ongi berritu ditezke andik onera egindako bekatuak gogora ekartzen ez dirala. Bigarrena da, gure bekatuakin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea, egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekatuak ez egiteko asmo osoarekin; baña ez dira gure biotzak Jaunagana biurtzen bear bezala, fedearen argiarekin gogora ekartzen ezpadira damubide egokiren batzuek. Bi gauz oek itz

gutxian adirazi zituan Jeremiasek esan zuanean: Begira degiegun gure bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, ta biur gaitezen beragana: *Et quaeramus, et revertamur ad Dominum*. Onetarako azkeneko bi aldietan examina egin genduan Jaunaren legeko bostgarren Aginte, edo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean: eta ondoren itzegin genduan illondoko kontu-ematearen gañean. Gaurko examina izango da Jaunaren legeko seigarren, eta bederatzigarren Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Urrena itz egingo det munduaren azkenkontuetako egun andiaren gañean, eta ukituko det, noiz, ta zertako izango dan egun andi au, eta zer siñale aurretik ekusiko diran. Enzun Kristaua, arreta andiarekin.

§ I.

Begira degiegun gure bide, eta ibillerai, esaten digu Jeremiasek: *Scrutemur vias nostras*. Eskatu degiogun onetarako Espiritu Santuari bere lagunza, esaten diogula.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emaillea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza, oen gañean damutzeko, eta aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegiteko, eta konfesatzeko. Zoaz orain, Kristaua, Jaunaren legeko seigarren, eta bederatzigarren Mandamentura.

1. Jaunaren legeko, seigarren Mandamentuak dio: *Aragizko bekatuak ez egitea*. Izan dira, eta badira hereje batzuek, ezkonduakiko bekatua bakarrik debekatua izatea, nai lukeenak: baña gure siniste, edo fedea erakusten digu, debekatuak dirala ezkonzaz osterontzeko atsegin lotsagarriak. Izan dira, eta badira uste duenak, gogo, eta biotzean, kanpora agertu gabe, igarotzen diran gura gaiztoak ezertan ez daukeenak, oen artean Juduak, eta hereje batzuek; baña barrunbeto bekatu oek debekatu dituzte bederatzigarren Mandamentuak dionean: *Besteren emazterik ez kutiziatzea*. Mandamentu onek argiro ez du izendatzen besteren emazteaganako gura txarrak baizik, baña fedeko gauza da, debekatuak dirala garbitasunaren kontrako gura guziak, eta egia au ukatzea izango lizake herejia. Begira bada, Kristaua, nola, eta zenbat bider utsegin dezun bi Mandamentu oen kontra.

2. Begira izan ote dezun garbitasun, edo kastidarearen kontrako gogorazioai, oartu ezker, leku emateko. Oartzen zeranean, bereala alegiña egiten badezu, gogoaz gauz onetara aldatzeko, Jaunagana biotza altxatzeko, edo Birjiña txit Santari erregutzeko, ez dezu bekaturik batere, asma al ditezkean gogoraziorik itsusienak inguratuko bazindue ere. Baña kentzeko alegiña egin bearrean, poztutzen, goixatzen bazaude, edo deseaten badezu, gogorazio gaistoak animaren begien aurrean ipintzen dizuna, orduan bekatu egiten dezu.

3. Begira, len gertatutako bekaturen bat gogora etorrita, egon ote zeran zeregan poztutzen zerala? Zenbat bider?

4. Begira, len egindako bekaturen bat gogoan daukazula, egon ote zeran atsegin artzen, orduan bertan gaiztakeri artan bazenbiltza bezala? Zenbat bider?

5. Begira, urlia, edo sandia gogora ekarririk, zeregan igaro dezun arekin bekaturen bat egiteko naya, esaten dezula zeregan: ark nai balu, aserratuko ezpaz? edo bestela: bidea emango balit, beartuko banindu?

6. Begira, gogorazio gaiztoak, eta bearbada ondoren gorputzaren suak etorririk, oartu ezker, egon ote

zeran zabarturik, edo aek ayenatzeko arretarik ipiñi gabe? Zenbat bider? Diot oartu ezker, zeren oartu zaitezen bitartean ez dago bekaturik.

7. Begira gaizki bizitu ziñan denbora artan sarritan joaten ziñan festara, eztayetara, auzerrietara, edo neskatxak, eta mutillak biltzen ziran lekuetara, eta zenbat ekusten zinduan, beste ainbesterekin atsegin gaiztoetan ibilli-naya etorri oi zitzun? Onelakoakin gertatzen da, denda eder bat ekusten dabillenari gertatu oi zayona, edo ekusten dituan gauz eder guzien zalea etortzea.

8. Begira, urliarekin, edo sandiarekin egon ote zeran, dakizula, arekin egotea bakarrik zuretzat dala gogorazio gaiztoai leku emateko perill andia?

9. Begira, zure begiak erabilli ote dituzun, bekaturako bidea dakarten, gauzak ekusten, dala bakarrik zaudenean, dala zere senide, edo beste lagunakin? Zenbat bider mutillakin, eta zenbat bider neskatxakin?

10. Begira, gazte apainduai berariaz, eta luzaro begiratzen egon zeran? Era onetan lilluraturik, eta txoraturik dagoana, perill andian jartzen da gogorazio gaiztoai leku emateko. Orregatik esaten digu Espiritu Santuak: *Emakume apainduagandik ken begiak: Aver-*

te faciem tuam a muliere compta (Eccli. 9). Eta gizonezkoentzat Espiritu Santuak emen diona, aditu bear da emakumeentzat ere, zeren aua zabaldurik mutill apinduai begira badaude luzaro, bekaturako perill andian arkitzen diran. Ala gertatu zitzayon Ebari gaitzarekin-onaren jakiundeko arbolari begiratuaz.

11. Begira, zelatan ibilli ote zeran, ekusi bear ez lirakean gauzak ekusi nayer? Zenbat bider? Badira gizonezko batzuek añ marisak, eta guzia ekusi nai duenak, non zelatatzen dituen emakumeak, jantzi-tzen, eta erantzitzen diranean, gobada jotzera dijoazenean, eta arbola gañetan dabiltzanean. Ez da gutxiago gertatuko emakumeakin.

12. Begira, abereak elkarganatuak dabiltzanean, premia gabe egon ote zeran begiratzen, gogorazio gaiztoai leku emateko perillean? Zenbat bider? Gura-soak, ez ditzatzuela bidaldu gazteak onelako perilletara.

13. Begira, izan ote dezun ipui zikiñak, batezere gazteen aurrean esateko oitura? Zenbat urtean? astean, edo illean zenbat bider? Badira zar batzuek, gazteai gaiztakeria erakusteko maisu andiak, Satana-sek bere ordekotzat errietan ipiñirik dauzkanak. Oek beren ipuyakin idikitzen diezteza gazte zoroai begiak

gaitzerako, eta emendik jayotzen dira nortaki zenbat bekatu. Onelako zar madarikatuak egon bearrak dira infernuaren beenean, Luziferren sufrezko ainzira erazekian.

14. Begira, izan ote dezun batari, eta besteari bekaturako bidea emateko oitura, zertan dagoan jakiteko? Jauna ez nuan gauza gaiztoa egiteko asmorik, baizik jakin nai nuan bastearen gogoko berri. Ah madarikatua! eta ez dezu ekusten, au dala lagun urkoari animako puzoya ematea?

15. Begira, urila, edo sandiari bekaturako bidea eman ote diozun, ez argiro, eta itz lotsagarriakin, baizik gañetik ederki txurituakin, aditzera ematen diozula zure gogo gaiztoa? Onelako itz gañ-txurituak kalte geyago egiten due aziera ona duenen artean.

16. Begira, zere burua laudatu ote dezun lagun artean, esaten dituzula onekin, edo arekin egindako bekatuak? Onelakoak gutxienez egiten ditu iru bekatu: lenengoa, zeren poztutzen dan gauza gaiztoaz. Bigarrena, zeren lagunai erakusten dien bekaturako bidea. Irugarrena, zeren galtzen duan lagun urkoaren izen, edo fama. Ark uste du, ixilik dagoala zurekin gertatua, eta zuk anima galeraztea gutxi baliz bezala,

kentzen diozu bere onra. Noiz, edo nola kalte oek desegingo dituzu?

17. Begira izan ote dezun aragizko izenak esateko oitura? Zenbat denboran? astean edo illean zenbat bider? Bada zapo-mota bat dabillen lekuan lerrearekin puzoya uzten duana. Ala dira onelako oitura itsusia duenak, beren puzoya zabaltzen due etxeetan, bideetan, soroetan, eta alde guzietan. Españako Errege Felipe bigarrenak agindu zuan, etzezala iñork ere esan, ez kantatu itz desonestorik, ez gauaz, ez egunaz kale, plaza, eta bideetan: eta aginte au autsitzen zuanari eman zegizkiola eun azote, eta bota zedilla erri-tik. Lege onek agintzen duana egingo baliz, ez lirake izango diran adiña au urde. Begira gurasoak gai onetan: ez etxean artu oitura au duan langillerik: eta ez iduki morroi, eta neskame itz zikiñak esaten dituanik.

18. Begira, egon ote zeran itz loi desonestoak aditzen, aldegin zentzakeala, eta ezin aldegin bazentzakean, kopeta beltz ipiñi dezun? Au egin bearrean, farraz bazaude esaten diran gauz itsusiak aditzen, Begira daudenak usteko due, agradatzen zaitzula itzegite aek.

19. Begira izan ote dezun batarekin, eta bestearekin musuka, eta laztanga ibiltzeko griña txarra, ala

ezkonduakin, nola ezkongayakin? Zenbat denboran, eta asteen, edo illean zenbat bider?

20. Begira, orrelako ibillerak izan diran mutillen edo neskatxan artean, esan nai det mutillak mutillakin, eta neskatxak neskatxakin?

21. Begira, izan dezun oitura keñada itsusiak egiteko? Zenbat denboran, eta illean zenbat bider? ala ezkonduai, nola ezkongai?

22. Begira, izan ote dezun ukitze itsusiak egiteko, dala zere buruarekin, dala besterekin, mutillak mutillakin, eta neskatxak neskatxakin? edo abereakin? Asko da: bada ez ditut ukitu nai gañerako gauza nazkagarriak. Goazen oraiñ munduaren azken-kontueta-ko egun andiaren gañean zerbait esatera.

§ II.

Gizonak, iltzen dan unean bertan, ematen ditu bere bizitza guziko kontuak, eta au da *bakoitzaren juzioa*. Onen gañean itzegin nuan azkeneko aldian. Baña etorriko da beste egun andi bat, zeñean Aingeruak, eta gizon guziak leku batera bilduko diran, mundu guziaren aurrean kontuak ematera. Au da

munduaren azken-kontuen egun andia. Gure siniste, edo fedeak Kredoan erakusten digun egia da au, eta Katoliko guziok sinisten degu, diogunean: *Andik etorriko da biziak, eta illak juzgatzera*. Oraiñ begiraldi bat eman bear diegu egun andi oni dagozkan gauzai, batzuei bederik, eta len esan dedan eran, ukituko det: *Noiz, eta zertako izango dan egun andi ura, eta zer siñale aurretik ekusiko diran*. Asi gaitezen.

Gure Salbatzalle Jesus maitagarriak itzegin zien Apostoluai munduaren azkeneko egun andiaren gañean: eta S. Pedrok, Santiagok, S. Juan eta S. Andresek galdetu zioen, noiz gertatuko ziran esan zituan gauz aek? Eranzun zien: zeñ egun, eta zer orduz gertatuko ziran, etziakiala iñork ez eta Zeruko Aingeruak ere (Marc. 13) Beraz badakigu, Kristaua, etorriko dala Jaunaren egun andi ura, baña ez dakigu, noiz izango dan.

Baña zertako da egun andi au, baldin gizonak illondoan bereala ematen baditu bere bizitza guziko kontuak? Asko gauzatarako. Lenengo lekuan, ekusi dedin, nolako jakiundearekin gobernatu duan Jaunak mundua. Ekusten ditugu munduan gauz oker asko. Ekusten ditugu batzuetan onak neke, eta naigabe andien azpian, eta gaiztoak eraz, eta onra andien

artean bizi dirala. Ekusten degu, Katolikoek errietan ugari erziten dala Jaunaren Itzaren azia, eta geyena, edo erretzen ez dala, edo arantzen azpian, edo oñpean galtzen dala: eta denbora berean ekusten degu, munduaren alde asko, daudela gure lege Santaren argitasun gabe: eta arriturik diogu, Nola gertatzen dira gauza oek? Egun andi artan bada Jesusek mundu guziari begien aurrean ipiñiko dio, zeñ era miragarrian gobernatu duan mundua: eta nondik, eta nola datozen ekusten diran gauz okerrak. Orduan munduko jakintsuak geratuko dira zer esan ez duela.

Egun andi ura izango da bigarren lekuan, eman dakion Jesus Jaungoiko gizonari Aingeru, eta gizonen aurrean, zor zayon, eta ainbeste bider ukatu zayon, onra. Munduaren asieratik ari da Luzifer bere lagunakin Jesu-Kristori onra kentzen, Juduak etzuen ezagutu nai izan beren Salbatzalletzat: eta illerazo zuen gurtzean. Herejeak ere ez due onratu nai izan. Baña egun andi artan Luziferrek, eta Aingeru gaiztoak ere nai, ta naye ezagutuko due Jaungoiko, eta gizon egiazkottzat, eta gurtuko zaizka, edo adoratuko due belaunikaturik, S. Pablok dion bezala (Ad Philip. 2). Juduak ekusiko due, nola datorren Zerutik gurutze eder bat aurretik duala: asiko dira negarrez, eta adiaz, eta ado-

ratuko due munduaren Salbatzalea bezala, eta au bera gertatuko da hereje, eta gaiztoakin ere: mutuen eran egongo dira guziak, dio Dabidek: *Omnis iniquitas oppilabit os suum* (Psalm. 106).

Egun andi ura izango da irugarren lekuan, mundu guziaren aurrean onratuak izan ditezen onak, eta lotsaz beteak gaiztoak. Onen artean asko dira, lagun urkoak Zerurako bidean ipiñi dituenak, dala beren bizitza onarekin, dala erakutsiaz jakin bear ditugun gauzak. Oen artean Apostoluak, beste Elizako Maisu, eta animen onerako nekatzen diranak. Oek erein zuen azi ona, eta il ziran, onen erroak noraño zabaldu diran ekusi gabe. Gaiztoak, beren animak galtzea gutxi baliz bezala, ari dira lagun urkoenak bekatuan amildezten, eta Jesu-Kristoren erreñua gutxitzen. Oek ereiten due azi gaiztoa, eta iltzen dira, norañoko kalteak etorriko diran jakin gabe. Ill ziran Lutero, eta Kalbino: oen herejiak badirau Alemanian, Franzian, Inglaterran, eta beste toki askotan, eta eztaki iñork zenbat milloi anima galdu, eta zenbat galduko diran bi hereje oek-gatik. Au bera gertatzen da guraso zabarren bekatuakin: au bera errietan alperkeria, janzian, itzegitean, gizon, eta emakumeen artean modu ez garbiak zabalitzen dituenakin: iltzen dira, egin dituen kalteak ongi

ezagutu gabe. Baña azken-kontuen egun ikaragarri artan guzia agertuko da mundu guziaren aurrean. Ekusiko dira onen neke, eta obra onak. Ekusiko dira, lagun urkoai Zerurako bidea erakusteko egin zituen alegiñak, eta oen aldean ipiñiko ditu Jesu-Kristok oek gatik Zerura ziran anima guziak. Orra, nola onratuak izango diran onak. Alai zaitezte bada Jesusen lege ederra gordetzen, eta erakusten dezuen anima onak. Baña gaiztoak, eta beren itzegite, eta modu itsusiakin animak galtzen bizi diranak, oek mundu guziaren aurrean izango dira lotsaz, eta desonraz beteak. Agertuko dira lagun urkoak bekatura kuturtzeko prestatu zituen bixkak: agertuko dira deadarka oek gatik bekatua ikasi, eta betiko galdu ziran animak, eta guziak ipiñiko ditu Jesu-Kristok gaizto anima-galgarrien aldean. !Zer desonra ez da au izango oentzat!

Azkenean Jaunaren egun andi ura izango da gorputzak ere izan dezeen beren saria. Gizonak, iltzen danean, uzten du gorputza aurrean arren bazka izateko: eta badijoa anima irabazi duan tokira. Gorputza animaren lagun izan zan ala obra onetan, nola gaiztoetan, eta beragatik eman nai die Jaunak egun andi artan beren saria. Piztuko dira, eta betiraunde, edo betikotasun guzian izango dira animen lagunak. Doa-

tsu, ta zori onekoak ongi bizitu baziran; baña betiko doakabeak bizitza gaiztoari jarraitu bazioen. Aditzen dezu, Kristaua, zertako dan munduaren azken-kontuetako egun andia?

Baña zer siñale ekusiko ote dira aurretik? Siñale oek asko dira; batzuek urrutikoak, besteak aldekoak, eta oek ukituko ditut oraiñ. Siñale bata da erreñuak erreñuen kontra altxatzea, gerra, gosea, ta izurria. Siñale au esana utzi zigun Jesu-Kristok berak. (Math. 24); baña urrutikora da.

Bigarren siñalea: geitu, edo ugarituko da gaiztake-ria: eta zabartuko dira animen zai, eta kargudunak. Siñale au ere aditzera eman zuan Jesu-Kristok (Math. 24), eta urrutikoa da; bestela esan gentzake bereala bukatuko dala mundua; bada leku askotatik datozen berriak egiak badira, bekatuen ujaldeak zabalduaz dijoaz bazter, edo alde guzietara.

Irugarren siñalea, munduaren lau alde, eta erreñu guzietan aditzera emango da Jesu-Kristoren legea. Ala esaten digu Jesu-Kristok (Math. 24). Badira leku asko, non bizi diran, nortaki zenbat, Jesusen berri gabe. Onelako asko arkitzen dira Amerikan.

Laugarren siñalea: askok aldegingo due Eliz Ama Santagandik, eta bizi naiko due beren gura gaiztoak

nai duena egiten. Siñale au aditzera ematen digu S. Pablok: *Veniet discessio primum* (2.^a ad Thesal. c. 2, et 3). Eztakigu siñale au igaro zan, edo ez; baña bada-kigu, erreñu askok utzi duela beren Ama ona, edo Eliza. Zergatik? Zeren ama onek erakusten duan Zeru-rako bidea gure griña txarrak nai lukeen baño estua-goia dan. Ay! eta zer izango ote da guzaz?

Bostgarren siñalea: gauza guziak beren moduan aserratu, eta altxako dira gaiztoen kontra, asperturik oekin bizitzez. Illunduko da Eguzkia: odolez betea bezala agertuko da illargia, eta galduko due izarrak beren ibillera ederra. Asiko da itsasoa orroaz, Iturri, eta ibaietako urak zikinduko dira alako eran, non osa-sunaren galgarri biurtuko diran. Asaldatuko da aizea: ekingo die bekatariak turmoi, tximista, eta arri izuga-riekin: lurrera botako ditu arbolak, etxeak, torreak. Lurra, bekatariak bere gañean idukitzez nekatua bale-go bezala, asiko da dardaraka: askatuko du zenbait lekutan, eta irintsiko ditu mendi eta erriak. Zulo aeta-ko batetik irtengo da kea, eta arrabioen talde ikaraga-ri bat, eta oek ekingo dieza bekatariak beren ezten zorrotzakin (Luc. 21 et Apoc. 9). Erkituak eta gizonen anzik gabe ibilliko dira bekatariak, Jesu-Kristok berak aditzera ematen digun bezala: *Arescentibus homini-*

bus prae timore. Begiratuko dio auzoak auzoari, senarrak emazteari, senideak senideari, eta arrituen eran geratuko dira, elkarren aurpegi illun, eta igartuak ekustean.

Seigarren siñalea: agertuko da Ante-Kristoa. Au S. Pablok dionez, izango da bekatuaren umea: *Homo peccati* (2.^a ad Thesol. c. 2): berekin izango du Luzifer, eta egingo dio Eliz Ama Santari, edo Katoliko guziaz gerra txit izugarria. Egingo ditu mirari, edo milagroen iduria duen gauz asko. Arkituko ditu nai dituan ondatsunak lurpean, eta itsasoaren ondoan: eta oekin engañatu, eta bereganatuko ditu asko. Altxako da Jaungoikoaren kontra: kenduko ditu Sakramentuak, eta Meza Santa. Zer geyago? S. Pablok dio, eseriko dala Jaunaren Elizan, eta Jaungoikotzat erakutsiko duala bere burua: *Ostendens se tanquam sit Deus* (2.^a ad Thes. 2.^o). Asko izango dira gurtuko zaizkanak, edo Jaungoikoa bezala adoratuko duenak, eta onak ekusiko dira estura izugarrietan: batzuek ezkutatuko dira basoetan, besteak lurpeko zuloetan, eta guzia izango da negarra, adia, eta perilla.

Zazpigarren siñalea: agertuko dira Henok eta Elias: Ante-Kristoaren, eta oen etorrerak aditzera emango du, ez dala arkitzen urruti azkeneko egun

andia. Henok da munduaren lenengo denboretan bizi-tu zan Patriarka birtutetsu bat, eta Elizako gurasorik geyenak dioenez, Jaunak ezkutatu zuan gizonen arte-tik artean bizi zala, eta gorderik dauka azkeneko den-bora estu aetarako. Au bera egin zuan Jaunak Elias Profetarekin ere (Eccli 44, et 4 Reg. c. 2). Bi gizon andi oek bada etorriko dira munduaren bukaeraren aurre-tik: aditzera emango due, nor dan Ante-Kristoa, eta nola bere losentxa, eta gezurrakin galdu nai dituan animak. Kenduko die bizia Henok, eta Eliasi, eta oen gorputzak iru egun, eta erdian obiragabe egongo dira Jerusalengo plazan, eta denbora onen buruan piztuko dira. Ala esaten digu S. Juanek (Apoc. 11).

Zortzigarren siñalea: Juduak ekusirik Henok eta Elias, eta aditurik oek erakutsiko duena, ezagutuko due, Jesus zala munduaren Salbatzallea, eta biurtuko dira beragana. Ala esana utzi zuan Jesu-Kristok berak (Math. 17).

Bederatzigarren siñalea: gauz oek onela gertatuta ere, ez dira zentzatuko gaiztoak: batzuek usteko due, siñale oek ez duela adirazten, munduaren bukaera, besteak siñale urrutikoak dirala. Izango ditu munduak bere argi-uneak, eta S. Pedrok dionez, gaiztoak galde-tuko due: *Non da ainbeste bider esan diguen Jaunaren*

etorrera (2.^a Petri c. 3). Onela bekatariak zabartuak daudela, bat batetan agertuko da azkeneko siñalea, edo suzko ibai bat alde guzietara zabalduaz joango dana. Ala aditzera ematen digue Isayasek, Dabidek, eta S. Pedrok. Orduan bekatariak asiko dira suaren igesi: batzuek sartuko dira torre, eta gazteluetan; besteak igoko dira mendi-gañetara: baña alperrik: zeren toki guzietara zabalduko dan su ura, len ujaldeak Noeren denboran zabaldu ziran bezala. Autz biurtuko ditu gizon, eta emakume guziak, ala gaiztoak, nola onak. Gaiztoak neke, eta oñaze andiak igaroko ditue; baña onak edo ez due nekerik izango, edo beren bekatuen zorrak ateratzeko diña bakarrik. Autz biurtuko ditu erriak, etxeak, jauregiak. Autz biurtuko ditu basoak, ardiak, bei ta abere guziak. Autz biurtuko ditu urre, ziliar, perla, ta diamanteak. Erreko dira, dio S. Pedrok, lurra, eta lurreko gauza guziak (2.^a Petri c. 3).

Aditzen dezu, Kristaua, noiz, eta zertako izango dan munduaren azken-kontuen egun andia? Aditzen dezu, zer siñale aurretik ekusiko diran? Sinisten au guzia, eta alaere gure gogo, eta biotzak ipintzen ditugu emengo gauzetan? Demagun, Jaunak eramaten zaituala munduaren autspilla ura ekusteko toki egoki batera. Begiratzen diozu alde guzietatik. Zer esango

dezu? Arriturik esango dezu: *Au da ainbeste amatu degun mundua*. Auta piska bat besterik ez izan emengo gauza guziak, eta oekgatik utzi nik nere Jaun eta Jaungoikoa? Oekgatik galdu betiko ondasunak? eta irabazi beti-betiko nekeak? Au esango zenduke noaski, munduaren autspillari begiraturik. Atozea oraiñ, Kristaua: eta orduan begiz ekusiko zendukean guzia ez dezu fedearen argiarekin ekusten gaur? Eta alaere etzera zere Jaun onagana biurtuko damuz, eta negarrez? Lenbait len egin dezagun au: bizi gaitezen beraren Lege Santak erakusten digun eran, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

BEDERATZIURREN ONEN ZORTZIGARREN EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

Scrutemur vias nostras &.

Birjiña txit Santa &. Lendabiziko Platikan bezala.

Konfesio onaren prestaera da Bederatziurren onetako gure egiteko andia. Bi gauza eskatzen ditu prestaera onak. Bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartzea, eta au egin diteke edo azkeneko konfesiotik, eto konfesio gaiztoak asi ziran denboratik: konfesio gaiztoak alabaña berritu bear dira, eta ezin au ongi egin diteke, andik oraindano egindako bekatuak gogora ekartzen ezpadira. Konfesio onaren prestaerak eskatzen duan bigarren gauza da, gure bekatuakin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekatuak ez egiteko asmo osoarekin; baña ez dira gure biotzak Jaunagana bear dan eran biurtzen, fedearen argiarekin gogora ekartzen ezpadira damu-

bide egokiren batzuek. Bi gauz oek itz gutxian aditzera eman zituan Jeremiasek, esan zuanean: Begira degiegun gure bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna: eta biur gaitezen beragana: *Et guaerainus, et revertamur ad Dominum*. Onetarako azkeneko aldian examina izan zan Jaunaren legeko seigarren, eta bederatzigarren Aginte, edo Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean: eta ondoren itzegin nuan munduaren azken-kontuen egun andiaren gañean, eta ukitu nuan, noiz, eta zertako izango dan egun andi ura, eta zer siñale aurretik eku-siko diran. Gaurko examina izango da *Jaunaren legeko zazpigarren, eta amargarren Mandamentuen kontrako bekatuen gañean*: Urrena begiratuko degu al degun ongiena, zeñ izugarria izango dan bekatariarenzat azkeneko egun andi ura. Enzun, Kristaua arreta andiarekin.

§ I.

Begira degiegun gure bide; eta ibillerai, esaten digu Jeremiasek: *Scrutemur vias nostras*. Eskatu

degiogun onetarako Espiritu Santuari bere lagunza, esaten diogula.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emaillea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza, oen damu egiazkoa sortzeko, eta aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta konfesatze-ko. Zoaz oraiñ, Kristaua, Jaunaren legeko zazpigarren, eta amargarren Aginte, edo Mandamentura.

1. Zazpigarren mandamentuak dio era onetan *Ez ostutzea*: amargarrenak: *Besteren ondasunik* ez kutiziatzea: eta oen kontra utsegin diteke gogoz, itzez, eta obraz. Begira bada nola, eta zenbat bider utsegin dezun.

2. Begira, iñoiz egin dezun zerbait ostutzeko asmoa? zenbat bider? eta zer gauza zan ostu nai zenduana? Jauna, egia da, egin nuala beñ onelako gauza ostutzeko asmoa, baña ez nuan ostu, zeren erarik etzan. Egin zenduan gogoz, edo pensamentuz bekatu, eta gaya larria bazan, bekatua ere larria zan. Gertatu zitzatzun zuri azeriari matsakin gertatu omen zitzayona. Ekusi zituan azariak etxe baten kontra mats txit eder, eta sasoyean zeudenak: sayatu zan igotzera,

baña alperrik, eta aldegin zuan, esaten zuala: *eldu, edo ondu gabeak daude*.

3. Begira, besteren gauza kutiziatu ote dezun? Jauna, ekusirik lagun urkoaren gauza bat, arentxe zalea etorri zitzatan. Atozea, eta ostutzeko asmorik egin zenduan? Ez, Jauna: edo bide gaiztoz nai ote zenduan gauz ura? Ez Jauna. Ori orrela bada, etzenduan bekaturik egin;bederatzigarren Mandamentuak alabaña debekatzen du besteren gauza nai izatea bide gaiztoz.

4. Begira, zure biotza emengo ondasun, eta irabaziazai itsatsia ote dagoan? ondasunak nai izatea batek, bere premiak estaltzeko, eta bere mallan ongi bizitzeko, ez da bekatu. Gañera; emengo ondasunetara pis-kabat etziña, edo makurtua egotea, izango da *bekatu beniala*, Jaunaren aginteren bat autsitzeko perillik ez danean. Atzenean, ainbesteraño makurtua egon ditek bat emengo ondasun, eta irabazietara, non oen egarriarekin perill andian jartzen dan Mandamenturen bat autsitzeko, eta orduan kutizi au bekatu larri, edo mortala da, dotrinak itz gutxian erakusten digun bezala. Bekatu larri onetan bizi oi dira igoal, edo tratu itsusiak egiten dituenak, gauza saltze, eta erostean tranpa darabiltenak, gauza garestiago saltzeagatik jura-

mentu gezurrezkoak egiten dituenak. Orregatik S. Pablok dio: gaitz guzien sustraya dala kutizia: *Radix omnium malorum est cupiditas* (1^a ad Tim. 6.^o). Emendik atera dezakegu, emengo gauzak ez ditugula nai izan bear ansiaz, baizik Zerurako lagundu deza-keen neurrian.

5. Begira, beartsua, edo pobrea zerala aitzakitizat arturik, izan dezun lapurretak egiteko oitura? Emendik gari-balak, andik artoburuak; emendik olloak, atorrak, alkandorak, maindereak; andik arimatazak, ardi zarrak, arkumeak? Zenbat denboran orrela bizitu zera? Bitarte onetan egin dituzun Konfesioak gaiztoak izan dira, eta aurrera ere izango dira: utzi nai ezpadezu oitura itsusi ori. Jauna, eta zer nai du nik egitea, ezpadet zerekin bizi? Egizu, al dezunean lana, eta lanerako gauza ezpazera, eska ezazu Jaunaren ize- nean. Ez dago desonrarik onetan, baña bai alperke- rian, lapurretan, eta bizitza gaiztoan.

6. Begira, gurasoari ostu diozun artoa, garia, edo dirua zere gurarietarako? Jauna, eskatzen diet, eta nere ustean ez asko, ez eta guauza gaiztoetarako ere, baizik lagun onakin jai egunetan jolasteko; baña ezer eman nai ezdue. Zer nai du, dagidan nik? Gurasoak! etzaitetzela izan zeren ume aziakin añ zekenak; bes-

tela ikasiko due ikasi bear ez lukeena. Etzate geyegirik eman bear, baña bai beren mallan bear duena, emateko era danean.

7. Begira, nagusi edo etxeakoandreari ostu diozun ezer? zer, eta zenbat bider?

8. Begira, etxeako seme, edo alabaren estalkin izan zeran, artoa, garia, edo beste gauzaren bat etxetik ostutzeko? zenbar bider?

9. Begira, zure nagusi, edo etxeakoandreari zerbait ostu diozun, zeregan esaten dezula, *nere nekeak balio du au ezezik geyago ere*. Gaizki egin dezu, eta besterik esatea debekatu zuan Aita Santu Inozenzio amai-kagarrenak (prop. 37). Jauna, etxe artara joan ninzanean, ez genduan siñalatu soldata. Atozea, eta ez dizue eman zure mallakoi eman oi zatena? Bai, Jauna. Beraz ez dezu geyago eskatzeko biderik, eta biurtu bear dezu ostu dezuna. Jauna: *ordea nik beste nere modukoak baño lan geyago, eta obeto egiten det*. Demagun egia dala ori: alaere aitzaki orrekin ezin ezer ostu dezakezu: bearbada zure nagusiak esango du, zuri soldata gutxiago eman bear litzakezula, zeren aren etxean era geyagorekin izan zeran: eta nolanai au izan bedi, soldata ori gutxi dala baderitzatzu, billa

ezazu beste etxe bat, eta gauzak ongi, edo argiro erabakirik gera zaite, geratu nai badezu.

10. Begira, urliari, eda sandiari erosi ote diozun artoa, edo garia, dakizula isilik ostutzen duala etxetik, edo besteren sorotik. Jakizu, ura, eta zu beartuak zautela jabeari eranzutera beste ainbesterekin. Jauna, urlia ura da guraso zar bat, ez ondatzalea, baizik zintzoa; eta etxeko pakeagatik ez du eskatzen bere premiak estaltzeko bear duana, baizik baliatzen da gari, eta arto piska batez. Zer nai du nik egitea? Zer? Zaude zure konfesorearekin. Au bera gerta diteke asko emazterekin: gizonak ez du arretarik etxean bear dana ipintzeko: eta zerekin izan arren, añ zekena da, non eman nai ez, duan etxean bear danerako ezer, zer egin al dezake onelako emakumeak?

11. Begira, izan ote zeran lapurren estaltzalle? Gerraren aitzakiarekin asko oitu omen dira al duena ostutzera, eta arkitzen ditue estaltzalleak.

12. Begira, lagun urkoaren ardi, bildots, edo beste gauzaren bati atzaparra egotzi diozun, esaten dezula zeregan: *onenbeste, edo geyago ostu zigun gauz oen jabeak*. Gaizki egin dezu, eta gauza biurtu bear diozu bere jabeari. Ezpadakizu osotoro, zuri ark orrenbeste ostu, dizun, edo ez? Ezpadakizu, ezer artu dizun, edo

ez, nola orrelako gauzak egiten dituzu? Ala baliz ere, lenago galdetu bear zeñion konfesore, edo gauz oetan aditzen zayonen bati.

13. Begira, bizi lagunaren ollo, edo arraultzak ostu dituzun, esaten dezula zeregan: gure olloen kabitik oek baño geyago eramaten ditue: *eta olloak erdira biurtu dira, nork eramango zituan, urliak baizik?* Gaizki egin dezu, eta biurtu bearra zera ostu dezuna.

14. Begira, edaria saltzean egin dezun tranparen bat, dala neurrian, dala urarekin nastutzen dezula? Au bera galdetu diteke, saltzen diran, beste gauza guziaz.

15. Begira, jokoan egin dezun tranparik? Asko da au gazteentzat. Zarrak izan lezakee zeri begiratu beste gauz askotan, eta nola au egin bear duen era-kutsiko die konfesoreak. Begira dezagun oraiñ, zeñ izugarria izango dan bekatarientzat azkeneko egun andia.

§ II.

Mundu au, eta emengo gauza guziak auts biurtuko dira, azkeneko aldian aditu zenduan bezala.

Orduan izango da Jaunaren egun andia. Jatxiko da Zerutik Aingeru bat: tronpeta batekin deituko die Adanen ume guziai, eta Adan, eta Ebari ere bai. Deituko die Aingeruai ere, datozela kontuak ematera. Aingeruaren ots, edo dei au añ bizi, ta indartsua izango da, non adituko dan munduaren lau aldeetan.

Adituko da Zeruan, eta poztuko dira doatsuak. Munduaren asieratik:izan, eta izango diran anima on guziak jatxiko dira lurrera beren gorputzen billa, eta arkituko ditue ederki prestatuak. Nork esan, Kristaua, zure animak orduan artuko duan atsegin, eta poza, dakusanean bere gorputza, baldiñ oraiñ ukatzen badiozkatzu bere gura txarrak, eta eragiten badiozkatzu Jesusek erakusten dizkigun obra onak? O nere gorputza! esango diozu bearbada: denbora batean nekatu ziñan begiai, belarriai, mingañari esku, eta oñai beren naikunza gaiztoak ukatu niezten aldietan. Nekatutu ziñan etxe, eta lagun gaiztoetara joatea eragotzi nizunean. Nekatutu ziñan prestaera ederrarekin Sakramentuak artzean. Nekatutu ziñan lagun gaiztoen isekak eramatean. Altxa zaite: *Surge, amica mea*: igaro zan neke, eta naigabeen negu gogorra: *jam hiemns transijt*: etorri da betiko atsegin, eta pozaren udaberria (Cant. 2). Sartuko da anima doatsua bere gorputzean,

eta bereala piztuko da au, beñere ez iltzeko. Piztuko da tatxarik gabe, eta S. Agustinek dionez, gaztetasunean izan, edo izango zuan sasoirik ederrenean. Gutxi da au: anima doatsuak apainduko du bere gorputza doatasunak berekin dakartzian doai miragarriakin, eta eguzkiaren eran argi egino du. Ala esaten digu S. Mateok: *Fulgebunt sicut Sol* (c. 13).

Aingeruaren otsa, Zeruan ezezik, infernuan ere adituko da, eta izaturik geratuko dira doakabe guziak. Nayago izango lukee an bertan oñazez lertzen egon, ezen ez Jesu-Kristoren aurrean agertzea; baña nai, ta naiez, agertu bearrak izango dira. Irtengo da Luzifer bere lagun gaiztoakin. Irtengo dira Lutero, Kalbino, eta herejiaren erakusle guziak, galdu zituen animen taldeakin. Irtengo dira ezkontzeko itzaren bixkarekin gazte zoroak bekatuan amilderazo zituen mutil desonestoak. Irtengo dira neskatz ergel bekatuako sareak prestatzen zituenak. Irtengo dira erriari, edo lagun urkoari zor zioena biurtu gabe bizitu ziranak. Sartu da doakabe oetako bakoitzaren anima bere gorputzean, berun urtua moldean sartuko baliz bezala, eta pizturik geratuko da doakabe bakoitza; baña piztuera au gorputzarentzat izango da betiko neke, eta oñazeen asiera. Añ itsusi, ta nazkagarria geratuko da, non ezin

mingañak aditzera eman lezakean, Santa Katalina Senakoak, eta beste askok aditzera ematen diguenez. Nolako madarikazioak botako diozka animak gorputzari?

Era onetan onak, eta gaiztoak bilduko dira Aingeruaren otsera Josafat deritzan ibarrean. Agertuko da Jesu-Kristoren estandarte (Math. 24), edo gurutze guziz eder bat. Ekusirik siñale au, oroituko dira Juduak, nola gurutzean illerazo zuen Jesus munduaren Salbatzalea. Oroituko dira beste bekatariak ere, nola beren alegiñean gurutzean berriro ipiñi zuen, S. Pablok dion bezala: eta asiko dira adiaka, eta negarez, dio S. Mateok: *Plangent omnes tribus terrae* (c. 24). Jatxiko da Jesus, berekin dakartziala bere Ama maitagarria, eta Aingeru guziak. Nork esan, eta nork ezagutu ere, norañokoa izango dan Birjiña txik Santaren, eta ainbeste milloi Aingeruren edertasuna? Eta zer izango da Jesus berarena? Eseriko da bere jarleku, edo tronuan: eseriko da berarenaldean Birjiña txit Santa, eta gero Aingeru, eta Apostoluak. Poztuko dira onak edertasun ura guzia ekustean; baña gaiztoak alde batetik naigabez, eta bestetik beldurrez erkituak egongo dira; irtengo da alabaña Jesusen aurpegitik gaiztoen alderonz aserrearen ibai bat bezala. Agindu-

ko die Jesusek bere Aingeruai, berezi ditzeela goaitz-
ak onen artetik, eta bereala egingo due aek Jesusen
agindua. Berezi ditue onak, eta ipiñiko ditue esku-
yetik, dio S. Mateok; baña gaiztoak ezkerretik. Berezi-
ko due senarra emazteagandik, senidea senideagan-
dik, eta auzoa auzoagandik. Ekusirik au, lotsatuko dira
gaiztoak, eta esango due: eskuyeko aldean dauden
oetatik batzuek dira guk denbora batean farra, ta
iseka egiten genienak: *Hi sunt, quos aliquando habui-
mus in derisum, et in similitudinem improperij*: orduan
txorotzat geduzkan, zeren utzi zituen ibillera, eta adis-
kidetasun gaiztoak, eta bizimodu onari jarraitzen
zioen; baña gu, gu izan gera zentzugabeak: *Nos insen-
sati*. (Sap. 5).

Bereziera onen ondoren asiko da Jesus itzegiten.
Aditzera, emango du mundu guziaren aurrean, nola
egin, eta doai ederrez bete zituan Aingeruak, eta nola
oetatik asko altxa ziran, Luzifer buru zuela Jaunaren
agintearen kontra, eta amildu ziran betiko su, eta
garren artean. Aditzera emango du, nola egin zuan
gizona Zerurako, eta galdu zan, arbola baten fruta
debekatua janaz, eta galdu ez bera bakarrik, baita
ondorengo guziak ere. Aditzera emango du, nola
Zerurako bidean gu ipintzeko, jatxi zan Zerutik, eta

egin zan gizon, eta erakutsirik itzez, eta obraz Zerura-ko bidea, gurutzean eman zuan bere bizitza. Aditzera emango du, nola gure onerako ipiñi zituan zazpi Sakramentu oen artean Komuniokoa, gurekin, eta gure artean bizitzeko, eta guri emateko bere gorputza, bere odola, eta bera dan guzia. Aditzera emango du atzenkan, zeñ neurri ederrak artu zituan munduaren gobernurako, eta nola gizonaren gaiztakeriak nayago izan zuan oek utzirik bere gura txarrai jarraitzea. Non dira, esan dezake Jesusek, non dira arako jakintsu arro nere kontra itzegiten zuen aek? Mututurik geratuko dira guziak, dio Dabidek: *Omnis iniquitas oppilabit os suum* (Psalm, 106). Orduan guziak nai, ta nai ez ezagutuko due Munduaren Salbatzalletzat: guziak, S. Paulok dion bezala, gurtuko zaizka, edo belaunikaturik adoratuko due, ez gizonak bakarrik, baita Luziferrek, eta bere lagunak ere: *Omne genu-flectatur Caelestium, terrestrium, et inferorum* (Ad Phip. 2º.)

Aditzera emanik nola gobernatu zuan mundua, guzien begien aurrean ipiñiko du bakoitzaren bizitza. Begiratuko die gure biotzetako zoko guziaz, etxe bateko bazterrai argiak begiratuko balitzate bezala. Ala esaten digu Sofoniasen autik: *Scrutabor Jerusalem in*

Lucernis (c. 1.^o). Begiratuko die obra onai, eta azal ederra izan arren, usteltzat emengo ditu asko, zeren bear dan eran egin etziran. Begiratuko die gure bekatu guziaz, eta agirian ipiñiko ditu duen itsustasun guziarekin. Alperrik konfesatu gabe gordetzen dituzu orrako, zere buruarekin, edo besterekin egin zinduan, bekatu itsusi oriek: alperrik ezkutatu nai dituzu lapurreta oriek, edo lagun urkoari, edo erriari egindako kalteak, agertuko ditu Jaunak egun artan mundu guziaren aurrean. Bai, dio Jaunak, agirian ipiñiko dituzure bekatu lotsagarriak: *Revelabo pudenda tua* (Nahum c. 3). Zer lotsa ez da zuretzat izango, mundu guziaren begietan bekatu oriek agertzea, ezpadezu oraiñ konfesio on bat egiten, eta bizimodu on bat artzen? Ez det ukatzen, agertuko dirala onen bekatuak ere, baña ez due orregatik lotsarik ekusiko, zeren geroko damu, eta negarrak, eta bizitzaren edertasunak estaliko duan leneko bekatuen itsustasuna. Ala gertatuko da S. Pedrorekin: eta Santa Maria Magdale-narekin.

Ekusirik guzien, eta bakoitzaren obra on, eta gaiztoak, emango dio Jesus onak bakoitzari dagokan saria. Itzuliko da onen alderonz. Begiratuko die aurpegi guziz alai, eta gozoarekin, eta esango die: Atozte nere

Aitareen bedekatuak, arrezazue munduaren asieratik zuentzat prestaturik dagoan, Zeruko erreñua: *Venite, benedicti Patris mei; posidete paratum vobis regnum a constitutione mundi* (Math 25). Asiko dira doatsuak goronz, eguzkiaren eran argi egiten duela. Zer edertasuna ez da izango doatsuen milloyak, eta milloyak onela Zerura igotzea, argi egiten duala bakoitzak esan dan bezala? Ekusiko due au ezkerreko aldean daudenak: *Pecator videbit*: eta naigabez erkitzen egongo dira: *et tabescet* (Psal. 111). Begiratuko die Jesusek, baña nolako aserrearekin? Oraiñ, esango die Ezekiel Profetak dionez; oraiñ bertatik bertara zuen gañean izango da, edo ixuriko det nere ira, eta aserrea: *Nunc de propinquo effundam iram mean* (c. 7). Zoazte nigandik, bada ez dituzue ezertan iduki nik zuentzat nere bizitzaren kostuz irabazi nituan, betiko ondasunak, eta ez dezue gorde nai izan nere legea: zoazte madarikatuak, betiko su, eta garren artera: *Discedite a me, maledicti, in ignem eternum* (Math. 25). Orduan itsatsiko dieza Demonioak: askatuko da lurra, eta ondatuko dira gaizto guziak, eta giltzatu bezala geratuko da infernua betiraunde guzirako. Onak igoko dira Zerura beren Errege Jesus maitagarriarekin batean.

Orra, nere Kristaua, zeñ izugarria izango dan bekatariarentzat munduaren azkeneko egun andi ura. Baña onarentzat? Onra andikoa. Au da onari bere neke, eta gurutzeak, eta emengo samintasunak arintzen diozkan egia: eta gerta dedilla edozeñ gauza, guzia biurtzen zayo bere on. Sinisten degu zuk, eta nik au guzia, nere Kristaua, eta ez gera bertatik gure Aita onagana biurtuko? Ea noizbait egin dezagun au, gerorako utzi gabe: ekin degiogun Zerurako bideari biotz osotik, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

BEDERATZIURREN ONEN AZKENEKO EGUNERAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

Scrutemur vias nostras &.

Birjiña txit Santa &. Lendabiziko Platikan bezala.

Konfesio onaren prestaera izan da bederatziurren onen gai guzia, eta gaur degu azkeneko eguna. Konfesio onaren prestaerak eskatzen ditu bi gauza. Bata da gure bekatuen examina, edo gogora ekartea, eta au egin diteke edo azkeneko konfesiotik, edo konfesio gaiztoak asi ziran denboratik; konfesio gaiztoak alabaña berritu bear dira, eta ezin au ongi egin diteke andik oraindano egindako bekatuak gogora alegiñean ekartzan ezpadira. Jauna, esan oi due batzuek, konfesatu nituan onelako, edo alako bekatu, zertako berriz gogora ekartzan eta berriro esaten ariko naiz? Zertako diozu? Barkazioa Jaunagandik iristeko; ez da alabaña au iristen konfesio onarekin baizik. Konfesio onaren prestaerak eskatzen duan bigarren gauza da, gure

bekatuakin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzak biurtzea egindako bekatuen damuarekin, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo osoarekin; baña ez dira gure biotzak Jaunagana bear dan eran biurtzen, fedearen argiarekin gogora ekartzen ezpadi-ra damubide egokiren batzuek. Bi gauz oek itz gutxian aditzera eman zituan Jeremias Profetak, esan zuanean: Begira degiegun gure bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitezen beragana: *Et quaeramus: et revertamur ad Dominum*. Onetarako azkeneko aldian examina izan zan Jaunaren legeko zazpigarren, eta amargarren aginte, edo Mandamentuen kontrako bekatuen gañean, eta ondoren, itzegin nuan munduaren azkenkontuetako egun andiaren gañean. Gaurko examina izango da Jaunaren legeko zortzigarren Mandamentuaren kontrako bekatuen gañean. Urrena ukituko ditut bekatariak bere ibillera, eta bizitza gaiztoarekin irabazten dituan betiko su, eta garrak, edo infernuko nekeak. Enzun arretaz, nere Kristaua.

§ I.

Begira degiegun gure bide, eta ibillerai, esaten digu Jeremiasek: *Scrutemur vias nostras*. Eskatu degiogun onetarako Espiritu Santuari bere lagunza, esaten diogula:

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emaillea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko; mugiezazu nere biotza, oen damu egiazkoa sortzeko, eta aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta konfesatzeko. Zoaz oraiñ, Kristaua, Jaunaren legeko zortzigarren Mandamentura.

1. Mandamentu onek dio: *Zortzigarrena falso testimoniorik ez altxatzea, eta gezurrik ez esatea*. Begira bada lenengo lekuan, lagun Urkoaren *kontra juizio gaiztoak egiteko* oitura izan dezun? *Juizioaren* izenez emen aditzen da lagun urkoaren gañean gauza gaiztoren bat bide gabe siñistea. Diot bidegabe; zeren bear adiña bide danean, ez da *juizio gaiztoa*. Ekusten dezu, arako neskatx ergel ura gau, ta egun mutillen ondoren dabillega, eta diozu zeregan: *urlia au ez da buru onekoa, eta onesta*. Juizio au bidezkoa da, eta beragatik ez da gaiztoa. Diot gañera sinistea; zeren lagun urkoaren kontra gauzarik itsusiena gogora etorriko baliz ere, ez da juizio egitea, sinisterik ematen

ezpazayo. Juizio gaiztoa batzuetan da bekatu larri edo mortala, nola dan lagun urkoaren onra, eta izen onari kalte andia datorkionean. Beste batzuetan da bekatu arin, edo beniala, zeren sayets guzietara begiratu ezkerro, gaya andia ez dan, eta lagun urkoaren onra, eta izen onari utsiki andirik egiten etzayon. Ala ere zu, Kristaua, oitu zaite lagun urkoaren utsegite, eta tatxak ez sinisterra, bide txit andirik ezpadezu: esazu zeregan: *ez det nik zer egin lagun urkoaren utsegitea-kin: nere buruarekin daukat zer egiñik asko. Jaunak lagun degiola bakoitzari.*

2. Begira, zeregan sinistu ote dezun, *urlia*, edo *sandia* sorgiña dala, zeren *atso arlote*, eta begigorria dan? Gaixotzen da urliaren aurra, sandiaren idi, edo beyak ez du jan nai eta dio batek: *atzo emen egon zan arako atso begi gorri ura: sorgiña izango da, eta ark gaisoturik ipiñiko zuan aurra.* Au da juizio gaiztoa. Baldin atso arlote, ta begigorri guziak sorgiñak balira, gaizki egongo lirake erriak. Tyko Brahe zan gizon txit jakintsua; baña aur denboran aditu zituan sorgiñen ipuyakin geratu zitzayon oen beldur andia. Goizean, etxetik irtetean, arkitzen bazuan atsoren bat, bereala biurtzen zan etxera, eta egun artan etzan kanpora irteten, gauza gaiztoren bat gerta zekion beldurrez.

Nork eztakus, au zala zorakeri andia? Onen anzekoak dira bada askoren sorgin-beldurrak. Jakizu, Kristaua, emengo atsoak sorgintza baño nayago lukeela bizkor-garri pixka bat.

3. Begira, erraza izan ote zeran lagun urkoaren kontra etorri zaizkitzun gogorakoai bide gabe leku emateko? Leku ematea, sinisten dezula osotoro da *jui-zioa*, eta au ukitu degu len. Leku ematea, baña sinistu gabe osotoro, batzuetan da *duda*, besteetan *sospetxa*. *Duda*, edo *enura* gai onetan da, lagun urkoaren kontrako gauzetan beñ batera, gero bestera dabillean gogorazioa, eta atzenean geratzen danean balanzan bezala. *Sospetxa* da lagun urkoaren kontrako gauzaren bat osotoro sinistu gabe, bayezkora geyago etziten, edo makurtzen danean bat. *Duda*, eta *sospetxa* gauza txit itsusiaren gañean ezpadira geyenak erakusten diguenez, ez dira bekatu larri, edo mortalak; alaere oitu zaitte zeregandik ayenatzera, esaten dezula zere barrunbean: *ez det nik zer egin besteren utsegiteakin*, nere buruarekin daukat nekerik asko. Esan det, *duda*, eta *sospetxa* gauza txit itsusiaren gañean ezpadira, geyenen iritzian ez dirala bekatu larri, edo mortalak, bidegabeak izan arren; baña gauza txit itsusietan, eta bear adiña bidegabe egiten

diranean, izango dira bekatu larriak: egin dezagun kontu: *Obispo Jaun bat Judua, edo herejea dala edo bizitza lizun, ela lotsagarria* egiten duala.

4. Begira, egotzi ote diozun lagun urkoari ez duan tatxa, edo utsegiteren bat? Zer utsegite, eta tatxa, eta zenbat lagunen aurrean?

5. Begira, ezkonzaren itzakin engañatu zenduan urliari egotzi ote diozun ez duan tatxaren bat, edo agertu ote dituzun ixilik egon bear zuen gauzak? Onelakoak nekez Zerura ditezke, zeren egin dituen kalteak desegiteko biotzik ez oi duen izan. Nai duena egin artean, emengo ditue ezkontzeko milla itz: gero damutzen zate, eta esango due bearbada: *Pu kirasa dakar*, eta esango ditue esan bear ez lirakean gauz asko, batzuek egiak, besteak gezurrak. Badator oraiñ onela engañatua izan dan oetakoren bat negarrez, eta dio: *urliak au egin dit, eta onela utzi nau galdurik*. Gutxi da itza ukatzea; baña esan ditu neretzat onelako, ta alako gauza. Gaizki egin du ark, eta bere saria artuko du denboraz betiko su, eta garren artean, ezpada zuzentzen. Baña, atozea: etzinakian, itz aek, gurasoen baimena gabe, etzuela balio munduaren aurrean? Eta oraiñ zatoz negarrez? Ark gaizki egin du, baña zuri ongi gertatu zatzu.

6. Begira, izan ote dezun lagun urkoaren utsegite txikiak andi, eta andiak are andiago egiteko oitura? Bekatu onetan erraz erortzen dira gorrotoan bizi diranak.

7. Begira, izan ote dezun oitura lagun urkoaren obra onak alde gaiztora botatzeko? Esaten dezula *obra onak dira urliak egiten dituanak, baña jakizu zer, asmorekin, eta zertako egiten dituan?* Au da agiri dan obra tatxatu ezin danean, agiri ez dan sustrayari tatxa ipintzea. Au da gauz itsusia, eta dator lagun urkoagana onginai, eta amorioa itzalia egotetik.

8. Begira izan ote dezun, lagun urkoaren tatxa, eta utsegite ixilik daudenak agertzeko oitura? jauna (esango du, oitura au duanen bateek:) ez diot iñori ere ezer *asmatu*, edo *egotzi*, Atozea, eta zeren besteri gogoak eman zion lagun urkoaren kontra itzegitea, zuk ere itzegin bear dezu era berean? *Jauna*, egia zan esan nuana. Atozea, eta zeren egia zan, mutxikatu bear dezu lagun urkoaren izen ona? Egia da, egin dituzula zuk zenbait utsegite, isilik daudenak, eta naiko zenduke oek agertzea, zeren egiazkoak diran? *Jauna bati* bakarrik esan *nion*, iñori ez esateko itzaren azpian. Atozea, eta, eztakizu, bat bakarrari esatearekin ere gutxitzen dezula lagun urkoaren onra, eta izen

ona? Etzate beraz esan bear ez etxekoai, ez kanpokoai, ez senarrari, ez emazteari. Gañera ezin zaude su ixillik, eta nai dezun besteak iñori ez esatea? *Jauna* nik esan nuan gauz ura barreatua, eta zabaldua izango zan, bada nik aditu nuan bi, edo iru lagunen aurrean. Ez da au asko gauza bat *barreatua*, edo publikoa izateko. Onetarako, jakin bear du erriaren geyenak, edo beintzat ainbestek, non sinistu ditekean, laster jakingo duela erri guzian. Orregatik ez dezun, Kristaua, gauza bat barreatutzat iduki bear, zeren bik, edo iruk dakien.

9. Begira, lagun urkoaren tatxa, eta utsegite barreatuak esan dituzun, atsegin artzen dezula? Onelako gauza barreatuen gañean itzegitea urrikaltasunez, ez da bekatu; baña gertatzen dana da, etsaiak etsaiarentzat esatea, eta aditzea atsegiñ andiarekin onelako gauzak, eta orduan izan oi da askotan bekatu larria karidadearen kontra. Anima lander, eta dolloren izena ematen die onelakoai San Franzisko Salesek.

10. Begira, lagun urkoaren gañean itzegiten asirik, esan dezun: *Nik dakidana baziñakie*, baña *nagoan isilik*: beste batzuetan: *esango banu dakidan guzia?*

Esazu madarikatua; bada itzegite orrelakoakin gauza dan baño itsusiago egiten dezu.

11. Begira, egon ote zeran lagun urkoaren onra, edo izen ona beztutzen, edo gutxitzen duen gauzak, aditzen zeregan poztutzen zerala? Enzun gai onetan esatera noana. Guraso, eta etxeetako buruak, eragotzi bear dieza gazteai lagun urkoaren kontrako erausiak egitea; bestela beren gañean ditue onela egiten dituen bekatuak. Bigarrena: ezin eragotzi badiezu lagun urkoaren kontra itzegitea, ipintzu kopeta beltz, eta edo isilduko dira, edo ezagutuko due, etzatzula agradatzen egiten duen erausia; baña au onela egin bearrean, zenbat bider atsegin andiarekin aditu dituzu lagun urkoaren kontrako gauzak? batezere arekin aserre bazera?

12. Begira, isilik gordetzeko itza emanik aditu dituzun gauzak agertu, edo esan ote diozkatzun norbaiti? Nolako gauzak, eta zenbat bider?

13. Begira lagun urkoari bere mallan zor zayon onra galdu diozun, esaten diozkatzula itz desonragarriak? Zer itz, zenbat bider, bakarrik, edo iñoren aurrean

14. Begira, norbaiti bere aurpegira esan ote diozkatzun lotsatan utziko duen gauzak, edo bereak, edo aurrekoenak?

15. Begira, etxeko, edo auzoetako pakea galerazteko gauzak esan dituzun etxean, edo kanpoan? Emendik gorrotoak, eta elkar ezin ekusia.

16. Begira, iñoren kalteko gezurrik esan dezun?

17. Begira, losentxakin laudatu ote diozkatzun urliari bere zorakeri, eta ibillera gaiztoak? Onelako losentxariak dira Satanasen erakusleak. Asko da examinarik. Goazen oraiñ, bekatariak bere ibillera, eta bizitza gaiztoarekin irabazten dituan betiko infernu, eta ango neke, su, eta garren gañean zerbait esatera.

§ II.

Bederatziurren onetan asko egia aditu dituzu, Kristaua, eta guziak egokiak, esnatzeko bekataria, bekatuaren bideak utzirik, betiko bizitzari gogoz jarraitzeko. Alaere sorra, ta gorra zaudela dirudi, bekataria, eta beragatik gauza bearra da esnagarri onen bat billatzea, eta au izango da zure begien aurrean ipin-

tzea zere bizitza gaiztoarekin irabazi, ta irabazten dituzun betiko infernua, eta ango neke, su, eta garrak.

Gaiztoak, ez du biotzik bekatutik aldegitiko, eta poztuko litzake infernurik ez izateaz, eta bearbada sayatzen da sinistra, ipuiren bat dala au. Baña alperrik; zeren gure siniste, edo fedea erakusten digun, egia dan au. Siniste berak erakusten digu ara amildu zirala Luzifer eta bere lagun gaiztoak (2 Petri c. 2. et epist. Cath. Judae):bai ta aberats kutiziziatsua.ere. (Luc. 16). Beraz bekataria, ezin ukatuko degu, fedea ukatzen ez degula, gaiztoarentzat prestatua dagoala lurpean susko lize izugarri bat *infernua* esaten dioguna. *Lurpean* diot, bada Eskritura Santak esaten digu, Datan, eta Abiron amildu zirala bizirik infernuan, askaturik beren oñpeko lurra (Num. 16). Askoren edo geyenen iritzian lurraren erdian arkitzen da lize izugarri au.

Baña nolakoa ote da toki au? S. Lukasek dionez da su, ta garrezko lize ondorik ez duana (Luc. 8, et Apoc. 20). Infernua da Satanasen toki izugarria non dauzkan bere adiskide, eta serbitzariak oñazez lertzen, eta era berean idukiko ditu betikotasun guzian. Artuko due Demonioak leoi, artz, otso suge, eta zapoen anz eta iduria, eta egingo dioe bekatari doakabeari ozka, agin-

ka, eta atzaparka: eta orroaz egongo da betiraunde guzian. Au izango da, emen artu zituan, atsegin lotsagarrien saria. Inferrua, S. Juanek dionez, da sufre urtuz beterik dagoan ainzira, edo putzu bat, non arkitzen diran animak bekatura amilderazten dituenak, dala losentxakin, dala ergelkeri, eta apaindurakin (Apoc. 21). Infernua, S. Matheok dionez, da beti sutan, eta beti goritua dagoan labe bat (cap. 13). Ango egurra, eta ikatza izango dira bekatariak berak. Infernua da atzenean toki bat, non arkitzen diran neke, eta gaitz mota guziak onaren kutsurik bage.

Baña nolakoak ote dira neke oek? Neke oek batzuek dira *kaltearen pena*. Au da Zerutik erbestetua, eta Jaunaren edertasun neurririk ez duana ekusi gabe egon bearra. Pena au da izugarriena, zeren zori on guziaren iturburua da Jaunaren edertasun baztergabea ekustea, alako eran, non S. Agustiñek dionez, begien itxi-idiki batean ura ekuste utsa asko izango litzakean infernuko neke guziak gozatzeko.

Ango beste nekeak dira sentiduai dagoztenak, eta eman oi zate *sentiduen penaren* izena. Pena onek betikotasun guzian erkiturik, eta gogaitzen idukiko du bekatari galdua. Sentidu guziak, baita oroipena, adimentua, eta borondatea ere oñaze uts biurtuak iduki-

ko ditu, baña oñaze oek ez dira berdiñak izango bekatari guzietan, baizik bakoitzak emen artu zititan atsegin gaiztoen neurrian. Ala esaten digu S. Juanek (Apoc. 18). Modestiarik ez duen begi arroak, eta ekusi bear ez lirakean gauzak ekusten ibilli ziranak, egon bearrak dira Demonioen anz, eta iduri itsusiak ekusten dituela. Itz loyak aditzen atsegin artu zuen belarriak adituko ditue adia, negar, eta madarikazioak. Sudurrak ere izango due beren nekea doakabe bakoitzak botako duan kiratsarekin. S. Buenabenturak dienez, bakoitzak an botako duan kiratsa asko izango lizake mundu guzian izurria sortzeko, zer kiratsa bada ez due zabalduko ezin konta al doakaberen gorputzak? Mingañak, eta ausapayak igaroko ditue oñaze ikaragarriak. Itz loidesonestoak esateko. oitura izan zuanari itsatsiko:zaizka Demonioak mingañetik, sugetzar itsusien irudian, inguratuko: due gorputz guzian, eta egongo da marruaz. Ordikerian bizi danari sartuko dioe autik edariaren ordeaz berun urtua, eta dragoyen beazuna: *Fel draconum vinum eorum* (Deut. 32). Doakabearen oñaze au aditzera ematen du Jesu-Kristok aberats kutiziatsua eta Lazaro eskalearen ipuyarekin. Aberatsa bizi zan era guziakin: jantzitzen zan soñeko ederrakin, eta mai ugari zuan. Lazaro gaixoa

eskean bizi zan: zauriz betea zegoan eta egon oi zan aberatsaren ateetan, aren mayetik erortzen ziran apurrakin gosea ill nayeze, baña etziazkan iñork ematen. Il zan Lazaro, eta joan zan Abrahamen aldera. Il zan Aberatsa ere, eta jatxi zan betiko su eta garren artera. Ainbesteraño oñazeak, eta egarriak estutzen zuen, non otsegiten zion Abrahami, bidal zezala arren Lazaro, urtan beatza bustirik, mingaña eza zegion piskabat: bada oñazez lerzen nago, zion garroen artean: *Crucior in hac flamma* (Luc. 16). Etzuan gauz andia eskatzen, baña ukatu zitzayon au ere. Eta mingañak, ta ausapayak onelako oñazeak igaro bearko baditue, zer igaroko ez ditu ukieraren sentiduak? Au da guzien artean zatarrena, gorputz guzian zabaltzen dana, ta atsegin lotsagarrien billa beti dabillena, eta betiraunde guzian egon bearra da artu dituan atsegiñ lizunen saria dastatzen. Demagun, urliari kako gorituakin urratzen diozkeela goyak, zeren salgai erabilli dituan, eta au bera egiten dioela esku, oñ, eta masalletan, zeren bere buruarekin, eta besteakin ukiera zikiñak egin dituan. Demagun gañera, sartzen duela, suge, ta zapoz beterik dagoan lize batean. Bereala itsasten zaizka gorputz guzitik, eta daukee marruaz. Atzenean, sartzen due goriturik dagoan burni-kutxa batean, eta

dago erretzen, eta kiskaltzen. Esan zadazu, bekataria, ez lizake urliaren neke, eta oñaze au guziz izugarria? Jakizu bada, ez dala au guzia, gero ekusi bear dezunaren gereizea ere, dio S. Juan Krisostomok. Au onela izan, eta alaere bizi zera bizi zeran bezala?

Neke oek dira bekatari galduak gorputzaren aldetik ekusi bear dituanak, eta ez dira ariñagoak izango animaren aldetik ekusiko dituanak. Oroipenak gogora ekarriko dio, Zerurako egin zuala Jaunak, baña arako bidea utzirik, bizitu zala bekatuaren bideetan: *Lasati sumus in via iniquitatis* (Sap. 5): eta ona nik irabazi dedan saria! betiko su, eta garren artean egon bearra. Adimentuak aditzera emango dio, ezer ez diran atsegin lotsagarri batzuekgatik betiko galdu duala bere burua, eta erazekiko zayo bere kontra: *Irascetur*: amorratuaren eran asiko da ozka, eta egongo da gogaitzen: *Dentibus suis fremet, et tabescet* (Psal. 111). Borondatea añ sumindua, eta ainbesteraño oñazez inguratua egongo da, non Jaungoikoaren beraren kontra aserratuko zayon. Etzayo ez egindako bekatuaz damutuko; eta damutu bearrean, ariko da beti bekatua bekatuari erantsitzen, eta al balu bukatuko luke Jaungoiko bera, bai ta doatsu guziak ere. Gorrotoaren izugarria!

Atzenean beste neke, eta oñaze guziak baño geyago estutuko du bekatari doakabea Isaias Profetak dion ar ozkariak (Isaiae c. 66). Ekusiko du zeñ andi, eta samiñak diran daramaizkian oñazeak, eta etorri zaizkala oek bere nayez. Ezagutuko du, neke, ta oñaze oek iraungo duela betikotasun guzian: eta emendik jayoko zayo gogorazio bat esaten diona *Galdu ni nere nayez! Galdu ni betiko! betiko!* Gogorazio au da Isayasek arraren izena ematen diona. Ar au ez da beñere ilko, dio: *Vermis eorum non morietur* (c. 66). Beti ozka bezala ariko zayo doakabeari. Kendu naiko du beragandik, baña alperrik, zeren berekin idukiko duan betiraunde guzian. Joango dira milloika urteak, eta asieran bezala ariko zayo ar ozkari ura. Joango dira beste milloiak, eta milloiak, eta ez dio beñere utziko gogorazio gogaikarri ark. Gogaiturik asiko da madarikatzen bere gurasoak, bere jayotzako eguna, eta bekatuan lagun izan zituanak: eta are geyago dana, madarikatuko ditu Zeruko Santuak, eta Birjiña txit Santa bera ere. Zer geyago? Madarikatuko du Jaungoikoa bera. Il naiko du bere burua, eta otsegingo die mendiai: atozte, eta erori zaitezte nere gañera, eta ler nazazue: *Cadite super nos*. Deituko dio

eriotzari, baña igesegingo du eriotzak doakabeetatik, dio S. Joane *Mors fugiet ab eis* (Apoc. 9).

Ekusten dezu, bekataria, zer irabazi degun bekatu egitearekin? Zer egin al dezakegu betiko neke, eta oñaze oetatik igesegiteko? Lenengo gauza da, lenbait len Jaunagana biurtzea konfesio on batekin. Enzuten badezu gaur Jaunaren dei, edo otsa, ez gogortu zure biotza, esaten digu Jaunak: *Hodie si vocem Domini audieritis nolite obdurare corda vestra*. Bigarrena: egin bear degu alegin guzia bekatuta biurtugabe Jaunaren grazian irauteko. Jaunaren grazian azkeneraño, edo ill artean dirauena, salbatuko da, dio Jesu-Kristok: *Qui perseveraverit usque in finem, hic salvus erit*. Ez da asko, Zerua irabazteko, arako bideari ekitea, baizik aldapari jarraitu bear zayo erpiñeraño. Irugarrena: ez dago Jaunaren grazian irauterik, uzten ezpadira bekatutako bide, eta perillak, lagun, eta etxe gaiztoak. Perilla nai duana, perillean bukatuko da, dio Espiritu Santuak. Laugarrena, ez da asko gauza gaistoetatik nolanai aldegitea, baizik gauza bearra da bakoitzak bere bizimoduan obra onak egitea, nola diran Sakramentuak sarritan artzea, Jaunaren Itza enzutea, dagozkan egin-bide, eta lanai arretaz eranzutea. Au ez egi-tera, erraz biurtuko zera leneko bekatuetara. Atze-

nean Birjiña txit Santari jayera andi bat izalea. Baldin zu, bekataria, prest arkitzen bazera gis onetan bizitzeko, zenbatere andiak, itsusiak, eta asko izan ditezkean zure bekatuak, jakizu, andiagoa dala zure Aita onaren urrikaltasuna, eta esaten dizu, ez det nai bekataria galtzea, baizik nigana biurtzea. *Nolo mortem peccatoris*. Nigana biurtzen dan unean bertan aztuko naiz egin dizkidan eskergabekeri guziaz. Zure Aita maitagarriaren ontasun au Jesus onak berak aditzera eman zigun Ebanjelioko Seme ondatzallearen ipuian. Aita batek zituan bi seme, eta gazteenak esan zion: Aita bekar niri etxetik dagokidana. Deitu zien Aitak seme biai, eta eman zien zegotena, eta gazteena joan zan urrutietara: *Peregre profectus est*: eta oi dana, Aita-gandik urruti zebillela, oitu zan atsegin lizunetara, eta ondatu zituan, Aitak emnan ziozkan ondasun guziak. Arkitzen zan arloteria andian, eta goseak igaroa. Jarri zan morronzan, baña nagusi añ prestuezarekin, non gure ezkutari ergela ipiñi zuan txerri zai. Ainbesteraño goseak estutzen zuan, non pozik jaten zituan txerriai ematen zitzaizten janariak ere; baña oetatik ere etzion iñork ematen nai adiña: *Et nemo illi dabat*. Eku-sirik gis onetan bere burua, asi zan bereganatzen, eta esan zuan: Nere Aitaren etxean morroi, ta langilleak

ere naroro, edo ugari jan oi due ogia: eta emen nago ni goseak erkitua, eta iltzeko zorian: *Fame pereo*, Zer egin al dezaket? Zer? Joango naiz nere Aita onagana, eta esango diot: Aita egin det bekatu zure kontra: *Pec-cavi in Caelum, et coram te*: ez naiz ni zure semearen izenarekin onratua izateko diña: baña ar nazazu zure langilleen artean bederik. Au beregan esan ondoan bereala abiatu zan Aitaganonz. Urrutitik ekusi zuan aitag, nola beragana biurtzen zan semea: irten zitza-yon bidera, eta azturik egin ziozkan bidegabeaz, eman zion pakezko musua. Asi zan semea bere beka-tuaren aitormena egin nayez, baña etzegoan Aita iga-roari begira egoteko: agindu zuan, ekarri zegioela leneko janziera ederra: ipiñi zegioela eraztuna, eta oñetakoak ere bai. Illerazo zuan zekor gizen bat: era-karri zituan kantari, eta soñulariak, eta egin zuan festa andi bat. Aditzen dezu, Kristaua, zeñ on, eta urri-karitsua dan gure Aita Zerukoa? Eta au guzia esaten digula Jesu-Kristok berak? (Luc. 15). Eta aditurik au guzia, ez ote gera Aita onegana biurtuko? Ea, alai zaite, eta zoaz beragana, eta seme ondatzallearen eran esan zayozu: Aita egin det bekatu zure kontra: *Peccavi*. Egin det bekatu eziñ konta al bider, eta iraba-zi ditut betiko su, eta garrak: eta alaere itxedon dida-

zu zuk, eta oraiñ bertan eskeintzen didazu nere bekatu guzien barkazioa, eta nerekin añ ona bazera, zeñ on, eta maitagarria etzera izango zeregan? O Ontasun neurri, ta mugarik ez dezuna! Zure kontra egin nik ainbeste bider bekatu? O Aita maitagarria! Damu det biotz guzitik: il baninz lenago! Damu det, eta artzen det asmo osoa, bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta Zu Ontasun baztergabea serbitzeko: onela iristeko nere bekatuen barkazioa, eta betiko bizitza. Amen.

EMEN IPIÑI DAN, BEDERAURRENAREN ONDOREN EGIN DITEKE URRENGO ITZALDI, EDO PLATIKA

*Ego Protector tuus sum,
et merces tua magna nimis. Genes. 15.*

Izugarriak dira, nere Kristaua, bederatziurren onetan aditzera eman diran egiak, batezere azkeneko egunean ukitu ziranak, itz egin genduan alabaña, bekatariak bere ibillera, eta bizitza gaiztoarekin irabazten dituan, betiko su, eta garren gañean. Aditu zenduan orduan, neke oetatik iges egin nai duanak lenbait len biurtu bear duala bere biotza bere Jaunagana, eta alegin guzia egin bear duala Jaunaren grazian irauteko: utzi bear ditu betiko bekatuak bide, eta perillak, etxe, eta lagun gaiztoak: benaz ari bear du obra onetan, nola diran Sakramentuak sarritan artzea, Jaunaren itza enzutea, dagozkan egin-bide,

eta lanai arretaz eranzutea, eta Birjiña txit Santa bekatarien Ama maitagarriari jayera andi bat izatea. Zuk, nere Kristaua, ezagaturik, zeñ gauz itsusia dan gure Jaun, eta Jaungoikoa bekatuarekin utzitzea, eta zeñ ondoren samiñak datozkion emendik bekatariari, egin dezu alegiña Jaunagana biurtzeko, eta erabaki dezu esan ditugun neurri oek artzea benaz, eta arreta andiarekin, Jaunaren grazian irauteko: baña zer gertatu oi da? Banakaren batzuek ez, beste guziak bekatu- ra biurtzea, eta bearbada len baño ere geyago beka- tuaren bideetan amiltzea. Au gertatzen da, zeren alde batetik lagun gaiztoak, eta bestetik bere gura txarrak estutzen duen bekataria, eta izutzen duan beti oen kontra guda, edo gerran ari bearrak. Au bera zuri ere gertatuko zatzu, Kristaua, Zerurako bidean arkituko dituzun nekeak izutzen bazaitue. Baditu bide onek bere aldapak, baña andiangoak dita bekatuarenak. Zerurako bidean arkitzen diran nekeak arintzen, eta gozatzen ditu Jaunaren laguntzak, eta berak esaten dizu Abrahami esan ziona: Ni naiz zure laguntzallea: *Ego protector tuus sum*; baña bekatuaren bidean dabillanak ez du onelako gozagarririk arkitzen, eta gozagarrien lekuan arkitzen ditu aranza, eta illunta- sun izugarriak. Zerurako bidean gogoz dabillanak,

begiratzen dio, Jaunak agintzen dion sari andiari, eta aditzen du, Jaunak diola: Ni nerau naiz zure sari, txit andia, edo andiegia: *Et merces tua magna nimis*, eta alaitzen da Zerurako bideari jarraitzeko: baña bekatuaren bideetan bizi danak ekusten du begien aurrean betiko su, eta garren lize izugarria, eta ara dijoala ezaguturik, beazun biurtzen zaizka emengo atsegin guziak. Izutu etzaitezen bada zu, Kristaua, Zerurako bidean igaro bear diran nekeakin, itzegin nai dizut gaur, Jaunak zuretzat prestatu duan sari miragarriaren gañean. Enzun, Kristaua, arreta andiarekin.

* * *

Eraman zuan beñ Jaunak S. Paulo Apostolua Zerura, eta erakutsi ziozkan ango zenbait gauza miragarri, eta andik etorri ondoan etziakian zer esan, eta arrituaren eran zion: *ez begiak ekusi, ez belarriak aditu, ez gizonaren adimentuak iritsi du, nolako ondasunak, eta saria prestatu dituan Jaunak bera amatzen duenentzat* (1.^a ad Corint. c. 2). Emendik igerri dezakezu, guziz andi, eta miragarria dala zuretzat Jaunak prestatu duan saria, baña are obeto au bera ezagutuko dezu, begiratzen badezu, nolako tokia prestatu dizun:

nolako zori ona gorputzarentzat, eta nolakoa animarentzat.

Nolako tokia ote da, Jaunak prestatu dizun au? Au da Zeruko Jerusalem. Erri onetan dauka Trinitade guziz Santak bere jarleku, edo tronua. Erri onetan bizi da gure Salbatzalle Jesus maitagarria, eta Birjiña txit Santa gure bitarteko, eta Ama gozoa. Erri onetan Aingeru, ta anima on guziak. Erri onetan bizi eta biziko diranak guziak izango dira Jaungoikoaren beraren Semeak: *filius Excelsi*, eta oetatik bakoitza munduko erregerik andiena baño andiagoa izango da.

Erri onen anditasunak ez du muga, eta neurrik. Zori oneko bakoitzari emango zayon lekua lur guzia baño andiagoa izango da. Orregatik arrituaren eran dio Baruk Profetak: O Israel, zeñ andia dan Jaunaren etxea, eta beraren ondasunen tokia! *O Israel, quam magna est domus Dei, et ingens locus posesionis ejus!* Andia da bai eta ez du bukaerarik: *Magnus est et non habet finem* (c. 3).

Andia dan eran ederra da erri au. Erakutsi zion Jaunak S. Juan Ebanjelistari edertasun au: eta ekusi zuana guri adirazteko, baliatzen da Santua emengo arri eder, urre, eta kristalen izenaz, ez zeren an arkitzen diran gauz oek, baizik zeren oen edertasunak

laguntzen duan, igerritzeko, nolakoa izango dan Zeru-koa. Jarri, zaite, Kristaua, gau argi, batean Zeruari begira. Zeñ eder, eta apaindua ez dezu ekusiko? Zer ote da zuk ekusten dezun toki eder ori? Ori ez da zure erriaren ataria baizik. Zoaz gorago, eta arkituko dituzu zure erriaren murallak, eta arriturik geratuko zera oek ekustean. Amabi arri-errenkada guziz ederrekin altxatua dago muralla au. Lenengo errenkada da jaspe añ garbia, non kristalari bezala igarotzen zayon argia. Bigarren errenkadak du Zeru-kolorea, eta S. Juanek deitzen dio *Safiro*. Irugarren errenkada da brasa erazekiaren anza duana, eta deitzen dio S. Juanek *kalzedonio*. Laugarren errenkada da *Esmeralda*. Bostgarrena zurigorria, eta deritza *Sardonix*. Seigarrena da, *Sardio* deritzan, arri eder bat. Zazpigarrena da urrearen kolorea duana, eta deitzen dio S. Juanek *Krisolito*. Zorzigarrena da berde-anzekoa, eta deitzen dio S. Juanek: *berilo*. Bederatzigarrena da *topazio*, berde, ta oria. Amargarrena *Krisofraso*, urre-anza duana. Amaikagarrena *jazinto*, jazmin kolorea duana. Amabigarrena *Amelisto*, argi egiten, eta distiatzen duana alde guzietara. Arri-errenkada bakoitzak izango ditu milloika leguak, eta alaere arri osoakin egiña da: iga-

rotzen zate batetik bestera argia, eta distiatzen due era miragarrian.

Eta erriaren murallak añ eder, eta zoragarriak badira, zer ta nolakoa izango da erria bera? Sar zaite muralletatik aurrera. Ekusiko dezu Jaunak bere adiskideentzat egiña daukan bizi-leku miragarria. Erri au lau eskiñakoa da, dio S. Juanek: *Civitas in quadro posita est*: lau alde berdiñak ditu, eta bakoitzean iru ate. Ate bakoitza *margarita* deritzan arri ederrarekin egiña da, ez puskaka, baizik arri osoarekin, eta ezin adirazi ditekete, nola distiatzen duen amabi ate oek. Beti daude idikiak Jaunaren graziaren soñekoarekin dijoazen guzientzat. Zoaz ate oetatik barrena, zer ekusiko dezu? Ekusiko dezu, erri guzia dala urre garbi, ta kristalaren eran argi egiten duana, S. Juanek dionez: *Ipsa vero civitas aurum mundum, simile vitro mundo*. Ekusiko dezu, erria ezezik kale, eta plazak ere, era berean urre uts, eta garbia dirala: *Et platea civitatis aurum mundum*. Ekusiko dezu Jaunaren bildotsaren, edo Jesusen jarlekutik zabaltzen dala ibai bat erri guzia umantzen duana. Ibayaren alde bietatik daude bizitzaren arbolak, eta oek illoro emango ditue fruta berri, eta gozoak, añ indar andikoak, non ayenatuko litukeen eritasun guziak, eta eriotza bera ere, baldin one-

lako gauzarik an izan baliteke. Ekusiko dezu atzenez, erri ark ez duala eguzkiaren, illargi, eta izarren bearririk, zeren Jaunaren bildots Jesus maitagarria dan ango eguzki, eta argia: *Civitas non eget sole... et lucerna ejus est agnus* (Apoc. 21). Ekusten dezu, Kristaia, nolako tokia prestatu dizun Jaunak? Begira orain, nolako zori ona prestatua daukan zure gorputz orrentzat.

Gorputza animaren laguna da, onek Zerurako bidean egiten dituan obra on guzietan. Orregatik emango dio Jaunak dagokan zori ona, apaintzen duala janziera guziz ederrarekin, eta betetzen atseginkontentu garbiakin.

Apainduko du bai Jaunak doatsuaren gorputza janziera guziz ederrarekin, edo lau doairekin. Lenengo doaya da argitasuna. Añ argi, ta ederra geratuko da doatsuaren gorputza, non eguzkiaren eran argi egingo, eta distiatuko duan, S. Mateok dionez: *Tunc justi fulgebunt sicut sol.* (Math. 13). Eta S. Agustiñek dio, eguzkiak baño azkoz geyago argi egingo duala. Bigarren doaya: len ilkorra zan gorputza ez ilkor egitea. Alako sasoyan geratuko da doatsuaren gorputza, non ez beroak, ez otzak, ez puzorik gaiztoenak, ez eritasunak, ez eriotzak kalterik egingo dioen. Ala esaten digu

S. Juanek: *Mors ultra non erit, neque luctus, neque clamor, neque dolor erit ultra* (Apoc. 22). Irugarren doaya: len añ astuna zan gorputza, añ ariña geratuko da, non begien itxi-idiki batean joan litekean noranai, gogorazioaren eran. Au aditzera ematen digu Isayasek, dionean, artuko ditue egoak arranoak bezala, egatuko dira, eta ez dira aunatuko: *Asument pennas, sicut aquilae, ambulabunt, et non deficient* (Isayae 40). Laugarren doaya: añ me, ta garbi geratuko da gorpotza, non ezerk eragotziko ez dion nonnai sartzea, eta nondiknai irtetea. Ala Jesu-Kristo sartu zan Apostoluetara, oek zeuden etxeko atea itxiak arkitzen baziran ere. Lau doai oekin apainduko du Jaunak doatsuaren gorputza. Janziera au ez da beñere zartuko, ez urratuko, eta onen aldean itsusiak dira emengo janziera guziak.

Ez da kontentatzen Jauna doatsuaren gorputza añ argi, ta eder ipintzearekin, baizik bete, edo aseko du atsegin, eta kontentu garbiz. Zure begiak, Kristaua, nekatzen dira oraiñ, bekaturako bidea dakarten gauzai ez begiratzean; eta neke pixka onegatik emango die Jaunak sari txit andia. Ekusiko dezu Jaunaren erriko edertasun guzia. Añ andia da au, non ekusiko bagendu, ez giñake oroituko jateaz, ez edateaz, S.

Bizente Ferrerrek dionez. Ekusiko dituzu ezin konta al doatsu, Eguzkiaren eran argi egingo duenak. Milloiak, eta milloien milloiak izango dira doatsu oek, eta bakoitzak Eguzkiak bezala argi egingo badu, nork esan, nolako atsegiña izango dan zure begientzat oen edertasuna ekustea? Ekusiko dezu Birjiña txit Santa Jaungoikoaren, eta zure Ama maitagarria bere Semearen aldean, añ ederra, non pozik emengo neke guziak igaro gintzakean bera ekuste utsagatik. Eta zer izango da Jesus ekustea?

Zure belarriak, Kristaua, nekatzen dira, itz loiak, ipui desonesto, eta lagun urkoaren kontrako eleberririk aditzeko bidetik kentzen dituzunean; baña neke onegatik betiraunde guzian egongo dira atsegin, eta pozez lilluratuak bezala, Aingeruen soñu eta kantak enzuten. S. Franzisko Asis illuntasun, eta tristuraz betea arkitzen zan beiñ. Agertzen zayo Aingeru bat txerrebata batekin, eta Santua alaitzeko, asitzen da soñua jotzen, añ gozotoro, non ilko zan pozez, utzi ezpalu Aingeruek soñua jotzea. Ez dira aspertuko zure bellarriak Aingeruen soñu, eta kanta gozoak aditzez, eta milloika joango zaizkitzu urteak, denbora-apur bat baizik ezpalira bezala. Au ederki adirazten digu Leiren Nafarroako erreñuan, gertatu zan mirari batek. Dabi-

dek kanta batean dio: *Jauna, milla urte zure begien aurean, atzo igaro zan, eguna bezala dira* (Psalm. 59 v. 41). Leireko Erlijioso batek ezin aditu zuan, zer esan nai zuen Dabiden itz oek, eta erregutu zion Jaunari, aditzera eman zegiola Dabidek itz aetan zionaren eza-guera. Konbentuaren aldean aditu zuan Karnau, edo beste txoriren baten kanta txit gozoa, eta kanta oni zerraikala, sartu zan basoan barruna. Geroago, eta gozoago zeritzan kantari. Iru ordu bezala bere ustean igaro zituan txoria aditzen. Biurtu zan Konbentura, eta arriturik geratu zan, ekusirik, etzala Konbentua lene-koa, ez eta Erlijiosoak ere. Abade, edo buru zanak gal-detu zion, noiz irten zan Konbentutik? Eranzun zion: iru ordu bezala izango zirala. Galdetu zion berriz: nor zan orduan Konbentuko buru? Urlia, esan zion. Eta nola da zure izena? Esan zion bere izena. Orduan begi-ratu zituen Konbentuko liburuak, eta ekusi zuen iru-reun urte zirala, Erlijiosoak zion urlia ura Konbentu artako buru zala: eta an ukitzen zan, nola Erlijioso bat korutik irten zan, eta geroz aren berririk etzan izan. Arriturik geratu ziran guziak. Agindu zuan Abadeak, ekarri zegioela Jauna Erlijioso ari: artuta bereala il zan. Orra, Kristaua, nola milloika urteak joango zaizkitzun, Aingeruen soñu, eta kantak aditzen batere aspertu

bage. Begi, ta belarriak bezala, gañerako sentiduak ere atsegin garbiz beteko ditu Jaunak. Eta onelako zori ona prestatu badu Jaunak gorputzarentzat, nolako prestatuko zuan animarentzat? Au da oraiñ al degun bezala begiratu bear deguna.

Ni, ni nerau naiz, esaten dizu Jaunak; ni zure lagunzallea, ni zure sari andiegia: *Ego Protector tuus sum, et merces tua magna nimis*. Itz oetan Jaunak aditzera ematen dizu zure animaren zori on, edo doatasun guzia. Ozta zure anima bere Jaunagana joango da, agertuko dizu bere izate guziz eder, eta maitagarria. Agertuko dizu, nola dan Jaungoiko bat bakarra, eta denbora berean iru Persona, Aita, ta Semea, ta Espiritu Santua. Agertuko dizu, nola Semea betiraunde guzian jayotzen dan Aitaren adimentutik, eta nola Espiritu Santua datorren Aitagandik, eta Semeagandik. Agertuko dizkitzu bere edertasun, eta perfekzioak, eta munduan izan, eta izango diran Teologo guziak baño jakintsuago egiña arkituko zera. Ni naiz esango dizu, zure zori on, eta saria: *Ego merces tua magna nimis*. Edertasun baztergabe ura dakusanean, nolako geratuko da zure anima? Amatuko du biotz guzitik, eta añ sendoro, non amatzez aspertuko ez dan betikotasun guzian. Ekusiko du, edertasun baztergabe ura

duala bere saria, beti-betiko, eta galtzeko perillik gabe. Emendik zure anima bete, ase, eta inguratuko due alde guzietatik, Jaunaren edertasunak bidalduko diozkan, atsegin, eta kontentuen ujolak. Orregatik esaten digu S. Juanek, erakutsi ziola Jaunak, nola beraren jarleku, edo troinutik jayotzen zan ur biziaren ibai bat: eta ibai onek aditzera ematen ditu Jaunaren edertasunagandik doatsuai datozkien atsegin ugariak. Jauna, zure etxeko ondasun, eta atsegin-kontentuen ugaritasunak aseak, eta ordiak bezala utziko ditu doatsuak, esaten zion Dabidek Jaunari: atsegiñen ujolak alde guzietatik inguratuko ditue: *Inebriabuntur ab ubertate domus tuae: et torrente voluptatis luae potabis eos* (Psalm.35). Orra, nere Kristaua, nolako zori ona prestatu dion Jaunak zure animari.

Bildu itzazu oraiñ aditu dituzun gauzak itz gutxi oetara: nolako tokia prestatu dizun Jaunak: nolako zori ona gorputzarentzat, eta nolakoa animarentzat, eta ezagutuko dezu, andiegia dala Jaunak bera amatzen duenentzat prestatu duan saria: *Merces tua magna nimis*. Atozea, eta sari oni begiraturik, ez ote zera alai-tuko Zerurako bidean, Jauna amatzeko, eta serbitzeko egin bear diran gauzak egiteko? Ez ote diezu leyalki eranzungo, bederatziurren onetan egin dituzun asmo

onai? Jaunari nai dakiola, onetarako lagunza ugariak
guri ematea, eta guziok iristea betiko bizitza doatsua.
Amen.

**LENENGO PARTEAN AGINDU NUAN,
IPIÑIKO NITUALA BAT, EDO**

**BI ITZALDI,
EDO PLATIKA
LENENGO KOMUNIOKO
EGUNEAN
AURRAI EGITEKO**

AU EGITERA NOA ORAIÑ

AURRAI LENENGO KOMUNIOAREN AURRETIK EGINDAKO ITZALDI, EDO PLATIKA

*Venite, comedite panem meum, et bibite vinum, quod mis-
cui vobis. Prov. 9.*

Lenengo Komunioaren egun andi onetan deitzen dizue, nere aurrak, Errege guzien Errege Jesus maitagarriak. *Atozte, esaten dizue, atozte, jan ezazue nere ogia, eta edan ezazue zuentzat prestatu dedan nere ardoa.* Ardo-ogi oek dira Jesus beraren gorputza, ta odola, eta oekin batean bere anima, ta Jainkotasuna: itz batean bera dan guzia: eta agintzen dizue betiko bizitza doatsua: ogi au jaten duana, dio, biziko da beti. (Joan. 6). Arriturik geratzen da S. Agustin, eta dio: *izanik gure Jaungoikoa Guzieldun, edo Omnipotentea, ezin eman duan baño geyago eman izan zuan: izanik ezin geyagoraño jakintsua, etzuan jakin zer geyago guri eman: eta izanik ezin geayagoraño aberatsa, etzuan izan zer geyago guri eman (Tracta. 26 in Joan).* Eta zer eskatzen ote du Jesus onak zuen aldetik? Eskat-

tzen du benik beñ batayoko egunean eman zinduen itzak berritzea. Eskatzen du urrena itz oek leyalki gordetzea. Bi gauz oek ukituko ditut oraiñ. Enzun arretarekin.

§ I.

Zuk, aurra, batayoko egunean agindu zenduan, Jesusen lege eder garbia gordetzea. Alaere etzinduan Eliz Ama Santak bereala artu nai izan bere umeen artean. Bazekusan, prest arkitzen zirala iru etsai zure animaren kontra, eta ez dala gai, edo gauza Zerurako, oek garaitzeko biotzik ez duana. Orregatik galdetu zizun: *Urlia: Abrenuntias Sathanae?* Esan nai det: gaurdanik betiko uzten dezu Satanas, eta Satanasekin beraren lagun, eta langilleak, zeñak diran mundu galdua, edo munduan bizi diran gaiztoak, eta aragiaren gura txarrak? Ez, edo bai? Bai, Jauna, eranzun zenduan: beti-betiko uzten ditut: *Abrenuntio*. Urlia, esan zizun berriz: *Et omnibus operibus ejus:* au da, gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen lan, eta obra guziak, nola diran bekatua, eta bekatuaren bideak? Ez, edo bai. *Bayetz* eranzun zenduan, beti-betiko

uzten ditut: *Abrenuntio*. Urlia, esan zizun berriz: *Et omnibus pompis ejus?* Gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen arrotasun, eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean, eta beste gastuetan, dala atsegin, eta jolasetan? Bayetz eranzun zenduan, beti-betiko uzten ditut: *Abrenuntio*. Etzan onenbesterekin ere kontentatu Eliz Ama Santa, eta egin zuan Jedeonek Israeldarrakin egin zuanaren anzeko gauza bat. Madiantarrak altxa ziran Israeldarren kontra. Jedeon zan Israeltarren Burua, eta bereala bildu zituan ogei, ta amabi milla gerrari, baña Jaunak aditzera eman zion, andiegia zala talde ura, eta beldurti guziak bidal zitzala eren etxeetara. Itzegin zien Israeldarrai, eta esan zien Jaunaren agintez: etsayaren kontra guda egiteko beldur ziranak, biur zitezela beren etxeetara. Gauz arritzekoa! Ogei ta bi milla biurtu ziran eren etxeetara, zeren biotzik etzuen Madiantarren kontra peleatzeko. (Judic. 7.^o). Era onetan Eliz Ama Santak esan zizun zuri batayoko egunean: *Urlia, Vis baptizari?* esaten bazizun bezala: aditu dezu, utzi bear dituzula beti-betiko Satanas, eta beraren lagunak, zeñak diran mundu galdua, edo munduan bizi diran gaiztoak, eta aragiaren gura txarrak. Aditu dezu, utzi bear dirala betiko bekatua, eta bekatuaren bideak, baita

Satanasen arrotasun, eta zorakeriak ere dala janzian, janean, edanean, eta beste gauzetan, dala atsegin, eta jolasetan. Esazu oraiñ: au guzia adituta ere artu nai dezu batayoko Sakramentua? Ezpadezu biotzik iru etsai oen kontra gerra egiteko, zoaz zere etxera. Eta zer eranzun zenduan zuk? Eranzun zenduan, artu nai zenduala: *Volo*. Orra, zer gisatan artu zinduan Eliz Ama Santak bere umeen artean: eta orra zer itzak eman zinduan batayoko egun andian. Etzinduan zero-rrek eman, zeren aur ezaguera bagea ziñan, baña zure orde, eta izenean au guzia agindu zuen Aita, ta Ama pontekoak, edo orduan zure aldean arkitzen ziranak, eta beartua zaude leyalkiro gordetzera egun artan emandako itzak, eta besterik esatea debekatua dago exkomiku nagusiaren azpian. *Anathema sit* (Triedet. ses. 7 can. 12, 13, et 14 de Baptismo). Batayoko egunean emandako itzak berritzea nai du zure animaren Errege Jesus onak, ta au egin diteke, eta egiten due anima onak denbora askotan, batzuek onaren, eta gaitzaren ezagueran sartzen diranean, zeren guraso onak dituen: besteak Konfirmazioko Sakramentua artzen duenean; besteak batayoaren urte betean; batzuek konfesatzen diranean, eta besteak beste denboretan; baña egun txit egokia da lenbiziko

Komunioarena, orduan dator alabaña Errege guzien Erregea animaren jabe egitera, eta bidezko gauza da animak bere aldetik agintzea leyaltasun guzia, batayoko egunean agindu zuan eran, berritzen dituala orduan emandako itzak. Dakuskun oraiñ nola eskatzan duan, itz oen gordetzea.

§ II.

Gutxi da Errege bati itzez leyaltasuna agintzea, bere Erreñuaren jabe egiten danean, aginduari ezpazayo eranzuten ongi, eta zer izango lizake ongi eranzun lekuan, beraren kontra altxako bagiña: Gisa berean gutxi da Errege guzien Errege Jesus onari batayoko egunean eman ginduan itzetan gauz andiak agintzea, aztutzen bagera oei eranzuteaz.

Agindu genduan orduan, beti-betiko uztea Sathanas, eta beraren lagun, eta langilleak; oek dira mundu galdua, edo munduan bizi diran gaiztoak, eta aragiaren gura txarrak. Au ez egitera, autsiko dezu Jesusen Lege ederra, eta batayoan eman zenduan itza, eta galduko zera betiko. Baldin lagun gaiztoetatik aldegiten ezpadezu, laster ikasiko dituzu aen gaiztakeriak:

eta zere griña txarrai jarraitu nai badiezu, amilduko zera sarritan bekatuaren loyetan.

Agindu genduan gañera, aldegingo genduala beti-beti bekatutik, eta bekatuaren bideetatik. Perilla nai duana; *perillean bukatuko da*, dio Espiritu Santuak. Orregatik aldegin bear degu arret-andiarekin onelako bideetatik.

Agindu genduan azkenean, beti aldegingo genduala Satanasen arrotasun, eta zorakerietatik janzian, janean, edanean, gastuetan, eta atsegin, ta jolasetan. Itz onezaz aztu da mundua, eta ekusten dira ezin esan litezkean modu itsusiak. Au guzia egiteko itza eman genduan batayoko egunean, eta gaur berrituko degu orduan agindua, eta berritzeaz gañera arreta andiarekin egin bear degu: eta Jaunak bere aldetik ez digu ukatuko agindu diguna, au da emen bere lagunza, eta gero betiko bizitza doatsua. Amen.

EMEN IPIÑIKO DET BESTE ITZALDI, EDO PLATIKA BAT EZ ESATEAGATIK LENA BERRIZ, ETA BERRIZ LENA

*Ego Protector tuus sum, et merces tua magna nimis. Genes
15.*

Errege bat bere erreñuaren jabe egiten danean, juramentuarekin agindu oi zayo, leyaltasuna gordetzea, eta beraren aginduak egitea. Egun andi onetan, nere aurrak, Errege guzien Errege Jesus maitagarria zuetara etortzeko dago zuen biotzaz jabe egitera, eta nai du zuek berritzea batayoko itzak, eta oek leyalkiro gordetzea. Onetarako utzi bear ditugu beti-betiko Satanas, eta beraren langilleak, zeinak diran munduan bizi diran gaiztoak, eta ukatu, ta ilduratu bear ditugu gure griña txarrak. Utzi bear ditugu bekatua, eta bekatuaren bideak: eta atzenean Satanasen arrotasun, eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean, eta beste gastuetan, dala atsegin, eta jolasetan. Egiteko au da Kristauaren lanik andiena; eta alaitasuna-

rekin ari zaitezten onetan esaten dizue: Ni naiz zure laguntzallea: eta zure saria izango da guziz andia. *Ego Protector tuus sum, et merces tua magna nimis.* Sari onen gañean itzegin nai dizuet zerbait. Enzun arreta-rekin.

§ I.

Fedeko egia da, egin zuala Jaunak gizona bera amatzeko, eta betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izateko. Ala erakusten digu Kredoak, eta uste onekin ainbeste milloi Martirik eman du bizi-tza Jaunaren onran, eta ezin konta al animak iges egin due munduko perilletatik, eta ezkutatu dira eremuetan. Baña nolakoa ote da Jaunak zuentzat prestaturik daukan, sari andia? Ez da erraz guk adiraztea, ez eta ezagutzea ere. S. Pablo eraman zuan Jaunak Zerura: andik etorri zanean, etziakian zer esan, ango bizi-tza doatsua adirazteko, eta arrituaren eran zion: *Ez begiak ekusi, ez belarriak aditu, ez gizonaren adimentuak iritsi du, nolako ondasunak prestaturik dauzkan Jaunak bera amatzen duenentzat* (1 ad Corint. c. 2). Baña onenbesterekin ez degu igerritzen ongi sari

onen anditasuna, eta biderik errazena onetarako izango da begiratzea, nolako bizilekua prestatu dizuen: nolako zori on, eta doatasuna gorputzarentzat, eta nolakoa animarentzat.

Doatsuentzat Jaunak prestatu duan bizilekua dira Zeru eder oriek. Andiak dira, eta nolerebait esan ditek, ez duela bukaerarik: O Israel zeñ andia dan Jaunaren etxea! eta beraren ondasunen tokia! andia da bai, eta ez du bukaerarik (Baruch. c. 3). dio Baruk Profetak. Zer esango det beraren edertasunaz? Erakutsi, edo agertu zion Jaunak S. Juan Ebanjelistari edertasun au: eta ekusi zuana guri adirazi nayez, baliatzen da Santua emengo arri ederren, urrearen, eta zillarraren izenaz. Jarri zaite gau argi batean Zeruari begira. Eku-siko dezu, zeñ eder dirudian: eta arriturik geratuko zera, oroiturik guretzat egin dituala Jaunak onelako lekuak: baña jakizu, emendik ekusten ditugun goi eder oek ez dirala zure erri, ta bizilekuaren ataria baizik. Zoaz gorago, eta arkituko dituzu Zeruaren mura-llak. Amabi arri-errenkada [...]

NOTA. Aquí dejo de concluir el Autor.